Euskal Autonomia Erkidegoa

MEMORIA

Sozioekonomikoa 2014

CES EGAB

Consejo Económico y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea

URTE ZAILA IZAN DEN ARREN, JARDUERAK ETA ENPLEGUAK GORANZKO JOERA IZAN DUTE

Batzordeko Osoko Bilkurak ekainaren 26an egin zuen bileran 2014ko Memoria Sozioekonomikoa onetsi zen, Erregelamenduan ezarritako epeen barnean, eta dagoeneko Eusko Jaurlaritzaren, Eusko Legebiltzarraren eta gizarte zibilaren esku dago, EGABk alde ekonomikoen eta sozialen 2014ko bilakaerari buruz duen ikuspuntua zein den jakiteko. Hainbat hiletan gogor lan egin dugu, pasa den urteko abendutik batzordeak memoriaren egitura eta egutegia finkatzeko aurretiko lanak abiarazi zituenetik. Eztabaidatzeko eta elkar ulertzeko hileak ere izan dira, berez kontu handiz jorratu beharreko gai komunetan jarrera komunak lortzeko. Izan ere, krisiak zaildu egin ditu gai horiek, eta horretarako, batzordeko kideek eztabaida irekia izan behar dute, non entzutea baita osagai nagusia.

Hortaz, Memoriaren Batzordea osatzen duten pertsonei eskerrak eman nahi dizkiet hitzaurre honetan, memoria egiteko pisua eraman baitute eurekin. Inmaculada Gallastegui batzordeburuari eta batzordeko kide guztiei: Antxon Tomasena, Mari Cruz Vicente, Maribel Ballesteros, Raúl Arza, Pablo Martín, Jaime Fernández, Virginia Múgica, Ana García, Mikel Ruiz, Pedro Martínez de Alegría, Javier Muñecas, Juan Luis Martínez Ordorika, Pedro Luis Ustarroz, Lore Bilbao eta Jon Barrutia. Eta azkenik, baina ez horregatik garrantzi gutxiagorekin, Azterlan eta Proiektuen arduradunei, Leire Ozerin eta Arantza Unzurrunzaga, memoria idaztearen garrantzi materiala izan baitute eta euren esperientzia eta ezagutzarekin lanen koordinazioa erraztu baitute.

EGABk, memoriaren bidez, azterketarako tresna baliotsua eta baliagarria ematen jarraitzen du, zeren eta euskal gizartearen ekonomi eta gizarte bizitzaren erradiografia egiten baitu iturri ofizialetatik hartutako datuak oinarri hartuta. Gainera, uste dut, gaur egun bizitzen ari garen krisi honetan, bereziki garrantzitsuak direla lan-merkatuari, bizi-baldintzei eta gizarte babesari buruzko kapituluak; izan ere, zenbait pertsonek dituzten zailtasunak eta egoera horiek leuntzen saiatzeko abian jarritako neurriak islatzen dituzte.

Erakunde aholku-emaile honetan dauden erakundeen adostasuna eta jarrera komuna lortzeko ahalegina islatzen dira txosten hau egiteko prozesuan, hau da, gizarte zibil antolatuko ordezkarien eta ekonomi eta gizarte eragileen adostasuna. Euskal Autonomia Erkidegoko egoera sozioekonomikoaren gaineko baterako gogoeta eta diagnostiko

partekatu horiek are gehiago izan behar dira aintzat kasu askotan kontrako interesak dituzten erakundeetakoak direlako eta, beraz, gatazkan sar daitezke, are gehiago krisi ekonomikoaren ondorioz bizi izaten ari garen garaian. Horrexegatik, eskerrik onenak eman nahi dizkiet hori guztia ahalbidetu duten batzordekide guztiei, elkarrizketarako eta adostasuna lortzeko aurretiazko jarreraren alde egin baitute.

Orain, memoriaren edizio honetan jasotako alderdi garrantzitsu batzuk azaldu nahi dizkizuet.

Ekonomia: Hazkundera itzultzea

Gaur egungo egoeran ahultasunaren eta ziurgabetasunaren zantzuak agerian egon arren, jarduera ekonomikoa apurka-apurka haziko dela erakusten digun inflexio-puntu batean gaude. 2013. urtean hasitako susperraldiak aurrera egiten jarraitzen du eurogunean, eta Espainian sumatzen den egoerari erreparatuz gero, badirudi jarduera ekonomikoa suspertu egingo dela.

EAEri dagokionez, uneko egoerari buruzko informazioak berretsi digu susperraldira itzuliko garela eta barneko eskariak gora egingo duela; hain zuzen ere, enplegua berreskuratzeko, euskal enpresa eta familien palanka-efektuaren desagerpenerako, finantzatzeko kostuaren murriztapenetarako, kanpoko sektorearen bulkada-efekturako eta konfiantzaren berrezarpenetarako joerak eusten dio horri.

Susperraldiko testuinguru honetan, EGABk euskal enpresa sarearen dimentsioagatik kezkatuta dagoela adierazi du; izan ere, horri buruz hausnartzeaz gain, jardutea ere beharrezkoa da. Uste dugu politika publikoak, bereziki, berrindustrializaziora zuzendu behar direla, eta, horretarako, krisialdiaren aurreko garaian industria-sektoreak BPGan zeukan kuota berreskuratzea izan beharko litzateke jomuga.

Enplegua: Behin-behinekotasunak eta lanaldi partzialak gora egin dute

2009. eta 2013. urteen artean, ia-ia ehun mila lanpostu galdu ziren Euskadin, kopuru osoaren % 10. Gero, 2014. urtean inflexio-puntu positibo bat sortu zen, nahiz eta sortutako enplegua behin-behinekotasunagatik zehazten den; izan ere, 2014. urtean sinatutako kontratuen % 5ek bakarrik izan zen mugagabea. Gainera, kontratazio partziala ere ageri da, krisiaren aurreko egoera bikoiztuz, eta langabeziaren eboluzio negatiboa ere bai, biztanle aktiboen zenbatekoak gora egin baitu.

Euskadin, langabezia tasa % 15etik hurbil dago, eta epe luzeko langabezia (langabeak % 57,4 izatetik % 65 izatera iritsi dira 2013. eta 2014. urteen artean) eta langabezia-prestazioen epeak amaitzea ugaritu da; hori dela eta, enpleguko politika aktiboak are garrantzitsuagoak dira lan-merkatuan sartzeko eta gizarte ongizatea lortzeko funtsezko elementu gisa. 30 urtetik beherako gazteen langabeziaren bilakaera kezkagarria da, krisiaren hasieratik boskoiztu egin delako eta Europar Batasunean eredu diren herrialdeetakoa baino askoz okerragoa delako.

Hezkuntza: Lanbide Heziketa teknikoa sustatzea

Hezkuntzari dagokionez, hezkuntzaren inguruko adierazleak nahiko egokiak dira. Zientzia eta Teknologiako goi-mailako graduazio-tasa eta ikasle bakoitzak egiten duen gastua altuak dira. Bestalde, irakasle bakoitzeko dagoen ikasle kopurua egokia da. Eskolaratze-tasak, eskola behar baino lehen uztearen tasak, ikaskuntza iraunkorrarenak eta biztanle gazteen prestakuntza-mailak EBko bataz besteko xede edo mailarekin bat egiten dute. Eta helduen ikasketa-maila eta ikaslearen adinaren egokitasunaren tasa hobetzen ari dira.

Testuinguru horretan, EGABk Lanbide Heziketan izan den matrikulazioaren igoerari buruz hausnartzen du (Batxilergokoa baino txikiagoa izaten jarraitzen du), baita emakumeek lanbide-heziketako ikasketetan duten parte-hartzeari buruz ere; batez ere, profil teknikoa dutenean, laneratzeko aukera gehiago baitute.

Egiaztatu dugu EAE oso bideratuta dagoela goi-mailako hezkuntzara, eta komenigarritzat jotzen da egitura ez hain lineala izatea, hau da, malgutzea eta inguruneak eduki ditzakeen unean uneko beharrizanei erantzuteko moldatzea. Horrez gain, LHn profil teknikoak gehiago sustatu behar dira eta eskari handiagoa baina laneratze maila txikiagoa duten arlo profesionalen aurretik jarri.

Galera demografikoa

Euskal Autonomia Erkidegoak galera demografikoari aurre egin behar dio kopuru absolutuetan; izan ere, kaltetu egin dute, bai lanerako adina duten biztanleen segmentuaren beherakadak, bai adineko taldeek progresiboki gora egiteak.

Jaiotza-tasa Europako herrialde gehienetan baino txikiagoa da, eta familia-bizitza eta lana bateratzeko zailtasunak galga besterik ez dira. Beraz, euskal herritarrak, gizarte- eta ekonomia-eragileak eta botere publikoak arreta handiagoz jabetu beharko lirateke EAEn nagusi den lan-kontziliazioaren gaineko sistemaren egungo ahultasunaz.

Immigrazioari erreparatzen badiogu, egiaztatu dugu etorkinen familien bizi-baldintzak narriadurak pairatzen ari direla, batez ere, erkidegoz kanpoko pertsonen bizi-baldintzak. Horren haritik, esan behar da aipatutako taldearen pobrezia-tasa % 50 ingurukoa dela.

Pobreziak eta bizi-itxaropenak gora egin dute

Krisialdiak azken urteetan izandako eragina begi-bistakoa da. Benetako pobreziak biztanleen % 5,9 hartzen du, 127.000 pertsona inguru, eta 1,7 puntu igo da, 2008. urtearekin alderatuz gero.

EGABk krisialdiaren ondorioei buruz ohartarazten du, 2008. urtera arteko aurrerapenak kinka larrian jartzen hasi baitituzte. Hala ere, EAEko pobreziaren eta bazterkeriaren arriskuak tasa erlatiboki txikietan jarraitzen du EBren baremoaren arabera: euskal gizarteak babes sozialeko egiturak eta birbanaketa-mekanismoak sortzeko egiten duen ahalegin kolektiboaren lagin bat da, gizarte-kohesioa oso handia ahalbidetzen duena. Hain zuzen ere, hori da EGABk nabarmendu eta mantendu nahi duena.

Beste alde batetik, bizi-itxaropenak gora egin du Euskadin, bai gizonena, bai emakumeena. Alabaina, neurri handi batean, mendekotasuneko bizi-itxaropenaren igoeraren kontura hasi da, batik bat, emakumeen kasuan. EGABren ustez, egoera horri irtenbidea emateko behar-beharrezkoa da zahartze aktiboa sustatzen duten politika publikoak bultzatzea, halakoek sorraraz baititzakete gizarteratze-era berriak nagusientzat, bai eta jarduera ekonomikoaren hobi berriak azaleratu ere.

Gizarte babesa: batez bestekoaren gainetik

Gizarte babesari dagokionez, EAEk aldeko posizio garrantzitsua du Europako testuinguruan. Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak eta diru-sarrerak bermatzeko errentak berdin jarraitzen dute gastuari eta pertsona onuradunei dagokienez, eta Espainiako batez bestekoa baino askoz ere gorago daude: EAE estatuko funts guztien % 41,8 da (estaldura-tasa milako 34 da, eta estatuko batez bestekoa, aldiz, milako 5,48).

Hala eta guztiz ere, EGABk uste du sistemak lanerako bidea erraztu behar duela, laneratzea politika aktiboen bidez hobetuz; bereziki, epe laburrean, langabezia-prestazioak agortu dituzten langabeen kopuruak gora egitearen ondorioz, babeserako beharrak haziko baitira.

Horrenbestez:

- Gizarte eta ekonomia ikuspegiari erreparatuz gero, 2014. urtea zaila suertatu da. Hala ere, jarduerak eta enpleguak goranzko joera nabaria izan dute urteko lau hiruhilekoetan.
- Susperraldi hori 2015. urteko lehenengo hiruhileko datuekin sendotu da, eta, berehalako aukerak hobetu direnez, horizonte itxaropentsuago bat aurreikus daiteke.
- Gure erkidegoko egoera ekonomiko eta sozialak Europako herrialde nagusiekin bat egiten du.
- Etorkizuneko erronkak garrantzitsuak izango dira, gure produkzio-ereduari eta lortutako ongizatearen estatuaren sendotzeari dagokienez.

Honako memoria hau argitaratuta bete egin dugu gure betebeharra: EGABk EAEko egoera ekonomikoari eta sozialari buruz eginiko gogoetak eskaintzea Eusko Jaurlaritzari eta Eusko Legebiltzarrari. Uste sendoa dut baliagarria izango dela herritarrentzat, profesionalentzat, ekonomia eta gizarte eragileentzat eta arduradun politikoentzat ere. Horiek guztiek hartu behar dute parte euskal gizartearen etorkizunean, eta haien eguneroko lana lagungarria izango da gizarte bidezkoagoa eta zuzenagoa lortzeko.

I. KAPITULUA

EKONOMIA EAE-N

1. KANPOALDEKO INGURUNE EKONOMIKOA 1

1.1. FAKTORE EKONOMIKO NAGUSIAK
1.2. EBOLUZIO EKONOMIKOA ARLOEN ARABERA
1.3. EUROPAR BATASUNA. EUROGUNEA
1.4. ESPAINIAKO EKONOMIA
1.5. AUTONOMIA ERKIDEGOAK

2. EAE-KO ABAGUNE EKONOMIKOA 17

2.1. BILAKAERA EKONOMIKOA
2.2. BARNE-ESKARIAREN AGREGATUAK
2.3. KANPO ESKARIA
2.4. ATZERRIKO INBERTSIOA

3. EKOIZPENARENAREN SEKTOREAK 31

3.1. ENPRESA DEMOGRAFIA
3.2. LEHEN SEKTOREA
3.3. INDUSTRIA
3.4. ERAIKUNTZA
3.5. ZERBITZUAK

4. PREZIOAK, KOSTUAK ETA ERRENTAK 53

4.1. ONDASUNEN ETA KONTSUMO ZERBITZUEN PREZIOAK
4.2. KOSTUAK
4.3. ERRENTAK

5. SEKTORE PUBLIKOA 62

5.1. SARRERAK
5.2. GASTUAK
5.3. AURREKONTUKO SALDOA
5.4. SEKTORE PUBLIKOAREN ZORPETZEA
5.5. ERAKUNDEETAKO TRANSFERENTZIAK

6. PRODUKZIOAREN AZPIEGITURAK 73

6.1. GARRAIOA
6.2. ENERGIA: EKOIZPENA ETA KONTSUMOA

7. I+G+B JARDUERAK ETA IKT-AK 81

7.1. I+G EUSKAL SISTEMAREN ADIERAZLE NAGUSIAK

7.2. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ENPRESEN SEKTOREKO I+J JARDUERAK, ZTESEKO ZENTRO TEKNOLOGIKOAK ALDE BATERA UTZITA

7.3. ZTES-KO TEKNOLOGI I+G JARDUERAK

7.4. IKERKETA UNIBERTSITATEETAN. EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

7.5. ENPRESA-SAREKO BERRIKUNTZA-JARDUERAK

7.5.1. Enpresa berritzaileak

7.5.2. Berrikuntza teknologikorako jarduerako gastua

7.6. EUROPAKO BERRIKUNTZAKO ADIERAZLEEN PANELA, IUS 2014

7.7. EUSKADI 2020 ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA PLANA

7.8. IKT EKIPAMENDUAK ETA ERABILERAK EAE-N

7.8.1. Etxeetako ekipamenduak

7.8.2. 15 urte edo gehiagoko biztanleen ekipamenduak. Ordenagailuaren eta Interneteko konexioaren eta erabileraren barrentzea

7.8.3. EAEko enpresetako ekipamenduak

7.8.4. Administrazio elektronikoa

7.9. MERKATARITZA ELEKTRONIKOA EAE-N

7.9.1. Merkataritza elektronikoa baliatzen duten familia eta biztanleak

7.9.2. Enpresak

8. EAE-KO GIZARTE-EKONOMIAREN KONTUAK 108

II. KAPITULUA

LAN-MERKATUA EAE-N

1. JARDUERAREN, OKUPAZIOAREN ETA LANGABEZIAREN BILAKAERA 115

1.1. JARDUERA ETA OKUPAZIOA

1.2. LANGABEZIA

2. KONTRATAZIOEN ETA IRAIZPENEN BILAKAERA 123

2.1. KONTRATAZIOEN EGOERA

2.2. BANAKO ETA TALDEKO IRAIZPENEN BILAKAERA

3. LANEKO OSASUNA 128

4. LAN HARREMANAK 130

4.1. LAN GATAZKAK

4.2. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA: SOLDATA IGOERA ETA LANALDIA

5. SOLDATAK EAE-N 132

5.1. SOLDATEN EGITURARI BURUZKO INKESTAREN EMAITZAK 2012

5.2. LAN-KOSTUARI BURUZKO URTEKO INKESTA 2013AREN EMAITZAK

6. ENPLEGU POLITIKAK 135

6.1. ENPLEGUKO POLITIKA AKTIBOAK

6.2. ENPLEGU POLITIKA PASIBOAK

III. KAPITULUA

BIZI-KALITATEA EAE-N

1. GIZA BALIABIDEAK EAE-N 143

1.1. DEMOGRAFIA

1.1.1. Oinarrizko adierazle demografikoen bilakaera

1.1.2. Immigrazioa EAEn

1.1.3. Familiak eta laneko bizitza, bizitza pertsonala eta familia uztartzeko arazoak

1.2. HEZKUNTZA ETA HEZKUNTZA SUSTAPENA

1.2.1. Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzak

1.2.2. Unibertsitateko irakaskuntza

1.2.3. Hezkuntza adierazleak

2. EAE-KO NATUR INGURUAREN EGOERA 181

2.1. AIREAREN KALITATEA

2.2. KLIMA ALDAKETA: NEGUTEGI-EFEKTUKO GASEN ISURIA (NEG)

2.3. UR-MASEN KALITATEA

2.3.1. LUR GAINEKO UR-MASAK

2.3.2. BAINURAKO UREN KALITATEA

2.4. UR GEZAREN KONTSUMOA

2.4.1. UR GEZA BILTZEA ETA KONTSUMOA

2.4.2. HONDAKIN-URA BILTZEA ETA TRATATZEA

2.5. HONDAKINEN SORKUNTZA

2.5.1. HIRIKO HONDAKINAK

2.5.2. HONDAKIN ARRISKUTSUAK ETA EZ ARRISKUTSUAK

2.6. INGURUMENAREN BABESA ETA MANUFAKTURA-INDUSTRIA

3. BIZI-BALDINTZAK 215

3.1. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BIZI BALDINTZAK

3.1.1. Bizi-baldintzei buruzko inkestako 2013ko emaitzak
3.1.2. Pobrezia eta gizarte-desparekotasunari buruzko inkesta (PGDI): emaitza nagusiak)
3.1.3. Hipoteken betearazpenak
3.1.4. Pobrezia Energetikoa

3.2. ARRETA BEREZIA JARTZEA MEREZI DUTEN KOLEKTIBOEN BIZI-BALDINTZAK: GAZTERIA

3.2.1. Demografia
3.2.2. Egoeraren gaineko ikuspegia eta tolerantzia
3.2.3. Lan mundua
3.2.4. Etxebizitza eta bizikidetzeko moduak
3.2.5. Bizi-baldintzak
3.2.6. Gazteen inguruko politikak

4. OSASUNA ETA OSASUN SISTEMA 217

4.1. OSASUN EGOERA

4.1.1. Bizi itxaropena
4.1.2. Heriotza-tasa
4.1.3. Osasun mentala

4.2. FAKTORE ERABAKIGARRI EZ MEDIKOAK

4.2.1. Elikadura ohiturak
4.2.2. Obesitatea

4.3. OSAKIDETZAREN LAGUNTZARAKO JARDUERA
4.4. EUSKO JAURLARITZAREN OSASUN SAILAREN GASTUA

5. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA 226

5.1. LURZORUA ETA ERAIKUNTZA KOSTUAK

5.1.1. Lurzorua EAEn
5.1.2. Eraikuntza kostuen estatistika

5.2. ETXEBIZITZAREN ESKAINTZA

5.2.1. Salgai dauden etxebizitzen eskaintza eta prezioak
5.2.2. Alokairu araubidea
5.2.3. Etxebizitzaren prezioen erkaketa, autonomia erkidegoen arabera
5.2.4. Eraikuntzaren eta etxebizitzaren jarduera

5.3. ETXEBIZITZAREN ESKARIA

5.3.1. Etxebizitzaren beharrak eta eskaria
5.3.2. Familien finantza-ahalegina
5.3.3. Etxebiden erregistratutako etxebizitza babestuaren eskaria

5.4. HIGIEZINEN ARLOKO JARDUERA: ETXEBIZITZEN SALEROSKETA
5.5. EAE-N HUTSIK DAUDEN ETXEBIZITZAK
5.6. ETXEBIZITZA POLITIKA

5.6.1. Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza politika
5.6.2. Foru Aldundien etxebizitza politika

6. AISIALDIA ETA KULTURA 252

6.1. KULTURA ETA AISIALDI JARDUEREN ESKAINTZA EAE-N

6.1.1. Bisitarien bertaratzea kultura ekipamenduetara
6.1.2. Azoken jarduera

6.2. FINANTZAZIOA ETA GASTU PUBLIKOA KULTURAN
6.3. FAMLIEN GASTUA KULTURAREN KONTSUMOAN

IV. KAPITULUA

GIZARTE BABESA EAE-N

1. GIZARTE ZERBITZUAK EAE-N 257

1.1. GIZARTE ZERBITZUEN EGOERA
1.2. MENDEKOTASUNAREN ARRETA

2. GIZARTE SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK 261

2.1. KUDEAKETA TRANSFERITU GABEKO GIZARTE SEGURANTZAREN PRESTAZIOAKAK
2.2. KUDEAKETA TRANSFERITUTA DUTEN GIZARTE SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK: KOTIZATU GABEKO PRESTAZIOAK K

2.2.1. Gizarte Segurantzaren kotizatu gabeko pentsioak
2.2.2. Gizarte Ongizateko Funtsaren laguntza-pentsioa
2.2.3. MG prestazioak

3. EAEKO POBREZIAREN ETA GIZARTE BAZTERKERIAREN AURKAKO NEURRIAK 266

3.1. SARRERAK BERMATZEKO SISTEMAREN PRESTAZIOAK

3.1.1. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta
3.1.2. Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria
3.1.3. Gizarte Larrialdiko Laguntzak

3.2. GIZARTERATZEA LAGUNTZEKO PROGRAMAK

3.2.1. Hirugarren Sektorearen jarduerak sustatzeko diru-laguntzak, gizartegintza-arloan
3.2.2. Gizarteratzeko enpresak sortu eta mantentzeko laguntzak

4. EAE-KO GIZARTE AURREIKUSPENEKO SISTEMA OSAGARRIAK 272

4.1. MAGNITUDE NAGUSIAK
4.2. ZERGA ARAUBIDEA

V. KAPITULUA
ARAUGINTZA EAE-N 275

VI. KAPITULUA
LABURPENA ETA GOGOETAK 279

GLOSATEGIA

I. KAPITULUA

Ekonomia EAEn

1. KANPOALDEKO INGURUNE EKONOMIKOA

1.1. FAKTORE EKONOMIKO NAGUSIAK[1]

Munduko ekonomiak 2014. urtean neurrizko hazkuntza izan zuen, eskualdeen artean eta eskualdearen barnean dibergentzia geroz eta handiagoa den honetan. Urtea ahulezia-aztarnak eskainiz hasi zen, baina behin-behinekoak izan ziren eta hilabeteek aurrera egin zuten neurrian, munduko jarduera pixkana sendotuz joan zen.

Ildo horri jarraiki, 2013. urtearen amaieran eskualde desberdinetan ekin zitzaion hazkuntza-dinamikak 2014. urtean jarraitu zuen eta ekonomia aurreratu gehienetan bultzada finkatu zen; aldi berean, ekonomia garatu berrietan indarra galdu zuen. Lehenengoei lan-merkatuak geroz eta gehiago hobetzea eta konfiantza nahiz politika aldakorrak areagotzea onuragarria izan zitzaien. Zenbait ekonomia garatu berritan, berriz, egitura-eragozpenek eta finantza-baldintza mugatzaileek iraun zuten eta horiek hazkuntza-aukeretan eragin zuten.

Arrisku geopolitikoek, nagusiki, Ukraina eta Errusiaren arteko gatazkarekin zerikusia zutenek, eta petrolioaren herrialde ekoizle garrantzitsuenetan tentsioek urtean zehar iraun zuten, baina munduko jardueraren gainean zuzeneko inpaktuak nahiko mugatuak izaten jarraitu zuen.

Hala, urte guztia hartuta, 2013. urtearekiko, munduko BPGak, erosteko ahalmenaren parekotasunaren arabera haztatuak, %3,4 gorantz egin zuen, NDFren estimazioei jarraiki. Izan ere, 2013rako kalkulatutako ratio bera da.

I.1.1. KOADROA. ALDAGAI EKONOMIKO NAGUSIEN LABURPENA

	2013	2014
BPG (urteko ehuneko aldaketa)		
Mundukoa	3,4	3,4
Ekonomia aurreratuak (1)	1,4	1,8
AEB	2,2	2,4
Japonia	1,6	-0,1
Eurogunea	-0,5	0,9
Beste ekonomia aurreratu batzuk (G7 eta eurogunea kanpo, baina Letonia barne)	2,2	2,8
Garatzen ari diren ekonomiak eta garatu berriak	5,0	4,6
Latinoamerika eta Karibe	2,9	1,3
Brasil	2,7	0,1
Mexiko	1,4	2,1
Estatu Independenteen Erkidegoa	2,2	1,0
Errusia	1,3	0,6
Errusia kanpo	4,2	1,9
Asian garatzen ari diren ekonomiak eta garatu berriak	7,0	6,8
Txina	7,8	7,4
India	6,9	7,2
ASEAN (Filipinak, Indonesia, Malasia, Tailandia eta Vietnam)	5,2	4,6
Europan garatzen ari diren ekonomiak eta garatu berriak	2,9	2,8
Ekialde Ertaina, Afrikaren Iparraldea, Afganistan eta Pakistan	2,4	2,6
Saudi Arabia	2,7	3,6
Afrika subsahariarra	5,2	5,0
Ondasun eta zerbitzuen munduko merkataritza *(batez bestekoa aldaketa OetaZen munduko esportazio eta inportazioen urteko %)*	3,5	3,4
Kontsumitzailearekiko prezioak (*abendua-abendua ehuneko ald.)*		
Ekonomia aurreratuak	1,2	1,0
Garatzen ari diren ekonomiak eta garatu berriak	5,3	5,1
Lehengaien prezioak *($) (abendua-abendua ald.)*		
Elikagaiak	-14,5	-4,2
Industria-produktuak (ez-metalak)	-2,6	-20,8
Industria-produktuak (metalak)	-10,6	-2,7
North Sea Brent petrolioaren prezioa *($/upela, abendua-abendua ald.)*	1,0	-44,0
Esku-hartzearen interes-tasa *(denboraldiaren amaieran)*		
EDB	0,25	0,05
AEB – funts federalen tasa objektiboa	0,25	0,25
Japonia – Call Money (2)	0,10	0,10
Euroaren aldaketa-tasa *(EUROAREN balio-irabaztearen (+) edo balio-galtzearen %, abendua-abendua)*		
Euroko dolarra	4,5	-10,0
Euroko libra esterlina	3,0	-5,7
Euroko yen japoniarra	29,1	3,8
Burtsa: kotizazio-indizea *(abendua-abendua ehuneko ald.)*		
Dow Jones (New York)	26,5	7,5
Nikkei	56,7	7,1
Euro Stoxx zabala	20,5	1,7
Ibex 35	21,4	3,7

(1) Ekonomia aurreratuak: AEB, Kanada, Japonia, eurogunea, Erresuma Batua, Danimarka, Suedia, Norvegia, Txipre, industrializatu berriak diren ekonomia asiarrak, Israel, Islandia, Australia eta Zeelanda Berria. Industrializatu berriak diren ekonomia asiarrak: Hego Korea, Taiwan, Hong-Kong, Singapur. (2) Bermerik gabeko maileguen eguneko interes-tasa. Iturria: NDF "Munduko ekonomiaren aukerak" (2015eko apirila) eta Ogasun eta Herri Administrazioen Ministerioa "Adierazle ekonomikoen laburpena. **Taulak eta grafikoak. 2015eko otsaila"**

1 Epigrafe honetan aurkezten den informazioa iturri desberdinetatik dator: Nazioarteko Diru Funtsa, Europako Banku Zentrala, Espainiako Bankua eta Ogasun nahiz Herri Administrazioen Ministerioa.

Ekonomia aurreratuek %1,8ko hazkuntza izan zuten eta AEBren BPGa %2,4 gehitu zen (%2,2 2013. urtean). Eurogunean, ordea, hazkuntza %0,9n kokatu zen (-%0,5 2013. urtean) eta Japonian %0,1 jaitsi zen (+%1,6 2013. urtean).

Bestalde, ekonomia garatu berriak eta garapen-bidean daudenak %4,6 inguru hazi ziren, aurreko urteko %5eko hazkuntzaren aldean; Europako ekonomia garatu berriek %2,8 egin zuten gorantz (%2,9 2013. urtean) eta Asiakoek %6,8 (%7 2013. urtean). Latinoamerika eta Karibe %1,3 igo zen, 2013ko %2,9ren aurka.

Brasilek aurreko urteko %2,7rekiko %0,1eko hazkuntza izan zuen eta Txina nahiz India %7,4 eta %7,2 hazi ziren, hurrenez hurren, 2013. urteko %7,8 eta %6,9rekin erkatuz.

I.1.2. KOADROA. EGIAZKO BPGAREN HAZKUNTZA-TASARI ETA LANGABEZIA-TASARI BURUZKO EBOLUZIOA ESKUALDEEN ARABERA

		2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Mundukoa	BPG	3,1	0,0	5,4	4,2	3,4	3,4	3,4
	Langabezia-tasa	d.g.	d.g.	d.g.	d.g.	d.g.	d.g.	d.g.
Ekonomia aurreratuak	BPG	0,2	-3,4	3,1	1,7	1,2	1,4	1,8
	Langabezia-tasa	5,8	8,0	8,3	8,0	8,0	7,9	7,3
Eurogunea	BPG	0,5	-4,5	2,0	1,6	-0,8	-0,5	0,9
	Langabezia-tasa	7,6	9,5	10,1	10,1	11,3	12,0	11,6
G7ren herrialdeak	BPG	-0,2	-3,8	2,9	1,6	1,4	1,5	1,7
	Langabezia-tasa	5,9	8,0	8,1	7,6	7,4	7,1	6,4
Beste ekonomia aurreratu batzuk (G7 eta eurogunea kanpo, baina Letonia barne)	BPG	1,8	-1,1	5,8	3,3	2,1	2,2	2,8
	Langabezia-tasa	3,9	5,3	5,3	4,8	4,7	4,6	4,7
EB	BPG	0,7	-4,3	2,0	1,8	-0,4	0,1	1,4
	Langabezia-tasa	d.g.	d.g.	d.g.	d.g.	d.g.	d.g.	d.g.
Garatzen ari diren ekonomiak eta garatu berriak	BPG	5,8	3,1	7,4	6,2	5,2	5,0	4,6
Estatu Independenteen Erkidegoa	BPG	5,3	-6,3	4,6	4,8	3,4	2,2	1,0
Europan garatzen ari diren ekonomiak eta garatu berriak	BPG	3,1	-3,0	4,8	5,4	1,3	2,9	2,8
Asian garatzen ari diren ekonomiak eta garatu berriak	BPG	7,3	7,5	9,6	7,7	6,8	7,0	6,8
ASEAN-5	BPG	5,5	2,2	6,9	4,6	6,1	5,2	4,6
Latinoamerika eta Karibe	BPG	3,9	-1,3	6,1	4,9	3,1	2,9	1,3
Ekialde Ertaina, Afrikaren Iparraldea, Afganistan eta Pakistan	BPG	5,2	2,2	4,8	4,4	4,8	2,4	2,6
Ekialde Ertaina, Afrikako Iparraldea,	BPG	5,2	2,3	5,1	4,5	4,9	2,3	2,4
Afrika subsahariarra	BPG	6,0	4,0	6,7	5,0	4,2	5,2	5,0

Iturria: NDF, datu-basea

Munduko merkataritza 2013. urteko datuekin erkatuz gero, hazi da eta, ondorioz, hazkuntza-tasa %3,4n kokatu da. Hala, aurreko urtekoarekin alderatuta, egonkor mantendu da.

Prezioen eboluzioari dagokionez, 2014. urtean munduko inflazioa moteltzearen faktore erabakigarri nagusia lehengaien prezioak, bereziki, energiarenak eta, askoz neurri txikiagoan, elikagaien prezioak jaistea izan zen. 2014ko lehenengo seihilekoan gutxi gorabehera 110 $/Brent upelean petrolioaren prezioa denboraldi batez egonkor samar egon ondoren, 60 $/upeletik beherako mailetara iritsi zen urtearen amaieran. Bestalde, lehengai ez-energetikoen prezioak ere jaitsi ziren, bai elikagaienak, baita industria-produktuenak (metalikoak eta ez-metalikoak) ere.

Gainera, 2013. eta 2014. urteen artean, Brent upelaren batez besteko prezioa %44 gutxitu zen (abendutik abendura bitarteko aldaketa-tasa).

Finantza- eta diru-baldintzei dagokienez, ekonomia aurreratuen finantza-baldintzek hobetu zuten heinean, petrolioa inportatzen duten zenbait merkatu garatu berritan gauza bera gertatu zen eta petrolioaren prezioa jaisteari nahiz eskearen gainean presio txikiagoa izateari esker, inflazioa gutxitzearen onura izan zuten.

Testuinguru honetan, Europako Banku Zentralak bitan eurogunean egun batez esku-hartzearen tasa murriztu zuen; bata ekainean (0,15ean kokatu zen) eta bestea irailean (%0,05) gertatu zen.

Eurogunean diru-merkatuaren interes-tasei dagokienez, urteko batez bestekoa kontuan hartuta, epe guztietan murriztu ziren. Hala, hilabete batera Euriborra urtearen lehenengo hiruhilekoan %0,23n kokatu zen eta laugarrena %0,01ekin amaitu zuen. Hiru hilabetetara Euriborra %0,3tik %0,08ra pasa zen lehenengo eta laugarren hiruhilekoen artean. Sei hilabetetara Euriborra %0,4tik %0,18ra igaro zen eta urtebetera Euriborra %0,56rekin hasi zen eta %0,33rekin amaitu zuen.

Bestalde, Estatu Batuetako Erreserba Federalak eta Japoniako Bankuak berriz ere esku-hartzearen tasak mantendu zituzten, aurreko urteetan itxi zuten bezala, hain zuzen ere, lehenengoak %0,25ean eta bigarrenak %0,1ean.

Azkenik, truke- eta burtsa-merkatuei dagokienez, dibisen merkatuan euroarekiko Amerikako Estatu Batuetako dolarraren egiazko truke eraginkorraren tasak balioa modu garrantzitsuan galdu zuen apiriletik aurrera eta urtea 1,23 $/€ erlazioarekin amaitu zuen, 2013ko abenduko 1,37ren aldean, hau da, %10 gutxiago. Yenak dibisa europarrarekiko aldea galdu zuen eta, ondorioz, euroak balioa gehitu ere bai. Eta euroak libra esterlinarekiko balioa galdu zuen.

Munduko burtsa-merkatuetan, IBEX 35 urteen artean %3,7 hazi zen (2014ko abenduan, 2013ko abenduarekiko), 2013. urtean %21,4 gorantz egin zuen bitartean; Nikkeiari erreparatuz, hazkuntza %7,1ekoa izan zen, 2013. urtean %56,7 izan zen bitartean; Dow Jonesak %7,5 egin zuen aurrera (+%26,5 2013. urtean) eta Euro Stoxx zabala %1,7 hazi zen (%20,5 aurreko urtean).

1.2. EBOLUZIO EKONOMIKOA ARLOEN ARABERA[2]

Estatu Batuak

Urtearen hasieran eguraldi txarrarengatik 2014ko lehenengo hiruhilekoan jarduera ekonomikoa nabarmenki jaitsi arren, urtearen gainerako tartean hazkuntza nahiko bizia izan zen eta kontsumoa bihurtu zen hazkuntzaren eragile nagusi, enplegua etengabe sortu eta diru-sarrerak gehitzearen ondorioz. Halaber, petrolioaren prezio merkeek eta kontsumitzaileen konfiantza hobetzeak lagundu zuten.

Eboluzioaren aldekoak izan ziren diru-politika moldakorra, finantza-merkatuen dinamismoa, akzioen eta etxebizitzaren prezioak gehitzeari lotutako aberastasun-efektu positiboak eta etxebizitzaren nahiz lanaren merkatuek hobera egitea.

Modu horretan, jarduera ekonomikoa 2014. urtean bizkortu zen eta egiazko BPGak urteen artean batez beste %2,4ko hazkuntza izan zuen, hau da, aurreko urtean baino ehuneko 0,2 puntu gehiago. Langabezia-tasa, ordea, %6,2n kokatu zen (%7,4 2013. urtean).

Inflazioak, batera hartuta, 2014. urtean nahiko murritza izaten jarraitu zuen. Arrazoiak, nagusiki, ondorengoak izan ziren: ekonomian erabiltzeke zegoen produkzio-gaitasuna eta energiaren prezioetan jaitsiera nabarmenak. KPIaren bitartez neurtuta, urteen arteko inflazioa 2014. urtean %1,6koa izan zen batez beste, 2013ko %1,5en aldean. Energiaren eta elikagaien prezioak kendu ostean, inflazioa kontuan hartuz gero, 2014. urtean %1,7koa izan zen; 2013. urtean, berriz, %1,8koa.

Zerga-politikari dagokionez, Gobernu Federalaren defizita 2013ko %4,1etik BPGaren %2,8ra jaitsi zen 2014ko zerga-ekitaldian eta, beraz, 2007. urtetik mailarik baxuenean kokatu zen.

2Berdina.

Europako ekonomia aurreratuak

NDFren iritziz, gorantz egin eta dinamismo positiboaren aztarnak daude, petrolioaren prezioek eta aldeko finantza-baldintzek bultzatuta, baina hazkuntza eta inflazioa etengabe baxuak izateagatik arriskuek jarraitzen dute. Ildo horri jarraiki, eurogunean jarduera, egiazko terminoetan, 2014. urtean %0,9 hazi zen, 2013. urtean %0,5 murriztu ondoren. Langabezia-tasa %11,6n (%12 2013. urtean) eta inflazioa %1,6n kokatu zen.

Bestetik, eurogunetik kanpo gelditzen diren Europako ekonomia aurreratuetan, hazkuntza sendoagoa izan da eta oraindik modu horretan dirau. Aurrekoaren harira, Erresuma Batuan hazkuntza eutsia eta etengabea da, petrolioaren prezioen murrizketak bultzatu ondoren eta finantza-merkatuen baldintzak hobetu ostean. Suedian susperraldia garrantzitsua izan da eta aukerak irmoak dira, gainera, kontsumoak eta etxebizitzan inbertsioak babesten dute.

Japonia

2014. urtearen tarterik zabalenean jarduera ekonomikoak moteltze nabarmena jasan zuen, kontsumoa murriztu eta etxebizitza-inbertsioa gelditzearen ondorioz. Urtean zehar, egiazko BPGa %0,1 jaitsi zen, 2013. urtean %1,6 hazi zenean.

2014. urtean inflazio orokorrak gorantz egin zuen, kontsumoaren gaineko zerga %0,4tik %2,7ra gehitu ostean. Azpiko inflazio-presioek, berriz, neurrizkoak izaten jarraitu zuten eta kontsumo-prezioen aldaketa-tasa, aipatu zergaren hazkuntza kanpo, Japoniako Bankuak markatu zuen %2ko inflazio-helburuaren oso azpitik mantendu zen.

Banku Zentralak diru-hedapen kuantitatibo eta kualitatiboaren programa zabaldu zuen eta diru-oinarriaren hazkuntzari zegokion urteko erritmoa 80 bilioi yen inguru arte (aurreko 60-70 bilioiren aldean) bizkortu zuen. Horrez gain, iraupen mugagabeko programa bihurtu zen, prezioen gaineko beheranzko presioa eta hazkuntza ekonomiko ahula ikusirik.

Europako ekonomia garatu berriak

2014. urtean jarduera ekonomikoa ekonomia garatu berrietan eta garapen-bidean zeudenetan egonkor mantendu zen (BPGa %2,8 hazi zen 2014. urtean, 2013. urtean baino hamarren bat gehiago) eta herrialde gehiago sartu ziren deflazioan. Kanpoko eskeak ahula izaten jarraitu zuen eta korporazio-zor handiak inbertsioa geldiarazten jarraitu zuen.

Zehatz-mehatz esanda, 2014. urtean hazkuntza ekonomikoa Turkian eta Hego-ekialdeko Europan (herrialde batzuk atzeraldian sartu ziren) moteldu zen, baina Hungaria eta Polonian sendo mantendu zen. Oro har, lan-merkatuko baldintzak hobetu eta egiazko soldatak gehitzeari esker, kontsumo pribatua igo zen sendotasunez, beraz, barneko eskaerak (Turkian izan ezik) hazkuntza bultzatu zuen. Gainera, inportatutako inflazioa txikiagoa izan zen.

Inflazio orokorrak eta oinarrizkoak beherantz egiten jarraitu zuen, eurogunearen inflazio oso baxuarengatik, elikagaietan eta energian prezioak jaisteagatik eta astialdirako gaitasun ekonomikoarengatik. Hungaria eta Polonia deflazioan zeuden herrialdeen taldeko kide izatera pasa ziren; bien bitartean, inflazioa Turkian altua mantendu zen, truke-tasak balioa galdu, diru-hedapen eta elikagaien barneko prezioak gehitzearen ondorioz.

Asiako ekonomia garatu berriak

Zonan hazkuntza arinki moteldu zen eta BPGaren egiazko hazkuntza-tasa %7tik (2013. urtean) %6,8ra (2014. urtean) pasa zen.

Txinan egiazko BPGaren hazkuntzak murrizten jarraitu zuen, inbertsioa eta, bereziki, etxebizitza-inbertsioa erritmo motelean hazi baitzen. Esportazioak nolabait sendoak mantendu ziren, kanpoko ingurunea suspertzearen ondorioz; bien bitartean, inportazioen hazkuntzak dinamismo gutxi izaten jarraitu zuen, inbertsioa ahuldu eta petrolioaren prezioak merkeagoak izatearekin bat. Hala, kontu korronteagatik superabita arinki gehitu zen BPGaren %2ra arte. Agintariak egiturazko berrikuntza ugari inplementatzen hasi ziren eta, horiei esker, besteak beste, kapital-kontua

irekitzean eta interes-tasak liberalizatzen aurrera egin zen. Kreditu-hedapenak sendoa izaten jarraitu zuen, baina finantza-tentsioen aztarnak geroz eta nabarmenagoak izan ziren, ekonomia ahulduz zihoan neurrian.

Indiak, bestalde, %7,2ko egiazko hazkuntza izan zuen, hain zuzen ere, 2013. urteko ratioa (%6,9) baino handiagoa. Hazkuntzan onuragarriak suertatu dira politikaren arloan berrikuntzak eta, ondorioz, inbertsioak gorantz egitea, baita petrolioaren prezio merkeagoak ere.

Estatu Independenteen Erkidegoa (EIE)[3]

Estatu Independenteen Erkidegoaren barruan dauden ekonomia europarrak 2014ko bigarren seihilekoan moteldu ziren eta kontsumo pribatuaren ekarpena negatibo bihurtu zen. Hala, zonan hazkuntza geldotu zen eta BPGaren egiazko hazkuntza-tasa %2,2tik (2013. urtean) %1era (2014. urtean) pasa zen.

Errusian, petrolioaren prezioak jaistearekin batera, nazioarteko zigorrak izan ziren eta bi alderdi horiek azpiko egitura-urritasunak areagotu zituzten. Ildo horri eutsiz, konfiantza ahuldu zen eta errubloak modu esangarrian balioa galdu zuen eta, bide batez, inflazio-presioak areagotu ziren (2013. eta 2014. urtean artean %6,4tik %8,1era).

Ukrainan atzerapena 2014. urtean bizitu zen, neurri handian, ekialdeko gatazkaren inpaktu ekonomikoarengatik. Urritik hryvniaren gaineko presioa nabarmenki gehitu da eta dibisen erreserbak jaisten, baita inflazioa bizkortzen ere lagundu du.

Latinoamerika eta Karibe (LAK)

Latinoamerika eta Karibeko eskualde guztian jarduera ekonomikoa 2014. urtean geldotu zen. Zonan hazkuntza laugarren urtez ondoz ondo murriztu zen eta 2014. urtean %1,3n kokatu zen, 2013ko %2,9ren aldean.

Inbertsioak moteltzearen faktorerik garrantzitsuena izaten jarraitu zuen; batetik, kanpoko eskaera geldotu zen eta, bestetik, truke-baldintzak kaltetu ziren, ondorioz, enpresek kapital-aurrekontuak gutxitu behar izan zituzten, batez ere, Amerikaren hegoaldean. Herrialde batzuetan politiken inguruko zalantzek sektore pribatuaren jarrera oraindik gehiago ahuldu zuten. Halaber, lehengaien prezioak jaitsi ziren eta produktu horien herrialde esportatzaile gehienei erreparatuz, kanpoko kontu korrontean defizita gehitu zuten, nahiz eta inportatzaile garbiek petrolioaren prezioen jaitsiera garrantzitsuaren onura atera.

Truke-tasa malgua duten herrialdeetan monetek kanpoko aukeren aldaketekiko eta barneko baldintzak ahultzearekiko berehala erreakzionatu zuten, beren balioa jaitsiz. Akzioen merkatuek atzera egin zuten eta kanpoko kreditu diferentzialak zabaldu ziren.

Afrika subsahariarra

2014. urtean Afrika subsahariarraren hazkuntza, batera hartuta, %5 inguru sendoa mantendu zen, 2013. urtekoa baino txikiagoa (%5,2) izan arren.

Hegoafrikan 2013. urtetik 2014. urtera hazkuntza %2,2tik %1,5era jaitsi zen, meatzaritzaren sektoreko grebengatik eta eskaintza energetikoaren mugengatik.

Eskualdearen gainerako tokietan, bereziki, *diru-sarrera gutxi dituzten herrialdeetan*, hazkuntza egonkorra izan zen, meatzaritzaren sektorean eta azpiegituran egindako inbertsio sendoei nahiz kontsumo pribatuari esker. Ginea, Liberia eta Sierra Leona izan ziren salbuespena, ebolaren epidemiaren ondorioz hazkuntzak bat-batean egin baitzuen beherantz. Izan ere, nekazaritzaren eta zerbitzuen sektorean asaldura larriak sortu zituen eta meatzaritzaren sektorean garapen-proiektuak atzeratu ziren.

3 Nazioz gaindiko erakundea, 15etik 10 sobietar errepublika ohiek sortutakoa, 3 estatu baltiko (Estonia, Letonia eta Lituania), Turkmenistán eta Georgia izan ezik.

Eskualdean petrolioaren herrialde esportatzaileak, bereziki, erreserba mugatuak dituztenak (Chad, Nigeria), petrolioaren prezioak jaisteari moldatzen hasi zitzaizkion.

Zerga-saldoak eta kontu korrontean zeudenak modu esangarrian kaltetu ziren eskualdean petrolioaren herrialde esportatzaileetan, azpiegituran nahi handiko inbertsio-proiektuen finantzazioarengatik, petrolioaren diru-sarrera geroz eta murritzagoekin. Modu berean, zerga-saldoak eskualdeko beste herrialde batzuetan okertu ziren, ebolak eragindako herrialdeetan jasaten ari diren zerga-zailtasunen eta Mozambiken salbuespenez gastua gehiegi gehitzearen ondorioz. Ghana eta Zambiako zerga-saldoek, ordea, onera egin zuten, bateratze-ahaleginei esker.

Ekialde Ertaina, Afrikaren Iparraldea, Afganistan eta Pakistan (EEAI)

Ekialde Ertainean, Afrikaren Iparraldean, Afganistanen eta Pakistanen (EEAIP) 2014. urtean hazkuntzak ahula izaten (BPGaren hazkuntza %2,6) jarraitu zuen, hurrengo testuinguruan: petrolioaren prezioaren jaitsiera, eskualdean gatazka iraunkorrak eta zalantza politiko etengabea.

Petrolioaren prezioa sendo jaistearen ondorioz, *EEAIPn petrolioaren herrialde esportatzaileak* zergei eta esportazioari dagokienez, diru-sarrera asko galtzen ari dira.

Eskualdeko petrolioaren herrialde inportatzaileetan, 2014. urtean susperraldiak ahula izaten jarraitu zuen. Egonkortasun politiko handiagoak eta hasierako berrikuntzek emandako bultzada eskualde-gatazkak bizitu zirenean eta tentsio soziopolitikoak nahiz segurtasunari buruzkoak iraun zutenean murriztu zen. Eurogunearen hazkuntza ahulak eta Amerikako Estatu Batuetan dolarra sendotzearen ondorioz lehiakortasunaren galerak (monetak Estatu Batuetako monetarekin lotura duen herrialdeetan) ere jarduera ekonomikoan modu negatiboan eragin zuten.

I.1.3. KOADROA. EGIAZKO BPG, KONTSUMITZAILEAREKIKO PREZIOAK ETA SALDOAK KONTU KORRONTEAN (NDF)

	Egiazko BPGaren ehuneko aldaketa urtean		KPIaren ehuneko aldaketa urtean		Kontu korronteko saldoa BPGaren % bezala		Langabezia-tasa	
	2013	2014	2013	2014	2013	2014	2013	2014
Ekonomia aurreratuak	1,4	1,8	**1,4**	**1,4**	**0,3**	**0,4**	**7,9**	7,3
AEB	2,2	2,4	1,5	1,6	-2,4	-2,4	7,4	6,2
Eurogunea	-0,5	0,9	1,3	0,4	2,2	2,3	12	11,6
Japonia	1,6	-0,1	0,4	2,7	0,7	0,5	4	3,6
Garatzen ari diren ekonomiak eta garatu berriak	5,0	4,6			**0,7**	**0,7**	**-**	-
Asiako ekonomiak garapen-bidean	7,0	6,8	4,8	3,5	1,0	1,3	**-**	-
Txina	7,8	7,4		2,0	1,9	2,0	-	4,1
India	6,9	7,2		6,0	-1,7	-1,4	-	-
Latinoamerika eta Karibe	2,9	1,3	7,1	-	-2,8	-2,8	-	-
Argentina	2,9	0,5	10,6	-	-	-	-	-
Brasil	2,7	0,1	6,2	6,3	-3,4	-3,9	-	-
Mexiko	1,4	2,1	3,8	4,0	-2,4	-2,1	-	-
Amerikako hegoaldea	-	0,7	-	-	-	-2,9	-	-
Amerikako erdialdea	-	4,0	-	3,4	-	-6,9	-	-
Karibe	-	4,7	-	4,9	-	-3,1	-	-
Europako ekonomia garatu berriak (Europaren erdialdea eta ekialdea)	2,9	2,8	4,3	3,8	-3,8	-2,9	-	-
Hungaria	1,5	3,6	1,7	-0,3	4,1	4,2	-	-
Turkia	4,1	2,9	7,5	8,9	-7,9	-5,7	-	9,9
Polonia	1,7	3,3	0,9	0,0	-1,3	-1,2	-	9,0
Errumania	3,4	2,9	4,0	1,1	-0,8	-0,5	-	6,8
Estatu Independenteen Erkidegoa (12 herrialde +1)	2,2	1,0	6,4	8,1	0,6	2,2	-	-
Errusia	1,3	0,6	6,8	7,8	1,6	3,1	-	-
Energiaren esportatzaile garbiak (Errusia izan ezik)	-	1,5	-	7,5	-	3,1	-	-
Energiaren inportatzaile garbiak	-	-2,6	-	12,3	-	-5,7		-
Afrika subsahariarra	5.2	5,0	6,5	6,3	-	-3,3	-	-
Petrolioaren esportatzaileak	-	5,8	-	7,3	-	1,2	-	-
Diru-sarrera ertaineko ekonomiak	-	2,9	-	6,0	-	-4,8	-	-
Diru-sarrera gutxiko ekonomia	-	6,5	-	5,1	-	-11,0	-	-
Ekialde Ertaina, Afrikaren Iparraldea, Afganistan eta Pakistan	2,4	2,6	9,1	6,7	9,8	6,4		-
Petrolioaren esportatzaileak	-	2,4	-	5,6	-	10,0		-
Petrolioaren inportatzaileak	-	3,0	-	9,2	-	-4,0		-

Ekonomia aurreratuak ***(34 herrialde): AEB, Kanada, Japonia, Eurogunea, Erresuma Batua, Australia, Danimarka, Israel, Islandia, Suedia, Norvegia, Zeelanda Berria, Suitza eta industrializatu berriak diren ekonomia asiarrak.*** *Estatu Independenteen Erkidegoa* ***(12+1 herrialde): Errepublika sobietar ohiak, 13 Mongolia sartuz gero.***
Iturria: NDF "Munduko ekonomiaren aukerak" (2014ko apirila)

1.3. EUROPAR BATASUNA. EUROGUNEA

2013. bigarren hiruhilekoan eurogunearen susperraldi mailakatuari ekin zitzaion, zor subiranoaren krisiaren ondorioz, bi urtez urteen arteko egiazko produktuaren hazkuntza negatiboa izan ondoren. Nolanahi ere, 2014. urtean hazkuntza horrek aurrera egin zuen, urtean zehar modu desberdinean izan arren. Hala, urteen arteko batez besteko hazkuntza 2014. urtean %0,9n kokatu zen. Zifra honek barneko eskaeraren goranzko ekarpen positiboa islatu zuen, kanpoko eske garbiaren eta izakinen aldaketaren ekarpenak ia nuluak izan baitziren.

EBZren informazioaren arabera, 2014. urtean produktuaren hazkuntzan barneko eskaerak gutxi gorabehera ehuneko 0,8 puntuko ekarpena izan zuen, 2007. urtetik ekarpenik altuena, alegia. 2014. urtean zehar kontsumo pribatuak sendotzen jarraitu zuen (urteen arteko egiazko %1eko hazkuntza), 2013. urtean suspertzen hasi ostean. Lehengaien prezioak jaisteagatik, egiazko errenta eskuragarria areagotzearen testuingurua zegoen. Aurreko bi urteetan murriztu ondoren, guztizko inbertsioa 2014. urtean %1 hazi zen, nahiz eta urteko bigarren eta hirugarren hiruhilekoan

uzkurtu, nagusiki, eraikuntzak ahula irauteagatik. Kontsumo publikoak 2014. urtean hazkuntza ekonomikoarekiko ekarpen positiboa izan zuen.

Kanpoko eskaerari dagokionez, urtea lehenengo seihilekoan esportazioak nahiko ahul hazten hasi zen, bigarren seihilekoan gorantz egiteko, munduko hazkuntzaren susperraldiaren ondorioz. Inportazioek esportazioen antzeko bideari ekin zioten. Hala, urtearen hasieran hazkuntza ahula izan zen eta bigarren seihilekoan suspertze nabarmena ikusi zuten.

2014. urtean urteen arteko batez besteko hazkuntza positibora itzultzeko aldekoak suertatu ziren, diru-politikaren oso orientabide moldakorra, finantzazio-baldintzak hobetzea eta aurrekontu-saldo onbideratuagoak. Faktore horiek, bereziki, azken urteetan hartutako diru-politikaren neurriek, hein handian, kontsumitzaileen konfiantzari eta kontsumo pribatuari eutsi zioten. Halaber, 2013. urteko batez bestekoarekiko enpresa-konfiantza areagotu zen, finantza-merkatuan zalantzak murriztean eta finantza-baldintzak hobetzean, baita enpresa txiki eta ertainenak ere, batez ere, urtearen lehenengo seihilekoan.

Hala eta guztiz ere, hazkuntza-joera hainbat faktorek mugatu zuen. Horiek, nagusiki, inbertsioari eragin zioten. Faktoreek, bereziki, merkataritzaren dinamika ahularekin, langabeziaren maila altuarekin, erabili gabeko produkzio-gaitasun nabarmenarekin eta sektore publiko nahiz pribatuen balantzeetan etengabeko doikuntzekin zerikusia izan zuten. Hazkuntzaren beste faktore leuntzaile bat tentsio geopolitikoei lotu zitzaien. Ildo horri eutsiz, Ukrainako krisiaren testuinguruari erreparatu behar zaio.

Eskaintzaren aldetik, sektoreen ikuspegitik susperraldia nahiko orokortua izan zen. Industriaren eta zerbitzuen balio erantsia, eraikuntzarena kanpo, areagotu zen, bi urtez uzkurtu eta egonkortu ondoren, hurrenez hurren. Lehenengoak %0,7 eta bigarrenak %1,7 egin zuen. Zerbitzuen sektorearen susperraldia azpimarragarriagoa izan da, nahiz eta merkatu-zerbitzuetara mugatuta, aldaketa %1 izan.

2014. urteko lehenengo hiru hiruhilekoetan zerbitzuen balio erantsia, batez beste, 2008. urteko krisiaren aurreko mailaren gainetik kokatu zen arinki; bien bitartean, industriaren balio erantsia, eraikuntza kenduta, krisiaren aurreko mailaren azpitik mantendu zen. Aldi berean, eraikuntzaren balio erantsiak urtean zehar hazkuntza moteldu zuen eta aldaketa-tasak negatibo bihurtu ziren urtearen bigarren seihilekoan.

I.1.4. KOADROA. EUROGUNEKO ADIERAZLE EKONOMIKO NAGUSIAK. (Urteko aldaketa-tasak)

	2012	2013	2014	2013 IV. hiruhilekoa	2014 I	2014 II	2014 III	2014 IV
BPGa merkatuko prezioetan	**-0,7**	**-0,4**	**0,9**	**0,4**	**1,1**	**0,8**	**0,8**	**0,9**
BARNEKO ESKAERA								
Gastua azken kontsumo pribatuan	-1,3	-0,6	1,0	0,2	0,6	0,8	1,1	1,4
Gastua azken kontsumo publikoan	-0,1	0,2	0,7	0,5	0,6	0,6	0,7	0,8
IOF finkoa	-3,5	-2,4	1,0	-0,4	2,3	1,0	0,4	0,3
KANPOKO ESKAERA								
BPGaren aldaketa-tasari ekarpena	1,4	0,4	0,1	0,2	0,1	-0,1	0,2	0,2
Esportazioak	2,6	2,1	3,7	3,5	3,6	3,1	4,9	4,1
Inportazioak	-1,9	1,3	3,8	3,2	3,7	3,7	3,9	4,0
Egiazko BEGd								
Nekazaritza	-2,8	2,7	2,6	5,0	4,4	3,3	3,5	-0,6
Industria	-0,3	-0,5	0,7	1,2	1,1	0,7	0,8	0,3
Eraikuntza	-4,7	-3,3	1,7	-2,2	6,1	3,0	-1,2	-0,9
Merkatu-zerbitzuak	-0,2	-0,1	1,0	0,4	1,1	0,9	1,0	1,1
ENPLEGUA ETA LANGABEZIA								
Guztizko enplegua (urteen arteko aldaketa-tasa)	-0,5	-0,7	0,6	-0,4	0,2	0,9	0,7	0,9
Langabezia-tasa (populazio aktiboaren gaineko %)	11,3	12,0	11,6	11,9	11,8	11,6	11,6	11,5

Iturria: Espainiako Bankua (Estatistika, adierazleen laburpena. Eurogunea. Adierazle ekonomiko orokorrak). 2015eko apirilaren 24a

Lan-merkatuak jada 2013. urteko bigarren seihilekoan hobekuntza-aztarnak erakutsi zituen eta 2014. urtean suspertzen jarraitu zuen. Langabezia-tasak 2014. urtean atzera egin zuen, nahiz eta, neurri batean, urtean zehar atzeratze-tasa murriztu. 2014. urtea batera hartuta, langabezia batez beste %11,6n kokatu zen, 2013ko batez besteko %12ren aldean.

Estatu kideetara mugatuz, EUROSTATen arabera, egoera honakoa da:

Biztanleen araberako BPGa, EAPan neurtuta[4]: Analisia mailaren baldintzetan eta ez eboluzio-baldintzetan egiten da, EB28ren batez bestekoa kontuan hartuta; EB28=100.

2013. urtean eurogunearen[5] batez bestekoaren balio bera edo gainetik aurkeztu duten herrialdeak (107) hurrengoak dira: Luxemburg (257), Herbehereak (131), Irlanda (130), Austria (128), Suedia (127), Danimarka (124), Alemania (122), Belgika (119), Finlandia (113), Erresuma Batua (109) eta Frantzia (107).

Euroguneko batez bestekoaren azpitik, baina %70ren gainetik ondorengoak daude: Italia (99), Espainia (94), Txipre (89), Malta (86), Eslovenia eta Txekiar Errepublika (biak 82rekin), Portugal (79), Eslovakia (biak 75ekin) eta Estonia, Grezia eta Lituania (bakoitza 73rekin).

Azkeneko tokietan Bulgaria, Errumania, Kroazia, Letonia, Hungaria eta Polonia kokatzen dira.

BPGaren aldaketa-tasa egiazko baldintzetan: EB28n 2014. urtean %1,3n kokatu zen, aurreko urteko %0ko aldaketaren aldean. Bestalde, eurogunean %0,9koa izan zen, 2013ko -%0,4ren kontra.

Hazkuntza-tasarik altuenak Irlanda (%4,8), Hungaria (%3,6), Malta (%3,5) eta Polonian (%3,4) suertatu ziren. Tasa altuekin, baina ez hain nabarmenak ondorengoak daude: Lituania (%2,9), Erresuma Batua (%2,8), Errumania eta Eslovenia (biak %2,6rekin), Letonia eta Eslovakia (biak %2,4rekin), Estonia eta Suedia (biak 2,1ekin) eta Txekiar Errepublika (%2). 2013rako Luxemburgen datua %2koa da. Neurrizkoagoak diren tasekin hurrengoak azaltzen dira: Bulgaria (%1,7), Alemania (%1,6), Espainia (%1,4), Danimarka (%1,1), Belgika (%1), Herbehereak eta Portugal (biak %0,9rekin), Grezia (%0,8), Frantzia (%0,4) eta Austria (%0,3).

Gainerako estatu europarrek tasa negatiboak izan zituzten eta jaitsierarik handiena Txipren (-%2,3) aurki daiteke. Ondoren, Kroazia eta Italia (biak -%0,4rekin) nahiz Finlandia (-%0,1) daude.

Langabezia-tasa: Langabezia-tasak bi digitu izaten jarraitu zituen zenbait estatutan. Zehatz-mehatz esanda, %10 eta %12 bitarteko tasak dituzte honakoek: Frantzia, Lituania, Letonia, Irlanda eta Bulgariak. %12 eta %15 bitartean: Italia, Eslovakia eta Portugalek. %15ekoaren gainetik, EB28n langabezia-tasarik altuenak izanik, Txipre (%16,1), Kroazia (%17,3), Espainia (%24,5) eta Grezia (%26,5) daude.

%6,5 eta %10 bitarteko tasekin hurrengoak aurkitzen dira: Danimarka, Errumania, Herbehereak, Estonia, Hungaria, Suedia, Belgika, Finlandia, Polonia eta Eslovenia.

Bestalde, tasa murritzenak honako herrialdeetan daude: Alemania (%5), Austria (%5,6), Malta eta Luxemburg (biak %5,9) eta Erresuma Batua nahiz Txekiar Errepublika (biak %6,1ekin).

Lan-produktibitatea (BPGaren (EAPan) eta enpleguaren arteko erlazio bezala kalkulatuta). Analisia mailaren baldintzetan eta ez eboluzio-baldintzetan egiten da, EB28ren batez bestekoa kontuan hartuta; EB28=100. Eurogunea19ren batez bestekoa 108,7 izan zen. Produktibitate altuenak dituzten estatuak ondorengoak dira: Luxemburg (164,1 100eko oinarriaren gainean), Irlanda (135,6), Belgika (127,4), Frantzia (116,1), Suedia (114,6), Austria (113,5), Espainia (111,4) eta Danimarka (111,1).

---

4 *EAP: erosteko ahalmenaren parekotasuna*

5Eurogunea19: Alemania, Austria, Belgika, Txipre, Eslovakia, Eslovenia, Espainia, Estonia, Finlandia, Frantzia, Grezia, Irlanda, Italia, Lituania, Letonia, Luxemburg, Malta, Herbehereak eta Portugal.

Produktibitaterik baxuenarekin honakoak daude: Bulgaria, Errumania, Letonia, Estonia, Hungaria, Txekiar Errepublika, Polonia, Lituania eta Portugal.

Lan-kostu unitarioa[6]**:** Europar Batasunean eta eurogunean, lanpostuko soldatapekoen araberako ordainsaritik abiatuta kalkulatu ostean, egiazko LKUen aldaketa-tasak 2013. urtean balio negatiboa (-%0,4 inguru) du. Espainiar estatua -%2,3koa da.

I.1.5. KOADROA. EUROPAR BATASUNAREN EBOLUZIO EKONOMIKOA

	Biztanleko BPGa (1)		Egiazko BPGaren hazkuntza		Langabezia-tasa		Enplegua			Inflazioa (KPIH) (abendua-abendua aldaketa)	Produktibitatea/ pertsona enplegatu (2)		Ald. % Egiazko lan-kostu unitarioaren indizea-SEC95 (3)	
							Enple-gu tasa	Enpleguaren urteko hazkuntza						
	2012	2013	2013	2014	2013	2014	2014	2013	2014	2014	2012	2013	2012	2013
EB28	100	100	0	1,3	10,9	10,2	69,2	-0,3	0,8	-0,2	100	100	0,8	-0,4
EB27	100	100	:	:	10,8	10,2	69,3	:	:	-0,2	100,1	100,1	0,8	-0,4
Eurogunea (19)	107	107	-0,4	0,9	12	11,6	68,2	-0,7	0,6	-0,1	-	-		
Eurogunea (18)	108	107	-0,5	0,9	12	11,6	68,2	-0,7	0,6	-0,1	108,7	108,7	0,6	-0,3
Belgika	120	119	0,3	1	8,4	8,5	67,3	-0,3	0,3	-0,4	128,6	127,4	2,1	0,3
Bulgaria	45	45	1,1	1,7	13	11,4	65,1	-0,4	0,4	-2	44,5	43,4	1,3	6,1
Txekiar Errepublika	82	82	-0,7	2	7	6,1	73,5	0,4	0,4	0,1	73,9	72	1,7	-2
Danimarka	125	124	-0,5	1,1	7	6,6	75,9	0	0,7	0,1	112,2	111,1	-0,8	-0,2
Alemania	123	122	0,1	1,6	5,2	5	77,7	0,6	0,9	0,1	107,1	107,1	1,6	-0,1
Estonia	71	73	1,6	2,1	8,6	7,4	74,3	1,2	0,8	0,1	70,2	70	0,6	1,7
Irlanda	130	130	0,2	4,8	13,1	11,3	67	2,4	1,7	-0,3	141,9	135,6	-0,6	0,6
Grezia	74	73	-3,9	0,8	27,5	26,5	53,3	-3,8	0,7	-2,5	91,8	92,8	-4,8	-4,9
Espainia	94	94	-1,2	1,4	26,1	24,5	59,9	-2,6	1,3	-1,1	109,7	111,4	-3	-2,3
Frantzia	107	107	0,3	0,4	10,3	10,3	69,8	-0,2	0,3	0,1	116,3	116,1	0,6	0,1
Kroazia	61	61	-0,9	-0,4	17,3	17,3	59,2	-2,6	2,7	-0,1	80,4	80,2	-1,9	0,6
Italia	101	99	-1,7	-0,4	12,1	12,7	59,9	-1,8	0,1	-0,1	109,4	108,9	0,6	-0,2
Txipre	93	89	-5,4	-2,3	15,9	16,1	67,6	-5,2	-1,9	-1	92,6	91,9	-4,2	-4,3
Letonia	60	64	4,2	2,4	11,9	10,8	70,7	2,3	-1,3	0,3	66,3	67	0,1	2,1
Lituania	69	73	3,3	2,9	11,8	10,7	71,8	1,3	2	-0,1	74,1	74,7	-0,7	2,1
Luxemburg	264	257	2	:	5,9	5,9	72,1	2	:	-0,9	162,8	164,1	1,6	-1
Hungaria	65	66	1,5	3,6	10,2	7,7	66,7	0,9	3,2	-0,8	71,2	70,7	-0,6	1,3
Malta	84	86	2,7	3,5	6,4	5,9	66,3	4,2	4,2	0,4	93,1	91,9	2	-1,3
Herbehereak	132	131	-0,7	0,9	7,3	7,4	76,1	-1,3	-0,3	-0,1	108,5	108,9	1,5	0,6
Austria	129	128	0,2	0,3	5,4	5,6	74,2	0,7	0,9	0,8	115	113,5	1,3	0,8
Polonia	66	67	1,7	3,4	10,3	9	66,5	-0,1	1,7	-0,6	73,7	74,4	-0,9	:
Portugal	76	79	-1,6	0,9	16,4	14,1	67,6	-2,9	1,4	-0,3	76,1	76,8	-2,7	0,1
Errumania	53	55	3,4	2,6	7,1	6,8	65,7	-0,6	1	1	51,1	51,7	-0,2	-1
Eslovenia	82	82	-1	2,6	10,1	9,7	67,8	-1,5	0,7	-0,1	80,9	81,2	0,5	-1,8
Eslovakia	74	75	1,4	2,4	14,2	13,2	65,9	-0,8	1,4	-0,1	82,1	82,7	-0,2	-1,4
Finlandia	115	113	-1,3	-0,1	8,2	8,7	73,1	-1,5	-0,3	0,6	109,1	107,2	1,6	0,2
Suedia	126	127	1,3	2,1	8	7,9	80	1	1,4	0,3	114,4	114,6	1,9	-0,2
Erresuma Batua	107	109	1,7	2,8	7,6	6,1	76,2	1,2	2,3	0,5	99,3	99,5	1,5	-0,4

(1) EAPan. EB27 eta EB28=100 (2) EAPan. UE28=100
Iturria: EUROSTAT

KPIH[7]**:** Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatuaren (KPIH) aldaketa eurogunean -%0,2n kokatu zen 2014ko abenduan, 2013ko abenduko datuekin alderatuz gero. Espainiar estatuak -%1,1 du. Analisi zabalagoa egiteko, irakurleari prezioen, kostuen eta errenten kapitulura bidaltzen diogu.

[6] *Lan Kostu Unitario (LKU) arrunta soldatapekoaren araberako lan-kostuaren eta okupatuaren araberako produktibitatearen arteko ratioa da. Egiazko LKUa zatidura bera da, baina deflaktorea aplikatu ondoren, "prezioen efektua" kenduta.*

[7] *Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatuak (KPIH) Europar Batasunean inflazioaren neurri erkidea eskaintzen du. Alderaketa homogeneo horiek lortzeko kontsumo-partida zehatzak kendu behar izan dira, nahiz eta KPIak kontuan hartu. Horiek %5 inguru dira. Ildo horri eutsiz, adibidez, KPIHtik zerbitzu medikoak, irakaskuntza arautua, diruz lagundutako sendagaiak eta farmazia-produktuak, etab. kendu dira.*

Inflazioaren eta lan-kostuen analisi zabalagoa egiteko, irakurleari prezioen, kostuen eta errenten kapitulura bidaltzen diogu.

Herri-finantzak: Egonkortasun eta Hazkuntza Itunaren xedapenekin bat, Estatu kideek bi balioen azpitik mantentzeko konpromisoa hartzen dute: %3ko defizit/BPG ratioa eta %60ko zor/BPG ratioa.

Zergaren bateratze-prozesuak eurogunean 2014. urtean jarraitu arren, erritmoa nabarmenki moteldu zen, neurri batean, azkeneko urteetan izandako aurrerapenen islapen modura.

Euroguneko herri-administrazioen zorrak 2014. urtean gorantz egiten jarraitu zuen eta Estatu guztietan hazi zen, Hungaria, Luxemburg, Eslovakia, Malta, Alemania, Txekiar Errepublika, Polonia eta Irlandan izan ezik.

EUROSTATen datuen arabera, 2014. urtean eurogunea19n BPGaren gainean herri-zorra %91,9koa izan zen, 2013. urteko %90,9ren aldean.

Hurrengo herrialdeek %60ko atalasea gainditu dute: Malta (%69,2), Herbehereak (%68,6), Eslovenia (%70,3), Alemania (%77,1), Hungaria (%77,3), Austria (%80,9), Kroazia (%80,6), Erresuma Batua (%87,3), Frantzia (%92,3), Espainia (%92,1), Belgika (%104,4), Txipre (%102,2), Irlanda (%123,2), Portugal (%129,7), Italia (%128,5) eta Greziak (%175).

Defizitari dagokionez, eurogunea19n herri-defizita BPGaren %2,4ko maila baliokidean kokatu zen. 2013. urtean, berriz, %2,9koa izan zen.

2014. urtean defizita murriztu zen, nagusiki, hobekuntza ziklikoarengatik eta, bereziki, kontsumo pribatua haztearen ondorioz zeharkako zergetatik diru-sarrerak gehitzeari atxiki dakioke. Bien bitartean, egiturazko zerga-doikuntzak geldialdia izan zuen.

Hurrengo estatuek gainditu zuten BPGaren %3ko muga: Txipre (-%8,8), Espainia (-%5,8), Kroazia (-%5,7), Eslovenia (-%4,9), Portugal (-%4,5), Irlanda (-%4,1), Frantzia (-%4), Grezia eta Polonia (biak -%3,3rekin) eta Belgika nahiz Finlandiak (biak -%3,2rekin).

I.1.6. KOADROA. HERRI-FINANTZAK EBN

	BPGaren gainean gobernuaren herri-zorraren %		Defizit/superabit publikoaren % BPGaren gainean (moneta nazionaletan)	
	2013	2014	2013	2014
EB28	85,5	86,8	-3.2	-2,9
Eurogunea (19)	90,9	91,9	-2,9	-2,4
Belgika	104,4	106,5	-2,9	-3,2
Bulgaria	18,3	27,6	-0,9	-2,8
Txekiar Errepublika	45,0	42,6	-1,2	-2,0
Danimarka	45,0	45,2	-1,1	1,2
Alemania	77,1	74,7	0,1	0,7
Estonia	10,1	10,6	-0,2	0,6
Irlanda	123,2	109,7	-5,8	-4,1
Grezia	175,0	177,1	-12.3	-3,5
Espainia	92,1	97,7	-6,8	-5,8
Frantzia	92,3	95,0	-4,1	-4,0
Kroazia	80,6	85,0	-5,4	-5,7
Italia	128,5	132,1	-2,9	-3,0
Txipre	102,2	107,5	-4,9	-8,8
Letonia	38,2	40,0	-0,7	-1,4
Lituania	38,8	40,9	-2,6	-0,7
Luxemburg	24,0	23,6	0,9	0,6
Hungaria	77,3	76,9	-2,5	-2,6
Malta	69,2	68,0	-2,6	-2,1
Herbehereak	68,6	68,8	-2,3	-2,3
Austria	80,9	84,5	-1,3	-2,4
Polonia	55,7	50,1	-4,0	-3,3
Portugal	129,7	130,2	-4,8	-4,5
Errumania	38,0	39,8	-2,2	-1,5
Eslovenia	70,3	80,9	-14,9	-4,9
Eslovakia	54,6	53,6	-2,6	-2,9
Finlandia	55,8	59,3	-2,5	-3,2
Suedia	38,7	43,9	-1,4	-1,9
Erresuma Batua	87,3	89,4	-5,7	5,7

Iturria: EUROSTAT

-%1,5 eta -%3 tartean ondorengoak ditugu: Italia, Eslovakia, Bulgaria, Hungaria, Austria, Herbehereak, Malta, Txekiar Errepublika, Suedia eta Errumania. 0 eta -%1,5 bitartean: Letonia eta Lituania. Bestalde, Estonia, Luxemburg, Alemania eta Danimarkak superabita izan zuten.

1.4. ESPAINIAKO EKONOMIA

INEk argitaratu ostean, Hiruhileko Kontabilitate Nazionalaren (HHKN) aurrerapenari dagokion estimazioarekin bat, 2014ko laugarren hiruhilekoan Espainiako ekonomiak 2013. urtearen erdialdean hasitako suspertze-prozesua finkatu zuen eta sei hiruhilekoz ondoz ondo hiruhilekoen arteko hazkuntzari eutsi dio. Hala, 2014. urtean BPGa urteen artean egiaz batez beste %1,4 hazi zen, 2013. urteko %1,2ko jaitsieraren aldean.

Espainiako Bankuak eta Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak[1] argitaratutako datuei eta informazioari jarraiki, barneko eskaerak ehuneko 2,2 puntuko ekarpena eskaini zion 2014. urtean produktuaren hazkuntzari; bien bitartean, kanpoko eskea 0,8 puntu uzkurtu zen.

Eskaera nazionalaren osagaien artean, bereziki azpimarragarriak dira, bai kontsumo pribatuaren bizitasuna, baita kapital finkoan inbertsioaren hazkuntza ere, eraikuntzan inbertsioa suspertu eta ekipo-ondasunen dinamismoari esker.

Azkeneko kontsumo pribatua bolumenean 2014. urtean urteen arteko %2,4ko hazkuntzarekin itxi zen, hiru urtez etengabe jaitsi ondoren. Kontsumo pribatuaren aldeko portaera honakoetan oinarritzen da: batetik, enplegua arinki suspertzean eta, bestetik, prezioak moteltzean. Bi horiek positiboki eragiten dute familien egiazko errenta eskuragarrian. Era berean, baldintzatzaile finantzarioak, bereziki, etxebizitza erosteko eta kontsumorako mailegu berrien interes-tasak pixkana hobetu eta murriztu dira eta horrek ere aurrekoan lagundu du. Ildo horri eutsiz, eragiketa berrien fluxuek aurrerantz egin dute.

Urteen arteak kontuan hartuta, KFFGak batez beste urteen arteko %3,4ko hazkuntza izan zuen, sei urtez etengabe murrizketak izan ondoren. Ekipo-ondasunetan eta aktibo landuetan izandako inbertsioari[8] (%12,2 hazi zen) eta eraikuntzan inbertsioari eskerrak eman behar zaizkio. Bigarrenari dagokionez, jaitsiera-erritmoa murrizten ari da eta aldaketa-tasa laugarren hiruhilekoan positibo bihurtu da. Izan ere, lehenengo eta laugarren hiruhilekoen artean -%7,4 izatetik %2,4 izatera pasa da eta, ondorioz, ehuneko 9,8 puntu gehitu da.

Herri-administrazioen (HHAA) gastua azkeneko kontsumoan, bolumenean eta urteen arteetan, oso arinki hazi zen, hain zuzen ere, hamarren bat, azkeneko hiru urteetako jaitsieren aldean.

Kanpoko eskeari dagokionez, ondasunen eta zerbitzuen esportazioak, merkataritza-bazkide nagusien eta garapen-bidean dauden ekonomia nagusien jarduera-eboluzioaren ildotik, lehenengo eta bigarren hiruhilekoen artean moteldu ziren. Izan ere, ez dago susperraldi orokorturik eta goranzko ibilbidea eten da. Hirugarren hiruhilekotik aurrera, berriz, suspertu da. Bestalde, ondasunen inportazioek bolumenean 2014. urtean zehar, urteen arteko baldintzetan, esportazioekiko ibilbide paraleloa izan zuten. Nolanahi ere, bigarren hiruhilekoan hazkuntza-tasek beherantz egin zuten, hirugarrenean %8,6 bizkortzeko. Laugarren hiruhilekoan, ordea, %7,7raino moteldu dira.

Eskaintzaren ikuspuntutik, urte arteko balioak aintzat hartuta, eraikuntza, industria eta zerbitzuen Balio Erantsi Gordina (BEG) bizkortu zen urtean zehar. Izan ere, eraikuntza jaitsiera-erritmoa gutxitzen ari da eta aldaketa-tasa laugarren hiruhilekoan %3,4 positibo bihurtu da. Bestetik, industriak ehuneko 1,6 puntu irabazi ditu lehenengo eta laugarren hiruhilekoen artean eta zerbitzuek 1,4 puntu.

Enpleguaren batez besteko hazkuntza %1,2koa izan zen 2014. urtean. Hori 2013. urtean izandako jaitsierarekin (-%3,3) kontrajar daiteke eta lehenengo datu positiboa da, sei urtez ondoz ondo jaitsi ostean. Susperraldi progresiboaren hiruhilekoaren profila jarduera-sektoreen arabera orokortua izan zen, nekazaritzaren adarrean izan ezik. Hala, okupazioa %4 inguru hazi zen industrian eta eraikuntzan urtearen amaieran eta %2,6 zerbitzuen adarretan.

---

8 Espainiako Bankuaren aldizkari ekonomikoa, 2015eko otsaila. Eta Ekonomia eta Lehiakortasunaren Ministerioko martxoko Abagune Ekonomikoari buruzko Txostena.

8 KFFGaren banaketa SEC 2010 es sistema berriarekin aktibo-mota desberdinen artean: etxebizitzak, bestelako eraikinak eta eraikuntzak, makineria eta ekipo-ondasunak eta armamentu-sistemak, baliabide biologiko landuak eta jabetza intelektualaren produktuak.

Soldatak %1,6 igo ziren; aurreko urtean, berriz, %3,9 jaitsi. Bestalde, INEren Biztanleria Aktiboaren Inkestari (BAI) erreparatuz, langabezia-tasak (16 urtetik gorakoak) beheranzko ibilbidea izaten jarraitu zuen, hain zuzen ere, lehenengo hiruhilekoko %26tik laugarreneko %23,7ra. Dena den, azkeneko hiruhileko honetan jaitsiera gelditu zen, hirugarren hiruhilekoari zegokion tasa errepikatu baitzen.

Horrela, langile bakoitzeko itxurazko ekoizkortasunari dagokionez, esan behar da motela egin zela urtean zehar, lehen hiruhilekoko %1,1etik laugarren hiruhilekoko -%0,4ra.

I.1.7. KOADROA. ESTATUKO EGOERA MAKROEKONOMIKOA. 2008KO OINARRIA
Urte arteko aldakuntza-tasak. Kateatutako bolumena. Urtaroko eta egutegiko ondorioen datu zuzenduak.

	2013	2014	2013				2014			
			I. HH	II. HH	III. HH	IV. HH	I. HH	II. HH	III. HH	IV. HH
Gastua azken kontsumoan	**-2,4**	**1,8**	**-4,0**	**-3,2**	**-2,2**	**-0,3**	**1,1**	**1,8**	**2,1**	**2,4**
- Etxebizitzetako azken kontsumoaren gastua	-2,3	2,4	-3,8	-3,1	-2,2	-0,1	1,3	2,3	2,8	3,4
- HHAAetako azken kontsumoaren gastua	-2,9	0,1	-4,5	-3,6	-2,4	-1,1	0,3	0,3	0,3	-0,5
Kapital finkoaren eraketa gordina	**-3,8**	**3,4**	**-6,3**	**-5,5**	**-2,6**	**-0,5**	**0,8**	**3,9**	**3,9**	**5,1**
- Aktibo finko materialak	-4,2	3,6	-7,0	-6,4	-2,6	-0,5	0,7	4,3	3,9	5,5
• Eraikuntza	-9,2	-1,5	-7,4	-11,4	-9,7	-8,3	-7,4	-0,7	0,1	2,4
• Ekipamendu-ondasunak eta aktibo landuak	5,6	12,2	-6,2	3,4	11,4	14,7	15,8	12,9	10,2	10,3
- Jabetza intelektualak sortutakoak	-1,3	2,5	-2,3	0,0	-2,7	-0,3	1,8	1,7	3,4	3,1
ESKAERA NAZIONALA (*)	**-2,7**	**2,2**	**-4,3**	**-3,5**	**-2,4**	**-0,5**	**1,2**	**2,3**	**2,6**	**2,7**
Kanpoko eskaria										
Ondasun eta zerbitzuen esportazioak	4,3	4,2	0,0	7,3	4,9	5,1	6,4	1,0	4,5	4,7
Ondasun eta zerbitzuen inportazioak	-0,5	7,6	-7,3	1,3	0,5	3,8	9,4	4,9	8,6	7,7
BARNEKO PRODUKTU GORDINA merkatuko prezioetan	**-1,2**	**1,4**	**-2,2**	**-1,7**	**-1,0**	**0,0**	**0,6**	**1,2**	**1,6**	**2,0**
Nekazaritza, abeltzaintza, basozaintza eta arrantza	15,6	3,3	5,3	21,9	17,2	18,4	10,3	1,6	5,3	-3,4
Industria	-1,8	1,5	-3,3	-2,4	-0,9	-0,5	0,5	1,9	1,5	2,1
- Manufaktura-industria	-1,1	2,3	-2,9	-1,2	-0,6	0,4	1,5	2,4	2,3	3,0
Eraikuntza	-8,1	-1,2	-8,8	-9,6	-8,0	-6,0	-6,2	-1,7	0,0	3,4
Zerbitzuak	-1,0	1,6	-1,5	-1,6	-1,1	0,0	0,9	1,4	1,7	2,3
- Merkataritza, garraioa eta ostalaritza	-0,7	2,8	-1,5	-1,5	-0,8	0,9	1,9	2,6	3,0	3,7
- Informazioa eta komunikazioak	-2,8	1,6	-3,2	-2,9	-3,5	-1,6	1,3	0,8	2,0	2,4
- Finantza- eta aseguru-jarduerak	-7,8	-5,5	-6,2	-9,1	-7,9	-8,2	-6,5	-5,3	-5,4	-4,6
- Higiezinen arloko jarduerak	1,1	2,0	1,7	1,6	0,3	0,8	1,3	1,9	2,5	2,3
- Jarduera profesionalak	-1,1	2,6	-2,4	-2,4	-1,0	1,3	1,4	2,0	2,3	4,8
- Herri-administrazioa, osasuna eta hezkuntza	-1,3	0,5	-1,9	-1,8	-0,9	-0,7	0,2	0,6	0,6	0,5
- Jarduera artistikoak, olgetakoak eta bestelako zerbitzuak	1,5	2,9	-0,3	1,1	1,4	3,8	3,6	2,4	2,5	3,0
Produktuen gaineko zerga garbiak	-1,5	0,6	-2,9	-1,5	-1,1	-0,6	0,0	0,5	1,1	1,0
Lan-merkatua										
Lanpostuak (ETC)										
Okupatuak	-3,3	1,2	-4,3	-3,9	-3,0	-1,8	-0,4	1,0	1,7	2,4
Soldatapekoak	-3,9	1,6	-5,2	-4,9	-3,6	-2,0	-0,3	1,6	2,1	2,9
16 urtekoen edo zaharragoen langabezia-tasa (BAI) (**)	26,1	24,4	27,0	26,1	25,65	25,7	26,0	24,5	23,7	23,7
Langileen araberako produktibitatea (Espainiako Bankua)	2,1	0,2					1,1	0,2	-0,0	-0,4

(*) Merkatuko prezioetako BPGd-ari egindako ekarpena.
Iturria: INE (Hiruhilekoko kontabilitatea eta BAI) eta Espainiako Bankua. Espainia. Adierazle ekonomiko orokorrak

Ordainketaren balantzari dagokionez, 2014. urtean ekonomiak berriz ere finantzazio-gaitasuna [9] izan zuen. Ekonomiaren finantzaziorako ahalmena (superabita) 10.938 milioi eurokoa izan zen, hots, BPGd-aren %1.

Espainiako Administrazio Publikoek 61.391 milioi euroko defizitarekin (behin-behineko datuak) amaitu zuten 2014. urtea, Kontabilitate Nazionalaren arabera neurtuta. Horrek esan nahi du 2013 eta 2014 artean BPG %6,8tik %5,8ra igaro zela.

Bananduta, Administrazio Zentralak, Autonomia Erkidegoek eta Gizarte Segurantzak, hurrenez hurren, %3,6, %1,7 eta %1,1eko defizitarekin itxi zituzten euren kontuak. Tokiko Korporazioek (TTKK), aldiz, %0,5eko superabita izan zuten.

I.1.8. KOADROA. ESPAINIAKO EKONOMIAREN ORDAINKETA-BALANTZA *(milioi euro)*

	2012	2013 bb	2014 bb
BPGd bb	1.055.158	1.049.181	1.058.469
Finantziazio gaitasuna/premia	802	22.246	10.938
BPGd-aren gainean (%)	0,1	2,1	1,0
Kontu korrontearen eta kapitalaren saldoa	2.260	21.965	12.946
Kontu korrontea	-2.985	15.081	8.491
Ondasunak eta zerbitzuak	16.452	35.731	27.238
Errentak	-19.436	-20.650	-18.747
Kapital kontua	5.244	6.884	4.456
Finantza-saldoa	149	40.583	32.581
Guztira, Espainiako Bankua salbu	173.665	-73.599	8.246
Inbertsio zuzena	-23.099	-11.979	5.867
Zorroko inbertsioa	55.403	-34.853	8.068
Bestelako inbertsioak	149.710	-27.807	-7.319
Finantza-deribatu garbiak	-8.349	1.039	1.630
Espainiako Bankua	-173.516	114.182	24.335
Erreserbak	2.211	536	3.891
Eurosistemaren aurrean EB posizio garbia	-162.366	123.660	23.819
Bestelakoak EB	-13.361	-10.012	-3.375

bb: behin-behinekoa. Iturria: Espainiako Bankua. "Adierazle ekonomikoak"

Diru-sarrerak direla eta zerga nagusietako zerga-bilketak, autonomia erkidegoen eta tokiko korporazioen partaidetza aintzat hartuta, hazkundea izan zuen (+%3,6). Hazkuntza azaltzeko, honakoei erreparatu behar zaie: batetik, zuzeneko zergen diru-bilketa %1,6 igotzeari (PFEZarena %3,9 eta "bestelakoak" partida %1,1 hazi ziren; bien bitartean, sozietateena %6,4 jaitsi zen) eta, bestetik, zeharkakoak %6,1 hazteari (BEZa %8,1, bereziak %0,2 eta "bestelakoak" partida %8,6 hazi ziren).

Bestalde, Estatuak onartutako obligazioek %0,8 egin uzten beherantz, arrunten transferentzien (-%5,9) eta langileen (-%0,4) kapituluak jaistearen ondorioz.

I.1.9. KOADROA. SALDO PUBLIKOA AGENTEEN ARABERA* *(milioi euro)*

	(milioi eurotan)				BPGd-aren %			
	2011bb	**2012bb**	**2013a**	**2014**	**2011 bb**	**2012**	**2013**	**2014**
Herri-administrazioak gait. (+) / Behar. (-) Finantzazioa EKNaren arabera*	**-101.265**	**-108.903**	**-71.291**	**-61.391**	**-9,4**	**-10,3**	**-6,8**	**-5,8**
Administrazio Zentralak								
Administrazio Zentrala (Estatua eta erakunde autonomoak)	-36.858	-82.592	-49.190	-38.264	-3,4	-7,8	-4,7	-3,6
Gizarte Segurantza	-1.063	-10.171	-11.643	-11.202	-0,1	-1,0	-1,1	-1,1
Lurraldeko erakundeak								
AAEE	-54.838	-19.447	-15.932	-17.541	-5,1	-1,8	-1,5	-1,7
Tokiko Korporazioak (TTKK)	-8.506	3.307	5.474	5.616	-0,8	0,3	0,5	0,5

SEC 2010en arabera egindako koadroa
bb: behin-behinekoa. Iturria: Espainiako Bankua. "Buletin Estatistikoa"

9Ekonomiaren sektoreek sortutako aurrezkia egindako inbertsioei aurre egiteko nahikoa denean sortzen da eta honako balantzaren saldoak batuta kalkulatzen da: kontu korrontea, kapitala eta kanpoan bizi direnen inbertsioak.

I.1.10. KOADROA. ESTATUKO ZERGA-BILKETA *(Autonomia Erkidegoek eta Tokiko Korporazioek PFEZ, BEZ eta zerga bereziei egindako ekarpena barne) (milioi euro)*

	Zuzeneko zergak				Zeharkako zergak				Guztira		
	Guztira	PFEZ	Sozietateen zerga	Beste batzuk	Guztira	BEZ	Bereziak	Beste ba-tzuk	Estatua	AAEE eta TTKK	Guztira
2009	87.521	63.857	20.188	3.476	55.662	33.573	19.349	2.739	82.761	60.422	143.183
2010	86.913	66.977	16.198	3.738	71.886	49.079	19.806	3.001	111.087	47.712	158.799
2011	89.641	69.803	16.611	3.227	71.241	49.302	18.974	2.965	88.026	72.855	160.881
2012	96.152	70.631	21.435	4.086	71.594	50.464	18.209	2.921	75.643	92.102	167.746
2013	94.040	69.946	19.964	4.130	73.733	51.939	19.073	2.722	97.796	69.977	167.773
2014	95.571	72.655	18.694	4.221	78.225	56.166	19.104	2.956	101.933	71863	173.796
2012 eta 2013 arteko aldea	-2,2	-1,0	-6,9	1,1	3,0	2,9	4,7	-6,8	29,3	-24,0	0,0
2013 eta 2014 arteko aldea	1,6	3,9	-6,4	2,2	6,1	8,1	0,2	8,6	4,2	2,7	3,6

Iturria: Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioa. Adierazle ekonomikoen laburpena. Taulak eta Grafikoak. 2015eko otsaila

I.1.11. KOADROA. AURREKONTUAREN BETEARAZPENA: ESTATUAK ONARTUTAKO OBLIGAZIOAK *(milioi euro)*

	Langileak*	Ondasunen eta zerbitzuen erosketak	Interesak	Transferentzia arruntak*	Kapital transferentziak	Inbertsioak	Guztira
2009	17.083	4.965	17.652	117.096	11.840	10.625	179.260
2010	16.937	4.452	19.641	112.751	13.663	8.070	175.514
2011	16.623	4.041	22.195	97.494	7.878	6.163	154.394
2012	15.449	3.529	26.059	96.700	4.658	7.195	153.689
2013	15.708	3.190	28.410	101.314	7.163	5.457	161.242
2014	15.640	3.307	31.818	95.367	8.630	5.161	159.922
2012 eta 2013 arteko aldea	1,7	-9,6	9,0	4,8	53,8	-24,2	4,9
2013 eta 2014 arteko aldea	-0,4	3,7	12,0	-5,9	20,5	-5,4	-0,8

(*) 2014. urtean izandako aldaketarekiko datu homogeneizatuak. Estatuak ordaindutako pentsioak tratatu dira.
Iturria: Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioa. Adierazle ekonomikoen laburpena. Taulak eta Grafikoak. 2015eko otsaila

1.5. AUTONOMIA ERKIDEGOAK

INEren Eskualdeko Kontabilitateari buruzko datu ofizialen arabera, biztanleko BPG nominalari erreparatuz, Madrilgo Erkidegoak izan zuen baliorik altuena, 2014. urtean biztanleko 31.004 euro, alegia. Atzean egon ziren EAE (29.683 euro) eta Nafarroa (28.124 euro). Kontrako aldean, ordea, Extremadura (15.752 euro biztanleko), Andaluzia (16.884 euro) eta Melillako hiri autonomoa (16.941 euro) kokatu ziren. Estatuko batez bestekoa 22.780 eurokoa izan zen.

2014. urtean bolumenean BPGaren hazkuntzarik handiena izan zuen eskualdea Errioxa (%2,5) izan zen eta Extremadura nahiz Kanariek (%2,2 biek) jarraitu zioten. Erkidego horiez gain, beste seik izan zuten BPGaren benetako hazkunde-tasa Estatuko batez bestekoa (%1,4) baino handiagoa. Honakoek, hain zuzen ere: Valentziako Erkidegoa (%2,1), Nafarroa (%2), Murtziako Erkidegoa (%2), Balear Uharteak (%1,9) eta Aragoi (%1,7).

Gaztela eta Leon eta Katalunia batez bestekoaren parekoa izan zuten: %1,4. Ondoko erkidegoek batez bestekoaren azpiko indizea izan zuten: Andaluzia (%1,3), Gaztela-Mantxa eta EAE (biek %1,2), Madril eta Kantabria (biek %1) eta honakoek batez bestekotik urrunagoko indizea izan zuten: Galizia (%0,5), Ceutako (%0,6) eta Melillako (%0,8) hiri autonomoak eta Asturiasko Printzerria (%0,8).

Lan-merkatuari dagokionez, 2014. urtean, 4 autonomia erkidegok izan ezik, gainerakoek enpleguari begira irabaziak dituzte. Ondokoek izan zituzten irabazirik handienak: Extremadura (%4,2ko enplegu-hazkundea), Errioxa eta Murtzia (biek %3), Andaluzia (%2,4), Katalunia (%2,1), Asturias (%1,9) eta Nafarroa nahiz Valentziako Erkidegoa (biek %1,7). Estatuko batez bestekoa %1,2koa izan zen. Ondokoek, berriz, enplegua galdu zuten: Madril (-%0,1), Galizia (-%0,8), EAE (-%1) eta Melilla (-%1,2).

Estatuan langabezia-tasa 2014. urtean %24,4ra iritsi zen (2013. urtean %26,1). 2013. eta 2014. urteen artean langabezia-tasak autonomia erkidego guztietan beherantz egin zuen. Honako hauek izan zituzten tasarik txikienak: Nafarroa (%15,7), EAE (%16,3, gure autonomia erkidegoa Estatu guztian langabeziaren ehuneko jaitsiera txikiena izan arren eta autonomia erkidegoen multzoak izandako %7,3tik argi eta garbi azpian), Errioxa (%18,2), Madril (%18,7) eta Kantabria (%19,4). Estatuko batez bestekoaren gainetik, ondoko erkidegoek izan zituzten tasarik handienak: Andaluzia (%34,8), Kanariak (%32,4), Ceuta (%31,9), Extremadura (%29,8), Gaztela-Mantxa (%29), Melilla (%28,4), Murtzia (%26,6) eta Valentziako Erkidegoa (%25,8).

I.1.12. KOADROA. AUTONOMIA ERKIDEGOETAKO BPGd-aren HAZKUNDEA, ENPLEGUA ETA LANGABEZIA-TASAK

	Landun pertsonen kopuruaren aldakuntza		Langabeen kopuruaren aldakuntza		Langabezi tasa (16-64 urte)		BPGd bolumenaren aldakuntza		Per capita BPGd-a		
									2012 a	2013 e	
	2013	2014	2013	2014	2013	2014	2013	2014	Estatua = 100	Estatua = 100	€ per cápita
Guztira	**-2,8**	**1,2**	**4,1**	**-7,3**	**26,1**	**24,4**	**-1,2**	**1,4**	**100**	**100**	**22.780**
Andaluzia	-3,2	2,4	5,1	-3,8	36,2	34,8	-1,1	1,3	74,8	74,1	16.884
Aragoi	-5,7	0,8	11,8	-6,3	21,4	20,2	-0,7	1,7	109,7	109,6	24.957
Asturias	-3,5	1,9	9,9	-14,2	24,1	21,1	-2,5	0,8	89,0	89,3	20.334
Balear U	0,8	1,5	-4,3	-11,4	22,3	20,0	-0,5	1,9	104,9	105,1	23.931
Kanariak	-1,9	1,2	3,4	-4,6	33,7	32,4	-0,4	2,2	85,8	86,0	19.581
Kantabria	-5,0	1,4	12,8	-4,9	20,4	19,4	-2,3	1,0	91,7	91,5	20.855
Gaztela eta Leon	-4,1	0,4	8,0	-5,3	21,8	20,8	-1,8	1,4	95,0	95,4	21.727
Gaztela-Mantxa	-2,1	0,0	4,6	-4,6	30,0	29,0	-0,9	1,2	81,2	80,4	18.307
Katalunia	-2,0	2,1	1,4	-13,4	23,1	20,3	-1,2	1,4	117,7	118,5	26.996
Valentziako Erkidegoa	-1,8	1,7	2,5	-9,2	28,1	25,8	-0,8	2,1	87,5	88,1	20.073
Extremadura	0,1	4,2	3,7	-13,7	33,9	29,8	-1,0	2,2	68,8	69,1	15.752
Galizia	-3,9	-0,8	5,2	-3,1	22,0	21,7	-0,9	0,5	88,3	87,6	19.954
Madril	-3,6	-0,1	4,4	-6,5	19,8	18,7	-1,6	1,0	136,2	136,1	31.004
Murtzia	-2,4	3,0	4,4	-8,6	29,0	26,6	-1,3	2,0	81,7	81,3	18.529
Nafarroa	-3,5	1,7	9,3	-13,3	17,9	15,7	-1,1	2,0	123,4	123,5	28.124
EAE	-3,2	-1,0	4,1	-2,7	16,6	16,3	-1,8	1,2	130,1	130,3	29.683
Errioxa	-1,5	3,0	-4,9	-8,7	20,0	18,2	-1,4	2,5	108,4	109,7	24.998
Ceuta	5,3	1,2	-4,2	-11,7	34,8	31,9	-0,7	0,6	81,9	81,4	18.550
Melilla	-3,9	-1,2	26,6	-19,3	32,5	28,4	-0,9	0,8	74,7	74,4	16.941

a: aurrerapena. e: estimazioa
Iturria: INE. Eskualde-kontabilitatea eta BAI

2. EAE-KO ABAGUNE EKONOMIKOA

2.1. BILAKAERA EKONOMIKOA

EUSTATen Kontu Ekonomikoen arabera, BPG errealaren hazkunde tasarekin itxi zuen 2008. urtea euskal ekonomiak, aurreko urteetakoa baino nabarmen txikiagoarekin (%1,3, 2007ko %4,2koaren aldean). 2009an ekoizpenaren beherakadak areagotu egin ziren, eta BPGd-aren aldakuntza tasa erreal negatiboa izan zen (-%4).

2010ean, nolabaiteko susperraldia antzeman zen; 2011n, ordea, hiruhileko aldakuntza-tasen hazkundea (urte arteko kopuru errealetan neurtuak) jaitsi egin zen, eta negatiboak izan ziren 2012. urte osoan eta 2013an ere bai, baina 2013an jaitsiera moteldu dela ikusten da. Hala jarraitu zuen 2014an; izan ere, berriz ere positiboak eta goranzkoak izan ziren hiruhilekoko aldakuntza tasak.

I.2.1.KOADROA. EAE-KO BPG-AREN URTETIK URTERAKO ALDAKUNTZA-TASAK 2012-2014

	2012	2013 (a)	2014 (a)
1. hiruhilekoa	-1,1	-2,7	0,5
2. hiruhilekoa	-1,9	-2,1	0,9
3. hiruhilekoa	-2,4	-1,4	1,4
4. hiruhilekoa 4	-2,5	-0,5	1,9

(a) Aurrerapena
Iturria: EUSTAT. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak (2015eko otsaila)

Beraz, euskal ekonomia urte arteko %0,5eko aldakuntza tasarekin hasi zen 2014ko lehen hiruhilekoan, eta laugarrenean, berriz, %1,9koarekin. Hala, %1,2ko igoera izan zuen EAEk 2013. urtean, kopuru errealetan, EUSTATen arabera (2013an, berriz, %1,7ko gutxipena izan zen); eta BPG 66.943 milioi eurokoa da kopuru arruntetan. INEren Eskualde Kontabilitateak ere aldakuntza errealeko tasa izan zuen 2014an (urtetik urterakoa) euskal ekonomiarako, %1,2koa hain zuzen ere.

EAE-KO BPG-AREN BILAKAERA AGREGATU EKONOMIKO NAGUSIEN ARABERA 2008-2014KO EPEALDIA. 2010eko oinarria. 2010eko Sec. Urtetik urterako aldakuntza tasa. Urtaroko eta egutegiko ondorioen datu zuzenduak

	2008	2009	2010	2011	2012	2013 (a)	2014 (a)
BPG ERREALA MERKATUKO PREZIOETAN: ARABA	2,2	-5,7	1,2	0,8	-2,4	-2,7	1,1
BPG ERREALA MERKATUKO PREZIOETAN: BIZKAIA	1,5	-3,4	0,4	0,1	-2,2	-1,3	1,1
BPG ERREALA MERKATUKO PREZIOETAN: GIPUZKOA	0,4	-4,2	0,6	0,1	-1,4	-1,7	1,4
EAE							
BPG ERREALA MERKATUKO PREZIOETAN	**1,3**	**-4,0**	**0,6**	**0,2**	**-2,0**	**-1,7**	**1,2**
ESKARIA							
1. AZKEN KONTSUMOKO GASTUA	1,9	-1,7	1,2	-0,9	-1,4	-1,1	1,4
1.1. Etxebizitzetako azken kontsumoko gastua	0,7	-3,5	0,9	-1,3	-1,6	-1	1,6
1.2. AAPPetako azken kontsumoko gastua	7	4,9	2,2	0,7	-0,9	-1,4	0,9
2. KAPITALAREN ERAKETA GORDINA	-1,5	-14	-3,9	-1,3	-7	-4,6	0,0
3. BARNE ESKARIA	0,9	-5,3	-0,1	-1	-2,8	-1,9	1,1
4. ONDASUNEN ETA ZERBITZUEN ESPORTAZIOAK	-0,3	-13,4	7,8	1,4	-4,7	0,9	3,4
5. ONDASUNEN ETA ZERBITZUEN INPORTAZIOAK	-0,1	-14,2	5,5	-0,6	-5,7	0,4	3,2
ESKAINTZA							
1. NEKAZARITZA, ABELTZAINTZA ETA ARRANTZA	-6,2	-4,8	20,8	7,6	10,9	-5,5	5,5
2. INDUSTRIA ETA ENERGIA	-0,7	-12,9	2,5	1,3	-5,2	-2,6	1,0
3. ERAIKUNTZA	-5,8	-7,4	-7,9	-7,6	-7,6	-4,7	-3,0
4. ZERBITZUEN SEKTOREA	3,3	-0,1	0,7	0,8	-0,4	-0,9	1,5

(a) aurrerapena
Iturria: EUSTAT. Kontu Ekonomikoak eta Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak (2015eko otsaila)

Lurralde Historikoetan, BPGaren bilakaera ere positiboa izan zen 2014an, EUSTATen arabera. Gipuzkoak izan zuen urte arteko hazkunderik handiena (%1,4); Araban eta Bizkaian, berriz, %1,1eko igoera izan zen bakoitzean.

Ekoizpenaren hazkundea handiagoa da EAEn eurogunean baino (%1,2, %0,9aren aldean), baina Estatukoa baino txikiagoa (%1,4).

Eskariaren aldetik, gure erkidegoko jardueraren igoera, funtsean, barne-eskariaren jokabidearen ondoriozkoa izan zen. Izan ere, barne-eskaria % 1,1 hazi zen eta 1,1 puntuko ekarpena egin zion BPGaren igoerari; gertaera hori, zalantzarik gabe, oso onuragarria izan zen, azken urteotan, barne-eskariak puntuak kendu zizkiolako BPGaren hazkundeari.

I.2.1. GRAFIKOA. BARNE- ETA KANPO-ESKARIAK BPG-AREN HAZKUNDEARI EGINIKO EKARPENA



Iturria: Eustat. HKE (a: aurrerapena)

Barne-eskariaren aldakuntza Azken Kontsumoko Gastuan oinarritu zen (% 1,4) 2014. urtean, emaitza positiboa izan zuelako Etxebizitzen Azken Kontsumoko Gastuan (% 1,6) eta Herri Administrazioen Azken Kontsumoko Gastuan (% 0,9). Kapital Eraketa Gordinak, aldiz, ez zuen hazkunderik izan (% 0,0). Hain zuzen ere, kapital-eraketa gordinean, aurkako bi bilakaera gertatu ziren: ekipo-ondasunei lotutakoak emaitza positiboa eduki zuen (% 2,2); kapital-eraketa gordinaren gainerakoak, berriz, eraikuntzari lotuago dagoela-eta, beheranzko bilakaera izan zuen (%-1,0).

Kanpoko eskaria dela eta, esportazioek %3,4 egin zuten gora (2013an baino %2,5 gehiago),eta inportazioek, berriz, %3,2 (2013an baino %2,8 gehiago hain zuzen).

Eskaintzari dagokionez, benetako BPG igo zen jarduera ekonomikoari lotutako sektore handi guztiek bultzatuta, eraikuntzak izan ezik (%-3,0). Lehen sektoreak % 5,5eko aldakuntza positiboa izan zuen. Bigarrena zerbitzuen sektorea izan zen; horrek % 1,5eko hazkundea izan zuen. Beste alde batetik, industria-sektoreak bilakaera positiboa izan zuen, % 1ekoa, eta manufaktura-industria % 1,1 hazi zen.

Zerbitzuen sektorearen bilakaera positiboan, hiru azpisektorek hartu dute parte.

Zerbitzuen sektorerik dinamikoena Administrazio Publikoa, Hezkuntza eta Osasuna biltzen dituen adarra izan da; izan ere, %2,2ko igoera izan du. Ondoren, Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioa, %1,6 hazita. Gainerako zerbitzuetan ere gorakada izan da jarduera mailetan (%1,1).

Aurreko bilakaerez gain, %1,1 hazi zen Balio Erantsia, eta zerga garbiek produktuetan izandako ondorioa ere positiboa izan zen, oro har, 2014an, hots, %1,7ko hazkundea.

Enpleguak, EUSTATen HKEen arabera, urte arteko %0,3ko igoera izan zela zenbatetsi zen 2014an. Enpleguaren jokabiderik onena zerbitzuen sektorean bideratu zen, 2013ko batez bestekoa baino %1,1 handiagoa. Lehen sektoreko enplegu mailak ere pixka bat gora egin zuen (%0,2). Industrian (%-1,8) nahiz eraikuntzan (%-2,4), berriz, lanpostuak galtzeko joerari eutsi zaio. Bestalde, EUSTATen PRAren arabera, %14,9ko langabezi tasa izan genuen 2014. urtean, hots, EAE euroguneko batez bestekoaren gainetik (%11,6), baina Estaturako zenbatetsitako batez bestekoaren azpitik (%24,3).

Lurralde Historikoetan, Gipuzkoak izan zuen urte arteko hazkunderik handiena (% 0,5), gero Arabak (% 0,2) eta azkenik Bizkaiak (% 0,1).

I.2.3. KOADROA. EAE-KO TESTUINGURU MAKROEKONOMIKOAREN BILAKAERA. 2010EKO OINARRIA. 2010EKO SEC.Urtetik urterako aldakuntza tasa. Urtaroko eta egutegiko ondorioen datu zuzenduak

	2011	2012	2013 (a)	2014 (a)	I	II	III	IV
BPG erreala merkatuko prezioetan	**0,2**	**-2,0**	**-1,7**	**1,2**	**0,5**	**0,9**	**1,4**	**1,9**
Araba	0,8	-2,4	-2,7	1,1	0,6	0,8	1,3	1,6
Bizkaia	0,1	-2,2	-1,3	1,1	0,2	0,9	1,4	1,9
Gipuzkoa	0,1	-1,4	-1,7	1,4	0,8	1,1	1,5	2,1
Eskaria								
Barne-eskaria (hazkundea)	-1,0	-2,8	-1,9	1,1	0,1	1,0	1,4	2,0
Barne-eskariaren ekarpena (1)	-1,0	-2,9	-2,0	1,1	-	-	-	-
Azken kontsumoko gastua	-0,9	-1,4	-1,1	1,4	0,3	1,2	1,7	2,4
Kontsumo pribatua	-1,3	-1,6	-1,0	1,6	0,2	1,4	2,2	2,6
Kontsumo publikoa	0,7	-0,9	-1,4	0,9	1,0	0,8	-0,1	1,8
Kapitalaren Eraketa Osoa (KEO)	-1,3	-7,0	-4,6	0,0	-0,9	0,0	0,2	0,6
Kapitalaren eraketa oso finkoa ondasun ekipamend.	3,7	-4,9	-3,1	2,2	0,4	1,5	2,9	4,0
Gainerako KEO	-	-	-5,3	-1,0	-1,5	-0,6	-1,0	-0,7
Kanpoko saldoaren ekarpena (1)	1,4	0,9	0,3	0,02	-	--		-
Ondasunen eta zerbitzuen esportazioa	1,4	-4,7	0,9	3,4	3,3	2,1	3,6	4,7
Estatuko gainerako lekuak	-5,8	-7,2	1,3					
Atzerria	9,3	-2,4	0,5					
Ondasunen eta zerbitzuen inportazioa	-0,6	-5,7	0,4	3,2	2,6	2,1	3,4	4,7
Estatuko gainerako lekuak	0,4	-2,5	-1,7					
Atzerria	-2,2	-10,5	3,9					
Eskaintza								
Lehen mailakoa	7,6	10,9	-5,5	5,5	-1,9	6,2	13,8	4,6
Industria eta energia	1,3	-5,2	-2,6	1,0	0,8	0,9	1,4	1,0
Manufaktura-industria	-	-	-1,5	1,1	0,9	1,0	1,4	1,1
Eraikuntza	-7,6	-7,6	-4,7	-3,0	-4,1	-3,6	-2,5	-2,0
Zerbitzuak	0,8	-0,4	-0,9	1,5	0,6	1,1	1,7	2,6
Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioa	-0,8	-2,5	-1,6	1,6	0,3	1,3	1,9	3,0
Administrazio Publikoa, Hezkuntza, Osasuna eta Gizarte Zerbitzuak	3,4	0,4	0,1	2,2	1,7	2,0	2,4	2,8
...Gainerako zerbitzuak	0,6	0,5	-0,9	1,1	0,3	0,6	1,3	2,2
Oinarrizko prezioei erantsitako balio osoa	0,3	-2,1	-1,6	1,1	0,3	0,8	1,5	1,9
Zerga garbiak produktuen gainean	-0,1	-1,1	-2,7	1,7	1,9	2,2	0,8	1,9
BPG nominala merkatuko prezioetan	**0,7**	**-1,9**	**-1,0**	**1,3**	**0,4**	**1,3**	**1,5**	**2,1**
LOL lanpostuak								
Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantza	-4,9	0,8	-5,5	0,2	-2,4	0,7	1,2	1,3
Industria eta Energia	-1,3	-5,4	-4,3	-1,8	-2,0	-1,8	-1,4	-1,9
Eraikuntza	-9,9	-12,9	-13,8	-2,4	-4,9	-2,7	-1,7	-0,2
Zerbitzuak	0,5	-1,6	-1,4	1,1	0,4	0,9	1,3	1,9
Guztira	-0,9	-3,3	-3,0	0,3	-0,5	0,1	0,5	1,0

(a) Aurrerapena
(1) BPGaren hazkundeari egindako ekarpenaren portzentajezko puntuak.
Iturria: EUSTAT. Kontu Ekonomikoak eta Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak (2015eko otsaila)

2.2. BARNE-ESKARIAREN AGREGATUAK

Barne-eskarian bost urtez aldakuntza negatiboak izan ondoren, aldakuntza positiboa izan zuen eskari horrek 2014. urtean, %1,1ekoa hain zuzen.

Izan ere, arestian aipatu dugunez, gure Erkidegoko jardueraren igoera, funtsean, barne-eskariaren jokabidearen ondoriozkoa izan zen 2014an, BPGaren hazkundeari ia 1,1 puntu emanda, azken urteotan ekoizpenaren hazkundeari puntuak kendu ondoren.

Hiruhilekoko bilakaeraren azterketak erakusten duenez, barne-eskariaren beherakada moteldu egin zen 2014an, hain zuzen ere 2013ko lehen hiruhilekoko %-2,6tik laugarreneko %-0,6ra, eta 2014ko lehen hiruhilekoan lehen aldakuntza tasa positiboa izan zen hainbat hiruhilekotan jaitsierak gertatu ondoren.

Hala, susperraldian sartu zen barne-eskaria 2014an; izan ere, urte arteko %0,1eko hazkunde tasa erreala izatetik %2ko aldakuntza positibora igaro zen laugarrenean

Osagaien arabera, %0,2ko hazkundea izan zen lehen hiruhilekoan etxebizitzetako azken kontsumoan, eta laugarren hiruhilekoan, berriz, %2,6koa izan zuen azkenean. Bestalde, AAPPen gastua %1eko aldakuntza tasa positiboarekin hasi zuen urteko lehen hiruhilekoa, eta beheranzko zenbait gorabeheraren ondoren, %1,8ko ratioarekin bukatu zuen laugarren hiruhilekoa. Horrenbestez, azken kontsumoaren aldakuntza tasa lehen hiruhilekoan %0,3 izatetik %2,4 izatera igaro zen laugarrenean, halako moldez non urteko batez besteko tasa %1,4an kokatzen baita; 2013. urtean, berriz, %-1,1ekoa izan zen.

Inbertsioari dagokionez, dagoeneko esana dugunez, aldaketa nulua izan du, ekipo-ondasunen inbertsioaren kontrako bilakaeraren (%2,2 hazi da) eta eraikuntzarekin lotuago dagoen inbertsioaren (%1 jaitsi da) ondorioz.

I.2.2. GRAFIKOA. BARNE-ESKARIA. ALDAKUNTZA ERREALEKO URTE ARTEKO TASAK



Iturria: EUSTAT. HKE

I.2.3. GRAFIKOA. BARNE-ESKARIA. ALDAKUNTZA ERREALEKO URTE ARTEKO TASAK



Iturria: EUSTAT. HKE

I.2.4. KOADROA. BARNE-ESKARIAREN ZENBAIT ADIERAZLEREN BILAKAERA
(Urte arteko aldakuntza tasa)

	2012	2013	2014
Kontsumo publikoaren adierazleak			
AAPPen kontsumoko gastua (HKEen arabera)	-0,9	-1,4	0,9
Kontsumo pribatuaren adierazleak			
Kontsumo pribatuko gastua (HKEen arabera)	-1,6	-1,0	1,6
IPI kontsumo-ondasunak	-3,8	-5,0	-1,5
Turismoen matrikulazioa (Edukitze-zikloko datuak)	-13,3	8,0	18,7
Txikizkako Merkataritza Indizea (p. korronteak)	-5.1	-4,0	0,5
Denda handietako salmentak (p. korronteak)	-3,5	-0,9	-1,4
Beste batzuk			
Hoteletan igarotako gauak (EAEko berezkoak salbu)	2,2	-2,2	4,0
Inbertsioaren adierazleak			
IPI ekipo-ondasunak	-5,9	-3,3	2,2
Zamalanetarako ibilgailuen matrikulazioa	-17,5	-0,2	12,4

Iturria: EUSTAT eta Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

EUSTATek emandako informazioaren arabera, kontsumo eta inbertsioko abaguneko adierazleekin berretsita gelditzen da azaldutako egoera.

Hala, kontsumo pribatuko adierazleen aldetik, denda handietako salmentetan izan ezik, zeinen jaitsiera tasa aurreko urtekoa baino handiagoa den (%-1,4, 2013ko %-0,9aren aldean), gainerako adierazleek 2013. urtean izandako datuak hobetzen dituzte.

Hala, kontsumo-ondasunen Industriako Produkzio Indizeak aldakuntza tasa negatiboa erakusten du oraindik ere, aurrekoa baino txikiagoa bada ere (%-5etik %-1,5era igaro da), Txikizkako Merkataritza Indizea, prezio iraunkorretan, %-4tik %0,5era igaro da, eta turismoen matrikulazioak %18,7 egin du gora. 2013an, berriz, %8koa izan zuen.

Inbertsioko adierazleei dagokienez, ekipo-ondasunen Industriako Produkzio Indizea %2,2 hazi da. 2013an, berriz, %3,3 egin zuen behera, eta zamalanetarako industri ibilgailuen matrikulazioan %12,4ko igoera izan zen; 2013an, berriz, %0,2ko jaitsiera izan zen.

Hoteletan igarotako gauak direla eta (EAEko berezkoak alde batera utzita), %4 egin dute gora. 2013an, berriz, %2,2ko jaitsiera izan zen.

2.3. KANPO-ESKARIA

Ingurunearen hobekuntzari esker, esportazioen hazkundea gertatu zen, bereziki urteko bigarren zatian. Bestalde, barne-eskari indartsuaren ondorioz, gora egin zuten ondasunen eta zerbitzuen erosketek gure Erkidegotik kanpora. Hala, gora egin zuten esportazioek nahiz inportazioek 2014. urtean, eta beheranzko joerako prezioen testuinguruan, aldakuntza errealek eta nominalek ez zuten alde handirik izan.

I.2.4. GRAFIKOA. KANPO-SEKTOREAREN BILAKAERA EAE-N (BOLUMEN INDIZEAREN ALDAKUNTZAREN URTE ARTEKO TASA. DATU ZUZENDUAK)



Iturria: Eustat. Kontu Ekonomikoak eta HKE

EUSTATen Kontu Ekonomikoak

2015ean argitaraturiko eta kapitulu honetako 1 eta 3. orrialdeetan azaldutako EUSTAT erakundearen HKEen behin-behineko datuek, ***Estatura eta munduko gainerako lekuetara eginiko ondasun- eta zerbitzu-salmentei*** dagokienez, hauxe erakusten dute: esportazioek, batez beste, %3,4 egin zutela gora urtean kopuru errealetan 2013 eta 2014 bitartean (2013an %0,9), eta inportazioen igoera %3,2koa izan zen (2013an %0,4koa).

Bi aldagaiek antzeko profila erakusten dute urte arteko hiruhilekoen bilakaeran. Esportazioek lehenengo hiruhilekoari %3,3 igotzen ekin zioten, bigarrenean, ordea, beren hazkuntza moteldu zuten eta aldaketa-ratioa %2,1ekoa izan zen; hirugarrenean berriz hazi ziren %3,6rekin eta laugarren hiruhilekoa urteen arteko %4,7ko aldaketa tasarekin amaitu dute. Bestalde, inportazioak lehenengo hiruhilekoan %2,6 hazi ziren, bigarrenean uzkurtu eta %2,1eko aldaketa-ehunekoa izan zuten, hirugarrenean berriz gehitu (%34) ziren eta laugarren hiruhilekoa urteen arteko %4,7ko tasarekin amaitu zuten.

Euskal ekonomiaren irekitze-maila[2] hazi egin zen 2013 eta 2014 bitartean, %135,6tik %137,8ra hain zuzen ere. Ondasunen eta zerbitzuen inportazioaren estaldura-mailan[3], berriz, %0,3ko igoera izan zen esportazioetan, hots, %94,5etik %94,8ra.

I.2.5. KOADROA. IREKITZE- ETA ESTALDURA-MAILA

	Irekitze-maila	Estaldura-maila	BPG ppb korronteetan[1]
2010	129,9	92,0	67.595.563
2011	138,8	93,4	68.041.740
2012	135,4	94,6	66.775.970
2013	135,6	94,5	66.081.063
2014	137,8	94,8	66.943.073

Iturria: EUSTAT .Kontu ekonomikoak eta HKE

EUSTATen Kanpoko Merkataritza Estatistika

Aduanen Erregistroetan oinarritutako Kanpoko Merkataritzaren Estatistikak ***atzerriarekin ondasunen kanpoko merkataritzari*** buruzko datuak eskaintzen ditu eta horiek kontuan hartuta, 2014. urtean esportazioen balio arrunta %9,9 hazi da; ez-energetikoetan (guztiaren %86,9 dira) hazkuntza %5,1ekoa eta energetikoetan %57koa izan da. Guztizko inportazioak % 9,9 hazi ziren; inportazio energetikoen balioa (guztizkoaren % 36,2) %19,7 igo zen eta ez-energetikoena % 4,3.

I.2.6. KOADROA. KANPOKO MERKATARITZAREN BILAKAERA (urteko aldaketa-tasak, nominalak)

	Esportazioak			Inportazioak		
	Guztira	Energeti-koak	Ez energeti-koak	Guztira	Energeti -koak	Ez energe-tikoak
2008	6,3	22,6	4,9	6,4	22,9	-0,8
2009	-26,3	-30,5	-25,9	-38,9	-40,1	-38,2
2010	19,6	22,7	19,3	25,5	24,6	26,0
2011	14,6	17,3	14,4	12,2	13,8	11,3
2012	-0,9	10,8	-2,1	-10,4	-10,2	-10,5
2013	-0,3	-8,8	0,6	1,8	5,5	-0,2
2014	9,9	57,0	5,1	9,9	19,7	4,3

Iturria: EUSTAT. Kanpoko Merkataritzaren Estatistika, Aduanen Erregistroetan oinarritutakoa

Datu-iturri honen arabera, euskal ekonomiaren irekitze-maila (erlazioak atzerriarekin) arinki igo da, %54,5etik %59,1era pasatzean eta ondasun nahiz zerbitzuen inportazioaren estaldura-maila esportazioarekin %128,2an mantendu da.

EAEko esportazio ez-energetikoen muga-zergaren multzoaren araberako azterketak ondutakoari erreparatuta, esan dezagun, lehenik eta behin, ekipo-ondasunak berriz ere nabarmendu zirela, guztira esportatutakoaren % 42,4 izan zirela (makina eta tresnetan, 4.437,2 milioi euro, eta garraio-materialetan, 4.980,6 milioi euro. Esportazioak % 7,6 egin zuen gora, garraio-materialaren esportazioa igo zelako (% 15,5); makina eta tresnena, aldiz, lehengoan geratu zen (-% 0,1). Bigarrenez, metal arrunten eta horien manufakturen esportazioa azpimarra daiteke; izan ere, horien esportazioa guztizkoaren % 23,9 izan zen. Gainera, esportazioa % 5,8 hazi zen. Hirugarren postua eskuratu zuen plastikoen eta kautxuaren esportazioak, hain zuzen ere, guztizkoaren % 7. Hala ere, aldakuntza-tasa negatiboa izan zuen (-% 1,7).

Inportazio ez-energetikoei gagozkiela, metalak eta horien manufakturak aipa ditzakegu, inportazio guztien % 20,4 izan baitziren eta, gainera, % 4,4 hazi ziren. Bigarren tokian ditugu ekipo-ondasunak, inportazio guztien % 17,3, eta % 3,2 hazita, garraio-materialaren inportazioek gora egin zutelako (% 8,8) eta, neurri txikiagoan izan bazen ere, makina eta tresnen inportazioa ere igo egin zelako (% 1,6).

Kanpoko saldoa 4.895 milioi eurokoa da, BPGaren % 7,3.

Ondasun eta produktu energetikoen eta ez-energetikoen artean bereizita, esan daiteke saldo energetikoa defizitarioa (-3.929,3 milioi euro) izan zela. Produktu ez-energetikoenak, ordean, 8.814 milioi euroko superabita du, hau da, BPGaren %13,2, 2013. urtekoa (%12,6) baino ehuneko 0,6 puntu handiagoa.

1 Europako gainerako ekonomietan bezala, SEC-2010 metodologia berria ezarrita eta aurreko urteetakoak zenbatestean zenbatespen-sistemetan sartu ohi diren hobekuntzak izanda, gora egin du BPGaren mailak. EUSTAT erakundeak EAErako eginiko behin betiko zenbatespenak alderatuz gero, aurreko metodologiarekin eginiko zenbatespena baino %3,8 handiagoa da 2010eko BPG, 2011koa baino %3,6 handiagoa, 2012koa baino %3,2 handiagoa eta 2013koa baino %2,1 handiagoa..

*2 Irekitze-maila: (Esportazioak+Inportazioak prezio arruntetan)/BPG prezio arruntak *100*

*3 Estaldura-maila:Esportazioak prezio arruntetan/Inportazioak prezio arruntetan*100*

I.2.7. KOADROA. EAEKO ONDASUN ETA ZERBITZUEN KANPOKO MERKATARITZA AZTERRIAN (MILIOI euro) (muga-zerga multzoen araberako sailkapena)

MUGA-ZERGEN MULTZOAK	ESPORTAZIOAK					INPORTAZIOAK					SALDOA		
	2012	2013	2014 bb		Alderaketa: 13-14	2012	2013	2014 bb		Alderaketa: 13-14	2012	2013	2014 bb
	milioiak	milioiak	milioiak	% bertikala		milioiak	milioiak	milioiak	% bertikala		milioiak	milioiak	milioiak
Guztira	**20.302,6**	**20.242,0**	**22.243,9**	**100,0**	**9,9**	**15.508,3**	**15.792,1**	**17.348,2**	**100,0**	**9,9**	**4.794,3**	**4.450,0**	**4.895,6**
Energetikoak (produktu eta mineral energetikoak)	2.039,3	1.860,0	2.919,5	13,1	57,0	5424,0	5.723,9	6.848,8	39,5	19,7	-3.384,7	-3.863,9	-3.929,3
Ez-energetik.	**18.263,3**	**18.382,0**	**19.324,4**	**86,9**	**5,1**	**10084,3**	**10.068,1**	**10.499,4**	**60,5**	**4,3**	**8.179,0**	**8.313,9**	**8.825,0**
Nekazaritza produktuak	994,5	1.054,2	1.013,7	4,6	-3,8	914,4	853,0	932,5	5,4	9,3	80,1	201,2	81,3
Produktu kimikoak	385,5	490,8	524,5	2,4	6,9	688,2	890,4	1.010,5	5,8	13,5	-302,7	-399,6	-486,0
Plastikoak eta kautxua	1.700,3	1.575,4	1.548,1	7,0	-1,7	922,6	834,0	785,4	4,5	-5,8	777,7	741,4	762,7
Papera	501,1	523,0	540,1	2,4	3,3	328,7	324,2	310,3	1,8	-4,3	172,4	198,8	229,8
Metal komunak eta beren manuf.	5.069,5	5.017,8	5.306,6	23,9	5,8	3.289,3	3.383,5	3.531,8	20,4	4,4	1.780,2	1.634,3	1.774,8
Ekipo ondasunak	8.579,0	8.754,6	9.417,9	42,3	7,6	2.970,4	2.907,7	3.000,1	17,3	3,2	5.608,6	5.846,9	6.417,8
Makinak eta aparatuak	4.241,4	4.442,6	4.437,2		-0,1	2.340,7	2.270,4	2.306,5		1,6	1.900,7	2.172,3	2.130,7
Garraio materiala	4.337,6	4.312,0	4.980,6		15,5	629,7	637,4	693,6		8,8	3.707,9	3.674,6	4.287,0
Beste manufakturak	867,4	896,9	893,3	4,0	-0,4	910,7	865,0	922,2	5,3	6,6	-43,3	32,0	-29,0
Sailkatu gabe	166,1	69,2	80,2	0,4	15,9	60,0	10,2	6,6	0,0	-35,8	106,1	59,0	73,6

Bb behin-behinekoak Iturria: EUSTAT. Kanpoko Merkataritzaren Estatistika

Lurralde historikoetan, EUSTATen arabera, bi merkataritza-fluxuen eboluzioa positiboa izan da 2014. urtean. Ildo horri jarraiki, esportazioek hiruetan gorantz egin dute. Bizkaia (%11,9) azpimarra daiteke eta atzetik Araba (%10,3) eta Gipuzkoa (%7) doaz. Inportazioei dagokienez, Bizkaia %12,3 hazi da, Gipuzkoa %6,4 eta Araba %3,9.

Area geografikoei jarraiki, ELGAri salmentak (guztiaren %77,1) %9,4 hazi ziren 2014. urtean. ELGAren barruan euroguneko herrialdeetan egindakoak azpimarra daitezke, atzerrian izandako salmenta guztien %50,1 izan baitziren. Bereziki, Frantziari eta Alemaniari, emaitzak merkatu batean eta bestean oso desberdinak izan arren. Erresuma Baturako eta Italiarako salmentek oso aldeko eboluzioa izan zuten, baita Estatu Batuetarako esportazioek ere.

Inportazioei dagokienez, atzerrira erosketak, modu berean, ELGAren herrialdeetan kontzentratzen dira (%66,3) eta guztiaren %42,8 euroguneko herrialdeetan. Ildo horri jarraiki, 2014. urtean %19,4 hazi dira. Bereziki azpimarragarria da Erresuma Batutik datozen inportazioen hazkuntza. Bestalde, Frantzian jatorria dutenak %0,7 murriztu dira. Halaber, nabarmentzekoa da EABtik (-%52,3) datozen inportazioen jaitsiera.

I.2.8. KOADROA. EAEKO ESPORTAZIOEN JOMUGA ETA INPORTAZIOEN JATORRIA. MERKATARITZA-BAZKIDE NAGUSIAK *(MILA euro)*

	ESPORTAZIOAK					INPORTAZIOAK				
	2013	2014 bb	Pisua 2013	Pisua 2014	Aldak. 2013-14	2013	2014 bb	Pisua 2013	Pisua 2014	Aldak. 2013-14
GUZTIRA	**20.242.039**	**22.243.869**	**100**	**100**	**9,9**	**15.792.063**	**17.348.233**	**100**	**100**	**9,9**
ELGA	15.691.560	17.160.114	77,5	77,1	9,4	10.004.692	11.510.211	63,4	66,3	15,0
Eurogunea	**9.989.196**	**11.133.092**	**49,3**	**50,1**	**11,5**	**6.225.223**	**7.430.583**	**39,4**	42,8	**19,4**
Alemania	2.936.574	3.142.191	14,5	14,1	7,0	1.863.553	1.973.652	11,8	11,4	5,9
Frantzia	3.416.371	3.444.624	16,9	15,5	0,8	1.600.086	1.589.063	10,1	9,2	-0,7
Erresuma Batua	1.204.431	1.339.361	6,0	6,0	11,2	522.794	1.463.595	3,3	8,4	180,0
Italia	921.210	1.012.639	4,6	4,6	9,9	782.791	805.787	5,0	4,6	2,9
AEB	**1.434.869**	**1.705.707**	**7,1**	**7,7**	**18,9**	**794.340**	**378.649**	**5,0**	2,2	**-52,3**

Bb behin-behinekoak
Iturria: EUSTAT. Kanpoko Merkataritzaren Estatistika

2.4. ATZERRIKO INBERTSIOA

Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioko Kanpoko Inbertsioen Erregistroaren datuen arabera, 1.408 milioi eurokoa izan zen EAEn atzerriko inbertsioa, gure Erkidegoak atzerrian inbertitu zituen 247 milioien aldean.

I.2.9. KOADROA. ATZERRIKO INBERTSIOA EAE-N ETA EAE-K ATZERRIAN EGINIKO INBERTSIOA. ALDERAKETA(mila euro)
(atzerrian balioak dituzten enpresak gabe)

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Atzerriko inbertsioa EAEn	326.222,00	89.329,26	155.062,23	528.404,86	430.489,36	1.095.889,54	1.407.843,97
EAEk atzerrian eginiko inbertsioa	4.873.586,87	1.491.778,72	2.018.264,62	5.339.210,21	426.244,87	1.203.788,04	246.998,35

**** ABEE gabe.***
Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa eta geuk eginikoa

Atzerriko inbertsioa EAEn

Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren Kanpoko Inbertsioen Erregistroaren datuen arabera, atzerriko inbertsioa EAEn areagotu egin zen 2013eta 2014 artean, hain zuzen ere % 28,5 atzerriko balioak edukitzeko enpresak deskontatuz gero (ABEE[5]). Guztira, 1.408 milioi euro jaso zituen EAEk. Estatuko datuaren gainean EAEk duen proportzioa hazi egin da: 2013ko %6,8tik 2014ko %8ra. Madrilgo Erkidegoak jasotzen duen inbertsioa deskontaturik, %15,8rainokoa da, eta 2013ko %14,9aren aldean.

Hala, 2014. urtean, EAEk hirugarren lekua hartu zuen berriro ere inbertsio-bolumenean, Madrilen atzetik (8.723,2 milioi euro jaso zituen, ABEEak kenduta) eta Kataluniaren atzetik (2.968,4 milioi euro jaso zituen).

I.2.5. GRAFIKOA. ATZERRIKO INBERTSIO GORDINA EAE-N



ABEE deskontaturik
Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa, Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa

4 Estatistika honetan, atzerriko inbertsiotzat hartzen da Estatuko inbertsioa eta, beraz, EBren eta ELGAren zifren barruan sartzen da.

5 ABEE: haren sozietate helburuaren barnean, Espainiako lurraldeko egoiliarrak ez diren erakundeen funts propioen balio nagusiak kudeatzeko eta administratzeko jarduera sartu behar da, baliabide materialen eta giza baliabideen antolaketaren bidez eginikoa. ABEEen araubide fiskala dela eta, zergak ordaintzetik salbuetsita daude Euskadiko egoiliarrak ez diren sozietate partaidetuen dibidenduak eta sozietate horien partaidetzak saltzearen ondoriozko errentak

Sektoreen ikuspegitik, bereziki nabarmenak dira guztizkoan duen pisuagatik honako hauetan eginikoak:

- Garraioa eta biltegiratzea. EAEn eginiko inbertsioaren %36,5 dira eta sektore horretan Estatuan eginikoaren %67,5.
- EAEk kanpoan egiten duen inbertsioaren % 22,6 hartzen dute handizkako eta txikizkako merkataritzak eta ibilgailu motordunen eta motorren konponketak, eta Estatuan sektore honetan egindakoaren % 9,9.
- Elikagaiak, edariak eta tabakoa, hots, EAEra bideraturiko inbertsioaren %12,4 eta sektorean Estatuan eginikoaren %18,5.
- Argindarraren hornidura, gasa, lurruna eta aire egokitua EAEren kanpoko inbertsioaren %9,8 eta Estatuak atzerrian eta sektore horretan eginikoaren %13,7 dira.
- Higiezinen jarduerak EAEn eginiko inbertsioaren %5,3 dira eta sektore horretan Estatuan eginikoaren %2,4.
- Finantza-jarduerak EAEra bideraturiko inbertsioaren %3,7 da eta sektorean Estatuan eginikoaren %2.

Aldi berean, nabarmentzekoak dira produktu informatiko, elektroniko eta optikoetan, material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioan, makineriaren fabrikazioan eta B.E.S.G ekipoan eta motordun ibilgailuen fabrikazioan eta garraioko beste material batean eginiko inbertsioak, sektore horietan Estatuan eginikoaren %75,2, %30,6, %47,5 eta %32,2 hurrenez hurren.

Lurraldearen ikuspegitik aztertuz gero, inbertsioaren azken titularraren egoitza-herrialdea ELGAko herrialdeetako bat da kasu guztien % 88,3an, eta EB15eko herrialdeetako bat kasuen % 60,1ean (guztira 845,9 milioi euro).

Hauexek dira 15-EBko herrialde inbestitzaile nagusiak: Erresuma Batua, 617 milioi euro; Herbehereak, 87 milioi; Luxenburgo (64 milioi) eta Irlanda (25 milioi).

Bereziki nabarmentzekoa da Kanada, AEB eta Brasildik datozen inbertsioen hazkundea.

I.2.10. KOADROA. ATZERRIKO INBERTSIO OSOA AAEE GORABEHERA*(mila euro)

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014 bb
Guztira	**29.517.479,52**	**12.417.863,24**	**12.292.131,45**	**24.993.704,44**	**14.642.429,17**	**16.047.469,84**	**17.625.675,78**
Andaluzia	225.794,67	325.219,70	1.226.514,67	626.499,96	593.554,62	323.471,18	266.972,04
Aragoi	99.651,54	134.084,32	47.493,87	38.342,35	151.232,16	168.694,11	111.045,89
Kantabria	72.852,51	12.104,43	3.766,98	16.790,50	22.032,61	14.320,34	8.782,87
Gaztela eta Leon	46.197,48	67.796,38	56.976,35	190.328,69	17.404,58	172.335,90	159.214,79
Gaztela-Mantxa	110.497,40	178.345,72	56.065,55	462.593,97	51.657,18	24.542,94	59.685,16
Katalunia	2.344.369,56	1.575.620,17	4.826.343,97	3.044.307,77	2.675.985,63	3.527.303,50	2.968.373,77
Ceuta eta Melilla	629,90	727,05	2,65	35,66	1.399,76	368,26	3.658,34
Madril	23.900.392,82	8.049.962,71	4.454.942,32	17.361.807,23	9.339.978,00	8.675.231,24	8.723.182,54
Valentzia	279.448,75	443.687,21	134.342,72	390.282,70	101.836,95	167.910,18	808.047,17
Extremadura	4.944,48	28.635,00	30.404,96	36.260,31	31.554,16	15.951,33	240.298,32
Galizia	27.190,47	182.465,30	50.483,48	524.654,30	185.813,45	227.309,86	51.852,31
Balear U.	545.668,70	420.348,36	169.860,56	424.682,38	288.347,19	789.819,13	252.480,15
Kanariar U.	20.843,78	77.527,77	168.908,93	131.018,36	70.431,59	36.526,73	117.993,01
Errioxa	7.663,69	3.595,54	36.414,21	2.718,46	10.267,53	62.219,26	3.355,30
Nafarroa	23.114,88	31.121,43	111.510,30	49.302,33	161.338,73	11.104,84	28.583,12
EAE	**326.222,00**	**89.329,26**	**155.062,23**	**528.404,86**	**430.489,36**	**1.095.889,54**	**1.407.843,97**
Asturias	6.974,29	11.304,10	29.323,33	505.266,78	62.737,35	22.497,60	487.173,44
Murtzia	189.679,74	11.680,67	28.594,97	72.065,13	24.572,42	52.619,13	46.852,80
EMAN BARIK	1.285.342,86	774.308,12	705.119,40	588.342,70	421.795,90	659.354,77	1.880.280,79

(*)Inbertsio osoa ABEE gabe. b-b: behin-behineko datuak.
Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa

I.2.11. KOADROA. EAE-N EGINIKO INBERTSIO GORDINA*(ETA ESTATUAN EGINIKOAREKIKO ALDERAKETA), SEKTOREKA (mila €) (CNAE-09)

	2012	2013	2014 bb	Estatua 2014 bb	Banaketa EAE	%Esta-tuaren	%12-13	%13-14
A. Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	0,0	0,0	728,8	113.373,9	0,1	0,6		
B. Erauzketa-industriak	0,8	8.678,0	4.600,0	231.727,6	0,3	2,0	1.156.966,7	-47,0
C. Elikadura, Edariak eta Tabakoa	23,3	758,9	175.000,0	947.898,9	12,4	18,5	3.162,9	22.958,5
C. Ehungintza eta jantzigintza	0,9	3,0	0,0	5.630,1	0,0	0,0	229,7	-100,0
C. Larrugintza eta zapatagintza	0,0	0,0	0,0	549,0	0,0	0,0		
C. Egurraren eta artelazkiaren industria, altzariak, saskigintza eta espartzugintza salbu	0,0	0,0	0,0	90.279,1	0,0	0,0		
C. Papergintza eta arte grafikoen industria	0,0	0,0	0,0	6.680,1	0,0	0,0		
C. Kokegintza eta petrolio-finketa	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
C. Ind. Kimikoak eta kautxu eta plastiko transf	56.380,8	0,0	0,0	387.774,7	0,0	0,0	-100,0	
C. Prod. Farmaze. Fabrik.	0,0	0,0	0,0	230.943,7	0,0	0,0		
C. Metalurgia eta produktu metalikoen fabrik	2.850,0	15.354,0	913,9	49.073,9	0,1	1,9	438,7	-94,0
C. Prod. Informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrik	2,3	0,0	3.609,6	4.801,2	0,3	75,2		
C. Material eta ekipamendu elektrikoaren fabrik	0,0	7.842,3	6.000,0	19.588,4	0,4	30,6		-23,5
C. BESG makineriaren eta ekipamenduaren fabrik.	9.341,1	2.077,1	15.358,2	32.315,4	1,1	47,5	-77,8	639,4
C. Ibilgailu motordunen eta beste garraio-mat. batzuen fabrik	45,0	97.551,9	21.758,4	67.605,1	1,5	32,2	216.682,0	-77,7
C. Altzarien fabrik.	204,7	254,1	0,0	105,8	0,0	0,0	24,2	-100,0
C. Beste manufaktura batzuk	168,2	3,0	0,0	130.625,0	0,0	0,0	-98,2	-100,0
C. Makineriaren konponk. eta instal	0,0	723,6	0,2	81.615,9	0,0	0,0		-100,0
D. Argindarraren hornidura, gasa, lurrina eta aire egokit.	13.391,0	149.336,3	138.667,1	1.012.262,7	9,8	13,7	1.015,2	-7,1
E. Ur hornidura, saneam. jarduera, hondakinen kudeaketa eta deskutsatzea	0,0	624.700,0	0,0	455.842,1	0,0	0,0		-100,0
F. Eraikuntza	6.263,7	10.429,0	63.625,3	1.400.311,6	4,5	4,5	66,5	510,1
G. Handizkako merkataritza, txikizkakoa, ibilgailu motordunen eta motorren konponketa	29.327,3	28.440,9	317.589,6	3.212.257,1	22,6	9,9	-3,0	1.016,7
H. Garraioa eta biltegiratzea	9.016,0	17.451,4	513.760,1	761.286,4	36,5	67,5	93,6	2.844,0
I. Ostalaritza	3,0	754,5	6.510,5	766.352,1	0,5	0,8	25.050,0	762,9
J. Informazioa eta komunikazioak	198.847,9	740,7	10,0	815.900,9	0,0	0,0	-99,6	-98,6
K. Finantza- eta aseguru-jarduerak	16.584,4	27.487,0	51.488,5	2.609.483,1	3,7	2,0	65,7	87,3
L. Higiezinen arloko jarduerak	1.500,4	75.350,3	75.021,1	3.085.016,3	5,3	2,4	4.922,1	-0,4
M. Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak	5.478,1	27.924,9	624,8	248.953,7	0,0	0,3	409,8	-97,8
N. Jarduera administratiboak eta zerbitzu osagarriak	45.478,4	1,2	11.915,3	243.788,2	0,8	4,9	-100,0	992.844,2
O. Administrazio publikoak eta defentsa	0,0	0,0	0,0	4.405,3	0,0	0,0		
P. Hezkuntza	0,0	3,0	0,0	78.350,3	0,0	0,0		-100,0
Q. Jarduera sanitarioak eta gizarte zerbitzuetakoak	34.216,6	16,5	0,1	101.730,0	0,0	0,0	-100,0	-99,3
R. Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak	202,9	8,0	662,5	176.869,0	0,0	0,4	-96,1	8.181,1
S. Beste zerbitzu batzuk	1.162,7	0,0	0,0	252.277,9	0,0	0,0	-100,0	
T. Etxeko jarduerak	0,0	0,0	0,0	1,5	0,0	0,0		
U. Lurraldetik kanpoko erakundeen eta organismoen jarduerak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
Inbertsioa guztira	**430.489**	**1.095.890**	**1.407.844**	**17.625.676**	**100,0**	**8,0**	**154,6**	**28,5**

***)Inbertsio osoa ABDE gabe. b-b: behin-behineko datuak**
Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa

I.2.11. KOADROA. EAE-N EGINIKO INBERTSIO GORDINA*(ETA ESTATUAN EGINIKOAREKIKO ALDERAKETA), HERRIALDEKA (mila €) (CNAE-09)

		2012	2013	2014	Estatua 2014 bb	Banaketa EAE	% Estat. gain.	%12-13	%13-14
Inbertsioa, guztira		**430.489**	**1.095.890**	**1.407.844**	**17.625.676**		**8,0**	**154,6**	**28,5**
Inbertsioaren azken titularraren bizitokia dagoen herrialdea	EL.G.A.	377.494,9	932.159,9	1.242.867,3	15.106.722,0	88,3	8,2	146,9	33,3
	15-EB	280.378,9	890.328,0	845.918,4	9.359.974,2	60,1	9,0	217,5	-5,0
	27-EB	280.861,0	890.410,0	846.223,6	9.400.307,8	60,1	9,0	217,0	-5,0
	Ipar Amerika	15.787,6	24.166,3	395.902,4	3.820.391,3	28,1	10,4	53,1	1.538,2
	Kanada	0,0	1,0	44.811,7	304.697,3	3,2	14,7	!	4.481.072,0
	AEB	15.787,6	24.165,3	351.090,7	3.515.694,0	24,9	10,0	53,1	1.352,9
	Latinoamerika	4.491,4	56.173,2	160.318,2	2.030.885,6	11,4	7,9	1.150,7	185,4
	Argentina	0,0	0,0	0,0	13.489,0	0,0	0,0		
	Brasil	1.162,7	3.644,5	154.782,9	162.678,0	11,0	95,1	213,5	4.147,1
	Txile	227,3	246,7	0,8	59.507,5	0,0	0,0	8,6	-99,7
	Mexiko	250,0	6.431,2	262,9	1.176.579,6	0,0	0,0	2.472,5	-95,9
	Asia eta Ozeania	103.346,4	8.331,0	4.901,5	1.581.528,9	0,3	0,3	-91,9	-41,2
	Txina	0,0	38,7	7,9	331.100,2	0,0	0,0		-79,7
	Arabiar Emirerriak	1.657,3	3,0	98,2	54.647,2	0,0	0,2	-99,8	3.174,0
	India	45.306,3	0,0	0,0	825,1	0,0	0,0	-100,0	
	Japonia	0,0	0,0	291,5	411.264,4	0,0	0,1		
	Zeelanda Berria	56.379,8	0,0	0,0	31.257,0	0,0	0,0	-100,0	
	Afrika	48,1	113.254,2	1,5	29.807,4	0,0	0,0	235.160,2	-100,0
	Paradisu fiskalak	1.565,1	96.416,2	4.251,6	465.714,0	0,3	0,9	6.060,3	-95,6
	Errusia	0,0	4,0	0,3	32.628,7	0,0	0,0		-92,5

(*) Inbertsio osoa ABEE gabe. b-b: behin-behineko datuak.
Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa

Euskal inbertsioa atzerrian

ABEEak kanpo utzita, atzerrian egindako euskal inbertsioak % 79,5 jaitsi ziren 2013 eta 2014. urteetan, 1.203,8 milioi eurotik 247 milioi eurora. Estatukoa, bestalde, %2,7 hazi da, hots, 15.325 milioi eurotik 23.478,8 milioi eurora.

Atzerriko inbertsioak direla eta, EAE zortzigarren postuan dago autonomia-erkidegoen artean, ondokoen atzetik: Balear Uharteak (259 milioi euro), Galizia (380 milioi euro), Valentziako Erkidegoa (384 milioi euro), Andaluzia (1.320 milioi euro), Katalunia (3.398 milioi euro), Kantabria (5.863 milioi euro) eta Madril (11.468 milioi euro).

I.2.6. GRAFIKOA. EAE-K ATZERRIAN EGINIKO INBERTSIO GORDINA



ABEE deskontaturik
Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa, Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa

Hala, Estatuko datuaren gainean EAEk atzerrian eginiko inbertsioaren proportzioa hazi egin da: 2013ko %6,5etik 2014ko %1,1era. Madrilgo Erkidegoak jasotzen duen inbertsioa deskontaturik, %21erainokoa da, eta jaitsi egin da 2013 eta 2014 bitartean: %18,1etik %2,1era.

Sektoreen arabera, hauexek nabarmentzen dira:

- Finantza- eta aseguru-jarduerak kanpoko herrialdeek EAEn eginiko inbertsioaren %37,6 eta Estatuak sektore horretan atzerrian eginikoaren %0,7 da.
- Ibilgailu motordunen eta bestelako garraio materialen fabrikazioa EAEren inbertsioaren % 22,2 da eta Estatuak kanpoaldean eta sektore honetan egindakoaren % 10,4. Nabarmen hazi da aipaturiko epealdian.
- Argindarraren hornidura, gasa, lurruna eta aire egokitua EAEren kanpoko inbertsioaren %16,2 eta Estatuak atzerrian eta sektore horren eginikoaren %2,1 dira.
- Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak EAEk kanpoan egiten duen inbertsioaren % 5,4 da, eta Estatuak kanpoan eta sektore honetan egindakoaren % 27,4.
- Eraikuntza EAEren inbertsioaren %4,9 eta Estatuak atzerrian sektore horretan eginikoaren %0,7 da.

Herrialdeen arabera, EB28ren barruan, EAEko inbertsioen norako nagusiak ondokoak izan ziren 2014. urtean: Italia (19,2 milioi euro), Erresuma Batua (18,7 milioi euro) eta Polonia (11,8 milioi euro). EBtik kanpo, berriz, ondokoak: AEB (86,8 milioi euro) eta Mexiko (60,5 milioi euro).

I.2.12. KOADROA. ATZERRIKO INBERTSIO OSOA AAEE GORABEHERA* (mila eurotan)

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014 bb
Guztira	**37.626.956,28**	**20.023.166,16**	**30.809.679,03**	**30.481.978,35**	**15.703.316,34**	**18.470.362,17**	**23.478.821,87**
Andaluzia	1.225.038,74	385.167,54	709.058,86	876.749,34	143.316,60	360.989,04	1.319.850,09
Aragoi	309.718,84	48.592,20	154.063,64	205.474,22	232.336,45	41.277,72	19.152,10
Kantabria	5.210.299,74	4.572.958,35	1.486.571,17	4.980.455,37	1.605.289,07	449.253,20	5.862.866,79
Gaztela eta Leon	161.790,89	205.404,61	87.940,64	28.530,86	155.760,40	23.274,72	47.879,55
Gaztela-Mantxa	101.669,84	22.344,01	1.463,35	91.720,48	35.890,41	16.322,01	31,00
Katalunia	6.318.440,01	2.306.005,58	2.099.528,82	2.865.606,37	2.323.435,93	2.262.344,48	3.397.852,15
Ceuta eta Melilla					0,11		
Madril	13.830.094,12	8.011.386,02	20.975.499,57	14.575.769,64	9.531.417,14	11.813.423,84	11.467.502,18
Valentzia	1.525.183,38	1.624.701,89	1.802.158,74	429.906,39	265.393,71	222.074,40	384.307,23
Extremadura	4.925,50	870,95	2.202,43	1.213,33	2.256,51	1.228,47	24,38
Galizia	1.495.676,42	668.538,35	786.735,06	723.499,50	430.567,56	717.468,38	379.911,57
Balear U.	1.473.831,43	48.814,52	448.611,07	57.137,28	347.253,66	1.220.437,75	258.949,46
Kanariar U.	50.322,52	32.599,63	3.867,96	2.540,25	16.961,40	3.462,79	4.356,89
Errioxa	1.105,52	154,75	4,81	2.135,30	1.773,00	658,55	0,00
Nafarroa	84.679,48	34.244,56	5.876,73	27.221,44	26.629,56	45.008,40	30.750,17
EAE	**4.873.586,87**	**1.491.778,72**	**2.018.264,62**	**5.339.210,21**	**426.244,87**	**1.203.788,04**	**246.998,35**
Asturias	882.617,86	550.390,83	224.944,69	216.033,57	147.221,85	88.223,25	51.141,86
Murtzia	77.975,12	19.213,65	2.886,87	58.774,80	11.568,11	1.127,13	7.248,10

(*) Inbertsio osoa ABEE gabe. b-b: behin-behineko datuak.
Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa

I.2.13, KOADROA. EAE-KO INBERTSIO GORDINA* (ETA ESTATUAN EGINIKOAREKIKO ALDERAKETA) ATZERRIAN, SEKTOREKA (mila €-tan) (CNAE-09)

	2012	2013	2014	Estatua 2014 bb	EAEko banaketa	% Estat gain.	%12-13	%13-14
A. Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	256,9	6.578,2	0,0	102.020,4	0,0	0,0	2.460,2	-100,0
B. Erauzketa-industriak	2.458,2	0,0	0,0	2.503.698,5	0,0	0,0	-100,0	
C. Elikadura, Edariak eta Tabakoa	0,0	0,0	90,0	210.497,6	0,0	0,0		
C. Ehungintza eta jakingintza	0,0	0,0	0,0	197,1	0,0	0,0		
C. Larrugintza eta zapatagintza	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
C. Egurraren eta artelazkiaren industria, altzariak, saskigintza eta espartzugintza salbu	0,0	0,0	0,0	1.710,0	0,0	0,0		
C. Papergintza eta arte grafikoen industria	0,0	0,0	0,0	18.224,6	0,0	0,0		
C. Kokegintza eta petrolio-finketa	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
C. Ind. Kim eta kautxu eta plastiko transf.	7.094,5	6.464,5	510,5	401.844,9	0,2	0,1	-8,9	-92,1
C. Prod. farmaze. fabrik.	0,0	0,0	0,0	35.007,2	0,0	0,0		
C. Metalurgia eta prod metal fabrik	9.705,8	27.728,0	19.019,2	422.114,1	7,7	4,5	185,7	-31,4
C. Prod. informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrik	1.023,1	8.438,8	0,0	6.845,8	0,0	0,0	724,9	-100,0
C. Material eta ekipamendu elektrikoaren fabrik	8.001,2	8.029,7	1.584,5	28.786,1	0,6	5,5	0,4	-80,3
C. BESG makineriaren eta ekipamenduaren fabrik.	2.284,3	3.825,6	682,1	4.615,7	0,3	14,8	67,5	-82,2
C. Ibilgailu motordunen eta beste garraio-mat. batzuen fabrik	59.005,9	14.019,8	4.997,5	77.227,3	2,0	6,5	-76,2	-64,4
C. Altzarien fabrik.	0,0	0,0	0,0	402,7	0,0	0,0		
C. Beste manufaktura batzuk	9.439,0	23.275,1	39,9	64.000,3	0,0	0,1	146,6	-99,8
C. Makineriaren konponk. eta instal.	0,0	0,0	0,0	25,8	0,0	0,0		
D. Argindarraren hornidura, gasa, lurrina eta aire egokit.	89.796,0	655.904,7	39.937,0	1.889.633,6	16,2	2,1	630,4	-93,9
E. Ur hornidura, saneam. jarduera, hondakinen kudeaketa eta deskutsatzea	8,3	2.166,6	0,0	1.359.801,7	0,0	0,0	26.098,3	-100,0
F. Eraikuntza	28.413,3	44.527,5	12.157,9	1.719.740,3	4,9	0,7	56,7	-72,7
G. Handizkako merkataritza, txikizkakoa, ibilgailu motordunen eta motorren konponketa	14.619,9	19.046,5	6.407,7	867.847,2	2,6	0,7	30,3	-66,4
H. Garraioa eta biltegiratzea	0,0	0,0	0,0	132.220,2	0,0	0,0		
I. Ostalaritza	0,0	0,0	405,8	52.346,5	0,2	0,8		
J. Informazioa eta komunikazioak	0,8	75.028,8	54.752,5	527.227,1	22,2	10,4	9.872.109,2	-27,0
K. Finantza- eta aseguru-jarduerak	184.786,9	277.059,9	92.833,7	12.411.828,5	37,6	0,7	49,9	-66,5
L. Higiezinen arloko jarduerak	0,0	102,5	0,0	468.107,7	0,0	0,0		-100,0
M. Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak	6.921,2	30.123,6	13.218,4	48.282,4	5,4	27,4	335,2	-56,1
N. Jarduera administratiboak eta zerbitzu osagarriak	2.429,6	1.468,4	361,8	87.468,9	0,1	0,4	-39,6	-75,4
O. Administrazio publikoak eta defentsa	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
P. Hezkuntza	0,0	0,0	0,0	5.301,2	0,0	0,0		
Q. Jarduera sanitarioak eta gizarte zerbitzuetakoak	0,0	0,0	0,0	373,3	0,0	0,0		
R. Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak	0,0	0,0	0,0	23.029,1	0,0	0,0		
S. Beste zerbitzu batzuk	0,0	0,0	0,0	8.396,1	0,0	0,0		
T. Etxeko jarduerak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
U. Lurraldetik kanpoko erakundeen eta organismoen jarduerak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
Inbertsioak guztira	**426.244,9**	**1.203.788,0**	**246.998,4**	**23.478.821,9**	**100,0**	**1,1**	**182,4**	**-79,5**

(*)Inbertsio osoa ABEE gabe. b-b: behin-behineko datuak. Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa

I.2.14. KOADROA. EAE-KO INBERTSIO GORDINA* (ETA ESTATUAN EGINIKOAREKIKO ALDERAKETA) ATZERRIAN, HERRIALDEKA (mila €-tan) (CNAE-09)

		2012	2013	2014 bb	Estatua 2014	EAEko banaketa (%)	% Estatua-ren gain.	%12-13	%13-14
Inbertsioa guztira		**426.244,9**	**1.203.788,0**	**246.998,4**	**23.478.821,9**	**100,0**	**1,1**	**182,4**	**-79,5**
Inbertsioaren berehalako herrialdea	E.L.G.A.	318.461,2	1.108.677,9	219.815,2	13.210.925,1	89,0	1,7	248,1	-80,2
	15-EB	206.931,2	754.870,8	54.199,5	8.740.614,0	21,9	0,6	264,8	-92,8
	27-EB	237.638,2	784.246,1	68.441,5	9.556.427,9	27,7	0,7	230,0	-91,3
	Ipar Amerika	8.409,1	98.947,0	86.756,7	2.991.449,4	35,1	2,9	1076,7	-12,3
	Kanada	2,3	0,0	0,0	221.883,4	0,0	0,0	-100,0	
	AEB	8.406,8	98.947,0	86.756,7	2.769.566,0	35,1	3,1	1077,0	-12,3
	Latinoamerika	131.230,5	268.299,7	82.361,3	7.472.867,7	33,3	1,1	104,4	-69,3
	Argentina	4.204,9	0,0	0,0	106.923,9	0,0	0,0	-100,0	
	Brasil	10.373,2	41.062,7	12.180,9	4.016.547,2	4,9	0,3	295,9	-70,3
	Txile	11,7	291,5	964,1	1.688.379,2	0,4	0,1	2382,8	230,7
	Mexiko	50.778,5	195.825,6	60.490,0	518.883,9	24,5	11,7	285,6	-69,1
	Asia eta Ozeania	33.983,6	26.696,1	9.038,9	884.330,1	3,7	1,0	-21,4	-66,1
	Txina	15.375,7	255,7	1.603,0	515.200,6	0,6	0,3	-98,3	526,9
	Hego Korea	10.086,6	3.036,8	0,0	77,0	0,0	0,0	-69,9	-100,0
	Arabiar Emirerriak	0,0	0,0	0,0	362,3	0,0	0,0		
	India	6.896,6	8.050,8	960,7	64.293,6	0,4	1,5	16,7	-88,1
	Japonia	0,0	2.999,6	6.094,0	6.205,8	2,5	98,2		
	Taiwan	127,5	0,0	0,0	0,0	0,0		-100,0	
	Afrika	263,3	0,0	0,0	167.973,8	0,0	0,0	-100,0	
	Paradisu fiskalak	0,0	2.544,0	0,0	2.065.074,5	0,0	0,0		-100,0

(*) Inbertsio osoa ABEE gabe. b-b: behin-behineko datuak. Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa

3. EKOIZPENAREN SEKTOREAK

3.1. ENPRESAREN EGITURA ETA DEMOGRAFIA

EUSTATen Jarduera Ekonomikoen Direktorioaren (JEGID) 2014ko azken datuen arabera, guztira 159.001 enpresa zeuden jardunean EAEn (lehen sektorekoak barne), eta guztira 849.335 pertsonari ematen zieten lana. Beraz, batez besteko tamaina 5,3 lanpostukoa izan zen urte horretan enpresako.[1] Egoitza soziala oraindik EAEn duten enpresa horien portzentajea % 97,7 da, kopuru absolutuetan gutxiago izanda. 2013 eta 2014 bitartean, enpresa kopurua % 1,3 eta enplegua % 0,7 jaitsi ziren.

Epe luzeagoko aurreikuspena eginda, 2008an inoizko kopururik handiena lortu zen, guztira 184.290 enpresa. Urte hartatik aurrera, etengabe egin zuen gora kopuruak, halako moldez non 2008 eta 2014 artean 31.691 enpresen galera garbia gertatu baita.

I.3.1. KOADROA. EAEko ENPRESAK, SOZIETATE EGOITZAREN ARABERA

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2008/14 (%)	13-14 (%)
Guztira (EAE eta ESTATUA)*	**184.290**	**182.284**	**171.345**	**165.995**	**165.517**	**161.067**	**159.001**	**-13,7**	**-1,3**
EAE	179.953	178.062	167.270	161.658	161.626	157.405	155.306	-13,7	-1,3
ESTATUKO gainerakoak	4.337	4.222	4.075	4.337	3.891	3.662	3.695	-14,8	0,9
EAE (%)	97,6	97,7	97,6	97,4	97,7	97,7	97,7	0,0	-0,1
ESTATUKO gainerakoak (%)	2,4	2,3	2,4	2,6	2,3	2,3	2,3	-1,3	2,2
Enpresa horien enplegua, guztira*	**942.479**	**952.510**	**906.044**	**890.093**	**873.121**	**855.093**	**849.335**	**-9,9**	**-0,7**
B. besteko tamaina*	**5,1**	**5,2**	**5,3**	**5,4**	**5,3**	**5,3**	**5,3**	**-**	**-**
Enpresak guztira lehen sektorerik gabe	**184.290**	**182.284**	**171.345**	**165.995**	**159.383**	**154.001**	**152.599**	**-17,2**	**-0,9**

** Estatistikak lehen sektoreko enpresak biltzen ditu 2012tik hasita*
Iturria: EUSTAT. JEGID

3.1.1. Enpresen egitura

Sektoreei dagokienez, 2013 eta 2014 bitartean, honako hauetan izan ziren jaitsierarik handienak enpresen eta lanpostuen kopuruen aldetik, besteak beste: Higiezinen arloko jardueretan (-%13,3 enpresetan eta -%13,6 enpleguan) eta Eraikuntzan (-%5,1 enpresetan eta -%11,5 enpleguan).

Jarduera administratiboek eta zerbitzu osagarriek enpresen %4,3 galdu zuten eta enpleguaren %0,8; manufaktura-industriak, bestalde, enpresen %3,7 eta enpleguaren %3,4 galdu zuten; Garraioak eta biltegiratzeak enpresen %1,6 eta enpleguaren %1,8; eta handizkako eta txikizkako merkataritzak, motordunen eta motozikleten konponketak enpresen %0,3 eta enpleguaren %0,5.

Bestetik, finantza- eta aseguru-jarduerek enpleguaren %0,1 galdu zuten, baina gora egin zuen enpresen kopuruak, %2,7 hain zuzen; Jarduera profesionalek, zientifikoek eta teknikoek enpleguaren %1,9 galdu zuten, baina enpresen kopuruan %1,8ko igoera izan zen.

Enpresaren batez besteko tamaina, lehen ere aipatu dugun moduan, 5,3 enplegukoa da. Administrazio publikoa eta defentsa eta gizarte segurantza alde batera utzita, enpresako batez besteko tamaina handiena ageri duten sektoreak hauek dira: Ur hornidura; saneamenduko, hondakin kudeaketako eta kutsadura kentzeko jarduerak (24,6), energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornidura (18,9), manufaktura industria (14,8) eta erauzketa industriak (10,4).

1 Enpresa: establezimenduen jarduerari legezko euskarria ematen dien unitate juridikoa, hau da, beregaineko lege-nortasuna duen edozein elkarte, erakunde, organismo, pertsona fisiko edo edozein erakunde publiko edo pribatu, zeinaren ardurapean eta zuzendaritzapean jarduerak egiten baitira. 2012tik aurrera, EUSTATen estatistikak aparte utzi ditu lehen sektoreko enpresak.

2 Serie historikoa arazteko, lehen sektoreko enpresak ez dira sartu 2012an eta 2013an.

Nortasun juridikoa aintzat hartuta[3] eta tamaina txikieneko enpresak kanpoan utzita, hain zuzen ere titulartzat pertsona fisiko bat dutenak (enpresa bakoitzeko 1,4 pertsonako batez bestekoarekin), batez besteko tamaina 11,1 pertsonan kokatzen da (11 2013an). Bertan, Sozietate Anonimoetako batez besteko lantaldea 33,4 langilekoa da (32,8 2013an) eta Kooperatibena, aldiz, 32,4 (33,4 aurreko ekitaldian ere).

EAEko enpresa jardueraren erdia baino gehiago (% 59,6) "pertsona fisiko" motako estaldura juridikopean egiten da, baina formula horrek enpleguaren % 15,8 baino ez du biltzen. Horrenbestez, "pertsona juridikoen" estaldura juridikopean egiten den enpresa jarduera % 40,5ekoa da, eta enpresa horiek enpleguaren % 84,2 biltzen dute.

Pertsona fisikoak kontuan hartu gabe, enpresa jardueren ia bi heren (% 65,7) erantzukizun mugatuko sozietate moduan egiten dira; enpleguaren bi heren baino zertxobait gehiago (% 65,5) Sozietate Anonimoen eta Erantzukizun Mugatuko Sozietateen artean banatzen da; Sozietate Kooperatiboak enpresen % 2,4 dira eta enpleguaren % 6,9 biltzen dute.

I.3.2. KOADROA. EAE-KO ENPRESA ETA ENPLEGU KOPURUAREN BILAKAERA, JARDUERA ADARRAREN (CNAE 09) ETA NORTASUN JURIDIKOAREN ARABERA

	ENPRESAK			ENPLEGUA			B.B. ENPLEGUA	
	2013	2014	13-14 (%)	2013	2014	13-14 (%)	2013	2014
GUZTIRA	**161.067**	**159.001**	**-1,3**	**855.093**	**849.335**	**-0,7**	**5,3**	**5,3**
Zehaztugabea	.	.		.	.			
A. Nekazaritza, abeltzaintza, basozaintza eta arrantza	7.066	6.402	-9,4	13.593	12.968	-4,6	1,9	2,0
B. Erauzketa-industriak	42	40	-4,8	481	398	-17,3	11,5	10,0
C. Manufaktura-industria	11.858	11.421	-3,7	175.172	169.203	-3,4	14,8	14,8
D. Energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren hornidura	120	118	-1,7	2.246	2.230	-0,7	18,7	18,9
E. Ur hornidura, saneam. Jard., Hondakinen Kudeaketa eta kutsadura garbitzea	232	234	0,9	5.952	5.746	-3,5	25,7	24,6
F. Eraikuntza	22.007	20.890	-5,1	60.823	53.842	-11,5	2,8	2,6
G. Handizkako merkataritza, txikizkakoa, ibilgailu motordunen eta motorren konponketa	36.096	35.996	-0,3	129.617	128.912	-0,5	3,6	3,6
H. Garraioa eta biltegiratzea	11.011	10.833	-1,6	41.148	40.397	-1,8	3,7	3,7
I. Ostalaritza	13.256	13.230	-0,2	50.784	52.107	2,6	3,8	3,9
J. Informazioa eta komunikazioak	2.869	2.948	2,8	21.259	20.909	-1,6	7,4	7,1
K. Finantza- eta aseguru-jarduerak	2.903	2.982	2,7	20.662	20.648	-0,1	7,1	6,9
L. Higiezinen arloko jarduerak	3.288	2.850	-13,3	5.278	4.560	-13,6	1,6	1,6
M. Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	20.554	20.914	1,8	57.924	56.839	-1,9	2,8	2,7
N. Jarduera administratiboak eta zerbitzu osagarriak	5.907	5.652	-4,3	58.985	58.534	-0,8	10,0	10,4
O. Adm. publikoa eta defentsa; derrigorrezko gizarte seguran.	448	431	-3,8	72.613	73.309	1,0	162,1	170,1
P. Hezkuntza	3.918	4.177	6,6	36.403	39.065	7,3	9,3	9,4
Q. Jarduera sanitarioak eta gizarte zerbitzuetakoak	8.128	8.383	3,1	68.842	75.712	10,0	8,5	9,0
R. Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak	2.946	2.988	1,4	11.269	11.931	5,9	3,8	4,0
S. Beste zerbitzu batzuk	8.418	8.512	1,1	22.042	22.025	-0,1	2,6	2,6
Pertsona fisikoa	96.017	94.671	-1,4	136.329	134.261	-1,5	1,4	1,4
Sozietate anonimoa	6.790	6.453	-5,0	222.954	215.541	-3,3	32,8	33,4
Erantzukizun mugatuko sozietatea	42.421	42.246	-0,4	258.227	252.845	-2,1	6,1	6,0
Beste sozietate eta elkarte batzuk	14.821	14.641	-1,2	115.586	116.787	1,0	7,8	8,0
Beste sozietate bat*	6.662	6.651	-0,2	48.358	48.148	-0,4	7,3	7,2
Ondasun-erkidegoa	6.736	6.456	-4,2	19.740	18.952	-4,0	2,9	2,9
Sozietate kooperatiboa	1.423	1.534	7,8	47.488	49.687	4,6	33,4	32,4
Beste forma juridiko batzuk	1.018	990	-2,8	121.997	129.901	6,5	119,8	131,2
Tokiko korporazioa	382	381	-0,3	26.109	26.279	0,7	68,3	69,0
Erakunde autonomoa edo haren parekoa. Erlijio erakundea	588	562	-4,4	26.137	26.649	2,0	44,5	47,4
Estatuko eta AAEEetako administrazioaren organoa	48	47	-2,1	69.751	76.973	10,4	1453,1	1637,7

(Erregular kolektiboa, komandita, elkartea, sozietate zibila eta definitu gabeko beste mota batzuk)
Iturria: EUSTAT, JEGID

3 Titularraren edo enpresaren izaera juridikoa (IFK, IFZ, NAN), kategoria hauen arabera: pertsona fisikoak, sozietate anonimoak, erantzukizun mugatuko sozietateak, beste sozietate eta elkarte batzuk (ohiko elkarte kolektiboak, elkarte komanditarioak, elkarteak, gizarte zibila eta zehaztu gabeko beste sozietate mota batzuk), ondasun-erkidegoak, sozietate kooperatiboak eta beste forma juridiko batzuk (tokiko korporazioak, erakunde autonomoak edo antzekoak, erlijio-kongregazio edo -erakundeak eta estatuko eta autonomia-erkidegoetako organoak).

Merkatuko edo enpresako ekonomia sozialaren egituraren (batez ere Sozietate Kooperatiboak eta Lan Sozietateak) analisiak erakusten du Sozietate Kooperatiboko izaera juridikoa daukaten enpresen kopurua 1.534 dela 2014an, EUSTATen arabera. Gainera, 49.687 langile dauzkate. Beraz, batez besteko plantilla 34,6 langilekoa da, lehenago ere esan dugunez.

2014ko irailaren 30ean Gizarte Segurantzan altan dauden 1.513 kooperatiba enpresa (aurreko urtean baino 9 gehiago) erregistratu ditu, guztira; horiek 53.537 langile zituzten. Horrek 35,4 langileko batezbestekoa dakar kooperatibako (EUSTATeko ratioa baino handiagoa), eta Estatuko batezbesteko handiena da, haren batezbestekoa (13,2) hirukoiztuta.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Gizarte-ekonomiaren Zuzendaritzaren Kooperatiben Erregistroak 1.875[4] kooperatiba zenbatu zituen 2014an, eta horietatik erdia (1.107) lan elkartuko kooperatibak ziren.

I.3.3. KOADROA. KOOPERATIBEN KOPURUAREN BILAKAERA EAE-N, MOTAREN ARABERA SAILKATUAK (XII-31N)

	2012	2013	Abs. 2014	% 2014	Gehikuntza 2013/ 2014	Gehik. 2007/ 2014
GUZTIRA	**1.814**	**1.843**	**1.875**	**100,0**	**32**	**234**
Nekazaritza	109	111	113	6,0	2	14
Kontsumoa	34	35	36	1,9	1	4
Zerbitzuak eta b.	88		84	4,5	-12	8
Elkarlana	1.078	1.090	1.107	59,0	17	50
Irakaskuntza	95	94	95	5,1	1	3
Etxebizitza	316	322	350	18,7	28	126
Kreditua	1	1	1	0,1	0	0
Mistoak	43	45	43	2,3	-2	26
2. grad. edo handiagoa	50	49	46	2,5	-3	3

Iturria: Kooperatiben Erregistroa.Enplegu eta Gizarte Politikarako Saila. EUSKO JAURLARITZA.

Gainera, beste 702 erakunde kooperatiba txikiak ziren (beren araubidea eta araudia dituztela, ekainaren 25eko 6/2008 Legea dela bide), halako moldez non EAEn, 2014. urtea amaitzean, 2.577 kooperatiba bildu baitziren guztira.

Hazkunderik handiena, aurreko ekitaldian bezala, etxebizitza kooperatiban ageri da (+28); izan ere, kategoria horretan 126 kooperatiba gehiago bildu dira azken zazpi urtean, igoera osoaren %53 hain zuzen.

Lan Sozietateei dagokienez[5], Gizarte Segurantzaren arabera, kotizatutako kopuru osoa 662 da, hau da, 2013an baino 16 gutxiago (irailaren 30eko datuak). 6.898 langile dauzkate (2013an baino % 1,1 gutxiago). Batez besteko tamaina 103 langilekoa da sozietate bakoitzeko, estatuko batezbestekoa (5,8 langile) baino askozaz ere handiagoa.

I.3.4. KOADROA. ENPRESEN EGITURA ENPLEGUAREN ARABERA

	2014			
	Enpresak		Enplegua	
	Kop.	%	Kop.	%
Guztira	**159.001**	**100,0**	**849.335**	**100,0**
=<2	121.779	76,6	150.780	17,8
3-5	20.008	12,6	73.187	8,6
6-9	6.972	4,4	50.174	5,9
10-14	3.432	2,2	40.124	4,7
15-19	1.821	1,1	30.451	3,6
20-49	3.195	2,0	96.177	11,3
50-99	991	0,6	68.569	8,1
100-249	541	0,3	83.382	9,8
250-499	141	0,1	46.786	5,5
>= 500	121	0,1	209.705	24,7

Iturria: EUSTAT, JEGID

Enpresa guztien multzora itzulita ikus daitekeenez, berdin eusten dio enpresen egiturak enpleguaren tamainaren arabera. 21.794 establezimendu eskasek, kopuru osoaren % 1,1ek hain zuzen, 50 enplegu edo gehiago dituzte, guztira 408.442 lanpostu (guztien % 48,1). Aldiz, 121.779 establezimendu, kopuru osoaren % 76,6, ez da iristen 3 lanpostura eta enplegu osoaren % 17,8 bakarrik hartzen dute.

4 Ikusi Gizarte Segurantzaren eta EUSTATen datuekiko aldea.

5 Haietan, sozietatearen kapitalaren gehiena langile bazkideena da. Bazkide bakoitzak gehienez eduki dezakeen kapital soziala ezin daiteke izan guztiaren herena baino handiagoa (partaidetza publikoarekin salbuespen batzuk gertatu ohi dira). Horregatik, gutxieneko bazkide kopurua 3 da. Kapital soziala akzio izendunetan banatzen denean, lan sozietate anonimoa da (SAL). Partaidetza sozialetan banatzen denean, izaera juridikoa lan-erantzukizun mugatuko sozietateena da (SLL). Nolanahi ere, bai akzioak bai partaidetzak bi taldetan banatzen dira: bazkide langileenak eta beste pertsona batzuenak.

3.1.2. Enpresa-txandakatzea

Enpresa-txandakatzeari buruzko azterlana (altak, bajak eta saldoa) funtsezkoa da enpresen dinamismoari buruzko ezaugarriak ondorioztatzeko, hots, enpresa berriak sortzeko ahalmenari buruzkoak. [6]

I.3.5. KOADROA. ENPRESEN ALTAK, BAJAK ETA SALDO GARBIA

	2003/1/1	2014/1/1
Enpresak	**165.517**	**161.067**
Altak	**14.977**	**16.144**
Bajak	**19.427**	**18.210**
Saldo garbia	**-5.326**	**-2.066**
Enpresen sorkuntza-tasa gordina (%)	**9,0**	**10,0**
Enpresen galera-tasa gordina (%)	**11,7**	**11,3**

Iturria: EUSTAT. Enpresen sorrerari eta galerari buruzko estatistika, Eustat.

Hala, 2014an, enpresen kopurua jaitsi zen (lehen sektorea barne) 16.144 enpresa berrik jarduerari ekin izanaren eta 18.210 enpresak jarduera utzi izanaren ondorioz. Hori dela eta, saldo garbia -2.066 enpresakoa da. Beste alde batetik, enpresak sortzeko tasa gordina, dena delako urteko enpresa sortu berrien kopurua zati aurreko urtean zegoen enpresa-kopurua, % 10ekoa da; itxitako enpresa-tasa, aldiz, % 11,3koa izan zen. [7]

Azterketaren ardatz orain establezimendua hartuta (banakapen maila handiagoa ematen du nortasun juridikoaren arabera), honako hau esan dezakegu: establezimenduen kopuru txikiagoa izan da 14.796 jarduera hasi izanaren eta 17.202 jarduera utzi izanaren ondorioz. Hala, saldo garbia -2.406 da.

Txandakatzerik handiena, 2014an, adar hauetan gertatu zen: eraikuntzan, handizkako eta txikizkako merkataritzan, motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketan; ostalaritzan eta jarduera profesional, zientifiko eta teknikoetan.

Txandakatze handieneko mailak enpresa txikienei dagozkie berriz ere: 2 lanpostu edo txikiagoko establezimenduei.

Nortasun juridikoa kontuan hartuz gero, EUSTATen arabera, txandakatze handiagoa egon da Pertsona fisikoaren formula juridikopean sortutako establezimenduetan: alten % 64,6 (9.554) eta bajen % 64 (11.003).

I.3.6. KOADROA. ENPRESA-TXANDAKATZEA JARDUERA-SEKTOREAREN ETA ENPLEGU-MAILAREN ARABERA, 2014. (establezimendu kopurua)

	Altak	Bajak	Irauten duten establezimenduen saldoa	Saldo globala (altak-bajak+irauten dutenen saldoa)
Guztira 2014	**14.796**	**17.202**	**0**	**-2.406**
01. Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	382	1.060	4	-674
02. Erauzketa-industriak; manufaktura-industria; energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire egokituaren hornidura; uraren hornidura; saneamenduko, hondakinen kudeaketako eta garbitzeko jarduerak	647	1.059	64	-348
03. Eraikuntza	2.324	3.523	-29	-1.228
04. Handizkako eta txikizkako merkataritza; motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketa; garraioa eta biltegiratzea; ostalaritza	4.885	5.435	-69	-619
05. Informazioa eta komunikazioak	477	395	12	94
06. Finantza- eta aseguru-jarduerak	570	500	8	78
07. Higiezinen arloko jarduerak	201	651	4	-446
08. Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak; jarduera administratiboak eta zerbitzu osagarriak	2.778	2.708	-69	1
09. Administrazio publikoa eta defentsa; derrigorrezko gizarte segurantza; hezkuntza; jarduera sanitarioak eta gizarte zerbitzuak	1.444	933	80	591
10. Aisialdi, jolas eta entretenimendurako jarduerak eta beste zerbitzu batzuk	1.088	938	-5	145
Enplegu-estratua				
=<2	13.402	15.407	578	-1.427
3-5	892	1.120	-314	-542
6-9	243	325	-20	-102
10-14	93	141	-52	-100

6 Kontuan hartu behar da alta eta baja jardueren zati bat erregistroen aldaketen, izenen aldaketen, bat-egiteen eta erosketa-eragiketen, eta abarren ondoriozkoa izan daitekeela. Ez da alta edo baja emateko ziorik agerrarazten.

7. Enpresa-galerak direnean, bajekin kalkulatzen da zatidura.

15-19	57	85	-86	-114
20-49	86	98	-93	-105
50-99	17	24	-21	-28
100-249	2	1	7	8
250-499	4	-	2	6
>= 500	-	1	-1	-2
Nortasun juridikoa				
Pertsona fisikoa	9.554	11.003	-88	-1.537
Sozietate anonimoa	304	773	85	-384
Sozietate mugatua	3.511	3.888	248	-129
Beste sozietate bat	628	663	-138	-173
Ondasun-erkidegoa	482	673	-89	-280
Sozietate kooperatiboa	196	98	-12	86
Tokiko korporazioa	60	25	-1	34
Erakunde autonomoa edo haren parekoa. Erlijio erakundea	34	67	-5	-38
Estatuko eta AAEEetako administrazioaren organoa.	27	12	0	15

Iturria: EUSTAT. Enpresen sorrerari eta galerari buruzko estatistika

3.2. LEHEN SEKTOREA

Kontu Ekonomikoen eta HKEen datuen arabera (datuak 2015eko otsailean argitaratu dira), eraikuntza sektorea prezio arruntetan 2008an BPGd-aren % 0,6 izatetik % 0,8 (549,5 mila euro) izatera igaro da 2014an; lanaldi osoaren pareko lanpostuak (LOPL) 12.846 izanda, LOPLn enplegu osoaren % 1,5 da, 2008ko ratio bera.

Kontu horien arabera, 2013 eta 2014 bitartean lehen sektorearen BPGd-a %5,5 hazi zen EAEn, kopuru errealetan, noiz-eta aurreko epealdian %5,5 hazi zenean. Bestalde, LOPLen enplegua %0,2 hazi zen orotara. Aurreko urtean, berriz, %5,5.

3.2.1. Nekazaritza, abeltzaintza eta baso ustiapena

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren datuen aurrerapenaren arabera, honakoa izan da nekazaritza sektoreak izan duen bilakaera xehea.

Nekazaritzako Azken Produkzioa (nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta beste produkzio batzuk. Nekazaritzako azken produkzioa, prezio korronteetan, 2013koa baino %5,5 handiagoa izan zen, ekoizpenaren gehikuntzagatik (%5,5), zeren eta prezioek aldatu gabe jarraitu baitzuten (+%0,1). EAEko nekazaritzaren sektorea, beraz, oso gertu dago deflaziotik. Estatuko nekazaritzaren sektorean egoera horretan sartu zen. Pixka bat behera egin zuten nekazaritzako produktuen batez besteko prezioek (-%1), abeltzaintzako produktuen prezioek pixka bat gora egin zuten (%2%), baita moztutako zurarenak ere (%2).

Bolumenen bilakaerak (prezio iraunkorretan) gehikuntza nabarmena erakusten dute (+%5,5), nekazaritzako (+%3) eta abeltzaintzako (+%2) ekoizpena hazkundean sartu izanaren ondorioz, eta batez ere basokoarenak (+%36). Nekazaritzako eta abeltzaintzako ekoizpena ez da iritsi oraindik orain bi urteko mailetara, horrexegatik da zati bateko susperraldia.

Nekazaritzako Azken Produkzioa. Nekazaritzako azken produkzioa %2 handiagoa izan zen 2013an baino. Bolumenak izandako %3ko gehikuntzak eta bitarteko prezioen %1eko jaitsierak eragin zuten igoera.

Abeltzaintzako Azken Produkzioa. Abeltzaintzako azken produkzioak %4 egin zuen gora 2014an. Bolumenaren %2ko eta prezioaren gehikuntzagatik gertatu zen igoera hori.

Basogintzako Azken Produkzioa. Basogintzako azken produkzioak %38 egin zuen gora 2014an. Mozketen %36ko gehikuntzak eragin zuen igoera, baita prezioen %2ko igoerak ere.

Bitarteko kontsumoak. Bitarteko kontsumoek (gastuek) %5 egin zuten behera 2014an, etengabeko prezioei eutsi izanagatik eta bitarteko prezioen %5eko igoeragatik.

Ustiapenerako diru-laguntzak. 2014. urtean, ustiapenerako guztizko diru-laguntzek %7 egin zuten behera, hots, nekazaritzako errenta guztiaren %20 da.

Amortizazioak. %3ko igoera izan zuten.

Nekazaritza errenta nominala edo balio arruntetakoa (BEG). Nekazaritza errenta kalkulatzeko Gastuak eta Amortizazioak kendu behar zaizkio Nekazaritzako Azken Produkzioaren (nekazaritza + abeltzaintza + basogintza + bestelakoak) eta Diru-laguntzen baturari. 2014an %10,5 hazi zen nekazaritza errenta. Izaera ziklikoa izan du joera, eta orain goranzko bidean da.

Nekazaritza errenta erreala. Nekazaritza errenta errealak, hau da, inflazioaren efektua kendu ondoren geratzen denak, beheranzko joera izan du.

I.3.7. KOADROA. NEKAZARITZAKO MAKROMAGNITUDEEN BILAKAERA (mila eurotan)

	2010 Behin betik.	2011 Behin betik.	2012 Behin betik.	2013 Aurrerapena	2014 Aurrerapena	2013-14ko aldak.
NEKAZARITZAKO AZKEN PROD.	433.019,6	449.801,6	479.598,7	470.789,9	497.007,3	5,6
Nekazaritzako Azken Produkzioa	230.437,1	249.661,0	266.083,8	254.651,5	260.079,1	2,1
Zerealak	36.776,3	45.602,0	54.117,7	37.146,3	34.475,2	-7,2
Lekadunak	3.315,2	3.718,9	2.347,8	2.480,9	4.917,3	98,2
Patata	10.001,7	11.847,7	8.550,2	8.846,1	8.570,3	-3,1
Erremolatxa	6.894,3	8.124,2	7.475,3	6.010,8	7.980,9	32,8
Industriako beste batzuk	853,3	1.125,6	1.408,6	1.745,9	1.516,0	-13,2
Barazkiak	70.463,7	67.107,3	69.296,3	71.487,7	69.301,6	-3,1
Fruituak	12.099,7	14.658,6	15.717,0	14.128,7	16.864,3	19,4
Mahastia	62.546,7	70.445,2	81.306,7	86.557,2	91.416,6	5,6
Bestelakoak	27.489,3	27.031,4	25.864,2	26.247,9	25.036,9	-4,6
Abeltzaintzako Azken Produkzioa	159.261,2	154.155,8	168.470,8	166.204,1	172.651,6	3,9
Behi animaliak/Haragia	50.497,3	50.676,1	51.937,4	58.320,1	63.261,4	8,5
Ardi eta ahuntz anim./Haragia	6.492,2	6.935,1	7.323,5	7.144,0	6.909,8	-3,3
Txerriki animaliak/Haragia	2.665,0	1.785,7	1.492,3	2.112,1	1.917,6	-9,2
Behi-esnea	60.290,9	58.059,9	57.924,8	60.376,5	63.804,9	5,7
Arrautzak	23.549,2	21.512,9	33.806,1	22.857,8	22.178,5	-3,0
Bestelakoak	15.766,6	15.186,1	15.986,8	15.393,7	14.579,4	-5,3
Basogintzako Azken Produkzioa	35.153,2	36.779,4	35.506,7	39.272,8	54.292,0	38,2
Intsigni pinuaren egurra	27.986,7	29.661,6	25.363,1	29.910,5	42.175,6	41,0
Bestelakoak	7.166,5	7.117,8	10.143,5	9.362,2	12.116,4	29,4
Beste produkzio batzuk	8.168,0	9.205,5	9.537,4	10.661,4	9.984,5	-6,3
BITARTEKO KONTSUMOAK	170.687,2	183.062,1	192.309,9	196.886,3	186.628,1	-5,2
DIRU-LAGUNTZAK	71.603,5	68.658,8	68.309,3	66.528,3	61.932,6	-6,9
AMORTIZAZIOAK	51.196,5	56.547,9	55.591,2	55.697,6	57.622,8	3,5
BEG bbs	262.332,3	266.739,5	287.288,8	273.903,5	310.379,2	13,3
BEG ald	333.935,8	335.398,2	355.598,1	340.431,8	372.311,9	9,4
NEKAZARITZA ERRENTA (BEG)	282.739,3	278.850,3	300.007,0	284.734,2	314.689,0	10,5

Iturria: Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila

EAEko balio errealetako nekazaritza errenta (deflaktatua) EBko eta Estatuko errentekin konparatzea

EUROSTATek inflazioa kenduta konparatzen ditu Estatuen arteko Kontuen Aurrerapenak, herrialde bakoitzak berea baitu. Horrez gain, basogintza sektorea kanpoan uzten du.

Metodologia horren arabera, Benetako Nekazaritza Errenta %5,9 hazi zen 2013 eta 2014 bitartean EAEn, baina %4 egin zuen behera 27-EBn eta %7,2 Estatuan.

I.3.8. KOADROA. NEKAZARITZA ERRENTA ERREALAREN EBOLUZIOA (Basogintza sektorea sartu barik)*(aldakuntza-tasak) 2013-14*

	EAE	ESTATUA	27-EB
Nekazaritza errenta (kopuru errealetan)	**5,9**	-7,2	-4,0
Nekazaritzako Azken Prod. (nekaz. eta abeltz.)	**2,5**	-3,8	-3,4
Nekazaritzako Azken Prod.	**2,0**	-7,0	-6,0
Abeltzaintzako Azken Prod.	**3,7**	0,8	-0,9
Bitarteko kontsumoak	**-5,3**	-0,7	-3,6
Diru-laguntzak	**-7,0**	1,0	

Iturria: Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuna Saila

3.2.2. Arrantza

MSE-2013aren Ediziora jo beza irakurleak, ez baitugu datu berririk.

3.3. INDUSTRIA

EUSTATen Kontu Ekonomikoen datuen arabera (datuak 2015eko otsailean argitaratu dira), industria sektorea prezio arruntetan 2008an BPGd-aren % 25,3 izatetik 2014an % 21,3 (14.288.761 miloi euro) izatera igaro da; lanaldi osoaren pareko lanpostuak (LOPL) 182.752 izanda, LOPLen enplegu osoaren % 21 da; 2008an, aldiz, % 24,4 zen.

I.3.9. KOADROA. ADIERAZLEAK INDUSTRI SEKTOREAN

	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
BPGd-a prezio korronteetan (milioitan)	17.385	17.655	14.389	15.177	15.403.	14.734	14.362	14.289
Enplegua LOPLetan*	245.793	240.778	215.791	208.400	205.616	194.549	186.096	182.752
BEG aldakuntza (benetakoa)	3,0	-0,7	-12,9	2,5	1,3	-5,2	-2,6	1,0
Enplegu aldakuntza	1,7	-2,0	-10,4	-2,8	-1,3	-5,4	-4,3	-1,8
Produktibitatea (HKEen neurria)	1,3	1,4	-2,9	6,1	2,7	0,2	1,9	2,9
Deflatorea	2,7	2,2	--6,4	2,9	0,2	0,9	0,0	-1,5

**Lanaldi osoan lanean*
Iturria: EUSTAT, Kontu Ekonomikoak

Kontu Ekonomikoen datuek erakusten dutenez, 2013an **Industriako BEGd-a** urte arteko aldakuntzako hiruhilekoko tasak gero eta txikiagoa izan ondoren (lehen hiruhilekoko -%4,2tik laugarren hiruhilekoko -%0,1era), 2014ko lehen hiruhilekoan %0,8ko aldakuntza positiboa izan zen, laugarren hiruhilekoan hazkundearen nolabaiteko motelaldia ageri bazen ere. Horrela, industriako BEGd-aren urte arteko gehikuntza erreala, 2014. urtean, %1eko izan zen (-%2,6koa aurreko urtean).

I.3.10. KOADROA. BEG ETA INDUSTRIAKO ENPLEGUAREN BILAKAERA (urte arteko aldakuntza-tasak)

	2012	2013				2014			
	T4	T1	T2	T3	T4	T1	T2	T3	T4
Industriako BEG aldakuntza bolumenean	-5,1	-4,2	-3,5	-2,3	-0,1	0,8	0,9	1,4	1,0
Industriako enpleguaren aldakuntza tasa (HKE*)	-4,2	-4,2	-3,5	-2,8	-1,4	-0,5	0,1	0,5	1,0

**Lanaldi osoan*
Iturria: EUSTAT, Kontu Ekonomikoak eta HKE

Enpleguari dagokionez, kopuruek erakusten dute (arestian esana dugunez, lanaldi osoaren pareko 182.752 lanpostu) urteko batezbestekoa % 1,8 jaitsi dela. Sektorearen produktibitateak urte arteko %2,9ko batez besteko hazkundea du.



Eraikuntzaren BEGd-aren urteko batez besteko beherakada EAEn Estatuan egondakoa baino txikiagoa da: Estatuan % 1,5 murriztu da, EINen arabera.

Bestalde, EUSTATen 2015eko apirileko datuen arabera, **Industri Ekoizpenaren Indizearen (IEI, datu gordinak izanda)** urteko batez besteko aldakuntzak jardueraren % 1,8ko igoera agertu du, bi urtez jarraian jaitsierak izan ondoren.

Lurralde Historikoen araberako azterketan ageri denez, hazkunderik handiena Gipuzkoan dago (%2,5), eta ondoren Bizkaian (%1,6) eta Araban (%0,7).

EUSTATen arabera, ondasunen helmuga ekonomikoa aztertuta, EAEn batez besteko jaitsiera hori ondasun guztien ekoizpenaren jaitsieran oinarritu da, kontsumo iraunkorreko ondasunetan izan ezik. Horrela, kontsumo ez iraunkorreko ondasunenak %3,8 egin du gora, bitarteko ondasunenak %3,8, ekipo ondasunenak %2,2 eta energiarenak %0,1. Kontsumo iraunkorreko ondasunen produkzioa %16 jaitsi da.

EINek 2014ko otsailean emandako datuen arabera, aurreko urtearekin alderatuta 2014. urtean IEIren (indize orokorra datu gordinetan) batez bestekoak % 1,4ko aldakuntza izan zuen estatuan. EINren EAErako batezbestekoa % -0,1ekoa izan da.

EUROSTATen datuen arabera, Industri Ekoizpenaren Indizearen batez besteko aldakuntza (doitua) 2014an, 2015eko maiatzeko datuekin, %0,6 da eurogunean eta %1ekoa 28ko EBn.

IEIren azterketa sektorialetik (datu gordinekin) ondorioztatzen denez, EAEko hiru azpisektore industrial garrantzitsuenek, Metalurgiak, Makineriak eta Ekipoak eta Garraio Materialak[8] urteko batez besteko aldakuntza positiboak erakusten dituzte, bi urtez aldakuntza negatiboak izan ondoren. Hauexek dira aldakuntza horiek: Batez bestekoaren gainetik Metalurgian (%2,6, %,18aren aldean), batez bestekoan Makinerian eta Ekipoan (%1,8), eta batez bestekoaren azpitik Garraioaren Materialean (%1,1%).

Hauexetan izan dira gehikuntzarik handienak: Erauzketa-industriak (%11,1), Produktu informatikoak eta elektronikoak (%7,7), Produktu farmazeutikoak (%6,9) eta Egurra, papera eta arte grafikoak (%6,1).

Ildo horretan, esan behar dugu ezen, Kontu Ekonomikoen 2008ko eta 2013ko datuak erkatuta ikusten denez, orain ere gakoak direla Metalurgia eta metalezko produktuen, Makineria ekipoen eta Garraioaren materialaren jarduerak EAEko industrian eta, beraz, Erkidegoko ekonomian, bai produkzioaren aldetik, bai enpleguaren aldetik, baina Metalurgiak eta metalezko produktuen pisuak indar pixka bat galdu du eta Produktu informatiko eta elektronikoenak, berriz, igo.

8 Metalurgia eta metalezko produktuek hauexek biltzen dituzte: Siderurgia, burdinazkoak ez diren metalen ekoizpena, Metalen galdaketak, Metalezko eraikuntza, Forja eta estanpazioa, Ingeniaritza mekanikoa eta metalezko produktuak. Makinerak eta ekipoak hauek biltzen dituzte: Erabilera orokorreko makineria eta erraminta-makina; eta hauek dakartza Garraio materialak: motordun ibilgailuen fabrikazioa, ontzigintza eta Garraioko veste material batzuk.

I.3.11. KOADROA. IPI-REN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA ETA ONDASUNEN JOMUGA EKONOMIKOA. Datu gordinak. Urteko batez besteko hazkundea

	Guztira, EAE	Lurralde historikoak			Ondasunen jomuga ekonomikoa					
		Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Kontsumo ondasunak			Ekipo ondasunak	Bitarteko ondasunak	Energia
					Guztira	Iraunkorra	Ez iraunkorra			
2007	**4,8**	2,7	4,2	6,5	2,2	-0,6	3,4	9,2	4,4	-0,7
2008	**-2,9**	-4	-2,5	-2,6	-7	-16,7	-3,2	-1,1	-4,1	3,6
2009	**-21,7**	-24	-22	-20,3	-14,6	-29,1	-9,8	-23,2	-26	-6,9
2010	**2,1**	8	0,8	0,8	0,9	0,9	0,9	-2,6	7,1	-5,3
2011	**3,5**	7,7	1	3,9	-0,7	0	-1	10,3	5,1	-7,8
2012	**-5,6**	-4,6	-7,3	-4,4	-3,8	-5,1	-3,3	-5,9	-7,2	-2
2013	**-3,3**	-2,7	-4,4	-2,5	-5	-10,8	-2,7	-3,3	-2,6	-3
2014 bb	**1,8**	0,7	2,5	1,6	-1,5	-16	3,8	2,2	2,8	0,1

Bp Behin-behinekoak. Iturria: EUSTAT IPI (2015eko apirileko datuak)

I.3.12. KOADROA. IPI JARDUERA SEKTOREEN ARABERA. Datu gordinak. Urteko batez besteko gehikuntza

	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
IPI	**4,8**	**-2,9**	**-21,7**	**2,1**	**3,5**	**-5,6**	**-3,3**	**1,8**
02. Erauzketa-industriak	2,8	-14	-26,8	-20,7	-21,7	-10,3	-18	11,1
03. Elikagai, edari eta tabakoaren ind.	2	-1,1	-4,8	3,9	-2,8	0,7	0,5	4,1
04. Oihalgintza, jantzig., larrug. eta oinetakoak	1,1	-7,3	-30,7	4,5	6,8	-23,4	-14,4	5,7
05. Egurra, papera eta arte grafikoak	6,6	-7,1	-18,8	-4,2	5,5	-4,3	-2,6	6,1
06. Kokea eta petrolio findegiak	-1,8	5,7	-10,6	-9,6	-5,4	-6,5	14,6	16
07. Industria kimikoa	0,9	-8,5	-23,6	2,2	-0,6	-12,4	-1,7	5,2
08. Produktu farmazeutikoak	10,5	4,3	-3,3	4,8	2,6	-15	1,6	6,9
09. Kautxua eta plastikoak	5,3	-8	-20,4	9,8	1,9	-14,1	-6	0
10. Metalurgia	4,5	-4,5	-29,3	6,2	5,3	-5	-2,9	2,6
11. Produk. informatikoak eta elektronikoak	-16,2	-13	-24,4	3,8	12,5	1	-6,2	7,7
12. Material eta ekipo elektrikoak	6,7	-1,8	-22,7	-0,2	0,5	-4,9	-7,9	-7,4
13. Makineria eta ekipoa	10,4	-2,2	-30,2	-4,9	15,2	-0,9	-0,3	1,8
14. Garraio materiala	10,3	6,2	-15	6,8	12,2	-9,5	-3,4	1,1
15. Altzariak eta beste manufaktura batzuk	6,5	-3,7	-22,5	-13	1,6	-9,5	-6	0,2
16. Energia elektrikoa, gasa eta lurrina	0,2	2,5	-6,4	-3,8	-8,2	-1,2	-6	-3,3

Iturria: EUSTAT IPI (2015eko apirileko datuak)

I.3.13. KOADROA.INDUSTRIAKO SEKTORE NAGUSIEK EAE-KO EKONOMIA DUTEN PISUAREN BILAKAERA

	BPGd-aren BANAKETA			ENPLEGUAREN BANAKETA (Lanpostuak lanaldi osoan)		
	2008	2012	2013	2008	2012	2013
2. Erauzketa-industriak	0,8	0,4	0,2	0,3	0,3	0,3
3. Elikagaien, edarien eta tabakoaren ind.	5,2	5,7	5,9	6,3	7,3	7,2
4. Oihalgintza, jantzig., larrug. eta oinetakoak	0,8	0,7	0,7	1,3	1,3	1,2
5. Egurra, papera eta arte grafikoak	5,1	4,9	4,7	7,0	6,5	6,4
6. Kokea eta petrolioaren findegia	1,1	0,6	0,6	0,4	0,5	0,5
7. Industria kimikoa/ 8. Produktu farmazeutikoak	2,9	3,0	3,1	2,4	2,3	2,3
9. Kautxua, plastikoak eta beste ez metaliko batzuk	9,6	9,5	9,0	10,5	10,3	9,8
10. Metalurgia eta produktu metalikoak	**32,6**	**26,9**	**27,3**	**36,3**	**34,0**	**34,0**
11. Prod. informatikoak eta elektronikoak	1,9	2,6	2,8	2,4	2,8	3,0
12. Material eta elektrikoa	5,5	5,7	5,5	5,8	6,0	6,0
13. Makineria eta ekipoa	**8,1**	**10,3**	**10,7**	**9,7**	**10,2**	**10,3**
14. Garraio materiala	**8,8**	**10,0**	**10,4**	**7,2**	**8,0**	**7,9**
15. Altzariak eta beste manufaktura batzuk	4,1	4,3	4,1	7,0	6,7	6,9
16. Energia elektrikoa, gasa eta lurrina	11,4	12,5	11,9	1,0	1,1	1,1
17. Uraren hornidura eta saneamendua	2,0	2,9	2,9	2,3	3,0	3,1
Industria, guztira (BPG prezio korront.eta lanpostuak lanaldi osoan)	17.654.519	14.733.931	14.361.503	240.778	205.616	194.549

Iturriak: EUSTAT, Kontu Ekonomikoak

Industriako ondasunen prezioei dagokienez, **Industriako Prezioen Indizeak** (IPRI) urte arteko %1,1eko jaitsiera izan zuen gure Erkidegoan 2014. urtean, EUSTATen arabera, eta beraz, 2013an izandakoa baino beherakada handiagoa da (-%0,6).

Hauexetan izan ziren jaitsierarik handienak: Kokea eta petrolioa fintzea (-%6,5), erauzketa-industriak (-%2,8) eta altzariak eta beste manufaktura batzuk (-%1,3).

EAEko funtsezko hiru azpisektore bakoitza ardatz hartuta ikusten denez, Metalurgiak eta metalezko produktuek eta Garraio materialak %0,8ko jaitsiera izan zuten (bakoitzak). Makineriak eta ekipoak, berriz, %0,1eko hazkundea izan zuten.

Ondasunen jomuga ekonomikoaren arabera, energiarenak %3,6 egin du behera, kontsumo iraunkorrenak %1,2, bitarteko ondasunenak %0,7 eta ekipo ondasunenak %0,4. Kontsumo ez iraunkorreko ondasunen prezioa, berriz, %0,1 hazi da.

EINren behin-behineko datuen arabera (2014ko urtarrilean argitaratuak), EAEko IPRIk urteko %-3,7ko aldakuntza tasa izan du 2014ko abenduan 2013ko abenduaren aldean. Estatuko aldakuntza -%4,8koa da.

EUROSTATen datuen arabera, Industri Prezioen Indizearen batez besteko aldakuntza, 2014an, %-1,5 da eurogunean eta 28ko EBn, otsaileko datuen arabera.

I.3.14. KOADROA.IPRI, ONDASUNEN DESTINO EKONOMIKOAREN ETA JARDUERA SEKTOREAREN ARABERA, CNAE-2009 (urteko batez besteko hazkundea)

	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Indize orokorra	**4,9**	**5,5**	**-6**	**3,3**	**8,1**	**2,4**	**-0,6**	**-1,1**
Ondasunen jomuga ekonomikoa								
Kontsumo-ondasunak	3,5	4,2	0,5	0,2	3,1	1,7	0	-0,2
---Kontsumo iraunkorreko ondasunak	1,5	3	0,2	-0,5	0,6	0,5	0,2	-1,2
---Kontsumo ez iraunkorreko ondasunak	4,4	4,7	0,6	0,5	4	2,2	0	0,1
Ekipo-ondasunak	3,8	2,6	1,3	0,1	1,5	1,2	1,3	-0,4
Bitarteko ondasunak	7,1	3,8	-7,9	3,1	6,5	0,1	-1,3	-0,7
Energia	1,2	15,7	-14,6	11,7	21,7	7,8	-1,8	-3,6
Jarduera sektoreak								
-Erauzketa-industriak	2,6	15,3	5,5	-1,3	-0,6	-1,5	-1,4	-2,8
--Erauzketa-industriak	2,6	15,3	5,5	-1,3	-0,6	-1,5	-1,4	-2,8
-Manufaktura-industria	5,4	4,9	-6,5	3,8	6,6	2	-0,7	-1,4
--Elikagai, edari eta tabakoaren ind.	7	8,4	-1,2	1,6	5,8	2,9	-0,6	-0,1
--Oihal prod., jantzigintza, larru prod. eta oinetakoak	-0,8	3,1	1,1	0,8	-1,5	2,2	0,6	-0,6
--Zura, papera eta arte grafikoak	1,8	1,2	-3,2	1	4,9	-0,3	-1,1	0,7
--Kokea lortzeko eta petrolioa fintzeko fabrikak	1,8	19,4	-24,1	23,9	21,9	10,1	-2,6	-6,5
--Industria kimikoa	7	4,9	-2	1,9	6,7	2,8	0,4	-0,4
--Produktu farmazeutikoak	0	1,7	1	0,4	1,1	0,2	1,5	0,4
--Kautxua eta plastikoak	4,3	3,5	-0,3	0,9	2,5	0,2	3,8	-0,7
--Metalurgia eta produktu metalikoak	**8,1**	**3,4**	**-10,7**	**3,6**	**7,1**	**-0,4**	**-2,7**	**-0,8**
--Prod. informatikoak eta elektronikoak	9,8	4,2	0,9	0,5	2,2	0,5	-1,7	0,1
--Material eta ekipo elektrikoa	2,2	3,1	-1,7	2,1	5,6	3,3	-0,3	-1
--Makineria eta ekipoa	**3,1**	**2**	**1,7**	**-0,6**	**0,8**	**0,6**	**2,2**	**0,1**
--Garraio materiala	**3,9**	**1,9**	**2,7**	**0,6**	**1,2**	**0,2**	**1,2**	**-0,8**
--Altzariak eta beste manufaktura batzuk	5,1	3,8	2,4	-0,2	1,5	2,4	-0,3	-1,3
-Energia elektrikoa, gasa eta lurrina	0,3	10,9	-1,5	-1,3	19,8	5,6	-0,1	1,1
--Energia elektrikoa, gasa eta lurrina	0,3	10,9	-1,5	-1,3	19,8	5,6	-0,1	1,1

2010eko datua.
Iturria: EUSTAT. IPRI.(2015eko apirileko datuak)

EUSTATen industri estatistikak sektoreari buruzko azterketa xehatuagoa eskaintzen digu, baina 2013ko datuekin (2015eko apirilean argitaratuak). Horien arabera, 2012 eta 2013 bitartean, %7,4ko jaitsiera nominaleko tasa du industriako faktoreen kostuko BEGd-ak, eta enpleguak, berriz, %3,7koa.

Aldi berean, inbertsioa %34,7 igo zen, eta zergen ondoren eragiketa jarraituen emaitzek %90,4 egin zuten behera.

Bestalde, negozio zifraren zenbateko garbia 54.443 milioi euro izan zen 2014an, hots, %2,2ko jaitsiera nominala. Manufaktura-industriaren barne ez daude erauzketa-industrien, uraren hornidura eta saneamenduren eta energia elektriko, gas eta lurrinaren sektoreak, baina hala ere, 46.912,9 milioi euroko negozio zifra izan zuen 2013an, hots, %2ko beherakada 2012aren aldean.

Lurraldez lurralde, EUSTATen arabera, Gipuzkoak %4,8 egin zuen behera negozio zifran, eta Araban %3ko jaitsiera izan zen. Bizkaian, berriz, ez zen aldaketarik izan (%0) bere negozio zifran 2012aren aldean. Negatiboa izan zen enpleguaren bilakaera hiru lurraldeetan: Bizkaian %5 egin zuen behera, %3,2 Gipuzkoan eta %2,2, Araban.

Industriaren sektoreko negozio zifra osoan pisurik handiena duten adarrak, 2013an, hauexek izan ziren: Metalurgia eta metalezko produktuak (%25,2), Kokea eta petrolioa fintzea (%12,5), Energia elektrikoa, gasa eta lurrina (%11,7) eta Garraio materiala (%10).

Azpisektore ia guztietan gertatu zen, oro har, lanpostuen galera. Hona hemen nabarmenenak: Material eta ekipo elektrikoa (-%9,7), Kautxua eta plastikoak (-%7,2), Altzariak eta beste manufaktura batzuk (-%6,8) eta Oihalgintza, oskigintza, larrugintza eta oinetakoak (-%6,4). Soilik Garraio materiala azpisektoreak izan zuen aldakuntza positiboa (%4,7).

EAErako industriako hiru azpisektore garrantzitsuenek, Metalurgia eta metalezko produktuak, Makineria eta ekipoa eta Garraio materialak, funtsezkoak izaten jarraitzen dute BEGd-aren eta enpleguaren aldetik; izan ere, BEGd-aren %28,2, %10,6 eta %10,1 ziren eta enpleguaren %33,7, %10,4 eta %9,1 ziren 2013. urtean, hurrenez hurren.

I.3.15. KOADROA.INDUSTRIAREN SEKTOREKO MAGNITUDEAK SEKTOREKA

	Banaketaren %a (Industria = 100) 2013					Inbertsioa (milaka euro/enplegua) 2013	Emaitza (milaka euro/enplegua) 2013	BEG cf	Enple-gua	Inber-tsioa	Emaitzak eragiketa jarraituetan*, zergak eta gero
	BEG cf	Enple-gua	Inbertsioa	Negozio zifra (salmenta garb.)	Emaitzak zergen ondoren			% aldak. nomi-nala 12-13	% aldak. 12-13	% aldak. 12-13	% aldak. 12-13
INDUSTRIA GUZT.	100	100	100	100	100						
(milaka euro)	**12.950.224**	**195.633**	**2.682.959**	**54.443.484**	**123.050**	**-**	**-**	**-7,4**	**-3,7**	**34,7**	**-90,4**
Erauzketa-industria	0,5	0,2	0,2	0,4	4,6	12,9	12,2	-4,3	-14,5	-53,6	-35,0
Elikagai, edari eta tabakoaren ind.	6,8	7,4	2,6	7,7	204,1	4,8	17,3	3,6	-0,4	-13,5	-4,9
Oihalgintza, larrug. eta oinetakoak	0,8	1,3	0,2	0,6	17,3	2,0	8,6	4,4	-6,4	16,2	18,8
Zura, papera eta arte grafikoak	5,2	6,2	2,0	4,1	57,0	4,3	5,7	-7,7	-5,6	-29,4	-14,1
Kokea eta petrolio findegia	0,0	0,6	4,2	12,5	-70,3	103,2	-79,3	-95,5	-5,4	19,7	-543,5
Industria kimikoa eta produktu farmazeutikoen fabrikazioa	3,1	2,3	1,7	2,7	59,6	10,2	16,5	1,0	-1,1	-13,9	-16,2
Kautxua eta plastikoak	7,0	6,6	4,5	5,6	111,1	9,4	10,5	-9,6	-6,9	5,2	-16,6
Beste produktu mineral ez metaliko batzuk	2,4	2,9	1,1	1,9	-70,3	5,1	-15,4	-14,9	-7,8	-7,3	22,1
Metalurgia eta produktu metalikoak	28,2	33,7	17,1	25,2	57,5	6,9	1,1	-5,2	-4,1	2,9	-55,5
Prod. Informatik. eta optikoak	2,3	3,0	1,5	1,5	1,8	6,9	0,4	-4,2	-2,7	22,4	-94,4
Material eta ekipo elek. (etxeko ap. elek. barne)	4,2	5,5	1,9	4,4	-653,2	4,7	-74,3	-23,8	-9,7	-46,6	-1423,1
Makineria eta ekipoa	10,6	10,4	5,2	7,7	175,9	6,9	10,7	-2,1	-1,7	25,3	-1,1
Garraio materiala	10,1	9,1	15,7	10,0	206,9	23,7	14,4	1,1	4,7	51,4	15,6
Altzariak eta beste manufaktura batzuk	4,2	6,7	1,1	2,4	19,8	2,2	1,9	-8,3	-6,8	-35,3	-8,3
Energia elektrikoa, gasa eta lurrina	11,1	1,2	34,2	11,7	-72,2	390,5	-37,9	-17,1	-0,3	143,2	-4,5
Uraren hornidura eta saneamendua	3,4	3,0	6,9	1,8	50,4	31,8	10,7	0,0	-6,6	31,6	-19,5

Operazio horien ustiapen eta finantza emaitza barne. Iturria: EUSTAT. Industriako estatistika

Eduki teknologikoari[9] dagokionez eta EUSTATek erabiltzen duen ELGAren sailkapenaren arabera eta 2012 eta 2013. urteak alderatuz, gora egin zuen eduki altuko eta ertain-altuko sektoreen pisuak eta behera eduki baxu eta ertain-baxukoek; faktoreen kostuaren araberako BEGd-aren aldetik ere gora egin zuen eduki altu eta ertain-altuko sektoreen pisuak, jaitsi egin zen ertain-baxukoek, baina, hala ere, handitu egin zen eduki baxukoena. Salmentari dagokionez, gora egin zuen eduki teknologiko altuko eta baxuko sektoreek; jaitsi, berriz, eduki ertain-altukoek eta ertain-baxukoek.

Era berean, maila teknologiko altueneko sektoreek lanpostu gutxiago eta ekoizpen gutxiago galdu zituzten maila baxu/ertain-baxukoek baino. Bestalde, salmentek gora egin zuten teknologia altuko sektoreetan nahiz baxukoetan.

I.3.16. KOADROA.INDUSTRIAK EAE-N DUEN EDUKI TEKNOLOGIKOA ELGA-REN SEKTOREAK GORABEHERA

	2012	2013	Pisua 2012an	Pisua 2013an	2012-13ko aldak.
ENPLEGUA (kopurua)					
Guztira	203.174	195.633	100	100	-3,7
Maila teknologiko altua eta ertain-altua	61.414	60.451	30,2	30,9	-1,6
Maila teknologiko altua	9.025	8.948	4,4	4,6	-0,9
Maila teknologiko ertain-altua	52.389	51.503	25,8	26,3	-1,7
Maila teknologiko ertain-baxua eta baxua	132.700	126.553	65,3	64,7	-4,6
Maila teknologiko ertain-baxua	96.813	92.119	47,7	47,1	-4,8
Maila teknologiko baxua	35.887	34.434	17,7	17,6	-4,0
Sailkatu gabe	9.060	8.629	4,5	4,4	-4,8
BEGc.f. (mila euro)					
Guztira	13.983.941	12.950.224	100	100	-7,4
Maila teknologiko altua eta ertain-altua	4.148.292	3.962.480	29,7	30,6	-4,5
Maila teknologiko altua	552.408	570.309	4,0	4,4	3,2
Maila teknologiko ertain-altua	3.595.884	3.392.171	25,7	26,2	-5,7
Maila teknologiko ertain-baxua eta baxua	7.586.347	7.038.508	54	54	-7,2
Maila teknologiko ertain-baxua	5.686.345	5.188.032	40,7	40,1	-8,8
Maila teknologiko baxua	1.900.002	1.850.476	13,6	14,3	-2,6
Sailkatu gabe	2.249.302	1.949.236	16,1	15,1	-13,3
SALMENTAK (mila eurotan)					
Guztira	55.661.105	54.443.484	100	100	-2,2
Maila teknologiko altua eta ertain-altua	14.688.208	14.226.646	26,4	26,1	-3,1
Maila teknologiko altua	1.780.574,0	1.901.026,0	3,2	3,5	6,8
Maila teknologiko ertain-altua	12.907.634,0	12.325.620,0	23,2	22,6	-4,5
Maila teknologiko ertain-baxua eta baxua	33.182.455	32.686.216	59,6	60,0	-1,5
Maila teknologiko ertain-baxua	26.157.132	25.345.582	47,0	46,6	-3,1
Maila teknologiko baxua	7.025.323	7.340.634	12,6	13,5	4,5
Sailkatu gabe	7.790.442	7.530.622	14,0	13,8	-3,3
PRODUKTIBITATEA					
Guztira	-0,7	-3,8			
Maila teknologiko altua eta ertain-altua	-1,8	-3,0			
Maila teknologiko altua	0,3	4,1			
Maila teknologiko ertain-altua	-1,9	-4,0			
Maila teknologiko ertain-baxua eta baxua	-2,0	-2,7			
Maila teknologiko ertain-baxua	-1,3	-4,1			
Maila teknologiko baxua	-4,1	1,5			

Sailkatu gabe

9 EUSTATek erabiltzen duen ELGAren sailkapenaren arabera, maila teknologiko handiak honako hauek barne hartzen ditu: 1. Produktu farmazeutikoen fabrikazioa, 2. Produktu informatikoak, elektronikoak eta optikoak, eta 3. Aeronautika eta espazio eraikuntza. Maila teknologiko ertain-handian honako hauek daude: 4. Industria kimikoa, 5. Arma eta munizioen fabrikazioa, 6. Material eta ekipo elektronikoen fabrikazioa, Makineria eta ekipoen fabrikazioa, Ibilgailuen fabrikazioa, 7. Bestelako garraio materialen fabrikazioa, Ontzigintza eta Aeronautika eraikuntza izan ezik, eta 8. Tresna eta hornigai medikoen eta odontologikoen fabrikazioa. Hauexek biltzen ditu maila ertain-baxuak 9. Euskarri grabatuen erreprodukzioa, 10. Kokea eta petrolioa fintzea, 11. Kautxu eta plastikozko produktuen fabrikazioa, Metalezkoak ez diren beste produktu mineral batzuen fabrikazioa. Metalurgia, 12. Metalezko produktuen fabrikazioa, makineria eta armak eta munizioak izan ezik, 13. Ontzigintza, eta 14. Makineriaren eta ekipoaren konponketa eta instalazioa. Maila baxuan hauexek biltzen dira 15. Ellikagai, edari eta tabakoaren industria eta oihalgintza eta joskigintza. Larrugintza eta oinetakoak. Zuraren eta paper eta kortxoaren industria, 16. Arte grafikoak, 17. Altzarien fabrikazioa, 18. Beste manufaktura-industria batzuk; eta 19. Sailkatu gabe.

3.4. ERAIKUNTZA

EUSTATen Kontu Ekonomikoen datuen arabera (2015eko otsailean argitaratuak), eraikuntza sektorea 2008an prezio korronteetako BPGd-aren %9 izatetik %5,7 izatera igaro da 2014an (3.790 milioi euro); eta 54.834 bitarteko lanpostu izanik LOPLen, LOPL osoko lanpostuen %6,3 da, noiz-eta 2008an %9,8 zenean.

Kontu horien arabera, ekoizpenaren aldetik baino enpleguan urte arteko aldakuntza negatibo handiagoak izan direneko hainbat urteren buruan, ondoko taulak erakusten duenez, beherakada gutxitzen hasi zen sektorean 2013. urtean, eta joera horrek 2014an jarraitu zuen.

Hala, urte arteko hiruhilekoko bilakaeraren profilak agerian uzten duenez, nahiz eta 2013ko azken hiruhilekoan eta 2014ko lehenbizikoan jardueraren beherakada handia eten (BEGd-aren aldakuntza-tasa -%1,2tik -%4,1era igaro zen), sektorearen BEGd-aren urte arteko jaitsiera moteldu egin zen urtean, eta 2014ko azken hiruhilekoan -%2ko tasarekin bukatu zuen. Horrela, eraikuntza sektorearen BEGd-ak urteko arteko -%3ko aldakuntza-tasa zuen, bolumenean, 2014. urtean. 2013ko -%4,7aren aldean.

Enpleguari dagokionez, EUSTATen Kontu Ekonomikoek urteko batez besteko -%2,4ko murrizpena erakusten dute lanaldi osoko lanpostuetan, 2013ko -%13,8koaren aldean. Sektorearen produktibitatea %0,7 gutxitu zen. Bestalde, BPGd-aren deflatoreak %0,4 egin zuen behera 2014. urtean.

Eraikuntzaren BEGd-aren urteko batez besteko beherakada EAEn Estatuan egondakoa baino handiagoa da: Estatuan % 1,2 murriztu da, EINren arabera.

Eraikuntzaren Koiuntura Indizeari dagokionez, urteko batez besteko aldakuntza -%3,5 da 2014. urtean (2013an izandako -%2,4aren aldean), hain zuzen ere eraikuntzaren indizearen jaitsieraren ondorio zuzena (-%5,3), zeren eta obra zibilak indizearen aldakuntza positiboa baitu (+%7,7). Enpleguan urteko batez besteko -%5,5eko aldakuntza ageri da. 2013an, berriz, %12,9koa izan zen.

EUROSTATen arabera, Eraikuntzaren Produkzio Indizearen batez besteko aldakuntza, 2014an, %2koa da (2015eko datuen arabera) eurogunean eta %3koa 28ko EBn.

I.3.17. KOADROA. ERAIKUNTZAREN SEKTOREAREN BILAKAERA

	Eraikuntzaren koiuntura indizea Urteko batez besteko hazkundea				Hiruhilekoko kontu ekonomikoak. (Datu zuzenduak) Urte arteko aldakuntza-tasak			
	Guztira	Eraikuntza	Obra zibila	Enplegua	BPG bolumen kateatua	Lanpostua k (LOL)	Produktibita-tea	Deflatorea
	Produkzio indizea							
2007	7,2	5,9	10,2	0	11,1	5,2	5,6	5,6
2008	2,2	-1,3	9,5	-2,9	-5,8	-4,8	-1,1	4,0
2009	-12,5	-15,7	-6,4	-7,9	-7,4	-7,9	0,5	-3,0
2010	-16,9	-13,6	-22,4	-8,4	-7,9	-7,8	-1,0	1,9
2011	-11,0,	-10,2	-15,8	-8,0	-7,6	-9,9	2,5	1,9
2012	-16,5	-15,7	-21,3	-12,9	-7,6	-12,9	6,0	-4,0
2013	-24,0	-25,2	-15,9	-12,9	-4,7	-13,8	10,7	-3,2
2014	-3,5	-5,3	7,5	-5,5	-3,0	-2,4	-0,7	-0,4

Iturria: EUSTAT



3.5. ZERBITZUAK[10]

EUSTATen Kontu Ekonomikoen datuen arabera (2015eko otsailean argitaratuak), zerbitzuen sektorea BPGd-aren %55,9 izan zen 2008an prezio korronteetan, eta 2014an, berriz, %62,6 izan zen (41.903,6 milioi euro); guztira 618.829 lanpostu izanik, lanaldi osoko lanpostu guztien %71,2 zen, 2008ko %64,2aren aldean.

2014an, bi urtean urte arteko benetako aldakuntza negatiboak izan ostean, EAEko zerbitzuen sektorearen BPGd-ak %1,5 egin zuen gora 2013koaren aldean. *Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioa* sektorea %1,6 hazi zen, *Administrazio Publikoa, Hezkuntza, Osasuna eta Gizarte Zerbitzuak* %2,2 eta *Gainerako zerbitzuak* %1,1.

I.3.18. KOADROA. ZERBITZUEN SEKTOREAREN BILAKAERA. Datu zuzenduak. Aldakuntzako urte arteko tasak

	Zerbitzuetako BEG. Bolumen indizea				Lanpos-tuak (HKE)	Produk-tibitatea	Defla-torea
	Guztira	Merkat., ostalar. eta garraioa	Ad. Publik. Hezk. osas. eta gizart. zerb.	Zerbitzuen gainer.			
2007	**4,0**	-	-	-	3,1	0,9	3,5
2008	**3,3**	-	-	-	2,0	1,3	3,5
2009	**-0,1**	-	-	-	-1,0	0,9	2,5
2010	**0,7**	-	-	-	0,8	0,5	0,6
2011	**0,8**	-0,8	3,4	0,6	0,5	0,3	1,5
2012	**-0,4**	-2,5	0,4	0,5	-1,6	1,2	0,5
2013	**-0,9**	-1,6	0,1	-0,9	-1,4	0,6	0,5
2014	**1,5**	1,6	2,2	1,1	1,1	0,4	0,1

Iturria: EUSTAT

Zerbitzuen sektorearen BPGd-aren benetako hazkunde hori (%1,5) Estatuko osoaren antzekoa da, non, EINren behin-behineko datuen arabera, %1,6 egin zuen gora.

Gure Erkidegoko zerbitzuen sektore osoko enpleguak (LOPLetan), EUSTATen datuen arabera, urte arteko %1,1 hazkunde izan zuen, noiz-eta aurreko urtean %1,4 egin zuenean behera. Produktibitateak %0,4 egin zuen gora. Bestalde, deflatoreak %0,1eko hazkunde tasa dauka.

Zerbitzuen sektorearen barruan, merkataritzaren eta konponketen adarra da nabarmena orain ere, BPGd-aren nahiz enpleguaren kopuruetan: Zerbitzuen sektoreko BPGd korrontearen %15,9 (eskuragarri dugun azken datuak) eta enpleguaren %20,6 (2012ko datua). Halaber, BPGd-aren aldetik honako hauek ere nabarmenak izan dira: Higiezinen jarduerak (zerbitzuen sektorearen BPGd-aren % 14,7), Finantza- eta aseguru-jarduerak (% 8,5), Osasun jarduerak (% 7,8), Administrazio publikoa eta defentsa (% 7,7), Hezkuntza eta Garraioa eta biltegiratzea (biak % 7,3). Eta enpleguan: Hezkuntza (zerbitzuen sektore osoaren enpleguaren % 10,1), Administrazio publikoa eta defentsa (% 9), Zerbitzu lagungarriak (% 8,2), Ostalaritza (% 8) eta Osasun jarduerak (% 7).

2008 eta 2013 bitartean, BPGd-aren urteko batez besteko aldakuntza-tasa % -1,5ekoa izan da. Hona hemen jaitsierarik handienak: Edizioa, irudia, irratia eta TB eta finantza- eta aseguru-jarduerak (bietan urteko batez besteko

10 Halaber, "Gizarte babesa EAEn" izeneko kapituluak gure Erkidegoko Gizarte Zerbitzuei buruzko atala du.

%4,7arekin) eta Beste lanbide jarduera batzuk (-%3,2); eta BPGd-aren gehikuntzarik handienak hauexetan izan ziren: Jolas eta kultur jarduerak (urteko %3ko batez besteko tasa), Telekomunikazioak (%2,7), jarduera publikoak eta defentsa (%2,5) eta osasun jarduerak (urteko %2,4ko batez besteko tasa).

Enpleguari dagokionez, behera egin zuen 2008 eta 2012 bitartean, urtean %1eko batez besteko tasarekin, eta jaitsierarik handienak hauexetan izan ziren: Higiezinen arloko jarduerak (-%12,6), Edizioa, irudia, irratia eta TB (-%10,3), Informatika (-%7,3), Garraioa eta biltegiratzea (-%6,9), Telekomunikazioak (-%3,9) eta ibilgailuen merkaturatzea eta konpontzea (-%3,7). Hala ere, gehikuntza handiak egon dira honako adar hauetan: Ikerketa eta garapena (%11,1), Etxeetako jarduerak (%6), Hezkuntza (%3,9) eta osasun jarduerak (%2).

Zerbitzuen sektorean prezioek izandako urteko batez besteko hazkundea 2008 eta 2013 bitartean % 2,7koa da.

I.3.19. KOADROA. ZERBITZUEN SEKTOREAREN EGITURA ETA BILAKAERA EAE-N

	ZERBITZUEN SEKTOREAREN EGITURA										% urteko aldakuntza		
	BPG korrontea (Zerbitzuen sektoreko BEGd-aren gaineko %a)					Enplegua (Zerbitzuen sektoreko enpleguaren gaineko %a)					BPG*	Prezioak	Enpleg.
	2008	2010	2011	2012	2013	2008	2009	2010	2011	2012	2008-2013		2008-12
19. Ibilgailuak merkaturatu eta konpon.	16,8	16,2	16,0	15,9	15,9	21,8	20,9	20,7	20,8	20,6	-1,8	1,9	-3,7
20. Garraioa eta biltegiratzea	7,7	7,3	7,4	7,2	7,3	7,2	6,9	6,5	6,5	6,4	-2,3	2,2	-6,9
21. Ostalaritza	5,8	6,2	6,3	6,5	6,5	7,7	7,7	7,6	7,8	8,0	0,4	3,4	1,3
22. Edizioa, irudia, irratia eta telebista	1,1	1,0	1,0	0,9	0,8	1,1	1,1	1,0	1,0	0,9	-4,7	0,4	-10,3
23. Telekomunikazioak	2,3	2,3	2,3	2,3	2,3	0,5	0,5	0,5	0,5	0,4	2,7	-1,8	-3,9
24. Informatika	1,7	1,8	1,7	1,7	1,8	2,2	2,2	2,0	1,9	2,0	1,3	0,7	-7,3
25. Finantza- eta aseguru jarduerak	10,5	9,4	9,0	9,1	8,5	3,3	3,4	3,3	3,2	3,1	-4,7	1,9	-4,3
26. Higiezinen arloko jarduerak	13,5	14,0	14,3	14,6	14,7	1,2	1,1	1,0	0,9	0,9	1,5	1,4	-12,6
27. Aholkularitza eta jarduera teknikoak	6,4	6,4	6,6	6,8	6,8	6,2	6,3	6,5	6,5	6,5	1,0	1,5	1,2
28. Ikerketa eta garapena	0,7	0,7	0,7	0,7	0,7	0,9	0,9	1,0	1,0	1,1	1,1	1,0	11,1
29. Beste lanbide jarduera batzuk	1,2	1,1	1,1	1,1	1,0	1,7	1,7	1,7	1,7	1,7	-3,2	1,2	-2,1
30. Zerbitzu osagarriak	4,1	4,0	4,1	4,1	4,0	8,5	8,5	8,5	8,3	8,2	0,2	0,6	-2,6
31. Administrazio publikoa eta defentsa	7,8	7,6	7,6	7,4	7,7	8,7	8,8	9,2	9,1	9,0	2,5	-1,4	1,2
32. Hezkuntza	6,9	7,6	7,4	7,1	7,3	9,2	9,7	9,8	10,0	10,1	2,0	0,5	3,9
33. Osasun jarduerak	7,6	8,0	7,9	7,7	7,8	6,6	6,9	7,0	6,9	7,0	2,4	-0,4	2,0
34. Gizarte zerbitzuetako jarduerak	1,4	1,5	1,6	1,5	1,5	3,7	3,7	3,8	3,7	3,7	2,1	0,3	-0,8
35. Jolas eta kultur jarduerak	1,6	1,8	1,9	1,9	2,0	1,9	1,9	2,0	2,0	2,0	3,0	2,5	0,5
36. Beste zerbitzu batzuk	1,8	1,8	1,8	1,9	1,9	3,7	3,7	3,7	3,7	3,8	0,5	1,6	0,2
37. Etxeetako jarduerak	1,2	1,2	1,4	1,4	1,4	4,0	4,1	4,2	4,6	4,5	2,2	1,6	6,0
38. Lurraldez kanpoko erakundeak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
Beste zerbitzu batzuk (BPG mila eurotan eta lanaldi osoko lanpost.)	**38.924.024**	**40.404.171**	**41.323.161**	**41.374.782**	**41.260.461**	632.945	626559	627629	630516	620674	-1,5	2,7	-1,0
Ekonomia, guztira (BPG mila eurotan eta lanaldi osoko lanpostuak)	**69.648.307**	**67.595.563**	**68.041.740**	**66.775.970**	**66.081.063**	985.460	945.909	933.196	924.389	893.952	-1,4	2,6	-1,0

**** Benetako BPG (bolumen kateatuan) Iturria: EUSTAT. Kontu Ekonomikoak***

3.5.1. Merkataritza

EUSTATen Kontu Ekonomikoek eskura jarritako azken datuen arabera, ibilgailuen merkaturatzearen eta konpontzearen sektoreak EAEko BPGd-aren balioaren % 9,9 inguru hartzen du (6.572,4 milioi euro; 2013ko datua) eta enpleguaren % 14,3 inguru (lanaldi osoaren pareko 127.789 lanpostu; 2012ko datua).

EUSTATek argitaraturiko txikizkako merkataritzaren indize orokorrak (TMI) %0,5eko urte arteko hazkundea izan zuen EAEn 2013 eta 2014 bitartean, hiru urtez urte arteko aldakuntza negatiboak izan ondoren. Hala eta guztiz ere, lurralde historikoetan banakatuta ikus daitekeenez, alde handiak daude. Izan ere, Gipuzkoak eta Arabak aldakuntza handiagoak dituzte (%1,5 eta %1,4 hurrenez hurren). Bizkaian, aldiz, %0,3ko aldakuntza negatiboa izan zen.

Salmenta indizearen gehikuntza gertatu da EAEn, hain zuzen ere, honako hauetan izandako salmenten igoerengatik: pertsonarentzako ekipamenduko produktuak (%5,2), etxerako ekipamendurako produktuak (%5,1) eta automoziorako erregaiak (%0,8); izan ere, behera egin dute elikagaien salmentek (-%2,7), beste kontsumo-ondasun batzuen salmentek(-%1,5) eta elikagaiak ez diren produktuen salmenta ez espezializatuek (-%0,1).

I.3.20. KOADROA. TXIKIZKAKO MERKATARITZAREN SALMENTA INDIZEAREN BILAKAERA, ICIm * (urte arteko tasak)

	LL.HH. indize orokorra			EAE										
					Elikagaiak			Gainerako produktuak						
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	**Indize orokorra EAE**	Guzt	Espezia-lizatua	Ez espezia-lizatua	Guzt	Pertsona ekipamendua	Etxeko ekipamendua	Beste konts. Ondas.	Ez espezializatua	Automo-ziorako erregaia	Zerbitzuguneen indize orokorra
2011	-3,7	-3,5	-4,6	**-3,9**	-3,2	-2,9	-3,4	-3,7	-2,6	-3,6	-3,4	-8,1	-8,2	-3,6
2012	-4,3	-5,1	-5,5	**-5,1**	-4,2	-4,5	-4	-5,8	-5,7	-7,5	-5	-3,5	-5,6	-5,2
2013	-4,8	-3,8	-3,9	**-4**	-4,1	-0,2	-6,1	-4,5	-8,3	-4,4	-1,7	3,3	-0,8	-4,2
2014	1,4	-0,3	1,5	**0,5**	-2,7	-2,1	-3	3	5,2	5,1	-1,5	-0,1	0,8	0,5

(*) Urteko batez besteko gehikuntza prezio korronteetan
Iturria: EUSTAT

Bestalde, denda handien salmenten indize orokorrak berriz ere erakusten du urte arteko beherakada EAEn, %1,4koa hain zuzen ere, 2013 eta 2014 bitartean. Hiru Lurralde Historikoetan gertatu da jaitsiera; EAEkoa baino indize handiagoa dute Arabak (-%2,4) eta Gipuzkoak (-%1,6); Bizkaiak, berriz, txikiagoa du (-%1).

EAEko indizearen beherakada gertatu da, gehienbat, elikagaien salmentetan izandako jaitsieraren ondorioz (-%3,3).

I.3.21. KOADROA. DENDA HANDIEN SALMENTAREN INDIZEAREN BILAKAERA * (urte arteko tasak)

	LL. HH Indize orokorra			EAE		
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	**Indize orokorra**	Elika-gaiak	Gainerako produkt.
2007	-0,2	-0,2	-0,3	**-0,2**	-1,1	0,2
2008	-8,2	-4,8	-3,5	**-5**	-1,9	-6,6
2009	-3,6	-0,8	2,8	**-0,3**	-4	1,8
2010	-3,5	-2,5	5	**-0,5**	-2,8	0,6
2011	-5,3	-5,6	-4,9	**-5,4**	-2,6	-6,9
2012	-2,2	-4,1	-3,1	**-3,5**	-1,8	-4,6
2013	2,3	-1,8	-0,8	**-0,9**	-0,7	-1,3
2014	-2,4	-1	-1,6	**-1,4**	-3,3	-0,1

(*) Urteko batez besteko gehikuntza prezio korronteetan
Iturria: EUSTAT

Okupazioaren gaineko datuek erakusten dutenez, berriz gertatu da beherakada, txikizkako merkataritzan, nahiz denda handietan, 2014. urtean, baina 2013an izandakoa baino txikiago. Gauzak horrela, EAEko denda handietako landunen indizeak urte arteko %0,8ko (-%1,6koa 2013an) izan du, eta txikizkako merkataritzan, berriz, %1,2koa (-%4,4koa 2013an). Azken horretan, gehienbat elikagaien merkataritzako okupazioan izandako beherakadagatik gertatu da hala (-%2,3), eta neurri txikiagoan gainerako produktuei dagokienetan (-%0,5); automoziorako erregaien dendetan, berriz, enplegua hazi egin da (%2,3).

I.3.22. KOADROA. LANDUNEN INDIZEAREN BILAKAERA. Urte arteko tasak

	Denda handiak	Txikizkako merkataritza			
		Indize orokorra	Elikagaiak	Gainerakoak	Automoziorako erregaia
2007	**0,8**	-	-	-	-
2008	**-2,7**	-	-	-	-
2009	**-1**	-	-	-	-
2010	**2,3**	-	-	-	-
2011	**-1,1**	**-1,1**	0,5	-2,3	4,1
2012	**-3,6**	**-3,5**	-1	-5,4	4,1
2013	**-1,6**	**-4,4**	-2,5	-5,8	-2,8
2014	**-0,8**	**-1,2**	-2,3	-0,5	2,3

Iturria: EUSTAT

3.5.2. Ostalaritza

EUSTATen Kontu Ekonomikoek eskura jarritako azken datuen arabera, Ostalaritza sektoreak EAEko BPGd-aren balioaren % 4,1 inguru hartzen du (2.700,2 milioi euro; 2013ko datua) eta enpleguaren % 5,6 inguru (lanaldi osoaren pareko 49.866 lanpostu; 2012ko datua).

EUSTATen establezimendu turistiko hartzaileen inkestako datuetan, EAEn kokaturiko ostatuetan jasotako bidaiariak biltzen dira[11], eta EAEn igarotako gauak eta bidaiariak zenbatuta ikus daitekeenez, igarotako gauen, batez besteko egonaldiaren eta okupazio mailaren kopuruak[12] gora egin du 2013 eta 2014 bitartean.

Ostatuetan hartutako bidaiari kopuruaren igoera gertatu da Estatutik (%2,7) eta atzerritik (%3,4) etorritako bidaiarien kopuru handiagoagatik eta EAEko berezkoek behera egin dutelako (-%1,3).

I.3.23. KOADROA. BIDAIARIAK, IGAROTAKO GAUAK ETA OKUPAZIO MAILA EAE-KO OSTALARITZAKO ESTABLEZIMENDUAK

	Bidaiariak ostatuetan	Okupat plazak guzt. (igarotako gauak)	B.b. egonaldia egunetan	Oku-pazio maila plazako	Okupazio maila gelako
2011	2.420.997	4.574.989	1,89	46,0	55,2
2012	2.420.107	4.622.303	1,91	46,1	55,8
2013	2.368.080	4.478.672	1,89	44,3	53,8
2014	2.424.832	4.657.505	1,92	46,4	56,3

Iturria: EUSTAT, Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

I.3.3. GRAFIKOA. BIDAIARIEK EAE-N IZANDAKO SARREREN BILAKAERA. OSTALARITZA ESTABLEZIMENDUAK



Iturria: EUSTAT

EAEko berezko bidaiariak alde batera utzita ikusten denez, %3 egin du gora 2013 eta 2014 bitartean EAEko ostatuetan hartutako bidaiarien kopurua. Horrela, 2.083.039 lagun izan dira guztira eta, beraz, batez besteko egonaldia 1,95 egunekoa da, eta handiagoa da (1,97) Estatuko bisitarien aldetik eta txikiagoa (1,93) Estatutik kanpokoei dagokienez.

11 Jarduera nagusia pertsonak hartzea dueneko establezimendua, ohiko modu profesionalean eta prezio baten truke, beste zerbitzu osagarri batzuk izanik edo izan gabe. Horri deritzo orokorrean hotela, estatua edo antzekoa. Ez dira talde horretan sartzen, inkesta honen ondorioetarako, araudi espezifikoa duten gainerako establezimendu turistikoak hala nola oporretako etxebizitza turistikoak, landaturismoa, kanpalekuak, etab.

12 Honela definitzen da: hilabete jakin batean igarotako gau guztien eta ostalaritzako plaza/gela (bidezkoa den moduan) bider hileak dituen egun kopuruaren arteko erlazioa, ehunekoetan adierazia.

I.3.24. KOADROA. BIDAIARI KOPURAREN, IGAROTAKO GAUEN ETA EGONALDIAREN (EGUNETAN) BILAKAERA EAE, BIDAIARIAREN JATORRIAREN ARABERA

	2012			2013			2014			Aldakuntza		
	Bidaiariak	Igarotako gauak	B.b. egonaldia (egunak)	B	I.G.	ME	B	I.G.	ME	B (%)	I.G. (%)	ME (Dif)
Guztira EAE barik	2.052.004	4.005.146	1,95	2.021.824	3.915.498	1,94	2.083.039	4.070.359	1,95	3,0	4,0	0,02
Estatua EAE barik	1.210.448	2.374.003	1,96	1.152.554	2.236.107	1,94	1.183.838	2.330.572	1,97	2,7	4,2	0,03
Atzerritarrak	841.556	1.631.143	1,94	869.270	1.679.391	1,93	899.201	1.739.787	1,93	3,4	3,6	0,00
EAEko berezkoak	368.103	617.157	1,68	346.256	563.174	1,63	341.793	587.146	1,72	-1,3	4,3	0,09

Iturria: EUSTAT, Establezimendu turistiko hartzaileei buruzko inkesta

3.5.3. Finantza sektorea

EUSTATen Kontu Ekonomikoek eskura jarritako azken datuen arabera, Ostalaritza sektoreak EAEko BPGd-aren balioaren % 5,3 inguru hartzen du (3.527,3 milioi euro; 2013ko datua) eta enpleguaren % 2,1 inguru (lanaldi osoaren pareko 19.193 lanpostu; 2012ko datua.

Finantza esparrua ardatz hartuta, esku-hartzearen tasa, euro eremuaren egunean, %0,25ean amaitu zen 2013. urtean. Europako Banku Zentralak, 2014an, bi aldiz jaitsi zuen tasa hori, maiatzean (%0,15ean utzita) eta irailean (%0,05ean).

I.3.25. KOADROA. MONETA-MERKATUAREN ESKU-HARTZE MOTAK ETA INTERES-TASAK

	ESKU-HARTZE MOTAK (*)				INTERES-TASAK EUROAREN DIRU-MERKATUAK. GORDAILUAK			
	EDB	AEB	JAPO-NIA	ERRES. BATUA	Hilabetera	3 hilabet.	6 hilab.	Urteb.
2008	2,50	0,25	0,10	2,00				
2009	1,00	0,25	0,10	0,50	0,90	1,23	1,44	1,82
2010	1,00	0,25	0,10	0,50	0,57	0,81	1,08	1,35
2011	1,00	0,25	0,10	0,50	1,18	1,39	1,64	2,01
2012	0,75	0,25	0,10	0,50	0,33	0,57	0,83	1,11
2013	0,25	0,25	0,10	0,50	0,13	0,22	0,34	0,54
2014	0,05	0,25	0,10	0,50	0,13	0,21	0,31	0,48
2014. I. hiruh.					0,23	0,30	0,40	0,56
2014, IV. hiruh.					0,01	0,08	0,18	0,33

** Datuak epealdiaren amaieran*
Iturria: Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa

Estatu Batuetako Erreserba Federalak eta Japoniako Bankuak, aldiz, beren esku-hartze tasak mantendu dituzte aurreko urtean itxi zuten modu berdinean: lehenengoak % 0,25ekin eta bigarrenak % 0,1ekin.

Euroguneko diru-merkatuko interes-tasei dagokienez, urteko batez besteko balioa kontuan hartuta, epe guztietan murriztu ziren. Zehazkiago, hilabete bateko Euribor indizea % 0,23 izan zen urteko lehenengo hiruhilekoan, eta % 0,01 laugarren hiruhilekoaren amaieran. Hiru hilabeteko Euribor indizea % 0,4tik % 0,18ra igaro zen lehen eta laugarren hiruhilekoen artean, eta urtebeteko Euribor indizea % 0,56 izan zen urtearen hasieran eta % 0,33 urtearen amaieran.

I.3.26. KOADROA. KREDITU-ERAKUNDEEK FAMILIEI EMATEN DIZKIETEN KREDITEN INTERES TASA ETA* (EDBko egoiliarrak)

	DMTE** (Definizio murriztuko tasa efektiboa) Haztaturiko b.b. tasa			UTB (Urteko tasa baliokidea)		
	Etxebiz. kreditua	Kontsumo kreditua***	Beste xede b.	Etxebizi-tza	Kontsumoa	Beste xede b.
2008	5,65	10,48	6,51	5,83	10,99	7,03
2009	2,53	9,28	4,48	2,62	9,72	4,95
2010	2,60	6,92	5,16	2,66	7,47	5,64
2011	3,58	8,57	5,94	3,66	9,11	6,29
2012	2,81	7,76	5,81	2,93	8,31	6,23
2013	2,99	8,90	5,58	3,16	9,52	5,92
2014	2,56	7,96	4,63	2,64	9,14	4,91

** etxeen zerbitzurako irabazteko asmorik gabeko erakundeak ** DMTEk ez ditu komisioak biltzen, UTBk bai. *** 2010eko maiatzera arte, hori barne. Zutabe honetan, kreditu-txartelen bidez emandako kreditua sartzen da*
Iturria. Espainiako Bankua. Estatistika Buletina

Kreditu-entitateek EAEn emandako kreditu osoa hazi egin da 2013 eta 2014 bitartean, %9,52tik %9,14ra. Gauza bera etxebizitzan, %3,16tik %2,64ra hain zuzen ere.

Gordailu-entitateek EAEn emandako kreditu osoa[13] berriro ere txikitu egin da 2014. urtean, 73.237 milioi eurotik 69.177 milioi eurora, hain zuzen (% -5,5).

I.3.27. KOADROA. GORDAILU-ERAKUNDEEK SEKTORE PRIBATUARI ETA PUBLIKOARI EMANDAKO KREDITUA (saldoak 12/31n)

	Milioika eurotan						EAEko banaketa 2014	Estatua 2014	% Estat. gain.	% aldak. 2013-14
	2009	2010	2011	2012	2013	2014				
Guztira	**83.863**	**86.884**	**85.956**	**79.338**	**73.237**	**69.177**	**100**	**1.422.887**	**4,9**	**-5,5**
Admin Publik.	2.757	3.562	3.859	4.277	4.862	6.008	8,7	1.328.193	0,5	23,6
Sektore prib. (OSR)	81.106	83.322	82.097	75.062	68.375	63.169	91,3	94.694	66,7	-7,6

Iturria: Espainiako Estatistika Buletina

Beherakada hori sektore pribatuari emandako krediduak izandako jaitsieraren (-% 7,6) ondorioa da, herri-administrazioei emandako kreditua berriro ere handitu baita (% 23,6).

Beste sektore egoiliar batzuetan kreditu-saldoak jaitsi izanak ziurrenik eragina eduki du etxebizitza erosteko hipoteka-bermea duen krediduaren beherakadan ere. Gauzak horrela, Espainiako Bankuak estatu osoarentzat dituen datuen arabera (ez dago Autonomia Erkidegoetako daturik), magnitude hori % 4,2 murriztu da 2013 eta 2014 bitartean (569.692 milioi eurotik 552.647 milioi eurora.

I.3.28. KOADROA. ETXEBIZITZA EROSTEKO HIPOTEKA-BERMEA DUTEN KREDITUAK ESTATUAK

	Milioika €-tan	Aldakuntza-tasak
2008	611.483	5,3
2009	611.813	0,1
2010	620.433	1,4
2011	612.829	-1,2
2012	594.405	-3,0
2013	569.692	-4,2
2014bb	552.647	-3,0

bb. behinekoa. Iturria: Espainiako Bankua. Estatistika Buletina

Ildo horretan, EINren Jabetza, Merkataritza eta Ondasun Higigarrien Erregistratzaileen Espainiako Elkargoak Hipoteken Estatistikan argitaratu dituen datuen arabera, %11 egin du behera EAEn eraturiko hipoteken kopuruak 2013 eta 2014 bitartean. Hipotekaturiko finkaren gainean emandako batez besteko zenbatekoa %10,8 hazi da, hots, 148.796 euro, aurreko ekitaldiko 134.317 euroren aldean. Etxebizitzaren gaineko hipoteken kopurua ere % 5,8 murriztu da, eta hipotekatutako etxebizitza kontuan hartuta maileguan emandako batez besteko zenbatekoa % 1,4 erori da (120.534 milioi eurotik 118.827 milioi eurora.

I.3.29. KOADROA. LANDA ETA HIRI FINKEN HIPOTEKAK EAE-N

	2012			2013			2014			Aldakuntza 2013-14		
	Kop.	Zenbat. Mil. €)	B.b. zenbat.(€)	Kop.	Zenbat. (Milioi €)	B.b. zenbat. (€)	Kop.	Zenbat. (Milioi €)	B.b. zenbat. (€)	Kop.	Zenbat. (Milioi €)	B.b. zenbat. (€)
GUZTIRA HIPOTEKAK	25.284	3.518	139.139	18.918	2.541	134.317	16.862	2.509	148.796	-10,9	-1,3	10,8
Landa finkak	527	97	183.491	481	77	160.083	629	115	182.830	30,8	49,4	14,2
Hiri finkak	24.757	3.422	138.224	18.437	2.463	133.590	16.233	2.492	153.514	-12,0	1,2	14,9
Etxebizitz.	16.920	2.251	133.038	12.146	1.464	120.534	11.462	1.362	118.827	-5,6	-7,0	-1,4
Orubeak	535	342	639.252	345	301	872.464	319	301	943.574	-7,5	0,0	8,2
Beste hiri finka batzuk	7.302	829	113.531	5.946	698	117.390	4.452	829	186.208	-25,1	18,8	58,6

Iturria: EIN. Hipoteken Estatistika (Espainiako Jabetzaren Erregistratzaileen, Merkatarien eta Ondasun Higigarrien Elkargoa)

Finantza-erakundeetan jarritako gordailuei dagokienez, Herri Administrazioen jabetzapekoen guztizko saldoa 2.822 milioi eurokoa izan zen EAEn 2014. urteko abenduan, Espainiako Bankuaren Aldizkari Estatistikoaren datuen arabera. Kopuru horrek % 6,1eko hazkundea ekarri zion urte arteko tasari, eta %3,8 Estatuko gordailuetan. Beste sektore egoiliar

13 2011n, informazio hori Banku, Aurrezki-kutxen eta Kreditu-koperatiben artean banakatuta emateari utzi zion Espainiako Bakuak.

batzuetako gordailuen (BSE) balioa 69.448 milioi eurokoa izan zen, hau da, horien balioak % 2,4ko jaitsiera izan zuen aurreko ekitaldikoaren aldean, eta estatuko guztizkoaren gainean %6,8.

Beste sektore egoiliar batzuen gordailuek izan ditzaketen modalitate ezberdinak (agerikoa, aurrezkia eta eperakoa) kontuan hartuta aztertuz gero, ikusiko dugu ageriko gordailuek berriro ere gora egin dutela eta 24.883 milioi eurora iritsi direla (% 7,4), aurrezki gordailuen saldoak % 6 egin duela gora (10.149 milioi euro) eta eperako gordailuen saldoa % 10,3 murriztu dela, 34.062 milioi eurora jaitsi arte. [14]

I.3.30. KOADROA. SEKTORE PRIBATUAKO GORDAILUAK ETA HERRI ADMINISTRAZIOAK GORDAILU-ERAKUNDEETAN (SALDOAK XII-31N)

	Milioika eurotan					Banak.	Estatua	% Estatuko osoaren aldean	% aldak.	
	2010	2011	2012	2013	2014				2011-12	2012-13
Guztira pribatua eta pub.	78.799	74.850	71.947	73.729	72.269	-	1.213.205	6	2,5	-2,0
Guztira sektore pub.	4.937	2.757	2.533	2.660	2.822	-	73.448	3,8	5,0	6,1
Guztira sektore prib. (BSE)	73.862	72.093	69.414	71.068	69.448	100	1.139.756	6,1	2,4	-2,3
Ageriko gordailuak	13.866	15.795	18.805	23.175	24.883	35,8	337.496	7,4	23,2	7,4
Aurrezpen gordailuak	18.624	15.919	12.749	9.832	10.419	15,0	221.985	4,7	-22,9	6,0
Eperako gordailuak	41.374	40.379	37.860	38.062	34.145	49,2	580.285	5,9	0,5	-10,3

Iturria: Bilboko Burtsa

Burtsari dagokionez, Espainiako Bankuaren Estatistika Buletinaren datuen arabera, IBEX-35 indizeak %3,7 egin zuen gora 2013ko abendutik 2014ko abendura bitartean.

Madrilgo Burtsaren urteko batez besteko kapitalizazioa, 638.472 milioi euro orotara 2014an, %7,2 hazi zen aurreko urtearen aldean, eta batez besteko kontratazio bolumena, 884.349 milioi euro, %26,6 hazi zen 2014an aurreko urtearekiko.

I.3.31.KOADROA. BALOREEN BIGARREN MAILAKO MERKATUA. MADRILGO BURTSA

	KAPITALIZAZIOA (Sozietate egoiliarrak, milioika euro)	KONTRATAZIO BOLUMENA (milioika euro)
2008	496.263	1.245.129
2009,	567.989	898.195
2010	494.798	1.038.259
2011	442.034	926.265
2012	459.336	696.262
2013	595.395	698.744
2014	638.472	884.349

Iturria: Espainiako Banka. Estatistika buletina

Bilboko Burtsaren 2000 indizeak 1.668 puntu izan zituen 2014ko abenduan, hau da, % 0,63 igo zen aurreko urteko abenduko datuekin alderatuta.

Bilboko Burtsaren kontratazio-bolumena (erosketak eta salmentak) % 22,7 hazi zen 2014an, 33.178,50 milioi euro, alegia. Gehikuntza horren jatorria errenta aldagarria da (+%23,8), errenta finkoko kontratazioa %30,1 jaitsi baitzen. Kontratazio osotik % 51 erosketei dagokie; esan beharra dago % 27,1eko beherakada izan dutela aurreko ekitaldiaren aldean.

I.3.32. KOADROA. BILBAO 2000 BURTSA INDIZEA

	AZKENA	MAXIMOA	MINIMOA	% ALDAKUNTZA (azkena/azkenaur.)
2008	1.589,9	2.625,7	1.338,6	-39,5
2009,	1.921,6	1.936,2	1.149,3	20,9
2010	1.615,2	1.975,4	1.398,7	-15,9
2011	1.366,6	1.808,9	1.210,8	-15,4
2012	1.331,0	1.443,3	974,8	-2,6
2013	1.658,6	1.660,8	1.231,7	24,6
2014	1.668,0	1.858,1	1.559,4	0,63

Iturria: Bilboko Burtsa

14 2011n, informazio hori Banku, Aurrezki-kutxen eta Kreditu-koperatiben artean banakatuta emateari utzi zion Espainiako Bakuak.

I.3.33. KOADROA. BILBOKO BURTSARERN KONTRATAZIO BOLUMENA (milioi euro)

	2011		2012		2013		2014		2013-14 aldak.	
	Guzt. (erosk. - salm.)	Erosketak	Guzt. (erosk. eta salm.)	Erosk.	Guzt. (erosk. eta salm.)	Erosk.	Guzt. (erosk. eta salm.)	Erosk.	Guzt. (erosk. eta salm.)	Erosket.
ERRENTA ALDAK.	189.937,1	94.431,9	148.300,5	73.156,8	139.476,7	68.651,2	172.655,2	88.052,2	23,8	28,3
Merkatu iraunkorra: SIBE	189.937,1	94.431,9	148.300,5	73.156,8	139.476,7	68.651,2	172.655,2	88.052,2	23,8	28,3
Merkatu tradizionala: Parketa (hitzez)	0	0	0	0	0	0	0	0		
ERRENT. FINK.	4.290,4	2.145,2	3.071,8	1.533,5	2.758,7	1.367,4	1.928,6	964,6	-30,1	-29,5
Merkatua iraunkorra: Elektronikoa	3,6	1,8	9,2	2,2	28,2	2,1	0,6	0,6	-97,9	-71,4
Merkatu tradizionala: Parketa (hitzez)	0,9	0,5	0,3	0,6	0	0	0	0		
Konturako Anotazio Zerbitzuak (KAZ)	4.285,9	2.142,9	3.062,2	1.531,1	2.730,5	1.365,3	1.928,0	964,0	-29,4	-29,4
GUZT. BURTSA	**194.227,5**	**96.577,1**	**151.372,3**	**74.690,3**	**142.235,4**	**70.018,6**	**174.583,8**	**89.016,8**	**22,7**	**27,1**

Iturria: Bilboko Burtsa

4. PREZIOAK, KOSTUAK ETA ERRENTAK

4.1. ONDASUNEN ETA KONTSUMO ZERBITZUEN PREZIOAK

Kontsumoko prezioen urte arteko tasa %-0,7koa izan zen 2014ko abenduan; 2013ko abenduan, aldiz, positiboa izan zen, %+06koa. KPIren bilakaera historiko osoa aintzat hartuta, 1979. urtetik, lehenengoz izan du adierazle horrek urte arteko tasa negatiboa. Urte arteko batez besteko inflazioa ere, bestalde, bilakaera osoko txikiena izan da, baina oso urruti 2009ko %0,3tik.

2014ko kontsumoko prezioen joera negatibo hori gertatu da indize orokorreko produkturik hegazkorrek erakutsitako bilakaeragatik, hots, energiako produktuei dagozkienek; izan ere, jaitsieraren zatirik handiena eragin dute. Bestetik, elikagai freskoek ere eragina izan dute. Biek izan dituzte prezio merkeagoak 2014. urtea bukatutakoan aurreko urtearen aldean. Zehazkiago, petrolioaren prezioa 110$ (80€) inguruan mantendu zen urteko lehen hileetan, baina uztailetik hasita, merketze nabarmena gertatu zen, %50etik gorakoa 2014. urtea bukatzean, gehienbat eskaintzaren inguruko zioengatik, petrolioa ateratzeko teknika berrien eta merkatu-kuota handitzeko zenbait ekoizle handik izan dituzten estrategien ondorioz.

I.4.1. KOADROA. KONTSUMO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKAPENA: URTE ARTEKO ALDAKUNTZA TASAK ABENDUAN.

	2010	2011	2012	2013	2014
INFLAZIO OSOA (%100)	2,8	2,4	2,7	0,6	-0,7
AZPIKO INFLAZIOA (%81,8)	1,6	1,5	2,1	0,6	0,3
- Landutako elikagaien KPIa (%14,1)	2,2	3,4	3,9	1,2	0,0
-Industriako ondasunen KPIa (%26,2)	4,3	2,8	2,5	0,3	-2,4
- Zerbitzuen KPIa (%41,5)	1,8	1,8	2,4	0,5	0,7
HONDAR INFLAZIOA (%18,2)	9,0	6,5	5,6	0,7	-4,8
- andu gabeko elikagaien KPIa (%7,0)	1,7	1,2	3,3	1,4	-0,3
- Energiaren KPIa (%11,2)	14,6	10,3	7,1	0,3	-7,6

Iturriak: INE eta Eusko Jaurlaritzaren KOIUNTURAZ buletina.
Oharra: Portzentajeak datu orokorreko ondasunen eta zerbitzuen talde bakoitzeko haztapenei dagozkie.

GRAFIKOA I.4.1. KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA: URTE ARTEKO ALDAKUNTZA TASAK. EAE ETA ESTATUA



Iturria: INE.

Kontsumoko prezioen jaitsiera ez da orokorra: KPIaren nukleorik egonkorrenak, hots, azpiko inflazioak, %0,3ko ratioa izan zuen abenduan. Ez da handia, baina seihilekoan izandako handiena da. Talde horren barruan, zerbitzuen prezioek %0,7 egin dute gora; industriakoek eta landutako elikagaiek, berriz, jaitsiera txikiak izan dituzte. Erregaien eta elikagai freskoen jatsierek, aldiz, hondar inflazioa jaitsiarazi dute urtearen amaieran, %-4,8ko ratio negatiboarekin.

I.4.2. KOADROA. KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA. EAE ETA ESTATUA. URTE ARTEKO TASAK ABENDUAN.

	EAE				ESTATUA			
	2011	2012	2013	2014	2011	2012	2013	2014
INDIZE OROKORRA	2,4	2,7	0,6	-0,7	2,4	2,9	0,3	-1,0
ELIKAGAIAK ETA ALKOHOL GABEKO EDAR.	2,5	3,4	0,8	-0,1	2,1	3,0	1,2	-0,3
EDARI ALKOHOLDUNAK ETA TABAKOA	3,9	5,8	5,1	-0,2	4,2	5,4	5,6	0,4
JANTZIAK ETA ZAPATAK	0,3	0,4	0,2	0,4	0,3	0,3	0,0	0,2
ETXEBIZITZA	7,0	6,1	0,0	0,6	5,8	5,6	0,0	-0,2
ETXEKO TRESNERIA ETA ZERBITZUAK	1,3	2,6	-0,2	-0,1	1,1	1,2	-0,2	-0,6
OSASUN ZERBITZUAK ETA ZERBITZU MEDIK.	-2,2	3,9	9,2	-0,2	-2,8	13,3	0,0	-0,2
GARRAIOA	4,7	2,4	1,2	-5,0	4,9	3,1	1,0	-5,5
KOMUNIKAZIOAK	-1,6	-2,8	-6,5	-5,6	-1,6	-2,7	-6,6	-5,7
AISIALDIA ETA KULTURA	0,6	1,9	-0,8	-0,9	1,3	0,8	-1,2	-1,2
IRAKASKUNTZA	1,3	3,4	2,5	2,9	2,8	10,5	1,9	1,2
HOTELAK, KAFETEGIAK ETA JATETXEAK	1,1	1,1	0,7	0,4	1,2	0,8	0,2	0,6
BESTE ONDASUN ETA ZERBITZU BATZUK	2,4	3,6	0,5	1,4	2,7	3,3	0,3	1,3

Iturria: INE.

Esan beharra dago ezen, prezioen jatsiera 2014an orokorra izan ez bazen ere, KPIa osatzen duten taldeen erdiak baino gehiagok jatsierak izan zituztela 2014. urtea ixtean. Horien artean komunikazio (%-5,6) eta garraio (%-5) taldeak nabarmentzen dira, handiak izan baitira. Aldi berean, irakaskuntzakoek izan dituzte igoerarik handienak (%+2,9), gehienbat unibertsitateko tasen igoerek eraginda.

Bestalde, Europako Batasunaren 2014ko abenduko Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatuaren (KPIH) [1] datuek erakusten dutenez, %-1,1eko jaitsiera izan zen Estatuan 2013ko abenduaren aldean; aurreko urtean, berriz, %+0,3 izan zen. 28ko EBk, bestetik, prezioen %-0,1eko jaitsiera izan zuen, 2013ko abenduko %+1ekoaren aldean, eta euro gunearen ratioa %-0,2 izan zen (%0,8 2013ko abenduan). Hori dela eta, puntu erdiko alde negatiboa du gure Erkidegoak Euroguneko erreferentziarekiko.

2014an, Europako herrialdeetan eutsi egin zitzaion 2013ko ezaugarri nagusia izan zen prezioen igoera txiki orokorrari, eta urtearen amaieran, maila arinki negatiboak izan ziren. Izan ere, gehienek tasa negatiboak dituzte, txikiak izanik ere, 0 eta %-1 bitartekoak, Grezian eta Bulgarian izan ezik: %-2,5 eta %-2ko jaitsierak izan ziren hurrenez hurren.

I.4.3. KOADROA. KPIH: URTE ARTEKO ALDAKUNTZA TASAK. 2005EKO OINARRIA

	2012ko abend.	2013ko abend.	2014ko abend.
28KO EB	2,3	1,0	-0,1
EURO GUNEA	2,2	0,8	-0,2
BELGIKA	2,1	1,2	-0,4
BULGARIA	2,8	-0,9	-2,0
TXEKIAR ER.	2,4	1,5	0,1
DANIMARKA	1,9	0,4	0,1
KROAZIA	4,4	0,5	-0,1
ALEMANIA	2,0	1,2	0,1
ESTONIA	3,6	2,0	0,1
IRLANDA	1,7	0,3*	-0,3
GREZIA	0,3	-1,8	-2,5
ESPAINIA	3,0	0,3	-1,1
FRANTZIA	1,5	0,8	0,1
ITALIA	2,6	0,7	-0,1
ZIPRE	1,5	-1,3	-1,0
LETONIA	1,6	-0,4	0,3
LITUANIA	2,9	0,4	-0,1
LUXENBURGO	2,5	1,5	-0,9
HUNGARIA	5,1	0,6	-0,8
MALTA	2,8	1,0	0,4
HERBEHEREAK	3,4	1,4	-0,1
AUSTRIA	2,9	2,0	0,8
POLONIA	2,2	0,6	-0,6
PORTUGAL	2,1	0,2	-0,3
ERRUMANIA	4,6	1,3	1,0
ESLOVENIA	3,1	0,9	-0,1
ESLOVAKIA	3,4	0,4	-0,1
FINLANDIA	3,5	1,9	0,6
SUEDIA	1,1	0,4	0,3
ERRESUMA BAT	2,7	2,0	0,5

Iturria: EUROSTAT.
** Azaroko urte arteko datua.*

4.2. KOSTUAK

a) Lan-kostuak

Lan-kostuen hainbat adierazle oinarri hartuta, honako emaitza hauek aipatzen dira:

- *Indarreko hitzarmenetan itundutako soldata igoerak* aintzat hartuta, %0,76ko soldata igoera berrikusia[2] dugu gure Erkidegoan, 2013koak baino 0,58 puntu gutxiago eta Estatuan hitzarturikoak baino 0,19 gehiago, Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioaren datuen arabera[3].

1 Kontsumoko prezioen Indize Harmonizatuak (KPIH) Europar Batasuneko inflazioaren batez besteko komuna ematen du. Alderaketa homogeneo hauek lortzeko, KPIan biltzen diren eta haren %5 inguru hartzen duten kontsumoko partida jakin batzuk kanpoan utzi behar izan dira (horrela, adibidez, KPIHtik kanpo geratzen dira Osasun zerbitzuak, Irakaskuntza arautua, Sendagaiak eta diruz lagundutako farmaziako produktuak, eta abar).

2 "Babes klausulagatik" soldata berrikuspenak jatorrian itundutako soldata hazkundeari eranstearen emaitza.

3 Urtean berrikusitako hitzarmen kolektiboetan izandako soldata aldaketak biltzen dituzte soilik zifra horiek. Informazio gehiago nahi izanez gero, jo beza irakurleak II. kapituluko ("Lan-merkatua") Lan Harremanei buruzko atalera.

I.4.4. KOADROA. LAN-KOSTUEN ADIERAZLE MAKROEKONOMIKOAK									
	EAE[1]			ORDAINSARIAK LANPOSTUKO (% ALDAK.)				SOLDATEN IGOERA HITZARMENETAN[4]	
	Soldatapekoen ordainsariak (milioi €)	Lanpos-tuak	Ordainsariak lanpostuko (€)	EAE[1]	Estatua[2]	28-EB[3]	EBB[3]	EAE (% aldak.)	Estatua (% aldak.)
2009	32.665	945.909	35.013	4,2	4,4	-1,2	0,6	2,67	2,24
2010	33.285	933.196	35.003	0,0	1,1	6,6	1,9	1,67	2,16
2011	33.308	924.389	36.008	2,9	1,5	-0,9	1,9	3,03	2,29
2012	32.119	893.952	37.260	3,5	-1,2	3,0	1,5	2,09	1,16
2013*	31.402	867.008	36.219	-2,8	1,7	1,0	1,7	1,34	0,52
2014*	:	869.261	:	:	-0,2	2,3	1,1	0,76	0,57

Iturriak: (1) EUSTATen Hiruhilekoko Kontuak, 2010eko oinarria. (2) INEren Lurralde Kontabilitatea. 2010eko oinarria. (3) EUROSTAT. (4) Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa. Lan Hitzarmen Kolektiboen Estatistika. (*) Behin-behineko datuak.

- Bigarren adierazlea, *Soldatapekoen ordainsaria lanpostuko*[4] delakoa, EUSTATen Kontu Ekonomikoetatik eta INEren estatistikatik kalkulatzen da, eta erakusten duenez, %2,8 egin zuen behera gure Erkidegoan 2013an (eskuragarri dugun azken datua). Estatuan, berriz, %1,7 hazi zen 2013an, eta 2014an, aldiz, %0,2 murriztu da (Lurralde Kontabilitatearen behin-behineko datuen arabera).

  Bestalde, EUROSTATek 2014rako emandako behin-behineko datuek erakusten dutenez, %2,3ko igoera izan da soldatetan lanpostuko 28ko EBn. Euro gunean, berriz, %+1,1eko ratioa da.

- Lan-kostuen hirugarren adierazlea koiunturala da; halakoxea da INEren «*Lan-kostuen Hiruhilekoko Inkesta*». [5].Inkesta horren 2014ko datuen arabera, %1 murriztu ziren EAEn urteko lan-kostuak lanpostuko; Estatuko batez bestekoa, berriz, %0,3 jaitsi da.

  Bestalde, euro gunean, %1 egin zuten gora lan-kostuek 2014an (laugarren hiruhilekoko urte arteko datuak). 28-EB osoan, berriz, %1,4 igo zen, EUROSTATen "*Lan-eskuaren Kostuaren Indizearen*" behin-behineko datuen arabera betiere.

I.4.5. KOADROA. LAN-KOSTUEN BILAKAERA JARDUERA SEKTOREAREN ARABERA. KOSTUA LANGILEKO, €/URTEA.								
	ESTATUA				EAE			
	Guztira	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak	Guztira	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
2010	30.324	34.187	30.945	29.435	35.215	39.086	35.932	33.725
2011	30.681	34.775	31.799	29.731	35.420	39.727	36.756	33.809
2012	30.483	35.438	32.266	29.353	35.655	40.173	35.698	34.131
2013	30.530	36.071	32.428	29.320	36.266	41.865	35.967	34.470
2014	30.432	36.539	32.355	29.148	35.908	42.340	37.205	33.828
% 2012/13	0,2	1,8	0,5	-0,1	1,7	4,2	0,8	1,0
% 2013/14	-0,3	1,3	-0,2	-0,6	-1,0	1,1	3,4	-1,9

Iturria: INEren datuekin eginikoa. LKTI.

Jarduera sektoreen arabera, igoerak izan ziren EAEn eraikuntzan, %3,4koa, eta industrian, %1,1ekoa. Zerbitzuetan, berriz, %1,9 jaitsi ziren. Kopuru absolutuetan, 35.908€-koa da batez besteko guztizko kostua langileko, hots, Estatuko batez bestekoa baino %18 handiagoa.

4 Langileek euren zerbitzuak emateagatik jasotzen duten ordainketa osoa. Barnea hartzen ditu ekoizleek beren behargin eta enplegatuei egiten dizkieten soldata eta ordainsarien ordainketa guztiak, eta Gizarte Segurantzarako ekarpenak ere bai. Beste hainbat kontzepturen artean barnean hartzen ditu hobariak eta aparteko orduen, primen, gabonsarien, haborokinen eta kalte-ordainen ordainketak.

5 Inkesta oinarri hartuta, Lan-kostu Indize Harmonizatua egiten da, EB osorako lan-kostuekin pareka daitekeen neurria.

I.4.6. KOADROA. LAN-KOSTUEN BILAKAERA JARDUERA SEKTOREEN ARABERA. LANGILEKO KOSTUA, €/ORDU

	ESTATUA				EAE			
	Guztira	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak	Guztira	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
2010	19,1	20,7	17,8	19,0	23,4	25,7	22,1	22,7
2011	19,6	21,0	18,5	19,4	23,6	25,5	22,5	23,0
2012	19,5	21,5	18,9	19,2	24,1	25,8	22,0	23,7
2013	19,6	21,8	18,9	19,2	24,6	26,6	21,9	24,1
2014	19,7	21,9	18,8	19,3	24,1	26,4	22,8	23,5
% 2012/13	0,5	1,3	0,1	0,3	1,8	3,0	-0,7	1,6
% 2013/14	0,1	0,5	-0,5	0,0	-1,9	-0,9	4,2	-2,8

Iturria: INEren datuekin eginikoa. LKTI.

Bestalde, *guztizko kostuak, benetan lan egindako ordu bakoitzeko* direlakoek %1,9 egin zuten behera 2014an. Aurreko urtean, berriz, %1,8ko igoera izan zen. Estatuko batez bestekoak, aldiz, hamarren bateko igoera izan du. Sektoreen arabera, %4,2 egin du gora eraikuntzak EAEn; Zerbitzuetan, berriz, %2,8ko jaitsiera izan da, eta industrian %0,9koa.

Kopuru absolutuetan, EAEko batez besteko kostua, 2014an, 24,1 eurokoa da orduko. Estatuko batez bestekoa, berriz, 19,7 €-koa da. EBn, EUROSTATen datuekin, batez besteko datua EAEkoaren berdintsua da, 24,6€-koa (2013an baino %1,7 handiagoa), eta 29,2koa euro gunean (aurreko urtean baino %1 handiagoa).

I.4.2. GRAFIKOA. LAN-KOSTUEN HAZKUNDEA JARDUERA SEKTOREAREN ARABERA EAE-N. €/EURO



Iturria: INE. LKTI

I.4.3. GRAFIKOA. LAN-KOSTUEN BILAKAERA, €/LAN EGINDAKO ORDUA



Iturria: EUROSTAT eta INEren datuekin eginikoa.

b) *Produktibitatea*

Produktibitatea produkzioaren eta hura lortzeko erabilitako baliabideen arteko harremanean datzan kontzeptua da, eta garrantzitsua da ekonomia baten lehiakortasuna neurtzeko. Kontzeptu erraza da; aitzitik, kalkulua konplexua da, faktore erabakigarriak ugariak direlako (lan egiten duen biztanleriaren kualifikazioa, kapital ondasunen zuzkidura, baliabide hauen erabilera eraginkorra eta hura erakundekoak, legezkoak, eta abarrekoak diren beste faktore batzuekin konbinatuta erabiltzea). Hori dela eta, lanaren itxurazko produktibitatearen kontzeptuaren bitartez hurbilketa egiten da, hura ikuspegi ezberdinen bitartez neurtua.

I.4.4. GRAFIKOA. LANAREN PRODUKTIBITATEAREN BILAKAERA EAE-N. %



*Iturria: EUSTAT. HKE * Behin-behineko datuak*

Lehenik eta behin, laneko itxurazko ekoizpena, hain zuzen ere BPGd-aren bilakaeraren (2014. urtean % 1,3 hazi zen) eta lanaldi osoko lanpostuetan neurturiko lanpostuaren bilakaeraren arteko erlazio gisa kalkulatuta (EUSTATen Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoen arabera % 0,3 hazi zena azken urtean), % 0,9 hazi zen kopuru errealetan 2014. urtean, hau da, aurreko urtean baino puntu erdi gutxiago[6] (produkzioa enplegua baino gehiago hazi baita).

I.4.7. KOADROA. LANAREN ITXURAZKO PRODUKTIBITATE ERREALAREN BILAKAERA EAE-N (BOLUMEN KATEATUA)

	GUZTIRA	LEHEN SEK.	INDUSTRIA	ERAIKUNTZA	ZERBITZUAK
2009	0,0	-1,5	-2,9	0,5	0,9
2010	2,0	21,9	6,1	-1,0	0,5
2011	1,2	13,2	2,7	2,5	0,3
2012	1,3	10,1	0,2	6,0	1,2
2013*	1,4	0,0	1,9	10,7	0,6
2014*	0,9	5,3	2,9	-0,7	0,4

Iturria: EUSTATen Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoetatik eginikoa.
(*) Behin-behineko datuak.

Industriako produktibitatearen susperraldia izan da, 2014an, ia puntu portzentual bateko saldo positiboaren oinarria, %2,9 hazi baita, eta aurreko ekitaldian batez bestekoaren gainetik (%1,9) hazita zegoen. Zerbitzuen produktibitateak, berriz, igoera txikiagoa du oraindik ere (%+0,4), eta eraikuntzarenak %0,7 egin du behera, 2013an igoera handia izan ondoren (%+10,7), behin-behineko datuekin betiere.

I.4.5. GRAFIKOA. LANAREN PRODUKTIBITATEAREN ALDARAKETA. EAE-ESTATUA-EURO GUNEA



Iturria: EUSTAT, EUROSTAT eta EBZaren datuekin eginikoa.

EAEko produktibitate errealaren %0,9ko hazkunde hori euro gunean izandakoa baino handiagoa da, Europako Banku Zentralaren datuen arabera (%+0,3, 2013ko ratio bera); Espainiarako datua, berriz, %+0,1ekoa izan zen 2014an eta %+1,4 2013an.

6 Benetako produktibitatea bolumen kateatuko indizeetan, EUSTATen datuetatik abiatuz kalkulatuta.

EAEk testuinguru europarrean duen kokaleku lehiakorra alderatzeko aintzat hartu dezakegun beste produktibitate adierazle bat laneko produktibitatea da, BPGd-aren (erosketa ahalmenaren parekotasuna gorabehera) eta enpleguaren arteko erlazio gisa kalkulatuta. Informazio erabilgarritasuna aintzat hartuta, alderaketak egiteko erraztasuna ageri du abantaila gisa, nahiz eta kasu honetan azterketa maila gorabehera egiten den eta ez bilakaera gorabehera.

Adierazle hori aintzat hartuta, ikus daiteke EAE EBk 2012. urtean zuen batez bestekoaren gainetik dagoela %28,5ean (2011rekin alderatuta %1,3), Belgikaren mailaren parean (128,4koa 100eko oinarriaren gainean), eta Luxenburgok (%162,4ko balioa dauka) eta Irlandak (%141,7) bakarrik gainditzen dute Batasunean. Postu hori estatu espainiarrekoa baino askoz ere altuagoa da. Azken hori EBko batez bestekoaren %9,6 gainetik dago, Holanda eta Finlandia bezalako herrien antzeko mailetan.

Era berean, adierazle horrek erakusten du EAEren posizio erlatiboak EBren barruan hobera egin duela aurreko urteen aldean (1995-2003 denboraldiko batez bestekoari erreparatuz gero, produktibitate erlatiboa EBren batez bestekoaren %125,7 zen), azken urtean puntu erdi jaitsi den arren.

Gainera, EAEko produktibitatearen adierazle hori, 2012an, azken hamabi urteetako laugarren altuena da, eta 2011ren gaineko bere hazkundea ez dator bat pisuko ekonomietako jaitsierarekin EBn, Alemanian, Erresuma Batuan, Frantzian eta Italian adibidez.

I.4.8. KOADROA. LANEKO PRODUKTIBITATEA LANGILE, HERRIALDE ETA URTE BAKOITZEKO (27-EB = 100). (EROSTEKO AHALMENAREN PAREAN)

	2010	2011	2012
27 EB	100,0	100,0	100,0
28 EB	99,8	99,8	99,9
ALEMANIA	106,6	108,1	107,0
AUSTRIA	114,9	115,4	114,9
BELGIKA	129,6	128,4	128,4
BULGARIA	40,8	42,9	44,5
ZIPRE	90,8	89,8	92,5
KROAZIA	75,0	77,1	80,3
DANIMARKA	112,7	111,4	111,9
ESLOVAKIA	82,2	81,5	82,0
ESLOVENIA	79,4	81,0	80,8
ESPAINIA	106,5	106,0	109,6
ESTONIA	68,8	69,7	69,9
FINLANDIA	109,2	109,6	109,0
FRANTZIA	116,5	116,6	116,1
GREZIA	92,8	89,7	91,7
HERBEHEREAK	110,5	109,8	108,3
HUNGARIA	71,6	72,5	71,2
IRLANDA	137,6	141,0	141,7
ITALIA	110,4	110,2	109,3
LETONIA	60,7	63,7	66,2
LITUANIA	68,1	72,2	74,0
LUXENBURGO	163,9	165,2	162,4
MALTA	97,5	94,5	92,6
POLONIA	70,0	71,9	73,6
PORTUGAL	76,5	74,4	76,0
ERRESUMA BATUA	102,3	100,1	99,2
TXEKIAR ER.	74,2	74,5	73,8
ERRUMANIA	49,7	50,4	51,0
SUEDIA	114,0	114,0	114,3
EAE	127,6	127,2	128,5

Iturria: EUROSTAT eta EUSTAT.
2014.7.28an berrikusitako zifrak.

c) *Unitateko lan-kostuak*

Behin produktibitatearen eta lan-kostuen bilakaera ikusita, EAEko ekonomiaren Unitateko Lan-kostuak aztertuko ditugu[7](ULK).

I.4.9. KOADROA. UNITATEKO LAN-KOSTUAK EAE-N: URTEKO ALDAKUNTZA

	LAN-KOSTUEN ALDAK.		PRODUKTIBITATE AREN ALDAK.		ULK ARRUNT. ALDAK.		ULK ERREALEN ALDAK.	
	2013	2014	2013	2014	2013	2014	2013	2014
GUZTIRA	1,7	-1,0	1,4	0,9	0,3	-1,9	-0,3	-2,0
INDUSTRIA	4,2	1,1	1,9	2,9	2,3	-1,8	2,3	-0,3
ERAIKUNTZA	0,8	3,4	10,7	-0,7	-9,9	4,1	-6,7	4,5
ZERBITZUAK	1,0	-1,9	0,6	0,4	0,4	-2,3	-0,1	-2,4

Iturria: EUSTATen eta INEren datuekin eginikoa.

2014rako behin-behineko datu horiek gure ekonomiaren ULK arrunten jaitsiera erakusten dute (%-1,9, 2013ko %+0,3aren aldean), eta behera egin du industrian (%-1,8) eta zerbitzuetan (%-2,3). Gora, berriz, eraikuntzan: %4,1.

ULK errealen bilakaerari dagokionez (BPGd-aren deflaktorearen bidez zenbatetsitako ondorioa deskontaturik), 2014an %2 egin zuen behera, behin-behineko datuekin, gehienbat zerbitzuen bilakaera negatiboagatik (%-2,4) eta neurri txikiagoan industrian (%-0,3), eraikuntzako kostuen bilakaera positiboa baita, %+4,5 2013aren aldean. EBn, ULK errealek %0,4 egin zuten behera 2013an (eskuragarri dugun azken datua), eta %0,3 euro guneko datua hartuta.

7 Unitateko Laneko Kostu (ULK) korrontea zera da: soldatapeko bakoitzaren laneko kostuaren eta okupatu bakoitzeko produktibitatearen arteko ratioa. ULK erreala zatidura berdin hori da, nahiz eta deflatorea aplikatzearen bitartez "prezioen eragina" ezabatuta. Epigrafe honetan aztertzen dena adierazle hauen urteko aldakuntza da, Estatuko eta Europako batez bestekoen aldea.

4.3. ERRENTAK

a) *Errenten banaketa faktoriala*

I.4.6. GRAFIKOA. FAKTOREEN ERRENTEN PORTZENTAJEEN BANAKETAREN BILAKAERA EAE-N



	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Soldatapekoen ordainsariak	48,2	47,7	47,5	49,1	51,1	49,2	49,0	48,1	47,5
Ustiapeneko soberakina	32,5	32,8	33,4	33,7	32,0	31,7	33,0	33,7	33,5
Kapital finkoko kontsumoa	8,2	8,3	8,1	8,1	8,2	9,8	9,4	9,5	10,0
Zerga garbiak	11,1	11,3	11,0	9,1	8,7	9,2	8,6	8,7	9,0

Iturria: EUSTATen datuekin eginikoa. Kontu Ekonomikoak.

Gure ekonomian sortutako balio erantsia banatu egiten da hasiera batean hura soldatapeko lanaren ordainsari gisa, soldatapekoa ez den lanaren eta kapitalaren Ustiapenaren soberakin oso gisa, urte osoan zeharreko produktibitate taldearen balio galeraren balioagatiko Kapital Finkoko Kontsumo gisa eta, azkenik, produkzioari eta inportazioari dagozkion zerga gisa Administrazio Publikoari dagozkionak sortzen lagundu duten faktore produktiboen artean. Bigarren maila batean, errenta hori banatu egiten da pertsona eta familia ezberdinen artean, faktore produktibo hauetako partaidetza eta eskuratutako errenta ezberdinak gorabehera.

I.4.10. KOADROA. ERRENTAREN BANAKETA EAEn, ESTATUAN ETA EUROGUNEAN. URTE BERRIA, 2010EKO OINARRIA.

	Milioi euro				% bertikala			% urteko aldakuntza		
	2010	2011	2012	2013p	2011	2012	2013	10/11	11/12	12/13
EAE										
1. Soldatapekoen ordainsariak	33.285	33.308	32.119	31.402	49,0	48,1	47,5	0,1	-3,6	-2,2
2. Ustiapenaren soberakin garbia	21.441	22.472	22.506	22.152	33,0	33,7	33,5	4,8	0,2	-1,6
3. Kapital finkoko kontsumoa	6.627	6.397	6.350	6.604	9,4	9,5	10,0	-3,5	-0,7	4,2
4. Diru-laguntzen zerga garbiak	6.241	5.864	5.801	5.922	8,6	8,7	9,0	-6,0	-1,1	2,1
BPG MERKATUKO PREZIOAK	67.596	68.042	66.776	66.081	100,0	100,0	100,0	0,7	-1,9	-1,0
ESTATUA										
1. Soldatapekoen ordainsariak	541.475	531.879	501.909	490.253	49,5	47,6	46,7	-1,8	-5,6	-2,3
2. + 3. Ustiapeneko soberakin garbia / Errenta misto gordina*	445.879	453.354	458.324	458.590	42,2	43,4	43,7	1,7	1,1	0,1
4. Diru-laguntzen zerga garbiak	93.559	89.914	94.925	100.338	8,4	9,0	9,6	-3,9	5,6	5,7
BPG MERKATUAK PREZIOAK	1.080.913	1.075.147	1.055.158	1.049.181	100,0	100,0	100,0	-0,5	-1,9	-0,6
EURO GUNEA										
1. Soldatapekoen ordainsariak	4.541.115	4.648.927	4.693.721	4.735.318	47,9	47,7	47,9	2,4	1,0	0,9
2. + 3. Ustiapeneko soberakin garbia / Errenta misto gordina*	3.916.498	4.028.166	3.988.715	4.013.388	41,3	41,3	40,7	2,9	-1,0	0,6
4. Diru-laguntzen zerga garbiak	1.021.790	1.070.943	1.107.606	1.123.674	10,8	11,0	11,3	4,8	3,4	1,5
BPG MERKATUAK PREZIOAK	9.479.403	9.748.036	9.790.042	9.872.380	100,0	100,0	100,0	2,8	0,4	0,8

Iturria: EUSTAT "Kontu Ekonomikoak", INE "Espainiako Lurralde Kontabilitatea" eta EUROSTAT.
**** Ustiapeneko Soberakin Gordina edo Errenta Misto Gordina hauexen batura da: soberakin garbia gehi kapital finkoko kontsumoa.***
EAEn, datu aldakorrak ematen ditu EUSTATek euro gunerako eta Estaturako, baina ez EUROSTATek ez INEk.

Produktuaren banaketa funtzionalari dagokionez, EUSTATen "*Kontu Ekonomikoek*" erakusten dutenez, prezio arruntetan BPGd-aren %1eko jaitsiera erreferentzia hartuta 2013an (behin-behineko datuak), zerga garbiek %2,1 egin dute gora, soldatapekoen errenta %2,2 jaitsi da, ustiapeneko soberakin garbiarena %1,6 eta kapital finkoaren kontsumoa, azkenik, %4,2 hazi da.

Bilakaera hori kusita, soldatapeko laneko errentak 2013an BPGd-aren %47,5 dira (%43,3 2012an eta %42,4 2011n). Ustiapeneko soberakin garbia, berriz, %33,5 da (BPGd-aren gaineko pisua 2 hamarren galdu ditu) eta kapital finkoaren kontsumoa %10, aurreko urtean baino 5 hamarren gehiago. Horrela, ustiapeneko soberakin gordina, magnitude bi horien batura, BPGd-aren %43,5 da. Produkziorako eta inportaziorako zergetan, ken ekoizpen-sektoreei emandako diru-laguntzak, 3 hamarren hazi da BPGd-ean duten proportzioa, hots, %9 dira.

Errenten bilakaera hori Estatukoarekin alderatuta ikusten dugunez (horren BPGd-ak %0,6 egin zuen behera 2013an), urte horretako soldaten errenten jaitsiera handiagoa izan zen, %2,3, EAEko bilakaeraren antzera (%-2,2). Bestalde, ustiapeneko soberakinaren eta errenta mistoaren batuerak, EAEn %0,3 behera egin bazuen ere, %0,3 egin zuen gora Espainian. Diru-laguntzen zerga garbiak direla eta, BPGd-aren gaineko proportzioa handiagoa da Estatuan (BPGd-aren %9,6, EAEko %9aren aldean), eta 2012arekiko bilakaera antzekoa da, baina neurri ezberdinean: EAEn %2,1 hazi ziren eta, Estatuan, berriz, horren bi halako baino gehiago, %5,7 hain zuzen.

Eurogunean, azterketaren xede diren faktoreek bilakaera diferentea jasan dute EAEren eta Estatuaren aldean eta, gainera, BPGd-aren aldakuntza nominala handiagoa da, %0,8 hazi baita (aurreko urtean +%0,4). Soldatapekoen ordainsaria %0,9 hazi da. Ustiapeneko soberakin gordina edo gehieneko errenta gordina, berriz, %0,6, eta zerga garbiek %1,5 egin dute gora.

b) Errenta biztanleko

Lehenik eta behin, INEk urtero egiten duen «Espainiako Lurralde Kontabilitateak» erakusten ditu autonomi erkidegoko eta probintzietako «Etxeen errentaren kontuak», kopuru agregatuetan nahiz per capitakoetan[8].

Halaber, EAEko familiak izan ziren biztanleko errenta gordin erabilgarri handiena eduki zutenak, 18.950 eurokoa, aurreko urtean baino %2,2 gutxiago, eta Estatuko batez bestekoa 14.414 eurokoa baino %31,5 gehiago. Dena dela, Estatuko batez bestekoak gora egin du (era berean, behera egin zuen 2012an, %3,1 kasu honetan). Gure erkidegoaren atzetik, Madril, Nafarroa eta Katalunia daude rankingean.

Bestalde, EUSTATek Foru Aldundien laguntzaz bi urterik behin egiten duen "*EAEko errenta pertsonalaren eta familiarraren estatistikak*" erakusten duenez, 2013an (informazioa dugun azken urtea), 19.286 eurokoa zen *batez besteko errenta pertsonala*, 2011n baino %2,2 gutxiago.

I.4.11. KOADROA. KAFAMILIEN ERRENTA BALIAGARRI GORDINA, PER CAPITA. EUROTAN. 2010EKO OINARRI BERRIA

	2010	2011	2012 (bb)		
			Balioa (€)	Espainiako indizea = 100	2011-12 aldakuntza tasa
ANDALUZIA	11.773	11.904	11.403	79,1	-4,2
ARAGOI	15.807	16.212	15.770	109,4	-2,7
ASTURIAS	14.829	15.198	14.737	102,2	-3,0
BALEARS (ILLES)	15.059	15.434	14.979	103,9	-2,9
KANARIAR U.	12.618	12.871	12.348	85,7	-4,1
KANTABRIA	14.351	14.556	13.954	96,8	-4,1
GAZTELA ETA LEON	14.415	14.632	14.434	100,1	-1,4
GAZTELA-MANTXA	12.307	12.345	11.949	82,9	-3,2
KATALUNIA	16.914	17.024	16.618	115,3	-2,4
VALENTZIAKO E.	13.114	13.359	12.846	89,1	-3,8
EXTREMADURA	11.136	11.149	10.805	75,0	-3,1
GALIZIA	13.263	13.480	13.180	91,4	-3,3
MADRIL	18.131	18.551	17.980	124,7	-2,2
MURTZIA	12.059	12.078	11.679	81,0	-3,1
NAFARROA	18.171	18.454	17.733	123,0	-3,3
EAE	**19.262**	**19.386**	**18.950**	**131,5**	**-2,2**
ERRIOXA	15.019	15.325	14.951	103,0	-3,1
CEUTA	13.064	12.986	12.065	83,7	-7,1
MELILLA	11.981	11.896	10.933	75,8	-8,1
GUZTIRA	**14.669**	**14.878**	**14.414**	**100,0**	**-3,1**

Bb: behinekoa
Iturria: INE. Espainiako Lurralde Kontabilitatea. 2008ko oinarria.

[8] *2010eko oinarri berriarekin egin dira eskuragarri ditugun azken datuak (2012koak) eta, beraz, berrikusi eta egokitu egin da 2010eko eta 2011ko informazioa. Atal hau egin denean, oraindik ez dago eskuragarri informazioa probintzia mailan.*

Lurralde Historikoetan, Gipuzkoak du errenta pertsonal handiena, 19.734€ (2011n baino %3,2 gutxiago), eta ondoren Arabak, 19.359€ (%-3,9) eta Bizkaiak (18.994€, 2011n baino %1 gutxiago). Bizkaia da, beraz, jokabiderik onera erakusten duena (errenta pertsonalaren jaitsierarik txikiena), baina kontuan hartu behar da 2009-2011 epealdian Araban eta Gipuzkoan hazi egin zirela haien errentak. Bizkaian, berriz, jaisten ari ziren.

Errenten jatorriari dagokionez, %61,4 (%62,7 2011n) lanetik dator eta %8,6 higigarrien eta higiezinen kapitaletik. Bestalde, errenten %4,2k jarduera ekonomikoren bat du jatorri, eta %25,8k, berriz, transferentziak.

Bestalde, errenta baliagarria, guztizko errentatik PFEZaren ordainketak eta langilearen kargurako gizarte kotizazioak deskontaturik lortzen dena, 16.216€ izan zen 2013an, 2011n baino %3 gutxiago, hots, familien guztizko errentaren %84,1.

I.4.7. GRAFIKOA. BATEZ BESTEKO ERRENTAREN BILAKAERA EAE-N, ERRENTA MOTA BEREIZITA. EUROAK



Iturria: EUSTAT. Errenta petsonalaren eta familiarraren estatistika.

5. SEKTORE PUBLIKOA

I.5.1. GRAFIKOA. EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAREN MAGINTUDE NAGUSIEN BILAKAERA, BPGren ALDEAN



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetatik aurrera lantzea.

Azpimarratu behar dugu diru-sarrera publikoek gora egin zutela 2014. urtean eta % 2,1 igo zirela, funtsean, zeharkako zergen bilketa hazi zelako, hain zuen ere, % 9,4. Zuzeneko zergen bilketak, berriz, lehengoan dirau. Zergei dagozkien bi partida horiek Euskal Sektore Publikoaren % 82 osatzen dute. Beste alde batetik, finantza-pasiboen aldakuntza % 7,2 jaitsi zen, zorpetzea ere jaitsi zelako.

Horren ondorioz, erkidegoko BPGren gaineko Euskal Sektore Publikoaren diru-sarreren guztizkoa —2013. urtean, % 22,5ekoa zen— bi hamarreko igo zen, % 22,7raino (behin-behineko datuak).

Bestetik, Euskal Sektore Publikoaren guztizko gastua % 4,1 hazi zen, aurreko urteko -% 2,6ren aldean. Hori dela eta, kopuru hori 6 hamarren igo zen EAEko BPGren gainean, hain zuzen ere, % 21,6tik % 22,2ra. Gastuaren bilakaera positiboa izan da, bai Eusko Jaurlaritzan (+% 4,9), bai foru aldundietan (+% 4,5), eta agregatuaren aldakuntza ere positiboa izan zen, hein txikiagoan, ordea (+% 4,1) partidetako batzuk herri-erakundeen artean berdintzen direlako (esate baterako, transferentzien zati bat).

Sarreren eta gastuen bilakaeraren ondorioz, aurrezki publikoa % 27,6 hazi zen (eta BPGren % 1,2 izateraino iritsi zen); aldi berean, defizit publikoa (finantzaketaren beharrizana) % 34,1 jaitsi zen, 198,4 milioi euroraino. Azken kopuru hori BPGren gaineko % 0,3 izan zen.

Hala eta guztiz ere, ratioa BPGren % 1eraino areagotu zen 2014. urtean (% 1,16 2013. urtean), Ogasun eta Herri Administrazioen Ministerioaren eskualdeko administrazioen orekatze-plan ekonomiko eta finantzarioetatik eratortzen den defizitaren kalkulua aintzat hartzen badugu (EAEko administrazio orokorraren kopuruez gain, bere menpeko erakunde autonomiadun LANBIDErenak eta Osakidetzarenak ere aintzat hartzen dira). Horixe dugu Europako erkidegoko erakundeetara helarazten zaien komunikazioa, EBk ezarritako helburuak betetzen dituena.

Beste alde batetik, EAEko sektore publiko osoaren guztizko zorpetzea (toki-erakundeak kanpoan utzita) % 37,8 beheratu zen, bi urtetan goranzko joera izan ondoren; hala, urtearen amaieran, zor bizia 10.534,7 milioi euroko izan zen (+% 11,3).

5.1. SARRERAK

Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailaren "*Aurrekontu gauzatzearen estatistikak*" izeneko txostenen jasotako datuen arabera, Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru aldundiek 2014ko ekitaldian likidatutako sarreren guztizko kopurua (15.173,9 milioi euro) % 2,1 hazi zen aurreko ekitaldiko kopuruaren aldean (2013. urtean, berriz, % 1,7 jaitsi zen 2012. urteko kopuruaren aldean), batik bat, zeharkako zergen bilketa gehitu zelako, hain zuzen ere, % 9,4. Zuzeneko zergen bilketak, berriz, lehengoan iraun zuen. Zergei lotutako bi partida horiek Euskal Sektore Publikoaren diru-sarreren % 82 osatu zuten. Beste alde batetik, finantza-pasiboen aldakuntza % 7,2 jaitsi zen, gehienbat, zorpetzea jaitsi zelako, bai Eusko Jaurlaritzarena (-% 3,1) bai foru-aldundiena (-% 21,7).

Diru-sarreren % 2,1eko hazkundeak bilakaera berdintsua izan zuen administrazioen artean; hala, Eusko Jaurlaritzari dagokionez, igoera % 3koa izan zen (batez ere, transferentzia arrunten igoeran funtsatuta). Foru-aldundiei gagozkiela, igoera % 3,6koa izan zen (arestian esan moduan, zeharkako zergen bilketa handitu zelako eta, bestetik, tasa eta transferentzia arrunten ziozko sarrerak ere zerbait igo zirelako).

I.5.1. KOADROA. EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAREN SARREREN LIKIDAZIOA (MILAKA EUROTAN)

	2013			2014			2013-14ko ald. (%)		
	EJ	Foru Ald.	EusSP	EJ	Foru Ald.	EusSP	EJ	Foru Ald.	EusSP
Zuzeneko zergak	-	5.907.447	5.907.447	-	5.905.830	5.905.830	-	0,0	0,0
Zeharkako zergak	6.079	5.948.101	5.954.181	5.700	6.505.459	6.511.159	-6,2	9,4	9,4
Tasak eta beste sarrera batzuk	195.659	334.988	530.647	213.372	298.132	511.504	9,1	-11,0	-3,6
Transferentzia arrunta	7.923.014	391.198	402.919	8.364.078	402.572	397.914	5,6	2,9	-1,2
Ondare-sarrerak	48.005	9.565	57.570	48.139	10.104	58.243	0,3	5,6	1,2
TRANSF. ARRUNTAK GUZTIRA	8.172.756	12.591.300	12.852.763	8.631.288	13.122.097	13.384.650	5,6	4,2	4,1
Inbertsio errealen besterentz.	16	2.029	2.045	1.966	1.391	3.357	12.228,3	-31,4	64,2
Kapital-transferentziak	397.713	37.447	729.471	298.786	46.717	345.008	-24,9	24,8	-19,7
KAPITAL ERAGIKETAK GUZT.	397.729	39.475	431.516	300.752	48.108	348.364	-24,4	21,9	-19,3
Finantza-aktiboen aldakuntza	63.531	2.116	65.647	36.122	1.913	38.036	-43,1	-9,6	-42,1
Finantza-aktiboen ald. (Zorra)	1.175.253	336.340	1.511.593	1.139.367	263.500	1.402.867	-3,1	-21,7	-7,2
FINTZAT SARRERAK GUZTIRA	1.238.784	338.456	1.577.240	1.175.489	265.413	1.440.902	-5,1	-21,6	-8,6
SARRERAK GUZTIRA	9.809.269	12.969.232	14.861.519	10.107.529	13.435.618	15.173.917	3,0	3,6	2,1
SARRERAK / BPG (%)	14,8	19,6	22,5	15,1	20,1	22,7			

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Aurrekontu Gauzatzearen Estatistika.

Laburpen gisa, esan daiteke erkidegoko BPGren gaineko Euskal Sektore Publikoaren sarreren guztizkoa, behin-behineko datuen arabera, 2 hamarren igo zela eta % 22,7raino heldu zela (2013. urtean, % 22,5ekoa izan zen).

Zerga itunduen ziozko bilketa 2014ko ekitaldian:

I.5.2. KOADROA. FORU ALDUNDIAK: SARREREN LIKIDAZIOA ITUNDUTAKO ZUZENEKO ETA ZEHARKAKO ZERGEN ZIOZ (MILAKA EUROTAN)

	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		FORU ALDUNDIAK GUZTIRA	
	ZUZEN.	ZEHARK.	ZUZEN.	ZEHARK.	ZUZEN.	ZEHARK.	ZUZEN.	ZEHARK.
2010	855.962	1.048.586	2.823.317	3.213.485	1.579.155	2.069.443	5.258.435	6.331.514
2011	867.029	952.926	3.103.477	2.882.984	1.673.654	1.890.671	5.644.160	5.726.581
2012	843.440	927.322	3.121.454	2.825.398	1.733.893	1.847.009	5.698.787	5.599.729
2013	840.168	945.347	3.191.198	2.965.556	1.761.697	1.934.547	5.793.064	5.845.450
2014	877.909	1.011.000	3.183.988	3.237.331	1.802.454	2.103.112	5.864.350	6.351.443
12/13 (%)	-0,4	1,9	2,2	5,0	1,6	4,7	1,7	4,4
13/14 (%)	4,5	6,9	-0,2	9,2	2,3	8,7	1,2	8,7

Iturria: EGABek eginda, EUSKO JAURLARITZAKO Ogasun eta Finantza Sailaren datuak erabilita.

Zerga Itunduen ziozko bilketa, hau da, zuzeneko eta zeharkako zergen ziozko bilketaren gehiena, guztizko zerga-bilketaren % 90 baino gehiago, behin-behineko datuen arabera, % 4,8ko igoera izan zuen 2014. urtean. Aurreko ekitaldian, berriz, % 3ko hazkundea izan zuen.

I.5.2. GRAFIKOA. EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAREN SARRERAK: ZERGA NAGUSIEN ZIOZKO BILKETAREN BIULAKAERA (MILAKA EUROTAN)



Iturria: EGABek eginda, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailaren datuak erabilita.

Oro har, aurreko ekitaldian gertatu bezala, esan daiteke zeharkako zergen ziozko bilketak bilakaera positibo handiagoa izan zuela (+% 8,7) zuzeneko zergen ziozkoak baino (+% 1,2). Lurraldeen arabera, egoera nahikoa desberdina da; izan ere, Bizkaian, zuzeneko zergen ziozko bilketak hazkunde negatiboa izan zuen (-% 0,2), baina zeharkako zergen ziozkoak hazkunde oso positiboa izan zuen, batez bestekotik gaindikoa (% 9,2). Gipuzkoak batez bestekoaren inguruko hazkundea izan zuen eta, azkenik, Arabak zeharkako zergen ziozko bilketarik txikiena izan zuen (EAEko batez bestekotik zerbait beherago), baina zuzeneko zergen zizko bilketarik handiena (ia-ia EAEko batez bestekoa halako 4).

2014ko ekitaldian, *zuzeneko zergen bilketa* aurreko urtekoa baino % 1,2 handiagoa izan zen, PFEZ zergari esker (+% 2,9), Sozietateen gaineko Zerga, bigarren garrantzizkoena, % 4,7 jaitsi baitzen. Bilketari gagozkiola, Ondarearen gaineko zerga % 10,4 hazi zen; Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergak ere % 6,6ko hazkundea izan zuen.

Aurreko guztiaren emaitzaz, PFEZ zerga EAEko guztizko bilketaren % 74,9 izan zen eta Sozietateen gaineko zerga, berriz, % 19,8koa. Gainerako zuzeneko zerga guztiak bilketaren % 5,3 izan ziren.

I.5.3. KOADRAO. EAEko FORU ALDUNDIEN ITUNDUTAKO ZERGEN ZIOZKO DIRU-BILKETAREN BILAKAERA

	EAE 2013	2014				% aldaketa 2012-13	% aldak. 2013-14
		DFA	DFB	DFG	EAE		
ZUZENEKO ZERGAK	5.793.064	877.909	3.183.988	1.802.454	5.864.350	1,7	1,2
PFEZ	4.264.991	681.098	2.264.475	1.444.632	4.390.205	-1,5	2,9
SOZIETATEEN GAINEKO ZERGA	1.216.937	151.277	770.760	237.186	1.159.223	7,5	-4,7
EZ EGOILIARREN PFEZ	43.135	3.467	-1.433	7.559	9.593	31,6	-77,8
ONDORENGOTZAK ETA DOHAINTZAK	105.417	18.032	60.213	34.113	112.358	17,7	6,6
ONDAREAREN GAINEKO ZERGA	138.076	18.026	69.420	65.010	152.456	19,6	10,4
Gord. gaineko zergak Kred. Erak.	-	1.493	6.180	4.626	12.299	-	-
Energia elek. Ekoizp. gaineko zerga	24.508	4.515	14.374	9.328	28.217	-	15,1
ZEHARKAKO ZERGAK	5.845.450	1.011.000	3.237.331	2.103.112	6.351.443	4,4	8,7
BEZ	4.278.687	766.667	2.440.877	1.584.127	4.791.671	6,0	12,0
OEZ	71.889	10.293	47.881	32.059	90.234	-10,0	25,5
EJDZ	38.466	5.612	17.695	13.292	36.600	-6,9	-4,9
ZENB. GARRAIOB. GAIN. Z. BEREZIA	13.645	2.595	7.366	4.952	14.913	-21,4	9,3
FABRIKAZIO ZERGA BEREZIAK GUZT.	1.359.475	214.243	682.095	442.679	1.339.016	4,5	-1,5
ASEGURU SARIEN ZERGA	71.019	9.801	37.622	22.792	70.216	-3,8	-1,1
TASAK ETA BESTE SARRERA BATZUK	113.602	11.544	62.331	30.095	103.970	3,5	-8,5
JOKO TASAK	48.735	6.068	27.502	13.085	46.655	-0,7	-4,3
ERREKARG., BERAND. ETA ZEHAP.	64.868	5.476	34.829	17.011	57.315	7,0	-11,6
ITUNDUTAKO ZERGAK GUZTIRA	11.752.116	1.900.452	6.483.650	3.935.661	12.319.763	3,0	4,8

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Ogasun eta Finantza Saila.

Zeharkako zergen ziozko bilketari dagokionez, esan beharra dago bilketa horrek eutsi egin ziola 2014. urtean 2013.ean hasitako susperraldiari (ekitaldi horietan, % 8,7 eta % 4,4 hazi zen, hurrenez hurren), 2012ko ekitaldiko beherakadaren aldean (urte horretan, % 3,6 jaitsi zen, orduko egoera ekonomikoaren ondorioz). Gure erakundeek kudeatutako BEZ zergaren kopurua % 13,2 igo zen; Administrazio Orokorrak gauzatzen duen BEZ zergaren doiketa, berriz, % 8,5 igo zen. Hori dela eta, zerga horren ziozko guztizko bilketa % 6 hazi zen 2013ko ekitaldian, eta 2014koan,

tasa bikoiztu zuen % 12koa izateraino. Horren guztiaren emaitzaz, zerga horren kopurua zeharkako zergen ziozko guztizko bilketaren % 75,4 izan zen aurreko urtean.

I.5.4. KOADROA. EAEko FORU ALDUNDIEN ITUNDUTAKO ZERGEN ZIOZKO BILKETAREN BILAKAERAREN AZTERKETA

	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
ZENBAT. (MILAKA EUROTAN)								
Zuzeneko zergak	6.706.737	6.601.180	5.392.758	5.258.435	5.644.160	5.698.787	5.793.064	5.864.350
Zeharkako zergak	6.946.919	6.119.330	5.298.405	6.331.514	5.726.581	5.599.729	5.845.450	6.351.443
Tasak eta beste batzuk	118.466	113.689	100.914	110.058	110.172	109.708	113.602	103.970
BILKETA GUZTIRA	13.772.123	12.834.199	10.792.077	11.700.007	11.480.913	11.408.224	11.752.116	12.319.763
URTEKO ALDAKUNTZA (%)								
Zuzeneko zergak	17,2	-1,6	-18,3	-2,5	7,3	1,0	1,7	1,2
Zeharkako zergak	3,3	-11,6	-13,4	19,5	-9,6	-2,2	4,4	8,7
Tasak eta beste batzuk	14,3	-4,0	-11,2	9,1	0,1	-0,4	3,5	-8,5
BILKETA GUZTIRA	9,7	-6,8	-15,9	8,4	-1,9	-0,6	3,0	4,8
INDIZE-ZENBAKIAK (2007=100)								
Zuzeneko zergak	100,0	98,4	80,4	78,4	84,2	85,0	86,4	87,4
Zeharkako zergak	100,0	88,1	76,3	91,1	82,4	80,6	84,1	91,4
Tasak eta beste batzuk	100,0	96,0	85,2	92,9	93,0	92,6	95,9	87,8
BILKETA GUZTIRA	100,0	93,2	78,4	85,0	83,4	82,8	85,3	89,5

Iturria: EGABek eginda, EUSKO JAURLARITZAKO Ogasun eta Finantza Sailaren datuak erabilita.

Azken batean, hizpide darabilgun urtean batutako guztizkoa 12.319,7 milioi eurokoa izan zen, hau da, EAEko BPG arruntaren % 18,4koa 2014ko ekitaldian, behin-behineko datuen arabera (2013ko ekitaldian, % 17,8koa). Guztira batutako kopurutik, % 35,6 PFEZ zergarena izan zen, % 38,9 BEZ zergarena (gure erakundeek kudeatutakoa eta barruko eragiketei nahiz aduanen ziozko doiketari dagokiena), % 9,4 Sozietateen gaineko zergarena izan zen eta gainerako % 16,1 hainbat zerga bereziri lotutakoa.

I.5.5. KOADROA. IZERGA GASTUAK ITUNDUTAKO ZERGEN ZIOZ (MILAKA EUROTAN)

	2010	2011	2012				2011/12 ALD. (%)
			ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE	
PFEZ	2.365.004	2.146.066	320.982	1.095.640	676.487	2.093.109	-2,5
Ondarearen g. Zerga	50.620	-	-	-	-	-	-
Sozietateen g. Zerga	524.932	426.451	68.287	216.276	150.254	434.817	2,0
ZUZEN. ZERGAK GUZT.	2.940.556	2.572.517	389.269	1.311.916	826.741	2.527.926	-1,7
IVA	2.499.025	3.372.248	519.394	1.578.507	1.029.094	3.126.995	-7,3
ITP-AJD	88.368	102.584	45.410	58.973	26.588	130.917	27,6
Garraio Zerga Berez.	5.941	6.163	1.093	2.839	1.762	5.694	-7,6
Fabrikazio Zerga Berez.	250.905	229.025	32.595	99.061	64.583	196.239	-14,3
Hidrokarb. Salm. Zerg.	3.451	3.644	328	3.152	650	4.130	13,3
Aseguru Sarien Zergak	19.212	19.934	3.249	9.875	6.438	19.562	-1,9
ZEHAR. ZERGAK GUZT.	2.866.902	3.733.598	602.069	1.752.407	1.129.115	3.483.591	-6,7
GUZTIRA	5.807.458	6.306.115	991.338	3.064.323	1.955.856	6.011.517	-4,7

Iturria: EGABek eginda, EUSKADIKO ZERGA KOORDINAZIORAKO ORGANOAREN datuak erabilita.

Sarreretan murrizketa izan zuten partidei gagozkiela, 2012ko ekitaldian —ekitaldi hori baita informazio zehatza daukagun azkenekoa—aurrekontuetan jasotako *zerga-gastua*[1] (hau da, bere eskumeneko zergei eta foru-aldundien ekarpenetan, hau da, zerga-salbuespen, gastu kengarri, murrizketa, kenkari, hobari, geroratutako zerga eta abarretan, kontabilizatzen diren zergei eragiten dieten zerga-hobarien kopurua), 6.011,5 milioi eurokoa izan zen, hots, aurreko urtean baino % 4,7 gutxiago. Kopuru hori sarrera teorikoen guztizkoaren % 33,7 izan zen (aurrekontuan jasotako sarrerak eta zerga-gastuak). Zerga-gastuen % 42,4 (2.674 milioi euro) euskal autonomia erkidegoko araudiaren menpeko zerga itunduei dagokie.

1 Gastu fiskalaren kontzeptuak ez du ondo argitutako eta denek onartutako definiziorik ogasunaren doktrinaren barruan. Hala ere, gastu fiskalen aurrekontua honela defini dezakegu: zerga sarreren murriztapenaren aurreikuspenaren zenbatekoa, politika ekonomiko eta sozialeko zenbait helburu lortzeko asmoz onura fiskalak aplikatzearen ondorioz. ELGAren definizioaren arabera, zergaren egitura "arruntaren" edozein desbiderapen dira gastu fiskalak. Arruntenak eta erabilienak zerga oinarrian egindako murriztapenak eta kuotako kenkariak dira.

5.2. GASTUAK

Euskal Sektore Publikoaren guztizko gastua, 14.891,9 milioi eurokoa (tokiko erakundeen gastua aintzat hartu barik) % 4,1 igo zen 2014ko ekitaldian; aurreko urtean, berriz, % 2,6 jaitsi zen. Horiek horrela, kopuru horren EAEko BPGren gaineko ehunekoa 6 hamarren hazi da, % 21,6tik % 22,2ra.

Gastuak bilakaera positiboa izan zuen bai Eusko Jaurlaritzan (+% 4,9) bai eta hiru foru aldundietan ere (+% 4,5). Hala ere, agregatuaren aldakuntzak bilakaera positibo txikiagoa izan zuen (+% 4,1), diru-partidetako batzuk erakundeen artean berdintzen baitira (transferentzien zati bat, esate baterako). Labur-zurrean esanda, gure erkidegoaren BPGren gaineko gastu publikoaren ratioa % 19,1etik % 19,7ra hazi zen foru-aldundientzat eta % 14,5etik % 15era Eusko Jaurlaritzarentzat, BPGk EAEn 2014ko ekitaldian izan zuen bilakaeraren behin-behineko datuak kontuan izanik.

I.5.6. KOADROA. EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAREN GASTUEN LIKIDAZIOA (MILAKA EUROTAN)

	2013			2014			% Var. 2013-14		
	GV	DD.FF.	SPV	GV	DD.FF.	SPV	GV	DD.FF	SPV
Langileria gastuak	1.867.852	336.583	2.204.434	1.884.605	349.360	2.233.966	0,9	3,8	1,3
Jardunbide gastuak	3.201.299	499.103	3.700.403	3.285.698	513.901	3.799.599	2,6	3,0	2,7
Finantza gastuak (interesak)	221.984	72.357	294.341	251.774	74.323	326.097	13,4	2,7	10,8
Transferentzia arruntak	3.002.979	10.952.675	6.044.361	3.133.803	11.482.750	6.247.818	4,4	4,8	3,4
ERAGIKETA ARRUNTAK GUZTIRA	8.294.114	11.860.718	12.243.539	8.555.880	12.420.335	12.607.480	3,2	4,7	3,0
Inbertsio errealak	452.646	230.696	683.342	332.040	188.543	520.583	-26,6	-18,3	-23,8
Kapital transferentziak	457.690	206.314	658.315	600.793	203.038	803.335	31,3	-1,6	22,0
KAPITAL ERGAIKETAK GUZTIRA	910.335	437.010	1.341.657	932.833	391.581	1.323.918	2,5	-10,4	-1,3
Finantza aktiboen aldakuntza	175.087	98.148	273.235	85.020	136.393	221.413	-51,4	39,0	-19,0
Finantza pas. ald. (Amort. zorra.)	199.928	244.057	443.985	479.805	259.299	739.104	140,0	6,2	66,5
FINANTZA GASTUAK GUZTIRA	375.016	342.205	717.221	564.825	395.692	960.516	50,6	15,6	33,9
GUZTIZKO GASTUA	9.579.465	12.639.933	14.302.416	10.053.538	13.207.607	14.891.914	4,9	4,5	4,1
GASTU LIKIDATUA / BPG (%)	14,5	19,1	21,6	15,0	19,7	22,2			

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Aurrekontu Gauzatzearen Estatistika.

Euskal Sektore Publikoari (tokiko erakundeak izan ezik) lotutako gastu-ataletako kapituluetan izan ziren aldakuntza esanguratsuenek badute alderik aurreko urteko gastuekin erkatuz gero. Hasteko eta bat, langileriaren gastuak hazi ziren, baina 2013ko urtean baino gutxiago (2014an, % 1,3; 2013an, berriz, % 4,3). Beste alde batetik, jardunbide-gastuek (ondasun eta zerbitzuen erosketei lotutakoak) emaitza positiboa izan zuten (% 2,7%), 2012an eta 2013an izandako murrizketen ondoren.

Era berean, aurreko urteetan gertatu bezala, zorpetzeari atxikitako gastuak igo egin ziren, finantza-gastuak (interesak) % 10,8 igo baitziren; bestalde, finantza-pasiboen aldakuntza (zorraren amortizazioa) hein handiagoan hazi zen, % 66,5, hain zuzen ere. Aipatutako bi partidetan, Eusko Jaurlaritzak izan zuen hazkunderik handiena, foru-aldundiek ere joera positiboa izan zuten.

Eusko Jaurlaritzaren gastuari dagokionez, 2014ko ekitaldiko behin-behineko likidazioari buruzko datuetan oinarrituta, esan dezagun gastuak % 9,6ko hazkundea izan zuela 2014an, 2013ko ekitaldiko gastuaren aldean. Aurreko urtean, % 9,1eko jaitsiera izan zuen. Hala eta guztiz ere, 2009. urtearen erdialdean izan zen legealdi-aldaketaren ondoriozko sailen berrantolaketak zaildu egiten du atal batzuetako gastuen zenbateko handien bilakaera aztertzea azken urtetik aurrera.

Gastu bolumena aintzat hartuta, bi sail nagusiek Hezkuntza, Hizkuntza Politika Kultura Saila (gastu osoaren % 27,1) eta Osasun Saila (% 32,8) izaten jarraitzen dute. Lehenengoa % 5,1 hazi zen eta bigarrena, aldiz, % 2,8 hazi zen, 2013ko ekitaldiko tasaren aldean. 2014ko gastu osoa 10.215,5 milioi eurokoa izan zen, eta kopuru hori gure Erkidegoko BPGren gaineko % 15,5ekoa izan zen urte horretan, behin-behineko datuen arabera.

I.5.7. KOADROA. EUSKO JAURLARITZAREN GASTUA, SAILAREN ARABERA (MILAKA EUROTAN)

	Milaka euro				2014 Ban. (%)	Ald. (%)		
	2011	2012	2013	2014		11/12	12/13	13/14
00 Eusko Legebiltzarra	30.430	26.612	27.538	27.565	0,3	-12,5	3,5	0,1
01 Lehendakaritza	82.299	99.312	95.688	102.692	1,0	20,7	-3,6	7,3
02 Administrazio Publikoa eta Justizia	288.000	264.316	212.953	220.468	2,2	-8,2	-19,4	3,5
03 Ekonomiaren Sust. eta Lehiakortasuna			396.312	418.828	4,1	-	-	5,7
04 Enplegua eta Gizarte Politikak	965.996	1.088.826	796.024	953.609	9,3	12,7	-26,9	19,8
05 Ogasuna eta Finantzak	78.027	66.851	93.698	96.899	3,4	-14,3	40,2	0,9
06 Hezkuntza, Hizkuntza Pol. Eta Kultura	2.715.639	2.625.112	2.630.443	2.765.248	27,1	-3,3	0,2	5,1
07 Segurtasuna	658.496	606.672	582.849	608.868	6,0	-7,9	-3,9	4,5
08 Osasuna	3.415.770	3.365.367	3.263.193	3.354.198	32,8	-1,5	-3,0	2,8
09 Ingurumena eta Lurralde Plangintza	279.479	251.555	594.157	653.540	6,4	-10,0	136,2	10,0
Ind., Berrikuntza, Merkat. eta Turismoa	306.425	327.579				6,9		
Kultura	280.470	262.493				-6,4		
Etxebizitza, Herri Lanak eta Garraioa	599.329	805.134				34,3		
Plan Bereziak	-	-				-		
51 Lan Harremanen Kontseilua	2.459	2.318	2.165	2.325	0,0	-5,7	-6,6	7,4
52 Ekonomia eta Gizarte Batzordea	1.729	1.637	1.310	1.310	0,0	-5,3	-20,0	0,0
53 Kooperatiben Kontseilu Nagusia	937	889	889	889	0,0	-5,1	0,0	0,0
54 Herri Kontuen Epaitegia	7.490	7.243	7.013	7.127	0,1	-3,3	-3,2	1,6
55 Datuak Babesteko Euskal Agentzia	1.579	1.497	1.336	1.336	0,0	-5,2	-10,8	0,0
90 Zor Publikoa	312.935	364.806	442.066	815.059	8,0	16,6	21,2	84,4
95 Baliabideak eta erakunde-konprom.	145.706	75.217	74.922	78.849	0,8	-48,4	-0,4	5,2
99 Hainbat sail			94.102	106.698	1,0	-	-	13,4
GUZTIRA	10.173.197	10.246.438	9.316.657	10.215.506	100,0	0,7	-9,1	9,6
BPGren % MP	15,4	15,7	14,1	15,3				

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EAEko Aurrekontu Orokorren Gauzapena.

5.3. AURREKONTUKO SALDOA

2014. urtean, Euskal Sektore Publikoaren sarrera arruntak (Eusko Jaurlaritza eta foru-aldundiak) % 4,1 igo ziren; izaera bereko gastuak, aldiz, ez ziren horrenbeste igo, % 3 hain zuzen ere, eta horren ondorioz, aurrezki gordinak % 27,6ko hazkundea izan zuen, 777 milioi eurotik gorako kopurua gaindituta. Zenbateko hori gure erkidegoko Barne Produktu Gordinaren % 1,2koa izan zen (behin-behineko datuak).

I.5.3. GRAFIKOA. AURREZKIAREN ETA SUPERABIT/DEFIZIT PUBLIKOEN BILAKAERA (AHALMENA/FINANTZATZEKO BEHARRA) EAEN. BPGREN GAINEKO %



	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
AURREZKIA	4,5	3,4	2,3	2,7	2,7	3,8	4,6	4,7	2,1	-0,5	0,5	0,9	1,6	0,9	1,2
SUPERABITA/DEFIZITA	1,7	0,4	0,3	-0,3	0,2	1,4	2,0	2,1	-0,8	-4,0	-2,7	-1,3	-0,7	-0,5	-0,3

Iturria: EGABek eginda, Eusko Jaurlaritzaren datuak erabilita.

Gainera, 198,4 milioi euroko defizit publikoa (finantzatzeko beharrizana) izan zen (BPGren % 0,3), finantzaz kanpoko gastuak (gastu arruntak eta kapital gastuak) izaera bereko sarrerak baino handiagoa izan baitziren. Aurreko ekitaldian, defizita 300,9 milioi eurokoa izan zen; hortaz, 2014ko ekitaldian % 34,1 jaitsi zen.

Hala eta guztiz ere, defizitaren ratioa BPGren % 1eraino hazi zen 2014an (2013an, % 1,16), Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioaren eskualdeko administrazioak orekatzeko plan ekonomiko eta finantzarioek sorrarazitako defizitaren kalkulua aintza hartzen badugu (EAEko Administrazio Orokorraz gain, LANBIDE eta Osakidetza

autonomiadun erakundeen kopuruak ere kontuan hartzen dira orekatze horretan). Horixe da Europako erkidegoko erakundeetara bidaltzen den datua eta EBk ezarritako helburuak betetzen dituena.

Finantzen aldagaiari erreparatuta, funtsean, zorpetzeari esker, 2014ko defizita aurrekontuko superabit bilakatu zen (282 milioi euro, hau da, BPGren % 0,4), aurreko ekitaldian atera zen 559,1 milioi euroko zenbatekoa (% -49,6) baino askoz ere kopuru txikiagoa.

I.5.8. KOADROA. EUSKAL SEKTORE PUBLIKOA: AURREKONTUKO MAGNITUDE FINAKTUAK (MILAKA EUROTAN)

	2012	2013	2014	2012/13 (%)	2013/14 (%)
1.- SARRERA ARRUNTAK	13.155.957	12.852.763	13.384.650	-2,3	4,1
2.- GASTU ARRUNTAK	12.108.038	12.243.539	12.607.480	1,1	3,0
2.1.- LANGILERIA GASTUAK	2.114.078	2.204.434	2.233.966	4,3	1,3
2.2.- JARDUNBIDE GASTUAK	3.760.879	3.700.403	3.799.599	-1,6	2,7
2.3.- FINANTZA GASTUAK	269.117	294.341	326.097	9,4	10,8
2.4.- TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	5.963.964	6.044.361	6.247.818	1,3	3,4
3.- AURREZKI GORDINA (1-2)	1.047.919	609.225	777.170	-41,9	27,6
4.- KAPITAL SARRERAK	461.565	431.516	348.364	-6,5	-19,3
5.- KAPITAL GASTUAK	1.982.972	1.341.657	1.323.918	-32,3	-1,3
5.1.- INBERTSIO ERREALAK	755.514	683.342	520.583	-9,6	-23,8
5.2.- KAPITAL TRANSFERENTZIAK	1.227.458	658.315	803.335	-46,4	22,0
6.- FINANTZATZEKO AHALMENA (+) / BEHARRIZANA (-) (3+4-5)	-473.488	-300.916	-198.383	-36,4	-34,1
7.- FINANTZA AKTIBOEN ALDAKUNTZA GARBIA	-122.390	-207.589	-183.377	69,6	-11,7
7.1.- FINANTZA AKTIBOEN ALDAKUNTZA. SARRERAK	61.237	65.647	38.036	7,2	-42,1
7.2.- FINANTZA AKTIBOEN ALDAKUNTZA. GASTUAK	183.627	273.235	221.413	48,8	-19,0
8.- FINANTZA PASIBOEN ALDAKUNTZA GARBIA	1.023.045	1.067.608	663.763	4,4	-37,8
8.1.- FINANTZA PASIBOEN ALDAKUNTZA. SARRERAK	1.432.990	1.511.593	1.402.867	5,5	-7,2
8.2.- FINANTZA PASIBOEN ALDAKUNTZA. GASTUAK	409.945	443.985	739.104	8,3	66,5
9.- AURREKONTUKO SUPERABITA / DEFIZITA (6+7+8)	427.168	559.103	282.002	30,9	-49,6
9.1.- ORDAINTZEKO OBLIGAZIOAK	1.745.651	1.217.932	1.094.770	-30,2	-10,1
9.2.- KOBRATZEKO ESKUBIDEAK	1.943.147	1.478.602	1.333.346	-23,9	-9,8
10.- AURREKONTUKO SUPERABITA / DEFIZITA KUTXAKO KONTUAN	229.672	298.433	43.426	29,9	-85,4

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Aurrekontu Gauzatzearen Estatistika.

5.4. SEKTORE PUBLIKOAREN ZORPETZEA

2014ko Aurrekontu Gauzatzearen Estatistikak, lehenengoz eta bat, agerian uzten du EAEko sektore publiko osoaren (Eusko Jaurlaritzarena eta foru-aldundiena) guztizko zorpetzea % 37,8 murriztu zela joan den urtean. Aurreko bi ekitaldietan, berriz, % 10,2 eta % 4,4 igo zen.

Beste alde batetik, zorpetze gordinak % 7,2ko jaitsiera izan zuen 2014an eta 1.402,8 milioi euroraino heldu zen. Horien artetik, 1.139,4 milioi euro Eusko Jaurlaritzari dagozkio (-% 3,1, 2014 urtearekin alderatuta) eta gainontzeko 263,5 milioi euro foru aldundiei (-% 21,7).

Arestian azaldutakoaren emaitzaz, Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek 10.534,7 milioi euroko zorra izan zuten ekitaldiaren amaieran, 2013ko ekitaldian baino % 11,3 gehiago. Kopuru hori BPGren % 15,7koa izan zen, behin-behineko datuen arabera, (2013ko ekitaldian, berriz, % 14,3koa izan zen). Horrela, beste urte batean ere, zorraren gehiena Eusko Jaurlaritzarena da (guztizko zorraren % 79,4; aurreko urtean, % 78).

I.5.9. EUSKO JAURLARITZAREN ETA FORU ALDUNDIEN ZORPETZEAREN BILAKAERA (MILAKA EUROTAN)							
	Zorpetze gordina		Amortizazioa	Zorpetze garbia		Zor bizia urtearen amaieran	
	(1)	Aldakuntza (%)	(2)	(1)-(2)=(3)	Aldakuntza (%)	Guztira	Aldakuntza (%)
EUSKO JAURLARITZA							
2011	960.077	-49,3	169.483	790.594	-55,3	5.556.694	16,6
2012	1.084.420	13,0	174.483	909.937	15,1	6.476.631	16,3
2013	1.175.253	8,4	199.928	975.325	7,2	7.386.568	14,0
2014	1.139.367	-3,1	479.805	659.562	-32,4	8.361.893	13,2
FORU ALDUNDIAK							
2011	371.600	-24,8	233.800	137.800	-64,2	1.854.349	8,0
2012	348.570	-6,2	235.462	113.108	-17,9	1.967.457	6,1
2013	336.340	-3,5	244.057	92.283	-18,4	2.080.565	5,7
2014	263.500	-21,7	295.299	-31.799	-134,5	2.172.848	4,4
ESP GUZTIRA							
2011	1.331.677	-44,2	403.238	928.394	-56,9	7.421.043	14,3
2012	1.432.990	7,6	409.945	1.023.045	10,2	8.444.088	13,8
2013	1.511.593	5,5	443.985	1.067.608	4,4	9.467.133	12,1
2014	1.402.867	-7,2	739.104	663.763	-37,8	10.534.741	11,3

Iturria: EGABek eginda, EUSKADIKO ZERGA KOORDINAZIORAKO ORGANOAren eta EUSTATen datuak erabilita.

I.5.4. GRAFIKOA, EAEko ADMINISTRAZIOEN FINANTZA ZORRA (MILAKA EUROTAN)



Iturria: EUSTAT. Sektore Publikoaren Aurrekontuen Estatistika

Beste alde batetik, EUSTAT erakundearen *"Sektore Publikoaren Aurrekontu Estatistika"* delakoari esker (eskuragarri dugun azken informazioa 2012koa da), foru-aldundien eta udal guztien zorpetzea zenbatekoa den jakin dezakegu, bai eta EAEko Administrazio osoaren (gobernua + aldundiak + udalak) zorpetzearen zenbatekoa.

Foru-aldundiei gagozkiela, 2012. urtean, zorra jaulki zuten, guztira 348,5 milioi eurokoa (aurreko ekitaldian, berriz, 526 milioi eurokoa); zenbateko horretatik, 118 milioi euro Arabako Foru Aldundiarenak izan ziren, 48,5 milioi euro Gipuzkoako Foru Aldundiarenak eta gainerakoa, 182 milioi euro, Bizkaiko Foru Aldundiarenak. Gainera, 319,8 milioi euroko amortizazioa izan zuten, hau da, aurreko ekitaldian baino % 39,7 gehiago. Amortizatutako zenbatekotik, % 50,6 Bizkaiko Foru Aldundiarena izan zen, % 41,6 Gipuzkoako Foru Aldundiarena eta gainerakoa, % 7,8, Arabako Foru Aldundiarena. Foru-aldundien zorraren saldo bizia, guztira, % 1,4 hazi zen aurreko ekitaldiko saldoaren aldean, eta BPGren aldean ere hazi zen. Hala, 2011n, % 3koa izan zen eta 2012an, berriz, % 3,1koa.

EAEko udalei dagokienez, arestian aipatutako estatistikan oinarri harturik, badakigu 2012an 44,7 milioi euroko zorra jaulki zutela, eta 72,6 milioi euro amortizatu zutela. Beraz, ekitaldiaren amaieran, ordaindu gabeko zorra 28 milioi euro gutxitu zen eta 653,8 milioi eurokoa izan zen.

Beste alde batetik, guztira hartuta, EAEko herri-administrazio guztiek (gobernuak, foru-aldundiek eta udalek), 2012ko ekitaldian, 8.805 milioi euroko zor bizia izan zuten urtearen amaieran (hau da, 2011n baino % 15,6 gehiago). Zenbateko hori aipatutako urteko BPGren % 13,6koa izan zen (2011n, aldiz, % 11,5ekoa izan zen).

Zorraren guztizko zenbatekotik, % 69,1 Eusko Jaurlaritzarena izan zen, % 13,4 Bizkaiko Foru Aldundiarena, % 5,1 Gipuzkoako Foru Aldundiarena eta % 4,9 Arabako Foru Aldundiarena. Gainerakoa, 653,8 milioi euro, hain zuzen ere, EAEko udalen finantza-zorrari dagokio eta EAEko administrazioen guztizko zorraren % 7,4koa izan zen (2011n, % 9koa).

5.5. ERAKUNDE TRANSFERENTZIAK

EAEk sistema berezia eta bereizia dauka bere jarduera finantzatzeko, zerga gehien-gehienak biltzeko ahalmena baitauka; beste alde batetik, estatuaren gastuak ordaintzen laguntzen du EAEk oraindik ere eskumena ez daukan gaietan, Kupo delakoaren bidez. Autonomia erkidegoaren barruko eskumenen banaketaz den bezainbatean, esan behar da, funtsean, foru-aldundiek egiten dutela zerga-bilketa, eta Eusko Jaurlaritzaren jarduera nahiz lurralde historikoetako udalen jarduera finantzatzen laguntzen dute ekarpenen bidez. EAEko herri-administrazioek eskuratzen dituzten baliabideez gain, Europako Batasunak eta Estatuak ere funtsak ematen dizkiete (BEZ zergaren eta zerga berezien ziozko bilketa orekatzeko, dela foru-aldundien eta udalen partaidetza itundu gabeko zergetan, Elkarrekiko eta Kiroleko Apustuetan eta Estatuko Loteria eta Administrazioen Erakunde Nazional eta autonomia erkidegoko erakundeetan).

I.5.9. KOADROA. FORU ALDUNDIEK EAEko ERAKUNDE ERKIDEEI EGINDAKO EKARPENEN BILAKAERA (MILAKA EUROTAN)

KONTZEPTUA	2010	2011	2012	2013	2014	12-13 ald. (%)	13-14 ald. (%)
EKARPEN OROKORRA	7.774.246	7.314.810	7.447.837	7.428.008	7.845.378	-0,3	5,6
BERARIAZKO EKARPENAK	203.882	600.619	864.106	392.825	416.055	-54,5	5,9
EAE GUZTIRA	7.978.128	7.915.428	8.311.943	7.820.933	8.261.433	-5,9	5,6
ARABAKO EKARP.	1.349.101	1.328.209	1.380.614	1.269.337	1.321.829	-8,1	4,1
BIZKAIKO EKARP.	4.000.233	3.975.128	4.195.869	3.969.124	4.208.374	-5,4	6,0
GIPUZKOAKO EKARP.	2.628.793	2.612.091	2.735.460	2.582.472	2.731.230	-5,6	5,8
ARABA (%)	16,91	16,78	16,61	16,23	16,00		
BIZKAIA (%)	50,14	50,22	50,48	50,75	50,94		
GIPUZKOA (%)	32,95	33,00	32,91	33,02	33,06		

Iturria: EGABek eginda, EUSKO JAURLARITZAKO Ogasun eta Finantza Saileko Kupo eta Finantza Ekarpenen Zuzendaritzaren datuak erabilita.

Hasteko eta bat, azpimarratzekoak dira *foru-aldundiek Eusko Jaurlaritzari egin dizkioten ekarpenak*, azkenen bolumena dela eta. Ekarpenei buruzko Legeak jasotzen du baliabideak banatzeko metodologia. Lege horrek ezartzen du, bost urterik behin, foru-aldundiek biltzen dituzten itundutako zergen zenbateko zatia transferitu behar dioten Eusko Jaurlaritzari gastu arruntei eusteko ekarpen gisa (hala, Eusko Jaurlaritzak jasotzen dituzten sarreren % 90 baino gehiago ekarpenetatik datoz). 2014ko ekitaldian, ekarpenen zenbatekoa 8.261,4 milioi eurokoa izan zen, hau da, 2103an baino % 5,6 gehiago. Alabaina, urte horretan % 5,9 jaitsi zen, 2012ko ekitaldiko zenbatekoaren aldean.

2007-2011 aldiko berrikuntza legez[2], Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak hainbat aldaketa erabaki zituen baliabideak banatzeko eta aldundien ekarpenak zehazteko. Aldaketa horien artean, besteak beste, ondoko hauek nabarmendu behar ditugu: koefiziente bertikala % 70,44tik % 70,04ra jaitsi zen, toki erakundeen partaidetza areagotzeko; Foru Aldundien artean BEZagatik biltzen duten diruan doikuntza berria egin zen; eta Doikuntzako Fondo Orokorra sortu zen (lehen Elkartasun Fondoa zena), lurralde historikoentzako berme mekanismo gisa; EAEko erakundeen artean banatu beharreko baliabideetan lurralde historikoen zenbatekoa % 0,75 izatetik % 1 izatera igaro zen.

2 2/2007 Legea, martxoaren 23koa, Baliabideen banaketarako eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzekoak egin beharreko ekarpenak zehazteko 2007-2011 aldian aplikatuko den metodologiari buruzkoa. Oraindik ere indarrean dago, ez baitu geroagoko beste batek ordeztu.

I.5.10. KOADROA. EUSKO JAURLARITZAK LIKIDATUTAKO SARRERAK, JATORRIAREN ARABERA (MILAKA EUROTAN)						
	2010	2011	2012	2012 Ban. (%)	10-11 ald. (%)	11-12 ald. (%)
1. FORU ALDUNDIEN EKARPENAK	7.978.128	7.915.428	8.311.943	80,3	-0,8	5,0
. Ekarpen orokorra	7.774.246	7.314.810	7.447.837	72,0	-5,9	1,8
. Berariazko ekarpenak	203.882	600.619	864.106	8,3	194,6	43,9
2. ERAKUNDEEN BESTE SARRERA BATZUK	299.399	371.024	476.222	4,6	23,9	28,4
. EAEko erakundeen transferentziak	7.134	7.746	7.469	0,1	8,6	-3,6
. Estatuaren transferentziak	208.596	254.805	381.967	3,7	22,2	49,9
. Europar Batasunaren funtsak	82.935	108.151	86.786	0,8	30,4	-19,8
- FSE	1.709	7.594	7.798	0,1	344,4	2,7
- FEDER	13.904	34.809	238	0,0	150,4	-99,3
- FEOGA – Orientazioa	-	-	38	0,0	-	-
- FEADER	11.514	5.719	12.899	0,1	-50,3	125,5
- FEAGA	52.137	51.272	51.689	0,5	-1,7	0,8
- IFOP	-	6.376	8.715	0,1	-	36,7
- Kohesio Funtsa	1.833	-	3.481	0,0	-	-
- Beste funts batzuk	1.838	2.381	1.928	0,0	29,5	-19,0
. EBtik kanpoko funtsak	734	322	-	-	-56,1	-
3. BESTE BALIABIDE BATZUK	2.198.307	1.479.248	1.561.701	15,1	-32,7	5,6
- Zor publikoa	1.893.000	960.077	1.084.420	10,5	-49,3	13,0
- Zeharkako zergak	4.274	3.010	2.476	0,0	-29,6	-17,7
- Ondare sarrerak	83.868	197.261	165.032	1,6	135,2	-16,6
- Inbertsio errealak besterentzea	713	1.064	71.952	0,7	49,2	6.662,4
- Beste transferentzia batzuk	9.502	11.072	7.221	0,1	16,5	-34,8
- Finantza aktiboen aldakuntza	17.485	49.078	48.738	0,5	180,7	-0,7
- Tasak eta prezio publikoak	189.464	210.864	181.861	1,8	11,3	-13,8
SARRERAK GUZTIRA	10.475.834	9.718.879	10.349.866	100,0	-7,2	6,5

Iturria: EUSKADIKO ZERGA KOORDINAZIORAKO ORGANOA

Beste alde batetik, *erkidegoko funtsetatik* datozen laguntzak Europako Batasunak hartutako aurrekontu-konpromisoen arabera gauzatzen dira, aurrerakin gisa edo behin betiko ordainketa gisa, kasuan-kasuan ezarritako araudiari jarraiki. 2012an (hots, informazioa eskuragarri dugun azken urtean, laguntzak % 19,8 jaitsi ziren eta 86,8 milioi eurokoak izan ziren; aurreko ekitaldian, ordea, % 30,4 igo ziren).

Partidarik handienak FEAGAri, hau da, Europako Nekazaritzarako Berme Funtsari (2007an sortu zen) eta FEADER funtsari, hots, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsari egokitu zitzaizkien. Biak ala biak sortu ziren Europako Batasunak nekazaritzari ematen dizkion laguntzak kudeatzeko. Lehenengo funtsari esker, 51,7 milioi euro jaso ziren guztira 2012ko ekitaldian, hau da, urte horretan jasotako Europako funtsen % 59,6. Bigarren funtsa (FEADER) dela eta, 12,9 milioi euro jaso ziren, hots, jasotako guztizkoaren % 14,9.

I.5.11. KOADROA. EAEk ESTATUARI ORDAINDUTAKO KUPOAREN BILAKAERA (MILAKA EUROTAN)					
	2011	2012	2013	2014	13/14 ald. (%)
INGRESATUTAKO KUPOA	513.742	367.089	879.347	750.790	-14,6
KONPENTSAZIOAK*	-99.460	-78.482	-97.541	-69.041	-29,2
ORDAINDUTAKO KUPOA	414.282	297.607	781.807	681.748	-12,8

Iturria: EUSKO JAURLARITZAKO Ogasun eta Finantza Saila
(*) Finantza-konpentsazioak Fabrikazio Zerga Berezien zioz.

Beste partida aipagarri bat *Estatuarentzako Kupoa* dugu. Kupoaren zenbateko likidoa Kupoari buruzko Bosturteko Legearen bidez ezartzen da eta, 2014ko ekitaldian (behin-behineko likidazioetan oinarrituta) 681,7 milioi eurokoa izan zen. Beraz, % 12,8 jaitsi zen 2013ko zenbatekoaren aldean.

Azkenik, Estatuari egindako ordainketez gain, badira doitu beharreko beste zenbateko batzuk, besteak beste, *Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ziozko doiketa, barruko merkatuan egindako eragiketengatik eta inportazioengatik* (azken doiketa Estatuaren Ogasunak bakarrik egiten du). Azkena Estatuko administrazioen eta EAEko administrazioaren arteko doiketa finantzarioa da, zerga-administrazioen diru-bilketa teorikoa eta erreala egokitu beharra dagoelako, zerga-

administrazio bakoitzak bere menpeko lurraldean jarduten duelako, zerga-mugarik gabeko esparru batean. Doiketa horiez gain, 1997an, zerga bereziei dagozkien doiketak ere ezarri ziren, honako gorabehera hau zuzentzeko: zerga horien eraginpeko produktuen amaierako kontsumoa ez da egiten produktuok ekoizten diren lurraldean bertan.

2012an, hots, informazioa eskuragarri daukagun azken urtean, BEZ zergaren ziozko doiketa 1.075,7 milioi eurokoa izan zen Euskal Autonomia Erkidegoan. Zenbateko hori aurreko urtekoa baino % 7,8 handiagoa izan zen. Partida horren barruan, aduanetako bilketaren ziozko doiketa guztizkoaren % 54,4 izan zen eta gainerakoa, % 45,6, hain zuzen ere, barruko eragiketen gainekoa. Lurraldeko banaketari gagozkiola, esan behar da urtero egiten dela koefiziente horizontalen arabera.

I.5.5. GRAFIKOA. BEZ ZERGAREN ZIOZKO DOIKETA LURRALDEAREN ARABERA. MILAKA EUROTAN



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Zerga Koordinaziorako Erakundea.

6. PRODUKZIOAREN AZPIEGITURAK

Azpiegitura fisikoak oinarrizko elementua dira garapen ekonomikoa, ongizate orokorra eta edozein gizarteren kohesioa posible izan daitezen, eta herrialde baten ekonomia orokorraren jardunaren gainean eragin garrantzitsua dute. Zehazki, produktibitatea eta hazkundea areagotzen laguntzen dute.

6.1. GARRAIOA

Egoera estrategikoagatik nahiz industria jarduera handiagatik, EAE mota guztietako trafikoen maila handienetakoa ageri duen Europako zona bat da. Errepide sare trinkoa, trenbideak, bi itsas portu handi eta hiru aireportu dira barruko trafikoan nahiz kanpokoan ageri diren beharrak estaltzen saiatzen direnak, egunetik egunera osatuagoak eta kalitate handiagokoak diren zerbitzu batzuk eskainita.

Ondoko taulan, gure Erkidegoko Garraio Sistemaren osaera ageri da, azpiegituraren titulartasuna eta operadorea kontuan izanik betiere.

I.6.1. KOADROA. GARRAIO SISTEMAREN ERAKETA EAE-N[1]

SISTEMA	AZPIEGITURA	ORGANO TITULARRA	ERAKUNDEA/OPERADOREA
Bideria sistema	Errepide Sare Orokorra.	Foru Aldundiak	Garraioaren Zerbitzu Publikoaren emakidaduna / hura ematen duena.
	Hiri sarea	Udalak	
	A-68 autobidea	Estatua	
Trenbideen sistema	Europa barneko Sarea Penintsulako sarea	Estatua	RENFE
	Sare metrikoa	EAE	EUSKO TREN
		Estatua	RENFE FEVE*
	Metroa/Tranbia	EAE	Metro Bilbao, EUSKO TREN
	Zubi esekia	Bilboko Portuko Agintaritza	Pribatua
Portu sistema	Interes orokorreko portuak	Estatua	Portuko Agintaritza
	Portu autonomikoak	EAE	EAE
Airetiko sistema	Interes orokorreko aireportuak	Estatua	AENA
Kable sistema	Igogailuak eta funikularrak	EAE	Pribatuak Publikoak
Garraio intermodalaren sistema	Garraio eta logistika zentroak	Partzuergoak / entitate publikoak, pribatuak, mistoak	Operadore logistikoak

**** FEVE bide estuko trenbide sarea da. Galizia, Asturiasko Printzerria, Kantabria, EAE eta Gaztela eta Leon eta Murtzia autonomia erkidegoetara hedatzen da haren eremu geografikoa.***
Iturria: Guk geuk egina.

Estatuko Erakunde Publikoek (AENA, ADIF, PORTUAK eta RENFE) ingeniaritza zibilean EAEn eginiko esleipenei buruzko datuek erakusten dutenez, igoera nabarmenak ageri dira 2013 eta 2014 bitartean, PORTUETAN izan ezik.

Hala, ADIF Estatuko Sozietate Publikoak (Trenbide Azpiegituren Administratzaileak) ingeniaritza zibilean EAEn eginiko esleipenak, Sustapen Ministerioaren datuen arabera, handitu egin dira 2013 eta 2014 bitartean, 1,2 milioi eurotik 69 milioi eurora (Abiadura Handiko Linea osoko azpiegiturako lanak EAEn ADIFek egin zituen), RENFEk eginiko 0,07 milioi eurotik 5 milioi eurora, AENArenak 1,1 milioi eurotik 1,4 milioi eurora eta PORTUENEK, berriz, behera egin dute, 20 milioitik 9,9 milioi eurora.

1 ADIF, Trenbide Azpiegituren Administratzailea, Sustapen Ministerioaren menpeko enpresa-erakunde publikoa da. Trenbide azpiegituren administrazioa (trenbideak, geltokiak, salgaien terminalak, etab.), trenen zirkulazioaren kudeaketa, tren operadoreen ahalmenaren esleipena eta azpiegitura, geltokiak eta salgai terminalak erabiltzeagatiko kanonak hartzen ditu bere gain.

Trenbide jardueren gero eta espezializazio handiagoa dela eta, Sustapen Ministerioari atxikitako bi enpresa-erakunde publikotan banatu da ADIF : ADIF eta ADIF Abiadura Handia. Bere nortasun juridikoarekin eta ondarearekin sortu da eta, besteak beste, abiadura handiko trenbide azpiegituren eraikuntzaren eta administrazioaren arloko eskumenak hartzen ditu bere gain.

ETS, Euskal Trenbide Sarea/Red Ferroviaria Vasca EAEren eskumeneko trenbide azpiegituren administrazioaz arduratzen den Eusko Jaurlaritzaren erakunde publikoa da. Haren xede nagusia Euskal Autonomia Erkidegoaren menpeko trenbide azpiegiturak eraikitzea, artatzea, kudeatzea eta administratzea da, trena garraio sistema modernoa, eraginkorra eta iraunkorra izan dadin.

I.6.2. KOADROA. SUSTAPEN MINISTERIOAK, ERAKUNDE AUTONOMOEK ETA ESTATUKO ERAKUNDE PUBLIKOEK ESTATUAN ETA EAE-N INGENIARITZA ZIBILEAN EGINIKO ESLEIPENAK (mila euro)

	EAE						ESTATUA			EAE/Estatua (%)	
	2010	2011	2012	2013	2014	2013-14 ald.	2012	2013	2014	2013	2014
Ministerioa, erakunde autonomoak eta estatuko erakunde publikoak	59.808	111.443	113.257	18.569	81.062	336,5	2.188.029	834.570	1.788.558	2,2	4,5
Estatuko erakunde publikoak	59.808	111.443	113.257	18.569	81.062	336,5	2.040.119	705.540	1.392.241	2,6	5,8
AENA	25.278	5.437	1.190	1.111	1.437	29,3	37.772	47.451	65.456	2,3	2,2
ADIF	18.774	87.988	21.300	1.162	69.030	5.840,6	1.860.744	515.093	1.083.288	0,2	6,4
PORTUAK	26.383	22.194	78.444	20.092	9.854	-51,0	211.418	212.678	295.840	9,4	3,3
RENFE OPERADOREA	203	212	54	73	4.986	6.730,1	14.766	3.001	19.864	2,4	25,1

Iturria: Geuk egina Sustapen Ministerioaren datuekin

6.1.1. Errepideko garraioa

Gure Erkidegoko ***errepide sarea*** Europako sarerik trinkoenetakoa da, azalerako dentsitaterik handienetakoa baitu (0,58 km errepide km^{2-}ko, Estatuaren bikoitza hain zuzen ere (0,33), baina dentsitate txikiagoa du biztanleko (1,9 Km errepide 1.000 biztanleko, Estatuko 3,5 km errepide 1.000 biztanleko dentsitatearen aldean) eta %14,4 edukiera handiko errepideak dira. Edukiera handiko errepideen %41,3 bidesaria duten autobideak dira.

I.6.3. KOADROA. ERREPIDE SAREA BIDE MOTAREN ETA ALDIAREN ARABERA. (Km)

	2009	2010	2011	2012	2013
ESTATUA					
Errepide km-ak guztira	165.463	165.787	165.885	165.595	165.361
Edukiera handiko errepideak guzt.	15.621	15.965	16.182	16.335	16.582
Bidesaria duten autobideak	3.016	2.991	3.022	3.025	3.026
Autobiak	11.005	11.271	11.509	11.676	11.955
Galtzada bikoitzeko errepideak	1.599	1.703	1.651	1.634	1.602
EAE					
Errepide km-ak guztira	4.209	4.198	4.190	4.185	4.175
Edukiera handiko errepideak guzt.	607	598	598	602	600
Bidesaria duten autobideak	256	254	247	248	248
Autobiak	273	281	282	284	284
Galtzada bikoitzeko errepideak	78	63	69	70	68

Iturria: Sustapeneko Estatistika Urtekaria. 2014an argitaratua

I.6.4. KOADROA. ERREPIDE SAREAREN INDIZEEN BILAKAERA

	EAE					ESTATUA	
	2009	2010	2011	2012	2013	2012	2013
Sare osoa (km) / azalera	0,58	0,58	0,58	0,58	0,58	0,33	0,33
Sare osoa (km) / 1.000 biztanle	1,93	1,92	1,91	1,91	1,90	3,50	3,51
Ibilgailuen parkea / sare osoa	305,7	309,6	312,5	312,78	310,52	188,43	186,97
Ibilgailuen parkea / biztanle	0,59	0,59	0,60	0,60	0,59	0,66	0,66

Iturria: Sustapeneko Estatistika Urtekaria. 2014an argitaratua

EAEn abiapuntua edo helmuga duten errepideko salgaien trafikoak (ez da sartzen nazioarteko igarotze-trafikoa) gora egin du 2014. urtean, hainbat urtetan etengabeko jaitsierak izan ondoren. Hazkunde hori hiru bidaia motatan gertatzen da (eskualde barrukoa, eskualde artekoa eta nazioartekoa), baina funtsean eskualde barrukoan (%22,7) eta nazioartekoan (%15).

I.6.5. KOADROA. GARRAIATURIKO TONAK, BIDAIA MOTAREN ARABERA, EUSKAL HERRIAN ABIAPUNTUA EDO HELMUGA DUTENAK (mila Tm)

		2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2013-14 ald.
GUZTIRA		**133.123**	**119.086**	**110.243**	**101.826**	**88.505**	**84.376**	**94.875**	**12,4**
ESKUALDE BARRUKOA	**GUZTIRA**	**76.823**	**67.126**	**57.302**	**51.928**	**42.076**	**40.922**	**50.203**	**22,7**
	UDAL BARRUKOA	17.641	18.356	13.934	11.427	8.669	8.395	9.033	7,6
	UDAL ARTEKOA	59.182	48.769	43.368	40.501	33.406	32.527	41.170	26,6
ESKUALDEARTEKOA	**GUZTIRA**	**50.472**	**47.708**	**48.033**	**45.103**	**41.606**	**38.799**	**39.321**	**1,3**
	JASOA	24.410	23.878	25.391	22.039	22.301	19.818	20.204	1,9
	EMANA	26.063	23.829	22.642	23.064	19.305	18.981	19.117	0,7
NAZIOARTEKOA	**GUZTIRA**	**5.828**	**4.253**	**4.908**	**4.796**	**4.823**	**4.655**	**5.352**	**15,0**
	JASOA	3.208	2.016	2.769	2.494	2.308	2.092	2.729	30,5
	EMANA	2.620	2.237	2.139	2.301	2.514	2.563	2.622	2,3

Iturria: Sustapen Ministerioa

Eskualde arteko trafikoari dagokionez, truke kopururik handiena alboko Gaztela eta Leon, Nafarroa eta Kantabria erkidegoetan egiten da.

6.1.2. Trenbide garraioa

Trenbide sareak jatorritik eduki dituen sorrera arazo ugariak (bide zabalera ezberdinak, estatu mailan trenaren bitartezko garraioaren bururatze erradiala, lotura falta, eta abar) larritu egiten dira gure erkidegoan orografia zaila delako eta bururatze horretan nagusi ez zelako lurralde barruko antolamendua eta, ondorioz, salgaien zirkulazioa eta Europarekin lotzea nabarmenki zaila da. Arrazoi horiek direla eta, EAEn trena ez da lehiakorra beste garraiobide batzuen aldean, batez ere hiriburuen arteko loturetan.

I.6.6. KOADROA.ERREPIDEKO SALGAIEN HELMUGA ETA ABIAPUNTUA AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA (mila tona)

	2012		2013	
	Helmuga: EAE	Abiapuntua: EAE	Helmuga: EAE	Abiapuntua: EAE
ANDALUZIA	441	433	579	533
ARAGOI	2.149	1.878	1.596	1.586
ASTURIAS	1.049	720	798	490
BALEAREAK	:	:		
U. KANARIARRAK	:	:		
KANTABRIA	3.321	2.091	2.359	1.729
GAZTELA-MANTXA	437	519	543	475
GAZTELA ETA LEON	3.879	3.704	4.153	4.275
KATALUNIA	1.920	1.741	1.741	1.810
VALENTZIAKO ER.	968	741	1.021	907
EXTREMADURA	173	109	98	79
GALIZIA	1.242	1.020	1.542	1.392
MADRIL	1.617	1.564	1.348	1.363
MURTZIA	177	164	177	106
NAFARROA	3.391	3.618	2.760	3.249
ERRIOXA	1.538	995	1.092	977
CEUTA-MELILLA	:	:		
EAE	**42.076**	**42.076**	**40.922**	**40.922**

Iturria: Sustapeneko Estatistika Urtekaria. 2014an argitaratua

I.6.7. KOADROA. TRENBIDE KM-A EAE-N

	ELEKTRIFIKATU GABE						ELEKTRIFIKATUA					
	2011		2012		2013		2011		2012		2013	
	Guzt.	Bide bak.	Guzt.	Bide bak.	Guzt.	Bide bak.	Guzt.	Bide bak.	Guzt.	Bide bak.	Guzt.	Bide bak.
GUZTIRA	**47,98**	**47,98**	**42,3**	**42,3**	**40,3**	**40,3**	**597,54**	**248,07**	**607,11**	**239,98**	**596,54**	**237,1**
ADIF(bide zabala)	0	0	0	0	0	0	305,0	87,0	304,0	86,8	302,57	84,87
FEVE	42,30	42,30	42,30	42,30	40,33	40,33	46,12	20,71	46,12	20,71	32,36	19,76
EUSKO TREN	5,68	5,68	0	0	0	0	246,42	140,36	256,99	132,47	261,60	132,47

Iturria: Sustapeneko Estatistika Urtekaria. 2014an argitaratua

Sustapen Ministerioaren datuen arabera, 2014. urtean EAEko trenbide-sarea elektrifikatutako 597,54 kilometrok osatzen zuten. Horietatik % 50,7 ADIFena da; enpresa horrek kudeatzen ditu Bizkaiko eta Gipuzkoako aldirietako zerbitzuak, baita penintsulara doazen ibilbide ertain eta luzeko zerbitzuei loturiko azpiegitura ere. Beste % 43,9 Eusko Trenena da (Bilbo-Donostia-Hendaia linea, adibidez), eta gainerako % 5,4 FEVEren bide estuko trenbideei dagokie; enpresa horrek kudeatzen ditu Bilbo-Santander, Bilbo-Leon eta Bilbo Handiko eremuko eskualde arteko loturak.

Ibilbide luzeko lineei eta nazioarteko loturei dagokienez, Irun eta Frantziako TGVaren arteko lotura eta Euskal Y-aren proiektua aipatu behar dira. Sustapen Ministerioaren arabera, 'Euskal Y'-a proiektuko obrak bukatutakoan, Gasteiz eta Bilbo arteko bidaia 40 minutu ingurukoa izango da; Gasteiz eta Donostia artekoa 50 minutukoa eta Bilbo eta Donostia artekoa, berriz, 50 minutukoa gutxi gorabehera.

Era berean, 'Euskal Y'-aren (Gasteiz) eta Burgosen arteko abiadura handiko lotura bukatzen denean, Madril eta Gasteiz arteko bidaia bi ordu ingurukoa izango da, bi ordu eta erdikoa Madril eta Bilbo artean eta 2 ordu eta 45 minutukoa Madril eta Donostia artean.

Euskal Y-aren ibilbidea ETSren 2013. urteko memoriaren arabera (Euskal Trenbide Sarea/Red Ferroviaria Vasca; 172 kilometrotan 80 tunel daude (guztizko luzeraren %60,6), baita 71 biaduktu (%9,9) eta aire zabalekoak ere (%29,5). ADIF Abiadura Handiaren arabera, Gasteiz, Bilbo eta Donostia arteko zatiak 176,5 km ditu guztira (hirietako sarbideak barne direla).

Sustapen Ministerioaren arabera, 2015eko urtarrilaren amaieran, Gasteiz eta Bilbo artean bukaturiko zazpi obra zati daude, eta zazpi zati plataforman egiten ari dira, Arrasate-Bergara 'Kobate Sektorea' barne. Lanak 2015. urtearen hasieran ekin zitzaien lanei.

Gainera, dagoeneko lizitazioa egin zaion Atxondo-Abadiñoko zatia eta Arrasate-Bergara 'Angiozar Sektorea' deritzon zatiko obrak hasiko dira 2015ean eta, beraz, lizitazioa egiteke dago Bergarako lotuneko zatietan eta euskal hiriburuetako integrazioetan.

Bestalde, Bergara-Donostiako tarteak sei zati bukatuta ditu, hain zuzen Astigarragarainoko tartea osatzen duten 17 zatietatik. Era berean, Irunerainoko birgaikuntza lanen barruan, hirugarren erreia jartzeko lagungarriak izango diren zeharragak sartzen dira, eta kontratua egingo da horretarako. 2015eko urtarrilaren hasi dira lanok.

Geltoki intermodalak direla eta, geltoki bakarra dago EAEn, RENFEren menpeko Arabako Jundiz geltokia. Izan ere, Europako trafikorako lehian aritzen da Baiona-Mougerre pleiteko Europako Zentroarekin (Baionan dago). 20 Ha ditu gehi erreserbako 50 Ha lur, baita autobiderako sarbideak eta trenbide lotuneak ere.

Bilboko Metroko eta EUSKOTRENeko bidaiarien tren garraioari dagokionez, gure 2013ko Memoriaren ediziora jo beza irakurleak, ez baitigu datuak eguneratuta.

6.1.3. Aireko garraioa

EAEko hiru aireportuetatik, 4,2 milioi bidaiari igaro ziren 2014an (%94 Bilboko aireportutik), hots, %4,8ko igoera 2013koaren aldean. Salgaien trafikoari dagokionez, %1,5 handitu da grafikoa epealdi berean, eta guztira 17.027 Tm bildu ditu (%83 Gasteizko aireportuan).

Bilboko aireportutik, guztira, ia 1 4 milioi bidaiari igaro ziren 2014an, hots, 5eko igoera 2013. urtearen aldean. Salgaien trafikoan, berriz, %12,6 egin zuen gora salgaien bolumenak aldi berean.

Donostiako aireportuan, 2013 eta 2014 bitartean, %55 hazi da salgaien trafikoa. Bidaiarienak, berriz, egonkor eusten dio.

Gasteizko aireportuan, bestalde, egonkortasuna ikusten da, salgaien trafikoan nahiz bidaiarien trafikoan.

I.6.8. KOADROA. AIRETIKO TRAFIKOAREN BILAKAERA KONTZEPTUKA, EREMUKA ETA AIREPORTUKA

	EAE GUZTIRA			Gasteiz			Bilbo			Donostia		
	Aireon-tziak	Bidaiariak (mila)	Salgaiak (Tm.)	Aireon-tziak	Bidaiariak (mila)	Salgaiak (Tm.)	Aireon-tziak	Bidaiariak (mila)	Salgaiak (Tm.)	Aireon-tziak	Bidaiariak (mila)	Salgaiak (Tm.)
2008	70.418	4.613	17.997	9.054	67	14.763	52.523	4.150	3.170	8.841	396	64
2009	58.796	3.965	14.451	6.210	39	11.736	46.102	3.638	2.685	6.484	288	30
2010	58.454	4.194	15.479	5.058	40	12.912	46.825	3.876	2.548	6.571	278	19
2011				-	-	-	46.991	4.034	2.633	-	-	-
2012	56.057	4.439	15.466	5.486	24	13.201	44.448	4.162	2.262	6.123	253	3
2013	47.950	4.032	16.779	5.086	7	14.223	38.593	3.784	2.536	4.271	241	20
2014	49.068	4.225	17.027	5.567	7	14.140	39.239	3.975	2.856	4.262	243	31
2013-14 ald.	**2,3**	**4,8**	**1,5**	**9,5**	**0,0**	**-0,6**	**1,7**	**5,0**	**12,6**	**-0,2**	**0,8**	**55,0**

Iturria: Sustapen Ministerioa

6.1.4. Itsasoko garraioa

Itsas garraioari dagokionez, 2013 eta 2014 bitartean, portuko trafikoa (salgaiak, hornidura eta arrantza) %3,1 hazi zen Bilboko Portuan, eta guztira 31 milioi Tm izan ziren. Horietatik 25,5 milioi ontziratu gabe ziren, eta azken horietatik %82 (20,9 milioi Tm) likidoak ziren.> Bestela esanda, garraiaturiko salgaien %67,5 ontziratu gabeko likidoak dira, gehienbat petrolioaren produktuak.

Bestalde, ontzien kopurua, hiru urtez jaitsierak izan ondoren, %2,6 hazi da, eta 2014an 2.862 inguru ziren. Bidaiarien kopuruak gora egin du urte batzuetan jaitsieran izan ostean (%13,6) eta guztira 161.242 pertsona hartzen dituzte.

Pasaiako Portuko kopuruak askoz ere murritzagoak dira. Salgaien portuko trafikoa %18,5 hazi da, eta hautsi egin da 2011n hasitako jaitsieretarako joera ere. Hala, 3,5 milioi Tm inguruan kokatzen da; izan ere, solido solteen nahiz salgai orokorren eta horniduraren eta arrantzaren trafikoak igo dira.

Bestalde, ontzien kopurua txikitu egin da 2013 eta 2014 bitartean, eta 921 daude.

I.6.9. KOADROA. ONTZIAK, BIDAIARIAK ETA ITSASOKO GARRAIOAK MUGITUTAKO SALGAIAK, MOTAREN ARABERA SAILKATUTA

		2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	%	Aldak. % 2013-14
Bilbo	**Portuko trafikoa guztira (mila Tm.)**	**39.398**	**32.180**	**34.666**	**31.998**	**29.507**	**30.073**	**31.009**	**100**	**3,1**
	Likido solteak	28.324	20.498	19.763	17.855	15.061	15.761	20.939	67,5	32,9
	Solido solteak	5.267	3.828	4.452	4.006	4.262	4.422	4.588	14,8	3,8
	Salgai orokorrak	9.657	7.289	9.446	9.863	9.631	9.419	9.883	31,9	4,9
	Bestelako trafikoa*	1.417	576	1.005	274	553	470	187	0,6	-60,2
	Ontziak guztira (kopurua)	3.585	3.042	3.240	2.992	2.808	2.789	2.862		2,6
	Bidaiariak guztira (kopurua)	179.572	166.104	165.024	151.421	142.754	141.979	161.242		13,6
Pasaia	**Portuko grafikoa guztira (mila Tm.)**	**4.778**	**3.519**	**3.896**	**3.252**	**3.094**	**2.955**	**3.503**	**100**	**18,5**
	Likido solteak	0	0	0	0	0	0	0	0,0	
	Solido solteak	2.353	1.658	1.657	1.247	1.420	1.212	1.509	43,1	24,5
	Salgai orokorrak	2.372	1.810	2.181	1.949	1.622	1.694	1.943	55,5	14,7
	Bestelako trafikoa*	53	51	58	56	52	50	51	1,5	2,0
	Ontziak guztira (kopurua)	1.320	943	1.086	963	895	879	921		4,8
	Bidaiariak guztira (kopurua)	0	0	0	0	0	0	0		

** Hornidura eta arrantza.*
Iturria: Sustapen Ministerioa

6.2. ENERGIA: PRODUKZIOA ETA KONTSUMOA

Inportatutako energiaren eraldaketa EAEren jarduera ekonomikoaren barruan pisu adierazgarria duen industria da, petrolioa fintzeko eta energia elektrikoa sortzeko sektoreekin batera. Aldi berean, azken urteetan gas eta elektrizitateko azpiegitura berriek izandako sarrerak energiaren euskal eskaintzaren kalitatea indartzeko joera du.

Energia balantzeetan ezberdindu egiten da barne kontsumo osoaren edo energia eskariaren eta amaierako kontsumoa. Energia eskaria edo barne kontsumo osoa, funtsean, lurraldean bertan sortutako lehen mailako energia gehi inportazioen, esportazioen eta galeren (garraioagatik, biltegiratzeagatik, banaketagatik) arteko orekaren berdina da. Amaierako kontsumoa amaierako kontsumitzaileen sektoreetako kontsumoen batura da, hau da, industriaren, garraioaren, lehen sektorearen, zerbitzuen eta egoitzen kontsumoaren batura.

Energiaren Euskal Erakundeak 2012an argitaratu Euskadi Energia 2013. Datu energetikoak txostenak erakutsi zuenez, energiaren barne-kontsumo gordinak edo eskariak (alegia, ekoitzitako energia gehi energia inportatua ken esportatua), 90etako amaieratik 2008 arte goranzko joera izan du, euskal ekonomiak izandako bizkortzearen ondorioz.

I.6.1. GRAFIKOA. BARNE KONTSUMO GORDINA ETA ENERGIAREN AMAIERAKO KONTSUMOA



Iturria: EVE

I.6.2. GRAFIKOA. LEHEN MAILAKO ENERGIAREN PRODUKZIOA (KTEP)



Iturria: EVE

Ondoren eta 2011ra arte, kontsumo horren motelaldia gertatu zen krisi ekonomikoaren ondorioz; 2011 eta 2012 bitartean handitu egin zen, eta 2012 eta 2013 bitartean berriz ere behera egin zuen, hain zuzen ere %,4,2, 6.367 Ktep-eraino.

Bestalde, goranzko joera izan du energiaren amaierako kontsumoak 2008ko krisira arte. Ondoren kontsumoak gora egin zuen, eta berriz jaitsi da 2012 eta 2013 artean, zehazki %1,6, 5.049 Ktep-eraino. Amaierako kontsumorik handieneko sektoreak industria (guztizkoaren %41,6) eta garraioa (%36,6) dira. Sektoreen arabera, industriak %3,1eko jaitsiera du, zerbitzuek %4koa, bizitegienak %3,1ekoa eta lehen sektoreak %5,4koa. Hazkundea izan duen sektore bakarra garraioarena izan da, %1,3arekin.

Halaber, 2012 eta 2013 artean lehen mailako energiaren ekoizpena %5,1 hazi da, 365,5 Ktep-etik 384,3era; eta ekoizpen hori, batez ere, energia berriztagarrietan oinarritu da (norberaren iturri nagusia). Energia horiek, bestalde, %0,4 handitu dira (359,5 Ktep-etik 361,1era).

Lehen mailako energiako norberaren (384,3 Ktep) produkzio eskas horrek EAEko energia eskariaren (barne kontsumo gordina) %6 asetzea bakarrik ahalbidetzen du (6.366,5). Ondorioz, EAEren kanpoko energiarekiko mendetasuna %94aren ingurukoa da, Estatukoa baino handiagoa (%76,4), 2011n, eta EB27koaren gainetik (% 53,8). Aldi berean, iturri berriztagarrietan oinarrituriko ekoizpenaren bidez (361,1 Ktep), amaierako kontsumoaren %7,2 baino ezin bete daiteke, hots, energia berriztagarriek amaierako kontsumoan duten partaidetza ratioa EB-27koa baino askoz

txikiagoa da (%10 2011n) eta gure Erkidegoak Euskadi 2020 Energia Estrategian (3E2020) ezarritako %14ko helburutik oso urruti. [2]

I.6.10. KOADROA. EAE-REN ENERGIA BALANTZEA

	2013							2012-13ko aldak.						
	Erregai soli-doak	Petrolioa eta deribat.	Gas natu-rala	Energia deribat.	Energia berrizta-garriak	Argin-darra	Guztira	Erregai solidoak	Petro-lioa eta derib.	Gas natu -rala	Energia derib	Energia berrizt.	Argin-darra	Guzti -ra
Lehen mailako energia produkzioa	0,0	0,0	0,0	23,1	361,1	0,0	384,3	0,0			285,0	0,4		5,1
Barne kontsumo eskurag.(eskaria)	49,5	2.622,0	2.423,5	23,1	459,5	788,8	6.366,5	-84,8	1,9	-8,2	285,0	0,9	23,2	-4,2
Transformazio sarrerak	8,3	7.947,1	910,2	9,0	102,0	0,0	8.976,5	-97,5	3,6	-17,4	50,0	13,7		-2,4
Transformazio irteerak	7,0	7.729,7	0,0	0,5	0,0	543,8	8.281,0	-88,8	3,6		0,0		-26,8	0,2
Amaierako energia kontsumoa	47,1	2.003,8	1.418,0	14,7	272,8	1.291,9	5.048,3	-8,4	-0,6	-1,8	2840,0	-9,8	-1,9	-1,6
Industria	47,1	112,3	1.056,7	14,1	126,0	745,9	2.102,2	-8,4	-19,6	-1,2		-21,6	-0,3	-3,1
Garraioa	0,0	1.726,6	0,0	0,0	106,6	13,7	1.846,9	0,0	1,4			2,3	-7,4	1,3
Nekazaritza eta arrantza	0,0	71,7	1,4	0,5	0,6	3,8	78,0	0,0	-5,5	-12,5	0,0	100,0	-11,6	-5,5
Zerbitzuak	0,0	18,3	124,0	0,0	3,1	293,2	438,7	0,0	-20,1	-3,4		19,2	-3,3	-4,0
Egoitzakoa	0,0	74,9	235,8	0,0	36,4	235,2	582,4	0,0	-0,3	-3,8		4,6	-4,5	-3,1

Iturria: EEE. ENERGIA 2013

Izan ere, energia motaren araberako amaierako kontsumoari dagokionez oso interesgarria bera ingurumenaren ikuspegitik, energia mota bakoitzak inpaktu ezberdina daukalako ikus daiteke petrolioa eta eratorritakoak direla oraindik ere kontsumo horren zati handiena, %39,7. Edonola ere, Ktep murriztapena eduki dute aurreko urtearen aldean, %0,6.

Garrantziaren aldetik atzetik ditu gas naturala (kontsumoaren %28, aurreko urtean baino %1,8 gutxiago) eta argindarra (eskariaren % 25,6 da eta %1,9 jaitsi da aurreko urtearen aldean). Oso atzetik ditu energia berriztagarriak, erregai solidoak (ikatza eta hartatik eratorritakoak) eta energia eratorriak (funtsean industria prozesuetan berreskuratutako beroa edo energia transformazioa kogenerazioa adibidez biltzen ditu).

Azkenik, energiaren intentsitatea ekonomiaren energia eraginkortasunaren adierazlea da, eta amaierako kontsumoa zati BPGko unitatea eginda neurtzen da, eta haren azterketak agerian uzten du energia eraginkortasuna 2013an 2005ekoa baino %12 txikiagoa dela, baina %1eko hobekuntza dakar 2012koaren aldean, energiaren amaierako kontsumoaren murrizteari esker, BPG baino puntu bat gehiago.

I.6.3. GRAFIKOA. ENERGIAREN INTENTSITATEAREN BILAKAERA



Iturria: EEE

2 Gogoratu behar dugu Europako Estrategia 2020an EBrako helburua %20 dela.

Energiaren fakturari dagokionez, urteetan igoera handia izan ostean, kontsumoa murriztu eta prezioak gutxi handitu dira. Horren ondorioz, %2,1 egin du behera energiaren kostuak 2013an azken kontsumitzailearentzat, eta guztira 6.093 milioiraino.

Kostu horretatik, %47 (2.866 milioi euro) garraioaren sektoreari dagokio, %25,2 (1.536 milioi euro) industriari, %15 etxebizitzaren sektoreari, %11,2 zerbitzuei eta %1,6 lehen mailako sektoreari.

Petrolioaren deribatuak garraioaren fakturaren %92,4 dira. Industrian, argindarra fakturaren %57,4 da eta gas naturala, berriz, %40. Etxebizitzaren sektorearen faktura %59 handitu da azken 6 urtean (2007ko 574 milioi euroetatik 914 milioietara), baina 2013an %4,9 egin du behera.

I.6.4. GRAFIKOA. ENERGIAREN FAKTURAREN BILAKAERA



Iturria: EEE

Etxeko kostua 1.058 eurokoa da 2013an eta biztanleko kostua 412 eurokoa.

I.6.11. KOADROA. ENERGIAREN FAKTURAREN ADIERAZLEAK ETXEBIZITZAREN SEKTOREAN

	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Energiaren kostua (M€ korronteak)	556	557	574	711	753	786	856	961	914
Kontsumoa biztanleko (€ biztanleko)	263	262	267	329	347	362	393	434	412
Kontsumoa etxeko (€ etxeko)	715	708	718	857	895	938	1.008	1.115	1.058

Iturria: EEE

7. I+G+B JARDUERAK ETA IKTak

7.1. I+G ARLOKO EUSKAL SISTEMAREN ADIERAZLE NAGUSIAK

I+G+ arloko gastua.

EUSTATen arabera, 2013an 1.316,8 milioi euro (2012an baino -% 4 gutxiago) inbertitu zituzten I+G jardueretan EAEn. Lurralde historikoen arabera, gastuaren % 13 Araban egin zuten, % 47 Bizkaian eta % 40 Gipuzkoan.

I+G arloko intentsitatea eta ahalegina.

Intentsitateari dagokionez, 2013an biztanle bakoitzeko gastua 605,2 euro izan zen, 2012koa baino (630,1 euro) txikiagoa.

I.7.1. KOADROA. I+G ARLOKO AHALEGINAREN BILAKAERA. EREDU DIREN HERRIALDEAK, EUROGUNEA ETA EAE

	2008	2009	2010	2011	2012	2013
EAE	1,87	2,00	2,01	2,01	2,06	1,99
Espainia	1,32	1,35	1,35	1,32	1,27	1,24
Eurogunea	1,9	1,99	2,0	2,04	2,09	2,12
Frantzia	2,06	2,21	2,18	2,19	2,23	2,23
Danimarka	2,78	3,07	2,94	2,97	3,03	3,05
Alemania	2,6	2,73	2,72	2,8	2,88	2,94
Suedia	3,5	3,42	3,22	3,22	3,28	3,21
Finlandia	3,55	3,75	3,73	3,64	3,43	3,32
AEB	2,77	2,82	2,74	2,77	2,81	-
Japonia	3,47	3,36	3,25	3,38	-	-

Iturria: EUSTAT eta EUROSTAT.

Bestalde, BPGren gaineko I+G gastua (ahalegina), EUSTATen arabera, %1,99 izan zen; azken hamar urteetan BPGren urte arteko ratioak behera egin duen lehen aldia da. Ehuneko hori eurogunekoa baino (%2,12) txikiagoa da, eta baita gai horretan eredu diren herrialdeetakoa baino txikiagoa ere: Finlandia (%3,32), Suedia (%3,21), Japonia (2011n %3,38), Danimarka (%3,05), Alemania (%2,94), Estatu Batuak (2012an %2,81) eta Frantzia (%2,23). Dena den, Suediako eta Finlandiako ratioek ere behera egin dute, EUROSTATen datuen arabera.

EINen arabera, EAEn I+G arloan egindako ahalegina BPGren %2,09 izan zen 2013. urtean. Estatuko batezbestekoa %1,24 da (2012an %1,27), eta, EAEz gain, autonomia-erkidego hauek dituzte ratio handienak: Nafarroa (%1,79), Madril (%1,75) eta Katalunia (%1,5).

2013an ahalegin gutxiago egin zenez, Europako helburua are urrunago dago.

I.7.2. KOADROA. EAEko ZIENTZIARI ETA TEKNOLOGIARI BURUZKO ADIERAZLEAK

	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
I+G+ arloko gastuak												
Guztira (mila eurotan)	**672.104**	**699.960**	**768.884**	**823.459**	**907.721**	**1.090.265**	**1.263.877**	**1.280.917**	**1.360.271**	**1.366.234**	**1.372.901**	**1.316.787**
Urteko igoera (%)	8,6	4,1	9,8	7,1	10,2	20,1	15,9	1,3	6,2	0,4	0,5	-4,1
Biztanleko (eurotan)	321,6	334,1	365,4	389,3	426,0	507,6	584,3	590,5	625,7	626,3	630,1	605,2
BPGren gaineko %	1,47	1,43	1,45	1,45	1,48	1,65	1,87	2,00	2,01	2,01	2,06	1,99(a)
Langileak (AOB)												
Guztira	**11.165,0**	**11.352,6**	**11.925,1**	**12.505,5**	**13.065,3**	**14.434,9**	**15.373,2**	**16.690,4**	**17.531,9**	**17.879,2**	**18.681,9**	**18.452,4**
Urteko igoera	5,1	1,7	5,0	4,9	4,5	10,5	6,5	8,6	5,0	2,0	4,5	-1,2
Lanpostu baliokideen gainean (‰)	12,9	12,8	13,1	13,4	13,7	14,7	15,6	17,7	18,8	19,3	20,9	21,3
Langile ikertzaileak (AOB)												
Guztira	**6.294,8**	**7.142,1**	**7.414,2**	**7.819,7**	**8.145,0**	**9.220,4**	**9.640,1**	**10.386,2**	**11.070,8**	**11.283,1**	**11.771,7**	**11.842,9**
Urteko igoera	8,4	13,5	3,8	5,5	4,2	13,2	4,6	7,7	6,6	1,9	4,3	0,6
Lanpostu baliokideen gainean (‰)	7,3	8,1	8,1	8,4	8,5	9,4	9,8	11,0	11,9	12,2	13,2	13,7

Iturria: EUSTAT. Ikerketa zientifikoko eta garapen teknologikoko jarduerei buruzko estatistika.

I+G arloko gastua egikaritze-sektorearen arabera[1].

Gastu gehien enpresetan egin zuten, %75,4 (992,6 milioi euro), hain zuzen ere; %18,2 (239,4 milioi euro) goi-mailako hezkuntzan, eta gainerakoa, %6,4 (84,7 milioi euro) administrazioaren mende dauden erakundeetan.

Aurreko urteko egoerarekin alderatuta, EAEko enpresa-sektorea da beste behin gastu gehien egin duena, nahiz eta sektorearen partaidetza-portzentajeak sei hamarren behera egin duen. Goi-mailako irakaskuntzan eta herri-administrazioan, aldiz, ehunekoek hiru hamarren eta hamarren bat egin dute gora, hurrenez hurren.

Gastuaren egitura hori estatuko 2013ko batezbestekoaren oso desberdina da: estatuan, enpresek I+G gastuaren %53,4 egin zuten, goi-mailako irakaskuntzako erakundeek %27,9 eta herri-administrazioak %18,7. EB28ko banaketa ere desberdina da, baina, EUSTATen arabera, aldeak ez dira hain handiak.

I+G arloko gastuaren finantziazioa (funtsen jatorriaren araberako gastua). Sektore pribatuak 2012an gastuaren %54,3 finantzatu zuen eta 2013an %57,1; sektore pribatuaren partaidetzak, beraz, gora egin du. Herri-administrazioak gastuaren %34,9 finantzatu du. Estatuan, EINen arabera, sektore pribatuak gastuaren % 46,3 finantzatzen du (Europako helburuaren 19,7 puntu azpitik dago) eta herri-administrazioak % 41,6. Eurogunean, 2012ko portzentajeak % 56,9 eta % 33,4 izan ziren, hurrenez hurren (EUROSTAT). Herrialde hauetan I+G gastuaren finantziazio pribatuaren ratioa oso handia da: Japonia (2011n %76,5), Alemania (2012an %66,1), Finlandia (%60,8), Danimarka (%59,8), Estatu Batuak (2012an %59,1) eta Suedia (2011n %57,3).

I.7.3. KOADROA. SEKTORE PRIBATUAK ETA SEKTORE PUBLIKOAK FINANTZATUTAKO I+G GASTUA (gastu osoaren gaineko ehunekoa)

	Sektore pribatuak finantzatutakoa			Herri-administrazioak finantzatutakoa		
	2011	2012	2013	2011	2012	2013
EAE (EUSTAT)	53,3	54,3	57,1		36,0	34,9
ESTATUA (EIN)	43,3	45,6	46,3	44,5	43,1	41,6
EUROGUNEA (EUROSTAT)	56,8	56,9	z.g.	33,8	33,4	z.g.

Iturria: EUSTAT, EIN eta EUROSTAT.

Euskal Autonomia Erkidegoa, beraz, Europako helburuaren 8,9 puntu azpitik dago; helburu hori da, zehazki, I+G gastuaren %66 funts pribatuekin finantzatzea.

Kontuan hartzen badugu EAEko BPG 2013an 66.081 milioi eurokoa izan zela (EUSTAT[2]), sektore pribatuak finantzatutako I+G arloko gastua (751,5 milioi euro) BPGren %1,5 da. Europako 2020. urterako helburua %2 da. Aldiz, herri-administrazioak finantzatzen duen I+G gastua (460,1 milioi euro) EAEko BPGren %0,7 da. Europako helburua %1 da.

I+G arloko gastua diziplina zientifikoaren arabera.

Ingeniaritza eta teknologia nagusitu dira berriz (gastu osoaren %70,4); horien atzetik datoz, alde handiarekin, medikuntza-zientziak (%10,9), zientzia zehatzak eta natura-zientziak (%9,7), eta, azkenik, gizarte- eta nekazaritza-zientziak (%6,2 eta %2,8, hurrenez hurren).

Funtsen jatorriari dagokionez, ingeniaritza eta teknologia batik bat sektore pribatuak finantzatzen ditu. Zehazki, %72,5 sektore pribatuak finantzatzen du eta %20,3 sektore publikoak. Medikuntza-zientzietan, zientzia zehatz eta natura-zientzietan, gizarte-zientzietan eta nekazaritza-zientzietan kontrakoa gertatzen da, herri-administrazioak gastuaren %61,3, %77,4, %62,6 eta %73 finantzatzen baitu.

1 Komeni da kontuan hartzea administrazioaren I+G arloko gastuaren zati handi bat Zentro Teknologikoen Sarearen bitartez bideratzen dela; izan ere, zentro horiek, haien izaera juridikoa dela eta, enpresa-sektorearen parte dira eragiketa estatistiko horretan.

2 Datua 2014ko azaroaren 26koa da.

I.7.4. KOADROA. I+G ARLOKO BARNE-GASTUAK, DIZIPLINA ZIENTIFIKOAREN, EGIKARITUTAKO SEKTOREAREN ETA FUNTSEN JATORRIAREN ARABERA (MILA EUROTAN)

	2013						2012 eta 2013 arteko aldearen %					
	Guztira	Funtsen jatorria					Guztira	Funtsen jatorria				
		Admin.	Goi-mailako irak.	Enpr.	IAGEP	Atzer.		Admin.	Goi-mailako irak.	Enpr.	IAGEP	Atzer.
Diziplina zientifikoa												
Guztira	**1.316.787**	**460.058**	**22.365**	**751.528**	**3.426**	**79.411**	**-4,1**	**-6,9**	**-35,6**	**-2,1**	**-41,7**	**12,1**
Medikuntza-zientziak	142.880	110.617	5.608	17.970	596	8.088	**4,3**	5,6	-1,3	4,6	-46,5	-2,8
Ingeniaritza eta teknologia	926.945	187.965	11.540	671.614	684	55.143	**-5,6**	-16,9	-23,6	-2,9	-47,1	15,3
Zientzia zehatzak eta natura-zientziak	127.736	78.278	1.569	39.155	1.418	7.317	**-6,3**	-7,4	-25,1	-0,3	-51,7	-1,5
Nekazaritza-zientziak	36.977	23.156	222	9.304	9	4.287	**9,8**	4,0	59,7	8,1	0,0	61,4
Gizarte-zientziak	82.248	60.042	3.426	13.485	719	4.576	**-2,2**	6,5	-70,7	24,1	36,7	-1,3
Egikaritutako sektorea												
Enpresak	992.631	190.449	1209	733.045	1755	66173	**-4,7**	-18,3	100,2	-1,8	-61,9	17,6
Herri-administrazioa	84.735	74.832	427	5.218	682	3.577	**-2,1**	-2,4	216,3	-11,8	11,8	9,3
Goi-mailako irakaskuntza	239.422	194.777	20729	13.265	989	9.661	**-2,3**	5,7	-39,0	-11,2	48,9	-14,9

Iturria: EUSTAT. "I+G jarduerei buruzko estatistika".

I+G arloko langileak (AOB).

EUSTATen arabera, arduraldi osoko (AOB) 18.452 langile daude, 2012an baino %1,2 gutxiago; urtearteko datuek behera egin duten lehen aldia da, 19 urtean. Hala eta guztiz ere, kopuru hori ekonomia osoko enplegu-galera baino askoz txikiagoa da.

Egikaritze-sektoreen arabera, 13.183 langile enpresetan daude (langile guztien %71,5), 4.084 goi-mailako irakaskuntzan (%22,1) eta 1.185 herri-administrazioan (%6,4).

Lanbideari dagokionez (ikertzaileak, teknikariak eta laguntzaileak), %64,2 ikertzaileak dira, %26 teknikariak eta %9,8 laguntzaileak. Dena den, sektore guztietan ez da berdin gertatzen: goi-mailako irakaskuntzan, esate baterako, ikertzaileen ratioa %80,2 da.

Langileak sexuaren arabera sailkatuz gero, ikusten da langile guztien % 35,6 baino ez dela emakumezkoa. Alde horretatik, herri-administrazioan eta goi-mailako irakaskuntzan langile gehienak emakumeak dira (% 54,0 eta % 51,7, hurrenez hurren), eta enpresetan, berriz, emakumeen ratioa oso txikia da (% 28,9).

I.7.5. KOADROA. LANGILEAK, EGIKARITZE-SEKTOREAREN ETA LANBIDEAREN ARABERA

	GUZTIRA		EMAKUMEAK		Ikertzaileak		Teknikariak		Laguntzaileak	
					2013					
	2012	2013	2012	2013	k	Kopuru oso horizontalaren %	k	Kopuru oso horizontalaren %	k	Kopuru oso horizontalaren %
Guztira	**18.681,9**	**18.452,4**	**6.474,3**	**6.569,6**	**11.842,9**	**64,2**	**4.792,5**	**26,0**	**1.817,0**	**9,8**
Enpresak	13.439,5	13.183,5	3.832,6	3.816,2	7.944,0	60,3	3.958,7	30,0	1.280,8	9,7
Herri-administrazioa	1.183,9	1.185,4	630,5	640,2	623,9	52,6	469,8	39,6	91,7	7,7
Goi-mailako irakaskuntza	4.058,5	4.083,5	2.011,2	2.113,2	3.275,0	80,2	364,0	8,9	444,5	10,9

Iturria: EUSTAT, I+G jarduerei buruzko estatistika.

Patenteak eta erabilgarritasun-ereduak.

Patente-eskarien kopuruak gora egin zuen 2012tik 2013ra, 149tik 225era, hain zuzen ere; eta baita indarrean dauden patenteen kopuruak ere: 2012an 210 ziren eta 2013an 217. Erabilgarritasun-ereduen[3] eskariak gutxitu egin ziren; emakidak, berriz, ugaritu: 2012an 112 ziren eta 2013an 130.

I.7.6. KODROA. PATENTEAK ETA ERABILGARRITASUN-EREDUAK EAEn

	Eskari-kopurua				Emakida-kopurua			
	2010	2011	2012	2013	2010	2011	2012	2013
Patente-kopurua	185	173	149	225	184	196	210	217
Erabilgarritasun-ereduen kopurua	122	146	124	113	119	141	112	130

Iturria: EUSTAT. I+G jarduerei buruzko estatistika.

Euskal Autonomia Erkidegoan, BPGko bilioi bakoitzeko (EAP eurotan) PCT[4] patente-eskarien adierazlea 1,95 da. Adierazle hori beste lurralde batzuetakoekin alderatuz gero, kontuan hartuta "*Berrikuntza-adierazleen taula (IUS 2014)*", ikusten da estatuko batezbestekoaren (1,64) gainetik baina EB27ko batezbestekoaren (3,92) eta eredu diren herrialdeen azpitik dagoela. Herrialde horiek dira Finlandia (10,36), Suedia (9,98), Alemania (7,51), Danimarka (6,50), Herbehereak (5,45) eta Frantzia (4,19).

I.7.7. KOADROA. I+G ARLOKO GASTUEN ETA ESKATUTAKO PATENTEEN ARTEKO ALDERAKETA

	I+G gastua/BPG (%)	Patente eskaria BPGko bilioi bakoitzeko (EAP)
EAE	**1,99**	**1,95**
Espainia	1,24	1,64
EB27	2,02	3,92
Frantzia	2,23	4,19
Herbehereak	1,98	5,45
Danimarka	3,05	6,50
Alemania	2,94	7,51
Suedia	3,21	9,98
Finlandia	3,32	10,36

Iturria: EUROSTAT, EUSTAT eta IUS, 2014.

Izan ere, ratioak hobera egin duen arren, agerian geratu da berriz ere Euskal Autonomia Erkidegoan I+G jardueretan egiten diren gastuak emaitza bilakatzeko zailtasunak ditugula, hau da, eraginkortasuna eta produktibitatea txikiagoak direla.

7.2. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ENPRESEN SEKTOREKO I+J JARDUERAK, ZTESeko ZENTRO TEKNOLOGIKOAK ALDE BATERA UTZITA

EUSTATen datuen arabera, 2013an 1.537 enpresek (2012an baino 28 gutxiagoak) gauzatu zituzten I+G jarduerak (hori, Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sareko zentro teknologikoak aintzat hartu gabe); enpresa horietatik 712 industria-sektorekoak dira eta 762 zerbitzu-sektorekoak.

I.7.8. KOADROA. I+G ARLOKO ENPRESA- ETA LANGILE-KOPURUAREN BILAKAERA (ZTESeko ZTak gabe)

	Enpresa-kopurua				Langileak (AOB)
	2010	2011	2012	2013	2013
Guztira	**1.515**	**1.488**	**1.565**	**1.537**	**10.468,8**
Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza, erauzketa-industriak eta energia	11	14	17	15	268,6
Industria	750	691	716	712	5.194,1
Eraikuntza	41	46	50	48	152,9
Zerbitzuak	713	737	782	762	4.853,2

Iturria: EUSTAT, I+G jarduerei buruzko estatistika.

Jarduera horietan arduraldi osoan lan egiten duten langileei dagokienez, industria- eta zerbitzu-sektoreetan daude gehien: industrian %49,6 (5.194,1 AOBn) eta zerbitzuetan %46,4 (4.853,2 AOBn), hain zuzen ere. Alde horretatik, industriako langileen %3 baino ez da aritzen I+G jardueretan.

[3] *Erabilera-eredu gisa babestu daitezke objektu bati erabiltzeko edo fabrikatzeko abantailatsuak diren itxura, egitura edo osaketa ematen dizkioten asmakizunak, betiere berriak badira eta asmamena baliatuz sortu badira. Bereziki, erabilera-eredu gisa babestu daitezke baldintza horiek betetzen dituzten lanabes, tresna, erreminta, aparatu eta gailuak edo horien zatiak.*

4 Patenteen gaineko Lankidetza Ituna.

Jarduera nagusitzat I+G duten enpresak alde batera utzita[5], sektore hauetan dago I+G jardueretan aritzen den langile gehien: doitasun-materialak (EAEn I+G jardueretan lan egiten duten guztien %11,2), makina-erremintak (%10,6), material elektronikoa (%9,1), etxetresnak (%8,3), material elektrikoa (%6,1) eta informatika-jarduerak (%5,8).

Horren harian, antzeman dugu euskal enpresek I+G gastuak beren funtsekin finantzatzen jarraitzen dutela, neurri handi batean.

I.7.9. KOADROA. ENPRESA SEKTOREKO ADIERAZLEAK (ZTESeko ZTak gabe) JARDUERA-ADARREN ARABERA. I+G 2013

		Enpresa Kopu-rua	Lanpostuak, batez beste	Langileak (AOB)	Barne-gastua	Beren funtsen %	Kanpoko funtsen %	EAEko lanpostuak, guztira	EAEn I+G arloan jarduten duten langileen %
Guztira		**1.537**	**79**	**10.468,8**	**793.295**	**76,4**	**23,6**	**853.596**	**1,2**
Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza, erauzketa-industriak eta energia		**15**	**136**	**268,6**	**16.702**	**94,5**	**5,5**	**17.021**	**1,6**
Industria		**712**	**z.g.**	**5.194,1**	**421.639**			**171.684**	**3,0**
M-A	Kimika eta petrolio-finketa	40	51	254,6	13.581	81,4	18,6	5.252	4,8
M-B	Kautxua eta plastikoa	53	89	164,5	6.090	68,1	31,9	12.326	1,3
M-B	Metalarenaz aparteko industria	20	82	72,7	19.402	90,3	9,7	4.695	1,5
M-B	Metalurgia	43	246	223,5	49.531	76,4	23,6	17.606	1,3
M-B	Metalezko gaiak	178	78	707,4	31.071	85,6	14,4	39.893	1,8
M-A	Makina-erremintak	37	83	393,7	27.623	77,9	22,1	3.724	10,6
M-A	Etxetresnak	5	510	270,0	65.057	88,5	11,5	3.258	8,3
M-A	Beste makina batzuk	108	100	929,0	38.464	84,2	15,8	20.992	4,4
M-A	Material elektrikoa	49	122	460,0	19.885	86,9	13,1	7.546	6,1
A	Material elektronikoa	19	95	334,6	22.624	82,8	17,2	3.658	9,1
A	Doitasun-materiala	32	55	334,0	104.228	76,6	23,4	2.973	11,2
M-A	Garraio-materiala	40	325	834,6	14.251	94,5	5,5	17.402	4,8
	Beste manufaktura batzuk	88	52	215,5	9.831	82,9	17,1	32.359	0,7
Eraikuntza		**48**	**58**	**152,9**	**9.831**	**79,2**	**20,8**	**54.034**	**0,3**
Zerbitzuak		**762**	**z.g.**	**4.853,2**	**345.122**			**610.857**	**0,8**
A	Informatika-jarduerak	138	**38**	796,0	39.050	69,8	30,2	13.740	5,8
A	I+G jarduerak	146	16	1.957,5	151.788	53,0	47,0	7.132	27,4
	Beste enpresa-jarduera batzuk	267	26	1.514,3	117.950	73,9	26,1	57.109	2,7
	Beste zerbitzu batzuk	211	125	585,4	36.334	72,1	27,9	532.876	0,1

Iturria: EUSTAT, Ikerketa zientifikoko eta garapen teknologikoko jarduerei buruzko estatistika. I+G

7.3. ZTESeko ZENTRO TEKNOLOGIKOEN I+G JARDUERAK

Euskal Autonomia Erkidegoko berrikuntza-sistemaren bereizgarrietako bat da zentro teknologiko ugari dituela[6], Eusko Jaurlaritzak 80ko hamarkadan hasitako politika teknologikoari esker.

Beste estatistika-erakunde batzuk bezala[7], EUSTATek zentro teknologikoak enpresen sektorean sartzen ditu. Ordea, gure erkidegoan zentro teknologiko horiek I+G zerbitzu-hornitzaile gisa lan handia egiten dutenez, bereiz aztertzea merezi dute, labur-labur bada ere.

[5] *Jarduera nagusitzat I+G jarduerak (ingeniaritza eta aholkularitza teknologikoa) dituzten eta, beraz, gainerakoek ez bezalako profil, helburu eta finantziazioak dituzten enpresak.*

[6] *Zentro horiek nagusiki I+G jarduerak egiten dituzte, eta bigarren-mailako jardueratzat honako hauek dituzte: aholkularitza, prestakuntza, industria-entseguak eta beste zerbitzu teknologiko batzuk. Hiru mota daude: sektore askoko zentro teknologikoak, hau da, hainbat sektoreko enpresei zerbitzuak ematen dizkietenak; zentro teknologiko sektorialak, hau da, sektore zehatz bateko enpresei zerbitzuak ematen dizkietenak; eta I+G enpresa-unitate independenteak, hau da, batik bat enpresa edo enpresa-multzo bati (normalean beren enpresei) zerbitzuak ematen dizkietenak.*

[7] *Frascati metodologia erabiltzen dute. Frascati Eskuliburuko metodologiaren arabera, finantziazio publiko baino pribatu gehiago jasotzen duten zentro teknologikoak enpresen sektorean sartu behar dira. Eskuliburua, "Ikerketa eta garapen esperimentaleko inkestetarako arau praktiko baten proposamena", ELGAren proposamen bat da eta gaur egun eredutzat hartzen dute zehazteko zer jarduera diren ikerketa-arlokoak eta zer jarduera diren garapen-arlokoak.*

2013an, euskal zentro teknologikoek 194,7 milioi euro gastatu zituzten I+G arloan, 2012an baino % 12,7 gutxiago. Halaber, zentro horietako gastuaren pisu erlatiboak, EAEko I+G arloko gastu guztia aintzat hartuta, behera egin du (% 16,2tik % 14,8ra), eta baita enpresen sektoreko gastuan duen pisuak ere (% 21,4tik % 19,6ra).

I.7.10 KOADROA. ZENTRO TEKNOLOGIKOEK I+G ARLOKO BARNE-GASTUAN DUTEN PISU ERLATIBOAREN BILAKAERA

	2011		2012		2013	
Guztira	**1.366.234**	**% bertikala**	**1.372.901**	**% bertikala**	**1.316.787**	**% bertikala**
Enpresak (ZTak barne)	1.038.726	76,0	1.041.198	75,8	992.631	75,4
Zentro teknologikoak	231.160	16,9	222.924	16,2	194.709	14,8
Enpresak (ZTak kanpo)	807.566	59,1	818.274	59,6	797.922	60,6
Herri-administrazioa	83.246	6,1	86.575	6,3	84.735	6,4
Goi-mailako irakaskuntza	244.262	17,9	245.128	17,9	239.422	18,2

Iturria: EUSTAT. I+G jarduerei buruzko estatistika.

Funtsen jatorriaren arabera, % 41,4 enpresen sektoreak finantzatzen du, eta bigarren finantziazio-iturri nagusia administrazioa da (% 34,8).

I.7.11. KOADROA. ZTESeko ZENTRO TEKNOLOGIKOEN ADIERAZLEAK (1)

	Gastua funtsen jatorriaren arabera (mila eurotan)				Langileak (AOB)			
	Guztira	Administrazioa	Enpresak	Beste batzuk (2)	**Guztira**	Ikertzaileak	Teknikariak	Laguntzaileak
2010	**218.762**	89.432	103.184	26.146	**2.672,8**	2.049,5	406,7	216,6
2011	**231.160**	77.740	119.605	33.815	**2.831,7**	2.157,2	409,6	264,9
2012	**222.924**	73.559	111.205	38.160	**2.877,1**	1.990,6	513,5	373,0
2013	**194.709**	67.697	80.635	46.377	**2.747,1**	1.918,6	452,0	376,5

(1) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea.
(2) IAGEP, goi-mailako irakaskuntza eta atzerria.
Iturria: EUSTAT. I+G jarduerei buruzko estatistika.

Arduraldi osoko langileen kopuruak %4,5 egin du behera 2012tik 2013ra: 2.747,1 langile daude eta gehienak (%69,8) ikertzaileak dira.

7.4. IKERKETA UNIBERTSITATEETAN. EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA[8]

Analisia egiten hasi aurretik, komeni da kontuan hartzea ikerketa-taldeen deialdia hiru urtean behin egiten duela Eusko Jaurlaritzak eta, beraz, jarduera horien zenbatekoak hiru urtetik hiru urtera gora egiten duela asko. Ondorioz, urtetik urterako analisia egiteko ikerketa-taldeei dagokien zenbatekoa kentzea komeni da.

Eusko Jaurlaritzaren ikerketa-taldeen jardueretarako partida 25 milioi eurokoa izan zen 2013an, 2010ean baino % 5 handiagoa (2010eko partida 23,7 milioi eurokoa izan zen eta 2007koa 28,5 milioi eurokoa).

Gauzak horrela, lehen aipatu zenbatekoa kenduta, UPV-EHUko ikerketa-jardueretarako partida % 17,7 jaitsi da urtebetean (2012-2013), 57 milioi eurotik 47 milioi eurora, hain zuzen ere. Parterik handiena, alegia % 47,1 (22,1 milioi euro) ikerketa-proiektuetarako da, % 25,8 (12,2 milioi euro) langileak prestatzeko funtsetarako, eta % 14,6 (6,9 milioi euro) Unibertsitatea Antolatzeko Legeko (UAL) 83. artikuluaren babesean sinatutako kontratuetarako. Ikertzaileak eta teknikariak kontratatzeko funtsei partidaren % 8,1 baino ez dagokie.

I.7.12 KOADROA. ESLEITUTAKO / KONTRATATUTAKO I+G+B JARDUERA-MOTEN BILAKAERA (eurotan)

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2012 eta 2013 arteko aldea	2010 eta 2013 arteko aldea
Ikerketa-proiektuak	25.395.032	30.871.317	26.745.792	26.539.707	29.380.420	22.128.122	-24,7	-17,3
I+G kontratuak, UALeko 83. artikuluaren arabera	11.971.837	12.349.125	11.492.239	10.013.434	9.417.928	6.873.277	-27,0	-40,2

[8] *Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU) egiten dituzten I+G+B jarduerei eta jarduera horien neurriari dagokienez, bereizi behar dira, batetik, funts espezifikoak (kanpo-finantziaziodun proiektuak, kontratuak eta hitzarmenak, ikerketa-bekak eta ikerketa-azpiegiturako inbertsioak); eta bestetik, funts orokorrak, zeinak irakasleek ikerketa-jardueretan ematen duten denboraren eta horrek eragiten duen kostu orokorraren zenbatespenean oinarrituta dauden. Gastu horiek dira, zehazki, irakasleen gastuak, ondasun eta zerbitzuen gastuak, inbertsioak eta beste gastu batzuk. Epigrafe honetan aztertzen diren datuak lehenbiziko multzoko funtsei dagozkie, hau da, funts espezifikoei.*

Ikerketa-taldeak*	1.004.766	1.202.900	23.741.678	3.782.468	391.414	24.921.615	-	5,0
Ikertzaileen eta teknikarien kontratazioa	4.380.476	1.771.170	3.935.608	1.500.947	3.851.768	3.810.399	-1,1	-3,2
Prestatzen ari diren langileak	6.617.646	4.601.721	3.687.198	2.386.392	11.781.818	12.104.551	2,7	228,3
Azpiegitura zientifikoa	2.190.378	1.412.019	1.646.001	3.329.225	599.585	468.581	-21,8	-71,5
Ikertzaileen mugikortasuna	472.872	576.779	487.055	631.348	527.045	319.380	-39,4	-34,4
Jarduera bereziak	737.984	253.649	96.818	159.765	194.608	32.490	-83,3	-66,4
Ikerketa Zerbitzu Orokorrek (SGIKER) emandako zerbitzuak		1.186.629	1.086.098	1.212.746	1.269.502	1.183.832	-6,7	9,0
Beste batzuk**	2.008.888	0	0	0	0	0	-	-
GUZTIRA, ikerketa-taldeak gabe	53.775.114	53.022.409	49.176.809	45.773.565	57.022.674	46.920.632	-17,7	-4,6
GUZTIRA, ikerketa-taldeekin	54.779.880	54.225.309	72.918.487	49.556.033	57.414.088	71.842.247	25,1	-1,5

2010eko eta 2013ko datuak ikerketa-taldeentzako Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza osoei buruzkoak dira, baita zenbateko horiek hainbat urtetan erabiltzen badira ere; hori, gainerako jardueren finantziazioa adierazteko erabilitako irizpideekin bat eginez. 2012an Eusko Jaurlaritzak ikerketa-taldeen beste deialdi bat finantzatu zuen, baina 2013ra arte ez zen UPV/EHUko aurrekontuan sartu; beraz, deialdi horrek 2013an du eragin estatistikoa.

*** Dagozkien txostenetan ikerketaren hedakuntza, komunikazio-sareak eta abar gisa daude jasota.***

Iturria: UPV/EHU zenbakitan. Ikerketa.

Funtsen jatorriari dagokionez, hurrengo koadroetan ikusiko dugun moduan, finantziazio-iturri nagusiak autonomia-erkidegoko funtsak ziren. Hori, kontuan hartuta, batetik, Eusko Jaurlaritzaren ikerketa-taldeen deialdiak hartzen duen aldi osoa; eta bestetik, Eusko Jaurlaritzak 2012an ikerketa-taldeen deialdi bat egin zuela eta UPV/EHUk deialdi horretako zenbatekoa 2013an sartu zuela aurrekontuan.

I.7.13. KOADROA. I+G+B JARDUERETARAKO FUNTSEN JATORRIAREN BILAKAERA (eurotan)

	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Autonomia-erkidegoa	37.791.982	17.434.873	15.592.912	36.498.155	11.039.548	8.857.158	35.781.091
Estatua	13.964.226	11.265.410	14.580.074	14.461.611	9.839.843	18.039.229	10.027.986
Kontratazio zuzena	12.879.145	11.971.837	12.931.034	11.972.137	10.533.971	10.359.093	7.736.243
Berezko finantziazioa (programa-kontratua)	12.670.458	8.347.637	8.036.840	5.558.073	9.273.184	11.169.968	11.964.199
Nazioartea	3.699.503	5.760.123	3.184.448	4.428.511	8.869.487	8.988.641	6.332.728
GUZTIRA	81.005.314	54.779.880	54.225.309	72.918.487	49.556.033	57.414.088	71.842.247

Iturria: UPV/EHU zenbakitan. Ikerketa.

I.7.14. KOADROA. I+G+B JARDUERETARAKO FUNTSEN JATORRIA, EUSKO JAURLARITZAREN IKERKETA-TALDEEN DEIALDIEN ARABERA

	2007-09 aldia		2010-12 aldia		2013
	Guztira (eurotan)	% bertikala	Guztira (eurotan)	% bertikala	Guztira (eurotan)
Autonomia-erkidegoa	70.819.767	37,3	56.394.861	31,3	35.781.091
Estatua	39.809.710	21,0	42.340.683	23,5	10.027.986
Kontratazio zuzena	37.782.016	19,9	32.865.201	18,3	7.736.243
Berezko finantziazioa (programa-kontratua)	29.054.935	15,3	26.001.225	14,5	11.964.199
Nazioartea	12.644.074	6,7	22.286.639	12,4	6.332.728
GUZTIRA	190.010.503	100,0	179.888.608	100,0	71.842.247

Iturria: UPV/EHU zenbakitan. Ikerketa.

Zientzia-eremuen arabera, I+G+B jardueren gasturik handiena zientzietara, ingeniaritzara eta arkitekturara bideratzen da; 2013an, ordea, gizarte- eta zuzenbide-zientziek gora egin zuten berriz eta pisua irabazi zuten. Zehazki, 2013an gastuen %42,9 (30,8 milioi euro) zientziei zegokien, %22,6 (16,3 milioi euro) jarduera teknikoei (ingeniaritzari eta arkitekturari) eta %14,9 (10,7 milioi euro) gizarte- eta zuzenbide-zientziei.

I.7.15. KOADROA. I+G+B JARDUEREN BILAKAERA ZIENTZIA-EREMUEN ARABERA						
	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Zientziak	23.288.301	21.521.867	42.292.722	24.445.991	27.318.492	30.838.204
Ingeniaritza eta arkitektura	9.814.894	15.117.305	12.396.143	9.078.666	9.356.914	16.258.017
Osasun-zientziak	3.706.658	4.671.922	5.833.479	4.559.155	7.147.028	8.612.482
Gizarte- eta zuzenbide-zientziak	9.050.252	8.044.579	5.104.294	6.060.703	8.688.210	10.691.236
Artea eta humanitateak	4.724.586	4.869.636	7.291.849	5.411.518	4.903.444	5.442.307
Hainbat eremu	4.195.191	0	0	0	0	0
GUZTIRA	54.779.880	54.225.309	72.918.487	49.556.033	57.414.088	71.842.247

Iturria: UPV/EHU zenbakitan. Ikerketa.

Patenteen alorrean emaitzak eskasak dira berriz ere; gainera, 2011ra arte goranzko joera zuten arren, 2012an behera egiten hasi ziren. Hala, 2013an 59 patente erregistratu zituzten. Alde horretatik, argitalpen-kopuruak eutsi egin dio goranzko joerari eta 2013an 2.294ra heldu da. Gehienak (2.204) zientzien, osasun-zientzien, ingeniaritzaren eta arkitekturaren alorretakoak dira.

Azkenik, aurkeztutako doktore-tesiek ere gora egin dute 2013an: guztira 383 aurkeztu dituzte.

I.7.16. KOADROA. BESTE EMAITZA BATZUK. ARGITALPENAK ETA ERREGISTRATUTAKO PATENTEAK											
	Ekoizpen zientifikoa*			Patenteak							Aurkeztutako doktore-tesiak
	Zientzia, osasun-zientziak, ingeniaritza eta arkitektura	Gizarte-zientziak, zuzenbide-zientziak, arteak eta humanitateak	Guztira	Espainiarrak	Europa-rrak	PCT** (berriak eta luzapenak)	Amerikarrak	Japonia-rrak	Beste batzuk	Guzti-ra	
2008	1.450	231	1.659	7	8	13	5	2	13	48	268
2009	1.551	212	1.742	17	13	6	5	0	11	52	280
2010	1.660	266	1.895	19	8	16	5	0	16	64	321
2011	1.697	295	1.966	25	8	13	4	1	40	91	328
2012	1.993	298	2.253	21	11	11	13	2	21	79	327
2013	2.204	325	2.294	8	6	15	4	0	26	59	383

Iturria: UPV/EHU zenbakitan. Ikerketa eta Ikerketetako emaitzak.

7.5. ENPRESA-SAREKO BERRIKUNTZA-JARDUERAK

7.5.1. Enpresa berritzaileak

Euskal Autonomia Erkidegoko "Berrikuntzari buruzko galdeketa"ko[9] datuen arabera (EUSTAT), 2010-2012 eta 2011-2013 aldien artean enpresa berritzaileen ehunekoak behera egin zuen.

Izan ere, 2011-2013 aldian enpresen %16,7 zen berritzailea, 2010-2012 aldian baino 6 hamarren gutxiago eta krisi ekonomikoaren hasieran, hau da, 2007-2009 aldian baino portzentajezko bi puntu gutxiago. Portzentaje hori ateratzen da kontuan hartuta hala berrikuntza teknologikoko enpresak (produktuak eta/edo prozesuak berritzen dituzte eta enpresen %12,7 dira; aurreko aldian %11,6) nola teknologiaz aparte berrikuntza-jardueretan aritzen diren enpresak (antolamendua eta/edo merkaturatzea berritzen dituzte eta enpresen %9 dira).

Hamar lanpostu eta gehiago enpresak bakarrik aintzat hartuz gero (horrela EUSTATen datuak EINekoekin eta EUROSTATekoekin alderatu ditzakegu, horiek ez baitute hamar lanpostu baino gutxiagoko enpresei buruzko informaziorik), enpresa berritzaileen (teknologikoen eta teknologikoak ez direnen) portzentajea handiagoa da, %34,7, hain zuzen ere (aurreko aldian %36,2). Estatuan, EINen berrikuntzari buruzko galdeketaren arabera, aldi horretako ratioa %26 da (aurreko aldian %25,9).

Lurralde historikoen arabera, Gipuzkoan hamar lanpostu eta gehiagoko establezimenduen %38,9 berritzailea da, Araban %33,5 eta Bizkaian %32,1.

Sektoreka, industria-enpresen %41,9, zerbitzu-establezimenduen %32 eta eraikuntza-enpresen %33,4 dira berritzaileak. Jarduera-azpisektoreei dagokienez, industrian hauek dira nagusi: garraio-materialak (%69,8), produktu informatiko eta elektronikoak; material eta ekipo elektrikoak (%61,4), makinak eta ekipoak (%61,2) eta industria kimikoa eta farmazia-produktuak (%61,1). Eta zerbitzuen sektorean honako hauek: osasun-jarduerak (%87,8) eta finantza- eta aseguru-jarduerak (%64,3).

I.7.17. KOADROA. JARDUERA BERRITZAILEAK GAUZATZEN DITUZTEN ENPRESEN PORTZENTAJEAREN BILAKAERA (EAEko ENPRESA GUZTIEN ALDEAN)

		2007-09	2008-10	2009-11	2010-12	2011-13
Enpresak, guztira	Enpresa berritzaileak (berrikuntza teknologikoa eta teknologiaz apartekoa) (1)	19,8	19,8	17,8	17,3	16,7
	Berrikuntza teknologikoko enpresak (1)	14,5	13,8	12,3	11,6	12,7
	Teknologiaz aparteko berrikuntza-jarduerak dituzten enpresak	11,7	11,8	10,7	10,0	9,1
	EBE, berrikuntza teknologikoko edo teknologiaz aparteko jarduerak dituztenak	17,4	20,3	18,3	17,7	17,1
Bederatzi lanpostu baino gehiagoko enpresak (EINeko eta EUROSTATeko datuekin alderatzeko)	Enpresa berritzaileak (berrikuntza teknologikoa eta teknologiaz apartekoa) (1)	38,9	38,9	37,8	36,2	34,7
	Berrikuntza teknologikoko enpresak (1)	29,8	30,1	30,7	28,6	28,4
	Teknologiaz aparteko berrikuntza-jarduerak dituzten enpresak	26,3	26,2	23,7	23,1	20,0
	EBE, berrikuntza teknologikoko edo teknologiaz aparteko jarduerak dituztenak	40,2	41,4	39,8	38,3	37,6

(1) Ez dira sartzen berrikuntza-jarduerak erabat gauzatu gabe dituzten eta arrakastarik gabeko berrikuntzak egin dituzten enpresak, produktuak (ondasunak edo zerbitzuak) enpresaren, lantokiko antolamenduaren edo kanpo-harremanen barne-jardunbideetan txertatua egon behar baitu.
PEB: arrakastarik izan ez duten enpresa berritzaileak edo arrakastarik izan ez duten berrikuntza-jarduerak martxan dituzten enpresak.
Iturria: EUSTAT. Berrikuntza Teknologikoari buruzko Estatistika.

9 Inkesta hori edozein neurriko eta edozein jarduera-sektoreko establezimenduei egiten zaie, salbu honako hauei: lehen sektorea, herri-administrazioa, elkarteen jarduerak, etxeko jarduerak eta lurraldez kanpoko antolaketa-jarduera eta erakundeak. Hau da, Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalekoei (JESN-2009 2. Berrikuspena), salbu jarduera nagusitzat 01-03, 84, 94, 97, 98 eta 99 ataletako jardueraren bat duten establezimenduei.

I.7.18. KOADROA. 10 LANGILE ETA GEHIAGOKO ESTABLEZIMENDUEN PORTZENTAJEA, BERRIKUNTZA-MOTAREN ETA JARDUERA-ADARRAREN ARABERA

	2011-2013					
	Teknologiaz aparteko berrikuntza-mota		Teknologiaz aparteko establezimen-du berritzaileak	Establezimen-du berritzaile teknologikoak (1)	Establezimen-du berritzaileak (1) (teknologikoak edo teknologiaz apartekoak)	EBE establezimendu berritzaileak (2) (teknologikoak edo teknologiaz apartekoak)
	Antolamen-dua	Merka-turatzea				
Guztira	**16,7**	**10,2**	**20,0**	**28,4**	**34,7**	**37,6**
Araba	14,8	8,4	18,8	27,0	33,5	35,9
Bizkaia	16,5	10,6	19,1	26,5	32,1	35,8
Gipuzkoa	18,0	10,4	21,9	31,7	38,9	41,1
Industria	14,6	10,3	18,3	38,5	41,9	47,6
Erauzketa-industriak, kokegintza eta petrolio-finketa	6,7	.	6,7	18,3	18,3	30,0
Elikagaien eta edarien industria eta tabakoa	8,1	9,8	9,8	27,7	27,7	35,0
Ehuna, jantzigintza, larrua eta oinetakoak	8,0	12,0	20,0	27,3	39,3	39,3
Egurra, papera eta arte grafikoak	8,6	8,4	11,8	22,4	27,8	28,4
Industria kimikoa eta farmazia-produktuak	12,2	28,8	35,2	61,1	61,1	61,1
Kautxua eta plastikoa	15,5	10,0	17,5	40,9	42,8	50,1
Metalurgia eta metalezko produktuak	14,6	8,8	17,6	34,7	39,0	43,6
Produktu informatiko eta elektronikoak. Material eta ekipo elektrikoak	29,5	11,5	30,3	59,3	61,4	68,3
Makinak eta ekipoak	19,1	9,2	21,9	54,4	61,2	67,1
Garraio-materiala	22,9	10,8	28,8	64,1	69,8	76,7
Altzariak eta beste manufaktura batzuk	7,6	14,6	16,5	29,6	31,5	43,2
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	34,0	34,0	34,0	51,8	51,8	71,9
Ur-horniketa eta saneamendua	2,2	3,0	5,2	22,0	22,0	24,2
Eraikuntza	19,8	13,1	23,1	20,8	33,4	36,2
Zerbitzuak	17,3	9,8	20,3	25,3	32,0	33,9
Ibilgailuen merkaturatzea eta konponketa	10,3	8,7	14,5	17,1	21,3	23,1
Garraioa eta biltegiratzea	8,4	6,1	11,8	24,4	31,6	36,1
Ostalaritza	14,9	9,0	17,5	15,8	25,1	25,2
Telekomunikazioak, informatika eta hedabideak	23,7	21,3	30,8	42,0	47,0	51,5
Finantza- eta aseguru-jarduerak	53,5	55,6	61,4	60,2	64,3	64,3
Higiezinen arloko jarduerak	42,9	.	42,9	28,6	50,0	50,0
I+G, aholkularitza eta beste jarduera profesional eta tekniko batzuk	22,1	9,5	24,4	37,4	44,7	50,6
Zerbitzu osagarriak	8,0	3,2	8,0	11,2	16,0	16,7
Bidaia-agentziak eta bidaia-antolatzaileak	.	23,8	23,8	17,5	41,3	41,3
Hezkuntza	14,1	3,7	15,3	26,2	32,1	33,4
Osasun-jarduerak	72,6	20,1	74,4	79,7	87,8	88,6
Gizarte-, aisia- eta kultura-jarduerak eta beste jarduera batzuk	12,5	7,6	16,2	11,6	23,8	23,8

(1) Ez dira sartzen berrikuntza-jarduerak erabat gauzatu gabe dituzten eta arrakastarik gabeko berrikuntzak egin dituzten establezimenduak.
(2) Berrikuntza-jarduerak erabat gauzatu gabe dituzten eta arrakastarik gabeko berrikuntzak egin dituzten establezimenduak bakarrik sartzen dira.
Iturria: EUSTAT. Berrikuntza Teknologikoari buruzko Estatistika.

7.5.2. Berrikuntza teknologikoko jardueretarako gastuak

EUSTATen "*Berrikuntza teknologikoari buruzko inkesta*"ko datuen arabera, berrikuntza teknologikoko jardueretarako gastuak, oro har, behera egin du berriz ere 2013an, 2012koa baino %0,8 txikiagoa baita: 2.563,5 milioi euro, BPGren %3,9. Hamar lanpostu eta gehiagoko enpresetan berriz, 2013ko gastua 2012koa baino %0,8 handiagoa da: 2.197,7 milioi euro, BPGren %3,3.

Beste behin, gastuaren gehiengoa baliatu dute, batetik, I+G barne-jarduerak gauzatzeko (enpresa guztiak aintzat hartuz gero, BPGren %2; eta hamar lanpostu eta gehiagoko enpresak aintzat hartuz gero, BPGren %1,9); eta bestetik, makinak erosteko (enpresa guztiak aintzat hartuz gero, BPGren %0,8; eta hamar lanpostu eta gehiagoko enpresak aintzat hartuz gero, BPGren %0,6).

Jarduera-sektoreen arabera eta hamar lanpostu eta gehiago dituzten enpresei dagokienez, industrian gastua honela banatu dute: garraio-materialean %15,8, metalurgian eta metalezko produktuetan %9,2, produktu informatiko eta elektronikoetan, material eta ekipo elektrikoan %7 eta makina eta ekipoetan %4,5.

I.7.19. KOADROA. BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOKO JARDUERETARAKO GASTUAK, JARDUERA-SEKTOREEN ARABERA. 10 LANPOSTU ETA GEHIAGOKO ENPRESAK. 2013.

	Milaka euro	% bertikala
Guztira	**2.197.738**	**100,0**
Industria	972.712	44,3
Erauzketa-industriak, kokegintza eta petrolio-finketa	3.018	0,1
Elikagaien eta edarien industria eta tabakoa	31.298	1,4
Ehuna, jantzigintza, larrua eta oinetakoak	4.425	0,2
Egurra, papera eta arte grafikoak	2.817	0,1
Industria kimikoa eta farmazia-produktuak	27.623	1,3
Kautxua eta plastikoa	42.861	2,0
Metalurgia eta metalezko produktuak	201.740	9,2
Produktu informatiko eta elektronikoak. Material eta ekipo elektrikoak	153.274	7,0
Makinak eta ekipoak	98.713	4,5
Garraio-materiala	347.101	15,8
Altzariak eta beste manufaktura batzuk	31.407	1,4
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	24.687	1,1
Ur-horniketa eta saneamendua	3.748	0,2
Eraikuntza	53.692	2,4
Zerbitzuak	1.171.334	53,3
Ibilgailuen merkaturatzea eta konponketa	29.725	1,4
Garraioa eta biltegiratzea	10.356	0,5
Ostalaritza	4.049	0,2
Telekomunikazioak, informatika eta hedabideak	140.993	6,4
Finantza- eta aseguru-jarduerak	17.833	0,8
Higiezinen arloko jarduerak	238	0,0
I+G, aholkularitza eta beste jarduera profesional eta tekniko batzuk	583.705	26,6
Zerbitzu osagarriak	2.292	0,1
Bidaia-agentziak eta bidaia-antolatzaileak	40	0,0
Hezkuntza	252.285	11,5
Osasun-jarduerak	109.487	5,0
Gizarte-, aisia- eta kultura-jarduerak eta beste jarduera batzuk	20.330	0,9

Iturria: EUSTAT. Berrikuntza Teknologikoari buruzko Inkesta.

Zerbitzuen sektorean arlo hauetako gastua da azpimarratzekoa: I+G, aholkularitza eta beste jarduera profesional eta tekniko batzuk (gastuaren %26,6).

I.7.20. KOADROA. BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOKO JARDUERETARAKO GASTUAK, BPGren EHUNEKOAREN ARABERA

	ENPRESAK, GUZTIRA					>= 10 LANGILE				
	2009	2010	2011	2012	2013	2009	2010	2011	2012	2013
Guztira (milioi eurotan)	**2.753,4**	**2.581,9**	**2.675,7**	**2.583,7**	**2.563,5**	**2.219,9**	**2.159,5**	**2.214**	**2.179,5**	**2.197,7**
BPGren gaineko %	4,1	4,0	4,0	4,0	3,9	3,3	3,3	3,3	3,4	3,3
I+G barne-jarduerak	1,9	2,1	2,1	2,1	2,0	1,7	1,9	1,9	2,0	1,9
I+G kanpo-jarduerak	0,5	0,5	0,5	0,6	0,6	0,4	0,4	0,5	0,5	0,5
Makinak	1,2	0,8	0,8	0,8	0,8	0,7	0,6	0,6	0,6	0,6
Beste jakintza batzuk	0,1	0,	0,1	0,1	0,0	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1
Prestakuntza	0,1	0,1	0,1	0,1	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Merkaturatzea	0,2	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	0,0	0,1	0,1
Diseinua eta prestaketa	0,1	0,3	0,4	0,2	0,2	0,1	0,2	0,2	0,2	0,2

Iturria: EUSTAT, Berrikuntza Teknologikoari buruzko Inkesta.

7.6. EUROPAKO BERRIKUNTZA-ADIERAZLEEN PANELA, IUS 2014

"*Europako berrikuntza-adierazleen panelak (IUS)*" herrialdeetako ekonomiek berrikuntza-jarduerak gauzatzeko zenbateko gaitasuna duten neurtzen du, hainbat adierazle oinarri hartuta. Azkeneko edizioan, alegia 2014koan, hainbat eremu geografikoko adierazleen datuez gain, eremu horien sailkapena ere egin dute, dagokien adierazle sintetikoaren arabera.

EB27ko herrialdeak lau mailatan daude sailkatuta, lortu duten puntuazioa aintzat hartuta. Lehenbiziko mailan "berrikuntzan aitzindari diren herrialdeak" daude, Suedia (0,74), Danimarka (0,72), Alemania (0,71) eta Finlandia (0,68), hain zuzen ere. Europar Batasuneko kide ez direnak ere aintzat hartuz gero, Suitza ere maila horretan legoke, berrikuntzaren abangoardiako lehen postuan, gainera (0,84).

Bigarren mailan "berrikuntza handiko herrialdeak" daude: Luxenburgo, Herbehereak, Belgika, Erresuma Batua, Austria, Irlanda, Frantzia, Eslovenia, Zipre eta Estonia, 0,64tik 0,51ra arteko puntuazioekin.

Hirugarren mailan "berrikuntza neurritsuko herrialdeak" daude, besteak beste Italia, Txekiar Errepublika, Espainia eta Portugal, 0,45 eta 0,20 arteko puntuazioekin.

Eta laugarren mailan "berrikuntza gutxiko herrialdeak": Polonia, Errumania, Letonia eta Bulgaria, 0,26tik 0,20ra arteko puntuazioekin.

EUSTATen datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko adierazlearen balioa 0,50 da, hau da, EB27ko batezbestekoa baino (0,56) sei ehunen txikiagoa. Balio hori, gainera, berrikuntza handiko herrialdeen multzoko beheko muturretik ehunen batera dago.

I.7.1. GRAFIKOA. IUS-a EUROPARRA BERRIKUNTZA-TAULA 2014. C.A. EUSKADIKO ETA UE27-etako



Iturria.- EUSTAT-a eta Euroepe INNO-aren ALDE: INNO-Metrics-a. Europako Comsión

Panela hiru multzo nagusitan dago egituratua, eta multzo horietan 8 dimentsio eta 25 adierazle daude. Hau da panelaren egitura:

- ✓ Berrikuntzaren "bideratzaileak" delako multzoan hiru dimentsio daude: "giza baliabideak", "ikerketa-sistemak" eta "finantziazioa eta babesa". Multzo horrek zortzi adierazle ditu.
- ✓ "Enpresa-jarduerak" multzoan hiru dimentsio daude: "enpresen inbertsioa", "enpresen loturak eta ekimenak" eta "aktibo intelektualak". Multzo horrek bederatzi adierazle ditu.
- ✓ Eta "output" multzoan bi dimentsio daude: "berritzaileak" eta "eragin ekonomikoak". Multzo horrek zortzi adierazle ditu.

Europako batezbestekoaren aldean, Euskal Autonomia Erkidegoa bi dimentsio hauetan dago haren gainetik: giza baliabideak eta enpresa-inbertsioa. Beste hiru hauetan balioak antzekoak dira: ikerketa-sistema, enpresen loturak eta ekimenak eta eragin ekonomikoak. Gainerako hiru dimentsiotan EAEko puntuazioa EBko batezbestekoa baino txikiagoa da.

Giza baliabideen dimentsioak prestakuntza eta gaikuntza handiko pertsonen eskuragarritasuna neurtzen du, eta EAE dimentsio horretako hiru adierazleetan dago Europako batezbestekoaren gainetik:

- EAEn, 25 eta 34 urte arteko doktore-gradudun berriak mila biztanleko 1,8 dira eta EB27n mila biztanleko 1,7.
- EAEn 30 eta 34 urte arteko biztanleen %41,8k ditu hirugarren mailako ikasketak (unibertsitatekoak edo goi-mailako lanbide-heziketakoak), eta Europako batezbestekoa %35,8 da.
- EAEn gutxienez goi-mailako bigarren hezkuntza amaitu duten 20 eta 24 urte arteko gazteen portzentajea %82,1 da, eta EB27ko batezbestekoa %80,2. 2013an, gainera, adierazle orokor horrek bost ehunen egin du gora.

Enpresa-inbertsioen dimentsioak enpresek I+G arloan eta berrikuntzan egiten dituzten gastuak neurtzen ditu:

- I+G arloko gastu pribatuaren BPGren gaineko portzentajea handiagoa da EAEn (%1,61) Europan batez beste baino (%1,31).
- Berrikuntzako gastuari (I+G arloaz apartekoari) dagokionez, ordea, EAEko negozio-zenbatekoaren portzentajea %0,46 da eta EB27koa %0,56.

Ikerketa-sistemaren irekiera, bikaintasun eta erakargarritasun mailari dagokion dimentsioak sare zientifikoak nazioartean lehiatzeko duen gaitasuna neurtzen du.

- EAEn nazioarteko argitalpen zientifikoen kopurua milioi biztanleko 681 da, Europako batezbestekoaren (343) bi halakoa. Gainera, nazioartean gehien aipatzen dituzten argitalpenen (argitalpen bikainen) portzentajea %11,4 da EAEn, EB27n baino (%11) handiagoa.
- Europar Batasunetik kanpoko doktoreen portzentajea txikiagoa da EAEn (%14) EB27n baino (%24,2). Adierazle horrek behera egin du joan den urtetik eta, ondorioz, adierazle globala ehunen bat jaitsi da.

Enpresen lotura eta ekimenei buruzko dimentsioan enpresa eta erakundeek berrikuntzaren arloan elkarlanean aritzeko egiten duten ahalegina hartzen dute kontuan:

- Barne-berrikuntzadun ETEen portzentajea handiagoa da EAEn (%33,7) EB27n baino (%31,8).
- Ordea, berrikuntzan elkarlanean aritzen diren ETE berritzaileen ehunekoa txikiagoa da EAEn (%9,5) Europar Batasunean baino (%11,7).

Eragin ekonomikoen dimentsioak berrikuntzak enpleguan, esportazioetan eta salmentetan eragiten duen arrakasta ekonomikoa neurtzen du:

- EAEn maila ertain eta handiko produktu teknologiko asko esportatzen dira, baita jakintza-maila handiko zerbitzuak ere, Europan baino gehiago.
- Aldiz, jakintza intentsiboko jardueretako enpleguan, enpresa edo merkatuentzat berriak diren produktuen salmentan eta lizentzia eta patenteengatiko atzerriko diru-sarreretan EAEko zenbakiak txikiagoak dira.

Gainerako hiru dimentsioetan EAEko puntuazioa Europako batezbestekoa baino txikiagoa da, baina adierazle batzuetan EAEko emaitzak Europar Batasunekoak baino hobeak dira (edo antzekoak): EBko marka komertzialak eta produktuak edo prozesuak berritzen dituzten enpresa txiki eta ertainak.

Aitzitik, adierazle batzuen balioak Europako batezbestekoak baino txikiagoak dira:

- ***Finantziazioaren eta babesaren*** dimentsioan, batetik, sektore publikoak I+G arloan egindako gastua; eta bestetik, arrisku-kapitalaren eskuragarritasuna (bietan BPGren gaineko portzentajean).
- **Aktibo intelektualean** dimentsioan, PCT patente-eskarien kopurua, batetik; eta EBko diseinuak, bestetik.
- Eta ***berritzaileen*** dimentsioan, marketina edo antolamendua berritzen dituzten ETEen portzentajea.

I.7.21. KOADROA. EUROPAKO BERRIKUNTZA-ADIERAZLEEN PANELA, IUS 2013-2014. MULTZOAK ETA DIMENTSIOAK. ADIERAZLE KONPOSATUAK.

	IUS 2013			IUS 2014		
	EB27	EAE	ESTATUA	EB27	EAE	ESTATUA
IUS	**0,54**	**0,48**	**0,41**	**0,56**	**0,50**	**0,41**
BIDERATZAILEAK	**0,53**	**0,50**	**0,46**	**0,56**	**0,52**	**0,45**
Giza baliabideak	0,56	0,62	0,43	0,58	0,66	0,41
Ikerketa-sistema	0,48	0,47	0,49	0,54	0,50	0,52
Finantziazioa eta babesa	0,59	0,36	0,44	0,56	0,33	0,40
ENPRESA-JARDUERAK	**0,51**	**0,45**	**0,33**	**0,53**	**0,45**	**0,36**
Enpresen inbertsioa	0,41	0,44	0,22	0,42	0,45	0,23
Enpresen loturak eta ekimenak	0,53	0,50	0,30	0,55	0,52	0,33
Aktibo intelektualak	0,56	0,43	0,40	0,56	0,40	0,44
OUTPUTAK	**0,59**	**0,50**	**0,45**	**0,59**	**0,53**	**0,45**
Berritzaileak	0,57	0,42	0,32	0,55	0,42	0,35
Eragin ekonomikoak	0,60	0,53	0,51	0,60	0,58	0,50

Iturria: EUSTAT.

7.7. EUSKADI 2020 ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA PLANA

Euskadi 2020 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren (Euskadi 2020 ZTBP)[10] helburua da ongizatea, hazkunde ekonomiko iraunkorra eta enplegua hobetzea, *espezializazio adimentsuan* eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistemaren *eraginkortasunaren* hobekuntzan oinarritutako ikerketa-politikaren bidez.

Planaren erreferentzia-esparruak Europako *Europa 2020* eta *RIS 3 Estrategia* programak dira.

Euskadi 2020 ZTBPk hiru lehentasun estrategiko ditu:

- Fabrikazio aurreratua (aeronautika, automobilgintza, ontzigintza eta tren-industria, makina-erreminta, ekipo-ondasunak eta metala). Asmoa da, funtsean, "Basque Industry 4.0" estrategiaren aldeko apustua egitea.
- Energia (elektrizitatea, petrolioa, gasa eta energia berriztagarriak).
- Biozientziak eta osasuna. Goi-mailako gaitasun zientifiko eta teknologikoak sendotzeko (horniketa-teknologiak bateratzeko, mikro-nano-bio-ikt) eta industria-enpresak dibertsifikatzeko.

Eta lau aukera-arlo edo "eremu":

- Iraunkortasunari eta giza inguruneari lotutako nekazaritza-elikagaien industria.
    - Elikagaien gaineko araudia eta segurtasuna.
    - Elikagaiei eta prozesuei aplikatutako berrikuntza eta teknologia.
    - Elikadura-katearen iraunkortasuna.
    - Akuikultura.
    - Gastronomiaren eta sukaldaritzaren industria.

[10] *Eusko Jaurlaritzak 2014ko abenduaren 16an onartu zuen.*

- Lurralde-plangintza eta hiri-berroneratzea: teknologia- eta enpresa-garapenak, zerbitzu aurreratuekin babestuak, arlo hauetan:
    - Lurralde adimentsuen diseinura bideratutako plangintza.
    - Hiri-berroneratzea hiri adimentsuen (smart cities) esparruan.
    - Eraikuntza.
- Aisiarekin, entretenimenduaren eta kulturarekin zerikusia duten nitxo batzuk.
    - Kulturaren eta hizkuntzaren industriak.
    - Sorkuntza-industriak (aisia digitala, multimedia...).
    - Bideo-jokoak.
- Ekosistemekin zerikusia duten jarduera espezifikoak.
    - Urari kutsadura kentzea.
    - Kutsatutako lurrak leheneratzea eta berreskuratzea.
    - Arrisku ekologikoa monitorizatzea.

Planak espezializazio adimentsuan eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistemaren eraginkortasunaren hobekuntzan oinarritutako ikerketa- eta berrikuntza-politika bat gauzatzea proposatzen du, eta horretarako lau ildo estrategiko (IE) eta zeharkako bi ardatz (ZA) zehaztu ditu.

Halaber, genero-berdintasunaren aldeko konpromisoa dago jasoa, elementu horizontal gisa (horretarako gai hori zeharka jorratzea sustatuko dute).

Ildo estrategikoetan eta zeharkako ardatzetan bost helburu operatibo (HO) eta helburu horizontal (HH) bat jaso dituzte, honela antolatuta:

1IE. Espezializazio adimentsuaren estrategia sustatzea zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren bitartez, Euskadiko gizarte-erronkei erantzuna emateko.	1HO. I+G+B jardueretarako baliabide eta inbertsioak espezializazio-arloetan biltzea (RIS3 lehentasun estrategikoekin bat datozen ikerketen ehunekoa % 76tik % 82ra igotzea). 2HO. Oinarrizko ikerketa eta garapen esperimentala bultzatzea (I+G+B arloko jarduera-mixa % 15era igotzea funtsezko inbertsioan, % 30era industria-inbertsioan, eta % 55era garapen esperimentalean; 2012an erlazioa 14/47/39 zen).
2IE. Industria-aitzindaritza sendotzea, erakunde publiko eta pribatuen arteko elkarlana medio.	1HO. I+G+B jardueretarako baliabide eta inbertsioak espezializazio-arloetan biltzea (RIS3 lehentasun estrategikoekin bat datozen ikerketen ehunekoa % 76tik % 82ra igotzea).
3IE. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistemaren bikaintasuna areagotzea.	3HO. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistema emaitzetara bideratzea (zientzia-argitalpen indexatuak 4.500etik 7.500era igotzea, PCT/EPO patente-eskabideak 340tik 500era eta produktu berrien salmentak % 12,48tik % 15era, fakturazioan).
4IE. Zientzian, teknologian eta berrikuntzan giza kapitalaren garapena ziurtatzea.	6HH. Ikertzaileen gaikuntza hobetzea (doktore diren ikertzaileen ehunekoa gaur egungo % 29tik % 35era igotzea; ehunekoa ikertzaile diren langile guztien gainekoa da).
1ZA. Euskal Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistema irekitzea eta nazioarteko bihurtzea.	4HO. Nazioarteko funts gehiago erakartzea I+G+B jardueretarako (I+G+B jardueretarako atzerriko finantziazioa gaur egungo % 5etik % 8ra igotzea 2020rako).
2ZA. Sistema berritzaile eta batua izatea.	5HO. Berrikuntza-jarduerak gauzatzen dituzten enpresen kopurua gehitzea (hamar langile baino gehiago dituzten enpresa berritzaileen kopurua % 45,5etik % 50era igotzea; ehunekoa enpresa berritzaile guztien gainekoa da).

Planak berrikuntza-eredua aldatzea proposatzen du eta, horretarako, jakintza berrien sorkuntzan eta ustiaketan oinarritutako eredu bat sortu behar da. Eta eredu hori gauzatzeko ezinbestekoa da gaur egungo Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea berriz antolatzea, helburu hauek ardatz hartuta:

1.	Agenteen jarduera eta Planean zehaztutako helburuak bateratzea.
2.	Agenteak leku egokienetan jartzea, multzoaren osagarritasuna eta koherentzia maximizatzeko.
3.	Euskadiko ekoizpen-sare sozialaren eraginkortasuna eta balioa areagotzea.
4.	Agenteen dentsitate handiak sortzen dituen ahuleziak konpontzea.
5.	Sarea osatzen duten agente guztien ikusgaitasun publikoa sustatzea, jendeak haien lana ezagutu eta aintzatetsi dezan.

Helburu eta lehentasun bertikal eta horizontal guzti horiek aplikatzeko eta espezializazio adimentsuko RIS3 estrategia garatzeko, gobernantza-eredu berri bat beharko da, ahalbidetuko duena "politika-mailak (erkidegokoa, nazionala, eskualdeetakoa...), sailak (hezkuntza, garapen ekonomikoa, osasuna, ingurumena...) eta berrikuntza-aktoreak (politika-planifikatzaileak, enpresaburuak, ikertzaileak, zerbitzu-hornitzaileak, finantza- eta hezkuntza-

erakundeak...) sinkronizatzeko mekanismoak koordinatzeko eta estrategiak, helburuak, lehentasunak eta ezarpen-metodoak adosteko".

Funtsean, agente publiko eta pribatuak egoki integratzeko gai izango den maila askoko gobernantza-sistema bat ezarri behar da, Eusko Jaurlaritza aitzindari duela.

Aipatu helburuak eta lehentasun bertikal eta horizontalak betetzen direla ziurtatzeko, ezinbestekoa da Euskadin I+G arloan inbertitzen jarraitzeko apustu sendoa egitea, Europan berrikuntzaren eta lehiatzeko gaitasunaren trena ez galtzeko; eta apustu hori funts publikoek eta erakunde pribatuek ere egin behar dute, inbertsioen bidez. 2020. urterako bi helburu lortu behar dira: batetik, hazten jarraitzea eta ezarritako diziplina eta lehentasun bertikaletan Europako batezbestekoari eustea eta, ahal bada, batezbesteko hori gainditzea; eta bestetik, I+G arloko gastuen eraginkortasuna areagotzea, enpleguan eta enpresen lehiatzeko gaitasunean emaitza praktiko hobeak izan ditzaten.

Horren harian, inbertsioa sektore pribatuak gehitu beharko du gehien, erakunde pribatuak baitira aberastasunaren eta enpleguaren benetako pizgarriak. Halaber, bitartekoak lortu beharko dira, batik bat, estatuko eta Europar Batasuneko lehiaketa-deialdietan parte hartuz. EAEko herri-administrazioek ere egin beharko dute beren ekarpena, azken urteetan bezala baina, ahal duten neurrian, erabakitasun handiagoz, testuinguruari dagokionez.

Euskadi 2020 ZTBPn 2014tik 2020ra 11.000 milioi euroko inbertsio publiko eta pribatua egitea aurreikusi dute. Inbertsioaren herena inguru, alegia 3.677 milioi euro, herri-administrazioek jarriko dute eta, alde horretatik, Eusko Jaurlaritzak inbertituko du gehien: 2.737 euro. Enpresek 6.609 milioi euro jarriko dituzte (gutxi gorabehera %60), enpresen ikerketa- eta berrikuntza-proiektuak finantzatzeko. Eta gainerakoa, hau da, 814 milioi euro, Europako funtsen bitartez eta enpresa multinazionalek Euskadin I+G proiektuak laguntzeko jartzen dituzten baliabideen bitartez finantzatuko da. Finean, Planaren asmoa da 2014tik 2020ra I+G+B arloko inbertsio publiko eta pribatua %44 handitzea.

I.7.22. KOADROA. I+G ARLOKO INBERTSIOAK FINANTZIAZIO-ITURRIEN ARABERA. 2014-2020. (Milioi eurotan)

	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	GUZTIRA
I+G arloko barne-gastu guztia	**1.326**	**1.383**	**1.453**	**1.559**	**1.673**	**1.797**	**1.909**	**11.100**
Herri-administrazioen finantziazioa	**461**	**479**	**507**	**526**	**547**	**568**	**590**	**3.677**
Eusko Jaurlaritza	359	366	373	387	402	417	433	2.737
Foru Aldundiak	52	53	54	56	58	61	63	397
Estatuko Administrazio Orokorra	50	60	80	83	87	90	94	543
Enpresen finantziazioa	**779**	**810**	**843**	**918**	**1.001**	**1.091**	**1.167**	**6.609**
Nazioarteko finantziazioa	**86**	**94**	**104**	**114**	**126**	**138**	**152**	**814**

Iturria: Euskadi 2020 ZTBP oinarri hartuta guk geuk egina.

Berrikuntzaren orientazio berri eta sakon bat da. I+G arloko BPGren gaineko gastuen betiko adierazlea osatu egin beharko da lehentasun bertikal eta horizontalei eta espezializazio adimentsuari buruzko adierazleekin. Gainditu beharreko irakasgai berri bat da guztiontzat.

Ez da, beraz, bolumen-kontua bakarrik, berrikuntza beste era batera bideratzeko premia ere bada, batik bat.

Eta gobernantza-sistema eraginkorra izan dadin ezinbestekoa denez inbertsio publikoak egoki itzultzea ziurtatzeko ebaluazio koherente eta integratzailea egitea, Plana zenbateraino betetzen den jakiteko adierazle hauek jaso dituzte:

I.7.23. KOADROA. EUSKADI 2020 ZTBPren AGINTE-MAHAIKO ADIERAZLEAK

Esparru-adierazleak

Helburua	Adierazlea	Gaur egungo egoera	2020rako xedea
1. I+G+B arloko bitartekoak eta inbertsioak espezializazio-eremuetan biltzea.	RIS3 lehentasun estrategikoekin bat datozen ikerketen portzentajea.	%76 (2013)	%82
2. Oinarrizko ikerketa eta garapen esperimentala sustatzea.	I+G+B jardueren mixa (oinarrizko ikerketaren % / industria-ikerketaren % / garapen esperimentalaren %)	14/47/39 (2012)	15/30/55
3. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistema emaitzetara bideratzea.	Indexatutako argitalpen zientifikoak	4.627 (2013)	7.500
	Lehenbiziko kuartilean indexatutako argitalpenen portzentajea	%54,7 (2013)	%55
	PCT/EPO patente-eskariak	340 (2010)	500
	Produktu berrien salmentaren % fakturazioan	%12,48 (IUS 2014)	%15
4. I+G+B arloko nazioarteko funts gehiago erakartzea	I+G+B arloko atzerriko finantziazioaren %	%5	%8
• EAEk H2020 programan parte hartzea sustatzea	EAEko finantziazioaren % esparru-programako funtsetan	%0,89 (461 M€)	%1 (805 M€)
• I+G+B arloan nazioarteko erakunde pribatuen inbertsioa erakartzea	Nazioarteko urteko finantziazio pribatua	6 M€ (2012)	18 M€
5. Enpresa berritzaileen kopurua handitzea	Hamar lanpostu baino gehiagoko enpresa berritzaileen %	%45,5 (2012)	%50
6. Ikertzaileen prestakuntza hobetzea	Doktoreen % ikertzaileen artean	%29 (2013)	%35
	Doktoreen % enpresetako ikertzaileen artean	%8,6 (2013)	%10

Ahaleginaren adierazleak

Adierazlea	2014an zenbatetsia	2020rako xedea
I+G arloko gastu guztia	1.326 M€	1.909 M€
I+G arloko gastua finantziazio-iturrien arabera		
• Herri-administrazioa eta goi-mailako irakaskuntza	461 M€	590 M€
• Enpresen finantziazio pribatua	779 M€	1.167 M€
• Kanpo-finantziazioa (Europakoa eta nazioartekoa)	86 M€	152 M€

Iturria: Euskadi 2020 ZTBP.

7.8. IKT EKIPAMENDUAK ETA ERABILERAK EAEn

7.8.1. Etxeko ekipamenduak

Gure erkidegoan etxeko ekipamendu teknologikoak ugaritzen ari dira etengabe, nahiz eta batzuen eta besteen artean aldeak dauden, ordezko ondasunen finkatzea dela eta. Bideoak, adibidez, pisua galdu zuen DVDa hedatu zenean; eta DVDa, aldi berean, pisua galtzen ari da Interneten eta ordainpeko telebistaren gorakadaren ondorioz.

Hala, EUSTATen "*Informazioaren gizarteari buruzko inkesta*"ren arabera (IGIF, familiak[11] eta biztanleria), 2014an ekipamendu hauek zeuden hedatuen: sakelako telefonoa (inkesta egindako familien %97,9), telebista digitala (%99,6), teletestudun telebista (%90,4), ordenagailua (%78,8) eta DVDa (%69,5).

I.7.24. KOADROA. ETXEAN INTERNETERAKO SARBIDEA DUTEN FAMILIAK. URTEKO BATEZBESTEKOA (%)

	2010	2011	2012	2013	2014
EB28	70	73	76	79	81
Eurogunea	71	74	76	79	83
Belgika	73	77	78	80	83
Danimarka	86	90	92	93	93
Alemania	82	83	85	88	89
Espainia	59	64	68	70	74
Frantzia	74	76	80	82	83
Luxenburgo	90	91	93	94	96
Herbehereak	91	94	94	95	96
Austria	73	75	79	81	81
Finlandia	81	84	87	89	
Suedia	88	91	92	93	90
Erresuma Batua	80	83	87	88	90
Islandia	92	93	95	96	90
Norvegia	90	92	93	94	96
EAE	63	66	68	72	75,9

*** 16 eta 74 urte arteko biztanleak.**
Iturria: EUROSTAT eta EUSTAT, IGIF.

Familia-motaren araberako banaketaren joera aurreko urteetako berbera da: ekipamendu gehien seme-alabadun familiek dute. Haren atzetik datoz seme-alabarik gabeko familiak eta pertsona bakarreko etxebizitzak, ordena horretan.

Gure erkidegoak Europako batezbestekoaren aldean duen egoera erlatiboa zehazteko, Interneteko sarbidea duten etxebizitzen adierazleak emango ditugu orain. Ratioa handiagoa da EB28n eta eurogunean (%81 eta %82, EUROSTATen arabera) EAEn baino (%75,9, EUSTATen arabera), eta EAEko ehuneko hori, gainera, Europako iparraldeko herrialdeetakoa baino txikiagoa da.

I.7.25. KOADROA. EAEko FAMILIAK, ETXEAN DITUZTEN IKT EKIPAMENDUEN ARABERA (urteko batezbestekoak eta familia guztien %)

		2010	2011	2012	2013	2014
Guztira (mila)		707,7	709,9	716,1	720,6	727,3
IKT ekipamenduak	Sakelako telefonoa	95,9	96,1	96,6	97,8	97,9
	Ordenagailua	69,5	71,6	72,5	76,9	78,8
	PDA, tableta, sakelako ordenagailua	4,7	2,5	4,1	17,8	33,2
	Internet	62,2	65,4	67,1	72,3	75,9
	Posta elektronikoa (helbide bat)	21,5	22,8	24,3	21,1	21,8
Telebista-ekipamenduak	Antena parabolikoa	8,0	8,5	6,0	7,2	10,1
	Kable bidezko telebista	31,6	31,1	27,6	21,9	29,4
	Telebista digitala	82,5	93,6	85,1	99,5	99,6
	Ordainpeko telebista	11,3	14,7	15,1	21,8	23,2
	Teletestudun telebista	92,2	91,7	92,9	90,2	90,4
	Bideoa	52,4	47,5	39,6	36,8	33,1
	DVDa	79,8	78,2	73,7	72,3	69,5

Iturria: EUSTAT, IGIF, datu-basea.

[11] *Familia-etxebizitzetan bizi diren sei urte eta gehiagoko pertsonen multzoa.*

7.8.2. 15 urte edo gehiagoko biztanleen ekipamenduak. Ordenagailuaren eta Interneteko konexioaren eta erabileraren barrentzea

Etxebizitza eta familietan IKT ekipamenduak ugaritu diren bezala, biztanleek gero eta ekipamendu teknologiko gehiago dituzte, baina ekipamendu horien barrentzeko moduak eta intentsitateak ez dira berdinak.

I.7.26. KOADROA. 15 URTE ETA GEHIAGOKO EAEko BIZTANLEAK, ETXEKO IKT EKIPAMENDUAREN ARABERA (urteko batezbestekoak eta familia guztien %)

		2010	2011	2012	2013	2014
Guztira (mila)		1.867,8	1.865,3	1.866,8	1.856,5	1.849,8
IKT ekipamenduak	Sakelako telefonoa	94,0	94,3	94,9	95,6	95,8
	Ordenagailua	70,2	71,2	71,6	75,4	77,2
	PDA, tableta, sakelako ordenagailua	4,7	2,7	4,3	17,4	33,6
	Internet	63,8	65,7	66,8	71,4	74,5
	Posta elektronikoa etxean	62,4	63,9	65,5	69,2	70,6
Telebista-ekipamenduak	Antena parabolikoa	7,9	8,6	6,4	7,4	10,3
	Kable bidezko telebista	32,2	31,2	28,1	23,0	30,7
	Telebista digitala	82,3	93,7	84,9	99,7	99,6
	Ordainpeko telebista	11,3	14,6	15,7	22,7	24,2
	Teletestudun telebista	91,7	90,9	92,5	89,9	89,3
	Bideoa	52,5	46,9	39,1	36,3	33,3
	DVDa	77,7	75,8	71,3	69,9	66,5

Iturria: EUSTAT, IGIF, datu-basea.

EUSTATen arabera, 2003an 15 urte eta gehiagoko biztanleen % 54,2k zuen ordenagailua, eta 2014an % 77,2k. Aldi horretan, Interneteko konexioak ere ugaritu egin dira, % 35,8tik % 74,5era, hain zuzen. Posta elektronikoak ere antzeko bilakaera izan du, 2007an aipatu adineko biztanleen % 50,0k zuen posta elektronikoa, eta 2014an % 70,6k.

Ordea, eta teknologia batzuk etxebizitzekin zerikusi zuzena duten arren, kasu batzuetan IKTak ez daude biztanlerian berdin banatuta. Zehazki, banaketa hori sexuaren, adinaren, jardueraren eta prestakuntza-mailaren araberakoa da.

Barrentzea sexuaren arabera. Ordenagailuaren barrentze-tasak 2014an[12] gora egin du gizonen multzoan (portzentajezko 0,7 puntu) eta baita emakumeen multzoan ere (portzentajezko 2,5 puntu). Interneteko konexioaren barrentze-tasak ere gora egin du bi multzoetan: gizonen multzoan 2,8 puntu eta emakumeen multzoan 3,1 puntu. Bi multzoak alderatuz gero, ikusten da gizonen barrentze-tasa emakumeena baino handiagoa dela, baina tarteak gutxitzen jarraitzen du. Izan ere, 2012an ordenagailuaren barrentze-tasen arteko aldea portzentajezko 7,1 puntukoa zen, 2013an 5,9 puntukoa eta 2014an 4,1 puntukoa. Interneteko konexioari dagokionez, 2012an aldea 6,6 puntukoa zen, 2013an 4,4 puntukoa eta 2014an 4,1 puntukoa.

Interneten erabilera sexuaren arabera. Tasak gora egin du bi sexuen multzoetan eta bien arteko aldea 2013koa baino txikiagoa da. Gizonen kasuan erabilera-tasa %71,8 da eta emakumeen kasuan oraindik %64,2. 2013an gizonen tasa emakumeena baino 9,7 puntu handiagoa zen eta 2014an 7,6 puntu.

Barrentzea adinaren arabera. Adinak gora egiten duen heinean, ordenagailua eta Interneteko konexioa dituzten biztanleen portzentajeak behera egiten du (hori, nahiz eta adin-taldeetako tasek, oro har, urtetik urtera hobera egin duten). Hala, 15 eta 24 urte artekoen multzoan, ehunekoak %97,4 eta %94,8 dira. Zerrendan bigarren 25 eta 34 urte artekoak daude, ratio hauekin: ordenagailuari dagokionez, %93,8; eta Internetari dagokionez, %90,1. Aldiz, 45 urte edo gehiagokoen multzoan barrentze-tasak txikiagoak dira: %65 eta %62,4, hurrenez hurren.

Interneten erabilera adinaren arabera. Kasu honetan ere, erabilera-ratioek behera egiten dute adinak gora egiten duen neurrian; ordea, adin txikieneko multzoen eta adin handieneko multzoen arteko aldeak handiagoak dira. Izan ere, 15 eta 24 urte arteko EAEko biztanleen %98k erabiltzen du Internet, eta 45 urtetik gorako biztanleen %48k baino ez. Alde horretatik, 15 eta 24 urte artekoen multzoan tasak behera egin du pixka bat, oso handia izaten jarraitzen duen arren.

[12] *2003-2008 aldian, IGI-familiak atalean urteko 2. eta 4. hiruhilekoetan biltzen zuten informazioa eta, beraz, administrazio elektronikoaren erabilerari buruzko erantzunari zegokion hiruhilekoa inkesta egindako urtean sartzen zen (galdera azken hiru hilabeteetako erabilerari buruzkoa zen). 2009tik aurrera urteko lehen hiruhilekoan biltzen da informazioa eta, hortaz, erabilerari dagokion aldia aurreko urteko azken hiruhilekoa da. Informazioa bildutako urtea kasu guztietan utzi da.*

Barrentzea prestakuntza-mailaren arabera. Prestakuntza-maila zenbat eta handiagoa izan, ordenagailuaren eta Interneteko konexioaren barrentzea ere orduan eta handiagoa da; gainera, bi kasu horietan tasak aurreko urteetakoak baino handiagoak dira. Hala, goi-mailako ikasketak dituzten 15 urtetik gorako biztanleen %95,6k du ordenagailua; portzentaje hori, ordea, %86,7 da bigarren mailako ikasketak dituzten biztanleen multzoan, eta %28,2 baino ez lehen mailako ikasketak dituzten biztanleenean (aurten ratio hori aurreko aldikoa baino handiagoa da). Interneteko konexioen kasuan ere gauza bera gertatzen da, hau da, prestakuntza-maila zenbat eta handiagoa izan, ratioa ere handiagoa da, nahiz eta ehunekoak txikiagoak diren: %92,9 goi-mailako ikasketak dituzten biztanleen multzoan, %84,1 bigarren mailako ikasketak dituzten biztanleenean eta %35 lehen mailako ikasketak dituzten biztanleen multzoan.

Interneten erabilera prestakuntza-mailaren arabera. Aurrekoan bezalaxe, prestakuntza-maila zenbat eta handiagoa izan, Interneteko konexioa orduan eta handiagoa da: %94,5 goi-mailako ikasketak dituzten biztanleen multzoan, %80,6 bigarren mailako ikasketak dituzten biztanleenean eta %13,6 lehen mailako ikasketak dituzten biztanleen multzoan.

Barrentzea lan-egoeraren arabera. Ikasten eta/edo lanean ari diren biztanleen multzoetan barrendu dira gehien, berriz ere, ordenagailuak eta Interneteko konexioa; eta lanik ez duten biztanleen multzoan tasak txikiagoak dira. Hala, ikasleen kasuan ordenagailuen barrentze-ratioa %97,4 da eta Interneteko konexioarena %95,3; lanean ari ez direnen eta langabeen ratioak, berriz, %57,3 eta %53,6 dira, hurrenez hurren.

Interneten erabilera lan-egoeraren arabera. Interneten erabileraren egoera aurrekoaren antzekoa da: ikasten ari diren biztanleen %97,9k erabiltzen du Internet, baina langabeen %38,9k baino ez. Ikasleen erabilera-ratioa konexio-ratioa baino handiagoa da (%97,9 eta %97,4, hurrenez hurren), eta horrek esan nahi du etxetik kanpo ere erabiltzen dutela Internet.

Gauzak horrela, Interneteko konexiorik ez duten pertsonen bereizgarri soziodemografikoen araberako profila hau litzateke: 55 urte edo gehiagoko pertsona da, prestakuntza-maila txikikoa eta langabea. Beraz, esan genezake informazioaren eta komunikazioaren teknologien alorrean kolektibo batzuk gutxietsita daudela. Interneteko konexioa duten pertsonen profila hau litzateke: ikaslea da, 35 urtetik beherakoa, eta maila ertaineko eta goi-mailako ikasketak ditu.

I.7.27. KOADROA. ORDENAGAILUAREN ETA INTERNETEKO KONEXIOAREN ETA ERABILERAREN BARRENTZEA EAEko 14 URTETIK GORAKO BIZTANLEEN MULTZOAN, BEREIZGARRIEN ARABERA (lehen hiruhilekoa eta biztanle guztien %)

		Ordenagailua			Internet					
					Interneteko konexioa etxean			Erabilera		
		2013 I	2014 I	2013-14 aldea	2013 I	2014 I	2013-14 aldea	2013 I	2014 I	2013-14 aldea
15 urte edo gehiagoko biztanleak		75,6	77,2	1,6	71,5	74,5	3	65,8	67,9	2,1
Sexua	Gizonak	78,6	79,3	0,7	73,8	76,6	2,8	70,8	71,8	1
	Emakumeak	72,7	75,2	2,5	69,4	72,5	3,1	61,1	64,2	3,1
Adina	15-24	97,2	97,4	0,2	95,4	94,8	-0,6	98,6	98	-0,6
	25-34	90,3	93,8	3,5	84,5	90,1	5,6	93	95,1	2,1
	35-44	88,1	92,3	4,2	84,5	89,7	5,2	88,9	93,7	4,8
	45 eta gehiago	63,6	65	1,4	59,6	62,4	2,8	45	48	3
Prestakuntza-maila	Lehen mailako ikasketak	36,4	38,2	1,8	33,6	35	1,4	10,7	13,6	2,9
	Bigarren mailako ikasketak	86,4	86,7	0,3	81,2	84,1	2,9	80,1	80,6	0,5
	Goi-mailako ikasketak	94,9	95,6	0,7	91,9	92,9	1	94,8	94,5	-0,3
Jarduera	Ikasleak	98	97,4	-0,6	96,4	95,3	-1,1	98,4	97,9	-0,5
	Landunak	91	91,7	0,7	86,9	89,7	2,8	85,7	88,8	3,1
	Langabeak	54,6	57,3	2,7	50,2	53,6	3,4	38	38,9	0,9

Iturria: Eustat, IGIF.

7.8.3. EAEko enpresetako ekipamenduak

Euskal enpresek IKT ekipamenduak hobetzen jarraitzen dute. Halaber, teknologia horiek erabiltzen dituzten langileen portzentajeak gora egin du urtetik urtera. Dena den, etengabeko hobetze hori moteldu egin da; izan ere, enpresak IKT ekipamendu nagusien asetze-mailara heldu dira, batik bat enpresa handienak.

Ekipamendu ugarienak dira, aurrekoetan bezala, sakelako telefonoa (%87,5) [13], ordenagailua (%82,8), Internet (%81,2) eta posta elektronikoa (%79,7). Establezimendu askok honako hauek ere badituzte: tokiko sarea edo sare hedatua (%63,4), funtsen transferentzia elektronikoa (%62,1), haririk gabeko sareak (wireless) (%50,9), web-orria (%47,1) eta sare pribatu birtualak (VPN) edo balio erantsiko sareak (VAN).

I.7.2. GRAFIKOA. CAPV-aren ESTABLEZIMENDUETAKO HORNIKUNTZA TIKAK (% ESTABLEZIMENDUA)



Iturria: EUSTAT, ESI-empresak

Azkenik, gutxien zabalduta dauden ekipamenduak dira datuen truke elektronikoa (EDI) (%29,8), intranet (%22,4) eta estranet (%15,8).

Jarduera-sektoreen arabera, industria-sektorean dago teknologia hedatuen, gero zerbitzuen sektoreko enpresetan eta ondoren eraikuntza-sektorean. Industria-sektorean, gainera, ekipamendu guztiak daude zabalduta. EAEko industria-sektoreko enpresen %89,4k du ordenagailua, zerbitzuen sektorean %83k eta eraikuntza-sektorean %77,9k. Enpresen arteko jardueraren araberako alde horiek beste ekipamendu batzuetan handiagoak dira, esate batera posta elektronikoan, Interneteko sarbidean eta web-orrietan, non industria-sektoreko portzentajeak %86,9, %86,8 eta %59,6 diren, hurrenez hurren.

I.7.28. GRAFIKOA. EAEko ESTABLEZIMENDUETAKO IKT EKIPAMENDUEN BILAKAERA JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA (establezimenduen %)

	Industria					Eraikuntza					Zerbitzuak					GUZTIRA				
	PCa	emaila	Internet	Sakelako telef.	Web-orria	PCa	e-maila	Internet	Sakelako telef.	Web-orria	PCa	Emai-la	Inter-net	Sakelako telef.	Web-orria	PCa	emaila	Internet	Sakelako telef.	Web-orria
2010	83,0	77,6	78,7	89,1	44,6	76,3	64,8	67,9	91,0	21,8	75,9	68,2	69,5	79,1	35,3	76,5	68,3	69,9	81,7	33,9
2011	83,8	78,6	79,1	88,9	49,3	74,4	67,5	71,0	94,4	26,6	77,1	70,5	72,0	80,0	38,1	77,2	70,7	72,4	82,8	37,3
2012	86,6	82,7	82,6	90,2	51,7	70,4	67,3	67,8	90,0	27,6	77,9	73,4	74,0	79,9	41,3	77,5	73,2	73,8	82,1	40,2
2013	87,4	85,1	84,7	89,8	57,7	80,5	79,8	78,7	89,3	29,8	81,9	77,8	78,3	82,0	44,1	82,1	78,6	78,8	83,6	43,2
2014	89,4	86,9	86,8	92,2	59,6	77,9	77,5	77,6	92,8	34,1	83,0	79,3	81,2	86,3	48,0	82,8	79,7	81,2	87,5	47,1

Iturria: EUSTAT, IGI enpresak.

[13] *Urteko lehen hiruhilekoan biltzen da informazioa eta, hortaz, erabilerari dagokion aldia aurreko urteko azken hiruhilekoa da. Informazioa bildutako urtea utzi da.*

Enplegua estratuen arabera aztertuz gero, ikusten da azken urteetan aldeak murrizten joan direla; EAEko enpresen ekipamendu-maila nagusiki tamainaren araberakoa da, batik bat ekipamendu oinarrizkoenetan. Izan ere, 10 langile edo gehiagoko enpresetako IKT ekipamenduen portzentajea, oro har, enpresa txikienetakoa baino handiagoa da.

I.7.29. GRAFIKOA. ENPRESEN IKT EKIPAMENDUA TAMAINAREN ARABERA *(establezimenduen %)*

	Ordenagailu pertsonala			Posta elektronikoa			Internet			Web-orria		
	2012	2013	2014	2012	2013	2014	2012	2013	2014	2012	2013	2014
Guztira	77,5	82,1	82,8	73,2	78,6	79,7	73,8	78,8	81,2	40,2	43,2	47,1
0-2	66,3	74	74,3	62,4	70,4	70,9	63,5	71	72,8	25,6	28,6	32,6
3-9	89,2	90,9	92,6	84	87	89,4	83,9	86,9	90,5	52,8	56,7	61,1
10-19	97,6	98	96,9	95,2	95,6	94,5	94,4	94,4	94,7	72,4	73,8	78,6
20-49	98,6	98,2	98,9	97,4	98,5	98,9	96,8	98,2	98,8	84	85,2	86,9
50-99	100	99,7	100,0	99,6	99,2	99,6	99,6	99,2	99,6	90,7	93,8	94,9
>= 100	99,9	100	99,6	99,8	99,7	99,5	99,8	99,7	99,5	94,3	96,5	96,7

Iturria: EUSTAT, IGI enpresak.

Enplegu-estratuaren araberako alde hori bi joera hauen ondorioz gutxitu da: batetik, enpresa handiak teknologia nagusien ekipamendu-maila gorenera heltzen ari dira; eta bestetik, bi langile edo gutxiagoko enpresen ekipamendu teknologikoko maila gero eta handiagoa da.

2014an Interneteko sarbidea zuten euskal enpresek (enpresa guztien %81,2k eta bederatzi lanpostu baino gehiagoko enpresen %97,5ek) sarera sartzeko ADSL lineak erabiltzen dituzte batik bat (%81,2). Hala ere, konexio mugikorrak ugaritzen dira gehien urtetik urtera: gaur egun enpresen %75,7k erabiltzen du bide hori (2014tik portzentajea 12,4 puntu igo da).

Enpresak gero eta kontzienteago dira Interneten web-orria edukitzeak duen garrantziaz. Hala, 2014an enpresa guztien %47,1 zegoen sarean (aurreko urtean baino portzentajezko 3,9 puntu gehiago), eta hamar langile edo gehiagoko enpresen %86,3 (aurreko urtean baino portzentajezko 2,7 puntu gehiago). Interneteko konexioa duten enpresak bakarrik kontuan hartuz gero, ehuneko horiek %58,1 eta %88,5 dira, hurrenez hurren.

EUSTATen arabera, enpresen web-orrietan honako hauek aurki ditzakegu: enpresari berari buruzko informazio orokorra, eskaintzen dituzten produktu eta zerbitzuen zerrenda, informazioaren pribatutasun-aitorpena, enplegu-eskaintzak eta saldu ondoko zerbitzuak.

Nazioarteari dagokionez, EAE eta EB zuzen alderatzeko, hamar langile edo gehiagoko enpresen datuak eta dagozkien jarduerak hartu behar dira kontuan (ez dituzte kontuan hartzen finantza-sektorea, herri-administrazioa eta abar). EAEko enpresen Interneteko sarbidearen portzentajeak (%97,5) eurogunekoaren (%97) antzekoak dira. Alde horretatik, euskal enpresetan banda zabal finkoaren erabilera-portzentajea (%95,8) eurogunekoa baino (%92) handiagoa da.

I.7.30. GRAFIKOA. INTERNETEKO SARBIDEA DUTEN ENPRESEN PORTZENTAJEA ETA BANDA ZABALAREN ERABILERA. EREDU DIREN HERRIALDEAK, EUROGUNEA ETA EAE

	INTERNETEKO SARBIDEA			BANDA ZABALAREN ERABILERA		
	2011	2012	2013	2011	2012	2013
Eurogunea	96	97	97	89	92	92
Espainia	97	93	97	96	95	95
Frantzia	96	99	99	92	97	98
Danimarka	98	99	99	91	90	97
Alemania	97	97	99	88	88	86
Suedia	100	100	100	96	98	99
Finlandia	96	96	98	94	95	94

Iturria: EUROSTAT.

Hala eta guztiz ere, software arloko inbertsioari buruzko datuak kontuan hartzea komeni da. Izan ere, azken urteetan arlo horretako inbertsioak behera egin du, eta horrek lotura zuzena du gure gizarte- eta ekoizpen-sareak egoki bilakatzeko eta 4.0 industriaren moduko ekoizpen-ereduetarako bidea arrakastaz egiteko duen gaitasunarekin.

I.7.3. GRAFIKOA CAPV-eko ENPRESEN (SEKTORE EZ PUBLIKOAREN) AKTIBO UKIEZINETAKO INBERTSIOA 2000-2010-a



Iturria: INNOBASQUE

7.8.4. Administrazio elektronikoa

EUSTATen arabera, herri-administrazioarekin izapideak Internet bidez egiten dituzten hamar langile edo gehiagoko establezimenduen portzentajea, Interneteko konexioa dutenena, %67,2 zen 2014an (Araban %69,8, Bizkaian %64,9 eta Gipuzkoan %69,5). Jarduera-sektoreka eraikuntza da nagusi (%70,4), eta haren atzetik datoz industria (%68,5) eta zerbitzuak (%66,6).

Hamar langile edo gehiagoko enpresei dagokienez, %92,1ek Internet bidez egiten ditu izapideak herri-administrazioarekin (Araban %91,2k, Bizkaian %91,8k eta Gipuzkoan %92,9k). Jarduera-sektoreka industria da nagusi (% 93,3), eta haren atzetik datoz eraikuntza (% 92,1) eta zerbitzuak (% 91,7).

Enpresek izapide elektronikoak egiten dituzte, nagusiki, informazioa eskuratzeko (establezimenduen %54,6 eta hamar lanpostu edo gehiagoko establezimenduen %84,4), inprimakiak eta formularioak lortzeko (%52,4 eta %82,4, hurrenez hurren), inprimakiak eta formularioak itzultzeko eta betetzeko (%38,5 eta %68,6, hurrenez hurren), zergak aitortzeko (sozietateen gaineko zerga eta BEZ kasu), gizarte-kotizazioak aitortzeko eta administrazio-prozedurak bideratzeko.

EUSTATen arabera, EAEko 90.019 establezimenduk (lehen sektorekoak alde batera utzita) erabili zuten administrazio elektronikoa

I.7.31. KOADROA. INTERNETEKO SARBIDEA DUTEN EAEko ESTABLEZIMENDUEK HERRI-ADMINISTRAZIOAREKIN EGINDAKO IZAPIDE ELEKTRONIKOAK, LURRALDE HISTORIKOAREN, JARDUERA-SEKTOREAREN ETA TAMAINAREN ARABERA (establezimenduen %)

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Guztira	**52,8**	**59,8**	**61,4**	**61,8**	**64,0**	**63,8**	**67,2**
Araba	52,9	59,3	61,7	60,9	65,7	69,3	69,8
Bizkaia	53,4	58,7	61,2	62,3	62,6	61,7	64,9
Gipuzkoa	52,0	61,5	61,7	61,5	65,3	64,8	69,5
Jarduera-sektorea							
Industria	55,8	63,2	62,9	61,9	63,8	65,8	68,5
Eraikuntza	47,8	56,0	60,6	63,6	68,0	66,4	70,4
Zerbitzuak	53,4	60,1	61,5	61,4	63,3	63,2	66,6
10 lanpostu eta gehiago	**78,8**	**82,2**	**84,9**	**85,2**	**87,8**	**91,3**	**92,1**
Araba	74,5	78,8	84,9	86,1	86,0	90,0	91,2
Bizkaia	79,8	81,4	84,6	83,7	87,2	91,3	91,8
Gipuzkoa	79,6	85,1	85,2	87,0	89,5	91,9	92,9
Jarduera-sektorea							
Industria	79,5	83,5	87,1	89,7	90,2	93,1	93,3
Eraikuntza	77,9	85,0	82,8	81,8	90,7	90,1	92,1
Zerbitzuak	78,7	81,1	84,3	84,1	86,5	90,8	91,7

Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta, IGI administrazioa.

I.7.32. KOADROA. INTERNETEKO SARBIDEA DUTEN EAEko ESTABLEZIMENDUEK HERRI-ADMINISTRAZIOAREKIN EGINDAKO IZAPIDE ELEKTRONIKOAK, EGINDAKO IZAPIDE-MOTAREN ETA TAMAINAREN ARABERA (establezimenduen %) 2014

	Guztira	10 langile eta gehiago
Herri-administrazioekin izapideak egiten dituzte	**67,2**	**92,1**
Informazioa lortzea	54,6	84,4
Inprimakiak eta formularioak lortzea	52,4	82,4
Betetako inprimaki eta formularioak itzultzea	38,5	68,6
Prozedura administratibo bat modu erabat elektronikoan bideratzea	25,0	54,0
Lizitazio elektronikoko sistema batean proposamenak aurkeztea (e-procurement)	6,4	13,5
Langileen gizarte-kotizazioak aitortzea	35,0	59,3
Sozietateen gaineko zerga aitortzea	36,4	57,3
Balio erantsiaren gaineko zerga aitortzea (BEZ)	42,7	61,4
Zerga bereziak edo aduana-eskubideak aitortzea	6,0	17,5
Beste izapide edo zerbitzu batzuk	2,2	2,3

Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta, IGI administrazioa.

2013an[14], hau da, enpresen %54,5ek. Hamar lanpostu edo gehiagoko enpresen kasuan, ehunekoa %89,8 da. Administrazio elektronikoa baliatu zuten, besteak beste informazioa eskuratzeko, formularioak deskargatzeko eta prozedura edo izapide bat osorik bideratzeko.

Herri Administrazio eta Justizia Sailaren "Eskaeraren azterketa, 2014" txosteneko datuen arabera (azken 13 urteetako datuak daude), bi aldi antzematen dira: batetik, 2001etik 2008ra administrazio elektronikoaren erabilera izugarri igo zen (2008ko erabilera 2001ekoaren zortzi halako zen); eta bestetik, 2009tik 2013ra enpresen eta administrazioen Internet bidezko elkarrekintzaren hazkundea moteldu egin zen.

Gaur egungo hazkundearen erritmoari eutsiz gero, hamar urtean, alegia 2025ean, EAEko enpresa guztiek erabiliko lukete administrazio elektronikoa.

Horren harian, 16 eta 74 urte arteko EAEko milioi erdi biztanlek baino gehiagok (biztanleen % 38,2) baliatu zituzten, 2013an[15], herri-administrazioek herritarrekin harremanak izateko eskaintzen dituzten aukerak.

Hazkundea enpresetakoa baino motelagoa izan da, eta ez hain bizia: ehunekoa bikoizteko zazpi urte behar izan dituzte (2003tik 2009ra).

Sexuaren arabera, erabiltzaileen hazkundea orekatua izan da. Dena den, emakumeek administrazio elektronikoa gutxiago erabiltzen dute, %37k, hain zuzen ere; ehuneko hori gizonei dagokiena baino portzentajezko 2,5 puntu txikiagoa da.

I.7.33. KOADROA. ADMINISTRAZIOAREN ADIERAZLEAK

	2003	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Administrazio elektronikoa erabili duten establezimenduak* (establezimendu guztien %)	15,1	35,1	41,6	43,0	44,7	47,2	50,3	54,5
Administrazio elektronikoa erabili duten hamar lanpostu edo gehiagoko establezimenduak* (establezimendu guztien %)	51,7	74,4	78,9	81,6	82,8	84,9	88,6	89,8
Administrazio elektronikoa erabili duten 16 eta 74 urte arteko biztanleak (%)	15,4	26,3	30,7	32,2	32,9	31,4	35,9	38,2

Iturria: Herri Administrazio eta Justizia Saila. Administrazio elektronikoaren barometroa. Eskaeraren azterketa, 2014.
(*) Lehen sektoreko establezimenduak ez dira sartzen. "Administrazio elektronikoa erabiltzeak" esan nahi du herri-administrazioen atarietan informazioa bilatu dutela, formularioak jaitsi eta/edo bidali dituztela edo izapide edo prozedura bat administrazio elektronikoa medio bideratu dutela oso-osorik.

Datu horiek Euskadiko Agenda 2015eko helburuekin alderatuz gero (helburu horiek ondoko koadroan daude azalduta), ondoriozta dezakegu, adierazleak zuzenean alderatzeko modukoak ez diren arren, biztanleentzat planteatutako helburuak nekez lortuko direla.

Enpresentzako helburuek, aldiz, hobetzeko tartea dutenez, bilakaera hobea izango dute.

I.7.34. KOADROA. EUSKADIKO AGENDA DIGITALA 2015eko HELBURUAK

	2015
Administrazioaren informazioa kontsultatzeko Internet erabiltzen duten 15 urtetik gorako biztanleak (%)	65
Administrazioaren formularioak deskargatzeko Internet erabiltzen duten 15 urtetik gorako biztanleak (%)	50
Administrazioaren formularioak betetzeko eta bidaltzeko Internet erabiltzen duten 15 urtetik gorako biztanleak (%)	45
Lizitazio elektronikoko sistema batean (e-procurement) proposamenak aurkezteko administrazioarekin izapideak egin dituzten enpresak (%)	10

Iturria: Euskadiko Agenda Digitala 2015

Administrazio elektronikoak informazioaren gizartearen bultzatzaile gisa eskaintzen dituen aukerei dagokienez, 2013an EAEko erakunde publikoek eskaintzen zituzten prozedura eta izapide publikoen %40,8ren sofistikazio-maila 4 zen (izapide elektroniko osoa), % 33,9rena 2 (formularioak jaistea) eta % 23,6rena 1 (informazioa). Datuak linean emateko aukera oso txikia da (% 3,2).

[14] *Administrazio elektronikoaren erabilerari buruzko informazioari dagokion urtea dago adierazia, ez informazioa bildutako urtea (hurrengoa).*

[15] *2003-2008 aldian, IGI-familiak atalean urteko 2. eta 4. hiruhilekoetan biltzen zuten informazioa eta, beraz, administrazio elektronikoaren erabilerari buruzko erantzunari zegokion hiruhilekoa inkesta egindako urtean sartzen zen (galdera azken hiru hilabeteetako erabilerari buruzkoa zen). 2009tik aurrera urteko lehen hiruhilekoan biltzen da informazioa eta, hortaz, erabilerari dagokion aldia aurreko urteko azken hiruhilekoa da. Informazioa bildutako urtea kasu guztietan utzi da.*

Erakunde publiko motaren arabera, udalak dira nagusi, prozedura eta izapideen eskaintzaren % 57,4 baitagokie. Udalen atzetik datoz Aldundiak (eskaintzaren % 15,6) eta Eusko Jaurlaritza (% 13).

I.7.35. KOADROA. EAEko ERAKUNDE PUBLIKOEK ESKAINTZEN DITUZTEN PROZEDURA ETA IZAPIDE PUBLIKO ELEKTRONIKOAK, IZAPIDE ELEKTRONIKOEN SOFISTIKAZIO-MAILAREN ARABERA. 2013

	GUZTIRA	SOFISTIKAZIO ELEKTRONIKOKO MAILA								
		1. maila: informazioa			2. maila: formularioak jaistea				3. maila: datuak linean ematea	4. maila: izapide elektroniko osoa
		Guztira	Izena bakarrik	Informazioa bakarrik ematen da	Guztira	Hasiera/eskari-formularioa jaisteko aukera ematen du	Formulario batzuk jaisteko aukera ematen du	Behar diren formulario guztiak jaisteko aukera ematen du	Guztira	Guztira
Guztira	**6.302**	**1.486**	**34**	**1.452**	**2.135**	**1.036**	**151**	**949**	**199**	**2.482**
(% horizontala)	**100**	**23,6**	**0,5**	**23,0**	**33,9**	**16,4**	**2,4**	**15,1**	**3,2**	**39,4**
Eusko Jaurlaritza	818	225	-	225	217	45	21	151	33	343
Foru Aldundia	983	317	15	302	239	50	14	174	14	413
AFA	365	176	-	176	63	12	-	51	-	125
BFA	351	74	3	71	156	35	14	106	3	118
GFA	268	67	12	55	20	3	-	17	11	169
Udalak	3.702	747	11	737	1.469	873	108	488	130	1.356
Mankomunitateak	11	9	4	5	-	-	-	-	-	2
Partzuergoak	22	-	-	-	3	-	-	3	5	15
Erakunde autonomoak	165	74	2	72	39	10	2	27	-	51
Sozietate publikoak	326	80	2	78	41	17	6	18	9	196
Fundazioak	29	-	-	-	3	3	-	-	5	20
Unibertsitate publikoak	246	34	-	34	125	36	-	89	3	85

Iturria: EUSTAT.

7.9. MERKATARITZA ELEKTRONIKOA EAEn

7.9.1. Merkataritza elektronikoa baliatzen duten familia eta biztanleak

EUSTATen *Informazio Gizartearen Panorama 2013* txostenean aztertutako 2003tik 2013rako datuen arabera, EAEko biztanleek nahiago dute erosketak betiko moduan egitea (azken urteetako datuen arabera, %50ek baino gehixeagok). Dena den, euskal gizartea segurtasuna edo pribatutasuna direla eta Internet bidez erosketak egiteko beldurra galtzen ari da (bi kasuetan portzentajeek behera egin dute nahikoa).

Erosketa elektronikoak egiteko errezeloak dituzte, batik bat, ohitura tradizionalak oso errotuta daudelako, premiarik ez dutelako, zerbitzuaren kalitatea eskasagoa dela iruditzen zaielako eta, neurri txikiagoan, pribatutasun- eta segurtasun-arazoak daudela irizten dutelako.

EUSTATen datuen arabera (2014), azkenaldian Interneten konektatu diren biztanleen %41,7k egin du azken hiru hilabeteetan Internet bidez erosketaren bat.

Erosleen %42,8k kirol-materiala eta arropa erosi ditu, %33,9k bidaiak erosi eta oporraldietarako ostatua hartu du eta %21,4k etxerako produktuak erosi ditu. Zerrenda horretan atzetik datoz, ordena honetan, produktu elektronikoak (%14,8), beste produktu edo zerbitzu batzuk (%14,1), ikuskizunetarako sarrera-txartelak (%13,5), liburu eta aldizkariak (%10,8) eta informatikako materiala (%8,6). Eta zerrendaren beheko muturrean daude automobilak, motoak eta osagarriak (%4,9), softwarea eta bideo-jokoak (%4,8) eta musika eta musika-tresnak (%3,6). Bideoak eta pelikulak, finantza-produktu, inbertsio eta aseguruak, loteria eta apustuak eta berriak eta informazioa ez dira %2ra heltzen.

I.7.36. KOADROA. INTERNET BIDEZ EROSKETAK EGIN DITUZTEN 15 URTETIK GORAKO EAEko BIZTANLEAK ***(azken hiru hilabeteetako erosketen %)***

	2003	2013	2014
Azkenaldian Interneten konektatu diren guztietatik azken hiru hilabeteetan erosketak egin dituzten biztanleak	12,5	38,8	41,7
Kirol-materiala, arropa	11,0	35,8	42,8
Bidaiak, oporraldietarako ostatu hartzea	35,0	26,6	33,9
Etxerako produktuak	10,4	15,1	21,4
Elektronika-gaiak	7,5	14,4	14,8
Beste produktu edo zerbitzu batzuk	9,1	20,0	14,1
Ikuskizunetarako txartelak	20,4	10,7	13,5
Liburuak, aldizkariak	19,5	11,8	10,8
Informatikako materiala	6,0	9,7	8,6
Automobilak, motoak, osagarriak	0,4	3,7	4,9
Softwarea, bideo-jokoak	7,8	4,8	4,8
Musika, musika-tresnak	11,6	3,4	3,6
Bideoak, pelikulak	4,2	1,7	1,7
Finantza-produktuak, inbertsioak, aseguruak	0,3	0,7	1,6
Berriak, informazioa	1,4	0,2	1,4
Loteriak edo apustuak	0,3	0,4	1,2

Iturria: EUSTAT, IGI enpresak.

2014an erosketaren bat egin zuten biztanleen %71,1en iritziz Internet bidez erosketak egite aldera kontu-korrontearen edo kreditu-txartelaren zenbakia ematea segurua da. 2003tik 2014ra, Internet bidez ordaintzea oso segurua edo nahikoa segurua dela uste duten biztanleen portzentajeak gora egin du etengabe: %13,2tik %21,6ra eta %42,5etik %51,3ra, hurrenez hurren. Aldiz, biztanleen %19,3k uste du oraindik segurtasun gutxi dagoela, eta %7,8k segurtasun-arazo oso larriak daudela.

Lehen aipatu txostenaren arabera, erosleen %50,2k 100 euro baino gutxiagoko erosketak egin ditu Interneten, eta %38,4k 100 eta 500 euro arteko erosketak. Alde horretatik, %11,4k baino ez ditu egin 500 eurotik gorako erosketak.

Hau da Interneteko eroslearen profila: gizon gaztea da, seme-alabadun familia batean bizi da, erdi- eta goi-mailako ikasketak ditu eta landuna da. Etxerako produktuez, bidaiez eta oporraldietarako ostatu hartzeaz emakumeak arduratzen dira gehien; aldiz, musika, musika-tresnak, kotxeak, motoak, ibilgailuen osagarriak, softwarea eta bideo-jokoak batik bat gizonek erosten dituzte.

7.9.2. Enpresak

EUSTATen datuen arabera merkataritza elektronikoak gora egiten jarraitzen du EAEko enpresa-sarean, gehiago zenbateko ekonomikoen aldetik (eurotan), parte hartzen duten enpresen portzentajearen aldetik baino.

Interneten bidez edo beste sistema elektroniko batzuen bitartez (datuen truke elektronikoa (EDI) eta abar) 2013an egindako salmenten negozio-bolumena 11.072,3 milioi eurokoa izan zen, eta erosketena 8.090,8 milioi eurokoa. Hortaz, 2012tik salmenten bolumena %3,5 igo da, eta erosketena %12,3.

Zenbakitan salmentak erosketak baino handiagoak dira, baina produktuak bitarteko elektronikoen bidez erosten dituzten establezimendu gehiago daude, salmentak egiten dituztenak baino.

Hala, 2013an establezimenduen %21,6k egin zituen merkataritza elektronikoko eragiketak (ehuneko hori aurreko urtekoa baino portzentajezko 1,9 puntu handiagoa da); gehienek, alegia %19,7k erosketak egin zituzten, eta gutxi batzuk, %5,2k, salmentak.

Merkataritza elektronikoan 35.700 establezimendu inguru aritzen dira. Establezimendu horiek erosketa guztien %29,4 eta salmenta guztien %35,9 egiten dute merkataritza elektronikoa medio.

Establezimenduen tamainari dagokionez, hamar lanpostu eta gehiagoko establezimenduen multzoan merkataritza elektronikoa baliatzen dutenen ehunekoa handiagoa da, %27,5, hain zuzen ere (ehuneko orokorra %21,6 da), eta baita erosketa eta salmenta elektronikoak egiten dituztenen portzentajeak ere: %23,4 eta %10, hurrenez hurren.

EUROSTATen datuen arabera, online salmentak (Internet, EDI edo beste bitartekoren baten bidez) egin zituzten hamar lanpostu edo gehiagoko enpresen portzentajea (finantza-sektorea kontuan hartu gabe) %14ra igo da EB28n eta eurogunean. Eta online erosketak (gutxienez eskarien %1) egin zituzten enpresen ehunekoa %18 da EB28n eta eurogunean.

I.7.37. KOADROA. EROSKETAK ETA SALMENTAK JARDUERA-ADARRAREN ETA ENPLEGU-ESTRATUAREN ARABERA (MILIOI EURO)

	Erosketak					Salmentak				
	2009	2010	2011	2012	2013	2009	2010	2011	2012	2013
Guztira	**4.626,4**	**5.284,8**	**6.649,3**	**7.207,6**	**8.090,8**	**7.401,8**	**8.773,6**	**10.530,4**	**10.699,2**	**11.072.3**
Enplegu-estratuak										
0-9	1.752,2	1.764,5	2.012,7	2.082,9	2.610,0	1.096,7	1.528,5	1.943,7	2.067,2	2.157,1
10 eta gehiago	2.901,2	3.520,3	4.636,6	5.124,7	5.480,8	6.305,1	7.245,0	8.586,7	8.632,0	8.915,2

Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta, IGI enpresak.

I.7.38. KOADROA. MERKATARITZA ELEKTRONIKOAN ARITZEN DIREN ESTABLEZIMENDUEN BILAKAERA (%)

	EAEko establezimenduak, guztira					10 langile edo gehiagoko establezimenduak								
						EAE					UE28**		EUROGUNEA**	
	2009	2010	2011	2012	2013	2009	2010	2011	2012	2013	2012	2013	2012	2013
Merkataritza elektronikoa	**14,9**	**15,1**	**17,3**	**19,7**	**21,6**	**23,7**	**23,1**	**24,9**	**27,7**	**27,5**	**-**	**-**	**-**	**-**
Erosketak	13,8	14,2	16,1	18	19,7	20,2	20,3	21,4	23,6	23,4	16	18	16	18
Salmentak	3,4	3,9	4,1	4,6	5,2	8,0	8,5	9,8	10,4	10,0	14	14	14	14
Erosketen % *	24,9	28,1	30,8	33,7	29,4	20,3	24,6	30,5	33,7	27,0	-	-	-	-
Salmenten % *	32,5	38,6	39,3	36,6	35,9	34,2	38,4	40,9	42,8	36,2	-	-	-	-

** Merkataritza elektronikoan aritzen diren establezimenduetan, erosketa eta salmenta guztien arteko erosketa eta salmenta elektronikoen batez besteko ehunekoa.*
*** Finantza-sektorea kontuan hartu gabe.*
Iturria: EUSTAT. IGI, enpresak.

Erosketa elektronikoak egiteko bitartekoei dagokienez, erosketen %42,9 posta elektroniko bidez egin dituzte, %31,3 web-orrien bitartez eta %25,8 EDI eta beste sare batzuk medio. Salmenta elektronikoei dagokienez, %48,0 EDI eta beste sare batzuen bitartez egin dituzte, %26,7 posta elektronikoa medio eta %25,3 web-orriaren bidez.

8. EAE-KO GIZARTE-EKONOMIAREN KONTUAK[1]

GRAFIKO I.8.1. GIZARTE-EKONOMIAK EAE-N DUEN PISUAREN BILAKAERA



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Gizarte-Ekonomiaren kontuak

Gizarte-ekonomiaren barruan, bi zati nagusi ditu Kontabilitate Nazionalak: a) merkatukoa edo enpresena eta b) ekoizleena, ez merkatukoa, «hirugarren sektorea» esan ohi zaiona. Azken sailkapen hori oso erabilgarria da estatistikak egiteko eta jarduera ekonomikoaren analisiak egiteko orduan, gaur egun indarrean dauden kontabilitate nazionaleko sistemekin bat etorriz.

Horrela, merkatu edo enpresako gizarte ekonomia, funtsean, kooperatibek eta lan sozietateek eta mutuek osatuko lukete. Bestalde, merkatukoa ez den gizarte-ekonomia batez ere elkarteek eta fundazioek osatzen dute. Beste forma juridiko batzuk dauzkaten erakundeak ere egon litezke. Kontabilitate nazionalean ezarritako irizpideen arabera, merkatuz kanpoko ekoizleak diren gizarte-ekonomiako erakundeek osatzen dute, hau da, beren ekoizpena batez ere dohainik edo prezio ekonomikoi ez-esanguratsuetan hornitzen dituzten erakundeek osatzen dute.

EAEn, Gizarte-ekonomiaren estatistikako azken datu finkatuen arabera, 2011-2012 biurtekoari dagozkionak, gizarte ekonomia guztira 2.348 enpresak osatzen dute, EAEn 3.078 establezimendu dauzkatenak. Aipatutako denboraldian 55.809 pertsonari lan eman zieten (erkidegoko lanpostuen % 6,2) eta 2.64,3 milioi euroko Balio Erantsi Gordina (BEG) sortu zuten (euskal ekonomiaren BEGaren %4,5). Honakoak dira estatistika eragiketa horretatik ondorioztatzen diten zifra nagusiak:

1. 2011-2012 bi urtekoaren ezaugarri nagusia, lehenik eta behin, lanpostuen galera nabarmena da, 2006an hasitako dinamika jarraituz eta areagotuz. Hala, baliorik gabe gelditu da 2000-2006ko epealdian lanpostuen aldetik izandako aurrerapen zati handi bat. Azken bi urtekoan, %6,9ko galera izan da (%-4,3 2009-2010eko bi urtekoan); lanpostu guztien %4,7 izan da, berriz, gure Erkidegoan.

---

1 Gizarte Ekonomiari buruzko martxoaren 29ko 5/2011 Estatu Legea mugarria izan da. Haren arabera, gizarte ekonomiaren erakunde dira "kooperatibak, mutualitateak, fundazioak eta jarduera ekonomikoa garatzen duten elkarteak, lan sozietateak, gizarteratzeko enpresak, enpleguko zentro bereziak, arrantzaleen kofradiak, eraldaketako nekazaritza sozietatea", eta baita jarduera ekonomikoa eta enpresakoa egiten duten erakundeak ere, betiere, haien funtzionamenduak arauaren 4. artikuluan bildutako printzipio multzoari erantzuten badie. Hona hemen printzipioak:

a) Pertsonak eta gizarte-xedea gailendu egingo zaizkio kapitalari; horretarako, kudeaketa autonomo eta gardena, demokratikoa eta partaidea egingo da, eta erabakiak hartzerakoan pertsonak eta horiek erakundeari eskaini dizkioten lana edo zerbitzuak zein gizarte-xedea gehiago hartuko dira kontuan sozietatearen kapitalari egindako ekarpenak baino.
b) Jarduera ekonomikoaren bidez lortutako emaitzak batez ere egindako lana eta zerbitzua zein bazkide edo kideek egindako jarduera kontuan hartuta aplikatzea, edo erakundearen gizarte-xedean aplikatzea.
c) Erakunde barruko eta gizartearekiko elkartasuna sustatzea, tokiko garapenarekiko, gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunarekiko, gizarte-kohesioarekiko, gizarte-bazterkeria jasateko arriskua duten pertsonen gizarteratzearekiko, kalitatezko enplegu egonkorra sortzearekiko, bizitza pertsonala, familiarra eta lanekoa bat egitearekiko eta iraunkortasunarekiko konpromisoa bultzatze aldera.
d) Botere publikoekiko mendekotasunik eza.

Horren ondorioz, gizarte-ekonomiak EAEko guztizko enpleguan duen garrantzi erlatiboa galdu du eta hala, 2012ko ratioa -%6,2-(%6,3 2010. urtean), 2002an izandako maximotik -%6,8- urrundu da.

Alabaina, lanpostuen kopuruaren jaitsieran ez bezala, enpresa-sareak gora egin du 2011-2012ko aldian, 3.000 establezimenduko kopurua gainditu arte (zehazki, 3.078 dira, aurreko bi urtekoan baino %2,7 gehiago). 2009-2010eko epealdian, berriz, %0,4ko igoera txikia izan zen. Bilakaera horren ondorioz, 2010 eta 2012 bitartean, murriztu egin da establezimenduen tamaina (20 lanpostutik 18,1 lanpostura batez beste).

2. Ikuspegi sektorialari erreparatuta, eta 2010era arte ikusitako bilakaera ona ez bezala, zerbitzuen sektorera hedatu lanpostuen galera 2011-2012ko bi urtekoan. Epealdi horretan, %10,3 murriztu da zerbitzuetako enplegua, hots, joera aldaketa nabarmena gertatu da. Hala ere, esan beharra dago bilakaera hori, neurri handi batean, lanpostuak merkataritzako sozietate moduetara aldatzearekin dagoela lotuta. Izan ere, zerbitzuen sektorean epealdi horretan galdutako 3.205 lanpostuen %85,6 sozietateen eraketa berriaren prozesu horrekin dago lotuta. Faktore hori deskontaturik, %1,6 murriztuko litzateke sektoreko lanpostuen jaitsiera. Nolanahi ere, joera horren ondorioz, gizarte-ekonomiak pisua galdu du EAEko zerbitzuen sektorean; izan ere, %4,9tik %4,5era jaitsi da, 2008tik izandako ehunekorik txikiena.



Bestalde, industrietako enpleguak joera negatiboari eusten dio; izan ere, lanpostuen %3 galdu da aurreko bi urtekoaren aldean. Ratio hori, ordea, 2009-2010eko epealdian ikusitako %-11,4koa baino askoz txikiagoa da. Gizarte-ekonomiaren industriak, berriz, hobeto eutsi dio krisiari Euskadiko sektoreko gainerakoek baino: horren ondorioz, sektorearen garrantzi erlatiboa handitu egin da, halako moldez non 2010 eta 2012 bitartean guztizko industri okupazioaren pisu erlatiboak gora egin baitu: %11,8tik %12ra.

3. Lanpostuen jaitsiera horrek lotura estua du fakturazioaren beherakadarekin: Bi urteko horretan %3,3 murriztu da, 2008 eta 2010 bitartean izandako %12,2ko jaitsiera luzatuta. Gainera, emaitza horrekin batera, BEGaren gutxipena ere gertatu da, hala moldez non 2012ko ekitaldiari dagokiona 2010ekoa baino %6,4 txikiagoa baita ohiko terminoetan. Atzerakada hori, gainera, indartsuagoa ikusten da bi sektore handietan: %-6,1 industrian eta %-6 zerbitzuetan.

Gizarte-ekonomiaren enpresek, gainera, beren BEGaren jaitsiera handiagoa erakusten dute euskal ekonomiari dagozkionek baino. Halaxe islatzen da BPGean duen eragin txikiagoan: 2010ean %4,8ko partaidetza erlatiboa izatetik %4,5era igaro da 2012. urtean. Beheranzko joera hori are esanguratsuagoa da zerbitzuen sektorean, zeren eta BPG sektorialean duen partaidetza %3,3tik %3ra jaitsi baita. Gizarte-ekonomiaren industriak, aldiz, eutsi egiten dio euskal ekonomian duen pisuari: EAEko BEG industrialaren %9,9 ematen du, 2010ean baino ehunen bat gutxiago besterik ez.

4. Bereziki nabarmena da bilakaera negatiboa laneko sozietateetan, eta horren lehenbiziko adierazlea dugu 2010 eta 2012 bitartean establezimenduen kopuruan izandako jaitsiera: 968 izatetik 884 izatera. Joera horrekin batera, gainera, lanpostuen jaitsiera gertatu da. Hala, kooperatiben sektoreko enpleguak egonkor eusten dio (%-0,4), hots, EAEko gizarte-ekonomiaren enpleguaren %86 da, baina SMetan, berriz, %33,2 besterik ez da. %-12,4 LSMetan eta %-45,5 LSAetan. Hala, gizarte-ekonomian 2010 eta 2012 bitartean galdutako lanpostuen %94,8 SMei dagokie, eta gehienbat LSAei (%81,6) [2].

5. Enpleguan eta fakturazioan izandako bilakaera negatibo hori gorabehera, EAEko gizarte-ekonomiak kanpora zabaltzeko maila handiagoa erakusten du 2010 eta 2012 bitartean, esportazioen bilakaera positiboan agerian gelditu denez; izan ere, fakturazioaren %32,3 da; 2010ean, berriz, %26,3 zen. Kanpora gehiago zabaltze horren barruan, gainera, esportazioen erabateko susperraldia dago: %18,8ko igoera izan da, aurreko bi urtekoan %-7,2 gutxitu ondoren. Hala, esportazioen kopurua, 2012an, 2.673,3 milioi euro da.

Bestalde, esportazioen gehikuntza handi hori gehieneko maila lortu du) EBko herrialdeetako salmenten bilakaeraren aldaketarekin dago lotuta: 2008 eta 2010 bitartean %28,7ko beherakada izan ondoren, %13,7 egin dute gora esportazio horiek 2010 eta 2012 bitartean. Alabaina, munduko gainerako herrialdeetarako esportazioek eragin dute esportazioen guztizko kopuru horren igoera handia; izan ere, %27,1 hazi dira oro har, eta ratio hori batu behar zaio aurreko bi urtekoan izandako gehikuntza handiari, %83,2 handitu zirenean.

I.8.1. KOADROA EAE-KO GIZARTE-EKONOMIAREN BEG-AREN DINAMIKA 2010-2012KO BI URTEKOAN. BILAKAERA SEKTORIALA. BALIO ABSOLUTUAK OHIKO PREZIOETAN.

	2010			2012		
	ABS.	% BERTIK	% PARTAIDETZA SEKTORIALA*	ABS.	% BERTIK	% PARTAIDETZA SEKTOR.
LEHEN SEKTOREA	3.666	0,1	:	1.558	0,1	:
INDUSTRIA	1.452.024	51,4	10,0	1.363.525	51,6	9,9
ERAIKUNTZA	69.654	2,5	1,5	58.440	2,2	1,4
ZERBITZUAK	1.298.212	46,0	3,3	1.219.851	46,1	3,0
OROTARA	**2.823.557**	**100,0**	**4,8**	**2.643.375**	**100,0**	**4,5**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. GIZARTE-EKONOMIAREN KONTUAK.
** EAEko sektoreko guztizkoaren gaineko partaidetza.*

I.8.2. KOADROA GIZARTE-EKONOMIAREN LANPOSTUEN BILAKAERA, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA. 2010-2012

	2010		2012		% ald. 2010-12
	Lanpost.	%	Lanpost.	%	
Kooperatibak	48.196	80,5	47.981	86,0	-0,4
Lan-sozietat.	11.720	19,5	7.828	14,0	-33,2
---L.S.A.	7.355	12,3	4.005	7,2	-45,5
---S.L.M.	4.365	7,2	3.823	6,8	-12,4
OROTARA	**59.915**	**100,0**	**55.809**	**100,0**	**-6,9**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte-ekonomiaren estatistika 2012

I.8.3. KOADROA GIZARTE-EKONOMIAREN ESPORTAZIOEN BILAKAERA GUNEEN ARABERA. KOPURU ABSOLUTUK MAILA EUROTAN ETA PARTAIDETZA 2010-2012

	2010		2012		% ald. 2010-12
	ABS.	% BERT.	ABS.	% BERT.	
EUROPA	1.397.054	62,1	1.588.386	59,4	13,7
ASIA	370.036	16,4	440.345	16,5	19,0
AEB	148.965	6,6	193.840	7,3	30,1
HEGO AMERIKA	210.994	9,4	295.090	11,0	39,9
BESTE BATZUK	123.433	5,5	155.592	5,8	26,1
OROTARA	**2.250.484**	**100,0**	**2.673.355**	**100,0**	**18,8**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte-ekonomiaren Estatistika 2012

I.8.3. GRAFIKOA EAE-KO GIZARTE-EKONOMIAREN ESPORTAZIOEN JOMUGA. 2012



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Gizarte-Ekonomiaren kontuak

2 Hala ere, txostenak gogoratu egiten du 2.700 baino pixka bat gehiago galtzen direla laneko sozietate anonimoak merkataritza-sozietate bihurtzeko aipaturiko prozesuagatik.

Ehunekoetan adierazita, joera horietan 2008ko %80,8tik 2010eko %62,1era eta 2012ko %59,4ra jaitsiera dago EBko pisuan, EAEko gizarte-ekonomiaren esportazioen jomuga gisa. Asiak eta Hego Amerikak gero eta garrantzi handiagoa dute, eta halaxe islatu da eskualde horiek sektorearen esportazioetan duten etengabeko gehikuntzan. 2008an %14,7ko partaidetza agregatua izanik, gora egin du proportzioak 2010etik 2012ra, %25,8ra hain zuzen, eta %27,5era 2012an. Eskualdeei dagokienez (AEBak barne), ekarpen handiagoa izan dute esportazioetan: 2008ko %4,5etik 2012ko %13,1era.

6. Bestalde, txostenak nabarmentzen duenez, esportazioen igoeran islatzen den lehiakortasun hobe hori, neurri handi batean, kooperatiba industrialen jokaerarekin lotzen da. Izan ere, enpresa-talde horrek gizarte-ekonomiaren kanporako salmenten %94,7 biltzen du. Gizarte-ekonomiaren espezializazio industriala biziki indartsua da Gipuzkoan. Lurralde horretan, industriako 5 lanpostuetatik 1 kooperatiba enpresei eta laneko sozietateei dagokie (%21,2, eta Bizkaian, berriz, %7,2 da eta Araban %5,7).

Faktoreek lagungarriak izan dira Gipuzkoa izan dadin azterturiko bi urtekoan lanpostuei nolabait eutsi dien lurralde bakarra: %0,9ko murrizpenaren aurrean, jaitsiera hori %11,4koa da Araban eta % -12,8koa Bizkaian. Joera horren ondorioz, pisu handiagoa du gizarte-ekonomiak Gipuzkoan guztizko lanpostu kopuruan; 2010ean %9,4 izatetik %9,7 izatera igaro da 2012an. Araban eta Bizkaian, berriz, behera egin du pisu erlatibo horrek (%4,6tik %4,2ra Araban eta %4,9tik %4,5era Bizkaian).

I.8.4. GRAFIKOA. EVOLUCIÓN DE LA DISTRIBUCIÓN TERRITORIAL DEL EMPLEO DE LA ECONOMIA SOCIAL EN LA CAPV. %



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Gizarte-Ekonomiaren kontuak

7. 2013rako Gizarte-ekonomiaren Kontuen aurrerapenari dagokionez, sektorearen beraren aurreikuspenek joera aldaketa erakusten du lanpostuen eta salmenten jaitsierako prozesuan. Susperraldiaz baino egonkortzeaz hitz egin beharra dago, zeren eta %0,1eko gehikuntza besterik ez baita aurreikusten lanpostuen kopuruetan eta %0,3koa 2013ko ekitaldiko fakturazioan. Gainera, alde negatiboan, beherako bideari eusten dio enpleguak industrian eta eraikuntzan (%-0,6 eta %-2,2 hurrenez hurren).

I.8.5. GRAFIKOA. GIZARTE-EKONOMIAREN LANPOSTUEN ETA FAKTURAZIOAREN BILAKAERA EAE-N



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Gizarte-Ekonomiaren kontuak

8. Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Gizarte-ekonomiaren Estatistikak zenbait kopururekin osatzen ditu estatistikako eragiketa horren gune historikoaren analisia (kooperatibak eta laneko sozietateak), eragiketan sartu ez diren erakundeen gainean, baina beren beregi aipatzen dira 2011ko Gizarte-ekonomiaren Legean. Fundazioak eta elkarteak, enplegurako zentro bereziak, laneratze enpresak, BGAEak, arrantzale-kofradiak eta eraldaketako nekazaritzako sozietateak dira.

2012rako zenbatespenean, azterturiko sei kategorien multzo agregatuak 1.226 erakunde biltzen ditu EAEn, honelaxe: 615 fundazio, 189 elkarte, 42 enpleguko zentro berezi, 78 laneratze enpresa, 189 BGAE, 16 arrantzale-kofradia eta 97 eraldaketako nekazaritzako sozietate. Erakunde horiek ordaindutako 26.441 lanpostu dute gutxi gorabehera erreferentziako urtean, hots, guztizko enplegu agregatuaren %31,3 gizarte-ekonomia oro har hartuta. Gizarte-ekonomiaren modu berriek sortutako BEGari dagokionez, guztira 872,4 milioi balioa du.

I.8.4. KOADROA. EAE-KO GIZARTE-EKONOMIAREN MODU BERRIAK: ADIERAZLE NAGUSIAK. 2012.

	Kopurua	Lan ordaindua	BEGa (MIL. €)
1. Fundazioak	615	12.315	361,2
2. Elkarteak	189	9.368	227,7
3. Enpl. zentr. ber.	42	3.078	135,7
4. Laneratze enpresak	78	1.252	114,2
5. BGAE	189	248	24,2
6. Arrantzale kofradiak	16	90	5,3
7. Erald. nekaz. soziet.	97	90	4,0
OROTARA	**1.226**	**26.441**	**872,4**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte-ekonomiaren estatistikak.

Azkenik, eta gainerako Autonomia Erkidegoekin alderatuta Gizarte-ekonomiak gure erkidegoan duen garrantzia jakiteko xedez, Sozietate Kooperatiboetako eta Lan-sozietateetako langileen eta forma hori duten enpresen kopurua aurkeztu dugu Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren datuak oinarri hartuta (jakin dakigu EAEko kopuruak ez datozela bat Gizarte-ekonomiaren Kontuetako Estatistikan aurkeztutakoekin).

I.8.5. KOADROA SOZIETATE KOOPERATIBOAK ETA LAN-SOZIETATEAK: GIZARTE SEGURANTZAN ALTAN DIREN ENPRESEN ETA LANGILEEN KOPURUA (3. HIRUHILEKOA)

	ENPRESAK			LANGILEAK		
	2000	2013	2014	2000	2013	2014
ANDALUZIA	8.079	6.576	6.400	65.130	56.521	55.420
ARAGOI	1.317	1.179	1.108	9.572	8.910	9.299
ASTURIAS	766	650	632	5.730	4.962	5.019
BALEAREAK	367	332	306	3.493	2.911	2.703
U. KANARIARRAK	803	618	595	7.505	6.136	6.339
KANTABRIA	203	190	196	2.404	2.105	2.022
GAZTELA-MANTXA	2.861	2.330	2.272	20.070	17.282	17.037
GAZTELA-LEON	2.140	1.836	1.789	14.571	13.398	13.325
KATALUNIA	6.205	5.751	5.153	46.905	45.091	46.392
VALENTZIA	3.912	3.403	3.422	42.541	39.836	41.741
EXTREMADURA	1.031	891	917	8.751	7.711	7.986
GALIZIA	1.681	1.562	1.496	12.050	11.557	11.392
MADRIL	2.647	2.333	2.093	24.236	21.664	22.279
MURTZIA	2.375	2.051	2.006	20.919	20.507	19.866
NAFARROA	760	710	684	9.713	9.365	9.622
EAE	**2.309**	**2.200**	**2.175**	**64.489**	**61.403**	**60.335**
ERRIOXA	179	158	162	1.946	1.792	1.990
CEUTA ETA MELILLA	56	46	44	543	619	558
OTORARA	**37.691**	**32.816**	**31.450**	**360.568**	**331.770**	**333.325**

Iturria: ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZAKO MINISTERIOA.

Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren datuen arabera, 2013an EAEn 2.175 enpresa egon dira (irailaren 30eko datuak) Gizarte Segurantzan alta emanda, beraz, Sozietate Kooperatibo eta Lan-sozietate gehien duen bosgarren Autonomia Erkidegoa (seigarrena 2013an) da (%-1,1 2013aren aldean, Estatuko batez bestekoa %-4,2 delarik).

Sozietate Kooperatiboetan eta Lan-sozietateetan lan egiten duten langileen kopuruaren araberako garrantzia neurtuz gero, aldiz, estatuko lehen Autonomia Erkidegoa da EAE (60.335, aurreko urtean baino %1,7 gutxiago, eta Estatuko batez bestekoaren %0,5) eta ondoren Andaluzia dator (55.420 langile).

II. KAPITULUA

Lan merkatua EAEn

Hamabost urtez enplegua sortu ondoren, EAEko lan-merkatua beheranzko aldian murgildu zen 2009. urtean landunen kopuruaren aldetik, eta hala jarraitu zuen 2013ra arte. Ondorioz, 100.000 lanpostu galdu ziren, guztizkoaren %10. 2014. urtean, inflexio-puntua gertatu zen enpleguan EUSTATen Biztanleriaren Jardueraren Tasaren (BJA) inkestaren arabera. Hala, 1.400 lagunek lortu zuten lana urtean batez beste (+0,2) [1].

Bestalde, batez beste %0,3 egin du gora Gizarte Segurantzaren kotizatzaileen kopuruak[2] (baina %1,2 azken hiruhilekoan, zeren eta profil negatiboa leundu egin baita urtean zehar); aldi berean, okupazioak, EUSTATen Hiruhileko Kontu Ekonomikoen arabera, profil positiboa du, eta urte arteko tasa %0,3 da.

II.1.1. KOADROA. EAE-KO ENPLEGUAREN ETA LANGABEZIAREN BILAKAERA. URTE ARTEKO ALDAKUNTZA TASAK ETA BALIO ABSOLUTUAK (MILAKOAK).

	BATEZ B. 2012	BATEZ B. 2013	BATEZ B. 2014	HIRUHILEKOAK				
				13/IV	14/I	14/II	14/III	14/IV
Landunen kopurua, BJAren arabera	1.018,6	1.040,0	1.048,4	1.051,2	1.049,1	1.050,4	1.043,7	1.050,3
Jarduera tasa (BJA)	55,1	56,6	57,3	57,2	57,2	57,3	57,0	57,5
Landunen kopurua, BJAren* arabera	898,4	890,8	892,2	891,1	886,3	892,7	892,0	898,0
Landunak, aldak. (BJA)	-2,9	-0,8	0,2	0,8	-0,3	0,1	0,0	0,8
Landunen kopurua, HKE-en arabera*	893,9	867,0	869,3	868,2	864,5	868,8	869,7	874,1
Lanpostuak, aldak. (HKE)*	-3,3	-3,0	0,3	-1,6	-0,5	0,1	0,5	1,0
Gizarte Segurantzan afiliatutakoen kopurua	896,0	868,6	871,3	871,1	864,9	870,7	867,9	881,6
Gizarte Segurantzan afiliatuak, aldak.**	-2,6	-3,1	0,3	-2,5	-0,6	0,1	0,5	1,2
Langabetuen kopurua, BJAren arabera	120,2	149,2	156,2	160,1	162,8	157,8	151,8	152,3
Langabetuak, aldak. (BJA)	7,5	24,1	4,7	29,3	20,0	6,7	-0,8	-4,9
Langabetuen kopurua, EEZPren arabera	162,4	175,4	171,7	173,4	176,1	173,6	168,7	168,4
ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA, ALDAK. (EEZP)	11,9	8,0	-2,1	2,4	-0,8	-1,9	-2,9	-2,9
LANGABEZI TASA (BJA)	**11,8**	**14,3**	**14,9**	**15,2**	**15,5**	**15,0**	**14,5**	**14,5**

Iturria: Geuk egina EUSTATen eta Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren datuekin.
*** Lanaldi osoaren pareko lanpostuak.**
****Gizarte Segurantzan alta egoeran dauden kotizatzaileak.**

Alabaina, langabetuen kopuruak gora egin du urteko batez bestekoan biztanleria aktiboaren igoeraren ondorioz, baina 2013an baino gutxiago (%+4,7, %+24,1aren aldean). Hiruhilekoaren bilakaerari erreparatuz gero, ordea, negatiboak bihurtzen dira urte arteko tasak, halako moldez non, 2013ko laugarren hiruhilekoa eta 2014koa alderatzen baditugu, urtean %4,9 murriztu da urtean (-7.800 lagun guztira) langabetuen kopurua.

II.1.1. GRAFIKOA. . ENPLEGUAREN BILAKAERAREN ADIERAZLEAK EAE-N: URTEARTEKO ALDAKUNTZA TASA



	I 2012	II	III	IV	I 2013	II	III	IV	I 2014	II	III	IV
KONTU EKONOMIKOAK	-2,2	-3,1	-3,6	-4,3	-4,2	-3,3	-2,9	-1,6	-0,5	0,1	0,5	1,0
G. SEGURANTZAREN AFILIAZIOA	-1,7	-2,4	-2,4	-3,5	-4,3	-4,1	-4,0	-2,5	-0,6	0,1	0,5	1,2
BJA-EUSTAT	-2,9	-3,1	-3,6	-4,6	-1,6	-1,6	-0,9	0,8	-0,3	0,1	0,0	0,8
EPA-EIN	-4,3	-4,7	-7,1	-6,3	-4,1	-3,5	-3,1	-2,1	-3,3	-1,1	0,3	0,3

Iturria: EUSTAT, EIN eta Gizarte Segurantzaren datuekin eginikoa

[1] *EUSTATek enpleguari buruzko estatistiketan erabiltzen diren biztanleria datuak eguneratu ditu 2014an, 2011ko Zentsuko zifrak oinarri hartuta.*

[2] *"Kotizatzailea" esatean, maiz erabiltzen den afiliazioaz ari gara. Egia esan, Gizarte Segurantzan alta emanda dauden afiliatuak, hau da, kotizatzera behartuta dauden pertsonak aipatu nahi dira. Hortik ondorioztatzen da "kotizatzaileak" hitza. Kontuan hartu behar da afiliatuen kopurua ez datorrela bat langileen kopuruarekin, kotizatu beharra sortzen duten egoerekin baizik. Hau da, pertsona batek araubide berean lan jarduera asko izateagatik edo hainbat araubidetan lan jarduera izateagatik dituen kotizazio egoerak zenbatu, eta horiexek islatzen dira.*

2013. urtean izandako langabezia tasari esker (%14,5, BJAren arabera), urte eta erdi lehenagoko mailetara itzuli gara, eta 152.300 langabetu zenbatu ditu aipaturiko Inkesta horrek, eta 165.800, abenduan, LANBIDEren erregistroen arabera, kasu bietan 2013ko mailen azpitik.

1. JARDUERAREN, OKUPAZIOAREN ETA LANGABEZIAREN BILAKAERA[3]

1.1. Jarduera eta okupazioa

Lehenik eta behin, BJAren datuek erakusten dute EAEko biztanleria aktiboaren urteko batez bestekoa hazi egin zela 2014an. Hala, 2013. urtean lan-merkatuan parte hartzen zuen % 56,6koaren aldean, 2014an % 57,3 dugu, hots, % 0,7 gehiago. Krisia luzatzearen ondoriozko uzkurdunak nabarmen jaitsarazi zituen jarduera tasak 2012an, noiz-eta enplegurako aukerarik ezagatik lan egiteko adinean diren eta lana galtzen zuten langabetu asko zuzenean langabeziara igarotzen zirenean. 2013an berreskuratu egin zen galera horren zati bat, eta berriz ere 2014an, halako moldez non 1.048.400 direla zenbatetsi da, 2013an baino %0,8 gehiago, edo bestela esanda, aurreko urtean baino 8.400 pertsona gehiago.

Emakumeen jarduera tasak urteko %51,9ko batez bestekoa ematen du, 2013koak baino 1,3 puntu gehiago. Gizonezkoenak, berriz, %63aren inguruan eusten dio.

Izan ere, biztanleria aktiboaren hazkundea emakumezkoena da erabat, zeren eta gizon landunen taldean, batez beste, 2.500 besterik ez baitago (%-0,4). Bestalde, jarduera ratioek gora egin dute adin-talde guztietan.

II.1.2. KOADROA. ENPLEGUA EB-N: ADIERAZLE NAGUSIAK. 2013-2014KO III HIRUHILEETAKO DATUAK

	LANDUNEN T. "EUROPA 2020" (20-64)		ALDI BATERAKO LANAREN %-a		LANALDI PARTZIALAREN %-a	
	2013	2014	2013	2014	2013	2014
28ko EB	68,8	69,8	14,1	14,4	19,3	19,3
EURO EREMUA	68,1	68,6	15,5	15,6	21,2	21,2
BELGIKA	67,6	67,1	8,8	8,7	24,2	23,6
BULGARIA	65,3	66,9	6,7	6,4	2,4	2,5
TXEKIAR ER.	72,8	73,9	9,6	10,2	5,8	5,4
DANIMARKA	76,1	76,7	8,8	8,4	24,2	24,5
ALEMANIA	77,6	78,1	13,4	13,2	26,6	26,5
ESTONIA	73,7	74,8	3,9	3,8	7,8	7,3
IRLANDA	65,9	67,5	10,4	9,5	23,1	22,9
GREZIA	53,2	54,1	11,3	13,0	8,2	9,2
ESPAINIA	59,0	60,4	24,1	24,7	15,1	14,9
FRANTZIA	70,1	70,1	17,3	16,4	18,0	18,0
KROAZIA	58,3	61,6	15,6	19,0	5,2	5,7
ITALIA	59,7	60,2	13,4	14,2	17,1	17,8
ZIPRE	67,0	67,9	19,1	19,9	11,6	12,4
LETONIA	70,5	70,6	4,7	3,5	7,5	6,3
LITUANIA	70,6	73,4	3,5	3,7	7,7	8,2
LUXENBURGO	71,5	71,5	7,2	6,7	17,7	17,8
HUNGARIA	64,0	67,7	11,6	10,7	6,3	6,1
MALTA	65,0	67,3	7,4	7,8	15,2	17,0
HERBEHEREAK	76,4	76,3	20,8	22,0	49,7	49,3
AUSTRIA	76,2	76,4	10,0	9,8	25,3	25,9
POLONIA	65,6	67,3	26,8	28,8	6,9	6,9
PORTUGAL	65,9	68,3	21,6	22,0	10,7	9,8
ERRUMANIA	65,1	67,2	1,5	1,5	8,8	9,0
ESLOVENIA	68,2	68,2	17,9	18,1	9,7	9,3
ESLOVAKIA	65,2	66,3	7,0	9,3	4,3	5,2
FINLANDIA	74,1	73,9	17,2	17,0	12,9	13,0
SUEDIA	80,1	81,1	17,8	18,5	23,9	23,7
ERRESUMA BATUA	75,0	76,5	6,1	6,4	25,5	25,1
EAE	66,2	67,3	22,8	24,5	14,3	14,7

Iturria: EUROSTAT eta LANBIDEren datuekin geuk egindakoa.

BJAren datuek diotenez, 2014an Euskal Autonomia Erkidegoan erregistraturiko enpleguaren galeraren ondorioz, 20 eta 64 urte bitartekoen enplegu-tasa % 67,3 izan zen, Europako Batzordeak 2020rako ezarritako xedea (% 75) baino 7,7 puntu gutxiago hain zuzen ere. Europako batezbestekoa % 69,8 da, gure Erkidegoko datua baino 2,5 puntu handiagoa, beraz.

EUROSTATen datuek erakusten dutenez, azken urtean EBko herrialde guztietan egin dute gora langabezia tasek, Frantzian, Luxenburgon eta Eslovenian izan ezik, tasa horiei egonkor eusten baitiete. Belgikan, Finlandian eta Herbehereetan, berriz, 5, 2 eta 1 hamarreneko jaitsiera izan da, hurrenez hurren. EBko batez bestekoa puntu bat hazi da, euro eremuan puntu erdi eta EAEko datuan 1,1 puntuko igoera izan da, dagoeneko esana dugun moduan. Estatuko ratioa %60,4 da, eta 1,4 hazi da 2013aren aldean.

3 Epigrafe honetan, BJAren eta LANBIDEren datuak erabiltzen dira nagusiki, eta ez beste batzuk, HKE adibidez, azterketarako ematen dituzten aukerak direla eta. Gogoratu behar dugu iturriek batzuetan emaitza eta bilakaera ezberdinak ematen dituztela.

EAEn 2013. urteko abenduaren eta 2014. urteko abenduaren artean %0,8ko igoera izan da (aurreko epealdiko ratio bera), eta 6.900 lanpostu gehiago sortu dira. Gizonekoen enpleguak du bilakaerarik okerrena (gutxiago hazi da, %0,5 hain zuzen ere), eta 2.300 lanpostu gehiago ditu azken urtean. Emakumezkoenak, berriz, 4.700 lanpostuko igoera erakusten du (%1,1). Adinen arabera, 25 urtetik beherakoen enpleguak %14,2 egin du behera azken urtean, eta 25 eta 44 urte bitartekoenak, berriz, %0,2. 45 urte eta gehiago dituztenen taldea da gehien hazi dena, %3,1 hain zuzen ere.

Urteko batez besteko balioak kontuan hartuz gero, 2014an berreskuratu ziren 500 lanpostuetatik (% 0,2 besterik ez 2012ko datuen aldean), 2.500 gizonek galdu zituztenak izan ziren (-%0,5), aldiz, emakumeek irabazitakoak 3.900 (+%0,9); horrenbestez, enpleguaren feminizazioa hamarren bat gehitu da, eta talde horren enplegua % 46,5koa da (%46,9aren aldean).

II.1.3. KOADROA. LANA DUTEN ETA LANGABEZIAN DAUDEN BIZTANLEAK, SEKTOREKA

	B. BESTEKOAK (milakoak)		GEHIKUNTZA (milakoak)		Urte arteko aldak. tasa (%)	
	2013	2014	12-13	13-14	12-13	13-14
OKUPAZIOA - BJA	890,8	892,2	-7,6	1,4	-0,8	0,2
LEHEN S.	8,9	9,0	0,7	0,1	8,5	1,1
INDUSTRIA	203,6	196,2	-8,3	-7,4	-3,9	-3,6
ERAIKUNTZA	47,1	47,0	-10,3	-0,1	-17,9	-0,2
ZERBITZUAK	631,2	640,0	10,3	8,8	1,7	1,4
LANGABEZIA - BJA	149,2	156,2	29,0	7,0	24,1	4,7
LEHEN S.	1,0	1,7	0,3	0,7	42,9	70,0
INDUSTRIA	28,5	23,3	6,4	-5,2	29,0	-18,2
ERAIKUNTZA	18,5	18,2	2,1	-0,3	12,8	-1,6
ZERBITZUAK	92,6	104,0	20,5	11,4	28,4	12,3
1. lanaren bila	8,5	8,9	-0,4	0,4	-4,5	4,7

Iturria: EUSTAT. "Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta".

Sektoreka, eraikuntzaren sektoreak galdu zituen 2013an lanpostu gehien (-10.300, %17,9 2012aren aldean), eta zerbitzuetan berreskuratzen hasi zen (%+1,7). 2014an, berriz, hasi berria den susperraldiaren protagonista orain ere hirugarren sektorea zen; izan ere, %1,4 hazi zen, hots, 8.800 lanpostu gehiago. Industriak, bestalde, berriz ere egin zuen behera 2014an, %3,6 hain zuzen ere (-7.400 lanpostu, aurreko urtean 8.000 lanpostu izan ondoren). Eraikuntzan, aldiz, beheranzko joera gelditu zen, 100 lanpostu galduta (%-0,2), urteetan jaitsiera nabarmenak izan ondoren.

Lanaldi motari dagokionez, Euskadin landun guztien %14,7k lanaldi partziala zuen 2013an, hots, astean 30 ordu baino gutxiagoko lanaldia dute. Krisiaren aurreko zifren bikoitza (2008an %7,6 zen), eta asko aldatzen da sexuen arabera, gizonezkoen tasa %6,6koa baita (ez zen %2ra iristen 2008an). Emakumeena, berriz, %23,9koa da (pixka bat aldatu egiten zen %15aren inguruan 2012ra arte, eta goranzko joera txikia izan zen 2010ean eta 2011n). Lanbide egoerari erreparatuz gero, lanaldi partzialeko langabezi tasa %17,9 da sektore pribatuko soldatapekoentzat eta kooperatibistentzat, %8 sektore publikoko soldatapekoentzat eta %7,6 enplegatzaileentzat eta autonomoentzat.

II.1.2. GRAFIKOA. LANALDI PARTZIALEKO LANPOSTUEN EHUNEKOAREN BILAKAERA (<30 ORDU ASTEAN) EAE-N SEXUAREN ARABERA



Iturria: EUSTATen (BJA) datuekin eginikoa

Tasa hori krisiaren aurreko zifren bikoitza da (%7,6 2008. urtean), baina nabarmen aldatzen da sexuen arabera, zeren eta gizonezkoen tasa %6,6 baita (ez zen %2ra iristen 2008an), emakumeena %23,9 (%15aren inguruan zebilen 2012. urtera arte, baina igoera txikia izan zuen 2010-2011 urteetan). Lanbide egoerari erreparatuz gero, lanaldi partzialeko langabezia tasa %17,9 da sektore pribatuko soldatapekoentzat eta kooperatibistentzat, %8 sektore publikoko soldatapekoentzat eta %7,6 enplegatzaileen eta autonomoen artean.

Europan, lanaldi partzialeko batez besteko tasa 2014an (III. hiruhilekoaren datuak) %19,3 izan zen (%21,2 euro eremuan): herrialde batzuetan oso tasa txikia da (%2,5 Bulgarian, %5,2 Eslovakian) eta beste batzuetan, berriz, %25etik

gorakoak daude, esaterako Erresuma Batuan (%25,1), Austrian (%25,9) eta Alemanian (%26,5), eta bereziki Herbehereetan (%49,3). Espainian %14,9ko tasa da. Gainera, EBko herrialde guztietan emakumeen lanaldi partziala

gizonezkoena baino askoz handiagoa da (batez beste %31,7, gizonezkoen %8,7aren aldean), eta %40 gainditzen da herrialdeetako hirutan: Herbehereak, Erresuma Batua eta Belgika.

Aldi baterako kontratu maila denaz bezainbatean, BJAko datuek erakusten dutenez, urteko batez bestekoa aurreko urtea baino handiagoa izan zen nabarmen 2014an (soldatapekoen %23,6, %22,14aren aldean). Halaxe gertatzen da soldatapeko lanpostuen galerak kontratu finkoa izan zutenei eragin baitzien (-%4,1, soldatapeko lanpostuen guztizkoaren -0,9ko jaitsieraren aldean). Aldi baterako kontratua zutenen kopurua, berriz, %9,2 igo zen.

Aldi baterako kontratuek modu ezberdinean eragiten diete bi sexuei, eta emakumeenarena (+%6,1) bi halako hazi da gizonen artean (+%13,1). Hala, gizonezkoen aldi baterako langabezi tasa %2,9 puntu hasi zen azken urtean, %21,4raino. Bilakaera hori gorabehera, emakumezkoen tasa oraindik gainetik da, %25,9arekin (+1,4 puntu). Bilakaera horren ondorioz, sexuen artean aldi baterako kontratuen aldetik dago alde handia txikitu egin zen gure Erkidegoan 2014an, eta %4,5ekoa izatera iritsi zen, aurreko urtean baino 1,5 gutxiago. Gure Erkidegoko %22-%24aren inguruko ehuneko horiek Europako beste zenbait herrialdeetakoen parekoak dira (Herbehereetan eta Portugalen esaterako). Europar Batasun osoan, berriz, %14,4 da, eta %15,6 euro eremuan. Aldi baterako kontratuen ratiorik handienak Espainian (%24,7) eta Polonian (%28,8) daude, (EUROSTATek 2014ko hirugarren hiruhilerako emandako datuen arabera).

II.1.4. KOADROA. 16 URTE ETA GEHIAGOKO SOLDATAPEKOEN BILAKAERA, KONTRATU MOTAREN ETA SEXUAREN ARABERA. EAE, 2013-2014

		B. BESTEKOAK (milakoak)		% BERTIKALA		Urte arteko aldakuntza tasa (%)	
		2013	2014	2013	2014	2012-13	2013-14
GUZTIRA	GUZTIRA	710,2	704,0	100,0	100,0	-3,5	-0,9
	Gizonak	362,7	355,2	100,0	100,0	-4,9	-2,1
	Emakumeak	347,5	348,8	100,0	100,0	-2,1	0,4
MUGA-GABEA FINKOA	GUZTIRA	547,7	525,4	77,1	74,6	-3,6	-4,1
	Gizonak	293,0	275,8	80,8	77,6	-5,1	-5,9
	Emakumeak	254,7	249,6	73,3	71,6	-1,9	-2,0
ALDI BAT.	GUZTIRA	152,2	166,2	21,4	23,6	-2,8	9,2
	Gizonak	67,2	76,0	18,5	21,4	-5,4	13,1
	Emakumeak	85,0	90,2	24,5	25,9	-0,8	6,1
KONTRATU GABE ETA BESTEL.*	GUZTIRA	10,3	12,3	1,5	1,7	-9,6	19,4
	Gizonak	2,5	3,3	0,7	0,9	56,3	32,0
	Emakumeak	7,7	9,0	2,2	2,6	-21,4	16,9

Iturria: EUSTAT. "Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta".
** Laginketa errore maila handia dagoenez, kontu handiz hartu behar dira datuak.*

II.1.5. KOADROA. JARDUERA ETA LANGABEZI TASEN BILAKAERA SEXU ETA ADIN TALDE BAKOITZEKO. URTEKO BATEZ BESTEKOAK.

	JARDUERA TASA			LANGABEZI TASA		
	2012	2013	2014	2012	2013	2014
Biztanleria >16	55,1	56,6	57,3	11,8	14,3	14,9
16-24	26,8	28,4	29,6	30,9	39,2	37,3
25-34	83,5	86,6	89,1	16,4	20,4	21,1
35-44	88,5	90,4	92,0	10,5	12,1	13,2
45-54	83,0	85,0	85,7	9,6	11,1	11,6
55-64	50,5	53,8	56,0	6,0	9,0	9,6
+64	1,0	1,2	1,2	0,0	5,6	1,9
Gizonak, guztira	61,4	63,0	63,0	12,1	14,8	14,9
16-24	25,8	27,6	29,7	33,0	40,6	38,3
25-34	84,9	87,0	90,2	1,0	21,8	21,5
35-44	93,4	94,9	94,9	10,3	12,3	12,8
45-54	89,9	92,3	92,3	9,6	11,7	11,9
55-64	60,4	64,4	65,2	6,6	9,8	9,7
+64	1,5	1,7	1,4	0,0	3,1	0,0
Emak., guztira	49,3	50,6	51,9	11,5	13,8	14,9
16-24	27,9	29,3	29,4	28,8	38,1	36,2
25-34	81,9	86,3	87,9	14,5	18,9	20,6
35-44	83,5	85,7	89,0	10,7	11,9	13,7
45-54	76,2	77,8	79,3	9,6	10,3	11,4
55-64	41,0	43,9	47,4	5,1	8,0	9,5
+64	0,7	0,8	1,0	0,0	4,8	3,7

Iturria: EUSTAT, BJA.

II.1.3. GRAFIKOA. GUZTIZKO ENPLEGUAREN ETA GAZTEEN ENPLEGUAREN LANGABEZI TASAREN BILAKAERA EAE-N. SOLDATAPEKO LANPOSTUEN EHUNEKOA



Iturria: EUSTATen (BJA) datuekin eginikoa

Bestalde, kontraturik gabe eta beste batzuek, gehienbat, emakumeei eragiten diete, baina areagotu egin ziren azken urtean, soldatapeko

enpleguaren %1,7raino. %2,6 da emakumeentzat, eta %0,9 gizonentzat.

Adin-taldeen arabera, oraindik ere ikusten da aldi baterako kontratua duten eta kontraturik gabe daudenen ratiorik handienak 25 urtetik beherakoei dagozkiela. Egonkor eusten dio aldi baterako kontratuen gaineko tasak (ehunen bat murriztu da, %69,1, aurrekoa %69 izan baitzen); izan ere, behera egin du emakume gazteen multzoan (%68,7tik %66,9ra), eta gizonen artean handitu egin da, neurri txikiagoan bada ere (%69,6tik %71,1ra). Adin berean, "*kontraturik gabe eta beste batzuk*" egoeran dauden soldatapekoen %15 eta %7,4ko tasak daude hurrenez hurren (nabarmen hazi dira 2013aren aldean), baina EUSTATek ohartarazten du BJAk lagineko errorea ikusi duela soldatapeko lanpostuen gaineko datuetan, kontratu motaren arabera eta 25 urtetik gorakoen taldean. Hori dela eta, zuhurtziaz hartu behar dira datuak.

II.1.6. KOADROA. GIZARTE SEGURANTZAN ALTA EGOERAN DAUDEN KOTIZATZAILEAK*. ABENDUA.

		ABENDUA		13-14KO ALD.	
		2013	2014	Abs.	%
ARABA	GIZONAK	78.994	79.776	782	1,0
	EMAKUM.	63.819	65.161	1.342	2,1
	GUZTIRA	142.816	144.937	2.121	1,5
GIPUZKOA	GIZONAK	157.084	158.151	1.067	0,7
	EMAKUM.	134.275	137.158	2.883	2,1
	GUZTIRA	291.360	295.309	3.949	1,4
BIZKAIA	GIZONAK	231.179	233.210	2.031	0,9
	EMAKUM.	209.805	213.777	3.972	1,9
	GUZTIRA	440.985	446.987	6.002	1,4
EAE, GUZTIRA	GIZONAK	467.257	471.137	3.880	0,8
	EMAKUM.	407.898	416.097	8.1999	2,0
	GUZTIRA	**875.155**	**887.234**	**12.073**	**1,4**

***Ikusi kapitulu honetako 1 oin-oharra.*
Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioaren datuekin eginikoa.

Azkenik, eta Gizarte Segurantzako kotizatzaileei dagokienez 2014ko abenduan (ikusi kapitulu honetako 1. oin-oharra), %1,4ko gehikuntza gertatu zen aurreko urteko abenduaren aldean (batez beste +%2,6 Estatuan), eta alta emanda zeuden afiliatuen kopurua handitu zen, 12.073 lagun hain zuzen. Hazkunde horrek 2013ko jaitsiera konpentsatzen du; orduan ere %1,4koa izan zen. Urteko hilez hileko bilakaeran, goranzko tasa positiboak izan ziren afiliatuen kopuruan, etengabe, bigarren seihilekoan. Ez da alderik ikusten lurraldeen artean urtearen bukaeran, zeren eta Bizkaia eta Gipuzkoa %1,4 hazi baitziren eta Araban pixka bat goitik baitago, %1,5arekin.

II.1.7. KOADROA. GIZARTE SEGURANTZAKO BATEZ BESTEKO KOTIZATZAILEAK* EKOIZPEN-ADARRAREN ARABERA. ABENDUA.

	2013	2014	SALDOA	%-ko ald.
Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza, arrantza	6.450	6.458	7	0,1
Erauzketa-industriak	603	628	25	4,2
Manufaktura-industria	168.476	165.569	-2.907	-1,7
Argindarraren, gasaren, lurrunaren hornikuntza	2.121	2.072	-49	-2,3
Uraren hornikuntza, hondakinen kudeaketa	5.435	5.516	80	1,5
Eraikuntza	52.960	52.471	-489	-0,9
Handizkako eta txikizkako merkataritza; konponketak	133.439	135.130	1.691	1,3
Garraioa eta biltegiratzea	37.166	37.378	212	0,6
Ostalaritza	57.195	59.103	1.908	3,3
Informazioa eta komunikazioak	19.662	19.804	142	0,7
Finantza jarduerak eta aseguruetakoak	20.115	19.622	-493	-2,5
Higiezinen arloko jarduerak	3.771	3.860	89	2,3
Profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	48.494	49.357	863	1,8
Administrazio jarduerak	57.223	59.422	2.198	3,8
Herri administrazioa	45.502	46.207	705	1,5
Hezkuntza	59.702	61.817	2.116	3,5
Jarduera sanitarioak eta gizarte zerbitzuetakoak	82.588	85.498	2.909	3,5
Jarduera artistikoak, jolaserako eta entretenimendurako jarduerak	13.109	13.914	806	6,1
Beste zerbitzu batzuk	27.748	28.536	788	2,8
Langileen enplegatzaile gisako etxeak	1.269	1.260	-9	-0,7
Lurraldeez kanpoko erakundeak eta organismoak	36	40	5	12,7
GUZTIRA**	843.064	853.659	10.595	1,3

***Iturria: ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZA MINISTERIOA. Gizarte Segurantza (www.seg-social.es). Geuk eginikoa.* **Ikusi kapitulu honetako 1 oin-oharra.*
***Nekazaritzako sistema berezia eta etxeko langileen sistema alde batera utzita.*

Oro har, bilakaera positiboa izan zuten ekoizpen-adar guztiek, baina batzuk oraindik ez dira izan gai urte arteko tasa handiagoa izateko. Horien artean, manufaktura-industria nabarmentzen da, afiliazioan pisurik handiena duena:

abenduan ere beheranzko bidetik jarraitzen zuen (-%1,7), baina urrian (-%2,3) eta azaroan (-%1,9) baino pixka bat gutxiago. Urteko balantzean, jarduerak ia 3.000 afiliatu galdu zituen urtean (abendutik abendura); aurreko urtean, berriz, 5.000 afiliazio galdu ziren. Era berean, eraikuntzaren sektorearen doikuntza nabarmentzen da; izan ere, afiliazioak galtzen jarraitzen badu ere (-%0,9 abenduan), zerotik gero eta hurbilago dauden ratioak ere ematen ditu. Kasu honetan, 500 lanpostutan zehazten da urteko galera.

II.1.8. KOADROA. GIZARTE SEGURANTZAKO BATEZ BESTEKO KOTIZATZAILE ATZERRITARRAK*, JATORRIAREN ETA SEXUAREN ARABERA. ABENDUA.

		ABENDUA		13-14 ALDAK.	
		2013	2014	Abs.	%
EUROPAR BATASUNA	GIZONAK	8.990	9.439	449	5,0
	EMAKUM.	5.814	6.236	422	7,3
	GUZTIRA	14.804	15.675	871	5,9
BESTE BATZUK	GIZONAK	14.564	14.750	183	1,3
	EMAKUM.	17.509	16.986	-523	-3,0
	GUZTIRA	32.073	31.736	-337	-1,1
GUZTIRA	GIZONAK	23.554	24.189	635	2,7
	EMAKUM.	23.323	23.222	-101	-0,4
	GUZTIRA	46.877	47.411	534	1,1

** Ikusi kapitulu honetako 1 oin-oharra.*
Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioaren datuekin eginikoa.

Bilakaera horren beste aldean, zerbitzuen sektorean %2,4 egin zuen gora afiliazioen kopuruak abenduan, hots, 15.000 afiliatu berri sektorean. Gainera, zerbitzuetan adar guztietan izan ziren igoerak, finantza-jardueren salbuespen bakarra izanik (-%2,5): ia 500 langile gutxiago zituzten. Merkataritzaren aurrerapena nabarmendu behar da, afiliazio gehien biltzen dituena. Izan ere, urte arteko %1,3ko igoera izan zuen (ia 1.700 afiliatu gehiago). Pisu nabarmena duten beste jarduera batzuetan urte arteko %3tik gorako tasak ageri dira, hala nola osasunean, hezkuntzan, administrazioan, ostalaritzan, etab.

II.1.9. KOADROA. LANGABEZIA EB-N: ADIERAZLE NAGUSIAK 2013-2014

	LANGABEZI TASA		GAZTEEN LANGABEZI T.		IRAUPEN LUZEKO %	
	2013	2014	2013	2014	2013	2014*
28ko EB	10,9	10.2	23.7	22.2	47.4	49.9
EURO EREMUA	12,0	11.6	24.4	23.7	49.8	53.2
BELGIKA	8,4	8.5	23.7	23.2	46.1	49.8
BULGARIA	13,0	11.6	28.4	23.6	57.3	61.3
TXEKIAR ER.	7,0	6.1	18.9	15.9	43.4	43.8
DANIMARKA	7,0	6.6	13.0	12.6	25.5	25.4
ALEMANIA	5,2	5.0	7.8	7.7	44.7	43.0
ESTONIA	8,6	7.4	18.7	15.0	44.5	43.4
IRLANDA	13,1	11.3	26.8	24.0	60.6	57.6
GREZIA	27,5	26.5	58.3	52.3	67.1	75.4
ESPAINIA	26,1	24.5	55.5	53.2	49.7	53.4
FRANTZIA	10,3	10.2	24.8	24.3	40.4	43.2
KROAZIA	17,3	17.0	50.0	45.0	63.6	61.5
ITALIA	12,1	12.7	40.0	42.7	56.9	63.1
ZIPRE	15,9	16.1	38.9	35.5	38.3	48.5
LETONIA	11,9	10.8	23.2	19.6	48.6	42.7
LITUANIA	11,8	10.7	21.9	19.3	42.9	47.5
LUXENBURGO	5,9	6.0	16.9	18.9	30.4	27.7
HUNGARIA	10,2	7.7	26.6	20.4	48.6	47.7
MALTA	6,4	5.9	13.0	12.7	45.7	46.3
HERBEHEREAK	7,3	7.4	13.2	12.7	36.1	40.4
AUSTRIA	4,9	:	9.2	:	24.3	27.1
POLONIA	10,3	9.0	27.3	23.9	42.5	43.7
PORTUGAL	16,4	14.1	38.1	34.8	56.4	60.1
ERRUMANIA	7,1	6.8	23.7	24.0	46.4	39.7
ESLOVENIA	10,1	9.8	21.6	21.7	51.0	52.6
ESLOVAKIA	14,2	13.2	33.7	30.4	70.2	69.9
FINLANDIA	8,2	8.7	19.9	20.5	20.7	25.5
SUEDIA	8,0	7.9	23.6	22.9	18.5	19.4
ERRESUMA BATUA	7,6	:	20.7	:	36.2	34.1
EAE	14,3	14,9	39.2	37.3	57,4	65,0

Iturria: EUROSTAT eta LANBIDEren datuekin geuk egindakoa.
** Iraupen luzeko langabeziaren datua 2014an III. hiruhilekoari dagokio.*

Zerbitzuen sektorearen hobekuntza hori lagungarria izan da emakumeen afiliazioaren bilakaera gizonezkoena baino positiboa izan dadin. Gizonezko gehiago biltzen da industriako jardueretan eta eraikuntzan. Hala, emakumeen afiliazioak %2 egin zuen gora 2014ko abenduan aurreko urte bereko hilaren aldean. Gizonezkoenak, berriz, igoera txikia izan zuen, %0,8koa hain zuzen Alabaina, hazkundeak izan zireneko bost hil metatu zituen gizonezkoen taldeak urtearen bukaeran eta, beraz, hurrengo hiletarako aurreikuspenak ere onak dira, industriak eta eraikuntzak berriro tasa positiboak biltzen dituzten neurrian.

Bestalde, %1,1 egin zuen gora kotizatzaile atzerritarren kopuruak (afiliazio guztien %5,3 dira) azken urtean, noiz-eta aurreko urtean %6,8 murriztu zenean. Bilakaeran alde nabarmena dago sexuen arabera: gizonezkoen artean %2,7ko igoera izan zen (-%8,5ekoa 2013an). Emakumeen artean, berriz, %0,4ko jaitsiera (-%5,1 aurreko urtean). Jokabide bera ageri da atzerritar horien jatorriaren arabera, zeren eta EBko beste herrialde batzuetako pertsonen artean %5,9 hazi baitzen afiliazio kopurua, eta EBtik kanpokoen artean, berriz, %1,1eko beherakada gertatu zen.

1.2. Langabezia

Lan-merkatuak 2014an izandako bilakaeraren ondorioz, urtearen amaieran %14,5 izan zen BJAren langabezia tasa orokorra, eta %14,9 batez beste lau hiruhilekoetan, EBko batez bestekoa gaindituta (%10,2 EBn eta %11,6 euroaren eremuan).

II.1.4. GRAFIKOA. LANGABEZI TASAREN BILAKAERA SEXUAREN ARABERA, EB-N ETA EAE-N



Iturria: EUSTATen eta EUROSTATen datuekin eginikoa

Europan oso ezberdinak dira langabeziaren kopuruak: % 25etik gorako balioak ditugu, adibidez, Espainian (% 24,5 urteko batez beste) edo Grezian (% 26,5), eta % 6koak edo txikiagoak Austrian, Holandan edo Luxemburgen, esate baterako. AEBetan % 6,2ko langabezi tasa dago, % 3,6koa Japonian, eta Frantziak, Poloniak eta Esloveniak Europako batezbestekoaren antzeko ratioak dituzte, zenbait adibide aipatzearren.

2014. urtean, zazpigarren urtez jarraian, gora egin zuen langabetuen kopuruak gure Erkidegoan urteko batezbestekoan, eta bereziki adin nagusikoak ukitu zituen. 45 urtetik gorakoen artean 3.400 lagun gehiago zeuden langabezian, %7,4 gehiago. Hala ere, lan-merkatuen duen pisua dela-eta, batez bestekoaren azpitik dago haien langabezia tasa: %10,8koa da: 25-45 urtekoen taldean, langabezia batezbestekoa baino pixka bat gehiago hazi zen (%4,8). Gazteenen artean (25 urtetik beherakoa), berriz, 400 langabetu gutxiago izan ziren eta, beraz, ratio txikiagoa du orain, baina batez besteko orokorretik oso gainetik jarraitzen du (2013ko %39,2tik %37,3ra).

II.1.10. KOADROA. LANGABETUAK EAE-N. ALDAGAI NAGUSIEN BILAKAERA (URTEKO BATEZ BESTEKOAK)

	Pertsona kop.			Diferentzia		Aldak. %		Langabezi tasa	
	2012	2013	2014	2012-13	2013-14	2012-13	2013-14	2013	2014
GUZTIRA	**120,2**	**149,2**	**156,2**	**29,0**	**7,0**	**24,1**	**4,7**	**14,3**	**14,9**
GIZONAK	66,5	82,8	82,8	16,3	0,0	24,5	0,0	14,8	14,9
EMAKUMEAK	53,7	66,3	73,3	12,6	7,0	23,5	10,6	13,8	14,9
16-24 URTE	13,4	17,8	17,4	4,4	-0,4	32,8	-2,2	39,2	37,3
25-44 URTE	71,6	85,6	89,7	14,0	4,1	19,6	4,8	15,5	16,4
+45 URTE	35,1	45,7	49,1	10,6	3,4	30,2	7,4	10,3	10,8
Lehen mailako ikasketak	9,3	8,6	7,0	-0,7	-1,6	-7,5	-18,6	15,6	15,7
Maila ertaineko ikasketak	80,9	106,7	111,9	25,8	5,2	31,9	4,9	17,0	17,7
Goi mailako ikasketak	30,0	33,9	37,3	3,9	3,4	13,0	10,0	9,5	10,0
Inoiz lan egin dute	111,3	140,7	147,3	29,4	6,6	26,4	4,7		
Lehen lanaren bila	8,9	8,5	8,9	-0,4	0,4	-4,5	4,7		

Iturria: EUSTAT "BJA".

Europan gazteen langabezia-tasa % 22tik gorakoa izan da Batasun osorako (%22,2 28ko EBn, %23,7 euroaren eremuan), baina Italian, Portugalen, Kroazian, Eslovakian eta Zipren, besteak beste, % 30etik gorakoa izan da, eta Grezian eta Espainian, aldiz, % 50etik gorakoa. Beste muturrean daude Danimarka, Malta eta Herbehereak, %12aren inguruko ratioak dituztela, eta Alemania nabarmentzen da gazteen langabezia-tasa txikiagoagatik (%7,7).

Sexuaren arabera, Euskadiko langabetuen %53 gizonezkoak dira eta %47 emakumezkoak, eta soilik emakumeen langabezia-tasak egin du gora (+%10,6), tasa berari eusten baitio gizonen multzoak. Ondorioz, langabezia-tasa bera da gizonentzat eta emakumeentzat: %14,9koa.

Sektoreka, langabetuen % 66,6 zerbitzuen sektorekoak izan dira; sektore horretan langabezia % 12,3 hazi zen (2013an % +28,4). Bestalde, %18,4 egin zuen behera langabeziak industrian (aurreko urtean %29ko igoera izan zen), eta aldi berean, %1,6 jaitsi zen langabetuen kopurua eraikuntzan (-300 pertsona). Bestalde, lehenengo lanpostua bilatzen ari diren pertsonen taldean 400 gehiago izan ziren, 8.900 batez beste urtean.

II.1.5. GRAFIKOA. LANGABEZI TASAREN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA



Iturria. EUSTAT. PRA.

Gainera, lehen mailako ikasketak dituzten langabeak 7.000 izan ziren guztira, hau da, % 18,6ko murrizketa izan dute eta % 15,7ko langabezia-tasa izan dute. Bestalde, erdi mailako ikasketak dituztenak 111.900 ziren (guztien %71,6), %4,9 gehiago, langabezia-tasa batez bestekoa baino handiagoa izan arte: %17,7koa. Amaitzeko, goi mailako ikasketak dituzten langabeak batezbestekoaren (% 10) gainetik gehitu dira, haien langabezia-tasa % 10ekoa izan dela, 2013an baino puntu erdi gehiago.

Lurraldeka, desberdintasunak aurkitu dira langabezia-tasen mailei eta bilakaerei dagokienez: Gipuzkoak urteko %12,5eko batezbestekoa du, tasarik txikiena, eta 6 ehuneneko igoera izan du 2013aren aldean. Araban gertatu da igoerarik handiena: langabezia-tasa %1,2 hazi da, %15,9raino. Bizkaiak, berriz, tasarik handiena du batez beste (%16,1), baina gutxiena hazi dena da 2013ko batez bestekoaren aldean: 4 ehunen.

II.1.11. KOADROA. LANGABETUAK EAE-N LANGABEZIAREN IRAUPENAREN ARABERA (MILAKOAK). IRAUPEN LUZE ETA OSO LUZEKO LANGABEZIAREN KALKULUA

	2008	2012	2013	2014
6 HILABETE BAINO GUTXIAGO	19,7	30,1	37,7	29,3
6 - 11 HILABETE	9,4	28,2	25,9	25,2
12 - 23 HILABETE	5,1	31,3	38,6	37,9
24 HILABETE EDO GEHIAGO	4,2	30,5	47,0	63,6
GUZTIRA (MILA)	**38,5**	**120,2**	**149,2**	**156,2**
IRAUPEN LUZEKO %: > URTE 1	24,2	51,4	57,4	65,0
IRAUPEN LUZEKO %: > 2 URTE	10,9	25,4	31,5	40,7

Iturria: EUSTATen datuekin eginikoa. BJA.

Langabeziaren iraupenari dagokionez, EUSTATek batez beste 2014rako zenbatetsitako 156.200 langabetuetatik 29.300ek (%18,8k) 6 hilabete baino gutxiago zeramatzaten langabezian, 25.200ek (%16,1ek) 6-11 hilabete, 37.900ek (%24,3k) 1-2 urte eta 63.600ek (%40,7k) bi urtetik gora. Hala, aurten igotzen jarraitu du iraupen luzeko langabetuen portzentajeak, langabezian urtebetetik gora daramatenenak. Egoera horretan daude, batez beste, langabetuen %65, eta 2013an %57,4 zegoen. Eta talde horren barnean, gora egin du oso iraupen luzeko langabeziak ere (2 urtetik gora langabezian); izan ere, EAEko langabetuen %40,7 dira dagoeneko. Zifra horiek ez datoz bat 2008koekin, noiz-eta langabetuen laurden batek baino ez zeramanean urtebetetik gora lanik egin gabe.

EBn, 28 herrialdeetako iraupen luzeko langabetuen batez besteko tasa %49,9koa da 2014rako guztizko langabeziaren gainean, eta bitarteko tasa hauek daude: Greziako %75,4tik Suediako %19,4ra. EUROSTATen arabera, iraupen luzeko langabezia %53,4koa da Espainian 2014an, Eurogune osorako ia ratio berdina hain zuzen ere (%53,2).

Langabezia kroniko bihurtzen ari da kasu askotan, eta hori dela eta, gure Erkidegoan familien %5,6k (orotara 48.100 familia, aurreko urtean baino 1.400 gehiago) kide guztiak zituen lanik gabe 2014an. Esan gabe doa zein ondorio larri dakartzan horrek haien ongizaterako. Lurraldez lurralde, tasarik handiena Arabari dagokio, familien %6,5, eta ondoren Bizkaia (%6,1). Gipuzkoak du ratiorik txikiena, %4,5ekoa, baina okerrerako joera handiagoa duela.

Bestalde, LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak erregistraturiko langabeziak BJAren datuak gainditzen dituela egiaztatu da. 2014ko abenduan LANBIDEn 165.771 langabetu erregistratu ziren (-%1 aurreko urtearekin alderatuta) eta EUSTATen biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestak 152.3000 langabetu kalkulatu zituen urteko laugarren hiruhilekoan, izan ere, inkesta horretako langabetuen sailkapenak kanpo uzten ditu enplegu-eskatzaile gisa izena eman duten hainbat pertsona[4]. Krisia hasi zenetik erregistraturiko langabeziaren saldo negatiboa gertatu den bigarren urtea da, eta gainera, ikusten denez, behera egin du langabeziak gizonezkoetan (-%0,1), baina, askoz jaitsiera handiago emakumeen artean (-%3,3).

Hala ere, eta gauza bera gertatu zen 2013an, Euskadin handitu egin zen lan-eskatzaileen kopurua 2014an (guztira 272.882 pertsona dira, 2013ko abenduan baino %12 gehiago). Espainian, berriz, %5,7 egin zuen gora[5].

II.1.6. GRAFIKOA PERTSONA AKTIBO GUZTIAK LANGABEZIAN DITUZTEN FAMILIEN EHUNEKOAREN BILAKAERA. DATUAK LURRALDEKA



Iturria: EUSTATen (BJA) datuekin eginikoa.

II.1.12. KOADROA. EAE-KO LANBIDEREN BULEGOETAN ERREGISTRATURIKO LANGABEZIA. (ABENDUAN).

	2012	2013	2014	% 2012-13	% 2013-14
GUZTIRA	**169.083**	**167.374**	**165.771**	**-1,0**	**-1,0**
GIZONAK	84.571	82.528	82.454	-2,4	-0,1
EMAKUMEAK	84.512	84.846	81.962	0,4	-3,3
< 25 urte	13.281	10.216	8.109	-23,1	-17,5
Gainerako adinak	155.802	157.158	157.662	0,9	0,3
ATZERRITARRAK	23.061	22.595	24.361	-2,0	7,6

Iturria: LANBIDE – Enpleguko Euskal Zerbitzua.

Adinen arabera, korrelazio handia antzematen da erregistraturiko langabeziaren jaitsieraren eta gazteen artean, halako moldez non behera egin baitu 34 urtetik beherakoen artean (nabarmentzekoa da bereziki 25 urtetik beherakoen jaitsiera, %17,5ekoa hain zuzen ere). 55-64 urtekoen artean, berriz, pixka bat igo da, %0,3 hain zuzen.

Azkenik, Lanbideren datuek erakusten dute 2014an gora egin duela langabeziak atzerritarren artean (+%7,6) eta, beraz, gora egin du pixka bat langabetu atzerritarren pisuak: guztizkoaren %13,5etik %14,7ra. Estatuan langabetuen %11,9 dira (guztira milioi erdi lagunetik gora), aurreko urtean baino ehunen bat gehiago.

4 Bi operazioen arteko alde metodologikoak oso handiak dira, eta, beraz, ezin dira erkatu, langileak sailkatzeko modu desberdinez gain, LANBIDEren kopuruak erregistroetatik datozen bitartean, BJArenak lagin batean oinarrituta egindako inkesta batetik datozelako. Halaber, kontuan izan behar da Europako Batzordearen 1897/2000 araudiari jarraituz, BJAk langabetzat jotzen dituela, soldatapeko lanik edo independenterik ez izateaz eta egun lan bila eta lan egiteko prest egoteaz gain, aurreko lau asteetan Araudi horretan lan bilaketa "aktibo"tzat jotako gestioren bat egin duten pertsonak. Ez da bilaketa aktibotzat jotzen lan eskaera berritzeko izapidea edo prestakuntza ikastaroak direla-eta enplegu bulego publikoarekin kontaktatzea. Horren ondorioz, EUSTATen inkestak kontzeptutik kanpo uzten ditu LANBIDEn hala erregistratutako pertsona asko.

5 Hauexek osatzen dute lan-eskatzaileen guztizko kopurua: erregistraturiko langabetuek (gehienak ziren 2014ko abenduan, EAEko lan-eskatzaile guztien %60,) gehi beste lanpostu bat eskuratu nahi duten eta lanean ari diren pertsonek eta bestelako egoeran daudenek hala nola lanik ez izan arren lan-eskaera bereziak eta baliagarritasun mugatuak dituztenek (soilik etxez etxe, atzerrian, telelana, etab.).

2. KONTRATAZIOEN ETA IRAIZPENEN BILAKAERA

2.1. Kontratazioaren egoera

Kontratazio kopuruak gora egin zuen 2014an aurreko urtearekiko (+%11,8 guztira, eta %12,1 hasierako kontratuen kopurua, hots, kontratazio guztien %98), 2012an eta 2013an gertatu ez bezala. Izan ere, urte horietako kontratazioetan %2,8ko eta %3,5eko jaitsierak izan ziren hurrenez hurren (aurreko memorietan berrikusitako zifrak, 2012an araudia aldatu izanaren ondorioz etxeko zerbitzuaren kontratuak zenbatzeko izandako akatsak zuzenduta).

Gainera, lanaldi partzialeko kontratuei (303.086 guztira, 2013an baino +%12,7 gehiago) eragiten die, hots, kontratu guztien %39,1i, baina lanaldi osoko kontratuei ere bai (454.266 orotara, %11,3ko igoera izanik).

Guztira, 759.149 lan-kontratu erregistratu zituen EEZPek 2014an (berriak gehi bihurtuak). Horietatik % 50,4 emakumeek sinatu zituzten (aurreko urteko % 51,3rekin alderatuta). Kontrataturikoen % 47,3 ere emakumeak dira.

Lurraldez lurralde, Araban %15,8koa izan da kontratazioaren igoera, eta %10,7koa Gipuzkoan. Bizkaian, berriz, %11,1 egin du gora kontratazioaren kopuruak.

Bestalde, Estatuan guztira 16,7 milioi kontratu erregistratu ziren 2014an, %13,1 gehiago 2013aren aldean, eta 2013an 2012an baino +%3,9 gehiago izan ziren (2012an famili etxeko zerbitzuaren kontratuak behar bezala zenbatu zirela kontuan izanik betiere).

II.2.1. KOADROA. EAE-N ERREGISTRATURIKO LAN KONTRATUEN BILAKAERA LANALDI MOTAREN ETA IRAUPENAREN ARABERA, ETA BESTELAKO DATU BALIAGARRI BATZUK

		2013	2014	Abs. 2013-14	% 2013-14
Lanaldi partz.	Mugagabea	16.843	19.478	2.635	15,6
	Aldi bat.	252.100	283.608	31.508	12,5
	GUZTIRA	268.943	303.086	34.143	12,7
Lanaldi osoa	Mugagabea	25.878	31.168	5.290	20,4
	Aldi bat.	382.252	423.098	40.846	10,7
	GUZTIRA	408.130	454.266	46.136	11,3
Lanaldi finko etena	Mugagabea	1.873	1.797	-76	-4,1
KONTRATUAK, GUZTIRA		678.946	759.149	80.203	11,8
Lanaldi partzialeko tasa		39,6	39,1	-0,5	
Hasierako kontratuak		664.523	745.083	80.560	12,1
Bihurketak*		14.423	14.066	-357	-2,5
Kontratuak atzerritarrei		74.968	75.986	1.018	1,4

Iturria: EEZP. Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.
**Kontratuak guztira, ken hasierakoak, eta barne ditu Gizarte Laguntzako atxikipen kontratuak*

II.2.1. GRAFIKOA. EAE-N SINATURIKO LAN-KONTRATUEN URTEKO ALDAKUNTZA (%): HASIERAKO KONTRATUAK ETA GUZTIZKOAK



Iturria: EEZPren datuekin eginikoa

Sektoreka, industriak kontratu berrien %14,7 du, hots, 2013. urtean baino %6 gehiago. Zerbitzuek, berriz, 5,3 puntu galdu dituzte aurreko urtearen aldean, baina oraindik ere kontratu gehienak biltzen dituzte, %78,4 azken urtean. Eraikuntzak, bestalde, kontratu berrien %4,5 biltzen du, eta 1,1 puntu galdu ditu 2013ko datuen aldean. Lehen sektoreak, berriz, kontratu berrien %2,4 hartzen du, eta eutsi egiten dio aurreko urteko pisu erlatibo egonkorrari.

Hona hemen 2014an kontratu gehien bildu zituzten jarduerak: ostalaritza (hasierako kontratuen %14,8, eta 2013an baino %22,5 gehiago), manufaktura-industria (kontratuen %14, aurreko ekitaldietako datuak bi halako), jarduera administratiboak eta zerbitzu osagarriak, horien artean aldi baterako lanetarako enpresak (hasierako kontratu guztien %13,9, baina bilakaera negatiboa du 2013aren aldean), osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak (kontratuen %12 eta +%10,2 2013arekiko) eta merkataritza (kontratu guztien %11,2 eta +%34,8 aurreko urteko datuekiko)

LAN KONTRATUEN BILAKAERA EAE-N SEXUAREN ETA JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA									
	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2013/14ko %
GUZTIRA	896.262	822.932	674.007	710.042	723.820	703.837	678.946	759.149	11,8
GIZONAK	423.867	391.716	309.398	344.521	357.087	328.466	330.787	376.235	13,7
EMAKUMEAK	445.395	431.216	364.609	365.521	366.733	375.371	348.159	382.914	10,0
LEHEN SEKTOREA	10.227	11.564	10.983	12.827	12.852	14.027	15.622	18.289	17,1
INDUSTRIA	93.898	85.420	54.108	61.743	64.214	58.410	59.539	111.814	87,8
ERAIKUNTZA	68.565	58.764	52.736	47.488	41.954	33.606	32.250	34.186	6,0
ZERBITZUAK	696.572	667.184	556.180	587.984	604.800	597.794	571.535	594.860	4,1

Iturria: EEZP. Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

KONTRATAZIOAK EAE-N (HASIERAKO KONTRATUAK) SEXUAREN ETA JARDUERAREN ARABERA (CNAE 2009)						
	2013	2014KO KONTRATUAK				Aldak. % 13/14
		GIZONAK	EMAKUM.	GUZTIRA	% bertik.	
Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza, arrantza	15.529	16.343	1.826	18.169	2,4	17,0
Erauzketa-industriak	64	66	28	94	0,0	46,9
Manufaktura-industria	52.820	81.940	22.497	104.437	14,0	97,7
Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren hornikuntza	70	41	33	74	0,0	5,7
Uraren hornikuntza, hondakinen kudeaketa	3.562	4.079	518	4.597	0,6	29,1
Eraikuntza	31.517	31.903	1.557	33.460	4,5	6,2
Handizkako eta txikizkako merkataritza; konponketak	62.122	31.144	52.574	83.718	11,2	34,8
Garraioa eta biltegiratzea	23.931	40.236	7.177	47.413	6,4	98,1
Ostalaritza	82.417	40.981	69.045	110.026	14,8	22,5
Informazioa eta komunikazioak	14.556	10.180	7.396	17.576	2,4	20,7
Finantza jarduerak eta aseguruetakoak	3.045	1.386	2.843	4.229	0,6	38,9
Higiezinen arloko jarduerak	988	792	510	1.302	0,2	31,8
Profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	20.866	10.418	15.045	25.463	3,4	22,0
Administrazio-jarduerak	183.268	45.594	58.071	103.665	13,9	-43,4
Administrazio publikoa	5.952	3.515	5.100	8.615	1,2	44,7
Hezkuntza	29971	9.782	23.445	33.227	4,5	10,9
Jarduera sanitarioak eta gizarte zerbitzuetakoak	80.971	16.030	73.209	89.239	12,0	10,2
Jarduera artistikoak, jolaserako eta entretenimend. jard.	25.613	16.968	12.327	29.295	3,9	14,4
Beste zerbitzu batzuk	13.151	5.727	9.564	15.291	2,1	16,3
Langileen enplegatzaile gisako etxeak	14.098	1.504	13.658	15.162	2,0	7,5
Lurraldeez kanpoko erakundeak eta organismoak	12	13	18	31	0,0	158,3
GUZTIRA	**664.523**	**368.642**	**376.441**	**745.083**	**100,0**	**12,1**

Iturria: EEZPren datuekin eginikoa. Kontratuen Estatistikak.

Aldi baterako kontratazioaren pisu handi hori dela eta, kontrataturiko pertsona horietako gehienak hainbat alditan kontratu ziren urtearen barruan. Hala, 2014. urtean kontrataturiko pertsonen kopurua, 248.201, erregistraturiko kontratu guztien kopurua (759.149) baino askoz txikiagoa zen. Zifra horiek oinarri hartuta kalkulatzen da laneko txandaketa indizea (sinaturiko kontratu kopuruaren eta kontrataturiko pertsona kopuruaren arteko zatidura). Txandaketak igoera izan zuen 2014an, zeren eta ratioa 3,06 izan baitzen, 2013an baino 7 ehunen gehiago. Bilakaera hori antzekoa da sexuen arabera; izan ere, txandaketan gehikuntzak izan dira gizonezkoentzat (2,78 kontratutik 2,88 kontratura) eta emakumezkoentzat (2013ko 3,22 kontratuetatik 2014ko 3,26 kontratuetara).

Aldi baterako kontratuen batez besteko iraupenari dagokionez, 32 egunekoa da (46 egunekoa 2013an). Ratio bera dugu Estatuan, non azken urteen aldean ere nabarmen murriztu den. Kontratu motaren arabera, laburrenak behin-behinekoak dira (11 egun batez beste, 2013koaren erdia), eta ondoren datoz obra edo zerbitzukoak, batez beste 13 egunekoak (40 egunekoak 2013an).

EEZPren datuek agerian uzten dutenez, azkenik, gure Erkidegoan 2014an sinaturiko lan-kontratu guztietatik 75.986 atzerritarrek izenpetu zituzten, hots, guztizkoaren %10ek (%11k 2013an) eta 2013an baino %1,4 gehiago. Horrenbestez, kontratazioaren bilakaera positiboa izan arren, okerragoa izan zen EAEn atzerriko etorkinentzat. Atzerritarrek sinaturiko kontratu guztien %28,3 EBko herrialdeetako herritarrei dagokie, eta gainerako %71,7 EBtik kanpokoei. Gainera, aldi baterakoak dira kontratuen %61,9.

II.2.4. KOADROA. EAE-N ERREGISTRATURIKO LAN KONTRATUEN BILAKAERA, IRAUPENAREN ETA SEXUAREN ARABERA

		2013	2014	Ald. abs. 2013-14	Aldak. % 2013-14
Mugagabea	Gizona	21.063	17.560	-3.503	-16,6
	Emakum.	23.531	20.565	-2.966	-12,6
	GUZTIRA	44.594	38.125	-6.469	-14,5
Aldi baterakoa	Gizona	309.726	358.675	48.949	15,8
	Emakum.	324.626	362.349	37.723	11,6
	GUZTIRA	634.352	721.024	86.672	13,7
GUZTIRA	Gizona	330.789	376.235	45.446	13,7
	Emakum.	348.157	382.914	34.757	10,0
	GUZTIRA	678.946	759.149	80.203	11,8
Mugagabeen tasa	Gizona	6,37	4,67	-1,70	
	Emakum.	6,76	5,37	-1,39	
	GUZTIRA	6,57	5,02	-1,55	

Iturria: EEZPren datuekin eginikoa. Kontratuen estatistikak.

II.2.2. GRAFIKOA. LANEKO TXANDAKETAREN BILAKAERA SEXUAREN ARABERA EAE-N



Iturria: EEZPren datuekin eginikoa

II.2.5. KOADROA. EAE-N SINATURIKO IRAUNPEN JAKIN BATEKO ALDI BATERAKO KONTRATUEN BATEZ BESTEKO IRAUPENA (EGUNAK)

	2012	2013	2014
EKOIZPEN-BEHARRETARAKO ALDI BATERAKO KONTRATUA	38	36	35
BEHIN-BEHINEKOA	22	22	11
OBRA EDO ZERBITZUA	37	40	13
PRAKTIKAK	259	265	252
PRESTAKUNTZA	348	332	346
ZATIZKO ERRETIROA	1.416	1.309	1.173
ERLEBUA	1.191	1.075	1.167
GAIGABEZIA DUTENEN ALDI BATERAKOA	393	412	380
AURRETIAZKO ERRETIROAGATIKO ORDEZK.	360	360	180
BESTE BATZUK	235	243	209
GUZTIRA, EAE	**55**	**46**	**32**
GUZTIRA, ESTATUA	59	53	32

Iturria: EEZPren datuekin eginikoa

2.2. Banakako eta taldeko iraizpenen bilakaera

Lehenengo eta behin, gogorarazi behar da erregistraturiko banakako iraizpenak Autonomia Erkidegoko lan-administrazioko agintaritza eskudunaren aurrean (Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ordezkatuta) egindako adiskidetzeen ondorioz eta bi aldeak ados egonik egin direla, baita Lan arloko Epaitegien bidez izapidetutakoak ere; iraizpen horiek Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioari jakinarazten zaizkio.

Bestalde, enpresak arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolakuntzakoak edo ekoizpenekoak direla medio epealdi jakin batean lan-kontratuen ehuneko jakin bat iraungitzeko harturiko erabakiak (langileen legezko ordezkarien adostasunarekin edo adostasunik gabe) dira iraizpen kolektiboak.

Nabarmendu behar da 2012ko otsailean indarrean sartu zen lan erreformak taldeko iraizpenetarako administrazio baimenaren behar historikoa ezabatu zuela. Horrenbestez, ordutik aurrera enpresak berez erabakitzen du, langileen ordezkariak ados egonda edo ados egon gabe, eta lan agintaritzari taldeko iraizpena gauzatzeko erabakia jakinarazi besterik ez du egin behar. Kasu berezi gisa, ezinbesteko iraizpenei dagokienez, oraindik lan agintaritzak egiaztatu behar du zirkunstantzia hori egon badagoela, enpresak iraizpen horiek gauzatu ditzan.

Nolanahi ere, kontuan izan behar da Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioak arlo publiko honi buruz emandako estatistiketan ez direla biltzen izandako iraizpen guztiak, zeren eta ez baititu jasotzen arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolakuntzakoak edo ekoizpenekoak direla izandako iraizpenak, noiz-eta iraizpen kolektibotzat ezarritakoa baino langile kopuru txikiagoari eragiten dionean.

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ere EAEn erregistratutako enplegua erregulatzeko espedienteei buruzko estatistikak argitaratu ditu. Iturri horretako eta Enplegu Ministerioko datuak bat etorri ez arren (Ministeriokoak gehiago dira, erkidegoa baino esparru handiagoko espedienteak, euskal langileak ukitzen dituztenak, erregistratzen dituelako), interesgarria da bi estatistikek egindako azterketa, bien bilakaera norabide berean baitoa.

II.2.6. KOADROA. EAE-N ERREGISTRATURIKO LAN-ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK: KOPURUA ETA ERAGINPEKO LANGILEAK (EUSKO JAURLARITZA)

	ESPE-DIENTEAK	ERAGINPEKO LANGILEAK			
		GUZT.	MURRIZPENA	ETENA	HUTSAL-KETA
2009	2.565	68.722	1.170	65.574	1.978
2010	1.993	35.426	1.051	32.349	2.026
2011	1.560	22.072	2.203	17.991	1.878
2012	2.636	37.429	5.466	28.627	3.336
2013	2.426	31.790	5.814	24.104	1.872
2014	**1.434**	**16.747**	**3.196**	**12.091**	**1.460**
% ald. 12/13	-8,0	-15,1	6,4	-15,8	-43,9
% ald. 13/14	-40,9	-47,3	-45,0	-49,8	-22,0

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politikarako Saila. EUSKO JAURLARITZA.

Iturri horrek lan-erregulazioko 1.434 espediente jaso zituen 2014an; enplegua erregulatzeko espediente horiek 16.747 langileri eragin zieten (2013an baino -%49,8 gutxiago), horietatik % 72,2 behin-behineko etete-espedienteak ezarri zitzaizkien (-%49,8 2013an), % 19,1i lanaldia murriztu zitzaien (-%45 2013an) eta gainerako % 8,7ri amaiera-espedientea ezarri zitzaien (-%22 aurreko urtean). Sexuen arabera, %78 gizonezkoak dira eta gainerako %22 emakumezkoak. Kasuei dagokienez, kausa ekonomikoak dira nagusi, eraginpeko langileen %96,2, eta ondoren datoz teknologikoak (%1,4). Horren %2,4 nahitaezko zioengatik izan dira.

6 Taldeko iraizpentzat jotzen da hark 5 langiletik gorako langileria osoari eragiten dionean, enpresa jarduera erabat amaitzearen ondorioz edo, laurogeita hamar eguneko epean, 100 langiletik beherako enpresetan gutxienez 10 soldatapekori, langileen % 10i 100 eta 300 langile arteko enpresetan edo 30 soldatapekori 300 langiletik gorako enpresetan (Langileen Estatutuaren Legeko 51. artikulua).

Lurraldeen arabera, beherakadarik handiena Bizkaian izan da, non eraginpeko langileen kopuruak %58,2 egin baitu behera, eta ondoren Araban (-%48). Bestalde, Gipuzkoan ere jaitsiera izan da, baina EAEko batez bestekoaren azpitik (-%31,1, guztizkoaren -%47,3aren aldean. Eraginpeko langileen guztizkoan antzeko banaketa dugu lurraldeka, herena bakoitzean.

EAEn erregistraturiko iraizpenen guztizko kopuruak, Enplegu Ministerioa iturritzat hartuta (Estatuko gainerako erkidegoetan gertatzen denarekiko alderaketa egitea ahalbidetzen digu), oso antzeko bilakaera du Eusko Jaurlaritzak emandako eta arestian aipaturiko datuekin alderatuta, Euskadin nahiz Estatu osoan.

Lan-erregulazioko espedienteei buruzko informazioaz gain, bitartekaritza, arbitraje edo adiskidetzeagatik eta gizarte gai judizialengatik ukituriko langileen zifrak ere ematen ditu Ministerioak, baina lan-erregulazioko espedienteak dira pisutsuenak guztizko kopuruan, %80 inguru hain zuzen. Hiru modalitateei buruz dugu azken informazioaren arabera (2013koa da), Ministerioak, guztira, eraginpeko 52.648 langile zenbatu zituen. Horietatik, lan-erregulazioko espedienteen eraginpean daudenak %18,3 gutxitu dira aurreko urtearen aldean. Bitartekaritzak, arbitrajeak, edo adiskidetzeak ukituriko langileen kopuruak, berriz, %84,3 egin du gora, eta gizarte gai judizialetan %35,2ko igoera izan da. Estatu osoan, behera egin du iraizpenen guztizko kopuruak, baina neurri txikiagoan (-%8,9) eta, beraz, eutsi egiten zaio EAEko iraizpenek guztizkoan 2013an zuten pisuari, hots, %8,7 izateari.

2014ko datuak eskuan ditugula, murriztu egin dira lan-erregulazioko espedienteak EAEn, %57,9 iturri horren arabera, eta %58 Estatuan.

II.2.7. KOADROA. EAE-N ERREGISTRATURIKO LAN-ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK: ERAGINPEKO LANGILEAK LURRALDEEN ARABERA (EUSKO JAURLARITZA)

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	EAE
2007	505	1.888	2.422	4.815
2008	2.484	4.504	5.806	12.794
2009	18.744	25.190	24.788	68.722
2010	7.603	15.808	12.015	35.426
2011	3.372	9.971	8.729	22.072
2012	9.049	12.426	15.954	37.429
2013	9.747	9.102	12.941	31.790
2014	5.064	6.273	5.410	16.747
% ald. 12/13	7,7	-26,8	-18,9	-15,1
% ald. 13/14	-48,0	-31,1	-58,2	-47,3

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politikarako Saila. EUSKO JAURLARITZA.

II.2.3. GRAFIKOA. IRAIZPENAK EAE-N: ERAGINPEKO LANGILEEN BILAKAERA



Iturria: ENPLEGUMINISTERIOA ETA GIZARTE-SEGURANTZA.
** 2014rako datua enplegu Erregulazioaren gainean ukaten da soilik.*

II.2.8.KOADROA. EAE- ETA ESTATUAN ERREGISTRATURIKO LAN-ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK: ERAGINPEKO LANGILEEN BILAKAERA

	EAE	ESTATUA	EAE/ESTATUA %
2007	5.329	58.401	9,1
2008	14.797	148.088	10,0
2009	83.340	549.282	15,2
2010	43.889	302.746	14,5
2011	28.492	343.629	8,3
2012	51.948	483.313	10,7
2013	42.449	379.972	11,2
2014	17.854	159.566	11,2
12/13 ald. %	-18,3	-21,4	
13/14 ald. %	-57,9	-58,0	

Iturria: ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZA MINISTERIOA. Lan Estatistiken Buletina

3. LAN-OSASUNA

EAEko lan istripuei buruzko datuek, Osalanek (Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak) erregistratuek, erakusten dute 2014. urtean 28.990 lan istripu gertatu zirela, 2013an baino % 0,9 gehiago (lan istripua izan eta baxa eskuratu duten langileen kopurua kontuan izanik, lansaioan eta "in itinere" gertatuko istripuak eta lanbide gaixotasunak barne); Estatu osoan, ordea, igoera % 3,2koa izan da, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren datuen arabera. Bilakaera hori ez dator bat gure Erkidegoan 2011tik hona gertatu izan den etengabeko jaitsierarekin, bereziki 2009tik hasita, eta 2013ra arte %28,6ko jaitsiera metatu zen.

II.3.1. KOADROA. LANEKO EZBEHARREN BILAKAERA EAE-N: LANEKO BAXA IZAN DUTEN ERAGINPEKO LANGILEAK

	EZBEHARRAK LANALDIAN								IN-ITINERE	LANB. GAIX.	GUZTIRA
	GUZTIRA	LARRITASUNA			SEKTOREA						
		ARINAK	LARRIAK	HERIOTZAK	NEKAZARITZA	INDUSTRIA	ERAIKUNTZA	ZERBITZUAK			
2010	34.110	33.849	225	36	667	12.455	5.770	15.218	4.002	1.041	39.153
2011	30.628	30.392	199	37	665	11.460	4.372	14.124	3.384	1.028	35.040
2012	25.615	25.424	159	32	616	9.322	3.143	12.534	3.326	945	29.886
2013	24.611	24.445	138	28	574	8.611	2.562	12.864	3.349	777	28.737
2014	24.816	24.651	137	28	639	8.792	2.527	12.858	3.279	895	28.990
12/13 ald. %	-3,9	-3,8	-13,8	-9,7	-6,5	-7,6	-18,5	2,7	0,7	-9,7	-3,5
13/14 ald. %	0,8	0,8	-0,7	0,0	11,3	2,1	-1,4	-0,1	-2,1	15,2	0,9

Iturria: OSALAN.

Lanaldian ezbeharra izan duten pertsonak hartzen baditugu ardatz (24.816 guztira, 2013an baino %0,8 gehiago), azken urtean igo egin dira larritasun gutxien dutenak, %0,8. Ezbehar larrietan, berriz, %0,7ko jaitsiera izan da, eta heriotzak izan direneko ezbeharren kopuruetan ez dago aldaketarik 2013koaren aldean.

Gainera, sektorekako analisiak agerian uzten duenez, gora egin du istripuen kopuruak, bereziki lehen mailako sektorean (%11,3, ezbeharren %2,6 baino ez badira ere) eta industrian (+%2,1). Zerbitzuek, aldiz, bilakaera negatiboa dute (-%0,1) eta, neurri handiagoan, eraikuntzan: sektore horretan %1,4 egin dute behera.

Zenbateko horiek sektore bakoitzeko lanpostu bolumenari lotuz gero, bilakaera antzekoa da: Istripuen indizea 27,8koa da lanean ari diren mila pertsonako (milako 27,6 2014an eta, beraz, %0,7 egin du gora). Sektore bakoitzari erreparatuta, jaitsierarik handiena nekazaritzan (+%10,1) eta industrian (+%67) daude, hain zuzen 44,8 istripu sektorean lanean diharduten mila pertsonako. Eraikuntzan eta zerbitzuetan, bestalde, %1,2 eta %1,4 egin dute behera hurrenez hurren.

II.3.1. GRAFIKOA. ERAGINPEKOEN INDIZEA 1.000 LANDUNEKO, JARDUERA SEKTOREEN ARABERA, EAE-N



Iturria: EUSTATen eta OSALANen datuekin eginikoa

Adierazitako lanbide gaixotasunei dagokienez (guztira 895, 2013an baino %15,2 gehiago), laneko istripuen %3,1 dira guztira. Azken urteetan izandako bilakaeraren azterlana baldintzatu du jakinarazpenetarako sisteman izandako aldaketak sartzeak eta, beraz, kontuz hartu behar dira kopuruak.

Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioak Autonomia Erkidego bakoitzeko kalkulaturiko lanaldiko istripu[7] kopuruak erakusten du 2014an Balear Uharteek eta ondoren Asturiasek izan zituztela kopururik handienak, ondoren Gaztela-Mantxa.

EAEk 3.174ko indizea du, hots, indizean jaitsiera izan duen bakarra da (-%1,3), eta Estatuko batezbestekoaren gainetik dago kopuru absolutuetan. Ehunekoetan, berriz, Estatuko aldakuntza aurten %6,6 da.

Bestalde, laneko ezbeharrei buruzko datuak kontratu motaren arabera aztertuz gero ikusten denez, ezbeharren tasa askoz handiagoa da aldi baterako kontratua duten pertsonen artean kontratu mugagabea dutenen artean baino. Horrela adierazi dute Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren azken datuek, 2013ari dagozkienek.

Izan ere, kontratu mugagabea duten pertsonen arteko ezbehar kopurua 30,2koa izan da milaka; aldi baterako kontratua dutenen artekoa, berriz, 41,5ekoa izan da milaka. Edonola ere, sektore, adin talde eta okupazio mota bakoitzaren arabera gertatzen diren istripuen banaketa ezagutu behar da, behin betiko ondorioak ateratzeko. Baina nabarmenena da zelako bilakaera izan duen ezbeharren tasak; izan ere, hauxe zen 2009an ezbeharren indizearen aldea kontratu mugagabea eta aldi baterakoa zuten pertsonen artean: 40 ezbehar 1.000 langileko, eta 2013an 11ra murriztu da.

II.3.2. KOADROA. AUTONOMIA ERKIDEGO BAKOITZEAN LANALDIAN BAXAN EGOTEA ERAGIN DUTEN ISTRIPUEN INDIZEA

	2011	2012	2013	2014*	12/13 ald.	13/14 ald.
ESTATUA	3.515	2.849	2.869	3.058	0,7	6,6
ANDALUZIA	3.384	2.721	2.872	3.425	5,5	19,3
ARAGOI	3.148	2.610	2.657	2.713	1,8	2,1
ASTURIAS	4.398	3.510	3.491	3.647	-0,5	4,5
BALEARRAK	4.703	3.873	4.025	4.331	3,9	7,6
U. KANARIARRAK	4.110	3.332	3.373	3.574	1,2	6,0
KANTABRIA	3.224	2.589	2.626	2.819	1,4	7,3
GAZTELA-MANTXA	4.087	3.361	3.434	3.655	2,2	6,4
GAZTELA ETA LEON	3.433	2.763	2.750	2.922	-0,5	6,3
KATALUNIA	3.576	2.897	2.844	2.987	-1,8	5,0
VALENTZIAKO E.	3.122	2.574	2.672	2.709	3,8	1,4
EXTREMADURA	3.038	2.560	2.666	3.387	4,1	27,0
GALIZIA	3.819	2.999	2.839	3.002	-5,3	5,7
MADRIL	3.231	2.598	2.534	2.569	-2,5	1,4
MURTZIA	3.365	2.713	2.859	3.078	5,4	7,7
NAFARROA	3.616	2.790	2.839	3.051	1,8	7,5
EAE	**3.874**	**3.286**	**3.215**	**3.174**	**-2,2**	**-1,3**
ERRIOXA	3.678	2.895	2.932	3.040	1,3	3,7
CEUTA	3.456	2.915	2.888	3.442	-0,9	19,2
MELILLA	3.683	2.875	2.873	2.934	-0,1	2,1

Iturria: ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZA MINISTERIOA, Laneko ezbeharrei buruzko estatistikak.
(*) Datuen aurrerapena.

GRAFIKOA II.3.2. LANEKO EZBEHARREN BILAKAERA KONTRATU MOTAREN ARABERA EAE-N: EZBEHARRAK 1.000 LANGILEKO



Iturria: ENPLEGU MINISTERIOAREN ETA EUSTAT-EN DATUEKIN EGINIKOA

7 Istripu kopurua 100.000 langileko istripu kopuruaren eta Gizarte Segurantzan lan-istripuen arriskua berariaz estalita duten afiliatutakoen kopuruaren arteko zatidura bezala kalkulatzen da. 2014ko urtarriletik hasita, ez dira halakotzat zenbatzen lanean ari ez diren inoren konturako nekazari afiliatuak eta 13/2010 LEDren eraginpeko funtzionario afiliatuak.

4. LAN-HARREMANAK

4.1. Lan-gatazkak

Lan Harremanen Kontseiluaren (LHK) "*Euskadiko gizarte–laneko egoera*" deritzon txostenaren 2014ko emaitzen aurrerapenean emandako informazioaren arabera, 2014an guztira 226 greba izan ziren EAEn, guztira 16.360 partaide. Orotara lan egin gabeko 55.717 egun eragin dituzte, hots, urte arteko %35,4ko, %55,8ko eta %60,3ko jaitsierak izan ziren hurrenez hurren. Datu horiek izanik, grebako partaide kopurua 72 langilekoa da (-%31,6 2013aren aldean), grebako lan egin gabeko egunak 247 (-%38,5) eta lan bakoitzak greban lan egin ez dituen egunen kopurua, berriz, 27 (-%10,2 2013koaren aldean). Hortaz, lan-gatazken murriztapen nabarmena gertatu da azken urtean, baina kopuru horiek direla eta, Lan Harremanen Kontseiluak ohartarazten du ez direla sartzen EAEko Gizarte Ekimeneko Ikastetxeen grebei dagozkienak, ezta Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioan aurretik jakinarazi ziren baina EAEn eragina izan zuten azaroko eta abenduko greben gaineko datuak ere.

II.4.1. LAN-GATAZKEN BILAKAERA EAE-N



Iturria: CRL.ren datuekin egindakoa

Sektoreka, hirugarren sektorean metatu zen greba kopururik handiena (123, guztien %54,4), eta 11.203 langileri eragin zieten (langile guztien %68,5) eta 35.484 lanegun galdu ziren (%63,7); bigarren tokian industria dago, non greben %40,3 biltzen den, baita langileen %29,8 eta galdutako lan egunen %32,9 ere. Eraikuntzan, berriz, 9 greba izan ziren, eta 3 nekazaritzaren sektorean.

II.4.1. KOADROA. GREBA KOPURUA, ERAGINPEKO LANGILEAK ETA GALDUTAKO LANEGUNAK EAE-N

	GREBAK			PARTAIDEAK			LAN EGIN GABEKO EGUNAK		
	2013	2014*	ALD. %	2013	2014*	ALD. %	2013	2014*	ALD. %.
GUZTIRA	350	226	-35,4	37.020	16.360	-55,8	140.391	55.717	-60,3
-NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA	115	88	-23,5	25.387	4.853	-80,9	93.528	21.056	-77,5
-KRISIARI AURRE EGITEKO BESTE NEURRIAK	87	25	-71,3	5.935	1.471	-75,2	16.834	3.053	-81,9
-LAN ERREGULAZIOA	81	47	-42,0	3.112	4.341	39,5	13.248	6.917	-47,8
-BESTE ZIO BATZUK**	67	66	-1,5	2.586	5.695	120,2	16.781	24.691	47,1

Iturria.- LHK, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politikako Sailaren datuekin.
****Behin-behineko datuak.***
*****Soldata igoerak, soldatak ez ordaintzeak, akordioak ez betetzea, laneko ezbeharrak, etab. biltzen ditu.***

Negoziazio kolektiboa nabarmentzen da lehen lan-gatazka gisa, hain zuzen ere greben %38,9 biltzen baitu. Hala eta guztiz ere, partaide gehien bildu zituen "beste batzuk" epigrafean taldekaturiko hainbat zio (guztien %34,8), baita lan egin gabeko egun gehien ere (%44,3). 2013ko datuekin alderatuz gero, oso jaitsiera nabarmenak ageri dira lan-gatazketan negoziazio kolektiboan, krisiari aurre egiteko neurrietan eta laneko erregulazioan. "Beste batzuk" epigrafean, berriz, gora egin dute partaideen kopuruak eta greban lan egin gabeko egunen kopuruak.

Estatuan, azarora arteko behin-behineko datuak izanik, greba kopuruak ere behera egin zuen 2014an. Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioaren datuen arabera, gatazken batura –orotara 674- %27,1 jaitsi da aurreko urteko epealdi berarekiko, eta partaideen kopuruak %56,1 egin du behera. Era berean, lan egin gabeko egunak, guztira 536.911, %48,5 jaitsi dira.

4.2. Negoziazio kolektiboa: Soldaten igoera eta lanaldia

LHKren 2014ko "*Euskadiko gizarte-laneko egoera*" delakoaren emaitzen aurrerapenaren arabera, aurten gure Erkidegoko langileen %65,1i eragingo dioten hitzarmen kolektiboak berritu behar ziren. 2013koa baino txikiagoa da ehuneko hori (%87). Urtea bukatzean, EAEko langileen %51,4k berritzeke zuen hitzarmena (%60,3k 2013an).

2014an, EAEko negoziaziorako jarduerak oso txikia izaten jarraitu zuen, zeren eta indarreko hitzarmenaren estaldura zuten langileen ehunekoa %48,6 baitzen, aurreko urteko %39,7aren aldean. %48,6 horretatik, 34,9 puntu aurreko urteetan adosturiko hitzarmenen estaldura duten langileei dagokie, eta 13,7 2014an sinaturiko hitzarmenei. Era berean, hitzarmenak egiteke dituzten gainerako langileen %51,4tik %17,1 dagokie babeserako maila goreneko beste eremurik ez duten eta baliogabetu diren hitzarmenei, eta %34,3 berritzeke dauden eta luzaturiko indarraldia duten hitzarmenetako langileei.

Laburbilduz, 2014ko bukaeran eta esku artean ditugun datuen arabera (2014ko abenduaren 31ra arte erregistraturiko hitzarmenak), 82,9 da EAEn negoziazio kolektiboaren estaldura, eta guztira 548.367 lagunei eragiten die; %95 sektore pribatukoak dira. Era berean, langile horien %76,5 eremu sektorialeko hitzarmenen menpe dago, eta gainerako %23,1ak enpresaren arloko hitzarmena du.

Guztira, 2014rako adostutako batez besteko soldataren igoera %0,653koa zen (%0,7 gure erkidegoan erregistraturiko hitzarmenetan eta %0,53 EAEn eragina duten Estatuko hitzarmenetan). Halaber, enpresa-hitzarmenetan, soldataren igoera %0,60koa izan zen eta sektore-hitzarmenetan %0,67koa.

Soldaten igoera batez beste %0,65 da, azken urteetako txikiena, eta neurri handi batean, 2014an berrituriko hitzarmenen soldaten batez besteko igoera txikiaren ondorioz (%0,47), baita

II.4.2. GRAFIKOA. EAE-N ERREGISTRATURIKO HITZARMENEN ERAGINPEKO LANGILEAK. EHUNEKOAK



Iturria: CRL

II.4.2. KOADROA. EAE-N ADOSTUTAKO SOLDATA IGOEREN BILAKAERA

	2012	2013	2014
ARABA	2,65	1,25	0,72
BIZKAIA	2,42	1,02	0,76
GIPUZKOA	2,75	1,10	0,60
LURRALDE ARTEKOAK	2,73	2,15	0,87
EAE- EGONDAKOAK	1,09	1,15	0,71
ESTATUA MAILAN	1,55	0,51	0,53
GUZTIRA EAE	2,18	0,93	0,65

Iturria: LHK.

II.4.3. KOADROA. LANALDI APLIKAGARRIA EAE-N. ORDUAK/URTEA. 2014.

	2014		
	Enpresa	Sektorea	GUZTIRA
ARABA	1.685	1.717	1.701
BIZKAIA	1.654	1.722	1.707
GIPUZKOA	1.653	1.710	1.701
LURRALDE ARTEKOAK	1.588	1.371	1.446
EAE-N EGONDAKOAK	1.652	1.687	1.679
ESTATU MAILAN	1.678	1.742	1.726
GUZTIRA, EAE	1.659	1.702	1.692

Iturria: LHK

II.4.3. GRAFIKOA. EAE-N LANALDIA MURRIZTEN DUTEN HITZARMEN KOLEKTIBOEN EHUNEKOAREN BILAKAERA



Iturria: CRL

soldatak berritzeko klausulen eragin oso txikiagatik ere. Klausula horiek direla eta, Lan Harremanen Kontseiluak gogorarazten du horietatik gehienek ondorio nulua izan dutela, Estatuko KPIaren bilakaera 2014ko abenduan -%1ekoa izan baitzen aurreko urteko hilaren aldean. Esan beharra dago klausula horietako gehienetan ezarritakoa: bilakaera negatiboa denean, ez dela soldaten gaineko zuzenketarik egingo. Horiek guztiak kontuan izanik, Euskadiko batez besteko soldataren igoeraren doikuntza -%0,01ekoa izan da.

Amaitzeko, berritzen ari diren hitzarmenek azken urteotan antzemandako joera neurri handian berreskuratu dute; horrela, lanaldia murrizten duten gero eta hitzarmen gutxiago daude. Lanaldia murrizten duten hitzarmenen portzentajea %2,9 da, 2013koa baino txikiagoa (%5,9). EAEn eragina duten hitzarmen berrituen multzoan, urteko 0,21 orduko murriztapena lortu da batez beste (aurreko urtean -0,4), eta 0,24 ordukoa da EAEn izenpeturiko hitzarmenak kontuan hartuz gero eta 0,15 Euskadin eragina duten Estatu eremukoak. Horren ondorioz, batez besteko lanaldi aplikagarria, hots, indarreko hitzarmenek ezarritakoa (hitzarmenak indarrean nahiz luzatuta egon), 1.692 ordukoa izan zen EAE osoan.

5. SOLDATAK EAE-N

5.1. 2012ko soldata-egiturari buruzko inkestaren emaitzak

EINren "Soldata-egituraren urteko Inkestak" autonomia erkidegoetako datuak ematen ditu, beste aldagai batzuen artean, sexuaren eta lanbidearen araberako soldatei buruz. Ordura arte lau urterik behin baino ez zen lortzen horren inguruko informazioa soldata-egituraren inkesten bidez, hain zuzen ere, eta gainera, 10 langile edo gehiagoko enpresei buruzkoa baino ez zen. Inkesta horrek hainbat iturritako administrazio-erregistroak erabiltzen ditu, hala nola, Gizarte Segurantza edo Zerga Agentziak, baita EINren beraren lan-kostuari buruzko hiruhilekoko inkestako informazioaren zati bat ere.

II.5.1. KOADROA. URTEKO BATEZ BESTEKO IRABAZIAK (EUROAK). 2011-2012.

	2011	2012	11/12 ald
ESTATUKO BATEZ B.	22.899	22.726	-0,8
ANDALUZIA	21.351	20.892	-2,1
ARAGOI	22.334	22.104	-1,0
ASTURIAS	22.286	21.751	-2,4
BALEARS, ILLES	21.351	20.961	-1,8
U. KANARIARRAK	19.517	19.278	-1,2
KANTABRIA	20.932	20.192	-3,5
GAZTELA ETA LEON	21.029	20.569	-2,2
GAZTELA-MANTXA	20.665	20.536	-0,6
KATALUNIA	24.499	24.436	-0,3
VALENTZIAKO E.	21.316	21.224	-0,4
EXTREMADURA	19.879	19.721	-0,8
GALIZIA	19.970	19.389	-2,9
MADRIL	25.845	26.044	0,8
MURTZIA	21.077	20.682	-1,9
NAFARROA	24.385	23.784	-2,5
EAE	26.370	26.537	0,6
ERRIOXA	20.997	20.346	-3,1

Iturria: EIN. SEI 2012.

Inkestaren arabera, 2012an EAEn urteko batez besteko irabaziak 26.537 euro ziren langile bakoitzeko, aurreko urtearekin alderatuta % 0,6 hazi zen (2010 eta 2011 urteen artean % -0,7). Kopuru hori Estatuko batezbestekoa baino % 16,8 handiagoa da denboraldi berean, eta autonomia erkidegoen zerrendako lehenengoa da; ondoren Madrilgo Erkidegoa eta Katalunia daude. Soldata gordin hori 2012an 30.085 euro ziren gizonentzat eta 22.313 euro emakumeentzat, hortaz, sexu bien artean % 34,8ko aldea dago. Alde hori 3,4 puntutan handitu zen urte horretan (% 31,4koa zen 2011n), gizonen soldata hazi egin baita, baina ez emakumeena (% +2 eta % -0,06 hurrenez hurren).

II.5.2. KOADROA. LANGILE BAKOITZAREN URTEKO BATEZ BESTEKO IRABAZIAK (EUROTAN) SEKTOREKA , EAE ETA ESTATUA.EURO/URTEA. SEXUKA.

	BI SEXUAK			EMAKUMEAK			GIZONAK		
	2011	2012	Ald. %	2011	2012	Ald. %	2011	2012	Ald. %
EAE									
Sektore guztiak	26.370	26.537	0,6	22.450	22.313	-0,6	29.493	30.085	2,0
Industria	30.198	30.616	1,4	25.637	26.728	4,3	31.190	31.554	1,2
Eraikuntza	26.486	25.875	-2,3	..	..	..	26.698	26.157	-2,0
Zerbitzuak	24.953	25.128	0,7	22.023	21.759	-1,2	28.849	29.671	2,8
ESTATUA									
Sektore guztiak	22.899	22.726	-0,8	19.768	19.537	-1,2	25.668	25.682	0,1
Industria	25.872	26.122	1,0	21.067	21.446	1,8	27.484	27.709	0,8
Eraikuntza	22.541	22.686	0,6	21.030	21.442	2,0	22.784	22.911	0,6
Zerbitzuak	22.315	22.040	-1,2	19.613	19.320	-1,5	25.552	25.391	-0,6

Iturria: EIN. Soldata-egiturari buruzko inkesta.

Jarduera sektoreetako soldatei dagokienez, Soldata-egituraren Inkestak agertu duenaren arabera, handienak industriaren jardueran daude, EAEn zein Estatu osoan. Zehazki, sektorearen urteko batez besteko irabaziak 30.616 euro dira Euskal Autonomia Erkidegoan 2012n (2011n baino % +1,9), batez beste 31.554 euro gizonezkoentzat eta 26.728 emakumezkoentzat. Industriako batez besteko soldata hori Estatu osokoa baino % 17,2 handiagoa da. Estatuan ere generoen arteko aldeak daude.

Ondoren, zerbitzuen sektoreko soldatak dira handienak (urtean batez beste 25.875 euro EAEn, 2011n baino % 2,3 gutxiago); gainera, Estatuko batezbestekoa baino handiagoak ere badira, % 14,1 hain zuzen. Amaitzeko, eraikuntzaren sektoreko soldatek 25.128 euroko batezbestekoa izan dute (%+0,7 aurreko urtearen aldean), eta zenbateko hori Estatuko batez besteko balioen gainetik (% 14 gorago) dago.

II.5.3. KOADROA. URTEKO BATEZ BESTEKO IRABAZIAK, SEXUAREN ETA KONTRATU MOTAREN ARABERA, EAE-N ETA ESTATUAN. 2010-2011.

	Bi sexuak			Emakumeak			Gizonak		
	2011	2012	Ald. %	2011	2012	Ald. %	2011	2012	Ald. %
EAE									
GUZTIRA	26.370	26.537	0,6	22.450	22.313	-0,6	29.493	30.085	2,0
Mugagabea	28.335	28.355	0,1	23.703	23.385	-1,3	32.015	32.461	1,4
Mugatua	19.182	18.915	-1,4	17.887	18.038	0,8	20.222	19.708	-2,5
Mugagb. /Iraunpen jak. %	47,7	49,9		32,5	29,6		58,3	64,7	
ESTATUA									
GUZTIRA	22.899	22.726	-0,8	19.768	19.537	-1,2	25.668	25.682	0,1
Mugagabea	24.495	24.277	-0,9	20.855	20.633	-1,1	27.684	27.608	-0,3
Mugatua	16.463	15.894	-3,5	15.487	14.891	-3,8	17.358	16.881	-2,7
Mugagb. /iraupen jak. %	48,8	52,7		34,7	38,6		59,5	63,5	

Iturria: EIN. Soldata- egiturari buruzko inkesta.

Beste alde batetik, langile bakoitzaren batez besteko irabaziak kontratu-harreman motaren arabera ere aldatzen dira. Gauza logikoa da, enpresako antzinatasunagatik jasotzen diren ordainsariek gora egiten dutelako. Zehazki, urteko batez besteko soldata gordina % 49,9 handiagoa da kontratu mugagabea duten langileentzat aldi baterako kontratua duten langileentzat baino. Aldea, gainera, handiagoa da gizonen artean (% 64,7) emakumeen artean baino (% 29,6).

5.2. Lan-kostuari buruzko urteko inkesta 2013aren emaitzak

Lan-kostuari buruzko urteko inkesta langileek jasotzen duten soldataren hurbilketa egiten duen EINren bigarren estatistika da. Lan-kostuaren hiru hilez behingo inkestaren galdetegi erantsia oinarri hartuta lantzen da, eta lan-kostuaren urteko maila eta haren osagaiak ezagutzea ahalbidetzen du. Horien artean, "lansarien eta soldaten" partidak besteren konturako langileei diruz zein gauzaz emandako ordainsari guztiak hartzen ditu barne. Soldata-egituraren Inkestaren kasuan bezala, zenbatekoak gordinak dira, hau da, atxikipenak edo langileak Gizarte Segurantzarako kotizazioak egin aurrekoak.

II.5.1. GRAFIKOA. LANEKO KOSTUAREN "ALOKAIRUAK ETA ORDAINSARIAK" PARTIDAREN ZENBATEKOA LANGILEKO ETA URTEKO. EAE-ESTATUAREN ARTEKO ERKAKETA



Iturria: EIN. Laneko kostuen urteko inkesta

2013ko laneko kostuari buruzko inkestaren arabera, EAEn langile bakoitzaren lan-kostu gordina 36.718 euro dira; horietatik %73,86 "*soldata eta alokairuak*" partidari dagozkio, hau da, 27.121 euro. Gainerako %26,14a hauexen baturari dagokio: nahitaezko kotizazioak (%22,39), borondatezkoak (%0,72), zuzeneko gizarte prestazioak (%0,96) eta gainontzeko %2,65 beste partida batzuei hala nola gizarte gastuei, kalte-ordainei, etab. Batez besteko soldata hori Estatuko batez bestekoa baino %19,7 handiagoa eta, Madrilgo Erkidegoarekin batera, autonomia erkidegoen artean kopuru handiena da. "Soldatak eta alokairuak" partida hori etengabe handitu da 2002tik hona, eta 2012an %1,5 hazi da aurreko urtearen aldean; Estatuko batez bestekoa %0,1 jaitsi da.

II.5.4. KOADROA. LANEKO KOSTUA LANGILEKO ETA URTEKO. AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERAKO DATUAK. 2012-2013

	2012			2013			2012-2013ko ald. %	
	KOSTU GORDINA	Soldatak eta ordainsariak	Soldata eta guzt. gaineko %	KOSTU GORDINA	Soldatak eta ordainsariak	Soldata eta guzt. gaineko %	KOSTU GORDINA	Soldatak eta ordainsariak
ESTATUA	30.906	22.636	73,24	30.845	22.654	73,44	-0,2	0,1
ANDALUZIA	28.078	20.404	72,67	27.879	20.349	72,99	-0,7	-0,3
ARAGOI	29.394	21.446	72,96	29.725	21.416	72,05	1,1	-0,1
ASTURIAS	30.233	22.043	72,91	30.247	22.365	73,94	0,0	1,5
BALEARS (ILLES)	28.615	20.928	73,14	28.359	20.826	73,44	-0,9	-0,5
U. KANARIARRAK	25.587	18.653	72,90	25.410	18.633	73,33	-0,7	-0,1
KANTABRIA	27.935	20.271	72,56	27.553	20.186	73,26	-1,4	-0,4
GAZTELA-LEON	28.464	20.509	72,05	27.767	20.124	72,47	-2,4	-1,9
GAZTELA MANTXA	28.253	20.475	72,47	28.018	20.600	73,52	-0,8	0,6
KATALUNIA	33.158	24.431	73,68	32.936	24.290	73,75	-0,7	-0,6
VALENTZIAKO E.	27.902	20.371	73,01	27.627	20.120	72,83	-1,0	-1,2
EXTREMADURA	26.007	19.084	73,38	25.289	18.419	72,83	-2,8	-3,5
GALIZIA	26.733	19.432	72,69	27.257	19.884	72,95	2,0	2,3
MADRIL	36.110	26.658	73,82	36.291	26.877	74,06	0,5	0,8
MURTZIA	27.817	20.321	73,05	27.428	20.157	73,49	-1,4	-0,8
NAFARROA	32.225	23.373	72,53	31.998	23.299	72,81	-0,7	-0,3
EAE	**36.201**	**26.726**	**73,83**	**36.718**	**27.121**	**73,86**	**1,4**	**1,5**
ERRIOXA	28.549	20.875	73,12	28.662	21.270	74,21	0,4	1,9

Iturria: EIN. Laneko Kostuei buruzko urteko inkesta

6. ENPLEGU POLITIKAK

Enplegu politikek politika aktiboak biltzen dituzte, langabetuek enplegua lor dezaten eta lana dutenek lanari eutsi diezaioten; eta politika pasiboak, langabetuen babes ekonomikorako.

6.1. Enplegu politika aktiboak

Eusko Jaurlaritzak 2011ko abenduan onartu zuen *"Enpleguko Euskal Estrategia 2014-2016ea"*, enpresa-lehia eta enplegagarritasuna hobetzea lortu nahitzen duena; gazteen enplegua eta heziketa-enplegua trantsizioaren hobekuntza sustatzea.

Amaitzeko, 2013ko abenduan Eusko Jaurlaritzak Enpleguko Euskal Estrategia 2014-2016 onetsi zuen, enpresa lehiakortasuna eta enplegagarritasuna hobetzeko, gazteen enplegua indartzeko eta hezkuntzaren eta enpleguaren arteko bidea hobetzeko helburuak dituena. Halaber, enpleguan eragin zuzena duten obretan eta proiektuetan inbertsio pribatua izatea bultzatzea du xede eta, aldi berean, erakundeen arteko lankidetza eta erakunde pribatu eta publikoen arteko laguntza sustatu nahi du enpleguaren galera geldiarazteko[8].

(a) LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuaren jarduera 2013an

LANBIDEren 2013ko Balantzea[9] oinarri hartuta, lehenik eta behin esan behar da Zerbitzuak, guztira, 137,12 milioi euro erabili zituela lan-merkatuan sartzeko posibilitateak hobetzeko neurrietarako. 180.000 pertsonak hartu dute parte.

Batetik, 62,67 milioi euro erabili ziren lan jarduerako ekimenetarako. Lau programatan daude banatuta, eta 120.630 pertsonak hartu zuten parte. Lan bitartekotza eta orientazio zerbitzuetarako 8,87 milioi euro erabili ziren, 44,84 ezohiko merkatuko kontratazioak sustatzeko eta laneratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen enplegugarritasunaren gehikuntza, 5,56 milioi tokiko eta eskualdeko garapen ekimenerako eta 3,31 milioi zerbitzu eta enpresetarako.

II.6.1. KOADROA. LANBIDE: EPA-EN JARDUERAREN BALANTZEA 2013. MILOI EURO.

	PROGRAMAK	ZENBATEKOA 2013	2013, %
A. Laneko jarduera	Enpleguaren sustapena	44,84	32,7
	Tokiko eta eskualde garapena	5,65	4,1
	Enpresentzako zerbitzuak	3,31	2,4
	Laneko bitartekaritza eta orientazioa	8,87	6,5
	GUZTIRA	62,67	45,7
B. Lanerako prestakuntza	Landunak - Hobetuz	19,90	14,5
	Langabetuak	54,55	39,8
	GUZTIRA	74,45	54,3
GUZTIRA		**137,12**	**100,0**

Iturria: LANBIDEren datuekin eginikoa.

Bestalde, 74,45 milioi euro erabili ziren "enplegurako sustapen" programetarako, lanean ari direnena (Hobetuzen bitartez; 19,9 milioi euroko inbertsioa da, eta guztira 37.170 partaidea) nahiz langabetuena. Bigarren atal honetan, 54,55 milioi euro inbertitu dira, eta horietatik gehienak (funtsen %60) laneratzeko zailtasun bereziak dituzten langabetuak gaitzeko. Zentro publikoetan eta pribatuetan ematen den prestakuntzak 33,01 milioi euro izan zuen arte grafikoen, merkataritzaren, elektrizitatearen, fabrikazio mekanikoaren, eta abarren ikastaroetarako. Langabetuentzako beste programa batzuk: kontratatzeko konpromisoa duen prestakuntza, Hezibi (3,07 milioi euro), laneratzeko zerbitzurako prestakuntza baliabideak (16 milioi) eta Enplegu Berderako (2,47 milioi euro).

8 Euskadiko EGABren abenduaren 20ko 7/2013 Irizpena, 2013-2016ko Enplegu Planaren zirriborroari buruzkoa: http://www.cesegab.com/Portals/0/Libros/D13-07_Dictamen.pdf

9 Ez dakigu zein diren LANBIDEren jardueraren 2012ko zifrak eta, beraz, ez dira 2013ko datuak erlazionatzen aurreko ekitaldiko jarduerarekin. Memoria hau bukatu den egunean, ez dugu 2014ko informaziorik ere.

(b) EPAen beste zifra batzuk

Horrez gain, EEZPren Lanbideen Behatokiak egiten duen "Espainiako Lan-merkatuari buruzko Txostena 2013" izenekoak argitaratutako datuak ezagutu dira. Horrek agertu du 2012an (erabilgarri dauden azken datuak), Enplegu Politika Aktiboen atalean, EAEn 128.557 pertsonak baino gehiagok, hau da, 2011n baino %12,1ek gehiago eta Estatu osoko % 4k, eskuratu zituztela bitartekaritza eta aholkularitza ekintzak. Horietatik % 15,5 Arabakoak, % 55,4 Bizkaikoak eta % 29,1 Gipuzkoakoak ziren. Hala eta guztiz ere, dokumentuak berak ohartarazi du balioespen zifrak direla eta osagabeak izan daitezkeela.

II.6.1. GRAFIKOA. PAE-EKIN LOTUTAKO ZERBITZUEN ERABILTZAILEEN ZENBATESPENA EAE-N



Iturria: EEZPren datuekin eginikoa

Zerbitzu horietako erabiltzaileen eredu profilak (Estaturako datuak, autonomia erkidegoka erabilgarri ez daudela) erakutsi du gizonen eta emakumeen arteko banaketa orekatua dagoela eta asko daudela 25 eta 45 urte arteko pertsonen adin-taldean. Izan ere, adin hori daukatenak zerbitzu motaren bat hasi edo egin duten pertsonen % 58,9 izan dira. Horrez gain, 25 urtetik beherakoek % 15,6 egin zuten, eta 45 urtetik gorakoek, aldiz, zerbitzuen % 25,5.

Halaber, txosten horren arabera, 6.477 pertsonak enplegurako prestakuntza ekintzak gauzatu zituzten gure Erkidegoan 2012an, kopuru hori Estatu osoko % 2 dela. Horietatik % 16,2 Araban, % 51,8 Bizkaian eta % 32 Gipuzkoan bizi ziren. Estatu osoan garatutako prestakuntza ekintzetatik, proportzio handiena (%23,7) Administrazioa eta kudeaketa lanbide familiari dagokio; horren atzetik gizarte-kultur zerbitzuak eta erkidegoarentzako zerbitzuak (%15,7) eta Informatika eta komunikazioak (% 10,3) daude.

Enplegurako prestakuntza ekintzen erabiltzaileen profila bitartekotza eta aholkularitza ekintzetarako ematen direnen oso antzekoak dira sexuaren eta adinaren banaketaren aldetik, baina presentzia pixka bat handiagoa da emakumezkoetan (%53), eta adin ertaineko pertsonen presentzia da nagusi, 25-45 urtekoena. Prestakuntza mailari dagokionez, EEZPren txostenak nabarmentzen duenez, kasuen %60 arauturiko ikasketa orokorra duten pertsonak dira, eta kasurik hoberenean, Batxilergoa zuten amaituta (%25,6).

Bestalde, Ogasun eta Herri Administrazioetako Ministerioak, lurralde estatistiken bere datu-basetik aurrera, autonomia erkidego bakoitzak "enplegua sustatzeko" egindako gastua jakitea ahalbidetzen du, haien aurrekontu likidazioetako partida orokorra den aldetik. Informazio horren arabera, 2012an (ezin izan da eguneratu informazioa 2012ko Memoriak dakarrenarekin alderatuta) Euskadin gutxitu egin dira laneko prestakuntza, orientazio eta laneratzearen gaineko programetarako baliabideak, %1,3 2011rekin alderatuta. Alabaina, programa horietarako funts bolumen handiena erabili zuen autonomia erkidegoa da EAE kopuru erlatiboetan (2.846,17€ langabetu bakoitzeko) eta jaitsierarik txikiena izan duena (Estatuko batez bestekoa %30 murriztu zen). Kopuru horiek erakusten dute EAEk, Estatuan erregistratutako langabeziaren % 3,5 izanik (abenduko datua), fondoen % 9,8 erabili dituela (Estatuan 4.889 milioi eurotik gorakoak izan dira). Beraz, langabe bakoitzeko zenbatekoa Espainiako batezbestekoa baino bi aldiz handiagoa izan da (Estatuan langabe bakoitzeko 1.013,50 euro izan dira).

(c) Etengabeko prestakuntza

Indarreko araudiaren eta eskumenen banaketaren ondorioz, langileentzako etengabeko prestakuntzako jarduerak Etengabeko Lanbide Heziketarako Euskal Fundazioaren (HOBETUZ) eta Estatuko Enplegurako Prestakuntzaren Hirutariko Fundazioaren (EPHF) bidez kudeatzen dira EAEn. Ekintza horien finantzazioa baterako bilketako kuoten eta

Europako Gizarte Funtsak emandako kopuruen eta aurrekontu publikoetatik (bai administrazio zentraletik EEZPri emandakoak bai) Eusko Jaurlaritzatik HOBETUZen kasuan) eratorritako funtsen kargura egiten da, batez ere.

Etengabeko Lanbide Heziketarako Euskal Fundazioaren (HOBETUZ[10]) bidez burutzen diren etengabeko prestakuntzako jardueren kasuan, 2013an (urte horretakoa da eskuragarri dagoen azken datua) 882 espediente kudeatu zituen, guztira (% -5,8, 2012aren aldean). Horretarako 19,26 milioi euroko diru-laguntzak eman ziren (% -25,7). HOBETUZ organismoak landunen etengabeko prestakuntza kudeatzen du EAEn.

2014ko emaitzen aurrerapenari dagokionez, 1.040 espediente kudeatu dira, guztira, enpresen, enpresa eta sindikatu erakundeen eta prestakuntza zentroen eremuan, eta 19,08 milioi euroko diru-laguntzak eman dira.

II.6.2. KOADROA. HOBETUZ: 2013KO DEIALDIAREN BALANTZEA. BEHIN BETIKO DATUAK.

		PLAN MOTA	ESPEDIENT.	EMANDAKO DIRUL. (mila €)	PARTAIDEAK
ENPRESAK	EKINTZA ESTRATEGIKOAK	ENPRESA PLANAK	379	2.645	13.227
		ENPRESA-TALDEEN PLANAK	55	785	3.418
		GUZTIRA	434	3.430	16.645
LANGILEAK	ERAKUNDE SINATZAILEEN SEKTOREEN ARTEKO SEKTORE PLANAK	ERAKUNDE SINATZAILEAK	20	6.900	10.990
		ERAK. SINATZAILEAREN SEKT.	4	483	987
		ERAKUNDE SINATZAILEAREN SEKT. ARTEKOA	16	6.418	10.003
	PRESTAKUNTZAKO ERAKUNDEEN PLANAK-AUTONOMOAK, GIZARTE-EKONOMIA ETA ZENTRO ETA ERAK. EZ SINATZAILEEN SEKT. ETA SEKT. EZ DIRENAK	PRESTAKUNTZAKO ERAKUNDEEN SEKT.	13	89	471
		EZ SINATZAILEEN SEKT.	30	192	1.119
		PRESTAKUNTZA ERAKUNDEEN SEKT. ARTEKOA	211	2.675	7.415
		KATALOGO MODULARRA	166	5.568	7.365
		GIZARTE-EKONOMIA	2	150	108
		AUTONOMOAK	6	254	433
		GUZTIRA	448	15.829	27.847
		GUZTIRA	**882**	**19.259**	**44.492**

Iturria: HOBETUZ.

Enplegurako Prestakuntzaren Hirutariko Fundazioak (enpresa planetarako, sektore arteko eta sektoreetako prestakuntza planetarako, gizarte ekonomiarako eta langile autonomoentzako) sustaturiko langileen etengabeko prestakuntzarako ekintzetan 2013an 178.019 pertsonek hartu dute parte behin-behineko datuen arabera, hau da, aurreko urtean baino % 4,9 gehiagok, 22.072 enpresa formatzaileren esku-hartzeari esker (% -0,6, 2012ren aldean). Guztira, enplegurako prestakuntzarako erabilgarri dauden fondoen 33,55 milioi euro erabili dituzte, eta horrengatiko hobaria izan dute Gizarte Segurantzako kuotetan.

Partaidetza maila dela eta, Euskadin prestakuntza ekintzen sektore pribatuko soldatapeko pertsonen %30,1ek hartu du parte prestakuntza ekintza horietan (Estatuko batez besteko ratioa %29 da), eta soilik Madrilek (36,2) eta Asturiasek (30,7) gainditu dute ratio hori.

II.6.3. KOADROA. FTFE: ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA EAE-N: 2012-2013KO EKITALDIETAKO BILAKAERA

	2012	2013	12/13ko ald. %
EAE-N PRESTATURIKO PARTAIDEAK			
GUZTIRA	174.725	178.019	1,9
IKASKETA MAILAREN %			
Ikasketarik gabe edo lehen mail.	26,3	25,7	-2,3
Bigarren mailakoak eta LH	40,9	41,9	2,4
Unibertsitate diplomatura	12,4	12,1	-2,4
Goi mailako unibertsitate ikask.	19,7	20,3	3,0
PRESKUNTZA EMATEN DUTEN ENPRESAK			
GUZTIRA	22.196	22.072	-0,6
JARDUERA SEKTOREA			
Nekazaritza	95	142	49,5
Industria	3.461	3.522	1,8
Eraikuntza	2.636	2.295	-12,9
Merkataritza	5.465	5.284	-3,3
Ostalaritza	2.886	2.885	0,0
Beste zerbitzu batzuk	7.653	7.944	3,8
PRESTAKUNTZA ORDUAK PARTAIDEKO	26,68	26,13	-2,1
FINANTZIAZIOA: Kreditu baliatua (milioi €)	**32,73**	**33,55**	**2,5**

Iturria: ENPLEGUA SUSTATZEAKO HIRU ALDERDIKO FUNDAZIOAREN datuekin egina.

10 Enpresa eta sindikatu erakundeetako ordezkariek eta Eusko Jaurlaritzak osatzen dute.

Lehenik eta behin, bigarren mailako eta lanbide heziketako ikasketak dituzten langileak trebatu zituzten, guztizkoaren %41,9, eta ondoren ikasketarik ez duten edo lehen mailako ikasketak dituzten langileak ziren, %25,7. Ondoren, %12,1ek unibertsitate diplomatura zuen eta gainerako %20,3k goi mailako unibertsitate ikasketak zituen. Prestakuntza edukiei dagokienez, enpresetako prestakuntza Laneko Arriskuen Prebentzioari, Giza Baliabideen Kudeaketari, Hizkuntzei eta Informatika eta ofimatikari lotuta egon da nagusiki, besteak beste.

6.2. Enplegu politika pasiboak

II.6.2. GRAFIKOA LANGABEZIAGATIKO PRESTAZIOEN JASOTZALEEN HILEKAKO BILAKAERA EAE-N (MILA)



Iturria: EGZMren datuekin eginikoa.

Langabeziagatiko prestazioek lan egin ahal eta nahi dutenak baina aldi baterako edo behin betiko lana galdu edo lanaldiaren zati handi bat murriztuta dutenak eta, horren ondorioz, soldatak antzeko moduan murriztuta dituztenak babesten dituzte. Kotizaziopeko prestazioak (erabateko langabezia edo langabezia partziala) eta laguntzako prestazioak (langabeziagatiko subsidioa) daude. 2012ko uztailean, aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko 20/2012 Errege Dekretu-legea aplikatzearen ondorioz, murriztu egin dira langabeziagatiko prestazioen zenbatekoak, eta kopuru hauek ditugu:[11]

- Kotizaziopeko prestazioen zenbatekoa langileek eta enpresariek Gizarte Segurantzari egoera horretarako ordaindutako kotizazioekin finantzatzen da, eta langabeziaren lehenengo 6 hiletan langabearen kotizazio oinarriaren % 70 da (gainerakoan % 50), langabe bakoitzaren familia egoeraren arabera zenbait muga dituela.
- Langabeziagatiko subsidioa familia egoeraren arabera IPREMen (Askotariko Efektuen Errentaren Adierazle Publikoa) gaineko ehuneko jakin baten erreferentzia duen prestazio ekonomikoa da. 2014rako IPREM 532,51ekoa izan da hilean, aurreko lau urteetako berdina, beraz.

a) Langabeziako estaldura eta prestazioen jasotzaileak

2014an langabeziagatiko prestazioen onuradunak, batez beste, 78.929 lagun izan ziren EAEn, aurreko urtean baino % 11,8 gutxiago, nahiz eta urte horretan % 1,6 handitu 2012aren aldean, Sustapen Ministerioak emandako batez besteko datuen arabera. Estatuan, jasotzaileen kopurua ere murriztu zen 2014an, baina pixka bat gutxiago: %11,2 batez beste urtean, halako moldez non EAEn Estatuko onuradunen guztizkoan duen partaidetza pixka bat murriztu baita, hots, 2013ko %3,12tik 2014ko %3,10era. Horrez gain, EAEko 78.929 jasotzaileen %47,8 emakumezkoak dira (horren kopurua batez bestekoa baino gehiago txikitu da, %9,5) eta %52,2 gizonezkoak (-%13,9).

11 BOE, 168 zk., 2012ko uztailaren 14koa.

II.6.4. KOADROA. EAE-N LANGABEZIAGATIKO PRESTAZIOAK JASOTZENDITUZTENEN BATEZ BESTEKO KOPURUAREN BILAKAERA

	KOTIZAZIOPEKO PRESTAZIOAK			LAGUNTZA PRESTAZIOAK			PRESTAZIOAK, GUZTIRA*		
	Gizona	Emakum.	GUZTIRA	Gizona	Emakum.	GUZTIRA	Gizona	Emak.	GUZTIRA
2010	31.011	22.720	53.731	15.397	16.257	31.654	46.408	38.977	85.385
2011	28.632	22.357	50.989	14.841	16.016	30.857	43.473	38.374	81.847
2012	31.014	24.471	55.485	16.065	16.586	32.651	47.079	41.057	88.136
2013	30.526	25.082	55.608	17.313	16.611	33.924	47.839	41.693	89.532
2014	24.488	22.039	46.527	16.704	15.698	32.402	41.192	37.737	78.929
11/12ko ald. %	8,3	9,5	8,8	8,2	3,6	5,8	8,3	7,0	7,7
12/13ko ald. %	-1,6	2,5	0,2	7,8	0,2	3,9	1,6	1,5	1,6
13/14ko ald. %	-19,8	-12,1	-16,3	-3,5	-5,5	-4,5	-13,9	-9,5	-11,8

(*) Laneratzea Errenta Aktiboa barne.
Iturria: EEZP (Prestazioen Zuzendariordetza) eta ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZA MINISTERIOA.

Prestazioaren hartzaileen kopuruaren hilez hileko bilakaera ardatz hartuta ikusten denez, uztailean eta abuztuan goranzkoa joera egon zen, baina harrezkero behera egin zuen eta urtearen bukaeran 71.000 jasotzaile baino gutxiago ziren, hain zuzen ere 2009ko hasieratik izan ez zen kopurua. 2013ko abenduari dagokionez, -%15,8ko bilakaera zen, zeren 2014. urtea 70.957 lagunekin itxi baitzen.

70.957 jasotzaile horietatik, abenduan, %569 kotizaziopeko prestazioen jasotzaileak ziren, %37,4 subisidioena eta gainerako %5,8k Gizarteratze Errenta Aktiboa jasotzen zuen.

Estatuan, berriz, kotizaziopeko prestazioak jasotzen zituzten jasotzaileen ratioa % 40,4koa zen, subsidioak jasotzen dituztenak, aldiz, % 43,4 izan dira eta Txertaketarako Errenta Aktiboa %11k jaso zuten. Gainera, % 5,2k Nekazaritzako aldi baterako langileen subsidioa jasotzen zuten.

II.6.5. KOADROA. ESTALDURA ADIERAZLEAK ETA LANGABEZIAGATIKO PRESTAZIOETAKO GASTUA AA.EE.N ARABERA. ABENDUA.

	Estaldura tasa*			Kotizaziopeko prestazioaren batez bestekoa onuradun bakoitzeko (€/hilea)		
	2013	2014	2013-14ko ald. pp.	2013	2014	13/14ko ald. %
Andaluzia	64,1	61,6	-2,6	784,9	771,9	-1,7
Aragoi	60,4	56,9	-3,6	849,4	837,0	-1,5
Asturias	59,2	54,3	-4,9	822,6	779,9	-5,2
Balearrak	111,5	115,9	4,4	911,5	931,0	2,1
U. Kanariarrak	56,3	52,0	-4,3	744,8	743,3	-0,2
Kantabria	60,8	56,5	-4,3	814,1	775,2	-4,8
Gaztela Mantxa	54,5	50,8	-3,7	800,8	769,5	-3,9
Gaztela eta Leon	53,0	51,6	-1,4	803,7	790,7	-1,6
Katalunia	67,4	63,3	-4,2	878,9	857,5	-2,4
Valentziako E.	55,4	51,5	-3,9	812,9	798,1	-1,8
Extremadura	66,9	65,3	-1,6	705,1	692,5	-1,8
Galizia	60,0	55,6	-4,4	789,0	780,2	-1,1
Madril	58,5	53,2	-5,3	858,0	845,9	-1,4
Murtzia	55,1	52,4	-2,7	791,7	781,9	-1,2
Nafarroa	61,0	55,2	-5,8	927,5	905,3	-2,4
EAE	**55,0**	**47,3**	**-7,7**	**929,9**	**903,1**	**-2,9**
Errioxa	58,0	53,5	-4,5	864,0	840,0	-2,8
Ceuta	38,8	39,9	1,1	842,1	789,5	-6,2
Melilla	41,7	35,6	-6,1	793,5	749,8	-5,5
GUZTIRA	**61,4**	**57,6**	**-3,8**	**829,8**	**815,3**	**-1,7**

Iturria:EGSMren datuekin eginikoa.
(*) Estaldura tasa kalkulatzeko, hileko azken egunean alta emanda zeuden prestazioen onuradunen (kotizaziopekoak gehi subsidioak) eta lan esperientzia duten langabetuen baturaren arteko zatidura erabili da gehi nekazaritzako aldi baterako subsidioaren onuradunak (Andaluzia eta Extremadura).

Erregistratutako langabeziaren zifrak kontuan izanik, esan liteke 2014ko abenduan EAEko 100 langabetik 57k ez dutela inolako prestaziorik jaso (50 2013an); bai ordea, ehunetik 43k, eta horien artean 24k kotizaziopeko prestazioa jaso dute, 16k subsidioa eta 3k bakarrik Txertaketarako Errenta Aktiboa.

Erregistratutako langabeziaren aldean, langabeziagatiko prestazioen estaldura-tasak ezberdinak dira autonomia erkidego bakoitzean. Balear Uharteetan, eskuragarri dauden datuen arabera, aurretiko lan esperientzia duten langabe guztiek jasotzen dute nolabaiteko prestazioren bat eta, aldiz, Ceutan eta Melillan langabeen erdiek baino gutxiagok jasotzen dute prestazioren bat %40k besterik ez.

2014ko abenduko datuen arabera, Estatuko batezbestekoa % 57,6 izan zen (2013ko abenduan baino 3,8 puntu portzentual gutxiago). Horrekin alderatuta, EAEko datua txikiagoa da (hil horretan erregistratu diren eta aurretik lan egin duten langabeen % 47,3, Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioak erabiltzen duen metodologiaren arabera).

Gure Erkidegoak ere 7,7 puntuko jaitsiera izan zuen 2013ko abendutik 2014ko abendura, hots, EAEn izan da jaitsierarik handiena langabeziaren estaldura tasetan autonomia erkidego guztietatik. Hala, Estatuko batez bestekoa bi halakoa da.

Langabeziagatiko kotizaziopeko prestazioaren batez besteko zenbatekoa 903,1 eurokoa izan da EAEn 2014ko abenduan (aurreko urtean baino % 2,9 gutxiago), Estatu osoko batezbestekoaren (815,3€, 2013ko abenduan baino %1,7 gutxiago) gainetik dagoela.

Beste era batera esanda, onuradun bakoitzeko prestazioa Estatu osokoa baino % 10,1 handiagoa izan da EAEn. EAE, Nafarroa, Katalunia eta Balear Uharteak datu horren zerrendan lehenak dira.

II.6.3. GRAFIKOA. LANGABEZIAGATIKO PRESTAZIOAK EAE-N: JASOTZAILEEN KOPURUAREN ETA GASTUAREN BILAKAERA



Iturria: EEZPren datuekin eginikoa

(b) Langabeziaren babeseko gastua eta diru-sarrera

II.6.6. KOADROA. EAE-KO LANGABEZIAKO GASTUAREN ETA EEZP-REN GIZARTE SEGURANTZAKO KOTIZAZIOEN ONDORIOZKO DIRU-SARREREN BILAKAERA (EUROAK MILIOIKA)

	2011	2012	2013	2014*	12/13ko ald. %	13/14ko ald. %
Ordaindutakoaren araberako prestazio gord.	667,86	789,87	799,31	615,23	1,2	-23,0
(-) Gizarte Segurantza langabetuaren kontura	*36,04*	*42,51*	*44,02*	*47,74*	*3,6*	*8,5*
(-) PFEZren atxikipenak	*6,15*	*6,15*	*6,16*	*4,36*	*0,2*	*-29,2*
Ordaindutakoaren araberako prestazio garbiak	628,64	741,21	749,13	563,13	1,1	-24,8
Langabeziagatiko diru-laguntza prestazioak	161,29	168,60	171,71	163,18	1,8	-5,0
EEZPren kotizazioak Gizarte Segurantzara	315,27	342,83	338,04	275,16	-1,4	-18,6
- EEZPren kargura, ordaindutakoaren araberako prestazio bakoitzeko	*279,93*	*305,61*	*305,79*	*245,21*	*0,1*	*-19,8*
- EEZPren kargura, laguntza prestazio bakoitzeko	*35,34*	*37,22*	*32,25*	*29,95*	*-13,4*	*-7,1*
LANGABEZIARAKO GASTUA, GUZTIRA	1.144,42	1.252,64	1.258,88	1.001,47	0,5	-20,4
EEZP-RAKO BILDUTAKO KUOTAK	1.131,52	1.088,31	1.056,10	..	-3,0	..
SALDOA	-12,90	-164,33	-202,45	..		
SARRERA / GASTUA	0,98	0,87	0,84	..		

Iturria: EEZPren eta GSDNren datuekin eginikoa. Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.
****2014ko kopuruak behin-behinekoak dira.***

Langabeziagatiko prestazioetarako guztizko gastua, EAEn, 1.001,47 milioi eurokoa zen 2014an, eta behin-behineko datuen arabera, 1.0011,47 milioi euro, hain zuzen ere 2013an baino %20,4 gutxiago. Hala, EAEko BPGaren %1,50 da, aurreko urteko %1,91ren aldean. Datu hori eta jasotzaileen kopuruak direla eta, guztira 12.693€-ko urteko batez besteko gastua zenbatesten da jasotzaileko, hots, 2013koa baino %9,7 gutxiago.

Bestalde, EEZPrako gizarte kotizazioengatiko sarrerak, enpresek eta soldatapekoek ordainduak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak EAEn bilduak, guztira 1.056,1 milioi euro izan ziren 2013an (eskuragarri dugun azken datua), halako moldez non EAEn langabeziaren kontingentzia estaltzeko sarreren eta gastuen arteko aldea, 2013an, 202,78 milioi euro negatibokoa izan zen, 2012an baino 38,45 milioi euro gehiago.

II.6.4. GRAFIKOA. LANGABEZIAGATIKO PRESTAZIOETAKO GASTUA ETA SARRERA EAE-N



Iturria: EEZPren eta EUSTATen datuekin egina.

III. KAPITULUA

Bizi-kalitatea EAEn

1. GIZA BALIABIDEAK EAE-N

1.1. DEMOGRAFIA

Nazio Batuen erakundeak eskura dauzkan azken datuek diotenez, munduan 7.200 milioi biztanle bizi dira (2014an). Bestalde, EUROSTATEN zenbatespenen arabera, Europar Batasunean 506,8 milioi biztanle daude, 2014ko urtarrileko datuen arabera, hain zuzen 2013ko urtarrilean baino 1,7 milioi gehiago. Milako 3,2ko hazkunde horri esker -milako 2,2koa izan zen aurreko urtean-, beste urte batez eutsi ahal izan zaio 1960tik gertatu izan den etengabeko hazkunderako joerari, egungo Batasunaren populazioa 400 milioi biztanlekoa zenetik Bilakaera positibo hori berriro ere immigrazioaren portaeraren ondorioa izan da; izan ere, aldaketa osoaren %10 baino ez ezin zaio hazkunde naturalari egotzi (jaiotza eta heriotzen arteko alde positiboa).

III.1.1. KOADROA. EAEko BIZTANLERIAREN EGUNGO BILAKAERA. 2009-2014

	2009	2010	2011	2012	2013	2014	13-14 ald.
ARABA	313.819	317.352	319.227	322.557	321.417	321.932	+515
BIZKAIA	1.152.658	1.153.724	1.155.772	1.158.439	1.156.447	1.151.905	-4.542
GIPUZKOA	705.698	707.263	709.607	712.097	713.818	715.148	+1.330
EAE	2.172.175	2.178.339	2.184.606	2.193.093	2.191.682	2.188.985	-2.697

Iturria: EIN. Biztanleen Udal Errolda.

EAEn, Biztanleen Udal Erroldak[1] emandako 2014ko urtarrileko azken datuen arabera, bigarren urtez jarraian pixka bat behera egin du EAEko biztanleriak, eta 2.188.985 biztanle ditu (-%0,12 2013aren aldean), hots, aurreko urtean baino 2.697 gutxiago. Lurralde Historikoei dagozkien datuek erakusten dutenez, biztanleria hazi egin da Gipuzkoan (1.330 biztanle gehiago, +%0,19) eta Araban (+%0,16, 515 biztanle gehiago). Bizkaian, berriz galera izan da, 4.542 biztanlekoa hain zuzen).

Kopuru horiekin batera, gainera, EAEn erroldaturiko atzerritarren %6,4ko pisua dugu (eta %8,3 atzerrian jaiotakoak kontuan hartuz gero, hots, nazionalizaturikoak barne); 2013ko urtarrilaren 1ean, berriz, %6,8 zen. Epealdi berean, proportzio handiagoan egin du behera atzerritarren populazioak Estatuan (%11,8tik %10,7ra), baina EAEko datua orain ere oso urruti dago Espainiako batez bestekotik -errolda azkenengoz eguneratu zenean, 4,6 milioi atzerritar ziren, eta 6 milioi herrialdetik kanpora jaiotakoak kontuan hartzen baditugu- eta, batez ere, beste erkidegoetako batzuen aldean hala nola Balearrak, Valentziako Erkidegoa edo Madril, non atzerritarren portzentajea nabarmen den.

Bestalde, EUSTATek EAErako 2026. urterako eginiko azken zenbatespen demografikoen arabera, hauexek izango lirateke emaitza nagusiak[2]:

a) *Euskadiko populazioan 100.000 lagun gutxiago izango dira.* EAEk 2.077.000 biztanle izango ditu 2026ko urtarrilean, 2013an baino 115.000 gutxiago, hots, urte-arteko -%0,3ko aldakuntza. Jaitsiera erritmorik handienak hamarkada honen amaieran kokatzen dira, eta abiadura txikiagoa izango da ondoren aldiaren bukaeran. Zenbatespenen arabera, hazkunde demografikoaren bi osagaiek, berezko hazkundeak eta migrazio mugimenduek, saldo negatiboak izango dituzte epealdi horretan.

b) *Aurrera jarraitzen du populazioaren zahartze-prozesuak.* 20 urtetik beherakoak guztizkoaren %17,8 dira 2013an, eta bere pisuari eutsiko dio 2026an, baina 18.000 lagun gutxiago izango dira. Gainera, 65 urtekoak 110.000 gehiago izan litezke, eta beraz, populazioaren %26,5ekoa izatera irits litezke, 2013an baino ia 7 puntu gehiago. Guztizko horretatik, 32.000 lagun 85 urte edo gehiagokoen taldera igaroko dira; izan ere, euskal populazioaren %4,6 izango da talde hori.

1 Biztanleen Udal Erroldako kopuruak ezin dira modu zorrotzean konparatu Biztanleriaren eta Etxebizitzaren zentsuko kopuruekin, metodologia diferentea daukatelako. Udal Errolda erregistro administratiboa da, eta Espainian dauden 8.000tik gora udaletako bakoitzak eratu, mantendu eta kudeatu behar du. Errolda horren datuak udal mugartean bizilekua eta egoitza izatearen froga dira, eta bere egiztapenak agiri publiko eta fede-emaileak dira, ondorio administratibo guztietarako. Aitzitik, Biztanleen Zentsua estatistika hutsa da, eta Estatistikako Instituzionalak egin behar du. Zentsuan ageri diren datuak sekretu estatistikoaren babespean daude. Erroldan, aldiz, pertsonak identifikatzea ezinbestekoa da.

2 Ikerketari buruzko xehetasun gehiago nahi izanez gero, ikusi Memoria Sozioekonomiko honen 2013ko edizioa.

c) *Ugalkortasun tasa goraka hasiko da, baina behera egingo du jaiotzen kopuruak.* 2010ean 21.200 jaio ondoren, kopuru hori 15.000eraino jaitsi da 2015ean, zeren eta aurreikusitako jaiotze-tasaren gorakada txikiak ez baitu (emakume bakoitzeko 1,5 seme-alaba) konpentsatuko umeak izateko adinean diren emakumeen kopuruaren jaitsiera.

d) *Bizi-esperantzak goranzko joerari eutsiko dio,* eta 82,6 urte izango da gizonezkoentzat eta 88,4 emakumeentzat 2015ean, abiapuntua 2010ean hartzen dugula kontuan hartuta, orduan 79,1 eta 85,6 izan baitziren hurrenez hurren.

e) *Migrazio-saldoa lagungarria izango da populazioaren jaitsiera gerta dadin.* 2015ean, EAEn eginiko sarrerak 18.000tik behera izango dira, eta atzerrikoak sarreren %10 besterik ez dira izango. Epealdiaren amaieran, 22.000tik gorako immigrazioak izango dira, eta atzerrikoak, berriz, %40 izango lirateke. Bestalde, emigrazioetan beheranzko joera izango da aintzat harturiko epealdi osoan. Zenbatespenen arabera, negatiboa izango da migrazio-saldoa, eta ondoren positibo bihurtuko da epealdiaren amaieran, igoera txikia izanik ere.

III.1.1. GRAFIKOA. EAE-KO 2026RAKO AURREIKUSPEN DEMOGRAFIKOAK: OSAGAIEN ARABERA AURREIKUSITAKO BILAKAERA. MILA PERTSONA



Iturria: EUSTATen datuekin eginikoa. Aurreikuspen demografikoa. 2026

1.1.1. Oinarrizko adierazle demografikoen bilakaera

a) *Biztanleriaren mugimendu naturala*

Euskal Autonomia Erkidegoan 2013ko behin-behineko datuek hazkunde begetatibo negatiboa erakusten dute (jaiotza eta heriotzen arteko alde gisa zenbatzen den biztanle-aldaketa, immigrazio-mugimenduak kontuan hartu barik), saldo positiboak izandako 9 urteren ondoren: urte horretan 19.118 jaiotza izan ziren, aurreko urtean baino %6,9 gutxiago, eta 19.692 heriotza (2012. urtean baino % 2,9 gutxiago). Horren ondorioz, hazkunde begetatiboa -574koa izan zen, hots, milako -0,2koa. Gauzak horrela, 2013. urteko saldoa negatiboa izan zen, bi aldagaiak murriztu arren, jaiotzak gehiago gutxitu direlako heriotzak baino.

III.1.2. KOADROA. EAE-KO BIZTANLERIAREN MUGIMENDU NATURALA

	Bizirik jaioak	Tasa	Heriotzak	Tasa	Hazkunde beget.	Tasa
2006	20.043	9,4	18.507	8,7	1.536	0,7
2007	20.596	9,6	19.252	9,0	1.344	0,6
2008	21.315	9,9	19.437	9,0	1.878	0,9
2009	20.928	9,7	19.624	9,1	1.304	0,6
2010	21.159	9,7	19.357	8,9	1.802	0,8
2011*	21.180	9,7	19.832	9,1	1.348	0,6
2012*	20.533	9,4	20.281	9,3	252	0,1
2013*	19.118	8,8	19.692	9,0	-574	-0,2

(*) Behin-behineko datuak. Mila biztanleko tasak.
Iturria: EUSTAT. Jaiotzen eta Heriotzen Estatistika, eta geuk eginikoa.

Ohikoa denez, joera desberdina da lurraldeak aintzakotzat hartuz gero: Bizkaiak, 2012. urtean 904 biztanle galdu zituenak, 2013an berriro ere galdu ditu 996 biztanle, behin-behineko datuen arabera. Bestalde, Arabak urte horretan joera positiboari eutsi dio, eta biztanleria 520 pertsonan hazi da; aitzitik, Gipuzkoak 98 biztanleko saldo negatiboa dauka.

III.1.3. KOADROA. JAIOTZAK ETA HERIOTZAK EBn MILA BIZTANLEKO. 1975 eta 2012

	JAIOTZAK		HERIOTZAK	
	1975	2013	1975	2013
UE 28	14,7	10,0	10,7	9,9
ALEMANIA	9,9	8,5	12,6	9,3
AUSTRIA	12,4	9,4	12,7	9,4
BELGIKA	12,2	11,2	12,2	9,8
BULGARIA	16,6	9,2	10,3	14,4
ZIPRE	16,3	10,8	9,8	6,0
DANIMARKA	14,2	10,0	10,1	9,3
ESLOVAKIA	20,6	10,1	9,5	9,6
ESTONIA	16,6	10,2	10,1	9,4
ESPAINIA	18,8	9,1	8,4	8,3
ESTONIA	14,9	10,3	11,6	11,6
FINLANDIA	13,9	10,7	9,3	9,5
FRANTZIA	14,1	12,4	10,6	8,7
KROAZIA	:	9,4	:	11,8
GREZIA	15,7	8,6	8,9	10,2
PAÍSES BAJOS	13,0	10,2	8,3	8,4
HUNGRÍA	18,4	9,0	12,4	12,8
IRLANDA	21,1	15,0	10,4	6,4
ITALIA	14,9	8,5	10,0	10,0
LETONIA	14,2	10,2	12,2	14,3
LITUANIA	15,7	10,1	9,5	14,0
LUXEMBURGO	11,1	11,3	12,2	7,0
MALTA	18,8	9,5	9,5	7,6
POLONIA	19,0	9,7	8,7	10,2
PORTUGAL	19,8	7,9	10,8	10,2
ER. BATUA	12,4	12,1	11,8	9,0
ERRESUMA BATUA	19,1	10,2	12,4	10,4
ERRUMANÍA	19,6	9,1	9,3	12,4
SUEDIA	12,6	11,8	10,8	9,4
EAE	**19,1**	**8,8**	**7,1**	**9,0**

Iturria: EUROSTAT y EUSTAT.

Jaiotzetan jaitsierak ageri dira hiru lurraldeetan: 2013an, Araban 3.099 haur jaio ziren (-%5,9, EAEko -%6,9ko batez besteko jaitsieraren aldean). Bizkaian, berriz, 9.732 jaiotza izan ziren, aurreko urtean baino %5,9 gutxiago ere, eta Gipuzkoan ez da hain jaitsiera handia ageri: guztira 6.287 jaiotza, 2012an baino %8,6 gutxiago. Beraz, datu horiek islatzen dutenez milako 8,8ko jaiotza tasa zegoen EAEn (milako 9,4koa 2012an). 60ko hamarkadan kopuru hori milako 20tik gorakoa zen, eta Estatuko batez bestekotik gorago zegoen. Gaur egun, EAEk estatuko eta EBko batez bestekoak (milako 9,1 eta 10, EBn) baino tasa baxuagoei eusten die.

Lurraldez lurralde, Arabak milako 9,7ko jaiotza-tasa du –hiru lurraldeetatik handiena-, Bizkaiak 8,5ekoa –txikiena- eta Gipuzkoak milako 8,9koa.

Horrez gain, jaiotza-tasak oso desberdinak dira amaren herritartasuna kontuan hartzen bada. 2013an bizirik jaio ziren 19.118 haurretatik 3.388k ama atzerritarra dute, alegia, jaiotakoen %17,7k (%17 2012an), herritartasun atzerritarra duten biztanleen proportzioa txikiagoa denean, dagoeneko ikusi den moduan. Jatorriko herrialderik ohikoenak Maroko (ama atzerritarrengandik jaiotakoen %17,4), Errumania (%8,1) eta Kolonbia (%7,8) dira.

Beste urte batez, azpimarratu behar da ama ezkongabeengandik jaiotakoen portzentajea gero eta handiagoa dela. 2013an ezkontzatik kanpo jaiotakoak 7.250 izan ziren, guztien %37,9 (%35,9 aurreko urtean). Arabak eta Bizkaiak EAE

osokoa baino portzentaje altuagoak izan zituzten, % 38,1 eta % 39,2 hurrenez hurren. Gipuzkoak, aldiz, balio erlatibo txikiagoa izan zuen (% 35,9). Egungo ehunekoa 1990ekoarekin (%7,7) alderatuz gero, ikusten da ama ezkongabeengandik jaiotako haurren ratioa ia boskoiztu egin dela.

III.1.2. GRAFIKOA. JAIOTZA-TASEN BILAKAERA LURRALDEEN ETA AMA EZKONGABEARENGANDIK JAIOTAKOEN EHUNEKOAREN ARABERA. EAE.



Iturria: EUSTATen datuekin eginikoa. Jaiotzeen estatistika

Herrien arabera, EBko ehunekoak Bulgariako eta Esloveniako (% 57tik gora) mailen eta Kroazia (% 15,4) edo Greziakoen (bizirik jaiotakoen %7,6) artean mugitzen dira. Batasuneko batez bestekoa %39,3 da, eta bertatik kanpo, nabarmentzekoa da Islandiako ratio handia. Bertan, 2012an jaiotakoen %66,9 amak ezkongabeak izan ziren.

Bestalde, EUSTATen 2013ko datuek erakusten dutenez, EBn guztira 5,08 milioi jaio ziren (milako 10), aurreko urtean baino 155.000 gutxiago, eta bosgarren urtez egin zuen behera 2000 eta 2008 arteko joera positiboaren ondotik. Jaiotza-tasarik handienak Irlandan eta Frantzian (milako 15 eta 12,4, hurrenez hurren) dira. Txikiena, berriz, Portugalen (milako 7,9) eta, bigarrenik, Alemanian (milako 8,5). Espainian milako 9,1ekoa da.

III.1.3. GRAFIKOA. JAIOTZEEN BILAKAERA AMAREN ADINAREN ARABERA. EAE.



Iturria: EUSTAT. Jaiotzeen estatistika.

Azken urteetan jaiotza-tasa jaisteari mesede egin dion faktoreetako bat, jakina den bezala, amatasuna pixkanaka atzeratu izana da. 2013an joera bera egon da, eta haurrak izan zituzten emakumeen %81,1ek 30 urte edo gehiago zituzten. Talderik ugariena 30 eta 34 urte arteko emakumeei dagokie, jaiotza guztien % 38,9arekin.

Halaber, 35 urtetik gorako amek izandako haurren jaiotza kopuruak (% 42,2) handitzen jarraitzen du, eta 25 eta 29 urte arteko taldea (% 13,5) nabarmen gainditzen du. Espainiar nazionalitateko amen batez besteko adina 33,9 urtekoa izan zen. Ama atzerritarrena, berriz, 30 urtekoa (33,2 emakume guztiak hartuta).

Heriotzei dagokienez, 2013an EAEn 19.692 lagun zendu ziren, aurreko urtean baino % 2,9 gutxiago; haietatik, % 51,7 gizonak eta % 48,3, aldiz, emakumeak. 2013an zendutakoen % 31,2 tumoreengatik hil ziren. Haien atzean, zirkulazio sistemaren gaitzak datoz, % 27,5, eta hirugarren tokian, urrunago, arnas eritasunak, % 9,5 orotara[3].

III.1.4. GRAFIKOA. EAE-N HILDAKO PERTSONEN BATEZ BESTEKO ADINAREN BILAKAERA SEXUAREN ARABERA.



Iturria: EUSTAT. Heriotzen estatistika.

Europar Batasuneko kopuruak direla eta, 2003an mailarik handiena lortu zen, ia 5 milioi heriotzarekin, hots, milako 10,5eko tasa gordina, EAEk urte hartan izan zuen 9,2aren aldean. Jaisteko ageriko joeren barruan EBko heriotzen kopuruek urtero gorabehera handiak izaten dituzte, hortaz, urte batzuk itxaron beharko dira joera hori baieztatzeko. 2013ko datuen arabera, 5 milioi pertsona hil ziren, aurreko lau urtearen antzera (milako 9,9), eta, beraz, hazkunde begetatiboa edo berezkoa (jaiotzak ken heriotzak) positiboa izan zen Batasunean, 178.000 lagun ingurukoa.

Halaber, EUSTATen Heriotzen Estatistikak hauxe agertu du: 2013an hildakoen batez besteko adina 78,8 urte zen EAEn, 75,5 gizonezkoena eta 82,4 emakumezkoena, bizitza luzeagoa izaten baitute. Hala, azken hamarkadan gure autonomian bizi-esperantza gizonentzat 3,3 urte handitu da eta emakumeentzat, berriz, 1,9.

b) Migrazio mugimenduak

III.1.4. KOADROA. MIGRAZIO SALDOEN BILAKAERA EAE-N

	ATZERRIAREKIN	ESTATUKO GAINERA-KOEKIN	GUZTIZKO/KANPOKO MIGRAZIO SALDOA*			
			EAE	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
2007	19.884	-2.192	17.692	4.224	9.209	4.259
2008	14.903	1.898	16.801	4.207	8.773	3.821
2009	9.802	3.452	13.254	3.670	7.394	2.190
2010	9.342	3.686	13.028	3.902	6.562	2.564
2011	8.689	6.297	14.986	3.704	8.333	2.949
2012	4.683	5.266	9.949	1.773	4.867	3.309
2013	-5.176	3.220	-1.956	82	-3.426	1.388

(*) Estatuarekiko eta atzerriko herrialdeekiko migrazio saldoarekin batuketa.
Iturria: EUSTAT. "Migrazio mugimenduen Estatistika".

"Migrazio Mugimenduei buruzko 2013ko Estatistikak" zenbatu zuenez, urte horretan gure erkidegoak 1.956 biztanle galdu zituen (2012an 9.949 izan ziren), migrazio saldo positiboak izan zituzten 13 urteren ondoren. Lurraldeak kontuan hartuz, Bizkaiak 3.426 pertsona galdu zituen eta datu negatiboa duen lurralde bakarra da. Beste alde batetik, Arabak 82 pertsona irabazi zituen (2012. urtean 1.700 baino gehiago) eta Gipuzkoak 1.388 (aurreko urtean baino % 58 gutxiago).

EAEren eta gainerako autonomia-erkidegoen artean izandako mugimenduei dagokienez, 2013. urtean 3.220 pertsonako saldo positiboa izan zen, hau da, immigrazioak gehiago izan ziren emigrazioak baino, eta EUSTATek estatistika hau prestatzen duenetik, saldoak bigarren urtez gainditu du atzerriko herrialdeekin izaten dena; izan ere, atzerriko herrialdeekiko saldoa negatiboa da (-5.176), atzerrira pertsona gehiago doazelako beste herrialde batzuetatik datozenak baino[4].

3 Memoria honetako "Osasuna eta osasun sistema" izeneko III. atalean zehatz aztertzen dira euskal populazioaren heriotzaren zergatiak.

4 EUSTATek aldaketa metodologikoa egin du atzerriarekiko migrazio mugimenduen zenbatespenean eta, kapitulu hau bukatu den egunean, egiteke ditu azken urteetako serieen berrikuspena metodologia berria aplikatuz. Hori dela eta, zuhurtziaz hartu behar dira 2013an izandako datuak, informazio osatuagoa izan bitartean. Hortaz, era berean, atal honetan ez dira sakontzen Memoria honetako aurreko edizioetan azterturikoak, ikasketa mailaren araberako migrazio-mugimenduak esaterako.

Europar Batasun osoko joerei buruz EUROSTATen datuek zera agertzen dute: 90eko hamarkadan nahiko jaitsiera handiko aldiaren ondoren, EBn nazioarteko migrazio mugimenduen saldo positiboa 2003an bi milioi pertsona gehiagoren bidez hazi zen, finkatutako datuen arabera. Bestalde, 2013an migrazio saldoa hazi egin da 2012arekin alderatuz gero, 1,6 milioi lagunekoa (+0,89 milioi aurreko urtean); migrazio tasa gordina milako 3,2koa izan da 28-EBrako eta milako 4,1ekoa eurogunerako. Saldo positibo horren %75 Italiari dagokio. Bestalde, Batasuneko bederatzi herrik (Bulgaria, Estonia, Irlanda, Grezia, Espainia, Kroazia, Zipre, Letonia, Lituania, Polonia eta Portugal) migrazio saldo negatiboak dauzkate.

III.1.5. GRAFIKOA. EAE-KO MIGRAZIO SALDOEN BILAKAERA



Iturria: EUSTAT. Migrazio Mugimenduen Estatistika.

Bestalde, 2013an, 216.653 lagunek, aurreko urtean baino %11,1 gehiagok, bizileku aldaketaren bat egin zuten EAEn (EAEko biztanleen %9,9k); mugikortasun horren %45,2 udal beraren barruan izan zen (97.927 joan-etorri guztira). Erkidego barneko mugikortasunak (jatorria eta helmuga EAEko udalerrien artean) 48.796 mugimendu gehiago dakartza. Gainontzekoetatik, 33.987 mugimendu kanpoko immigrazio lirateke (jatorria erkidegotik kanpo eta helmuga EAE) eta 21.206 kanpoko emigrazio (jatorria EAE eta helmuga handik kanpo, haietatik 3.353ren helmuga atzerrian), horietatik 17.808 helmuga atzerrian dutela.

Kanpoko edo erkidegotik kanpoko mugikortasun geografikoari dagokionez, 2013an EAEko mila biztanleko 32ri eragin die (Araban milako 37,9 eta Bizkaian eta Gipuzkoan milako 31,1); tasa horiek nahiko txikiak dira gainontzeko autonomia erkidegoekin erkatuz gero, haietan, batez beste, mila biztanleko 36an mugitzen baitira. Madril, Galizia eta Extremadura izan ezik, estatuko gainontzeko autonomia erkidegoek biztanle gehiago ematen diote EAEri bertatik jaso baino; EAEko emigranteentzako erakarpen poloak, ordea, honako erkidegoak dira, ordenan: Madril, Gaztela eta Leon, Kantabria, Katalunia, Andaluzia eta Nafarroa. Sei erkidego horien artean EAE uzten duten pertsonen %64 jasotzen dute.

Atzerritarren emigrazioak, berriz, 2013an 18.239 lagunenak izan ziren, 2012an baino 3.356 gehiago (%+22,5). Horietatik 7.360 beste erkidego batzuetatik etorritakoak ziren, eta 10.879 zuzenean atzerritik (2013an baino %43,5 gehiago). Atzerritarren emigrazioak, berriz, 2013an 19.356 lagunenak izan ziren, 2012an baino 13.007 gehiago.

Azkenik, Migrazio Mugimenduen Estatistikak agerian uzten dutenez, etorkinen eta migratzaileen batez besteko adina desberdina da (33,2 eta 35,1 urte hurrenez hurren), eta mugimenduak egiten dituzten biztanleen generoa kontuan hartuz gero, etorkinen %53 gizonak dira (%47 emakumeak). Emigrazioetan, berriz, sexuen arteko aldea handiagoa da: Gizonak %55 dira eta %45 emakumeak.

c) Ezkontzak

"*Ezkontzen Estatistikak*", Jaiotzenak eta Heriotzenak bezala, Biztanleriaren Mugimendu Naturala osatzen du. Estatistika aspaldikoa izanik, garai horretan eman diren aldaketa demografikoak hobeto ezagutzea ahalbidetzen du. Elizako agiritegiei esker Estatuak 1861etik aurrerako informazioa lortu du.

EUSTATen datuek diotenez, 2013an EAEn 7.801 ezkontza izan ziren, 2012an baino %5,9 gutxiago. Haien artetik 7.675 sexu diferenteko pertsonen artean izan ziren eta 126 sexu bereko pertsonen artean. Ezkontzeko eskubideari dagokionez Kode Zibila aldatzen duen uztailaren 1eko 13/2005 estatu Legearen onarpenaren hurrengo urteetan sexu bereko ezkontzek izan duten bilakaeraren eskema honela laburbil daiteke: abiatze txikia 2005ean (legea urte horren erdialdean onartu zen), eklosioa 2006an, jaitsiera 2007an eta egonkortzea 2008tik gaur arte.

Bestalde, azken urteetan ezkontza zibiletan izandako igoera handia nabarmendu behar da; izan ere, 1990ean %23 izatetik 2013an %75era izatera igaro da. Lurraldez lurralde, Gipuzkoan izan zuten ezkontza zibilek pisurik handiena (%77,7), ondoren Bizkaian (%76,7) eta Araban (%72,4). Guztira, EAEn 2013an 5.760 elkartze zibil egon dira, 1.900 ezkontza katolikoen eta beste erlijio batzuetako 15en aurrean.

III.1.6. GRAFIKOA. EZKONTZA ZIBILEN EHUNEKOAREN BILAKAERA EAE-N



Iturria: EUSTAT. Ezkontzen estatistika.

Gainera, nabarmentzekoa da ezkontzeko adina atzeratzeko joerak dirauela. Izan ere, erreferentziazko urtean, ezkondu ziren gizonezko ezkongabeen batez besteko adina 35,5 urte zen, eta emakumezkoena, berriz, 33,6. Azken 25 urteetan, 1987tik, senarren batez besteko adinak gora egin du 7,4 urte, eta emazteenak 7,8.

EAEko ezkontzen tasa 3,3koa da 1.000 biztanleko 2013an, Estatukoaren antzeko ratioa, baina Europar Batasunekoa baino txikiagoa; izan ere, milako 4,4koa zen 2010ean. Hona hemen ezkontza tasa handiena duten Europako herrialdeak, 2012rako behin-behineko datuekin: Lituania (6,9) eta Letonia (5,5). Ratiorik txikienekoak, berriz, hauexek: Bulgaria (2,9 ezkontza 1.000 biztanleko) eta Eslovenia eta Luxenburgo (bietan 3,4koa 1.000 biztanleko).

Azkenik, INEren[5] «Baliogabetzeen, banantzeen eta dibortzioen estatistikak» jaitsiera erakusten du dibortzioen eta banantzeen kopuruan, gure Erkidegoan nahiz Estatuan. Zehazki, 2013an EAEn 3.572 dibortzio eta 183 banantze gertatu ziren. Baliogabetzeen urteko kopurua 5 ingurukoa zen batez beste informazioa dugunetik, eta 3 izan da 2013an.

Guztira, erreferentziako urtean 3.757 ezkontza desegin ziren, 2012an baino %8,8 gutxiago, hots, 1,7 desegite mila biztanleko. Estatuko batez bestekoa, berriz, 2,1 da milako. Desegite tasarik handiena izan duten autonomia erkidegoak Kanariar Uharteak (3 milako) eta Katalunia (2,8 milako) dira. Haustura tasarik txikienak, berriz, Gaztela eta Leonen eta Extremaduran daude (1,4 eta 1,7 desegite mila biztanleko, hurrenez hurren).

Nazioarteko konparazioa eginez, dibortzioen tasa gordina azken urteetan milako biaren ingurukoa da Europar Batasunean, baina maila ezberdinak daude: 0,1 milako Maltan (dibortzioa 2011ko maiatzean legeztatu zen) eta 0,7 milako Irlandan, 3,5 milako Lituanian eta 3,6 milako Letonian.

III.1.7. GRAFIKOA. EZKONTZA DESEGITEAK EAE-N: BANANTZEEN ETA DIBORTZIOEN BILAKAERA.



Iturria: EIN. Baliogabetzeen, banantzeen eta dibortzioen estatistikak.
(*) Desegiteen guztizkoaren barruan elizako baliogabetzeak sartzen dira.

5 "Banantzeen, Dibortzioen eta Baliogabetzeen Estatistika"; lehen auzialdiko, instrukzioko eta Emakumeen aurkako Indarkeriaren epaitegiek emandako informazioaren bidez egiten da; informazio hori ezkontza bidezko loturaren baliogabetze-prozesuari buruzkoa da.

2006tik aldaketa antzematen da desegite horien osaeran Estatuan oro har, eta nabarmen gure Erkidegoan. Izan ere, dibortzioen kopurua handitu eta banantzeena, berriz, jaitsi egin da, Kode Zibila eta Auziperatze Zibila banantzeen eta dibortzioen arloan aldatu dituen uztailaren 8ko 15/2005 Estatuko Legearen ondorioz. Arau horri esker, aurretik banandu barik lor daiteke dibortzioa. Autonomia erkidegoak erkatuta, ikusten da legea aldatu aurretik zein ondoren EAE toki neurritsuan dagoela, 2013an erregistro gutxien izandako seigarren erkidegoa izan baitzen.

EAEn banantzen edo dibortziatzen diren pertsonen profilari dagokionez, INEren datuek erakusten dute gehienak 40 eta 49 urte bitartekoak direla gizonezkoetan eta 30 eta 39 urte artekoa emakumezkoetan, eta emakumeen batez besteko adina 42,3 urtekoa izan zen eta gizonena, berriz, 44,8 urtekoa. Gainera, desegindako ezkontzen batez besteko iraupena 15,5 urtekoa da, eta kasuen %57,2an ezkontideek haurrak izan dituzte. Kasuen %48an, adingabeak dira.

Azkenik, 2013ko ezkontzen desegiteen %71 elkarren adostasunak egin ziren, eta kasuen %75ean prozesua sei hileren barruan ebatzi zen.

III.1.5. KOADROA. EUROPAR BATASUNEKO EZKONTZAK. ADIERAZLEAK 1.000 BIZTANLEKO.

	EZKONTZAK		DIBORTZIOAK	
	2011	2012	2011	2012
UB-27	4,4*	:	1,9**	:
ALEMANIA	4,6	4,7	2,3	:
AUSTRIA	4,3	4,6	2,1	2,0
BELGIKA	4,1	3,6	2,9	2,5
BULGARIA	2,9	2,9	1,4	1,6
ZIPRE	7,3	:	2,3	:
DINAMARCA	4,9	5,1	2,6	2,8
ESLOVAKIA	4,7	4,8	2,1	2,0
ESLOVENIA	3,2	3,4	1,1	1,2
ESPANIA	3,4	3,5	2,2	2,4
ESTONIA	4,1	4,6	2,3	2,4
FINLANDIA	5,3	5,3	2,5	2,4
FRANTZIA	3,6	3,7	2,0	:
GREZIA	4,9	:	1,2**	:
KROAZIA	4,6	:	1,3	:
HOLANDA	4,3	4,7	2,0	2,0
HUNGARIA	3,6	3,6	2,3	2,2
IRLANDA	4,3	:	0,7	:
ITALIA	3,4	:	0,9*	:
LETONIA	5,2	5,5	4,0	3,6
LITUANIA	6,3	6,9	3,4	3,5
LUXEMBURGO	3,3	3,4	2,1*	:
MALTA	6,1	:	0,1	:
POLONIA	5,4	5,3	1,7	1,7
PORTUGAL	3,4	:	2,5	:
ER.BATUA	4,5*	:	2,1	:
TXEKIA ER	4,3	4,3	2,7	2,5
RUMANIA	4,9	5,1	1,7	1,5
SUEDIA	5,0	5,3	2,5	2,5
EAE	**3,7**	**3,5**	**1,9**	**1,9**

Iturriak: EUROSTAT, EUSTAT e INE.
**2010 datua. **2009 datua.*

1.1.2. Immigrazioa EAEn

Nazioarteko migrazioak nazioarteko agenda politikoen gai erabakigarrienetakoa izatera pasatu dira epe laburrean. Gizartearen eta ekonomia orokorraren gaur egungo garaiaren ezaugarrietako bat dira.

Europar Batasuneko biztanleria asko hazi da azken urteetan, batez ere immigrazioagatik, 2013an haren ratio gordina berezko hazkunde tasarena (jaiotzak ken heriotzak) halako bi izan baitzen: Milako 3,1 migrazio saldorako eta milako 0,1 naturalerako. Hortaz, migrazio mugimenduek Europar Batasuneko herrialdeetako biztanleen dinamikan oinarrizko zeregina dute.

2012an (esku artean dugun azken zifra) 34,3 milioi atzerritar bizi ziren 27ko EBn, biztanleriaren %6,9. Horietako gehienak, 20,7 milioi, erkidegokoak ez diren herrialdekoak ziren, gainontzeko 13,6 milioiak EBko beste herrialde batekoak ziren bitartean. Baina, gainera, herrialde atzerritarretan jaiotako pertsonen zifra aintzat hartzen badugu (herritartasun atzerritarrekoak eta egoitza-herrialdean nazionalizatutako atzerritarrak), zifra 50,2 milioi pertsonetara heltzen da, Europar Batasuneko biztanleria guztiaren %10.

III.1.8. GRAFIKOA. HAZKUNDE DEMOGRAFIKOAREN BILAKAERA EAE-N OSAGAIKA. RATIOAK 1.000 BIZTANLEKO



Iturria: EUROSTAT.

EUROSTATeko datuen arabera, EBn bizi diren atzerritarren %77 baino gehiago Alemanian, Espainian, Erresuma Batuan, Frantzian eta Italian bizi dira. EBko populazioaren %63 dute bost herrialde horiek.

Immigrazioaren tipologia asko aldatzen da herrien arabera. Familiarekin berriz elkartzea Austrian, Frantzian edo Suedian immigraziorako arrazoi nabaria da. Aldiz, Irlanda, Espainia, Portugal edo Erresuma Batua bezalako herrialdeetan laneko immigrazioaren ehuneko handia dute. Espainian erregularizazio handiak egin ziren, eta Frantzian, Alemanian eta Holandan, aldiz, erregularizazio mugatuak egin ziren etorkin talde zehatzentzat.

Hirugarren nazioetako talderik ugarienak hauexek dira EBn 2012an: Turkia (2,3 milioi, EBn bizi diren atzerritarren %7) eta Maroko (1,9 milioi, guztizkoaren %5,6). Dena den, atzerrian jaiotako estatu kideetako -adibidez, Frantzia, Suedia, Holanda eta Erresuma Batua- herritar kopurua hirugarren herrialdeetako nazionalena baino handiagoa da, etorkin askok harrera-herrialdeko herritartasuna eskuratu baitute.

EAEn ere fenomeno hori gertatu da, eta kultura-aniztasunaren aldetik hazten ari da, biztanle-talde berriak geroz eta gehiago gehitzen ari baitira aspaldian. Hurbileko gizarteetako mailak oraindik gainditu ez badira ere, EAEko atzerritarren immigrazioa nabarmen hazi da azken urteetan. Horrek lurraldeetan erabat banatutako aniztasun-egoera eratu du. Berez, epe laburrean gertatutako immigrazio jendetsuak ekonomiarena eta gizartearen epe luzerako joerak aldatu ditu, biztanleen zahartzeko joera gelditu eta belaunaldien berriztatzea erraztuz, baita gizartearen jokaera berriak gehituz.

III.1.9. GRAFIKOA UDAL ERROLDAN INSKRIBATURIKO ATZERRITARREN EHUNEKOAREN BILAKAERA EAE-N ETA ESTATUAN



Iturria: EINen datuekin eginikoa

a) Bilakaera demografikoa

Udal-erroldaren datuei jarraiki, azken urtean Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duen atzerriko biztanleria bigarren urtez jarraian murriztu da, betiere hazkunde ekonomikoaren azken etapari lagundu dion migrazio-fenomenoa hasi zenetik; hori guztia gaur egungo krisialdiaren eraginen ondorioz gertatu da.

2005etik 2012ra bitartean Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatutako atzerriko biztanleak bikoiztu ziren eta urteko igoerarik handiena 2008. urtean izan zen, urte horretan erroldatutako atzerriko biztanleria 19.000 pertsonan hazi baitzen.

2014ko urtarrilaren 1ean, udal-erroldak zenbatu zuen 140.917 atzerritarrek egoitza zutela Euskadin, aurreko urtean baino % 5,3 gutxiago (2014rako behin-behineko datuak eta 2013rako behin betiko datuak erabiliz). Etorkinen jaitsiera hori islatzen da biztanleria osoaren barnean duen kopuruan: 2014an %6,4koa (aurreko urtean baino 4 hamarren gutxiago) eta Estatuan %10,7koa. Hortaz, Estatuan handiagoa izan da jaitsiera; izan ere, 9 hamarren gutxiago ditu.

Atzerritarren kopururik handiena Bizkaian bizi da (68.004), 2013. urtean baino % 7,9 gutxiago, eta horren ondotik Gipuzkoa azaltzen da atzerriko 46.303 erroldaturekin (-% 0,8) eta Araba 26.610rekin (-% 6,1). Beraz, ikus dezakegu atzerriko biztanleria Araban eta, bereziki, Bizkaian jaitsi dela. Gipuzkoan, ordea, jaitsiera txikiagoa dago.

III.1.10. GRAFIKOA. ATZERRITARREN URTE ARTEKO HAZKUNDEA AUTONOMIA ERKIDEGOKA. 2012-2014



Iturria: IKUSPEGI con datos de INE.

Eusko Jaurlaritzaren Immigrazioaren Euskal Behatokiak (Ikuspegi) egiten dituen Erroldako datuen aurrerapenaren arabera (2014ko abuztuko 54 zk.), Euskadi izan zen 2014an etorkinen jaitsierarik txikiena izan zuen erkidegoa (%-5,3), baina guztietan egin du behera kopuru horrek. Ondoren Katalunia eta Murtzia datoz, -%6,3 eta -%6,8arekin hurrenez hurren. Jaitsierarik handienak erkidego hauetan izan ziren: Valentziako Erkidegoan (-%15,2) eta Aragoin (-%14,2).

Immigrazioak gure erkidegoko dinamika demografikoan duen eragina ere aintzat hartu beharrekoa da: 1998 eta 2014 bitartean, 90.221 biztanle gehiago izan zituen EAEn, eta hazkunde hori gertatu zen atzerritarrak gurera etorri izanagatik; izan ere, epealdi berean 15.198 erroldatu egotetik 140.917 erroldatu egotera igaro ziren (+125.719). Baina aldi berean, 35.498 lagun galdu ditu biztanleria autoktonoak. Azken bi urte hauetan, aldiz, goranzko joera antzematen da talde horretan.

Nolanahi ere, atzerritarren nazionalizazioen kopuruak izan lezake eragina zati batez behinik behin. Horrela, gero eta egokiagoa da atzerriko naziotasunari buruzko informazioa osatzea atzerrian jaiotako biztanleriaren gaineko informazioarekin; izan ere, horrek irudi argiagoa eskaintzen du Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duen atzerritar jatorriko etorkin-kolektiboaren inguruan. «Jaioterria» aldagaia aintzakotzat hartuz gero "naziotasunarena" hartu beharrean, ikus daiteke atzerriko jatorria duen biztanleria handiagoa dela, zehatzago 2014. urtean 40.000 pertsona inguru gehiago; horrek esan nahi du etorkinen ratioa erroldatutako biztanleriaren % 8,3koa dela, atzerriko naziotasuna duen biztanleriaren % 6,4ren aldean. Estatuan alde hori handiagoa da, bost milioi

III.1.11. GRAFIKOA. ATZERRITARREN URTE ARTEKO HAZKUNDE ABSOLUTUA EAE-N. 1998-2013



Iturria: IKUSPEGI, EINen datuekin

atzerritarretatik (% 10,7) atzerrian jaiotako sei milioitik gorako kopurura igarotzen baita (biztanleria osoaren % 13,2).

EAEko lurraldez lurralde, Arabak ditu tasarik handienak kasu bietan, hots, atzerrian jaiotakoak %10,4 izatera, atzerritarren %8,3aren aldean. Beste muturrean Bizkaian dago, atzerriko jatorrikoen %7,7arekin, atzerritarrak %5,9 izanik. Gipuzkoan %8,3 eta %6,5eko ratioak ditugu hurrenez hurren.

III.1.12. GRAFIKOA. ETORKINEK POPULAZIOAN DUTEN PISUA NAZIONALITATEAREN ETA JAIOTERRIAREN ARABERA. 2014



Iturria: IKUSPEGI, EINen datuekin

EAEko atzerritarrak ia erdi bana daude banatuta sexuaren arabera: % 51 gizonezkoak dira eta % 49 emakumezkoak. EAEn erroldatuta dauden nazionalitate-taldeak aintzat hartzen baditugu, antzematen da 2011n jatorrizko herrialdearen arabera hiru talde nagusi daudela: %36,1 Latinoamerikatik dator, %25 Batasunekoa da eta %17,7 magrebtarra. Hala ere, aztertzen baduzu immigrazio berriaren jatorria, hau da, azken lau urteotan EAEra heldu denaren jatorria, ikusten da Latinoamerikako nazionalitateak nagusi direla Afrikakoen gainetik.

Izan ere, ondoz ondoko hiru etapa bereizten dira azken hamarkadan: hasieran, 2003-2004 biurtekoan, latinoamerikarren migrazioaren gorakada oso garrantzitsua izan zen, eta atzerritar guztien ia erdia (%48,4) izan ziren; kopuru horrek 2007ra arte iraun du. Hala ere, 2006az geroztik Europako gainerako aldeetako biztanleria kopurua igotzen hasi zen, eta hazkunde horren eragile nagusia errumaniar nazionalitatea izan da. Errumania 2007an sartu zen EBn, eta horren ondorioz, talde horren garrantzia %27,3ra arte igo da erroldatutako atzerritar guztien artean. 2009tik, azkenik, magrebtarrak dira (marokoarrak gehienbat) hazkundearen eragile nagusiak: 2007an %11,8 izatetik 2014an %17,7 izatera. Datu horiek ikusita esan beharra dago, Ikuspegik ohartarazi duenez, nazionalizazio prozesuek estatistikak desitxuratu ditzaketela, zeren eta nazionalitate espainiarra lortzen duten biztanleak estatistikak desagertzen baitira. Halaber, gogoratu beharra dago desberdin gertatzen dela nazionalizazio prozesua taldeen artean, ezarritako beharkizunen arabera: Bizileku-baimena eskuratu eta bi urtera nazionalizazioa eska dezakete Amerika Latinoko jatorrikoek, baina epe hori hamar urtera igotzen da beste talde batzuentzat, magrebtarrentzat esaterako.

III.1.13. GRAFIKOA. ETORKINEK POPULAZIOAN DUTEN PISUA NAZIONALITATEAREN ETA JAIOTERRIAREN ARABERA. 2014



Iturria: IKUSPEGI, EINen datuekin

Herrialdeka, 2014an, lehenengo hamar garrantzitsuenen artean bost Latinoamerikakoak dira (Kolonbia, Ekuador, Bolivia, Brasil eta Paraguai), bi komunitarioak (Portugal eta Errumania), bi Magrebekoak (Maroko eta Aljeria) eta bat Asiakoa (Txina). 2012tik Marokoko biztanleria Euskal Autonomia Erkidegoko atzerriko naziotasun nagusia da; izan ere, erroldatutakoak guztira 18.377 dira, EAEko atzerritar guztien % 13, hain zuzen ere. Bigarren nazionalitatea errumaniarra da, atzerritar guztien % 12,1, alegia.

Interesgarria da ikustea zelako bilakaera izan den hamar nazionalitaterik garrantzitsuenen presentzian 2007 eta 2014 bitartean: Maroko %113 hazi da, hots, 2007an laugarren nazionalitatea izatetik (Kolonbia, Bolivia eta Errumaniaren atzetik) lehena izatera 2014an, hirugarren urtez jarraian. Errumania dela eta, bigarren nagusia zen 2014an, eta %96ko hazkunde izan du. Halaber, esanguratsua da Aljeriako (+%119,7) eta Paraguaiko (+%154,6) pertsonen hazkundea, etorkinen taldean haien pisua askoz txikiagoa bada ere.

Nazionalitate nagusien artean, hazkunderik negatiborik handiena Kolonbiari dagokio; izan ere, kolonbiarren presentzia %34,5 jaitsi da azken zazpi urtean. Hala ere, kontuan hartu behar da, berriz ere, nazionalizazioen eragina, Ekuatoreko nazionalitateko biztanleen jaitsierarekin gertatu zen bezala.

III.1.14. GRAFIKOA. CAPV-eko ATZERRIKO HAMAR NAZIONALITATE NAGUSIEN BILAKAERA. 2007-2014



Iturria: IKUSPEGI INE datoekin.

b) Elkarbizitza eta ongizatea

Ikuspegiren 2013ko urriko Barometroaren arabera, euskaldunentzat immigrazioa ez da arazo[6]. %1,2k soilik dio aurretiaz galdetu gabe EAEko arazo nagusia dela (%2k zioen 2012an), eta aipamenak guztira %7,2 dira (%11,6 2012. urtean).

Hiru erantzun espontaneoaren multzoan, immigrazioa zortzigarren tokian azaltzen da, langabeziaren (% 89,8), arazo ekonomikoen (% 26), klase politikoaren (% 21,9), ustelkeriaren eta iruzurraren (% 20,4), etxebizitzaren (% 13), pentsioen (% 10,3) eta segurtasunik ezaren (% 8) ondoren.

III.1.15. GRAFIKOA. ZEIN DIRA EAE-KO HIRU ARAZO GARRANTZITSUENAK? (GEHIENEZ HIRU ERANTZUN) 2013



Iturria: Ikuspegi Barometroa 2013

Enpleguari dagokionez, immigrazioak lan-merkatuan betetzen duen eginkizunari buruzko ikuspegi funtzionala eta utilitarista nabarmen jaitsi da krisiaren ondorioz: 2004an %80k uste zuen etorkinak behar genituela zenbait sektoretan lan egiteko. 2013an, berriz, %35,4k uste du hala. Halaber, 2004an %11k uste zuen ez zela etorkinik behar zenbait sektoretan, eta portzentaje hori %43,9raino igo da 2013an.

Era berean, atzerritarrei esker ekonomiak funtzionatzen duela uste dutenen portzentajea jaitsi egin da (%36,6k, eta 2012an %40,6k), eta lehen aldiz 2004tik txikiagoa da portzentaje hori kontrakoa uste dutenena baino, %42,4. Horrenbestez, immigrazioaren funtzionaltasun ekonomikoaren gaineko ikuspegia atzeraka doa.

6 Informazio hori ezin izan da eguneratu Memoria honen 2013ko ediziotik eta, beraz, horretara jo beza irakurleak informazio gehiago nahi izanez gero.

Halaber, atzerritar guztiek osasun laguntza (%58,9, +6,1 puntu aurreko urtearen aldean) eta haien seme-alaben hezkuntza (%58,8, +6,0 puntu) eskuratzearen alde agertzen ziren euskal herritarrak 2013an, 2012an baino gehiago, baita atzerritarrei laguntza juridikoa emateko ere (%31,6 agertzen da alde, 2012ko %26aren aldean). Nahiz eta askoz ratio txikiagoak izan, aurreko urtean baino jarrera positiboa dute honako hauek lortzeko: gizarte laguntzak (+1,2), familia berriz elkartzea (+3,3) eta BOE (+4,2). Botoa emateko eskualdeari dagokionez, berriz, iritzi berari eusten diote (%13,5 agertzen da alde, 2012ko ratio bera).

III.1.16. GRAFIKOA. ETORKINEK ESKUBIDE HAUEK EDUKI BEHARKO LITUZKETE? EAE. 2013



Iturria: Ikuspegi Barometroa 2013

Beste alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten etorkinen bizi-baldintzei dagokienez, EAEren 2014ko "Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestak" nabarmentzen du pobreziaren molde desberdinen eragina oso desproportzionatua dela atzerriko pertsona bat buru duten etxebizitzetan bizi diren biztanleen artean eta, gainera, azken urteotan proportzio handiagoan handitu dela biztanle autoktonoen artean baino.

III.1.17. GRAFIKOA. BENETAKO POBREZIA-TASA ETXEKO PERTSONA NAGUSIAREN NAZIONALITATEAREN ARABERA. EAE.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. PGDI

Benetako pobrezia-tasa % 2,9tik % 4ra hazi da 2008tik 2014ra bitartean gure erkidegoan bizi den eta estatuko naziotasuna duen biztanleriaren artean; aitzitik, atzerriko biztanleen etxebizitzetan bizi direnen pobreziaren hazkundea % 27,7tik % 36,2ra igaro da. Eta tasa hori are handiagoa da Europar Batasunetik kanpo datozen pertsonen etxebizitzetan; horrela bada, 2008ko % 34,5etik 2012ko % 37,3ra eta 2014ko % 47,2 handitu da.

III.1.6. KOADROA. EAE-N BENETAKO POBREZIAN DAUDEN BIZNTALEEN BANAKAETA FAMILIAKO PERTSONA NAGUSIAREN NAZIONALITATEAREN ARABERA. 2008-2014

	ESTATUA	EB-KO GAINONTZ.	EB-KOA EZ	GUZTIRA
2008	65,9	2,9	31,2	100,0
2012	58,8	5,2	36,0	100,0
2014	63,6	3,3	33,1	100,0

Iturria: EUSKO JAURLARITZA.PGDI.

Izandako hazkundeei erreparatuz gero, benetako pobreziaren igoerarik handiena estatuko nazionalitatea duten pertsonekin gertatu da (hain zuzen ere haien mailak askoz txikiagoak direlako); izan ere, %38koa izan zen 2008-2014 aldian. Bigarrenik, pobrezia handitu egin da EBtik kanpoko pertsonen artean, %33,1 hain zuzen, eta azkenik %31 atzerritar guztien multzoan.

Zentzu berean, EUROSTATek 2013ko datuekin zenbatetsitakoaren arabera, Batasunetik kanpoko nazionalitatea duten 18 urtetik gorakoen ia erdia (%48,7) pobrezian edo gizarte bazterkeria arriskuan dago. Populazio autoktonoaren artean, berriz, %22,8 da bizilekuko herrialdeko nazionalitatea aintzat hartuz gero, eta %28,1 EBko herrialdeetako baten nazionalitateari dagokionez.

Bestalde, 2008 eta 2012 artean, gora egin zuen atzerritarren familietako biztanleriak benetako pobrezian dauden guztien gainean Euskadin: %34,1etik %41,2ra, baina berriz ere egin zuen behera 2014an, %36,4 hain zuzen (proportzio horren %33,1 EBtik kanpoko pertsonei dagokie). Horrenbestez, %4,8 egin zuen gora pobrezian eraginpeko talde

horretan pertsona autoktonoek duten pisuak, %63,6raino (baina oraindik 2008ko datutik behera dago, guztizkoaren %65,9 zenetik hain zuzen ere). PGDIk nabarmentzen duenez, nazionalizazioek eta atzerritarrek EAEtik alde egiteko prozesuek (2012tik areagotuak) eragina izan duten aldaketa horietan.

1.1.3. Familiak eta laneko bizitza, bizitza pertsonala eta familia uztartzeko arazoak

EAEko familia-sistemen tipologia asko aldatu da azken hamarkadetan, demografia, gizarte eta kultura prozesuen ondorioz. Aldaketa nabarmenen artean Eusko Jaurlaritzaren "2008ko Familien Inkestak" hauexek aipatzen ditu: familia moten aniztasun handiagoa, familien batez besteko tamaina txikiagoa, familia horietako erreferentziako pertsonen profileko aldaketa garrantzitsuak, familian dauden adingabeen proportzio txikiagoa eta mendekotasun egoera gehiago eta guraso bakarrekoen familiek dakarten gizarte errealitatea (beherazko joera izanik ere).

EINen "*Familien etengabeko inkestak*" erakusten duenez, EAEk guztira 894.100 familia zituen 2014an (Estatuko familien % 4,9), eta horietatik %32,4 eurekin bizi diren bikoteekin daude osatuta, %26,8 pertsona bakarrekoak dira eta %22,7 seme-alabarik gabeko bikoteak dira.

III.1.7. KOADROA. FAMILIEN KOPURUA (MILAKA) ETA MOTAREN ARABERAKO BANAKETA. EAE-ESTATUA KONPARAZIOA.

	EAE		ESTATUA	
	GUZT	% BERTIK.	GUZTIRA	% BERTIK.
1. PERTSONA BAKARREKOA	239,4	26,8	4.535,1	24,8
2. GURASO BAKARREKOA	82,9	9,3	1.754,7	9,6
3. ETXEAN BIZI DEN SEME-ALABARIK GABEKO BIKOTEA	202,8	22,7	3.978,6	21,7
4. ETXEAN BIZI DIREN SEME-ALABAK DITUEN BIKOTEA	289,6	32,4	6.333,8	34,6
--SEME-ALABA BAT	143,4	16,0	2.946,3	16,1
--BI SEME-ALABA	126,2	14,1	2.792,6	15,3
--HIRU SEME-ALABA EDO GEHIAGO	20,1	2,2	594,9	3,3
5. FAMILI NUKLEOA BESTE PERTSONA BATZUEKIN	38,0	4,2	786,5	4,3
6. ELKARREN ARTEAN FAMILI NUKLEOA OSATZEN DUTENAK	30,8	3,4	545,1	3,0
7. BI FAMILI NUKLEOA EDO GEHIAGO	11,0	1,2	369,4	2,0
GUZTIRA	**894,1**	**100,0**	**18.303,1**	**100,0**

Iturria: INE. Familien etengabeko inkesta 2013. Behin-behineko datuak.

III.1.18. GRAFIKO. BIZITZAKO HAINBAT ARLOREKIKO GOGOBETETASUNA. EAE. 2014



Iturria. EUSKO JAURLARITZA. Familia EAEn 2014

Aldaketak gorabehera, pertsonen bizitzaren ardatza izateari eusten dio familiak. Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak egindako «Familia EAEn» azterlanak agerian jartzen du elkarrizketatutako pertsonen % 96ren iritziz familia oso edo nahiko garrantzitsua dela, bestelako alderdi batzuen gainetik, hala nola aisialdiaren (% 93), lagunen (% 92) edo lanaren (% 91) gainetik. Gainera, gehienen ustetan, familia aurreko etapetan bezain garrantzitsua da (elkarrizketatutakoen % 47) edo are garrantzitsuagoa (% 15).

2014ko datuak erabiliz, inkesta horretan nabarmentzen da elkarrizketatutako pertsonen % 97k adierazten duela oso edo nahiko pozik dagoela familiarekin, eta horixe da poztasunik handiena ematen duen bizi-alderdia; horren ondoren, honakoak azaltzen dira: aisialdia (% 84), osasuna (% 83), ikasketa-maila (% 81) eta lana (% 71).

Bestalde, eta aurreko inkestetan bezala, euskaldunik gehienek uste dute seme-alaben kopururik egokiena bi dela (erantzunen %40), eta ondoren hiru (%17). Gainera, %30ek uste du ez dagoela seme-alaba kopuru idealik. Etorkizunean gurasoak izateari dagokionez, nabarmen hobetu da etorkizunean seguru asko seme-alabak izango dituztela dioten elkarrizketatuen portzentajea 2012ko inkestarekiko, hain zuzen ere %11tik %20ra. Gainera, seme-alabarik izango ez dutela ziurtasun osoz adierazten dutenen ehunekoa oraindik ere nahikoa handia da, %65ekoa hain zuzen, baina jaitsi egin da 2012ko %77tik.

III.1.19. GRAFIKOA. SEME-ALABAK DITUZUN ALA EZ KONTUAN HARTU GABE, BA AL DUZU ETORKIZUNEAN SEME-ALABARIK IZATEKO ASMORIK? EAE, 2001, 2012 ETA 2014



Iturria. EUSKO JAURLARITZA. Familia EAEn. 2014

a) Uztartzeko beharrak

Azken urteotan, familiaren instituzioak izandako aldaketek eta horiek ugalkortasun-tasetan izan duten inpaktuak gero eta interes publiko handiagoa izan dute, horrek dakartzan eraginak direla eta. Ugaltzeko eta laneratzeko adin aproposak bat datozenez gero, emakumezko gazteak egoera zailean daude, seme-alabak izateko erabakiari dagokionez. Ama izan nahi duten gehienek amatasuna lanarekin bateratu nahi izaten dute eta geroz eta gehiago dira bikoteko bi kideek lan egiten duten eta 15 urte baino gutxiagoko seme-alabak dituzten familiak.

Emakumeak lan-merkatuan sartzea azken hamarkadetako aldaketarik garrantzitsuenetako bat izan da: 2011n euskal familietako %58k emakume landunak[7] zituzten. Ehuneko hori 1996an %29 zen. Familiako kideen zeregin eta iguripenei, familiaren antolamenduari edo familia-gunea osatzen duten pertsonen zaintzari zuzenean eragiten dien aldaketa kulturala da, tradizioan emakumeek beren gain hartu dituzten eginkizunak izan direlako.

Inguruabar horiek arazo berriak ekarri dituzte elkarbizitza unitateen barruan, ordaindutako lana eta familiaren zaintza bateratzeko beharrizanen inguruan. Lanaren eta familia bizitzaren arteko gatazka une bitan areagotzen da: haurrak txikiak direnean, baina gero eta sarriago, mendeko adinekoei arreta eman behar zaienean ere bai. Hori dela-eta, herritarrek euren familia bizitza eta norberaren konpromisoak eta lana bateratu ahal izatea gizarte politikari buruzko eztabaidaren ardatzetako bat bihurtu da.

Familia EAEn 2014 azterlanaren emaitzekin jarraituz, nabarmendu behar dugu lehenik eta behin elkarrizketatuen %45ek uste duela (%47k 2012an) oinordekoak izateak nahikoa oztopatzen duela emakumearen lanbide karrera, eta %22k eragozpen "handia" dela deritzo (%20k 2012an). Aitzitik, gizonezkoen artean, galdetutako pertsonen % 14k baino

III.1.20. GRAFIKOA. AMATASUNA/AITATASUNA LANBIDE KARRERARAKO OZTOPO GISA. EAE, 2014



Iturria. EUSKO JAURLARITZA. Familia EAEn 2014

7 Eusko Jaurlaritzaren 2011ko Lan-merkatuko Zentsuko datuak.

ez du nahiko oztoporik edo oztopo askorik ikusten karrera profesionalean seme-alabak izateagatik (% 10en iritzia 2012. urtean egindako inkestan).

Gainera, gehienek uste dute (%56k 2014an eta %51ek 2012an) amatasun baja oso laburra dela, baita aitatasun baja ere (%60k uste du 2014an -%53k 2012an- aitatasun baimena ez dela nahikoa).

Lana, bizitza pertsonala eta familia uztartzeari buruzko iritzi orokorrei dagokienez, inkestak agerian uzten du elkarrizketaturiko pertsonen %85 oso edo nahiko ados dagoela honako baieztapen honekin: emakumeek gaur egun ahalegin handiagoa egiten dutela gizonek baino uztartze hori egiteko, eta hartu beharreko estrategien aurrean, %50ek uste du onena dela bi gurasoek ordu gutxiago lan egitea eta seme-alabak bien artean zaintzea. %19k, berriz, uste du biek berdin lanean jarraitu beharko luketela eta beste pertsona batek (aitona-amonak, zaintzaileak, haurtzaindegia) seme-alaba zaintzea, hots, laneko orduak murriztea eta zainketarako beste pertsona batzuk baliatzea konbinatzeko ratio bera. %6k baino ez du uste aitak edo amak lana egiteari utzi beharko liokeela umea zaintzeko. Baina, egia esan, aitona-amonak baliatu ohi dira, horrelakorik baldin badago: Aitona-amonek partaidetza "handia" dute iloben zainketan kasuen %34an, eta "pixka bat" kasuen %24an.

III.1.21. GRAFIKOA. BATERATZE-ESTRATEGIARIK EGOKIENA. EAE, 2014



Iturria. EUSKO JAURLARITZA. Familia EAEn 2014

III.1.22. GRAFIKOA. LANDUNEK ETXEKO LANEKO JARDUERETAN EGUNEAN EMANDAKO ORDUAK, EZAUGARRIEN ARABERA. EAE, 2013



Iturria. EUSTAT. LPFB, 2013

EAEn inkesta bat jarri zuen abian EUSTATek 2010ean, EAEn bizi diren eta lanean ari diren familiek lana familiarekin eta norberaren bizitzarekin bateratzeko dituzten posibilitateak aztertzeko. Era berean, EUSTATek "Lana, Familia eta Norberaren Bizitza Uztartzeari buruzko Inkesta" prestatzen du; galdetegiaren 2013ko emaitza erlatiboek nabarmentzen dute, lehenik eta behin, etxetik kanpo lan egiten duten emakumezkoek egunero-egunero adin txikiko seme-alabak eta menpeko pertsonak zaintzeko % 50 ordu gehiago erabiltzen dituztela gizonezkoek baino.

Zentzu horretan, emakumezkoek lan ordaindua familiaren eremuarekin eta eremu pertsonalarekin uztartzeko zailtasun gutxiago sumatzen dituzte eta, horregatik, seme-alabak eta menpeko pertsonak zaintzeko denbora gehiago erabiltzen dute, gizonezkoek baino. Gizonezkoek 3,1 ordu erabiltzen dituzte egunean-egunean adin txikikoak zaintzeko (2012. urtean 2,9 ordu); emakumezkoek, ordea, 4,9 ordu (2012. urtean 4,6). Alde hori areagotzen da menpeko pertsonak zaintzeko lanak kontuan hartuz gero; izan ere, gizonezkoek 1,5 ordu erabiltzen dituzte egunero jarduera horri begira (2012. urtean 1,4 ordu) eta emakumezkoek 2,3 ordu (2012an 2,9).

Bere gain hartutako zametan dagoen desberdintasun horrek kostua dauka etxeko zereginak banatzeko asebetetze-mailari dagokionez; izan ere, emakumezkoek adierazten dute euren asebetetze-maila, batez beste, 5,8koa dela 10 punturen gainean ezkontideak edo bikotekideak etxeko zereginak egitean eskainitako lankidetzari buruz; gizonezkoek, ostera, 7,6ko asebetetze-maila azaltzen dute.

Kontziliazioaren alde desberdinetarako erabilitako denborarekin batez beste dagoen asebetetze-mailaren indizean jartzen badugu arreta, adin txikiko seme-alabak zaintzeko denborarekin dagoen asebetetze-maila 6,4koa da eta handiagoa emakumezkoen artean (6,7 puntukoa emakumezkoen artean eta 6,1ekoa gizonezkoen artean). Asebetetze-maila murritzagoa da bai gizonezkoen bai emakumezkoen artean, menpeko pertsonak zaindu behar direnean (batez beste 5,8 puntukoa, eta ia-ia puntuazio bera bi sexuen artean). Bizitza pertsonalerako erabilgarri dagoen denborari dagokionez (aisialdia, ikasketak, gizarte-bizitza) batez besteko asebetetze-maila 5,8koa da, eta murritzagoa emakumezkoen artean (5,6) gizonezkoen artean baino (batez beste 6 puntu).

Enpresan edo organizazioan zenbait baimen eskatzeko zailtasun-mailari dagokionez, datuek erakusten dute zailtasunek gora egin dutela, baimen modalitate guztietan, 2010-2013 aldian. EUSTATeko inkestak agerian jartzen du lana duten pertsonek batez beste 3,4ko zailtasun-maila adierazten dutela 10 punturen gainean, eta 2,9koa lanean huts egin ahal izateko, gai partikularrak konpontze aldera. Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeko modua erraztu dezaketen neurrien artean, lanaldiaren murrizketak 3,8ko batez besteko zailtasuna du; horren ondoren, eszedentziek 3,7koa eta enplegurik eta soldatarik gabeko egunek 3,2koa, 10 punturen gainean. Oro har, ez da desberdintasun garrantzitsurik sumatzen sexuen artean; salbuespena da gizonezkoek adierazten dutela zailtasun gehiago dituztela lanaldiaren murrizketa eskatzeko (4,0 puntukoa; emakumezkoek, ostera, 3,6koa). Gainera, adinak, ziur aski lanpostuko antzinatasunari lotuak, aipatutako kontziliazio-neurriak lortzeko zailtasunak murrizten ditu.

Azkenik, ordutegi motei eta malgutasunei dagokienez, EAEko langileen %20,9k lanaldia luzatu behar du ia egun guztietan (eta %19,8 zenbait alditan). Egoera horretan dira, gainera, enplegatzaileen %42 eta autonomoen %32,4. Irteteko ordutegi malgua, hau da, bateratzea hobetzeko beste baliabide osagarria, langileen %46,5k erabiltzen du (%40,6k 2012an), eta emakumeek (%43,8) gizonezkoek (%48,7) baino gutxiago. Norberaren etxean lan egiteari dagokionez, %7,7k lantzean behin egiten du lan etxean eta %4,2k egun erdiak gutxienez. Lana duten zazpi pertsonetatik batek, oro har, etxean egiten du lan maiztasun ezberdinekin. Oro har,

III.1.23. GRAFIKOA. LANDUNEK BATERATZEAREN INGURUAN DUTEN GOGOBETETASUN MAILA, SEXUAREN ARABERA. EAE, 2013



Iturria: EUSTAT. LPFB, 2013

III.1.24. GRAFIKOA. LANEAN BATERATZEAREN INGURUKO BAIMENAK ESKATZEKO ZAILTASUNAREN BATEZ BESTEKO MAILAREN BILAKAERA. EAE.



Iturria: EUSTAT, LPFB. Datu-bankua

igoera ageri da lanaldia luzatzen duten langileen ehunekoan 2010ekoaren aldean (informazioa dugun lehen urtea), zeren eta hazkundeak izan baitira ohikoa nahiz lantzean behingoan: %2koa lehenbizikoan eta %1ekoa bigarren kasuan. Ordutegien malgutasunari dagokionez, txikitu egin da 2010etik; izan ere, ordutegi malgua duten langileen ratioa %4,3 jaitsi da.

Baldintza horien ondorioz, inkestak nabarmentzen du ezen, bikotekide biek lan egiten duten familietan, senideek edo ordaindu gabeko pertsonek zaintzen dituztela seme-alabak lanaldiak iraun bitartean eta eskola-ordutegitik kanpora kasuen %39,6an. Kasuen %37,3an, berriz, bikotekide biek zaintzen dituzte seme-alabak, eta %10,4an ordaindutako beste pertsona batzuei dagokie zaintza.

III.1.25. GRAFIKOA. ADINGABEAK LANALDIAN ETA ESKOLA-ORDUTEGITIK KANPORA ZAINTZEA. EAE. 2013



Iturria: EUSTAT. ECVL, 2013

b) Familiei laguntzeko politika publikoak

Azaldutako egoera horiek arintzeko, familiei laguntzeko planak abiarazi zituen Eusko Jaurlaritzak 2002an, zertarako-eta familiek seme-alaba kopurua askatasunez erabakitzea galarazten duten eragozpen ekonomikoak eta gizarte eta laneko eragozpenak gainditzeko. Hala, Familiei Laguntzeko Legea onetsi zuen 2008an, eremuari lerrun juridiko handiagoa emateko eta famili politika integralerako oinarriak ezartzeko, betiere familien eta familiako kideen ongizatea eta bizi-kalitatea hobetze aldera.

III.1.8. KOADROA. FAMILIENTZAKO LAGUNTZAK EAE-N: ESPEDIENTE KOPURUAREN ETA EUSKO JAURLARITZAREN FAMILIAREN POLITIKARAKO ZUZENDARITZAK EMANDAKO LAGUNTZEN BILAKAERA. MILA EUROTAN.

	JAIOTZA EDO ADOPZIOA		UZTARTZEA	
	ESPEDIENTEAK	GASTUA	ESPEDIENTEAK	GASTUA
2008	28.175	25.333	27.005	11.297
2009	29.754	26.185	46.816	18.830
2010	34.887	31.505	48.140	26.824
2011	32.563	29.521	32.505	32.973
2012	25.620	22.420	26.351	24.434

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Aurrekontuko Likidazioen Memoriak.

Familientzako zuzeneko laguntzak 2002an hasi ziren I. Famili Planarekin. Harrezkero, 2012ra arte, 500 milioi euroko gastuak izan dira laguntza horietan, gutxi gorabehera erdibana banatuta jaiotza, adopzio edo aurre-adopzioko harrerarako laguntzen eta uztartzeko laguntzen artean.

III.1.26. KOADROA. SEME-ALABEN JAIOTZAGATIK EDO ADOPZIOAGATIK DAUDEN LAGUNTZAK EAE-N. ESKABIDEEN ETA GASTUAREN BILAKAERA, MILA €-TAN.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Familia eta Komunitate Politikako Zuzendaritza.

2012ko aurrekontuko likidazioa dela-eta (eskuragarri ditugun azken datuak: ezin izan da eguneratu 2013ko Memoriako informazioa ezein iturri ofizialetatik), jakin badakigu urte horretan 46,8 milioi euro erabili zirela familiei laguntzeko, hots, 2011n baino %25 gutxiago. Horietatik 24,4 milioi uztartzeko laguntzak ordaintzen erabili ziren (-%25,9 gutxiago 2011ren aldean), eta beste 22,4 milioi jaiotza edo adopzioagatiko laguntzetarako -%24,1).

Espediente kopuruari dagokionez, guztira 25.620 diru-laguntza eman ziren (-%21,3 2011rekiko) jaiotzengatik eta adopzioengatik (urte anitzeko laguntzak barne), eta aldi berean, gora egin du bateratzerako laguntzen kopuruak: 26.351 (%-18,9). 25.379 diru-laguntza adingabeak zaintzeko eszedentziagatik edo lanaldi murrizketagatik, 466 mendekotasunean edo osasun larritasunean diren senideak zaintzeko eszedentziagatik edo lanaldi murrizketagatik eta 506 3 urtetik beherakoen zaintzaileak kontratatzeko.

Azkenik, 2011ko abenduan EAEko Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko III. Plana onetsi zen 2011-2015 aldirako eta, gutxi gorabehera 674,6 milioi euroko aurrekontua izanik, famili politiken gaineko zeharkakotasun handiagoa eman zaio aurreko bi planekin alderatuta. Hartara, sailen eta erakundeen arteko lana indartu da.

Lehendik dauden neurriak nahiz neurri berriak modu koherentean ordenatu nahi ditu, printzipio honen inspirazioarekin: lana, familia eta norberaren bizitza uztartzea familiako eta gizarteko kide guztiei dagokie, denok baitaukagu erantzukizun maila handiago edo txikiagoa. Memoria hau bukatu den egunean, ez dugu Planaren ondoriozko jarduketen gaineko informaziorik.

EAE-KO III. FAMILI PLANA (2011-15): ILDO ESTRATEGIKOAK ETA GASTU AURREKONTUA (MILIOI EURO).

ILDO ESTRATEGIKOAK	GASTUA (MIL. €)
Familiei laguntzeko eta horien autonomia bultzatzeko zerbitzuak, neurriak eta politikak indartzea	607,4
Familien gizarte balioa eta horien jabearazpena, gizarte sentsibilizazioa eta prebentzioa bultzatzeko ekintza politikoak eta sozialak sustatzea eta bultzatzea	57,2
Familiei laguntzeko politiken sail arteko eta erakunde arteko koordinazioa eta gizarte partaidetzaren garapena	1,1
Jarduketako paradigma berriak eta eremuak familiei laguntzeko politiketan eta neurrietan	8,7
GUZTIRA	**674,6**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Enplegu eta Gizarte Politikarako Saila.

1.2. HEZKUNTZA ETA HEZKUNTZA-SUSTAPENA

1.2.1. Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzak

EUSTAT erakundearen Eskola Jardueraren Estatistikak[1] emandako datuen arabera, 2014/15 ikasturtean, 364.518 ikasle matrikulatu ziren Euskal Autonomia Erkidegoan unibertsitatez kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzan (helduentzako irakaskuntza kanpoan utzita). Beraz, % 0,4ko hazkundea izan zen aurreko urtearen aldean (1.312 neska-mutil gehiago) Hezkuntza Berezia kontuan hartzen badugu, eta % 1,5ekoa ez badugu kontuan hartzen (5.356 neska-mutil gehiago).

Bigarren multzoari erreparatuta, hau da, Hezkuntza Berezia kontuan hartzen ez badugu, hazkundearen arrazoi nagusia izan zen maila guztietan gertatutako ikasleen gehikuntza; hala, 2014/15 ikasturtean, EUSTAT erakundearen behin-behineko datuen arabera, 297.871 neska-mutil matrikulatu ziren beheko mailetan (% +1eko hazkundea); Derrigorrezko Bigarren hezkuntzaren Ondokoan (DBHO) eta Irakaskuntza Ertainetan ere matrikulazioa % 3,8 igo zen. Hala eta guztiz ere, beheko mailetako datuak aztertuz gero, badakigu Haur Hezkuntzako matrikulazioa % 1,8 jaitsi zela.

2014/15 ikasturtearen hasieran, irakaskuntza ertainetan matrikulatu ziren ikasle guztietatik (65.411), 30.243 ikaslek, hau da, % 46,2k Batxilergoa hautatu zuten derrigorrezko hezkuntza amaitu ostean, eta % 32,1ek, berriz, goi-mailako Lanbide Heziketa. Lanbide Heziketa (goi-mailakoa eta erdi-mailakoa) aukeratu zuten ikasleen kopurua % 53,8koa izan zen. Hala, Lanbide Heziketa aukeratzen duten ikasleen ratioak goranzko joera erakusten du.

Azken Ikasturtean ere, hazkunderik handiena Lanbide Heziketan gertatu zen, bai goi-mailako LHn (% 5,1), bai erdi-mailako LHn (% 5,5). Batxilergoko ratioa ere igo zen, baina hein txikiagoan (% 2,1).

III.1.10. KOADROA. EAEko IKASLEAK, TITULARTASUNAREN ETA IKASMAILAREN ARABERA (1)

	2009/10	2010/11	2011/12	2012/13	2013/14	2014/15 (behin-behin.)	2013/14-2014/15 (ald.)
Ikastetxe guztiak, Hezkuntza Berezia kontuan hartuta	337.903	345.734	353.157	359.618	363.206	364.518	0,4
Ikastetxe guztiak, Hezkuntza Berezia kontuan hartu barik	332.219	340.165	347.656	353.970	357.926	363.282	1,5
Beheko mailak, Hezkuntza Berezia kontuan hartu barik	275.599	282.527	289.009	292.792	294.920	297.871	1,0
Haur Hezkuntza	92.800	94.818	96.577	96.713	95.483	93.805	-1,8
Lehen Hezkuntza	113.335	117.193	120.288	122.139	124.276	126.873	2,1
Hezkuntza Berezia (Haur Hezkuntza-Lehen Hezkuntza)	428	444	449	473	476	469	-1,5
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)	69.464	70.516	72.144	73.940	75.161	77.193	2,7
Hezkuntza Berezia (DBH)	208	208	221	234	263	283	7,6
Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programak (HLPP)	4.615	4.519	4.404	4.484	4.076		
Irakaskuntza Ertainak edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoa (DBHO), Hezkuntza Berezia kontuan hartu barik	56.620	57.638	58.647	61.178	63.006	65.411	3,8
Erdi Mailako Lanbide Heziketa	11.068	11.468	11.990	12.718	13.442	14.188	5,5
Goi Mailako Lanbide Heziketa	16.579	17.401	17.689	19.016	19.957	20.980	5,1
Atazen ikaskuntza (LH. Hezkuntza Berezia)	433	398	427	457	465	484	4,1
Batxilergoa	28.973	28.769	28.968	29.444	29.607	30.243	2,1
Batxilergoaren % DBHO osoaren gainean	51,2	49,9	49,4	48,1	47,0	46,2	
LHren % DBHO osoaren gainean	48,8	50,1	50,6	51,9	53,0	53,8	
Goi Mailako LHren % DBHO osoaren gainean	29,3	30,2	30,2	31,1	31,7	32,1	

(1) Unibertsitatez kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak. Helduen Etengabeko Ikaskuntza eta arabide bereziko irakaskuntzak (arte eta lanbideak, hizkuntzak eta musika) ez dira kontuan hartu.
Iturria: EUSTAT. Eskola Jardueraren Estatistika.

1 Unibertsitate Estatistika (UE) eta Eskola Jardueraren Estatistika (EJE) izeneko eragiketek errolda-izaera dute eta urtero-urtero jasotzen dira. Hezkuntza-sistemaren eta haren bilakaeraren berri ematen digute goi-mailako ikasketei (hirugarren gradua) dagokienez nahiz aurretiazko ikasketei (Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza) dagokienez, hurrenez hurren. Eusko Jaurlaritzako Ikastetxeen Erregistroan jaso eta irakaskuntza arautua ematen duten ikastetxe guztiak kontuan hartzen dira, publikoak zein pribatuak.

Lanbide Heziketaren Prestakuntza Zikloak

EUSTAT erakundearen datuen arabera, 2013-14 ikasturtean, lanbide-titulazio eskatuenak hauexek izan ziren: Fabrikazio mekanikoa (LH ikasi zuten ikasle guztien % 12,4), Elektrizitatea eta Elektronika (LH ikasi zuten ikasle guztien % 11,4), Osasuna (% 10,1), Administrazioa eta Kudeaketa (% 9,8), Gizarte- Kultura eta Komunitate-zerbitzuak (% 9,4) eta Informatika eta Komunikazioak (% 7,5).

Graduak bereiziz gero, erdi-mailako titulaziorik aukeratuenak ondokoak izan ziren: Osasuna, % 14,9; Fabrikazio mekanikoa, % 13,4; Elektrizitatea eta Elektronika, % 10,8; Ibilgailuen garraioa eta mantentzea, % 9,1; eta Administrazioa eta Kudeaketa, % 7,7.

Goi-mailako titulazioei dagokienez, ondokoak ditugu eskatuenak: Gizarte-, Kultura- eta Komunitate-zerbitzuak (% 18,5); Elektrizitatea eta Elektronika eta Fabrikazio mekanikoa (horietako bakoitza, % 17,5); Administrazioa eta Kudeaketa (% 16,6); Informatika eta Komunikazioak (% 12,4) eta Osasuna (% 10,1).

III.1.11. KOADROA. LANBIDE HEZIKETAKO IKASLEAK, GRADUAREN ETA FAMILIAREN ARABERA. EAE, 2013-14 IKASTURTEA

	2013-14 IKASTURTEA				Guztizkoa-ren aldakuntza aurreko ikasturtearen aldean
	GUZTIRA		Erdi Mailako Gradua (% bertikala)	Goi Mailako Gradua (% bertikala)	
	KOP.	(% bertikala)			
Guztira	**33.399**	**100**	**100**	**100**	**5,2**
Nekazaritza jarduerak / Nekazaritza	507	1,5	2,1	1,7	13,2
Jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak	971	2,9	1,4	5,9	2,4
Itsas eta arrantza jarduerak / Itsasoa eta Arrantza	397	1,2	1,1	1,9	11,5
Administrazioa / Administrazioa eta kudeaketa	3.265	9,8	7,7	16,6	-1,0
Arte grafikoak	494	1,5	1,4	2,2	-0,8
Merkataritza eta marketina	1.287	3,9	2,1	7,5	2,9
Komunikazio, irudia eta soinua / Irudia eta soinua	553	1,7	0,8	3,3	1,1
Eraikuntza eta obra zibila	527	1,6	0,9	3,0	-16,3
Elektrizitatea eta elektronika	3.805	11,4	10,8	17,5	4,2
Energia eta ura	174	0,5	-	1,3	1,2
Fabrikazio mekanikoa	4.156	12,4	13,4	17,5	11,2
Ostalaritza eta turismoa	1.775	5,3	6,0	7,2	12,9
Irudi pertsonala	1.216	3,6	6,3	2,7	3,1
Elikagaien industriak	141	0,4	0,9	0,1	2,2
Informatika / Informatika eta komunikazioak	2.510	7,5	6,3	12,4	5,3
Zura eta altzariak / Zura, altzariak eta kortxoa	318	1,0	1,9	0,5	-3,9
Autopropultsatutako ibilgailuen mantentzea / Ibilgailuen garraioa eta mantentzea	1.768	5,3	9,1	4,1	10,3
Mantentzea eta ekoizpen-zerbitzuak / Instalazioa eta mantentze-lana	2.219	6,6	7,0	9,5	5,8
Kimika	552	1,7	0,6	3,5	8,7
Osasuna	3.361	10,1	14,9	10,1	2,9
Segurtasuna eta ingurumena	130	0,4	-	1,0	176,6
Gizarte-, kultura- eta komunitate-zerbitzuak	3.138	9,4	4,9	18,5	6,4
Ehunak, Jantzigintza eta Larrua	135	0,4	0,3	0,7	7,1

Iturria: EUSTAT eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila.

Emakumeek gizonek baino partaidetza txikiagoa dute oraindik ere lanbide ikasketetan, batez ere laneratze hobea izan ohi duten profil teknikoko lanbide adarretan. Hala ere, ikasketa jakin batzuetan, emakumezkoen partaidetza % 75etik gorakoa da: Irudi pertsonala, Ehuna, Jantzigintza eta Larrua, Gizarte-, Kultura eta Komunitate-zerbitzuak eta Osasuna. Badira beste lanbide-ikasketa batzuk non emakumezkoen partaidetza % 75etik beherakoa den baino % 48-50etik gorakoa: Administrazioa eta Kudeaketa, Merkataritza eta Marketina, Elikagaien Industriak, Kimika eta Arte Grafikoak; bai eta Ostalaritza eta Turismoko goi-mailako graduetan ere.

III.1.12. KOADROA LANBIDE HEZIKETAKO IKASLEAK, GRADU, FAMILIA ETA SEXUAREN ARABERA. EAE, 2013-14 IKASTURTEA

FAMILIA		Erdi Mailako Gradua	Goi Mailako Gradua
Nekazaritza jarduerak / Nekazaritza	Guztira	278	229
	Emakumezkoen %	16,5	18,3
Jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak	Guztira	183	788
	Emakumezkoen %	16,9	17,0
Itsas eta arrantza jarduerak / Itsasoa eta Arrantza	Guztira	148	249
	Emakumezkoen %	2,0	4,8
Administrazioa / Administrazioa eta kudeaketa	Guztira	1.039	2.226
	Emakumezkoen %	68,9	65,3
Arte grafikoak	Guztira	192	302
	Emakumezkoen %	49,0	48,0
Merkataritza eta marketina	Guztira	280	1.007
	Emakumezkoen %	61,1	51,1
Komunikazio, irudia eta soinua / Irudia eta soinua	Guztira	113	440
	Emakumezkoen %	48,7	30,2
Eraikuntza eta obra zibila	Guztira	123	404
	Emakumezkoen %	11,4	34,2
Elektrizitatea eta elektronika	Guztira	1.455	2.350
	Emakumezkoen %	3,6	5,2
Energia eta ura	Guztira	0	174
	Emakumezkoen %		16,7
Fabrikazio mekanikoa	Guztira	1.806	2.350
	Emakumezkoen %	4,4	10,9
Ostalaritza eta turismoa	Guztira	809	966
	Emakumezkoen %	32,1	50,6
Irudi pertsonala	Guztira	848	368
	Emakumezkoen %	95,8	95,1
Elikagaien industriak	Guztira	127	14
	Emakumezkoen %	55,9	57,1
Informatika / Informatika eta komunikazioak	Guztira	842	1.668
	Emakumezkoen %	10,8	16,7
Zura eta altzariak / Zura, altzariak eta kortxoa	Guztira	254	64
	Emakumezkoen %	7,1	21,9
Autopropultsatutako ibilgailuen mantentzea / Ibilgailuen garraioa eta mantentzea	Guztira	1.222	546
	Emakumezkoen %	2,1	1,8
Mantentzea eta ekoizpen-zerbitzuak / Instalazioa eta mantentze-lana	Guztira	945	1.274
	Emakumezkoen %	2,4	5,8
Kimika	Guztira	83	469
	Emakumezkoen %	57,8	55,4
Osasuna	Guztira	2.002	1.359
	Emakumezkoen %	81,9	76,6
Segurtasuna eta ingurumena	Guztira	0	130
	Emakumezkoen %		37,7
Gizarte-, kultura- eta komunitate-zerbitzuak	Guztira	653	2.485
	Emakumezkoen %	79,8	82,9
Ehunak, Jantzigintza eta Larrua	Guztira	40	95
	Emakumezkoen %	85,0	90,5
GUZTIRA	**Guztira**	**13.442**	19.957
	Emakumezkoen %	**35,8**	38,6

Iturria: EUSTAT eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila.

Amaitzeko, **Lanbide Heziketaren IV. Plana, 2014-2016** aipatu behar dugu. Eusko Jaurlaritzak onartu zuen plan hori 2014. urtearen amaieran. Plan horren xede nagusia da Euskadiko pertsona guztien, hau da, gizon-emakume guztien enplegagarritasuna erraztea, eta aldi berean, euskal ekoizpen-egituraren lehiakortasuna ahalbidetzea merkatu globalean eta gizarte-kohesioa sustatzea, Lanbide Heziketaren euskal sistema eraldatuz, enpresen beharrizanei erantzun egoki eta azkarra emateko epe laburrean eta luzean eta pertsonen enplegagarritasun-beharrizanak asetzeko.

Planak 5 esparru estrategiko, 9 lehentasunezko helburu eta 20 lan-ildo jasotzen ditu:

ESPARRU ESTRATEGIKOAK	HELBURUAK	LAN ILDO ESTRATEGIKOAK
PRESTAKUNTZA INTEGRATUA	1. helburua: Egokitzapena eta espezializazioa	1.1 Prestakuntza egokitua eta espezializatua 1.2 Ikasleentzako prestakuntza 1.3 Prestakuntza bikoitza, txandaka 1.4 Orientazio-eremu berriak 1.5 Prestakuntza eleanitza 1.6 Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna
	2. helburua: Berrikuntza pedagogikoa	2.1 Ekintzailetza-eredu berriak
	3. helburua: Bikaintasuna eta kalitatea	3.1 Hobekuntza-arlo berriak
BERRIKUNTZA APLIKATUA	4. helburua: ETEak berritzeko sustapena	4.1. Ingurune estrategikoak eta espezializaio-arloa 4.2 Espezializazio-arloak sektore gorakorretan 4.3. Berrikuntza aplikatuko proiektuak 4.4. Pentsamendua eta ohitura sortzaileak
EKINTZAILETZA AKTIBOA	5. helburua: Ekintzailetza indartzea	5.1. Ekintzailetzari lotutako kultura 5.2. Enpresen sorkuntza
NAZIOARTEKOTZEA	6. helburua: LHren nazioartekotzea	6.1. Enpresentzako laguntza 6.2. Irakasleen eta ikasleen mugikortasuna 6.3. LHren euskal sistemari balioa ematea
LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXEAK	7. helburua: Ikastetxe-eredu berria	7.1. Malgutasuna, autonomía eta antolaketa berria
	8. helburua: Ikastetxea, jakintza-gunea	8.1. Kudeaketa aurreratua: adimen lehiakorra, ohitura sortzaileak eta pentsamendu eraikitzailea
	9. helburua: LHko ikastetxe espezializatuen sarea	9.1. LHko ikastetxe espezializatuen sarea sortzea

Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko, ondoko aginte-taula zehaztu da:

		2011ko EGOERA			AURREIKUSPENA				EUROPAKO HELBURUA
		ESPAINIA	EUSKADI	EB	ESPAINIA		EUSKADI		
		2011	2011	2011	2015	2020	2015	2020	2020
Gehienez, Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa bete eta beste prestakuntzarik jaso ez duten 18 eta 24 urte arteko biztanleen %		24,9	11,5	12,8	23	15	10,8	8,6	10
CINE 3ko graduatuen tasa gordinak		50,3	68,7	-	50,5	54,3	-	-	-
	BATXILERGO TEKNIKOA	20	27,5	-	21,6	26	-	-	-
Unibertsitateko eta unibertsitatez kanpoko titulazioak dituzten 30 eta 34 urte arteko biztanleen %		40,1	61,7	35,8	42,8	44	65	68	40
Inkesta egin aurreko lau asteetan, hezkuntzako edo prestakuntzako jardueraren batean parte hartzen duten 25 eta 64 urteen arteko biztanleen %		10,7	13,7	9	12,6	15,2	15	17	15
Erreferentziazko urtean baino 1-3 urte lehenago CINE 3, 4, 5 eta 6 mailetan graduatu diren 20 eta 24 urteen arteko biztanleak, langabezian		62,4	-	75,7	-	-	-	-	82

1.2.2. Unibertsitate-irakaskuntzak

1.2.2.1. Unibertsitateko matrikulazioa

EUSTAT erakundearen Unibertsitate Estatistikan jasotako datuen arabera, 2012-13 ikasturtean, bazeuden 67.551 ikasle matrikulatuta EAEko unibertsitateetan, hau da, aurreko ikasturtean baino % 1,6 gehiago.

III.1.13. KOADROA. EAEn MATRIKULATUTAKO IKASLEEN BILAKAERA, IKASKETEN ARABERA

	2008 /09	2009 /10	2010 /11	2011 /12	2012 /13	Alda-kuntza (%)
1. eta 2. zikloetan matrikulatutakoak	59.118	55.088	40.335	28.323	15.822	-44,1
Gradua	381	4.646	18.791	30.998	44.067	42,2
Gradu-ondokoetan matrikulatutakoak						
Master ofizialak	1.776	2.584	3.344	4.122	4.390	6,5
Doktoretza	35	402	3.131	3.029	3.272	8,0
Guztira	**61.310**	**62.720**	**65.601**	**66.472**	**67.551**	**1,6**

Iturria: EUSTAT

Hala, graduetan matrikulatutako ikasleen kopurua (+% 42,2) hazi egin zen aurreko ikasturteko kopuruaren aldean, funtsean, unibertsitateko ikasketen egitura berria urterik urte finkatzen doalako; beste alde batetik, horren ondorioz, lehen eta bigarren zikloetan matrikulatzen diren ikasleen kopurua jaisten doa (lizentziaturak, arkitekturak eta ingeniaritzak, diplomaturak eta ingeniaritza teknikoak: -% 44,1).

Beraz, ikasle guztien % 23,4 lehen eta bigarren zikloko ikasketetan matrikulatuta zeuden; ikasleen % 65 Europako Goi Mailako Hezkuntza Eremuko gradu-ikasketetan matrikulatuta zeuden; % 6,5ek master ofizialak ikasten zituzten eta % 4,8 doktoretza egiten ari ziren aipatutako urtean.

Titulartasuna kontuan hartuta, ikasleen % 77k unibertsitate publikoan ikasi zuen eta % 23k, berriz, unibertsitate pribatuan. Proportzio hori oso antzekoa da ikasketa guztietan, master ofizialetan izan ezean. Halakoetan, unibertsitate publikoan egindako matrikulazioen ehunekoa txikiena izan zen, % 62koa, hain zuzen ere.

III.1.14. KOADROA. EAEn MATRIKULATUTAKO IKASLEAK, IKASKETEN, SEXUAREN ETA UNIBERTSITATEAREN TITULARTASUNAREN ARABERA, 2012-13 IKASTURTEA

	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Unibertsitate publikoa (%)	Unibertsitate pribatua (%)
1. eta 2. zikloetan matrikulatutakoak	15.822	7.770	8.052	89	11
Gradua	44.067	20.441	23.626	74	26
Gradu-ondokoetan matrikulatutakoak					
Master ofizialak	4.390	1.966	2.424	62	38
Doktoretza	3.272	1.524	1.748	79	21
Guztira	**67.551**	**31.701**	**35.850**	**77**	**23**

Iturria: EUSTAT

Beste alde batetik, unibertsitateko ikasgeletan dagoen generoaren araberako banaketa aztertzen badugu, ikusiko dugu emakumeek alde nabaria ateratzen dietela gizonei unibertsitateko ikasketetan, ehuneko 6 puntukoa hain zuzen ere, 2012-13 ikasturtean. Urte horretan, ikasleen % 53 emakumeak izan ziren eta % 47 gizonak. Gainera, emakume gehiago egon zen ikasketa-mota guztietan: lehen eta bigarren zikloan (% 51), graduak (% 54), master ofizialak (% 55) eta doktoretza (% 54).

Graduei dagokienez, EUSTAT erakundearen datuei jarraiki, matrikula-kopuru handienak ondoko ikasketetan egin ziren: Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza (4.584 ikasle), Lehen Hezkuntza (2.985), Zuzenbidea (2.599), Psikologia (2.244), Ingeniaritza Mekanikoa (2.174), Haur Hezkuntza (1.749), Erizaintza (1.337), Negozioen Kudeaketa (1.276), Gizarte Hezkuntza (1.028), Gizarte Lana (1.023) eta Medikuntza (1.001). Guztiak batuta, unibertsitateko matrikulen erdia osatu zuten.

Lehen eta Bigarren zikloko ikasketei dagokienez: Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza (1.870 ikasle); Ingeniaritza industriala eta teknikoa (1.283 eta 962 ikasle, hurrenez hurren); Arkitektura (887), Medikuntza (847), Industria Antolakuntzako Ingeniaritza (795), Zuzenbidea (791), Irakasletza (529) eta Psikologia (508).

1.2.2.2. Unibertsitateko graduazioa

2012-13 ikasturtean, 12.950 pertsona graduatu ziren guztira, hau da, 2011-12 ikasturtean baino % 5,7 gehiago. Ikasle guztietatik, % 56 emakumeak izan ziren.

Ikasketei gagozkiela, 6.661 ikasle lehen eta bigarren zikloetan graduatu ziren (aurreko ikasturtean baino % 24,2 gutxiago), 3.333k gradua amaitu zuten, 2.546k master ofiziala (+% 7,8) eta 500ek Doktoretza atera zuten (+% 18,5).

III.1.15. KOADROA. EAEn GRADUATUTAKO IKASLEEN BILAKAERA

	2009 2010	2010 2011	2011/ 2012	2012/ 2013	Alda-kuntza
1. eta 2. Zikloko tituludunak	**10.348**	**10.025**	**8.791**	**6.661**	**-24,2**
Osasun Zientziak	739	678	555	371	-33,2
Zientzia Esperimentalak	423	382	439	320	-27,1
Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak	5.289	5.325	4.597	3.226	-29,8
Irakaskuntza Teknikoak	3.155	2.911	2.439	2.021	-17,1
Humanitateak	742	729	761	723	-5,0
Gradua	**150**	**363**	**762**	**3.333**	**337,4**
Gradu-ondokoa	**1.517**	**1.946**	**2.278**	**2.456**	**7,8**
Doktoretza-tesiak	**362**	**526**	**422**	**500**	**18,5**
GUZTIRA	**12.377**	**12.860**	**12.253**	**12.950**	**5,7**

Iturria: EUSTAT

Lehen eta bigarren zikloko ikasketak direla eta (esan dezagun gradu-ikasketak orain dela gutxi ezarri direnez, emaitzek ez dutela diagnostiko fidagarririk egiteko modurik ematen), unibertsitateko ikasle gehienak (% 48,3) Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak deritzon adarrean espezializatu zirela; bigarrenez, Ikasleen % 30,3k Irakaskuntza Teknikoak ikasi zituzten. Ikasle gutxiagok Humanitateak (% 10,9), Osasun Zientziak (% 5,7k) eta Zientzia Esperimentalak (% 4,8k) ikasi zituzten.

1.2.2.3. 2015-2018 aldiko Unibertsitate Plana

2014ko abenduaren 30ean, 2015-2018 aldiko Unibertsitate Plana onartu zen. Plan hori integrala da eta euskal unibertsitate-sistema osatzen duten hiru unibertsitateak aintzat hartzen ditu: Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea.

Aipatutako planaren helburu nagusia Eusko Jaurlaritzaren erronkei heltzea da, euskal unibertsitate-sistema osatzen duten unibertsitateen diferentziazioa ahalbidetuta eskaintzari dagokionez. Horretarako, planak ekintzak bultzatzen ditu Euskal Unibertsitate Sistema indartu eta horren jarraipenari nahiz ebaluazioari lotutako elementuak finkatzeko, eta bestetik, Euskal Unibertsitate Sistemaren nazioartekotzea sendotzeko, herriak dituen lehentasunei erantzute aldera. Hori guztia nazioarteko kalitate-adierazleetan oinarritzen da.

Planaren xedea hauxe da: “Euskal gizartearen goi-mailako prestakuntza beharrak eredu propio baten bidez asetzea, kalitateko zerbitzu-eskaintza bat bermatuz, jasangarria eta dinamikoa, eta ikerketa bikainak eginez eta eskualdatuz, Euskadiko gizarte-, kultura- eta ekonomia-erronkei aurre egiten laguntzeko”.

Xede horretan funtsaturik, planak lau helburu estrategiko eta 16 lan-ildo jasotzen ditu. Lehen hiru helburuak unibertsitateen xede behinenekin lotuta daude: irakaskuntza, ikerkuntza eta gizarteratzea; laugarrenak, berriz, badauka zerikusia hiru helburu horiek beharrezko zorroztasunez eta kalitatez betetzeko ahalbide eta baliabideekin.

HELBURUAK	ILDO ESTRATEGIKOAK
1HE.- Euskal gizartearen goi-mailako prestakuntza-beharrizanei erantzutea, irakaskuntza-eredu eta -metodologia berritzaileak erabiliz.	1IE. Hezkuntza-gaitasun eta -ereduen inguruko prestakuntza, gaikuntza eta berrikuntza sustatzea 2IE. Ikasleen mugikortasuna ahalbidetzen duten egitura eta tresnak finkatzea 3IE. Ekintzailetza eta laneratzea bultzatzea
2HE.- Euskal Unibertsitate Sistemaren baliabideak eta ahalbideak garatzea, nazioarteko hedadura daukan ikerkuntza bikaina gauzatzeko.	4IE. Ikertzaileen prestakuntza eta erakarpena sustatzea eta unibertsitateko ikerketa-komunitatearen nazioartekotzea erraztea 5IE. Unibertsitate sistemaren ikerkuntza ahalmena indartzea Euskadiko espezializazio-sektore adimentsuen inguruan 6IE. Nazioarteko proiektuetako partaidetza bultzatzea 7IE. Proiektuen eta ikerketa-talde bikainen eragina baliatzea
3HE.- Ekarpen garrantzitsua egitea euskal gizarteak dauzkan erronka ekonomiko eta sozialetan,	8IE. Arautu gabeko prestakuntza-eskaintzaren plangintza, ebaluazioa eta ziurtapena egitea

profesionalen etengabeko prestakuntzaren eta jakintzaren gizarteratzearen bidez.	9IE. Doktoreen enplegugarritasuna eta lan-merkaturatzea sustatzea 10IE. Goi-mailako prestakuntza-eskaintza "lanbide-heziketarantz" dibertsifikatzea 11IE. Ikerketetako emaitzen balioa eta enpresen sorrera bultzatzea, eta ekintzailetzaren kultura nahiz horren gizarteratzea sustatzea 12IE. Doktoreen ikerketa-lanaren garapena eta haien mugikortasuna RVCTIko eragileen artean, enpresen artean, gizarte-antolakundeen artean eta erakundeen artean errazten duten prozedura malguak bultzatzea
4HE.- Zerbitzuen eskaintza inklusibo eta kalitatezkoa daukan Euskal Unibertsitate Sistema bermatzea. Era berean, erabilera iraunkorra, ingurumenaren zaintza, baliabideen eta teknologia berrien kudeaketa gardena eta finantzaketa-eredu orekatu eta iraunkorra sustatzea.	13IE. Euskal Unibertsitate Sistemaren (EUS) gobernantza, kudeaketa, jarraipena eta ebaluazioa finkatzea 14IE. EUS osatzen duten unibertsitateen lehiakortasuna eta tokiko nahiz nazioarteko ikuspena hobetzea 15IE. Informazio- eta komunikazio-teknologiek eskaintzen dituzten aukeren erabilgarritasunaz baliatzea 6IE. Ekitatea, inklusioa eta aukeren berdintasuna sustatzea

Adierazleak eta baliabideak erabiltzeko helburuak ondoko taulan ageri dira:

ADIERAZLEA	HASIERAKO EGOERA		HELBURUA	
	Urtea	Balioa	2018	2020
Goi-mailako erakundeen gastua BPGren gainean	2012	% 0,84	% 1,00	% 1,20
Unibertsitateek gauzatutako I+G gastua BPGren gainean	2013	% 0,36	% 0,37	% 0,40
Goi-mailako hezkuntzaren gastuaren gaineko finantzaketa publikoaren ehunekoa, familiei laguntzeko ordainketa eta transferentzietan erabilitakoa: bekak	2012	% 5,80	% 4,30	% 3,90
Goi-mailako hezkuntzaren gastuaren gaineko finantzaketa publikoaren ehunekoa, familiei laguntzeko ordainketa eta transferentzietan erabilitakoa: laguntzak	2012	% 5,60	% 7,20	% 7,60

1.2.1. Hezkuntza-adierazleak

1.2.1.1. Eskolatzea eta eskola-testuingurua.

Eskolatze-tasa garbiak

Eskolatze-tasa garbia dugu irakaskuntza jakin batean jarduten duten adin bateko edo adin-talde bateko ikasleen eta adin horretako edo adin-talde horretako biztanle guztien arteko erlazioa.

EUROSTAT erakundearen datuen arabera, 2011-12 ikasturtean, Espainiako estatua genuen Haur Hezkuntzako eskolatze-tasa garbirik handienetakoa EB28ko herrialdeen artean (Haur Hezkuntzako ziklotzat hartzen da umeak jaiotzen direnetik 6 urte betetzen duten arte). Lehen eskola-aldi horretatik umeek 16 urte betetzen dituzten arte, eskolatze-tasak oso handiak izan ziren, baina adin horretatik aurrera, hau da, 17 eta 18 urteko aldian, herrialdeetako batez bestekoak zerbait handiagoak izan ziren EB28ko herrialdeetan. 17 urteko adinari dagokionez, aldea ez zen oso esanguratsua izan: % 90,9 EB28ko

III.1.16. KOADROA. ESKOLATZE TASA GARBIAK ADIN ESANGURATSUETAN. 2011-12 IKASTURTEA

	3 urte	4 urte	5 urte	15 urte	16 urte	17 urte	18 urte
EB28	83,5	91,9	96,2	97,5	95,4	90,9	80,4
Alemania	90,8	95,8	97,3	99,8	97,7	93,4	86,1
Austria	65,0	90,9	96,6	94,7	90,7	88,4	73,5
Belgika	97,8	98,1	98,0	100,5	99,7	99,0	89,5
Bulgaria	72,5	79,5	87,2	91,6	88,3	84,6	80,6
Danimarka	97,2	97,7	98,2	99,5	95,2	90,2	86,4
Erresuma Batua	93,0	97,3	96,8	93,6	93,0	85,6	63,3
Errumania	68,1	82,4	88,6	97,9	93,3	80,8	77,7
Eslovenia	84,9	89,4	92,5	97,6	97,5	95,0	92,1
Espainia	95,2	97,0	97,8	97,6	97,5	90,6	78,4
Estonia	88,2	88,0	90,7	99,6	98,1	95,9	92,9
Eslovakiar Errep.	62,5	72,8	81,4	98,2	93,8	90,6	84,9
Finlandia	50,9	59,3	68,2	98,7	94,5	94,3	93,7
Frantzia	99,9	100,0	100,6	97,7	93,2	89,2	76,9
Grezia	..	54,5	95,6	97,4	97,8	97,0	67,9
Herbehereak	83,4	99,6	99,6	99,6	99,2	97,8	90,3
Hungaria	74,3	93,8	95,1	96,2	94,6	95,1	86,0
Irlanda	41,1	96,8	101,5	101,4	101,3	95,8	97,9
Italia	95,1	98,8	99,6	97,7	94,1	87,8	80,0
Kroazia	52,0	58,1	63,3	101,1	98,3	92,4	70,6
Letonia	79,5	87,3	95,9	99,3	98,3	97,8	94,4
Lituania	71,4	75,0	77,0	99,7	99,3	98,2	97,0
Luxenburgo	73,1	97,9	97,8	92,0	88,5	80,7	71,4
Malta	98,7	100,0	100,6	103,2	82,6	69,4	40,7
Polonia	51,1	65,5	93,6	96,2	96,5	95,0	93,3
Portugal	78,4	91,6	98,3	101,1	97,4	93,5	77,6
Suedia	92,6	94,2	95,3	96,8	98,9	98,5	96,0
Txekiar Errep.	58,7	82,3	90,1	99,4	98,3	95,9	89,9
Zipre	41,8	72,0	95,3	92,4	89,1	87,7	34,7

Iturria: EUROSTAT, Hezkuntzaren Estatistikak Espainian. 2015eko edizioa.

herrialdeetan eta % 90,6 estatuan; hala ere, 18 urteko adinari dagokionez, bien arteko aldea handitu zen: % 80,4 EB28ko herrialdeetan eta % 78,4 estatuan.

Beste alde batetik, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren (aurrerantzean, HKKM) 2015eko *Hezkuntza Kopuruak Espainian* deritzon estatistikaren arabera, autonomia erkidegoen arteko erkaketan oinarrituta, esan dezakegu 2 eta 17 urteko adin esanguratsuetan izandako eskolatze-tasak handienetakoak izan zirela autonomia erkidego guztietakoak aintzat hartuta 2012-13 ikasturtean.

Izan ere, 2 urteko adinari dagokionez, EAEko ratioa % 92,4koa izan zen; gurearen ondotik, Madril (% 67,4), Galizia (% 61,9) eta Kantabria (% 59,4) izan ziren. Beste alde batetik, 17 urteko adinari dagokionez, EAEko ratioa % 98,2koa izan zen; gurearen ondotik, Andaluzia (% 97,5), Galizia (% 93) eta Gaztela eta Leon (% 92,9 izan ziren).

III.1.17. KOADROA. ESKOLATZE TASA GARBIAK ADIN ESANGURATSUETAN 2012-13 IKASTURTEA

	2 urte	17 urte
GUZTIRA	**51,8**	**91,8**
Andaluzia	57,5	97,5
Aragoi	52,5	88,9
Asturias	26,3	90,6
Balear uharteak	33,5	78,6
Errioxa	51,1	91,9
Euskal Aut. Erkidegoa	92,4	98,2
Extremadura	23,6	89,4
Galizia	61,9	93,0
Gaztela eta Leon	31,1	92,9
Gaztela-Mantxa	52,3	89,5
Kanariar uharteak	12,8	86,0
Kantabria	59,4	89,8
Katalunia	55,8	90,6
Madril	67,4	92,6
Murtzia	29,6	86,3
Nafarroa	16,3	91,1
Valentziako Erkidegoa	40,9	88,8

Iturria: Hezkuntzaren Estatistikak Espainian. 2015eko edizioa

Horren ondorioz, EAE lehen postuetan ageri da, bai Espainiako estatuan, bai Europar Batasunean, adin esanguratsuenetako eskolatze-tasa garbiei dagokienez.

Helduen ikasketa maila

ELGAk argitaratutako datuen arabera, ondoko taula jasotzen denez, 2012ko ikasturtean, Estatuko 25 eta 64 urte arteko biztanleen % 44,3k bazeukaten Bigarren Hezkuntzako bigarren ziklotik beherako ikasketa-maila; % 21,9k, berriz, Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa eginda eta, azkeni, % 33,7k goi-mailako ikasketak eginda zeuzkaten.

Herrialdeen arteko azterketa eginda, esan dezakegu Portugal, Espainia, Italia eta Grezia zirela Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa gaindituta zeukaten 25 eta 64 urte arteko biztanleen ehuneko txikiena zeukaten herrialdeak: Portugalek, % 40; Espainiak, % 55,6; Italiak, % 58,2; Greziak, % 70; Frantziak, % 70,4; eta Belgikak, % 72,7. Beste muturrean ondoko herrialdeak zeuden: Txekiar Errepublikak, % 92,9; Eslovakiar Errepublika, % 91,8; Estoniak % 90,6; Poloniak, % 90,1; Suediak, % 88,2; eta Alemaniak, % 86,3.

HKKMren datuen arabera, 2013. urtean, aipatutako ratioa % 55,4koa (% 21,7 + % 33,7) izan zen estatuan. EAEko ratioa % 68,1ekoa izan zen (% 21,3 + % 33,7) eta, hortaz, estatukoa baino hobea izan zen, baina aurreko paragrafoan aipatutako herrialdeetako ratiotik nahikoa urrun.

III.1.18. KOADROA. BIZTANLE HELDUEN EHUNEKO BANAKETA, ADIN-TALDEKA. 2012

	DBHko 2. ziklotik beherako maila			DBHko 2. Zikloko maila (2) (CINE 3)			Goi-mailako ikasketak		
	25-64	25-34	55-64	25-64	25-34	55-64	25-64	25-34	55 a 64
ELGAko herrialdeen batez bestekoa	23,5	16,8	33,7	44,1	43,3	42,5	33,2	40,4	24,8
Europar Batasuna - 21 herrialde (1)	22,0	14,9	32,3	47,7	47,1	45,4	30,3	38,0	22,2
Alemania	13,7	13,1	15,2	60,4	60,0	60,2	25,9	26,9	24,6
Austria	16,9	10,8	26,3	62,4	64,2	57,2	20,7	25,0	16,4
Belgika	27,2	18,3	42,1	37,2	39,0	31,9	35,5	42,7	26,0
Danimarka	21,7	18,1	29,6	42,8	40,6	41,2	35,4	41,2	29,2
Erresuma Batua	20,8	13,9	29,6	37,3	37,8	36,7	41,9	48,3	33,7
Eslovakiar Errepub.	8,2	5,9	14,7	71,9	64,4	71,5	19,9	29,7	13,9
Eslovenia	14,5	5,5	25,6	57,6	57,1	56,1	27,9	37,4	18,3
Espainia	44,3	34,9	62,5	21,9	24,0	17,3	33,7	41,1	20,2
Estonia	9,4	12,1	9,8	52,2	44,4	54,7	38,4	43,5	35,5
Finlandia	14,1	9,2	24,5	45,3	50,8	43,7	40,5	40,0	31,8
Frantzia	24,9	14,6	38,5	43,0	41,4	41,3	27,4	44,1	20,3
Grezia	30,0	15,8	48,8	42,6	47,0	30,4	27,4	37,2	20,8
Herbehereak	24,2	15,2	35,2	41,9	42,0	37,5	33,9	42,9	27,3
Hungaria	17,5	12,7	23,9	60,0	56,4	60,2	22,5	30,9	16,0
Irlanda	23,3	13,2	41,5	35,3	35,7	32,7	41,5	51,1	25,8
Italia	41,8	27,3	55,9	41,9	49,9	32,2	16,3	22,7	11,9
Luxenburgo	19,5	14,0	26,8	39,8	37,9	45,9	40,7	48,1	27,4
Polonia	9,9	5,8	17,1	64,4	52,4	69,7	25,8	41,8	13,2
Portugal	60,0	39,2	78,9	20,7	31,5	9,5	19,3	29,3	11,6
Suedia	11,8	8,6	19,5	51,1	46,6	51,3	37,0	44,8	29,2
Txekiar Errepublika	7,2	5,6	12,8	72,4	65,2	73,2	20,5	29,2	14,0

1) EBko 21 herrialdeak kontuan hartu dira, ELGA osatzen duten 19ak eta elkartutako beste bi (Eslovenia eta Estonia)
(2) CINE 3C mailako programa laburrak ez ditu kontuan hartzen
Iturria: Hezkuntzaren egoera 2014. ELGAko adierazleak ondokoan: Hezkuntzaren Estatistikak Espainian. 2015eko edizioa

III.1.19. KOADROA. BIZTANLERIAREN IKASKETA-MAILA ADIN-TALDEKA. 2013ko IKASTURTEA

	DBHko 1. ziklotik beherako maila			DBHko 1. zikloa			DBHko 2. zikloa			Goi-mailako ikasketak eta doktoretza		
	25-64	25-34	55-64	25-64	25-64	25-34	55-64	25-64	25-64	25-34	55-64	25-64
GUZTIRA	**15,2**	**7,6**	**36,5**	**29,4**	**27,6**	**26,2**	**21,7**	**23,7**	**17,2**	**33,7**	**41,1**	**20,2**
Andaluzia	19,3	8,4	46,8	33,6	36,1	22,9	19,7	23,5	13,5	27,3	32,1	16,7
Aragoi	14,6	8,7	33,9	25,7	20,7	27,2	24,9	26,7	17,7	34,8	43,9	21,2
Asturias	13,5	6,3	32,6	26,6	22,2	25,5	22,2	22,5	18,1	37,7	49,0	23,8
Balear uharteak	12,4	9,6	30,6	33,8	29,8	33,8	27,0	29,9	20,0	26,8	30,7	15,5
EAE	**9,2**	**3,2**	**27,2**	**22,7**	**14,4**	**23,6**	**21,3**	**21,0**	**20,3**	**46,8**	**61,5**	**28,8**
Errioxa	13,2	4,8	40,1	28,1	26,3	21,8	23,4	25,7	18,8	35,2	43,2	19,3
Extremadura	16,7	3,4	43,5	43,3	41,3	31,9	15,5	20,6	10,4	24,5	34,7	14,2
Galizia	11,7	3,3	32,4	37,0	30,3	36,8	19,1	23,2	13,6	32,1	43,1	17,2
Gaztela eta Leon	13,5	6,4	30,3	29,3	25,6	31,3	23,5	26,0	18,0	33,7	41,9	20,4
Gaztela-Mantxa	17,4	7,6	43,9	35,8	34,8	28,5	20,6	24,6	13,0	26,2	33,1	14,6
Kanariar uharteak	20,7	10,0	43,1	29,5	29,5	22,1	22,5	25,4	16,6	27,3	35,0	18,2
Kantabria	8,5	2,3	24,1	28,4	22,8	30,2	26,0	27,6	23,7	37,2	47,2	22,0
Katalunia	17,9	10,7	40,4	26,0	25,9	21,3	21,2	19,8	19,6	34,8	43,7	18,7
Madril	8,8	4,9	24,4	20,7	17,0	25,1	24,5	25,7	21,5	46,0	52,5	29,0
Murtzia	18,9	13,8	39,6	33,2	35,1	27,4	19,7	20,9	14,2	28,2	30,1	18,8
Nafarroa	9,8	6,9	26,6	25,9	20,9	29,4	23,9	24,8	20,7	40,3	47,4	23,4
Valentzia	15,6	7,8	37,4	31,8	28,2	28,5	21,8	24,8	15,7	30,8	39,2	18,4
Ceuta eta Melilla	26,5	21,9	38,7	27,0	39,3	17,3	22,0	16,3	23,1	24,6	22,4	20,9

Iturria: Hezkuntzaren Estatistikak Espainian. 2015eko edizioa

Ikaskuntza iraunkorreko partaidetza

Estatistikaren ikuspegitik, ikaskuntza iraunkorreko partaidetza dugu, inkesta izan baino lau aste lehenago, hezkuntza edo prestakuntza iraunkorreko jardueraren batean parte hartzen duten 25 eta 64 urteko biztanleen ehunekoa, adin bereko biztanle guztien aldean.

Europar Batasunaren 2020ko helburua da 25 eta 64 urte arteko helduen %15ek, gutxienez, prestakuntza iraunkorren jardueraren batean parte har dezaten.

EUROSTAT erakundearen arabera, 2013. urtean, prestakuntza iraunkorreko ikastaroetan parte hartzen zuten pertsonen batez bestekoa % 10,5ekoa zen EB28an eta % 11,1ekoa estatuan. 2003. urtean, berriz, hurrenez hurreneko ehunekoak ondokoak ziren: % 8,4 eta % 4,8. Hori dela eta, EB28 batez bestekoa nahiz estatukoa hobetu den arren, oraindik ere tarte handia falta helburua betetzeko eta, gainera, alde handiak daude herrialdeen artean. Ehunekorik handienak %20tik gorakoak dira, Danimarkan, Suedian eta Finlandian. Beste muturrean, ehunekorik txikienak % 3koak edo handik beherakoak dira, Bulgarian, Zipren, Grezian, Errumanian, Eslovakiar Errepublikan eta Hungarian.

III.1.20. KOADROA. PRESTAKUNTZA IRAUNKORRA (1)

	GUZTIRA			GIZONAK			EMAKUMEAK		
	2003	2008	2013	2003	2008	2013	2003	2008	2013
EB28	8,4	9,3	10,5	7,8	8,5	9,6	9,0	10,2	11,4
Alemania	6,0	7,9	7,8	6,4	8,0	7,9	5,6	7,8	7,8
Austria	8,6	13,2	13,9	8,6	12,2	12,6	8,6	14,2	15,3
Belgika	7,0	6,8	6,7	7,0	6,4	6,6	6,9	7,2	6,8
Bulgaria	1,3	1,4	1,7	1,1	1,3	1,6	1,4	1,5	1,8
Danimarka	24,2	29,9	31,4	21,0	24,8	25,7	27,4	35,2	37,2
Erres. Batua	27,2	19,9	16,1	23,4	16,6	14,6	31,1	23,2	17,6
Errumania	1,1	1,5	2,0	1,1	1,3	2,2	1,2	1,6	1,9
Eslovakiar Er.	3,7	3,3	2,9	3,5	2,6	2,8	3,9	4,0	3,1
Eslovenia	13,3	13,9	12,4	12,0	12,5	10,3	14,7	15,4	14,5
Espainia	4,8	10,6	11,1	4,4	9,6	10,3	5,3	11,7	12,0
Estonia	6,8	9,7	12,6	5,1	6,6	9,8	8,3	12,5	15,2
Finlandia	22,4	23,1	24,9	18,6	19,3	21,1	26,2	26,9	28,8
Frantzia	6,8	6,0	17,7	6,7	5,6	15,4	6,9	6,4	19,9
Grezia	2,6	2,9	2,9	2,6	2,8	3,0	2,7	3,1	2,9
Herbehereak	16,4	17,0	17,4	16,1	16,8	16,8	16,8	17,2	18,0
Hungaria	4,5	3,1	3,0	4,0	2,7	2,9	4,9	3,5	3,1
Irlanda	5,9	7,0	7,3	5,1	6,0	6,9	6,8	8,1	7,7
Italia	4,5	6,3	6,2	4,2	6,1	5,8	4,8	6,6	6,5
Kroazia	7,9	8,5	6,9	7,1	8,1	6,6	8,5	8,9	7,1
Letonia	7,8	6,6	6,5	5,4	4,0	5,0	10,0	8,8	7,8
Lituania	3,8	4,8	5,7	2,8	3,5	5,0	4,7	5,9	6,3
Luxenburgo	6,5	8,5	14,4	6,8	7,6	13,8	6,1	9,5	14,9
Malta	4,2	6,2	7,5	4,7	6,3	7,4	3,6	6,1	7,7
Polonia	4,4	4,7	4,3	3,9	4,2	3,8	4,9	5,2	4,9
Portugal	3,2	5,3	9,8	3,0	5,0	9,5	3,4	5,6	10,1
Suedia	..	22,2	28,1	..	16,1	21,3	..	28,4	35,1
Txekiar Errep.	5,1	7,8	9,7	4,8	7,7	9,7	5,4	7,9	9,7
Zipre	1,8	2,2	2,4	1,8	2,1	2,5	1,9	2,3	2,3

(1) Kontzeptu eta definizio harmonizatuak ezarri eta/edo urteko batez bestekoak darabiltzaten kalkulu berriak erabili direnez gero, datuak ez datoz bat 2005eko azaroaren aurretik argitaratu direnekin.
Iturria: EUROSTAT, Hezkuntzaren Estatistikak Espainian. 2015eko edizioa.

Hezkuntzaren Estatistikak Espainian. 2015eko edizioa deritzon txostenaren arabera, 2013. urtean, Espainiako biztanle helduen % 11,1ek prestakuntza iraunkorreko jardueraren batean parte hartu zuten. Eta gertatu ohi den moduan, ratiorik handienak EAEn (% 13,4), Madrilen (% 13,3), Nafarroan (% 13), eta Valentzian (% 12,9) izan ziren.

Generoaren ikuspegitik aztertuta, emakumeek partaidetza handiagoa izan zuten (% 12ko batez bestekoa estatuan) gizonezkoek baino (% 10,3). Emakumezkoen partaidetza gizonezkoena handiagoa zeneko autonomia erkidegoen artean, Nafarroa aipatu behar dugu; izan ere, Foru Erkidegoan emakumeek ehuneko 3,5 puntu atera zieten gizonei; Aragoin, +3,4 puntu; eta Gaztela eta Leonen, +3,3 puntu. Euskal Autonomia Erkidegoan, aldiz, emakumeen aldeko aldea ehuneko 2,6 puntukoa izan zen.

III.1.21. KOADROA. ETENGABEKO PRESTAKUNTZA AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ARABERA

	GUZTIRA		GIZONAK		EMAKUMEAK	
	2012	2013	2012	2013	2012	2013
GUZTIRA	11,0	11,1	10,0	10,3	11,9	12,0
Andaluzia	10,1	9,9	9,8	9,3	10,3	10,5
Aragoi	12,3	12,3	11,0	10,6	13,6	14,0
Asturias	9,3	9,6	8,7	8,3	9,8	10,8
Balear uharteak	10,4	10,0	10,1	9,3	10,7	10,8
EAE	13,8	13,4	11,7	12,5	15,9	14,3
Errioxa	11,5	12,5	9,8	12,2	13,3	12,8
Extremadura	10,3	10,1	9,5	9,4	11,0	10,8
Galizia	10,4	10,2	9,3	9,2	11,4	11,1
Gaztela eta Leon	11,3	11,5	9,6	9,9	13,1	13,2
Gaztela-Mantxa	9,8	10,5	9,7	9,8	9,8	11,2
Kanaria uharteak	11,0	11,1	9,8	9,8	12,3	12,5
Kantabria	9,6	10,3	8,5	9,2	10,7	11,3
Katalunia	8,8	9,3	7,6	8,3	10,1	10,3
Madril	12,9	13,3	11,6	12,8	14,1	13,8
Murtzia	10,9	11,6	11,2	10,9	10,5	12,3
Nafarroa	13,1	13,0	12,0	11,3	14,2	14,8
Valentzia	12,7	12,9	12,0	12,2	13,5	13,6
Ceuta eta Melilla	12,1	10,3	11,6	9,4	12,7	11,4

EUROSTAT erakundearen metodologia erabiliz kalkulatuta. Biztanleria Aktiboaren Inkestan ez bezala, "oporretako ikasleak" ez dira hezkuntzako datuetan aintzat hartzen.
2012ko datuak ez datoz bat argitalpen honetako aurreko edizioko datuekin, biztanleriaren datutegi berria erabili delako BAIko fitxategietan.
Iturria: Hezkuntzaren Estatistikak Espainian. 2015eko edizioa

Ikasleak irakasleko

Lanaldi osoaren pareko lanaldia duten irakasleak zati ikasleen batez besteko kopurua egin behar da kalkulua egiteko, hezkuntza maila bakoitzean.

ELGAk argitaratutako Hezkuntzaren egoera 2014 izeneko txostenak dakartzan datuen arabera, Espainiak, 2011-12 ikasturtean, 13 ikasle zeukan irakasleko Haur Hezkuntzan; 13,4 ikasle Lehen Hezkuntzan; 10,4 ikasle Bigarren Hezkuntzan; eta 11,8 ikasle Goi Mailako Hezkuntzan. Hau da, OCDEn baino ikasleen ratio txikiagoa zeukan irakasleko. Hain zuzen ere: Haur Hezkuntzan, ehuneko 1,4 puntu gutxiago; Lehen Hezkuntzan, ehuneko 1,9 puntu gutxiago; Bigarren Hezkuntzan, ehuneko 3,1 puntu gutxiago; eta Goi Mailako Hezkuntzan, ehuneko 2,7 puntu gutxiago.

Ikasleen batez besteko kopurua irakasleko arduraldi osoko baliokidetzan (AOB) erkatzen baldin badugu EAEn eta Estatuan unibertsitatez kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzei dagokienez, ikusten

III.1.22. KOADROA. IKASLEEN BATEZ BESTEKO KOPURUA IRAKASLEKO. 2011-12

	Haur Hezkuntza	Lehen Hezkuntza	Bigarren Hezkuntza	Goi Mailako Hezkuntza
OCDEko herr. Bat. Best.	**14,5**	**15,3**	**13,5**	**14,4**
EB 21eko herrialdeak (1)	**13,1**	**14,4**	**12,1**	**15,8**
Alemania	12,3	16,0	13,8	11,8
Austria	13,9	12,0	9,3	17,1
Belgika (2)	16,2	12,5	9,5	20,5
Danimarka	..	x(4)	..	..
Erresuma Batua	18,6	21,1	15,8	19,9
Eslovenia	9,3	15,9	10,9	18,2
Esloveniar Errepublika	12,4	16,8	13,3	14,1
Espainia	13,0	13,4	10,4	11,8
Estonia	7,3	13,1	12,1	..
Finlandia	10,6	13,6	12,8	13,9
Frantzia (2)	21,9	18,9	12,5	15,6
Grezia	..	9,4	..	..
Herbehereak	15,6	15,8	17,0	15,1
Hungaria	11,3	10,7	11,6	15,3
Irlanda	..	16,2	15,0	18,6
Italia (3)	11,8	12,1	12,5	19,4
Luxenburgo	11,4	9,2	8,8	..
Polonia	16,5	11,0	10,4	15,4
Portugal	16,1	11,9	8,6	14,7
Suedia	6,3	11,8	12,3	11,2
Txekiar Errepublika	13,9	18,9	11,2	21,3

Ikasleen eta irakasleen arduraldi osoko baliokidearen arabera kalkulatuta.
(1) EB osatzen duten 21 herrialdeak kontuan hartzen dira: ELGA osatzen duten 19ak eta kidetutako 2ak (Eslovenia eta Estonia).
(2) Funts publikoen bidez finantzatutako erakundeak baino ez.
(3) Erakunde publikoak baino ez.
Iturria: Hezkuntzaren egoera 2014. ELGAko adierazleak, ondokoan: Hezkuntzaren Estatistikak Espainian. 2015eko edizioa.

da gure erkidegoan ratio txikiagoa zegoela Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Batxilergo eta/edo Lanbide Heziketako eta Hezkuntza Bereziko ikastetxeetan, baina DBH ematen duten ikastetxeetan, ratiorik txikiena estatukoa zen.

Azterketak aldeak erakusten zituen ikastetxearen titulartasunaren arabera; gertaera hori antzekoa zen Estatuan eta Euskal Autonomia Erkidegoan. Horrela, EAEn, aipatutako irakaskuntzetako batez bestekoa 9,1 ikaslekoa zen ikastetxe publikoetan; ikastetxe pribatuetan, ordea, 17,1ekoa izan zen (8 ikasle gehiago). Alderik handiena Batxilergoa eta/edo Lanbide Heziketa ematen zuten ikastetxeetan izan zen (7,4 ikasle gehiago).

III.1.23. KOADROA. IKASLEEN BATEZ BESTEKO KOPURUA AOBn* KALKULATUTA, IKASTETXE MOTA ETA TITULARTASUNAREN ARABERA. UNIBERTSITATEZ KANPOKO ARAUBIDE OROKORREKO IRAKASKUNTZAK. 2012-13 IKASTURTEA

	GUZTIRA	HHko IKASTETXEAK	LHko IKASTETXEAK	LHko eta DBHko IKASTETXEAK	BATX. eta LHko IKASTETXEAK	LH, DBH eta BATX./LHko IKASTETXEAK	HEZK. BEREZ. IKAST.
Estatua. Ikastetxe guztiak	**12,6**	**9,6**	**13,4**	**14,5**	**10,9**	**16,2**	**3,9**
Estatua. Publikoak	11,8	9,0	13,4	9,4	10,7	7,9	3,5
Estatua. Pribatuak	15,0	10,4	14,8	15,7	13,9	16,2	4,5
Pribatuen eta Publikoen arteko aldea	3,2	1,4	1,4	6,3	3,2	8,3	1
EAE. Ikastetxe guztiak	**11,8**	**4,7**	**11,0**	**15,4**	**8,8**	**18,6**	**4,3**
EAE. Publikoak	9,1	4,7	10,9	9,0	7,8	11,6	1,9
EAE. Pribatuak	17,1		17,0	15,8	15,2	18,8	4,8
Pribatuen eta Publikoen arteko aldea	8		6,1	6,8	7,4	7,2	2,9

(*) Arduraldi osoko baliokidetza. Iturria: Hezkuntzaren Estatistikak Espainian. 2015eko edizioa

1.2.1.2. Hezkuntzako gastua

Hezkuntzaren Estatistikak Espainian. 2015eko edizioa izeneko txostenak jasotzen dituen datuen arabera, Hezkuntzako gastu publikoa Estatuan, 2011. urtean, BPGren % 4,82koa izan zen, hau da, EB28 osatzen duten herrialdeetako ratioa (% 5,25 baino txikiagoa eta Danimarkakoa (% 8,75), Maltakoa (% 7,96), Ziprekoa (% 7,87), Suediakoa (% 6,82), Finlandiakoa (% 6,76), Belgikakoa (% 6,55%) edo Irlandakoa (% 6,15) baino nabarmen txikiagoa.

EAEn, Hezkuntzako gastu publikoa, 2012. urtean, 2.604 milioi eurokoa izan zen (aurreko urtean, 2.739,6 milioi eurokoa izan zen); Estatu osoan, Hezkuntza Administrazioei egokitutako gastua 40.285 milioi eurokoa izan zen (2011n, 44.080 milioi eurokoa izan zen).

III.1.24. KOADROA. HEZKUNTZAKO GASTU PUBLIKOA GUZTIRA, BPGren GAINEAN

	2006	2011		2006	2011
EB28	4,91	5,25			
Alemania	4,43	4,98	Irlanda	4,73	6,15
Austria	5,40	5,80	Italia	4,67	4,29
Belgika	5,98	6,55	Letonia	5,13	4,96
Bulgaria	4,04	3,82	Lituania	4,82	5,17
Danimarka	7,97	7,87	Herbehereak	5,50	5,93
Eslovenia	5,72	4,21	Polonia	5,25	4,94
Espainia	4,26	8,75	Portugal	5,07	5,27
Estonia	4,70	5,68	Txekiar Er.	4,42	4,51
Finlandia	6,18	4,82	Eslovakiar Er.	3,80	4,06
Frantzia	5,61	5,16	Erres. Batua	5,38	5,98
Grezia	:	6,76	Errumania	:	3,07
Hungaria	5,44	5,68	Suedia	6,75	6,82
Kroazia	4,04	:	Malta	6,45	7,96
Zipre	7,02	4,71	Luxenburgo	3,41	:

Iturria: EUROSTAT, Hezkuntzaren Estatistikak Espainian. 2015eko edizioa.

Euskal Autonomia Erkidegoan, BPGren gaineko Hezkuntza Administrazioen gastua % 4,05ekoa izan zen (2011koa baino txikiagoa: % 4,26); Estatuan, berriz, % 3,82koa izan zen.

Unibertsitate-hezkuntza eta unibertsitatez kanpoko hezkuntza bereizita, EAEn, BPGren gaineko hurrenez hurreneko ratioak % 3,17koa eta % 0,75ekoa izan ziren; Estatuan, aldiz, % 2,8koa izan zen unibertsitatez kanpoko hezkuntzan eta % 0,87koa unibertsitate-hezkuntzan.

III.1.25. KOADROA. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN HEZKUNTZAKO GASTUA AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA, 2012

	BPG (milaka €)	Hezkuntzako gastua guztira				Unibertsitatez kanpoko hezkuntzako gastua				Unibertsitate-hezkuntzako gastua			
		Guztira (milaka €)	% (3)		Gast. / BPG	Guztira (milaka €)	% (3)		Gast. / BPG	Guztira (milaka €)	% (3)		Gast. / BPG
			Gastu arrunta	Kapital gastua			Gastu arrunta	Kapital gastua			Gastu arrunta	Kapital gastua	
GUZTIRA (1)	1.055.158.000	43.907.238	91,9	7,5	4,16	31.825.981	95,9	4,1	3,02	9.206.010	79,1	18,2	0,87
Hezkuntza Administraz. Guztira		**40.285.326**	**92,6**	**6,8**	**3,82**	**29.553.124**	**96,4**	**3,6**	**2,80**	**9.190.606**	**79,1**	**18,2**	**0,87**
HZM		1.959.647	98,8	1,0		612.437	98,5	1,5		240.067	93,7	4,2	
HZM, autonomia erkideg. transf. egin ondoren		1.829.601	98,7	1,0		482.391	98,1	1,9		240.067	93,7	4,2	
Andaluzia	141.618.340	7.473.802	90,1	9,2	5,28	5.596.270	94,2	5,8	3,95	1.727.870	75,9	21,2	1,22
Aragoi	33.006.043	1.055.147	93,1	6,4	3,20	785.080	97,8	2,2	2,38	265.863	79,2	18,9	0,81
Asturias	21.770.433	788.294	93,8	5,5	3,62	593.364	98,0	1,8	2,73	192.569	80,7	16,9	0,88
EAE	64.262.023	2.604.013	93,6	6,3	4,05	2.034.131	96,4	3,6	3,17	479.539	80,7	18,9	0,75
Errioxa	7.758.416	246.687	95,2	4,4	3,18	203.251	96,5	3,5	2,62	41.031	88,8	9,0	0,53
Extremadura	17.016.726	924.781	95,2	4,7	5,43	777.066	97,7	2,3	4,57	142.520	81,8	17,5	0,84
Galizia	54.716.531	2.246.600	91,8	7,6	4,11	1.698.839	97,4	2,5	3,10	525.372	77,0	20,7	0,96
Gaztela eta Leon	54.146.907	2.056.252	94,4	5,0	3,80	1.537.004	97,9	2,0	2,84	498.533	83,3	14,5	0,92
Gaztela-Mantxa	38.154.731	1.595.714	96,1	3,5	4,18	1.406.620	96,6	3,4	3,69	189.094	92,7	4,2	0,50
Balear uharteak	26.166.087	758.066	93,1	6,4	2,90	671.638	95,3	4,2	2,57	86.029	76,3	23,2	0,33
Kanariar uh.	40.572.152	1.494.550	95,2	4,7	3,68	1.194.746	97,1	2,9	2,94	281.846	86,9	12,6	0,69
Kantabria	12.365.780	528.361	88,7	11,3	4,27	412.737	93,8	6,2	3,34	114.873	70,3	29,4	0,93
Katalunia	198.272.101	5.923.847	93,3	6,2	2,99	4.477.529	96,9	3,1	2,26	1.433.383	82,0	16,1	0,72
Madril	198.652.445	4.768.489	91,5	8,1	2,40	3.151.246	97,0	2,9	1,59	1.548.766	79,7	18,9	0,78
Murtzia	26.994.938	1.302.848	93,8	5,9	4,83	1.049.249	97,1	2,9	3,89	247.998	79,3	19,0	0,92
Nafarroa	17.785.497	571.796	95,5	4,4	3,21	490.762	98,0	2,0	2,76	77.556	79,8	20,2	0,44
Valentzia	98.102.868	4.116.479	89,4	8,2	4,20	2.991.203	96,3	3,7	3,05	1.097.697	70,2	20,9	1,12
Hezkuntzaz kanpoko administr. guztira (2)		3.812.946	85,5	14,5		2.661.098	90,2	9,7		15.404	99,5	0,5	
Doitze partidak		-191.033				-388.240							

(1) Guztizko kopurutik Administrazioak ez banatutakoa eta doitzeko partidak kenduta ateratako banaketa (2) Beste Ministerio, Sail eta Tokiko Administrazioak kontuan hartu dira. (3) Batura 100ekoa ez bada, beste partida batzuk ere izan daitezke (finantza-aktiboak eta -pasiboak).
Iturria: HZKM (Hezkuntzaren Estatistikak Espainian. 2015eko edizioa eta INE)

Beste alde batetik, gastu publikoa ikasleko (ikastetxe publikoak eta itundutakoak) unibertsitatez kanpoko hezkuntzan, Lanbide Prestakuntza kanpoan utzita, 2012. urtean, 6.572 eurokoa izan zen EAEn.

Hortaz, gure erkidegoa izan zen gehien gastatu zuena ikasleko. Estatuko batez bestekoa 4.729 eurokoa izan zen. EAEtik hurbil, Nafarroa (5.799 eurokoa), Asturias (5.647) eta Galizia (5.620) egon ziren.

Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzari dagokionez, gastu publikoa ikastetxe publikoko ikasle bakoitzeko (Lanbide Prestakuntza kanpoan utzita), 2012. urtean, 9.143 eurokoa izan zen EAEn.

Hala, gure erkidegoa berriro ere izan zen urte horretan ikasle bakoitzeko gehien gastatu zuena. Estatuko batez bestekoa 5.431 eurokoa izan zen.

Bilakaerari dagokionez, gastu horiek murriztu egin ziren 2010 eta 2012 bitartean, bai Estatuan, bai EAEn.

Beste alde batetik, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren gastua, 2013. urtean, 2.697,7 milioi eurokoa izan zen[2]. Kopuru hori % 2,8 handiagoa izan zen aurreko ekitaldiaren aldean. Eusko Jaurlaritzaren guztizko gastuaren aldean, kopuru horren heinaren ehunekoa % 28,2koa izan zen, hau da, aurreko urtean baino 2,6 puntu gehiago. Gastu hori % 4,1ekoa izan zen BPGren gainean, 2012. urtean izandako ehunekoaren antzekoa.

III.1.26. KOADROA. GASTU PUBLIKOA IKASLEKO UNIBERTSITATEZ KANPOKO HEZKUNTZAN (1) AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA

	Gastu publikoa ikasle publiko eta itundutako bakoitzeko (eurotan)			Gastu publikoa ikasle publiko bakoitzeko (eurotan)		
	2010	2011	2012	2010	2011	2012
GUZTIRA	5.515	5.210	4.729	6.470	6.062	5.431
Andaluzia	4.763	4.585	4.307	5.351	5.154	4.851
Aragoi	5.490	5.142	4.778	6.513	6.037	5.557
Asturias	6.647	6.092	5.647	7.996	7.242	6.622
Balear uharteak	6.068	5.637	4.909	7.372	6.751	5.780
EAE	7.359	7.115	6.572	10.592	10.140	9.143
Errioxa	5.739	5.232	4.876	7.024	6.356	5.789
Extremadura	5.771	5.627	5.140	6.529	6.339	5.747
Galizia	6.499	6.078	5.620	7.670	7.125	6.527
Gaztela eta Leon	5.986	5.660	5.366	7.412	6.836	6.302
Gaztela-Mantxa	5.902	6.000	4.663	6.427	6.539	5.008
Kanariar uharteak	5.167	4.748	4.533	5.816	5.319	5.005
Kantabria	6.292	5.975	5.506	7.573	7.140	6.453
Katalunia	5.409	5.074	4.515	6.481	6.008	5.220
Madril	4.630	4.299	4.015	5.573	5.053	4.671
Murtzia	5.417	5.103	4.643	6.183	5.772	5.195
Nafarroa	7.131	6.663	5.799	9.058	8.358	7.108
Valentziako Erkidegoa	5.609	5.101	4.507	6.438	5.785	5.048

(1) Gastu publikoa ikasleko hezkuntza sistemako unibertsitatez kanpoko irakaskuntzetan (beraz, lanbide-prestakuntza kanpoan geratzen da). Arduraldi osoko baliokidetzan adierazita, nazioarteko estatistikan erabiltzen den metodologiari jarraiki.
Iturria: Hezkuntzaren Estatistikak Espainian. 2015eko edizioa.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren gastuaren ikasleko ratioa (ikasle guztiak kontuan hartuta, hau da, araubide orokorrekoak nahiz berezikoak –Arte Plastikoak eta Diseinua, Hizkuntzak, Musika, Dantza, Kirola eta Goi Mailako Diseinu Ikasketak–) hazi egin zen 2012 eta 2013 urteetan, eta 5.571 eurotik 5.624 eurora igaro zen.

Beste alde batetik, 2014ko aurrekontuetan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarentzako partida 2.765 milioi eurokoa izan zen. Kopuru hori aurreko urtean likidatutako gastua baino % 2,5 handiagoa izan zen. Eusko Jaurlaritzaren gastuen aurrekontuan, kopuru horren partaidetzaren ehunekoa % 27,1ekoa izan zen. Gastua % 4,1ekoa izan zen EAEko BPGren gainean eta aurreko urtekoaren antzekoa izan zen.

III.1.27. KOAROA. EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILAREN LIKIDATUTAKO/AURREKONTUKO GASTUAREN BILAKAERA

Urteak	Milaka euro	Gobernuaren guztizkoa (milaka euro)	EJk likidatutako guztizko gastuaren gaineko %	BPG milaka €	BPGren gaineko %	Oinarria 2007=100	Ikasleak guztira (1)	Gastua ikasleko eurotan
2007	2.403.160	8.584.886	28,0	67.892.533	3,54	100	438.745	5.477
2008	2.589.172	9.317.300	27,8	69.648.307	3,72	108	438.671	5.902
2009	2.824.094	10.304.507	27,4	66.187.188	4,27	118	444.981	6.347
2010	2.783.639	10.327.556	27,0	67.595.563	4,12	116	458.854	6.067
2011	2.715.639	10.173.197	26,7	68.041.740	3,99	113	470.355	5.774
2012	2.625.112	10.246.438	25,6	66.775.970	3,93	109	471.212	5.571
2013	2.697.648	9.579.465	28,2	66.081.063	4,08	112	479684	5.624
2014	2.765.248	10.215.506	27,1	66.943.073	4,13	115	n.d.	n.d-

(1) Guztizko ikasleen kopuruak aintzat hartzen ditu araubide orokorreko ikasleak eta araubide bereziko ikasleak. Araubide orokorreko ikasleen barruan, unibertsitatez kanpoko ikasleak –eta horien barruan, Hezkuntza Bereziko ikasleak eta Helduen Hezkuntza Iraunkorrekoak– eta unibertsitateko ikasleak daude. Araubide Bereziko ikasleen barruan, Arte Plastikoak, Hizkuntzak, Musika, Dantza, Kirola, eta Goi Mailako Diseinua ikasten duten ikasleak daude.
Iturriak: EGABek eginda, EUSTATen datuak, EAEko Kontu Orokorretan eta azken urteko aurrekontuetan jasotako datuak erabilita.

[2] *Bigarren partidarik garrantzitsuena, Osasunaren partidaren ondotik.*

1.2.1.3. Hezkuntza-emaitzak

Ikasleen adinaren egokitasuna

Ikasleen adinaren egokitasuna hezkuntza-sistemaren emaitzen neurketa garrantzitsua da. Neurketa horrek erakusten digu zer ikasle-tasak egiten duen aurrera modu egokian derrigorrezko eskolaldiaren barruan, hau da, zenbatek ikasten duen ikasleari dagokion mailan.

Estatistikaren ikuspegitik, adinari doakion mailan matrikulatuta dagoen ikasleriaren ehunekoa da.

Datuek adierazten dutenez, arreta berezia jarri behar da lehen mailetan; izan ere, eskolako atzeraldiak eta, horren ondorioz, egokitasun eza, urteetan zehar metatzen eta areagotzen dira.

III.1.28. KOADROA. MAILA TEORIKO EGOKIAK	
6 urte	Lehen Hezkuntzako lehen maila
7 urte	Lehen Hezkuntzako bigarren maila
8 urte	Lehen Hezkuntzako hirugarren maila
9 urte	Lehen Hezkuntzako laugarren maila
10 urte	Lehen Hezkuntzako bosgarren maila
11 urte	Lehen Hezkuntzako seigarren maila
12 urte	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen maila
13 urte	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren maila
14 urte	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren maila
15 urte	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren maila
16 urte	Batxilergoko 1. maila eta Erdi Mailako LHko 1. maila
17 urte	Batxilergoko 2. maila eta Erdi Mailako LHko 2. maila

Iturria: EUSTAT

Hezkuntzaren Estatistikak Espainian. 2015eko edizioa izeneko txostenean jasotako datuen arabera, 2012-13 ikasturtean, Estatuko 8 urteko ikasle guztien % 93,6 Lehen Hezkuntzako hirugarren mailan matrikulatuta zeuden, hau da, adin horri dagokion maila teorikoan; 10 urteko ikasleei dagokienez, berriz, Lehen Hezkuntzako bosgarren mailan matrikulatuta zeuden ikasleen tasa ehuneko 4,2 puntu txikiagoa zen (% 89,4). Bestalde, DBHko ikasleei gagozkiela, egokitasun-tasak txikiago bilakatzen dira adina handitu ahala. Horrela, 12 urteko ikasleen % 84,4k hezkuntza-aldi horretako lehen mailan ikasten zuten; 14 urteko ikasleen % 70,6k, aldiz, hirugarren mailan; eta azkenik, 15 urteko pertsonen % 62,5ek laugarren mailan ikasten zuten.

Aztertutako adin guztietan, Kataluniak zeukan egokitasun-tasarik handiena eta Euskal Autonomia Erkidegoa hobetuz joan da adin teorikoak gora egin ahala, ondoko taulako datuek adierazten digutenez.

III.1.29. KOADROA. EAEren POSTUA EGOKITASUN ARLOAN ADIN ESANGURATSUETAN									
8 urte		**10 urte**		**12 urte**		**14 urte**		**15 urte**	
Katalunia	96,2	Katalunia	94	Katalunia	91,2	Katalunia	79,5	Katalunia	73,7
Kantabria	95,4	Kantabria	92,2	Kantabria	87,9	**EAE**	**77,6**	**EAE**	**72,8**
Errioxa	94,9	Errioxa	91,5	**EAE**	**87,2**				
Asturias	94,6	**EAE**	**90,9**						
Galizia	94,6								
EAE	**94,5**								

Generoaren ikuspegitik aztertuta, emakumeek izan zituzten gizonek baino egokitasun-tasa handiagoak; gainera, aldea handiagoa da adinak gora egin ahala. EAEri dagokionez, aldeak ondokoak izan ziren: ehuneko 1,6 puntu 8 urteko emakumeen alde; ehuneko 3,4 puntu 10 urteko emakumeen alde; ehuneko 3,9 puntu 12 urteko emakumeen alde; ehuneko 7,6 puntu 14 urteko emakumeen alde; eta ehuneko 9,4 puntu 15 urteko emakumeen alde.

III.1.30. KOADROA. EGOKITASUN TASAK 8, 10, 12, 14 ETA 15 URTEKO ADINEAN. 2012-13 IKASTURTEAN

	8 urte			10 urte			12 urte			14 urte			15 urte		
	E	G	Guzt	E	G		E	G	Guzt	E	G		E	G	Guzt
GUZTIRA	**94,5**	**92,7**	**93,6**	**90,9**	**87,9**	**GUZT**	**94,5**	**92,7**	**93,6**	**90,9**	**87,9**	**GUZT**	**94,5**	**92,7**	**93,6**
Andaluzia	94,7	92,6	93,6	90,7	87,3	89,0	86,5	80,9	83,6	71,2	61,8	66,4	63,1	53,1	58,0
Aragoi	92,3	90,2	91,3	88,3	84,6	86,4	83,5	78,6	80,9	70,1	64,0	66,9	65,0	55,7	60,3
Asturias	95,4	93,9	94,6	91,6	90,2	90,9	87,8	84,5	86,1	78,6	71,6	75,0	70,5	63,3	66,7
Balear uharteak	92,1	90,4	91,1	86,9	83,8	85,2	82,5	74,2	78,2	69,8	60,1	64,8	61,6	51,3	56,3
EAE	**95,3**	**93,7**	**94,5**	**92,6**	**89,2**	**90,9**	**89,2**	**85,3**	**87,2**	**81,6**	**74,0**	**77,6**	**77,6**	**68,2**	**72,8**
Errioxa	95,0	94,9	94,9	92,1	90,9	91,5	87,4	86,7	87,0	72,9	67,4	70,1	64,6	53,9	59,1
Extremadura	95,0	93,3	94,2	92,2	87,8	89,9	87,9	80,7	84,2	73,3	63,1	68,0	63,6	52,5	57,8
Galizia	95,7	93,6	94,6	91,6	88,0	89,7	87,8	82,7	85,2	76,1	67,0	71,4	69,0	57,2	63,0
Gaztela eta Leon	94,3	92,4	93,3	90,1	87,1	88,5	85,8	80,4	83,0	75,2	66,9	70,9	66,5	57,2	61,7
Gaztela-Mantxa	92,9	90,8	91,8	88,8	85,2	87,0	83,3	77,7	80,4	70,8	61,1	65,8	61,6	52,1	56,8
Kanariar uharteak	94,7	91,8	93,2	89,5	85,0	87,2	84,2	75,9	80,0	71,0	60,1	65,4	63,6	51,2	57,4
Kantabria	96,2	94,7	95,4	93,6	90,8	92,2	89,7	86,2	87,9	74,2	69,7	71,8	68,3	58,8	63,3
Katalunia	96,8	95,5	96,2	94,9	93,1	94,0	92,4	89,9	91,2	83,2	76,0	79,5	78,0	69,6	73,7
Madril	94,2	92,7	93,4	90,5	87,9	89,2	86,0	82,3	84,1	75,4	69,1	72,2	67,1	59,4	63,1
Murtzia	93,5	90,7	92,0	88,8	85,4	87,0	82,8	75,8	79,1	69,4	58,7	63,9	60,0	51,4	55,6
Nafarroa	95,3	93,8	94,5	90,6	88,7	89,6	86,6	82,5	84,5	78,7	71,1	74,8	74,6	63,6	68,9
Valentziako Erkidegoa	91,4	90,3	90,8	88,2	85,3	86,7	84,9	80,1	82,5	73,2	64,7	68,9	64,2	54,2	59,1
Ceuta	92,3	91,2	91,7	87,1	76,9	81,9	80,8	71,9	76,4	57,8	47,6	52,4	44,5	34,7	39,4
Melilla	95,7	91,8	93,8	90,5	83,4	86,8	88,1	81,8	84,7	62,8	53,4	58,0	50,4	43,6	46,9

Iturria: Hezkuntzaren Estatistikak Espainian. 2015eko edizioa.

Eskola-uzte goiztiarra (EUG)

Adierazpen hau erabiltzen da hezkuntzari eta heziketari uzten dioten pertsonen kopuruaren berri emateko, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa egin ostean edo maila horretara heldu gabe ere, baldin eta gerora hezkuntzarik edo bestelako prestakuntzarik jasotzen ez badute.

EUROSTAT erakundeak adierazle hori definitzen du gehienez ere oinarrizko bigarren hezkuntza (CINE 2-ISCED 0, 1, 2 edo 3c) amaitu duten 18 eta 24 urte arteko biztanleen kopurua, baldin eta ikasten jarraitzen ez badu edo bestelako prestakuntzarik jaso ez badu inkesta egin aurreko lau asteetan[3].

EBren helburu behinena da kopuru hori % 10etik beherakoa izatea 2020. urtean.

EUROSTAT erakundearen eta *Hezkuntzaren Estatistikak Espainian. 2015eko edizioa* izeneko txostenean jasotako datuen arabera, EAEko eskola-uzte goiztiarraren tasa beheratuz joan da eta, 2013. urtean, % 9,9koa izan zen. Horrek esan nahi du EBren helburua bete dela; Estatuan, berriz, % 23,6ko tasa izan zen, hots, Europako helburuaren eta EB28 osatzen duten herrialdeetako batez besteko ratioaren (% 12) oso gainetik.

[3] *Gaur egun, EUROSTAT darabilen metodologia baliatzen da adierazle hori kalkulatzeko eta datuen bilketa Biztanleria Aktiboaren Inkesta (BAI) deritzonaren bidez egiten da Estatuan. Datu-bilketak ondokoak aintzat hartzen ditu: lau hiruhilekoen batez bestekoa eta, inkesta egin baino lau aste lehenago, ikasketa arauturik edo ez-arauturik egiten ez duen biztanleriaren ehunekoa.*

Datuek erakusten digutenez, Europako helburua bete da gure erkidegoan neskek izandako bilakaera onari esker; izan ere, horien eskola-uztearen tasa % 7,3koa izan zen 2013. urtean; mutilek, berriz, ehuneko 2,4 puntutan gainditu zuten % 10eko helburua.

III.1.31. KOADROA. ESKOLA-UZTE GOIZTIARRA EUROPAN

	GUZTIRA			GIZONAK			EMAKUMEAK		
	2003	2008	2013	2003	2008	2013	2003	2008	2013
EB28	16,4	14,7	12,0	18,5	16,7	13,6	14,3	12,7	10,2
Alemania	12,8	11,8	9,9	12,9	12,4	10,4	12,8	11,2	9,3
Austria	9,0	10,1	7,3	8,3	10,4	7,7	9,8	9,8	7,0
Belgika	14,3	12,0	11,0	16,9	13,4	13,2	11,6	10,6	8,7
Bulgaria	21,9	14,8	12,5	22,5	14,1	12,3	21,3	15,5	12,7
Danimarka	10,4	12,5	8,0	10,7	15,0	9,9	10,0	10,0	6,2
EAE	15,9	14,8	9,9	20,5	18,1	12,4	11,0	11,3	7,3
Erresuma Batua	12,1	17,0	12,4	12,6	18,3	13,7	11,6	15,6	11,2
Errumania	22,5	15,9	17,3	23,6	15,9	18,6	21,5	16,0	16,0
Eslovakiar Errep.	5,3	6,0	6,4	5,7	7,1	6,7	4,8	4,9	6,1
Eslovenia	4,6	5,1	3,9	6,6	7,2	5,0	2,4	2,6	2,6
Espainia	31,7	31,7	23,6	38,4	38,0	27,2	24,8	25,1	19,8
Estonia	13,7	14,0	9,7	18,3	19,8	13,6	8,8	8,3	5,8
Finlandia	10,1	9,8	9,3	12,0	12,1	10,4	8,2	7,7	8,3
Frantzia	12,4	11,5	9,7	14,0	13,5	10,7	10,8	9,5	8,8
Grezia	16,0	14,8	10,1	20,0	18,5	12,7	11,9	10,9	7,6
Herbehereak	14,3	11,4	9,2	15,6	14,0	10,9	12,9	8,8	7,4
Hungaria	12,0	11,7	11,8	12,7	12,5	12,5	11,3	10,9	11,1
Irlanda	13,1	11,3	8,4	16,2	14,5	9,8	9,8	8,0	6,9
Italia	23,0	19,7	17,0	26,5	22,6	20,2	19,6	16,7	13,7
Kroazia	17,3	13,7	9,1	24,1	19,0	14,8	11,8	9,5	4,2
Letonia	18,0	15,5	9,8	22,6	20,0	13,6	13,4	10,8	5,8
Lituania	11,4	7,5	6,3	13,6	10,2	7,8	9,1	4,7	4,7
Luxenburgo	12,3	13,4	6,1	14,3	15,8	8,4	10,2	10,9	3,7
Malta	49,9	27,2	20,8	51,7	31,1	23,2	48,0	23,2	18,4
Polonia	6,0	5,0	5,6	7,6	6,1	7,9	4,4	3,9	3,2
Portugal	41,2	35,4	19,2	48,7	41,9	23,6	33,6	28,6	14,5
Suedia	9,2	7,9	7,1	10,2	9,0	7,9	8,1	6,8	6,2
Txekiar Errep.	6,5	5,6	5,4	5,9	5,8	5,4	7,0	5,4	5,5
Zipre	7,9	3,7	3,7	9,2	4,1	4,7	6,4	3,3	2,6

Kontzeptu eta definizio harmonizatuak ezarri eta/edo urteko batez bestekoak darabiltzaten kalkulu berriak erabili direnez gero, datuak ez datoz bat 2009ko azaroaren aurretik argitaratu direnekin.
Iturria: EUROSTAT, Hezkuntzaren Estatistikak Espainian. 2015eko edizioa

Goi-mailako graduazio-tasa Zientzian eta Teknologian, 20 eta 29 urteko 1.000 biztanleko

Adierazle honi dagokionez, EBk ez du erreferentziazko helbururik ezarri 2020an betetzeko. Dena dela, Estatuko Adierazleen Sistemak eutsi dio emaitzarik argienetakoa delako herrialdeko zientziaren eta ekoizpenaren garapena neurtzeko.

Estatistikaren ikuspegitik, Zientzia, Matematika eta Teknologian graduatutako pertsonen tasa gordina dugu aipatutako irakaskuntzak –Goi Mailako Lanbide Heziketa eta Unibertsitate Ikasketak (CINE 5A, 5B eta 6)– amaitzen dituzten ikasleen eta 20 eta 29 urte arteko biztanle guztien arteko proportzioa, bider mila eginda.

EUROSTAT erakundearen datuen arabera, esan daiteke Espainiako ratioa hobetuz joan dela baina, 2012. urtean, adin horretako biztanleen milako 15,6koa zela tasa, hau da, EB28ko tasaren (milako 17,1) azpitik, eta herrialde batzuetako tasetatik nahikoa urrun: Lituania (milako 23), Irlanda (milako 22,5), Finlandia (milako 21,7), Erresuma Batua (milako 19,8), Frantzia (milako 20,2 2008an) eta Portugal (milako 19,4).

Beste alde batetik, gure erkidegoari dagokionez, Goi Mailako graduazioa Zientzian eta Teknologian, 2011-12 ikasturtean, milako 24koa zen. Unibertsitate-ikasketak eta unibertsitatez kanpoko ikasketak bereizita, ikus dezakegu unibertsitatez kanpoko irakaskuntzetan (Goi Mailako Heziketa Zikloak) graduatutako pertsonen kopurua milako 6,9koa zela, eta bigarrenen kopurua milako 17,1ekoa zela. Estatuko batez bestekoak, berriz, ondokoak izan ziren: milako 2,8koa eta milako 13koa.

Sexuaren araberako graduazio-datuak aztertuz gero, antzematen da alde handiak daudela heziketa-zikloetan eta unibertsitate-irakaskuntzetan , gizonezkoen alde.

III.1.32. KOADROA. ZIENTZIAN ETA TEKNOLOGIAN GRADUATUAK

	GUZTIRA			GIZONAK			EMAKUMEAK		
	2003	2008	2012	2003	2008	2012	2003	2008	2012
EB28	12,0	14,5	17,1	16,3	19,4	22,9	7,7	9,6	11,2
Alemania	8,4	12,5	16,2	12,7	17,0	23,1	4,0	7,9	9,0
Austria	8,2	11,8	16,4	12,8	17,7	24,2	3,5	5,8	8,4
Belgika	11,0	11,6	13,0	16,4	17,1	19,5	5,6	6,0	6,3
Bulgaria	8,3	9,6	13,3	9,4	11,7	16,1	7,2	7,4	10,4
Danimarka	12,5	15,5	18,8	17,3	19,5	23,3	7,6	11,4	14,2
Erres. Batua	20,8	19,1	19,8	27,3	26,8	27,3	14,3	11,4	12,1
Errumania	9,8	17,9	18,7	11,8	20,1	21,6	7,8	15,6	15,8
Eslovakiar Er.	8,3	15,2	17,9	10,7	18,8	22,6	5,8	11,5	13,1
Eslovenia	8,7	10,7	19,3	12,5	15,3	26,1	4,6	5,9	11,8
Espainia	12,4	11,5	15,6	16,8	15,6	21,3	7,7	7,1	9,8
Estonia	8,7	12,0	13,2	9,7	13,6	16,3	7,6	10,4	9,8
Finlandia	17,4	24,3	21,7	24,0	31,8	30,5	10,4	16,5	12,4
Frantzia	22,2	20,3	..	30,9	29,3	..	13,4	11,4	..
Grezia	..	10,7	13,9	..	12,1	16,8	..	9,3	10,9
Herbehereak	7,3	8,8	10,7	11,7	14,2	16,3	2,7	3,4	5,0
Hungaria	4,8	6,1	9,5	6,9	8,8	13,4	2,6	3,2	5,4
Irlanda	24,3	18,8	22,5	31,7	26,0	33,0	16,8	11,4	12,6
Italia	9,1	11,7	13,2	11,6	14,1	15,4	6,6	9,2	10,8
Kroazia	3,7	4,2	9,0	4,3	5,3	9,3	3,0	3,2	8,8
Letonia	8,8	9,4	13,5	10,8	12,4	18,5	6,7	6,2	8,3
Lituania	16,8	20,2	23,0	21,5	26,6	32,8	12,0	13,6	12,8
Luxenburgo	..	..	2,8	..	..	3,2	..	..	2,3
Malta	3,6	6,1	11,1	4,8	8,5	16,1	2,3	3,6	5,7
Polonia	9,0	14,1	17,9	11,8	16,6	21,1	6,1	11,5	14,5
Portugal	8,2	17,0	19,4	9,6	21,8	23,8	6,9	12,2	14,9
Suedia	13,9	13,2	15,9	17,9	17,2	21,1	9,7	9,0	10,6
Txekiar Errep.	6,4	15,2	16,7	8,9	20,7	22,0	3,8	9,4	11,1
Zipre	6,0	10,7	17,4	6,8	14,0	22,4	3,7	7,3	12,3

Iturria: EUROSTAT, Hezkuntzaren Kopuruak Espainian. 2015eko edizioa

III.1.33. KOADROA. ZIENTZIAN ETA TEKNOLOGIAN GRADUATUTAKOAK. ***2011-12 ikasturtea***
(Zientzian eta Teknologian graduatutakoen kopurua 1.000 biztanleko 20 eta 29 urteko biztanleen artean)

	Goi Mailako Irakaskuntza			Goi Mailako Heziketa Zikloak			Unibertsitate Irakaskuntzak		
	Guztira	Gizonak	Emak.	Guztira	Gizonak	Emak.	Guztira	Gizonak	Emak.
GUZTIRA	**15,8**	**20,9**	**10,5**	**2,8**	**4,7**	**0,9**	**13,0**	**16,2**	**9,6**
Andaluzia	11,9	15,7	8,1	2,0	3,4	0,6	9,9	12,3	7,5
Aragoi	13,6	18,1	8,9	3,6	5,9	1,2	10,0	12,2	7,7
Asturias	13,1	18,0	8,0	3,5	5,8	1,1	9,6	12,2	6,9
Balear uharteak	2,3	3,4	1,3	0,7	1,2	0,2	1,6	2,2	1,1
EAE	24,0	31,9	15,7	6,9	11,3	2,3	17,1	20,6	13,4
Errioxa	14,0	19,1	8,7	4,1	6,9	1,1	9,9	12,2	7,6
Extremadura	12,0	15,7	8,2	2,4	4,0	0,8	9,6	11,7	7,4
Galizia	16,7	21,1	12,1	3,5	5,5	1,5	13,2	15,6	10,6
Gaztela eta Leon	24,6	32,5	16,2	3,7	5,9	1,4	20,9	26,6	14,8
Gaztela-Mantxa	6,9	10,1	3,6	2,5	4,2	0,8	4,4	5,9	2,8
Kanariar uharteak	6,2	8,5	3,8	1,9	3,2	0,6	4,3	5,3	3,2
Kantabria	17,6	23,9	11,2	3,4	5,1	1,7	14,2	18,8	9,5
Katalunia	17,1	22,4	11,8	2,9	4,7	1,1	14,2	17,7	10,7
Madril	24,4	32,5	16,5	2,2	3,7	0,8	22,2	28,8	15,7
Murtzia	12,9	17,7	7,7	2,2	3,6	0,6	10,7	14,1	7,1
Nafarroa	21,5	28,2	14,5	4,4	7,8	0,9	17,1	20,4	13,6
Valentziako Erkidegoa	15,9	21,5	10,1	3,5	6,0	0,9	12,4	15,5	9,2
Ceuta	1,2	2,4	0,2	1,0	1,9	0,2	0,2	0,5	0,0
Melilla	0,3	0,3	0,2	0,0	0,0	0,0	0,3	0,3	0,2

Iturria: EUROSTAT, Hezkuntzaren Estatistikak Espainian. 2015eko edizioa

Gazteen prestakuntza-maila

Estatistikaren ikuspegitik, gutxienez Bigarren Hezkuntzako 2. zikloa (CINE 3) amaitu duten 20 eta 24 urte arteko biztanleen ehunekoa da.

EUROSTAT erakundearen datuen arabera, EB28ko ehunekoak goranzko joera izan du eta, 2013. urtean, % 81ekoa zen, hau da, Espainiako estatuko batez bestekoa (% 63,8) baino handiagoa eta EAEko ratioaren antzekoa (% 83,2koa). Hain zuzen ere, EUROSTAT erakundearen datuen arabera, Espainiako ratioa hobetu den arren, oraindik ere txikiena da estatu kide guztietan.

Generoaren ikuspegitik, esan behar da badirela aldeak emakumeen eta gizonen artean. EAEn, emakumeen ratioa gizonena baino 4,3 puntu handiagoa izan zen.

Estatuan, aldiz, emakumeen ratioa gizonena baino 11 puntu handiagoa izan zen: % 69,4 emakumeena eta % 58,4 gizonena, baina ratio biak txikienak ziren estatu guztietan. Bestela esanda, Espainiako ratioa txikiena izan zen estatu kide guztietan eta hori gertatu zen generoa gorabehera.

III.1.34. KOADROA. BIZTANLE GAZTEEN PRESTAKUNTZA MAILA (1)

	GUZTIRA			GIZONAK			EMAKUMEAK		
	2003	2008	2013	2003	2008	2013	2003	2008	2013
EB28	77,2	78,6	81,0	74,7	75,8	78,4	79,7	81,5	83,8
Alemania	72,5	74,1	76,8	71,6	71,9	75,1	73,4	76,4	78,6
Austria	84,2	84,5	87,4	85,1	84,2	87,3	83,4	84,8	87,4
Belgika	81,2	82,2	83,1	77,9	80,5	80,0	84,6	83,9	86,3
Bulgaria	76,3	83,7	86,0	75,4	84,0	85,7	77,3	83,4	86,3
Danimarka	76,2	68,9	71,8	73,8	61,3	66,1	78,5	76,7	77,7
Erres. Batua	78,6	78,2	82,9	78,4	76,4	80,9	78,9	80,0	84,8
Errumania	75,0	78,3	79,7	74,3	77,9	78,5	75,7	78,6	81,0
Eslovakiar Er.	94,1	92,3	91,2	93,7	91,0	90,5	94,5	93,6	92,0
Eslovenia	90,8	90,2	91,5	87,7	87,4	89,1	94,0	93,6	94,4
Espainia	62,2	60,0	63,8	55,5	52,7	58,4	69,2	67,6	69,4
Estonia	81,5	82,2	84,2	77,9	76,0	79,7	85,1	88,3	88,8
Finlandia	85,3	86,2	85,9	83,0	84,6	84,7	87,6	87,6	87,1
Frantzia	82,8	83,8	86,4	81,2	81,3	84,7	84,3	86,3	88,1
Grezia	81,7	82,1	86,5	76,6	78,0	83,4	86,8	86,6	89,8
Herbehereak	75,0	76,2	78,2	72,0	71,9	74,4	78,0	80,6	82,0
Hungaria	84,7	83,6	84,3	83,4	81,7	82,9	86,1	85,5	85,8
Irlanda	85,1	87,7	89,4	81,6	84,1	87,9	88,5	91,2	90,9
Italia	71,0	76,5	77,9	66,8	73,5	73,6	75,1	79,7	82,3
Kroazia	79,5	85,1	89,5	71,3	80,1	83,4	87,0	89,5	95,1
Letonia	75,4	80,0	85,7	70,1	74,3	80,9	80,9	86,0	90,7
Lituania	84,2	89,1	90,0	80,6	85,9	88,3	87,9	92,3	91,7
Luxenburgo	72,7	72,8	76,9	69,7	68,3	72,6	75,6	77,4	81,3
Malta	45,1	64,6	76,1	41,3	61,1	72,6	48,8	68,4	79,9
Polonia	90,3	91,3	89,7	87,9	89,3	86,0	92,8	93,3	93,6
Portugal	47,9	54,3	69,9	40,4	47,1	63,6	55,5	61,9	76,5
Suedia	85,8	86,7	86,2	84,3	85,0	84,6	87,2	88,4	87,9
Txekiar Errep.	92,1	91,6	90,9	92,8	91,0	90,4	91,5	92,2	91,4
Zipre	91,0	95,4	95,0	89,5	94,6	93,7	92,6	96,3	96,5
EAE	78,2	80,4	83,2	73,1	75,3	81,1	83,6	85,8	85,4

(1) Kontzeptu eta definizio harmonizatuak ezarri direnez gero, datuak ez datoz bat 2005eko azaroaren aurretik argitaratu direnekin.
Iturria: EUROSTAT, Hezkuntzaren Estatistikak Espainian. 2015eko edizioa

2. EAE-KO NATUR INGURUAREN EGOERA

2.1. AIREAREN KALITATEA[1]

Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak emandako informazioaren arabera, azken urteetan EAEko airearen kalitatea nabarmen hobetu da eta dauden azken datuen arabera kalitatea ona edo gutxienez onargarria da. Datu erantsietan, 2008an urtean kalitate ona edo onargarria zuten egunak %96,8 ziren, eta 2013an, ordea, %99,2 izan dira.

III.2.1. KOADROA. EAEko AIREAREN KALITATEAREN INDIZEA MAILEN ETA URTEEN ARABERA (urteko egunen %)

	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Ona	53,0	57,4	61,7	57,2	68,5	64,2
Onargarria	43,8	40,0	37,5	40,7	30,1	35,0
Arina	2,4	2,2	0,8	1,8	1,2	0,7
Txarra	0,8	0,4	0,1	0,4	0,2	0,1
Oso txarra	0,1	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Arriskutsua	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0

Iturria: Ingurumen eta Lurralde Politika Saila

Beste behin egin du behera 11 laginketa-estazioetan airearen kalitatea oso txarra edo txarra izan deneko egun kopuruak aurreko aldiarekin alderatuta, 8 egunetik 4 egunera, 2012 eta 2013 bitartean. Bestalde, jaitsi egin da airearen kalitatea arina deneko egun kopurua ere, 49 egunetik 29 egunera.

Urola Garaia nabarmentzen da, airearen kalitate arineko 15 egunekin, 2 egun txarrekin eta egun 1 txarrarekin; Hegoaldeko Araba, kalitate arineko 5 eguneko eta egun 1 txarrarekin, Ibaizabal-Deba Garaia, kalitate arineko 4 egunekin, Oria Garaia eta Nerbioi Behera 2 egunekin.

III.2.2. KOADROA. AIRE KALITATE TXARREKO EDO OSO TXARREKO EGUN KOPURUA GUNEEN ETA URTEEN ARABERA

	2010		2011		2012		2013	
	Arina	Txarra edo oso txarra	Arina	Txarra edo oso txarra	Arina	Txarra edo oso txarra	Arina	Txarra edo oso txarra
Hegoaldeko Araba	2	0	3	0	6	0	5	1
Arabako Lautada	0	0	2	0	0	0	0	0
Arabako Errioxa	0	0	1	0	5	0	0	0
Kostaldea	0	0	3	0	2	0	0	0
Donostialdea	0	0	1	0	0	0	0	0
Oria Garaia	3	0	10	1	3	0	3	0
Urola Garaia	24	4	36	14	21	8	15	3
Ibaizabal – Deba Garaia	1	0	7	0	4	0	4	0
Nerbioi Garaia	0	0	0	0	2	0	0	0
Enkarterriak	0	0	0	0	0	0	0	0
Nerbioi Behera	1	0	8	1	6	0	2	0
OROTARA EAE (Egunak)	**31**	**4**	**71**	**16**	**49**	**8**	**29**	**4**

Iturria: Ingurumen eta Lurralde Politikarako Saila

[1] *Airearen kalitate indizea ateratzeko, kontrol eta zaintza sare bat dago, puntako teknologiako analizagailuak eta sentsoreak dauzkana, europar zuzentarauak gaiaz markatzen dituen kutsatzaileak denbora errealean neurtzen dituena, batez ere sufre dioxidoa (SO2), nitrogeno oxidoak, ozono troposferikoa (O3), karbono monoxidoa (CO) eta esekitako partikulak.*

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak hamaika gune eta indizearen 6 maila (airearen kalitate ona, onargarria, neurritsua, txarra, oso txarra eta arriskutsua) bereizten ditu. Horrela, zonetako bakoitzak kontrol estazio zenbait dauzka, sentsore edo analizagailu automatikoekin, indizea kalkulatzeko neurtzen diren kutsatzaileak denbora errealean neurtzen dituztenak.

Airearen kalitate indizeak esleitutako balio bat izango du, eta balio hori zenbat eta handiagoa izan, gune horretako airearen kalitatea txarragoa izango da. Gainera, eguneroko indizea da.

III.2.3. KOADROA. EGUN KOPURUA ESKUALDEAREN ETA AIREAREN KALITATEAREN ARABERA, 2013

	Ona	Onargarria	Arina	Txarra	Oso txarra	Arriskutsua	Orotara	Iraunkortasun Adierazlea* (%)
Hegoaldeko Araba	193	166	5	1	0	0	365	%98,4
Arabako lautada	228	137	0	0	0	0	365	%100
Arabako Errioxa	237	126	0	0	0	0	363	%100
Kostaldea	231	134	0	0	0	0	365	%100
Donostialdea	271	94	0	0	0	0	365	%100
Oria Garaia	277	85	3	0	0	0	365	%99,2
Urola Garaia	143	204	15	2	1	0	365	%95,1
Ibaizabal – Deba Garaia	256	105	4	0	0	0	365	%98,9
Nerbioi Garaia	205	160	0	0	0	0	365	%100
Enkarterriak	278	81	0	0	0	0	359	%100
Nerbioi Behera	253	110	2	0	0	0	365	%99,5
OROTARA EAE (Egunak)	**2.572**	**1.402**	**29**	**3**	**1**	**0**	**4.007**	**%99,2**
Egunen %, airearen kalitatearen arabera	%64,2	%35,0	%0,7	%0,1	%0,0	%0,0	%100	-

** Iraunkortasun adierazlea = ("Ona" kalif. egun kop. + "Onargarria" kalif. Egun kop.)/Urteko egunen guztizko kop.*
Iturria: Ingurumen eta Lurralde Politikako Saila

2.2. KLIMA ALDAKETA: NEGUTEGI-EFEKTUKO GASEN ISURIAK (NEG)

Negutegi efektuko gasen isurien (NEG isuriak) inbentarioak emandako azken datuek erakusten dutenez, NEGen guztizko isurietan, CO2ren termino baliokideetan neurtuta, %1,8ko igoera izan da 2012an EAEn aurreko urtearen aldean.

Sektoreen ikuspegitik, guztizko isuriak murriztu egin dira energiaren sektorean aurreko urtearekiko, hain zuzen ere %1,3 gutxiago. Zentzu horretan, agerian utzi nahi dugu hazkunde ekonomikoa baliabideen erabileratik eta kutsaduratik askatzea funtsezkoa dela garapen iraunkorra lortzeko.

Industriaren sektorean, behera egin dute guztizko isuriek aurreko urtearekiko eta 1990. urtearekiko, %1,8 eta 30,2 hurrenez hurren. Horrek agerian uzten du sektorean izandako eraldaketa eta aldaketa teknologikoa.

III.2.4. NEGUTEGI EFEKTUKO GASEN EMISIOEN BILAKAERA SEKTORIALAREN INDIZEA. EAE. Unitateak: oinarrizko urtearen indizea: 1990=100 (CO2-eq(t).(1)

	1990	2009	2010	2011	2012	11-12 ald.
Guztizko isuriak epigrafeen arabera NFR(2)	100	108,2	104,5	99,3	101,1	1,8
Energiaren sektorea	100	115,4	101,6	101,9	100,5	-1,3
Industria	100	77,0	79,4	71,6	69,8	-1,8
Garraioa	100	192,6	185,7	183,1	192,4	9,3
Bizitegikoak	100	126,6	115,0	108,0	119,1	11,1
Zerbitzuak	100	244,7	225,1	225,4	249,0	23,7
Nekazaritza	100	74,3	70,3	69,1	68,4	-0,7
Hondakinak	100	107,2	96,3	93,1	95,2	2,0

(1) CO2-eq(t) = CO2 tona baliokideak
(2) NFR sailkapena da (Txostenetarako Formulario komuna) NEG isuriei buruzko nazioarteko erakundeei jakinarazteko erabiltzen da. Sailkapen horren arabera, errekuntzako isuri guztiak, edozein sektoretakoak izanik, "Energia 1. epigrafea"-an sartzen dira.
Iturria: Ingurumen eta Lurralde Politikarako Saila. Negutegi Efektuko Gasen Isurien Inbentarioa.

Garraioaren sektoreari dagokionez, guztizko isuriek %9,3 egin dute gora 2011ko urtearekiko.

Egoitzen sektorean, guztizko isurietan %11,1 igora izan da 2011rekiko eta 19,1 puntu 1990etik. Zerbitzuen sektorean, 23,7 igo da aurreko urtearekiko eta 149 puntu 1990eko datuen aldean.

2.3. UR-MASEN KALITATEA

2.3.1. Lur gaineko uren masak[2]

EAEko Uraren Euskal Sareak emandako datuen arabera, oro har, EAEko lurrazaleko ur-masen kalitatea hobetuz doa pixkanaka 2013. urtean ere, baina ingurumenaren gaineko helburuen betetze maila oraindik nahikoa ez dela esan beharra dago.

a) ***Ibaien egoera orokorra.*** Etengabeko hobekuntzarako joerari eusten zaio azterturiko aldian, hots, 2009tik 2013ra arte.

b) ***Trantsizio uren egoera (estuarioak).*** Betetze maila oraindik txikia da azterturiko aldian. Ez da hain egoera ona antzematen ibaietan. Izan ere, kontrolaturiko ezein ur-masatan ez da ebaluatu ingurumenaren gaineko helburuak bete izana.

c) ***Kostaldeko urak.*** 2009-2013ko aldian, emaitzen egonkortasuna ikusten da EAEko kostaldeko 4 ur-masetan (guztiak naturalak dira), eta oro har ingurumenaren gaineko helburuen betetze maila handia dela erakusten dute.

Helburuak betetzearen gaineko muga egoera kimikoa da; egoera ekologikoaren diagnostikoek, ordea, helburuak betetzen direla erakusten dute azterturiko aldi osoan.

Egoera kimikoa dela-eta, kontrol estazio gutxi batzuetan baino ez dira ageri kalitate arauen ez betetze mailak eta, beraz, ez dira egoera kimiko onera iristen. Hala, egoera egonkorra dela esan daiteke azterturiko azken bost urteetan.

d) ***Lakuen eta barneko hezeguneen egoera.*** Oro har, egoera egonkorra dela ematen du, eta ingurumenaren gaineko helburuen betetze maila txikia da.

e) ***Urtegien egoera.*** 2009-2013ko aldian, Uraren Euskal Agentziak ez du kontrolik egin EAEren barruan identifikaturiko 11 urtegietan. Alabaina, plangintzako bigarren ziklorako (2015-2021) plan hidrologikoen berrikuspenekin loturiko dokumentazioaren arabera, egoera orokorrari dagokionez, %73 egoera onean dago, %18 txarrean eta %9an ez dago baloraziorik.

2.3.2. Bainurako uren kalitatea[3]

Aurreko urteetan moduan, EAEko bainurako eremuen ezaugarri nagusia, 2013an, uren kalitate bikaina da.

Izan ere, 2013an azterturiko bainurako 60 eremuetatik 49k (%81,6) kalitate bikaina du,

III.2.5. KOADROA. BAINURAKO UREN KALITATEA KATEGORIEN ARABERA, EAE. 2013 (Ur-masen kopurua)

	Guztira	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba
Bikaina	49	23	19	5
Ona	7	4	3	-
Nahikoa	1	-	1	-
Eskasa	3	3	-	-
OROTARA	**60**	**32**	**23**	**5**

Iturria: Osasun Saila. Ingurumen Osasuneko Zuzendaritza

[2] *Plangintza Hidrologikoaren Araudiaren 26. artikuluaren arabera , lurrazaleko ur-masen egoera, egoera ekologikoaren eta egoera kimikoaren balio txarrenak zehaztuko du.*

Urmasen egoera ekologikoa (adierazle biologikoak, hidromerfologikoak eta fisikokimikoak) eta egoera kimikoa lortutakoan, bi egoerak erlazionatu egiten dira ur-masen guztizko egoera edo egoera globala kalkulatzeko; "ona edo hobea"edo "ona baino txarroagoa".

[3] *Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko otsailaren 15eko 2006/7/CE Zuzentarauan eta bainurako uren kalitatearen kudeaketari buruzko urriaren 11ko 1341/2007 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera ebaluatzen da bainurako uren kalitatea. Hala, bainurako uren sailkapena eskasa, nahikoa, ;onat; eta oso ona da parametro mikrobiologikoetarako loturiko datu-seriearen ebaluazioaren araberas.*

Araudian ezarritako helburuaren arabera, agintari eskudunek beharrezko neurriak aplikatuko dituzte, zertarako-eta, 2015eko bainurako denboraldiaren amaieran, bainurako ur guztien kalitatea nahikoa izateko.

zazpi eremutan kalitate ona dago, 1ek (Santiagon, Zumaian) kalitate nahikoa du eta 3k besterik ez dute kalitate eskasa (Laidatxu, San Antonio eta Toña; Bizkaian).

2.4. UR GEZAREN KONTSUMOA

2.4.1. Ur geza biltzea eta kontsumitzea

EINek egindako ur hornidurari eta tratamenduari buruzko inkestaren arabera, 2012an EAEn horniketa publikorako ur-bilketa[4] 172,6 Hm3koa izan zen. Horrek, 2011ren aldean, jaitsiera dakar, %4,5ekoa[5].

2012. urtean, 199 Hm^3 ur hornitu ziren hiriko hornidurako sare publikoetan. Horietatik 154,9 Hm^3 (%77,8) erregistraturiko ur bolumenak izan ziren (erabiltzaileen edukiontzietan neurtuak), eta gainerako ur bolumenak erregistratu gabekoak izan ziren (neurketa-estazioen bidez zenbatetsiak edo neurtu gabekoak).

154,9 Hm^3 ur horretatik, 92,5 Hm^3 (guztizkoaren %59,7) etxeetan ura hornitzeko erabiltzen da; 41,6 Hm^3 (%26,9) sektore ekonomikoetarako (industria, zerbitzuak eta abeltzaintza), eta 20,8 Hm^3 (%13,4) udal kontsumoetarako (lorategiak ureztatzea, kaleetan ura botatzea eta beste erabilera batzuk).

III.2.6. KOADROA. EAEn HORNIDURA PUBLIKORAKO KONTROLATUTAKO ETA BANATUTAKO UR BOLUMENA

	2009	2010	2011	2012	11/12 ald. %
ENPRESAREN BERAREN UR-BILKETAK (mila m3)					
OROTARA	**194.880**	**187.157**	**165.198**	**172.632**	**4,5**
Lurrazaleko urak	188.281	179.838	154.274	162.087	5,1
Lur azpiko urak	6.599	7.319	10.924	10.545	-3,5
Gatzgabetzea	0	0	0	0	
Bestelako baliabide hidrikoak	0	0	0	0	
EDATEKOA BIHURTU GABEKO GUZTIZKO UR ESKURAGARRIA (mila m3)					
Orotara (a)	194.880	187.157	165.198	189.347	-11,2
SARERA HORNITURIKO UR-BOLUMENA (mila m3)					
1. Hornidura publikoko sarea horniturikо ur bolumena	231.951	235.356	229.222	198.951	-2,6
1.1. Erregistraturiko eta banaturiko guztizko ur bolumena, erabiltzaile motaren arabera	187.875	183.420	176.180	154.880	-12,1
1.2.Erregistraturik gabeko ur bolumena	44.076	51.936	53.042	44.071	-16,9
1.2.1. Benetako galerak (b)	34.380	36.965	39.251	23.798	-39,4
1.2.2. Itxurazko galerak	9.696	14.971	13.791	20.273	47,0
Banaketa sare publikoan galdutako uraren (benetako galerak (b/a)	17,8	19,9	23,8	12,6	
UR BANAKETA ERABILTZAILE TALDE HANDIEN ARABERA (mila m3)					
Erregistraturiko eta banaturiko uraren guztizko bolumena erabiltzaile motaren arabera	187.875	183.420	176.180	154.880	-12,1
Sektore ekonomikoak	60.347	56.643	54.501	41.592	-23,7
Etxeak	97.852	95.564	91.753	92.471	0,8
Udal kontsumoak eta BESTE BATZUK	29.676	31.213	29.926	20.817	-30,4
Banaturiko uraren guztizko zenbatekoa (milaka euro)	107.541	105.398	109.847	112.465	
Hornidura zerbitzuetako inbertsioaren guztizko zenbatekoa (mila €)	7.048	9.629	2452	5.199	

Iturria: EIN. Uraren hornidurari eta tratamenduari buruzko inkesta.

4 EINek egindako ur hornidura eta tratamenduari buruzko inkestaren arabera, 2009an EAEn horniketa publikorako ur-bilketa 194,9 Hm3koa izan zen. Horrek, 2008aren aldean, jaitsiera dakar berriz ere, %12,9koa. Ur bilketa naturako ura atera edota biltzean eta erabiltzeko biltegiratzean datza. Hemen, urtegi eta lehen mailako ateria eta hodietatik gidatze zerbitzuak sartzen dira. Besteak beste, lurrazaleko eta lur azpiko ur-bilketak bereizten dira. Azkena, zundaketa edo zulatzeen bidez egiten da.

Kontinenteko lurrazaleko urak lurrazaleko korrontea duten urak edo lehorreko sakonune baten gainean atxikitakoak, hots, ur pilatuak, dira. Lurrazaleko korrontea duten uren artean ubide naturaletako urak (ibaiak eta errekak) eta ubide artifizialekoak (ureztatzeko bideratze sistemak, industria eta nabigazioa, drainatze sistemak eta erreserba artifizialak) sartzen dira).

Inkesta honen xedeetarako, ibaiertzetan gertatutako iragazteak lurrazaleko uren artean hartzen dira, eta trantsizioko urak, zingira gazikarak eta estuarioak, lurrazaleko urtzat jo beharrean, bestelako baliabide hidrikoen artean sartzen dira.

Lur azpiko urak orokorrean lur azpiko egitura, hots, akuifero batetik edo baten bidez ateratakoak dira. Akuiferoak lur azpian dauden ur biltegi iraunkor edo behin behineko guztiak dira, bai artifizialki zein berez birbetetzen direnak, erabilera jakin baterako behar beste kalitate badaukate. Atal horretan, iturburuetatik bildutako ura ere sartzen da. Kanpoan geratzen da iragazteetatik datorren lur azpiko ura, lurrazaleko uretan sartuko baita

5 Ureztaketako nekazaritzan erabilitako ura inkesta honetatik kanpo gelditzen da.

Erabiltzaile taldeak bereiziz eta aurreko urtearekin alderatuta, sektore ekonomikoetan eta udal kontsumoetan jaitsierak izan ziren kontsumoan, %23,7 eta %30,4 hurrenez hurren; etxeetan, berriz, %0,8ko igoera ageri da.

Erregistratu gabeko ura, itxurazko galeretan (neurketako akatsak, iruzurrak eta gutxi gorabeherako kontsumoak) eta benetako galeretan (ihesak, hausturak eta matxurak saneamendu sarean) bereizten dira. Azken horiek ur baliagarri guztiaren %12,6 izan ziren 2012an, 2011n izandakoa baino askoz gutxiago (%23,8).

EAEko uraren per capita kontsumoa berriz ere da Estatuko batez bestekoa baino txikiagoa, 119 litro/biztanle/egun (137 litro Estatuan), baina %1,7ko igoera ageri da 2011 eta 2012 bitartean. Estatuan, berriz, %3,5eko jaitsiera gertatu da.

Bestalde, uraren aleko balioa (ur-hornidurako tasen zenbatekoaren zatidura gehi hondakin-uren saneamenduko tasak/kanoak eta kontsumorako banaturiko ur bolumena) 1,36 euro/m^3 izan zen 2012an EAEn (%53,7 hornidura-tasei dagokie eta %43,6 saneamendukoei). Beraz, beste igoera bat dugu, kasu honetan %13koa, aurreko urteko balioaren aldean. Estatuan, batez besteko prezioa handiagoa da, 1,73 euros/m^3 hain zuzen ere.

KOADROA. III.2.7. URAREN BATEZ BESTEKO KONTSUMOTA ETA ALEKO BALIOA ETXEETAN

	BATEZ BESTEKO KONTSUMOA (litroak/biztanle/egun)					BATEZ BESTEKO PREZIOA (€/m3)					
	2009	2010	2011	2012	11/12 aldak. %	2009	2010	2011	2012		
									Guzt.	Hornidura	Saneamendua
Andaluzia	156	143	140	129	-7,9	1,25	1,36	1,46	1,62	0,97	0,65
Aragoi	148	144	132	138	4,5	1,27	1,34	1,29	1,29	0,66	0,63
Asturias	165	159	153	130	-15,0	1,10	1,07	1,17	1,29	0,67	0,62
Balearrak	127	121	124	133	7,3	2,00	2,69	2,19	2,38	1,32	1,06
U. Kanariarrak	141	149	150	149	-0,7	1,90	1,9	2,02	1,97	1,58	0,39
Kantabria	180	173	161	155	-3,7	1,18	1,14	1,3	1,36	0,83	0,53
Gaztela eta Leon	162	167	170	152	-10,6	1,07	0,98	0,9	1,02	0,50	0,52
Gaztela-Mantxa	146	152	156	146	-6,4	1,15	1,31	1,28	1,31	0,85	0,46
Katalunia	132	133	130	126	-3,1	1,76	1,83	1,84	2,29	1,14	1,15
Valentziako Erki.	174	157	152	160	5,3	1,54	1,69	1,78	1,98	1,22	0,76
Extremadura	163	160	144	140	-2,8	1,21	1,23	1,27	1,45	0,97	0,48
Galizia	139	132	133	134	0,8	0,93	1,01	1,07	1,11	0,72	0,39
Madril	145	140	141	135	-4,3	1,67	1,64	1,69	1,90	1,22	0,68
Murtzia	166	158	152	143	-5,9	1,84	2,17	2,29	2,50	1,73	0,77
Nafarroa	135	128	135	129	-4,4	1,23	1,36	1,25	1,38	0,70	0,68
EAE	**126**	**122**	**117**	**119**	**1,7**	**1,08**	**1,14**	**1,20**	**1,36**	**0,73**	**0,63**
Errioxa	131	122	123	134	8,9	0,93	0,91	0,90	1,02	0,58	0,44
Ceuta eta Melilla	126	-	170	118	-30,6	1,40	-	1,43	1,88	1,40	0,48
Estatua	149	144	142	137	-3,5	1,42	1,51	1,54	1,73	1,03	0,70

Iturria: EIN. Uraren hornidurari eta tratamenduari buruzko inkesta

2.4.2. Hondakin-ura biltzea eta tratatzea

Trataturiko hondakin-urari dagokionez, 2011 eta 2012 bitartean %22,9ko igoera izan da, guztira 883,8 Hm^3. Bestalde, berrabilitako uraren bolumena (9.316 m^3/eguna) %39,7 jaitsi da 2011koaren aldean. Hala, beherako joera ageri da, 2008an erregistraturiko kopuruetatik urrunduta; izan ere, urte horretan, eguneko 47.496 m^3 zenbatu ziren.

Saneamendu eta arazketa kuotei dagokienez, 2012an gutxi badira ere (%-3,5), guztira 97,9 milioi € dira.

HONDAKIN-UREN BILKETA ETA TRATAMENDUA EAE-N (m3/eguna)					
	2009	2010	2011	2012	11/12 aldak. %
Trataturiko hondakin-uren bolumena	851.532	830.902	718.825	883.752	22,9
Berrerabilitako uraren guztizko bolumena	13.405	16.907	15.458	9.316	-39,7
Saneamendu eta arazketa kuoten guztizko enbatekoa (mila €)	77.837	104.810	101.349	97.852	-3,5

Iturria: EIN. Uraren hornidurari eta tratamenduari buruzko inkesta

2.5. HONDAKINEN SORKUNTZA

2.5.1. Hiriko hondakinak

EINen "*Hiriko hondakinen bilketari eta tratamenduari buruzko inkestak*" agerian uzten duenez, hiriko hondakinak kudeatzen dituzten enpresek, 2012an, 1,1milioi Tm hiriko hondakin bildu zituzten, aurreko urtean baino %4,8 gehiago[6].

HIRIKO HONDAKINEN SORKUNTZA (Tonak)								
	ESTATUA				EAE			
	2010	2011	2012	Aldak. 2011-12	2010	2011	2012	Aldak. 2011-12
Hiriko Hondakinak (HH)	24.380.023	23.281.979	22.395.811	-3,8	1.076.053	1.048.759	1.098.892	4,8
HH nahastuak	19.395.265	18.773.628	18.315.103	-2,4	718.303	691.950	780.061	12,7
Gaika bildutako HH	4.984.758	4.508.351	4.080.708	-9,5	357.750	356.809	318.831	-10,6

Iturria: EIN: Hiriko hondakinen bilketari eta tratamenduari buruzko inkesta.

Nahastuak eta gaika bildutakoak bereiziz, gehienak hondakin nahastuak dira (%71). 2011. urtearen aldean, lehenbizikoetan %12,7ko igoera izan da, eta gaika bildutakoetan, berriz, %10,6ko gutxipena. Estatuan, bestalde, bietan ageri dira jaitsierak, %2,4 eta %9,5ekoak hurrenez hurren.

HIRIKO HONDAKINEN GAIKAKO BILKETA. 2012				
	EAE		ESTATUA	
	Kopurua (Tm)	Guztizkoaren %-a	Kopurua (Tm)	Guztizkoaren %-a
06 Metal hondakinak	1.428	0,4	34.640	0,8
07.1 Beira hondakinak	54.038	16,9	735.547	18,0
07.2 Paper eta kartoi hondakinak	124.278	39,0	1.085.574	26,6
07.4 Plastiko hondakinak	5.118	1,6	107.524	2,6
07.5 Zur hondakinak	21.097	6,6	130.509	3,2
07.6 Ehun hondakinak	4.849	1,5	14.656	0,4
08.2 eta 08.43 Botatako ekipamendu elektrikoak eta botatako ekip. elektronikoko osagaiak	5.429	1,7	32.179	0,8
08.41 Pila eta metagailu hondakinak	175	0,1	1.876	0,0
09. Animalia eta landare hondakinak	22.319	7,0	799.776	19,6
10.21 Ontzi mistoak eta bilgarri nahastuak	32.028	10,0	641.266	15,7
11 Lohi arruntak (lehorrak)	80	0,0	24.849	0,6
12 Mea hondakinak (eraikuntza eta eraispeneko hondakinak barne)	45.125	14,2	442.031	10,8
18 Beste batzuk	2.867	0,9	30.281	0,7
OROTARA	**318.831**	**100,0**	**4.080.708**	**100,0**

Iturria: EIN: Hiriko hondakinen bilketari eta tratamenduari buruzko inkesta.

6 EUSTATen datuek joera bera erakusten dute, baina igoera handiagoa da (%9,1).

Gaika bildutako hiriko hondakinen artean, hauexek nabarmentzen dira EAEn bolumenaren arabera: papera eta kartoia (124.278 Tm, guztizkoaren %39), beira (54.038 Tm, %16,9), mea hondakinak -horien artean eraikuntzakoak eta eraispenekoak sartzen dira- (45.125 Tm, %14,2), ontzi mistoak eta bilgarri nahastuak (32.028 Tm, %10), animalien eta landareen hondakinak (22.319 Tm, %7) eta zura (21.097 Tm, %6,6). Estatuan, hauexei dagozkie: papera eta kartoia (%26,6), animaliak eta landareak (%19,6), beira (%18), ontzi mistoak eta bilgarri nahastuak (%15,7) eta mea hondakinak -horien artean eraikuntzakoak eta eraispenekoak sartzen dira- (%10,8).

Per capita bolumenetan, EAEn 516,3 Kg hiriko hondakin bildu ziren 2012an biztanleko eta urteko, hots, Estatuko batez bestekoa baino gehiago (484,8 Estatuan). Autonomia erkidegoen arabera, Balearrak (716,2), U. Kanariarrak (619,7), Andaluzia (580,4) eta Kantabria (554,3) izan ziren per capita balio handienak bildu zituztenak.

2.5.2. Hondakin arriskutsuak eta ez arriskutsuak

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politikarako Sailaren datuen arabera, 2011 eta 2012 bitartean behera egin du hondakin arriskutsuen eta ez arriskutsuen kopuruak; lehenbizikoetan %9ko jaitsiera eta bigarrenetan, berriz, %7,5ekoa. Hala, guztira 299.089 Tm hondakin arriskutsu kudeatu ziren 2012. urtean eta 2.667.928 Tm hondakin ez arriskutsu.

2012an kudeatu diren hondakin ez arriskutsuen artean, hauexek nabarmentzen dira: prozesu termikoetako hondakinak (hondakin ez arriskutsu guztien %44,7), hondakinen tratamenduko hondakinak (hondakin ez arriskutsu guztien %22,3) eta zuraren eta paperaren industriako hondakinak (hondakin ez arriskutsu guztien %18,5). Eta hondakin arriskutsuen artean hauek nabarmentzen dira: Prozesu termikoetako industriako hondakinak (hondakin arriskutsu guztien %40) eta metalen tratamenduko eta estaldurako hondakinak (hondakin arriskutsu guztien %16,9).

III.2.11. KOADROA. EAE-KO HONDAKIN ARRISKUTSUEN ETA EZ ARRISKUTSUEN BILAKAERA HEZ KODEAREN ARABERA* (Tonak)

	2010		2011		2012		2011-12 aldakuntza	
LER	Arriskutsuak	Ez arrisk.	Arriskutsuak	Ez arrisk.	Arriskutsuak	Ez arrisk.	Arriskutsuak	Ez arrisk.
01-Meategiak eta harrobiak	0	3.761	0	3.586	0	370		-89,7
02-Lehen mailako ekoizpena	0		6		9		49,1	
03-Zur eta paper industria	0	579.482	0	565.537	1	492.702		-12,9
04-Larrugintza eta ehungintza	0	2.252	0	2.329	0	1.131		-51,4
05-Petrolio findegiak	3.746	157	4.805	86	7.970	195	65,9	126,4
06-Ind. Kimiko ezorganikoa	1.344	8.820	1.618	18.727	2.387	3.655	47,5	-80,5
07-Ind. Kimiko organikoa	10.400	31.594	13.831	21.117	8.471	17.008	-38,8	-19,5
08-Margoak, bernizak eta tinduak	4.191	6.417	5.363	2.094	5.156	2.138	-3,9	2,1
09-Ind. Fotografikoa	472	5	397	33	300	11	-24,3	-66,5
10-Ind. Prozesu termikoak	150.824	1.328.653	138.151	1.358.825	119.646	1.192.482	-13,4	-12,2
11-Metalen trat. eta estaldura	58.144	1.594	70.186	6.012	50.440	5.867	-28,1	-2,4
12-Metalen mekaniz. Ind.	20.025	173.022	21.613	167.746	20.510	201.438	-5,1	20,1
13-Olio erabiliak	24.441		17.992	-	16.573	-	-7,9	
14-Disolbagarri erabiliak	1.972		2.154		2.094		-2,7	
15-Ontziak eta zapiak	6.809	72.594	8.195	81.049	7.877	67.481	-3,9	-16,7
16-Beste hondakin batzuk	12.842	80.336	17.798	75.150	20.385	88.352	14,5	17,6
17-Eraikuntza eta eraispena	40.248		10.627		19.322		81,8	
18-Zerbitzu medikoak	2.174		1.592		1.670		4,9	
19-Hondakinen tratamend. Ind.	13.005	479.209	10.957	581.765	12.281	595.098	12,1	
20-Udalekoak eta berdinetsiak	3.001		3.396	-	3.995	-	17,6	!
Orotara	**353.641**	**2.767.895**	**328.681**	**2.884.057**	**299.089**	**2.667.928**	**-9,0**	**-7,5**

**HEZ: Hondakinen Europako Zerrenda*
Iturria: Ingurumen eta Lurralde Politikarako Saila

2.6. INGURUMENAREN BABESA ETA MANUFAKTURA-INDUSTRIA

Honako epigrafe honen xedea da manufaktura-industriek ingurumena babesteko egiten duten gastua aztertzea.

EINek egindako Enpresa industrialek ingurumen babesean izandako gastuari buruzko inkestako azken datuen arabera, 2012an EAEn aipatu enpresek ingurumen babesean izandako gastua (inbertsioa barne) guztira 195,5 milioi eurokoa izan zen. Hori 2011n baino %2,9 gehiago da.

195,5 milioi euro horietatik, %23,1 inbertsioetako gastuari dagokio, eta %76,9 ohiko gastuei.

Gastua BPGaren portzentaje bezala neurtuta, 2012an beste murrizketa bat ikusten da 2011koaren aldean, %0,31n geratuz.

Hala, 2012an EAE bosgarren tokian dago, Nafarroaren (%0,39), Asturiasen (%0,34), Kantabriaren eta Gaztela-Mantxaren (bietan %0,33) atzean.

III.2.1. GRAFIKOA. INGURUMENA BABESTEKO GASTUA, MANUFAKTURA-INDUSTRIEN BPG-AREN GAINEAN, AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA. 2012 (PORTZENTAJEAK)



Iturria: EIN

III.2.12. KOADROA. MANUFAKTURA-INDUSTRIEN OHIKO GASTUA ETA INGURUMENA BABESTEKO INBERTSIOA

	Ohiko gastua eta inbertsioa (€)				BPGaren gaineko portzentajea**			
	2009	2010	2011	2012	2009	2010	2011	2012
Andaluzia	289.807.210	269.491.825	273.601.694	274.241.103	0,20	0,19	0,19	0,20
Aragoi	74.391.336	82.389.070	83.699.495	82.608.445	0,22	0,25	0,25	0,25
Asturias	79.032.881	81.542.529	73.746.120	73.417.239	0,35	0,36	0,33	0,34
Balearrak.	10.148.069	8.742.389	7.486.187	7.191.958	0,04	0,03	0,03	0,03
Kanariar U.	36.403.038	36.498.020	31.264.197	40.871.648	0,09	0,09	0,08	0,10
Kantabria	58.178.718	53.156.731	50.832.796	41.982.812	0,46	0,42	0,40	0,33
Gaztela eta Leon	154.851.297	126.361.021	117.737.569	120.367.890	0,28	0,23	0,21	0,22
Gaztela Mantxa	118.433.173	90.337.119	97.059.482	117.735.595	0,32	0,24	0,26	0,33
Katalunia	572.528.904	576.136.825	583.526.312	542.294.327	0,30	0,30	0,30	0,28
Valentzia	212.558.595	191.922.961	199.081.324	210.029.050	0,21	0,19	0,20	0,22
Extremadura	17.804.294	13.800.639	12.067.913	12.958.589	0,10	0,08	0,07	0,08
Galizia	125.042.456	137.490.450	127.347.834	121.233.871	0,22	0,24	0,23	0,22
Madril	104.952.905	113.172.775	101.619.259	101.815.023	0,06	0,06	0,05	0,05
Murtzia	53.292.699	63.088.837	74.314.742	66.648.072	0,19	0,23	0,27	0,25
Nafarroa	65.223.060	61.774.996	62.656.159	69.395.368	0,37	0,35	0,35	0,39
EAE	**200.388.764**	**205.734.323**	**190.053.113**	**195.502.883**	**0,32**	**0,32**	**0,29**	**0,31**
Errioxa	18.492.445	20.912.268	24.477.888	20.213.533	0,23	0,26	0,31	0,26
Estatua*	2.191.529.844	2.132.578.188	2.110.572.084	2.098.507.406	0,21	0,20	0,20	0,20

Estatuko BPGaren barruan Ceuta Melilla eta Extra-Regio biltzen ditu. 2008ko oinarria*
Iturria: EIN

3. BIZI-BALDINTZAK

Gizarte-bazterketaren problematika zeharkako errealitatea da gaur egungo gizarteetan. Erakunde eta ikertzaileek urte askoan erabili duten "pobrezia" kontzeptuak ez ditu agortzen gizarte-bazterketaren errealitatea eta dinamikak. Hori dela eta, azken bi hamarkadatan gizarte-ikertzaileak eta kudeatzaile publikoak bat etorri dira: pobrezia kategoria hedatu dute eta "gizarte-bazterketa" erabiltzen dute, pobrezia ekonomikoaren ideia zurruna atzean utzi dutelako eta, batik bat, kontuan hartzen dituztelako gaur egungo gizarteetan aurrerapen teknologikoek, bizimodu-aldaketek eta gizarte-erreformek eragin dituzten eraldaketa sakonak.

Europar Batasunean, gaur egungo krisiak eragin oso larriak ditu jarduera ekonomikoan eta enpleguan. Batzordearen aburuz, 2014. urte amaieran ekonomia zertxobait suspertu denez eta lan-merkatuko erronkei aurre egiten zaienez, familien eta pertsonen egoerak hobera egin du pixka bat. Aurten, errentek onera egin dute, baina motel[1].

III.3.1. GRAFIKOA. POBREZIA- ETA BAZTERKETA-ARRISKUAREN ETA ARRISKU HORREN HIRU OSAGAIEN BILAKAERA EUROPAR BATASUNEAN (EB28)



Fuente: EUROSTAT.

Krisiaren ondorioz, Europan pobrezia- edo bazterketa-arriskuan dauden herritarren kopurua izugarri ugaritu da azken urteetan (azken urtean pixka bat behera egin duen arren). Gaur egun (azkeneko datua 2013koa da), biztanleen % 24,5 dago egoera horretan, edo, bestela esanda, 122,7 milioi europar; hori, Europa 2020 Estrategian[2], alegia AROPE tasan (*population at risk of poverty and exclusion*), zehaztutako irizpideen arabera. 2013an, arrisku-maila handienak Bulgaria eta Errumaniakoak ziren (bi herrialdeetan biztanleen % 40 baino gehiago zegoen egoera horretan), eta gero Grezia, Letonia, Lituania eta Hungariakoak (herrialde horietan ratioak % 30 eta % 40 artekoak dira). Arrisku-egoeran biztanle gutxien dituzten herrialdeak dira Txekiar Errepublika (% 14,6), Holanda (% 15,9), Finlandia (% 16) eta Suedia (% 16,4).

III.3.1. KOADROA. AROPE TASAREN BILAKAERA ETA OSAGAIAK. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ETA ESTATUKO BATEZBESTEKOAREN ARTEKO ALDEAK.

	POBREZIA- ETA BAZTERKETA-ARRISKUA (AROPE)		POBREZIA-ARRISKUA (<% 60KO ATALASEA)		GABEZIA MATERIALA		LAN-INTENTSITATE TXIKIA	
	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE
2009	24,7	14,8	20,4	10,0	4,5	3,4	7,6	5,5
2010	26,1	16,3	20,7	11,7	4,9	2,1	10,8	8,8
2011	26,7	18,9	20,6	13,8	4,5	4,0	13,4	9,8
2012	27,2	17,7	20,8	13,3	5,8	2,1	14,3	11,1
2013	27,3	16,8	20,4	10,5	6,2	4,8	15,7	13,0

Iturria: EINen datuak oinarri hartuta egina.

2012. urtearekin alderatuta, Europar Batasuneko batez besteko tasa hiru hamarren jaitsi zen (1,8 milioi lagun gutxiago daude arrisku-egoeran), nahiz eta intzidentziak ia erdia egin zuen gora estatu-kideetan, bereziki Grezian, Maltan eta Portugalen. Espainian, 2013ko tasa % 27,3 zen (12 milioi biztanle baino gehiago), aurreko urtekoa baino hamarren bat handiagoa.

1 EUROPEAN COMMISSION. EU Employment and Social Situation. Quarterly Review, dec. 2014.

2 Europa 2020 Estrategiako irizpideen arabera, pertsona bat pobrezia- edo bazterketa-arriskuan dago langabezia-arazoak edo lan-intentsitate txikia dituen familia-unitate batean bizi bada eta familia-unitate horrek gizarte-transferentzien ondoren pobrezia-arrisku badu eta/edo gabezia material larria badu.

Euskal Autonomia Erkidegoan, 2013an, biztanleen % 16,8 zegoen pobrezia- eta bazterketa-arriskuan (EUROSTATen eta EINen metodologiaren arabera; portzentaje hori 2012koa baino ia puntu bat txikiagoa da), bestela esanda: 370.000 lagun inguru[3]. Intzidentzia hori Europan nahiko txikia da, eta Suedia, Finlandia eta Frantziakoaren oso antzekoa.

Adierazle horren osagaiei dagokienez, batetik, 2013an EBko biztanleen % 16,7 pobrezia-arriskuan zegoen gizarte-transferentzien ondoren (diru-pobrezia); egoera horretan daude, zehazki, diru-sarreren kontsumo-unitateko banaketaren herrialde bakoitzeko medianaren % 60tik (pobrezia-atalasetik) beherako diru-sarrerak dituztenak (osagai hori da, beraz, herrialde bakoitzean gutxieneko errenta-atalase horretara heltzen ez diren biztanleen portzentajea). Portzentaje horrek hiru hamarren egin zuen behera 2013an, eta Bulgarian, Grezian, Errumanian eta Espainian nahiko handia da (% 20tik gorakoa; Espainian % 20,4). EAEn tasa hori % 10,5 zen, aurreko urtean baino portzentajezko 2,8 puntu txikiagoa, eta jaitsiera horrek eragin du AROPE tasa orokorrak ere behera egitea.

Bestetik, Europako biztanleen % 9,6k gabezia material larriak zituen 2013an: bizimodu egokia izateko bitartekoak falta zitzaizkien, besteak beste fakturak ordaintzeko (etxeko ohiko gastuen fakturak), etxea berotzeko eta urtero astebeteko oporraldia hartzeko[4]. Gabezia horren intzidentziari dagokionez, Europar Batasuneko estatu-kideen artean alde handiak daude: Luxenburgon eta Suedian % 1 da, Bulgarian % 43 eta Errumanian % 28,5. Espainian intzidentzia hori % 6,2 da, eta EAEn % 4,8. Europar Batasunean nahiko txikia da, baina urte batetik bestera asko igo da, 2012an % 2,1 baitzen.

Azkenik, europar biztanleen % 10,7 lan-intentsitate oso gutxiko etxeetan bizi da; etxe horietan helduek lan-potentzial osoaren % 20 baino gutxiago lan egin dute azken urtean. Europar Batasuneko zerrendan Irlanda, Grezia eta Espainia dira nagusi. Espainiako ratioa % 15,7 da, hain zuzen ere, eta EAEkoa % 13, 2012koa baino ia bi puntu handiagoa.

III.3.2. KOADROA. EUROPAN POBREZIA- EDO BAZTERKETA-ARRISKUAN DAUDEN BIZTANLEAK, EUROPA 2020 ESTRATEGIAKO IRIZPIDEEN ARABERA

	PORTZENTAJEA			ABSOLUTUAK (MILIOIAK)		
	2008	2012	2013	2008	2012	2013
EB 28	23,8	24,8	24,5	166,6	124,5	122,7
BELGIKA	20,8	21,6	20,8	2,2	2,4	2,3
BULGARIA	44,8	49,3	48,0	3,4	3,6	3,5
TXEKIAR ERREPUBLIKA	15,3	15,4	14,6	1,6	1,6	1,5
DANIMARKA	16,3	19,0	18,9	0,9	1,0	1,0
ALEMANIA	20,1	19,6	20,3	16,4	15,9	16,2
ESTONIA	21,8	23,4	23,5	0,3	0,3	0,3
IRLANDA	23,7	30,0	:	1,1	1,4	:
GREZIA	28,1	34,6	35,7	3,1	3,8	3,9
ESPAINIA	24,5	27,2	27,3	11,1	12,6	12,6
FRANTZIA	18,5	19,0	18,1	11,2	11,8	11,2
KROAZIA	:	32,3	29,9	:	1,4	1,3
ITALIA	25,3	29,9	28,4	15,1	17,8	17,3
ZIPRE	23,3	27,1	27,8	0,2	0,2	0,2
LETONIA	34,2	36,2	35,1	0,7	0,7	0,7
LITUANIA	27,6	32,5	30,8	0,9	1,0	0,9
LUXENBURGO	15,5	18,4	19,0	0,1	0,1	0,1
HUNGARIA	28,2	32,4	33,5	2,8	3,2	3,3
MALTA	20,1	22,2	24,0	0,1	0,1	0,1
HERBEHEREAK	14,9	15,0	15,9	2,4	2,5	2,7
AUSTRIA	20,6	18,5	18,8	1,7	1,5	1,6
POLONIA	30,5	26,7	25,8	11,5	10,1	9,8
PORTUGAL	26,0	25,3	27,4	2,8	2,7	2,9
ERRUMANIA	44,2	41,7	40,4	9,4	8,9	8,6
ESLOVENIA	18,5	19,6	20,4	0,4	0,4	0,4
ESLOVAKIA	20,6	20,5	19,8	1,1	1,1	1,1
FINLANDIA	17,4	17,2	16,0	0,9	0,9	0,9
SUEDIA	14,9	18,2	16,4	1,4	1,8	1,6
ERRESUMA BATUA	23,2	24,1	24,8	14,1	15,1	15,6
EAE	14,8*	17,7	16,8	0,32	0,39	0,37*

Iturria: EUROSTATen eta EINen datuekin guk geuk egina.
** EAEko datua 2009koa da.*

Gauzak horrela, Europako Batzordeak jakinarazi du estatu-kideen arteko aldeak handitzen ari direla, batik bat eurogunean. Hegoaldean eta inguruko herrialdeetan krisiak eragin handia izan du, eta horrek arriskuan jartzen du Ekonomia eta Diru Batasunaren oinarrizko helburuetako bat: kide guztientzat onuragarria izatea, ekonomia bateratuz eta herritar guztien bizi-kalitatea hobetuz.

Pobreziak eta bazterketak okerrera egin dutenez, Batzordeak hazteko eta bateratzeko gizarte-inbertsioko berehalako neurriak hartzea eskatu die gobernuei; horretarako, pertsonen gaitasunak hobetu behar dira, eta baita gizarte- eta lan-arloan duen partaidetza ere, banakoen oparotasuna areagotzeko eta ekonomia sustatzeko. Hauek dira

3 EAEko datuak EINek EUROSTATen metodologiaren arabera egin eta bizi-baldintzei buruzko inkestan sartutako kalkuluetatik atera ditugu eta, gero, atzealdera berrikusi ditugu, oinarrizko urte berriari (2013) egokitzeko.

4 Zehazki, EUROSTATen irizpideen arabera, gabezia material larria izateko bederatzi item hauetatik lau bete behar dira: fakturak garaiz ezin ordaintzea, etxea bero ezin edukitzea, ezusteko gastuak ezin ordaintzea, bi egunez behin haragia, arraina edo antzeko proteinak ezin jatea, urtero gutxienez astebeteko oporraldirik ezin hartzea eta kotxea, garbigailua, koloretako telebista eta telefonoa (sakelakoa barne) ez edukitzea.

Batzordea gehien kezkatzen dituen gaiak (guztiak lotuta daude): luzaroko langabeziaren igoera, ikasten eta lanik egiten ez duen gazte-kopuruaren handitzea, inork lanik ez duen gero eta etxe gehiago egotea eta "langile-pobrezia" (*in-work poverty*) esaten zaionaren handitzea.

Orain, lehenik, EAEko bizi-baldintzen eta pobreziako eta gizarte-bazterketako arazoen panoramaren deskribapena egingo dugu eta, horretarako, EINen "*Bizi-baldintzei buruzko inkesta*"ko 2013ko emaitzak eta, EAEko egoera Europakoarekin konparatze aldera, EUROSTATen antzeko inkesta baten emaitzak hartuko ditugu oinarritzat. Halaber, Eusko Jaurlaritzak 2014an egindako "*Pobreziari eta gizarte-desparekotasunari buruzko inkesta*"ko emaitza nagusiak aurkeztuko ditugu, eta Euskadiko hipoteka-betearazpenen kopuruaren bilakaera labur-labur azalduko dugu, krisiak familien bizi-baldintzetan duen eraginaren ondorioetako bat baita. Bigarrenik, euskal gazteriaren bizi-baldintzak aztertuko ditugu, Memoria Sozioekonomikoaren edizio honetan arreta handia jarriko diogulako.

3.1. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BIZI-BALDINTZAK

3.1.1. Bizi-baldintzei buruzko inkestako 2013ko emaitzak

EINen "*Bizi-baldintzei buruzko inkesta*" Europar Batasuneko errentari eta bizi-baldintzei buruzko estatistikak (*Statistics on income and living* conditions, EU-SILC) bateratzeko prozesu baten parte da. Helburu nagusietako bat da pobrezia eta gizarte-bazterketa aztertu ahal izateko informazioa ematea. Alde horretatik, askotariko informazioa ematen du, etxebizitzei buruzko datuak, hain zuzen ere: etxeko gastuak, diru-sarrerak, ekipamendua, egoera ekonomikoa, helduen jarduera, osasuna, osasun-arreta eskuratu ahal izatea, hezkuntza eta datu biografikoak.

III.3.2. GRAFIKOA. BATEZ BESTEKO ERRENTA ETXEBIZITZA ETA PERTSONAKO, AUTONOMIA-ERKIDEGOEN ARABERA, 2013 (€)



Iturria: EIN. Bizi-baldintzei buruzko inkesta.

Lehendabizi, inkestak banakoen eta familien aurreko urteko errenta-mailari buruzko informazioa ematen du. Datu horiei dagokienez, azpimarratu behar dugu 2013an eragiketa estatistiko horren metodologia aldatu zutela eta, ordudanik, informatzaileak emandako informazioa eta administrazio-erregistroetako informazioa uztartzen dituztela, datuen kalitatea hobetze aldera. Ondorioz, sailak eten egin dira eta, errenta, adibidez, ezin da aurreko urteetatik hona nola aldatu den aztertu.

KOADROA III.3.3. ZAILTASUN MATERIALAK DITUZTEN ETA/EDO GASTU BATZUK ORDAINDU EZIN DITUZTEN ETXEEN PORTZENTAJEA. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ETA ESTATUKO BATEZBESTEKOAREN ARTEKO ALDEAK.

	EZIN DUTE URTERO GUTXIENEZ ASTEBETEKO OPORRALDIA HARTU		HIL-BUKAERARA HELTZEKO ZAILTASUNAK DITUZTE		ETXEBIZITZA NAGUSIAREN ORDAINKETAK BERANDU EGIN DITUZTE*		USTEKABEKO GASTUAK EZIN DITUZTE ORDAINDU	
	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE
2009	40,3	22,1	60,4	45,9	8,1	2,5	36,1	22,2
2010	40,8	21,1	60,1	41,6	8,7	3,3	38,5	19,8
2011	40,0	27,4	56,3	41,9	7,0	5,2	37,8	23,4
2012	45,1	23,5	63,1	39,4	8,4	3,2	41,4	19,8
2013	**45,8**	**26,0**	**67,0**	**50,3**	**9,3**	**5,0**	**41,0**	**24,2**

**Etxebizitza nagusiari lotutako gastuak (hipoteka edo errenta, gasa, erkidegoa...) berandu ordaindu dituzte azken 12 hilabeteetan.*
Iturria: EIN. Bizi-baldintzei buruzko inkesta.

Inkestako 2013ko emaitzen arabera, aurreko urtean etxebizitzako batez besteko errenta 34.487 eurokoa zen Euskal Autonomia Erkidegoan, estatuko batezbestekoa baino (26.775 euro) % 28,8 handiagoa. EAE aitzindari da estatuko zerrendan, eta Nafarroako erkidegoa bigarren (etxebizitzako batez besteko errenta 34.320 eurokoa da). Horren harian, inkestan ikusten da EAEko biztanleko batez besteko errenta urteko 14.320 eurokoa dela, estatuko batezbestekoa baino % 36,1 handiagoa. Estatuko zerrendan EAE aitzindari da berriz ere, eta Nafarroako erkidegoa bigarren. Zerrendaren kontrako muturrean daude, bi adierazleetan (etxebizitzako eta biztanleko diru-sarrerak) eta aurreko urteetan bezala, Extremadura, Murtzia, Andaluzia, Kanariar Uharteak eta Gaztela-Mantxa.

Etxeetako bizi-baldintzen eta errenta-mailaren beste adierazle bat hil-bukaerara heltzeko zailtasunak dituzten familien portzentajea da: gure erkidegoan familien % 50,3 zegoen egoera horretan 2013an, eta portzentaje hori aurreko urtekoa baino 10,9 puntu handiagoa da.

Estatuko batezbestekoa % 67 da, 2012koa baino lau puntu handiagoa. Gainera, kontuan hartu beharra dago hil-bukaerara heltzeko zailtasunak dituztela adierazi duten euskal familien (% 50,3) % 11,5ek "zailtasun handiak" dituela (2012an portzentaje hori % 6,4 zen), % 12,7k "zailtasunak" soilik eta gainerako % 26,1ek "zailtasun batzuk". Banaketa hori estatuan antzekoa da, baina zailtasun gehien dituztenen portzentajea handiagoa da: % 28,2, hain zuzen ere.

Inkestan, halaber, gastu batzuk ordaindu ezin dituzten etxeen portzentajea kalkulatzen dute: 2013an, EAEko etxeen % 26an ezin zuten urtean astebeteko oporraldirik hartu (estatuan % 45,8), eta etxeen % 24,2an ezin zituzten ustekabeko gastuak ordaindu (estatuko batezbestekoa % 41 da). Ratio hori portzentajezko 4,4 puntu igo da 2012tik.

Europan, 2013an (EUROSTATeko datuak), familien % 39,7k ezin zituen ustekabeko gastuak ordaindu, % 10,8k ezin zuen etxea berotu eta % 12,1ek hil-bukaera heltzeko arazo handiak zituen. Herrialdeen artean alde handiak daude, eta nabarmendu behar ditugu, bizi-mailaren beherakadari dagokionez, batetik, Kroazia, Bulgaria, Letonia, Lituania eta Hungarian ustekabeko

III.3.4. KOADROA. EUROPAKO FAMILIEN GABEZIA MATERIALAREN ADIERAZLEAK. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREKIN ALDERATZEA. 2012-2013.

	USTEKABEKO GASTUAK EZIN ORDAINTZEA		GABEZIA MATERIALAREN INDIZEA	
	2012	2013	2012	2013
EB 28	40,3	39,7	19,8	19,5
EDB	36,1	36,0	16,4	16,4
BELGIKA	25,2	24,2	12,5	11,7
BULGARIA	68,6	64,1	61,6	58,0
TXEKIAR ERREPUBLIKA	42,4	41,7	16,8	15,9
DANIMARKA	28,2	27,6	7,5	9,3
ALEMANIA	33,4	32,9	11,3	11,6
ESTONIA	44,7	41,9	21,3	19,4
IRLANDA	56,4	:	24,9	:
GREZIA	40,5	47,1	33,7	37,3
ESPAINIA	42,1	42,1	16,3	16,9
FRANTZIA	33,0	33,9	12,8	12,3
KROAZIA	67,4	65,1	35,6	34,6
ITALIA	42,5	40,4	25,2	24,0
ZIPRE	50,5	54,3	31,5	36,0
LETONIA	73,6	69,5	44,6	40,4
LITUANIA	60,4	56,9	34,4	31,7
LUXENBURGO	24,8	23,8	4,5	5,6
HUNGARIA	74,3	74,2	44,0	44,1
MALTA	25,0	22,8	19,8	19,4
HERBEHEREAK	22,0	23,4	6,5	8,1
AUSTRIA	22,2	23,2	9,8	9,9
POLONIA	54,1	50,5	27,8	25,5
PORTUGAL	35,9	43,2	21,8	25,5
ERRUMANIA	53,1	52,1	48,0	45,8
ESLOVENIA	45,7	45,8	16,9	17,0
ESLOVAKIA	36,1	39,5	22,7	23,4
FINLANDIA	27,9	27,5	8,9	8,5
SUEDIA	17,6	18,2	4,4	4,3
ERRESUMA BATUA	42,9	41,1	16,6	17,4
EAE	**19,8**	**24,2**	**6,4***	**8,5***

Iturria: EUROSTATen eta EINen datuekin guk geuk egina.
** Zenbatespena da, metodologiak desberdinak baitira (ikusi testua).*

gastuak ordaintzeko zailtasunak dituzten familiak (ratioak % 60 ingurukoak dira) eta Bulgaria, Zipre eta Grezian hil-bukaerara heltzeko arazoak dituzten familiak (hiru herrialdeek % 30etik gorako ratioak dituzte).

Horren harian, EUROSTATek "gabezia materialaren indizea" sortu du, eta indize horrek adierazten du sarreran aipatu bederatzi gastu- eta ekipamendu-kontzeptuetatik hiru, gutxienez, eduki ezin dituzten pertsonen kopurua; EINen lau gastu-kontzeptuez gain, honako hauek ere aintzat hartu dituzte: hipotekako ordainketak egunean edukitzea eta garbigailua, koloretako telebista, telefonoa eta ibilgailua edukitzea. Definizio horren arabera, 2013an EBko biztanleen % 19,5ek gabezia materialak zituen (2012an baino 3 hamarren gutxiagok), eta herrialdeen artean alde handiak zeuden, batik bat Batasuneko estatu-kide berrien eta gainerakoen artean. Izan ere, Suediako eta Luxenburgoko biztanleen % 4-5 eta herrialde eskandinaviarretako eta Holandako biztanleen % 10 baino ez dago egoera horretan (Espainiako ratioa % 16,9 da); eta, aitzitik, Bulgarian biztanleen % 58k ditu gabezia materialak, eta Letonian, Hungarian eta Errumanian biztanleen % 40k baino gehiagok.

EINek, bizi-baldintzei buruzko inkestan, antzeko adierazle bat kalkulatzen du autonomia-erkidegoetarako, eta adierazle horretan zazpi gastu- eta ekipamendu-kontzepturen gabezia hartzen du aintzat. Alde horretatik, EAEko gabezia-indizea % 8,5 zen 2013an (zazpi kontzeptu horietatik gutxienez hiru ez dituzten etxeak), eta estatuko batezbestekoa % 13,2 (EUROSTATen indizea % 16,9 zen). Beraz, Europako eta Espainiako adierazleak alderagarriak dira, adierazitako zuhurtasunarekin bada ere.

3.1.2. Pobrezia eta gizarte-desparekotasunari buruzko inkesta (PGDI): emaitza nagusiak

Eusko Jaurlaritzak, 2012. urtera arte, "*Pobreziari eta gizarte-desparekotasunari buruzko inkesta*" (PGDI) egin du lau urtez behin, jakiteko gure gizartearen pobreziaren indizeak zer bilakaera duen, pobrezian zer arrisku-faktorek eragiten duten eta zergatik banatzen den desberdin. 2014an, berritasun gisa, eragiketa estatistiko horren modulu txikiago bat aurkeztu dute, dagozkion adierazle nagusiekin, bi urte lehenago egindako galdeketako emaitzak eguneratze aldera.

III.3.5. KOADROA. EUSKO JAURLARITZAREN PGDIko OINARRIZKO ADIERAZLEEN BILAKAERA

		1996	2000	2004	2008	2012	2014
Mantentze-pobrezia	Pobrezia-arriskua	13,3	7,9	5,6	5,7	7,3	8,2
	Ongizaterik eza	36,3	24,7	21,9	16,4	19,9	21,9
Metatze-pobrezia	Pobrezia-arriskua	3,6	4,2	3,6	1,5	1,4	2,0
	Ongizaterik eza	25,3	17,2	19,4	18,6	17,5	20,0
Benetako pobrezia	Pobrezia-arriskua	8,7	5,1	4,5	4,2	5,3	5,9
	Ongizaterik eza	16,5	11,0	11,2	8,2	10,1	11,5

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. PGDI 2014.

Inkestako emaitza nagusia da EAEko pobrezia- eta estutasun-egoeren intzidentzia etengabe handitu dela eta gero eta pertsona gehiago daudela egoera horretan, krisi ekonomikoa hasi eta sei urtera:

- Mantentze-pobreziari dagokionez[5], PGDIko adierazleek diote 2008tik 2014ra 2,5 puntu igo zela egoera horretan zeuden pertsonen kopurua: 2008an biztanleen % 5,7 zen, 2012an % 7,3 eta 2014an % 8,2. Horren harian, ongizaterik ez izateko arriskua (gure gizartean espero den ongizate-mailari eusteko ezinbestekoak diren gastu-premiei lotua dago) 5,5 puntu igo zen: 2008an % 16,4 zen, 2012an % 19,9 eta 2014an % 21,9. Mantentze-pobreziaren arlo horren gainean ezin da esan 2014an gehiengo historikoetara heldu garenik, baina nabarmendu beharra daukagu 90eko hamarkada amaieratik EAEn ez genuela mantentze-pobreziaren arrisku-tasa hain handirik izan.

5 Mantentze-pobreziari dagokionez, pobrezia-arriskuko egoera da funtsezko premiak (elikagaiak, etxebizitza, jantziak eta oinetakoak) asetzeko diru-sarrera nahikoa ez izatea; eta ongizaterik ezak gizarte zehatz batean espero den ongizate-mailari eusteko ezinbestekoak diren gastuak ordaintzeko diru-sarrera nahikorik ez izatearekin du zerikusia.

- Metatze-pobreziak nabarmen egin zuen gora 2014an. Metatze-pobreziak honako hauekin du zerikusia: epe ertain eta luzera bizi-baldintza onargarriei eusteko gaitasunik ezarekin eta ohiz kanpoko gastu-premiei aurre egiteko edo diru-sarrerarik eza osatzeko gutxieneko ondare-erreserba bat edukitzeko gaitasunik ezarekin. 2012ra arte adierazle horrek etengabeko beheranzko joera zuen, baina 2014an biztanleen % 2raino egin zuen gora (metatze-pobreziako ongizaterik eza aintzat hartuz gero, % 20raino).

- Arrisku-problematika edo -egoerak ez direnez automatikoki benetako pobrezia- edo estutasun-bizipen bilakatzen, PGDIn benetako pobreziaren adierazlearekin osatzen dute azterlana, hau da, arlo batzuetako bizimodu egokiak beste arlo batzuetako gabeziak orekatzen ez dituen egoerak zehazten dituzte. Hala, deskribatutako prozesuek benetako pobrezia-egoerak gehitzea ekarri dute, biztanleen % 5,9 baitago egoera horretan, 127.000 biztanle inguru, alegia, 2008an baino % 42 gehiago. Gainera, maila horretan EAEko biztanleen % 11,5ek, hau da, ia 250.000 lagunek, ez du ongizaterik.

III.3.3. GRAFIKOA. EAEko BIZTANLERIAREN BANAKETAREN BILAKAERA, PGDIko BENETAKO POBREZIAREN ADIERAZLEEN ARABERA



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. PGDI.

- Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria ongizate-pobrezia eskalan duen kokapenaren arabera sailkatu eta aztertuz gero aipatu benetako pobreziaren adierazlea aintzat hartuta, ikusten da 2014an biztanleen % 38,7k erabateko ongizatea zuela, eta hori dela PGDIko sail historikoko ratiorik handiena. Gainerako biztanleei dagokienez, pobrezia-egoeran dauden biztanleen tasa (2014an % 5,9) 90eko hamarkada amaieratik izan den handiena da (tasa handiena 1996ko % 8,7 da, eta tarteko aldian behera egin zuen etengabe); bitarteko egoeran dauden biztanleen tasak behera egiteko joera du; eta egoera txarrenean, hau da, "ongizaterik gabeko beste modu batzuk" eta "ongizateko eta arriskuko elementu" gisa sailkatuta daudenek gero eta pisu handiagoa dute (2014an bi multzo horietan biztanleen % 25,3 zegoen, guztira).

III.3.6. KOADROA. PGDIko POBREZIA-ADIERAZLEEN BILAKAERA LURRALDE ETA ESKUALDEKA, 2008-2014. FAMILIA-ETXEBIZITZETAKO BIZTANLEEN PORTZENTAJEA

	MANTENTZE-POBREZIA			METATZE-POBREZIA			BENETAKO POBREZIA		
	2008	2012	2014	2008	2012	2014	2008	2012	2014
BIZKAIA	6,7	7,9	8,5	2,1	1,8	2,5	5,2	6,1	6,4
GIPUZKOA	3,9	6,3	6,6	0,4	0,9	1,5	2,5	3,8	4,2
ARABA	5,8	7,3	10,5	1,8	1,1	1,5	4,1	5,6	8,2
Gasteiz	6,1	7,4	11,3	1,7	1,3	1,3	4,4	6,2	8,9
Aiara	4,3	6,4	5,6	2,1	0,1	2,4	2,3	2,2	4,4
Eskuinaldea	5,3	5,5	5,2	0,2	0,7	0,5	3,0	5,1	3,3
Bilbo	10,1	10,6	11,4	2,3	2,3	3,5	7,6	9,5	8,4
Ezkerraldea	5,8	8,0	9,2	3,3	2,7	3,5	5,6	5,8	6,5
Bizkaiko kosta	3,2	6,9	6,3	1,3	1,1	0,7	2,0	2,9	5,9
Durangaldea	5,3	3,8	4,9	1,1	0,2	0,6	2,8	2,4	4,3
Donostialdea	4,7	6,9	7,0	0,4	0,8	1,6	3,1	4,1	4,0
Tolosa-Goierri	2,1	6,8	5,1	0,3	2,4	1,8	1,3	4,5	5,0
Debagoiena	1,2	2,5	4,8	0,9	0,1	0,2	0,4	2,0	4,1
Debabarrena	3,4	4,9	8,4	0,0	0,2	0,6	1,8	2,2	3,8
EAE, GUZTIRA	**5,7**	**7,3**	**8,2**	**1,5**	**1,4**	**2,0**	**4,2**	**5,3**	**5,9**

Iturria: EUSKO JAURLARITZAKO datuekin guk geuk egina. PGDI 2014.

- Lurralde-ikuspegitik, nabarmentzekoa da 2012tik 2014ra pobreziak ordura arte egoera hobean zeuden bi lurraldeetan egin zuela gora gehien, Araban eta Gipuzkoan, hain zuzen ere. Araban egin zuen gehien okerrera, benetako pobreziaren tasak 2008tik 2012ra % 4,1etik % 5,6ra egin baitzuen gora, eta 2014an % 8,2ra; 2012tik

2014ra, beraz, igoera bizkorragoa izan zen. Gipuzkoan gutxiago igo zen, eta hasierako tasa txikiagoa zen, gainera: intzidentziak % 2,5etik % 3,8ra egin zuen gora 2008tik 2012ra, eta % 4,2ra 2014an. Bizkaian, 2008ko pobrezia-tasa handiagoa bazen ere, askoz gutxiago igo zen: 2008an benetako pobrezia-tasa % 5,2 zen, 2012an % 6,1 eta 2014an % 6,4. Gauzak horrela, 2014an Araban zuen pobreziak intzidentzia gehien.

- Eskualdeka, 2014ko benetako pobreziaren tasa handienak Gasteiz, Bilbo eta Ezkerraldekoak dira, ordena horretan: % 8,9, % 8,4 eta % 6,5, hurrenez hurren. Bilbo eta Ezkerraldea, ordea, Gasteizen gainetik daude metatze-pobreziari dagokionez (metatze-pobrezia zenbat eta handiagoa izan, epe luzera ondorioak orduan eta larriagoak izaten dira): lehenbiziko bietan ratioa % 3,5 da eta Arabako eskualdean % 1,3 (EAEko batezbestekoa % 2 da).

  Tolosa-Goierrin eta Bizkaiko kostan ere pobrezia asko okerragotu da 2012tik 2014ra. Tolosa-Goierrin, 2008ra arte pobrezia-maila oso txikia zen, baina azken urteetan bizi-baldintzak asko okertu dira. Guztiarekin ere, 2014ko benetako pobreziaren tasa (% 5) EAEko batezbestekoaren azpitik dago. Bizkaiko kostan antzekoa gertatu da: tasak 2008tik 2012ra % 2tik % 2,9ra igo zen, eta 2014an % 5,9ra (EAEko batezbestekoa da hori).

III.3.7. KOADROA. PGDIko POBREZIA-ADIERAZLEEN BILAKAERA FAMILIA-MOTAREN ARABERA, 2008-2014. FAMILIA-ETXEBIZITZETAKO BIZTANLEEN PORTZENTAJEA

	MANTENTZE-POBREZIA			METATZE-POBREZIA			BENETAKO POBREZIA		
	2008	2012	2014	2008	2012	2014	2008	2012	2014
Bakarrik bizi diren pertsonak	10,4	10,4	13,3	2,2	1,2	1,9	6,4	6,9	8,0
Seme-alabarik gabeko bikoteak	3,9	5,2	4,2	0,9	1,2	0,4	1,9	2,5	2,1
Seme-alabadun bikoteak	4,4	5,3	7,4	1,2	1,1	1,9	3,3	3,7	5,5
Guraso bakarreko familiak	13,7	19,2	13,9	4,1	4,7	5,5	13,2	18,2	12,7
Beste familia-mota batzuk	4,8	13,1	14,1	3,7	0,0	1,4	6,1	10,1	9,9
GUZTIRA	**5,7**	**7,3**	**8,2**	**1,5**	**1,4**	**2,0**	**4,2**	**5,3**	**5,9**

Iturria: EUSKO JAURLARITZAKO datuekin guk geuk egina. PGDI 2014.

III.3.8 KOADROA. BENETAKO POBREZIA- ETA ESTUTASUN-EGOEREN BILAKAERA, PERTSONA NAGUSIAREN ADINAREN ARABERA, 2008-2014. FAMILIA-ETXEBIZITZETAKO BIZTANLEEN PORTZENTAJEA

		< 35	35-44	45-54	55-64	>65	GUZTIRA
MANTENTZE-POBREZIA	2008	11,8	8,4	3,8	4,8	3,2	5,7
	2012	19,7	10,0	5,3	4,7	4,2	7,3
	2014	15,9	13,1	8,9	6,5	2,1	8,2
METATZE-POBREZIA	2008	2,7	3,0	0,4	0,7	1,3	1,5
	2012	3,9	1,7	0,8	0,1	1,9	1,4
	2014	3,3	4,5	1,3	0,6	1,0	2,0
BENETAKO POBREZIA	2008	9,4	7,6	2,6	2,7	1,6	4,2
	2012	18,0	7,4	4,1	2,9	1,7	5,3
	2014	13,6	11,1	5,3	4,0	1,1	5,9

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. PGDI 2014.

- Familia-osaeraren ikuspegitik, familia gurasobakarren pobrezia-egoerak dira larrienak, familia horien pobrezia-tasa % 12,7 baita, eta tasa orokorra % 5,9.

  Gainera, datuak (testuari gehitutako taula) ikusita azpimarratu behar da bakarrik bizi diren pertsonen pobrezia-indizeak oso handiak direla, batik bat mantentze-pobreziari eta benetako pobreziari dagokionez (% 13,3 eta % 8, hurrenez hurren), bi kasu horietan indizeak seme-alabadun eta seme-alabarik gabeko bikoteenak baino askoz handiagoak baitira.

- Adinari dagokionez, 65 urtetik gorakoen eta 35 urtetik beherakoen pobrezia-tasak dira txikienak (orain familiako pertsona nagusiaren adinaz ari gara), eta tarteko adin-multzoetan indizea handiagoa da, bai mantentze- zein metatze-pobreziari dagokionez, bai benetako pobreziari dagokionez. Hala eta guztiz ere, gazteenak bizi dira estuen, egoerak hobera egin badu ere. Benetako pobreziaren intzidentziari begiratzen badiogu, ikusiko dugu familia gazteenen tasa % 13,6 dela, EAEko familiena, oro har, % 5,9 den bitartean. Adinduen multzoan intzidentzia apenas da % 1,1 baino handiagoa.

- Generoaren ikuspegitik, emakumeak buru diren familietako pobrezia-tasak handiagoak dira; dena den, 2012tik 2014ra gizonak buru diren familietan egin du gora gehien pobreziak. Egiaz, benetako pobreziaren tasak behera egin du emakumeak buru diren familietan (% 11,1tik % 10,3ra), eta buruak gizonak diren familietan bederatzi hamarren egin du gora, % 4,6raino. Hala eta guztiz ere, bi familia-kolektibo horien arteko diferentziala oso handia da oraindik ere: portzentajezko 5,7 puntu.

- Azkenik, gertakari berri bat azpimarratu behar dugu: atzerriko nazionalitatea duten pertsonek kolektibo pobreetan duten pisu espezifikoak behera egin du. Atzerritarren pobrezia-tasak handiagoak dira oraindik (2014an atzerritarren pobrezia-tasa % 36,2 zen, bertakoena % 4 eta EAEko biztanleena, oro har, % 5,9), baina kolektibo pobreetan zuten pisu erlatiboa txikiagoa da, bi faktore hauen ondorioz: batetik, pobrezia-adierazle gehienen intzidentzia (salbu metatze-pobreziarena) gutxiago igo da etorkinen multzoan bertakoen multzoan baino, aurreko aldietan bizkorrago gora egin ondoren; eta bestetik, egoera txarrenean zeuden etorkinak joan egin dira EAEtik. Ondorioz, benetako pobrezia-egoeran zeuden biztanle atzerritarren portzentajea % 41,2etik % 36,4 jaitsi da 2012. eta 2014. urteen bitartean.

III.3.4. GRAFIKOA. BENETAKO POBREZIAREN INTZIDENTZIAREN BILAKAERA, ETXEKO PERTSONA NAGUSIAREN NAZIONALITATEAREN ARABERA. EAE.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. 2014ko PGDI.

III.3.5. GRAFIKOA. BENETAKO POBREZIAREN INTZIDENTZIAREN BILAKAERA, ETXEKO PERTSONA NAGUSIAREN NAZIONALITATEAREN ARABERA. EAE.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. 2014ko PGDI.

III.3.5. GRAFIKOA. BENETAKO POBREZIA-EGOEREN BANAKETAREN BILAKAERA, ETXEKO PERTSONA NAGUSIAREN NAZIONALITATEAREN ARABERA. EAE.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. 2014ko PGDI.

3.1.3. Hipoteka-betearazpenak

Krisiak bizi-baldintzetan duen eraginetako bat da gastuak (batik bat hipotekak) ezin ordaintzeagatik etxebizitza galtzen duten familien kopuruak gora egiten duela. Gertakari dramatiko horri buruzko informazioa biltzeko, nahikoa dugu hipoteka-betearazpenen eta jabe-botatze juridikoen kopuruaren bilakaerari begiratzea[6].

Hau da EINen hipoteka-betearazpenaren gaineko definizioa: "*Betearazpen-prozesu bat, zeinaren bidez agintzen den hipoteka batekin kargatutako ondasun higiezin bat saltzea, zordunak hipotekak bermatutako obligazioak bete ez dituelako. Araututako prozedura bat da, eta ordaindu gabeko zorrak ordaintze aldera ondasun higiezinaren balioa diru bihurtzea du helburu; hori, normalean, enkante publiko bidez egiten da*"[7]. Komeni da azpimarratzea jabeak ez direla hasten diren betearazpen guztietan botatzen eta prozedura judizialek hipoteka-betearazpenengatiko hainbat ziurtagiri egiteko aukera ematen duela. Gainera, hipoteka-betearazpen horiek pertsona fisiko eta juridikoen hiri-finkenak dira (etxebizitzak, orubeak eta abar barne).

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitzen Behatokiak Euskadin aurkeztutako hipoteka-betearazpenen[8] bilakaerari buruzko txosten bat egin zuen 2014an, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren datuekin, eta, txosten horren arabera, 2013an 817 betearazpen erregistratu zituzten, aurreko urtean baino % 23 gutxiago. Izan ere, 2010etik era horretako prozedurek behera egin dute, 2009an bideratu baitziren betearazpen gehien, 1.255, hain zuzen ere, 2013an baino % 35 gehiago.

III. 3.7. GRAFIKOA. AURKEZTUTAKO HIPOTEKA-BETEARAZPENEN KOPURUAREN BILAKAERA, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA, 2007-2013.



Iturria: ETXEBIDE, BJKNren datuekin.

Estatuan egoera okerragoa da: hipoteka-betearazpenen kopuruak behera egin du, baina tasa txikiagoekin (2012tik 2013ra betearazpen-kopuruak % 9,8 egin zuen behera). Hori dela eta, EAEko betearazpen-kopuruak estatuan duen pisu erlatiboa % 2,3tik % 1era jaitsi da 2007tik hona. Hipoteka-betearazpenak lurralde historikoen arabera aztertuz gero, ikusten da betearazpen-kopurua antzekoa dela EAEko hiru lurraldeetan.

III.3.8. GRAFIKOA. HIPOTEKA-BETEARAZPENEN ALDAKUNTZA-TASEN BILAKAERA. EAE-ESTATUA



Iturria: ETXEBIDE, BJKNren datuekin.

EINek prozedura horiek aztertzen dituen eragiketa estatistiko bat sortu zuen 2014an, ordura arteko gertakari horiei buruzko estatistika-iturriak askotarikoak zirelako eta ez zirelako oso zehatzak. Eragiketa estatistiko horri "*Hipoteka-betearazpenen estatistika*" izena jarri diote, eta helburua da hasten diren eta jabetza-erregistroetan jasotzen diren hipoteka-betearazpenen ziurtagiri-kopuruaren berri ematea, hiri-finka eta landa-finka guztiena, hiru hilez behin. Estatistika horretan betearazpenak landa-finken eta hiri-finken arabera sailkatzen dituzte, eta hiri-finketan etxebizitzak bereizten dituzte.

---

6 EGABek, 2014. urtean egindako "EAEko familien gehiegizko zorra: analisia" azterlanean, zehazki "Familien gehiegizko zorraren ondorioak" atalean, 2004-2012 aldiko estatuko eta EAEko hipoteka-betearazpenen bilakaera aztertu du:
http://www.cesegab.com/Portals/0/Libros/20140327_El%20sobreendeudamiento%20familiar_euskera1.pdf
7 EIN: Hipoteka-betearazpenei buruzko estatistika. Metodologia.
8 Aurkeztutako betearazpenen bilakaera aztertu zuten, ez ebatzitako betearazpenena, ezin baita jakin zenbateko eragina duen 2012an ezarritako luzamenduak berez aldakorra den betearazpenen ebazpenen tasan.

Gure erkidegoan, behin-behineko datuen arabera, hiru hilero etxebizitzen 92 hipoteka-betearazpen egin ziren 2014an, urtean 368. Estatuan urte osoan 70.000 egin ziren, eta autonomia-erkidegoen artean alde handiak zeuden: gure erkidegoan estatuko hipoteka-betearazpenen % 0,5 egin zen, Andaluzian % 23,2 eta Katalunian % 20,3.

Behin-behineko datuen arabera, gure erkidegoan era guztietako finken gainean egiten diren hipoteka-betearazpenen egiaztagirien % 43 etxebizitzei dagokie. Estatuan, ratio hori % 58,7 da.

Gainera, estatistika berriaren bidez jakin daiteke hipoteka-betearazpena duten etxebizitzak berriak ala bigarren eskukoak diren eta titularrak pertsona fisikoak edo juridikoak diren.

EAEn 2014an etxebizitzen gainean egindako 368 hipoteka-betearazpenetatik 29 (% 7,9) etxebizitza berriei dagozkie, eta 339 (% 92,1) bigarren eskuko etxebizitzei. Estatuako aldi bereko ratioak dira % 16,3 eta % 83,7, hurrenez hurren. Etxebizitzen titulartasunari dagokionez, EAEn hipoteka-betearazpena egindako etxebizitzen % 74,7 pertsona fisikoenak dira eta gainerakoak, % 25,3, pertsona juridikoenak; estatuan, oro har, ratio horiek % 63,8 eta % 36,2 dira.

Hipoteka-betearazpena egin eta hilabete batzuetara, jabea higiezinaz gabetzen da, agintari judizialak egindako ebazpena betearaziz. Horri arrunki etxegabetze esaten zaio, nahiz eta termino zuzena ez izan, errentamendu-kasuei bakarrik dagokielako.

Etxebizitzen Behatokiak, lehen aipatu txostenean, Euskadin 2007tik 2013ra izandako kanporatzeen kopuruaren bilakaera jaso du. Alde horretatik, nabarmendu du 2013an, hipoteka-betearazpenen kopuruak behera egin zuen bezala, aurreko urtean baino kanporatze askoz gutxiago izan zirela: 2012an 2.524 izan ziren eta 2013an 1.838 (-% 27,2). Estatuko joera ere horixe da. Lurralde historikoen arabera, Gipuzkoan gertatu zen kanporatzeen % 14,5, eta lurralde horretako jaitsiera nabarmena da: -% 31,7. Araban eta Bizkaian EAEko gabetzeen % 20,9 eta % 64,6 gertatu zen, hurrenez hurren, eta, aurrek urtearen aldean, jaitsiera antzekoa eta batez bestekoa baino apur bat txikiagoa da (-% 26,3 eta -% 26,4, hurrenez hurren).

III.3.9. KOADROA. HIPOTEKA-BETEARAZPENEN ESTATISTIKA: EMAITZA NAGUSIAK. 2014ko BEHIN-BEHINEKO DATUAK.

	FINKAK GUZTIRA	ETXEBIZITZAK	ETXEBIZITZEN % (FINKEN MULTZOAN)
ESTATUAN, GUZTIRA	119.442	70.078	58,7
ANDALUZIA	29.645	16.275	54,9
ARAGOI	2.656	1.449	54,6
ASTURIAS	1.336	583	43,6
BALEAR UHARTEAK	3.128	1.953	62,4
KANARIAR UHARTEAK	9.344	5.047	54,0
KANTABRIA	948	513	54,1
GAZTELA-MANTXA	5.521	2.638	47,8
GAZTELA ETA LEON	6.634	3.966	59,8
KATALUNIA	20.666	14.230	68,9
VALENTZIA	18.038	11.252	62,4
EXTREMADURA	2.706	1.371	50,7
GALIZIA	3.182	1.733	54,5
MADRIL	6.961	4.350	62,5
MURTZIA	6.301	3.599	57,1
NAFARROA	642	374	58,3
EAE	**856**	**368**	**43,0**
ERRIOXA	777	338	43,5

Iturria: EIN. Hipoteka-betearazpenen estatistika. Guk geuk egin dugu.

III.3.10. KOADROA. ETXEBIZITZEN GAINEKO HIPOTEKA-BETEARAZPENEN ESTATISTIKA: EAEren ETA ESTATUAREN ARTEKO ALDERAKETA. 2014.

	2014-I	2014-II	2014-III	2014-IV	2014, GUZTIRA	
					Abs.	%
TITULARRAREN ARABERA						
ESTATUAN, GUZTIRA	18.971	19.155	13.741	18.211	70.078	100,0
-P. fisikoak	12.120	12.367	8.780	11.415	44.682	63,8
-P. juridikoak	6.851	6.788	4.961	6.796	25.396	36,2
EAE	122	94	84	68	368	100,0
-P. fisikoak	103	59	49	64	275	74,7
-P. juridikoak	19	35	35	4	93	25,3
MOTAREN ARABERA						
ESTATUAN, GUZTIRA	18.971	19.155	13.741	18.211	70.078	100,0
-Etxebizitza berriak	3.711	2.735	2.252	2.720	11.418	16,3
-Bigarren eskukoak	15.260	16.420	11.489	15.491	58.660	83,7
EAE	**122**	**94**	**84**	**68**	**368**	**100,0**
-Etxebizitza berriak	7	4	17	1	29	7,9
-Bigarren eskukoak	115	90	67	67	339	92,1

Iturria: EINen datuak oinarri hartuta guk geuk egina. Hipoteka-betearazpenen estatistika.

Azken urtean 2008-2012 aldiko joera aldatu egin da; izan ere, aldi horretan kanporatze judizialen kopuruak 1.209tik 2.524ra egin zuen gora. Aldaketa hori gertatu da, beharbada, 2012an bi urteko luzamendua ezarri zelako[9]; hori dela eta, oraingoz ezin da kopuru horien balorazio zabalagorik egin.

Azkenik, BJKNren informazio horrek aukera ematen du kanporatzeak hipoteka-betearazpenen eta Hiri Errentamenduen Legetik eratorritako prozeduren arabera bereiztea, eta, datuen arabera, EAEn 2013an izandako kanporatzeen % 70,7 Errentamenduen Legeari zegozkien eta % 23,7 hipoteka-betearazpenei. Estatuan, ordea, ratioak nahiko desberdinak dira, % 56,7 eta % 38,4, hain zuzen ere, hurrenez hurren.

III.3.9. GRAFIKOA. URTEKO JABE-BOTATZEEN KOPURUAREN BILAKAERA, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA, 2008-2013



Iturria: ETXEBIDE, BJKNren datuekin.

III.3.10. GRAFIKOA. EAEn 2013an GAUZATUTAKO JABE-BOTATZEEN BANAKETA, ARRAZOIAREN ARABERA



Iturria: ETXEBIZITZEN EUSKAL BEHATOKIA, BJKNren datuekin.

3.1.4. Pobrezia energetikoa

III.3.11. KOADROA. POBREZIA ENERGETIKOAREKIN ZERIKUSIA DUTEN PGDIko ADIERAZLE BATZUEN BILAKAERA. BIZTANLE-PORTZENTAJEA

		1996	2000	2004	2008	2012	2014	Ald. % 2012-14	Ald. % 2008-14
Etxea bero edukitzeko arazoak	Intzidentzia	4,2	5,3	5,5	4,1	8,3	11,0	+2,7 pp	+6,9 pp
	Abs.	88.668	110.669	113.664	88.611	180.210	237.526	31,8	168,1
Ordainagiriak ez ordaintzea edo berandu ordaintzea	Intzidentzia	2,0	2,3	2,7	2,9	5,9	6,2	+0,4 pp	+3,3 pp
	Abs.	42.948	48.606	55.769	63.411	127.589	134.673	5,6	112,4
Horniketa-eteteak (ura, argia, telefonoa)	Intzidentzia	0,8	1,1	1,1	1,6	2,4	1,8	-+0,6 pp	+0,1 pp
	Abs.	17.209	21.953	23.940	35.191	52.413	38.255	-27,0	8,7

Iturria: EUSKO JAURLARITZAKO datuekin guk geuk egina. PGDI 2014.

Etxebizitza batean pobrezia energetikoa dute gai ez direnean etxeko beharrak asetzeko energia nahikoa ordaintzeko eta/edo diru-sarreren parte handi bat etxebizitzako energia-faktura ordaintzeko erabili behar dutenean[10]. Euskal Autonomia Erkidegoan gertakari nahiko berria da, baina krisiaren ondorioz gaur-gaurkoa. Europan, ordea, "*fuel poverty*" esaten zaiona agenda politikoan dute aspaldidanik hainbat herrialdetan, Erresuma Batuan, Irlandan eta Belgikan, esate baterako.

9 Hipoteka-zordunen babesa indartzeko presako neurriei buruzko azaroaren 15eko 27/2012 Errege Dekretuan kanporatze judizialak bi urtez luzatu ziren, etxea galtzen duten familien gizarte-drama arintze aldera.

10 Ingurumen Zientzien Elkartea (2015): "Pobrezia energetikoa Espainian 2014" txostena.

Oro har, azken urteetan pobreziaren alderdi horrek okerrera egin du, krisiaren, diru-sarreren jaitsieraren eta faktura energetikoaren igoeraren ondorioz. Zenbateko intzidentzia duen jakiteko, bi gai hartuko ditugu kontuan: batetik, etxea bero ezin edukitzea (eta horri lotutako beste egoera batzuk, hala nola horniketa-eteteak eta fakturak ezin ordaintzea); eta bestetik, familiek faktura energetiko neurrigabea edukitzea, diru-sarrerekin alderatuta.

Hasteko, Eusko Jaurlaritzako PGDIren arabera, 2014an euskal biztanleen % 11k (237.000 biztanlek) etxea bero edukitzeko zailtasunak zituen. Datu hori 2012koa baino % 31,8 handiagoa da, eta krisi aurrekoa baino % 168,1 handiagoa (2008an portzentajea % 4,1 zen). Problematika horrekin zerikusia duten beste adierazle batzuen arabera, 2014an euskal biztanleen % 1,8ri horniketak eten zizkieten (ura, argia, telefonoa) eta % 6,2k ezin zituen etxeko gastuen fakturak ordaindu edo berandu ordaintzen zituen. Egoera horren intzidentzia, beraz, txikiagoa da eta, gainera, aurreko inkestekin alderatuta, badirudi problematika hori ez dela asko okertu.

III.3.12. KOADROA. POBREZIA ENERGETIKOA EUROPAN. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ETA EUROPAREN ARTEKO ALDERAKETA. BIZTANLE-PORTZENTAJEA. 2007-2013.

	ETXEA BERO EZIN EDUKITZEA			ETXEKO FAKTURAK BERANDU ORDAINTZEA		
	2007	2012	2013	2007	2012	2013
EB 28	10,8	10,8	10,8	7,3	10,0	10,1
BELGIKA	14,6	6,6	5,8	4,7	6,1	5,0
BULGARIA	67,4	46,5	44,9	28,8	28,4	34,0
TXEKIAR ERREPUBLIKA	6,1	6,7	6,2	3,8	4,1	4,0
DANIMARKA	10,3	2,6	3,9	1,8	3,6	3,7
ALEMANIA	5,4	4,7	5,3	3,9	3,4	3,6
ESTONIA	3,6	4,2	2,9	4,7	10,9	10,4
IRLANDA	3,5	8,5	:	6,1	17,6	:
GREZIA	13,8	26,1	29,5	15,7	31,8	35,2
ESPAINIA	8,0	9,1	8,0	4,6	7,5	8,3
FRANTZIA	4,6	6,0	6,8	6,4	6,7	6,2
KROAZIA	:	10,2	9,9	:	28,9	30,4
ITALIA	10,4	21,2	19,1	10,4	11,7	12,0
ZIPRE	34,6	30,7	30,5	10,0	18,4	21,9
LETONIA	20,9	19,9	21,1	7,9	22,4	20,7
LITUANIA	22,4	34,1	29,2	8,9	12,6	13,2
LUXENBURGO	0,5	0,6	1,6	2,1	2,2	3,1
HUNGARIA	10,8	14,5	13,7	17,6	24,4	24,5
MALTA	10,2	22,1	23,4	7,2	10,1	11,4
HERBEHEREAK	1,6	2,2	2,9	2,2	2,3	2,4
AUSTRIA	2,6	3,2	2,7	1,9	3,8	4,6
POLONIA	22,7	13,2	11,4	16,7	14,1	14,0
PORTUGAL	41,9	27,0	27,9	5,2	6,3	8,2
ERRUMANIA	32,6	14,6	14,3	8,3	28,6	28,8
ESLOVENIA	4,2	6,1	4,9	11,4	19,3	19,7
ESLOVAKIA	4,6	5,5	5,4	5,7	5,8	5,9
FINLANDIA	1,1	1,5	1,2	4,8	7,9	8,4
SUEDIA	1,8	1,4	0,8	3,2	3,8	4,2
ERRESUMA BATUA	4,5	8,1	10,6	4,5	8,9	8,7
EAE*	**4,1**	**8,3**	**11,0**	**2,9**	**5,9**	**6,2**

Iturria: EUROSTATeko eta Eusko Jaurlaritzaren PGDIko datuekin guk geuk egina.
** EAEko datuak 2008, 2012 eta 2014koak dira.*

EINen bizi-baldintzei buruzko inkestak EAEko eta gainerako erkidegoetako egoera horren intzidentzia alderatzeko aukera ematen du. Eragiketa estatistiko horren arabera, 2013an (azken datua urte horretakoa da) EAEko etxebizitzen % 7,9n (PGDIn pertsonak dira) ezin zuten etxea bero eduki, eta estatuko batezbestekoa % 8 zen. Pobrezia energetikoa duten etxebizitzen portzentaje handienak Galizian (% 13,3), Balear Uharteetan (% 12,4) eta Gaztela-Mantxan (% 11,5) dituzte, eta txikienak Nafarroan eta Gaztela eta Leonen (% 2,4). Aurreko urtearekin alderatuta, EAEko datuak portzentajezko 3,7 puntu gora egin du eta estatuko batezbestekoa puntu bat jaitsi da.

EUROSTATeko datuen arabera, Europan etxea bero edukitzeko zailtasunek Euskal Autonomia Erkidegoan adinako intzidentzia zuten 2013an (dena den, zuhur jokatu behar dugu, eragiketa estatistikoak desberdinak direlako): biztanleen % 10,8k zuen arazo hori, eta tasa antzekoa izan da azken urteetan. EUSTATen datuek aditzera ematen dute 2013an Espainiako biztanleen % 8k zuela arazo hori, eta herrialdeen artean alde handiak zeudela: nabarmentzekoak dira, batetik, Bulgariako % 44,9 eta Zipreko % 30,5; eta bestetik, Europako iparraldeko (Finlandia eta Suediako) % 1en

III.3.11. GRAFIKOA. ETXEKO ENERGIA GASTUA DIRU-SARREREN %10 BAINO HANDIAGOA DEN ETXEBIZITZEN PROPORTZIOAREN BILAKAERA. ESTATUA-EAE.



Iturria: Ingurumen Zientzien Elkartea, EINen datuekin. FAI.

inguruko indizeak. Etxeko fakturen ordainketak atzeratzeari dagokionez, EBko batezbestekoa % 10,1 zen 2013an, Espainian % 8,3 eta EAEn, esan bezala, % 6,2 (PGDIren 2014ko datua aintzat hartuta).

Alde horretatik, EINen "*Familiako aurrekontuei buruzko inkesta*"ren bidez jakin daiteke energiak zenbateko pisua duen estatuko familien gastuan eta, zehazki, zein den diru-sarreren parte handi bat energia-gastuak ordaintzeko erabili behar duten familien portzentajea (horrelakoetan, ongizateak okerrera egiten du).

Inkesta horren arabera, 2012an, Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzetan gastuaren % 3,45 energiari zegokion, elektrizitatea (familien gastuaren % 2,04), gas naturala (% 1,12) eta beste erregai solido eta likido batzuk (% 0,29) barne. Estatuko urte hartako batezbestekoa % 4,26 izan zen; ratio txikiena Kanariar Uharteetan zuten (% 3,12) eta handiena Gaztela eta Leonen (% 6,32).

Ingurumen Zientzien Elkarteak[11] pobrezia energetikoaren adierazletzat diru-sarreren % 10 baino gehiago etxeko energia-gastua ordaintzeko erabili behar duten familien portzentajea hartu du. Euskal Autonomia Erkidegoan portzentaje hori % 8 zen 2012an (2011ko ratio bera da, baina 2007koaren bi halakoa), eta estatuan % 16,6 (aurreko urtean baino portzentajezko 1,6 puntu gehiago eta 2007an baino 10 puntu gehiago). Autonomia erkidegoei dagokienez, 2012an tasa txikiena EAEkoa zen, eta gero Kanariar Uharteetakoa (% 9); tasa handienak, berriz, Gaztela-Mantxan (familien % 35) eta Gaztela eta Leonen (familien % 25etik gora) zituzten.

III.3.13. KOADROA. ETXEBIZITZETAKO ENERGIA-GASTUA: GASTU OSOAREN ALDEKO PROPORTZIOA ETA POBREZIA ENERGETIKOAREN ZENBATESPENA. 2012.

	ENERGIA-GASTUAREN* % GASTU OSOAREN ALDEAN	DIRU-SARREREN % 10 BAINO ENERGIA-GASTU HANDIAGOA DUTEN ETXEBIZITZAK
ESTATUAN, GUZTIRA	4,26	16,6
ANDALUZIA	4,12	18,0
ARAGOI	4,88	19,0
ASTURIAS	4,18	9,0
BALEAR UHARTEAK	4,09	11,0
KANARIAR UHARTEAK	3,12	9,0
KANTABRIA	4,26	17,0
GAZTELA-MANTXA	5,58	35,0
GAZTELA ETA LEON	6,32	26,0
KATALUNIA	4,26	17,0
VALENTZIA	4,04	13,0
EXTREMADURA	5,12	21,0
GALIZIA	4,71	18,0
MADRIL	3,86	13,0
MURTZIA	4,13	18,0
NAFARROA	4,43	19,0
EAE	**3,45**	**8,0**
ERRIOXA	4,90	18,0

Iturria: KAA, EINen datuekin eta guk geuk egina.
**** 045 epigrafean, "Elektrizitatea, gasa eta beste erregai batzuk", elektrizitatea, gas naturala eta erregai solido eta likidoak sartzen dira.***

11 Ingurumen Zientzien Elkartea (http://www.cienciasambientales.org.es/index.php) 1997an sortu zuten eta ingurumen-arazoekin kezkatuta dauden eta arazo horiek aztertzeko eta konpontzeko lan egiten duten ikasle, zientzialari, tekniko eta hainbat diziplinako profesionalek osatzen dute; horiek guztiek ikuspegi desberdinak oinarri hartuta eta diziplinarteko bokazioarekin jarduten dute.

3.2. ARRETA BEREZIA JARTZEA MEREZI DUTEN KOLEKTIBOEN BIZI-BALDINTZAK: GAZTERIA

Gazteen kolektiboko ezaugarri soziologiko, ekonomiko eta kulturalak aldatzen ari dira, neurri handi batean aldaketa demografikoen ondorioz, baina baita gizarte-ingurunearen, banakoen eta kolektiboen portaeren, familia-harremanen eta lan-merkatuko baldintzen aldaketaren ondorioz ere. Mendebaldeko gizarteetako gazteria hiru gertakari hauek oinarri hartuta definitu genezake:

1. Gaztaroa luzatu egin da. Demografoek diote faktore ekonomiko, sozial eta kulturalen ondorioz gazteen bizitzako garaiak, batez beste, luzatu egin direla: ikasketak amaitzea, lanean hastea, familia osatzea eta abar.
2. Bizitza-ibilbideak ez dira linealak. Gaur egun "bizitzako faseak gainjarri" egiten dira: gazteak ikasle eta familiako arduradun izan daitezke aldi berean, baita langile eta lan-eskatzaile ere, eta gurasoekin bizi daitezke; gaur egun gero eta ohikoagoa da egoera horiek txandakatzea.
3. Eredu kolektibo tradizionalak dagoeneko ez dira hain ohikoak eta ibilbide pertsonalak gero eta bereiziagoak dira. Pertsonen familia-, ezkontza- eta langile-egutegia ez dira ohiko ereduen arabera antolatzen eta horrek eragin handia du politika publikoetan.

Gizartean duten partaidetzari buruzko galderan, Europako gazteek erantzun dute, oro har, haien herrialdeetako ekonomia- eta gizarte-bizitzatik eta erabakiak hartzeko foroetatik baztertzen dituztela sentitzen dutela. Europan gazteen erdiak baino gehiagok du iritzi hori (% 57), eta Espainian are gehiagok, % 84k, hain zuzen; izan ere, Grezia baino ez dago portzentaje horren gainetik, Batasunean (2014ko apirileko 395 Eurobarometroko emaitzak dira horiek). Dena den, kapitulu honetan ikusiko dugun moduan, bizimodu pertsonalarekin oso gustura daude eta azken urtean momentuko egoerari buruzko balorazio hobea egin dute.

III.3.12. GRAFIKOA. HERRIALDEKO BIZITZA EKONOMIKO ETA SOZIALETIK BAZTERTUTA DAUDENAREN SENTIMENDUA. EUROPAKO 16 ETA 30 URTE ARTEKO GAZTEAK. 2014.



Iturria: Europako Parlamentua. 2014ko apirileko Eurobarometroa.

III.3.14. KOADROA. EBko GAZTEAK. 15 ETA 29 URTE ARTEKO BIZTANLEAK. 2013.

	BIZTANLERIA 2013	15-29 URTEKO BIZTANLEAK	GAZTE-KOPURUAREN % EB28n	GAZTE-KOPURUAREN % HERRIALDEAN
EB 28	507.162.571	90.810.118	100,0	17,9
BELGIKA	11.161.642	2.050.158	2,3	18,4
BULGARIA	7.284.552	1.281.927	1,4	17,6
TXEKIAR ERREPUBLIKA	10.516.125	1.881.844	2,1	17,9
DANIMARKA	5.602.628	1.040.071	1,1	18,6
ALEMANIA	82.020.578	14.014.593	15,4	17,1
ESTONIA	1.320.174	252.966	0,3	19,2
IRLANDA	4.591.087	865.562	1,0	18,9
GREZIA	11.062.508	1.957.940	2,0	16,8
ESPAINIA	46.727.890	7.508.878	8,3	16,1
FRANTZIA	65.578.819	11.852.690	13,1	18,1
KROAZIA	4.262.140	780.459	0,9	18,3
ITALIA	59.685.227	9.162.927	10,1	15,4
ZIPRE	865.878	204.750	0,2	23,6
LETONIA	2.023.825	392.612	0,4	19,4
LITUANIA	2.971.905	597.242	0,7	20,1
LUXENBURGO	537.039	102.890	0,1	19,2
HUNGARIA	9.908.798	1.806.246	2,0	18,2
MALTA	421.364	86.042	0,1	20,4
HERBEHEREAK	16.779.575	3.072.928	3,4	18,3
AUSTRIA	8.451.860	1.571.760	1,7	18,6
POLONIA	38.533.299	8.072.857	8,9	21,0
PORTUGAL	10.487.289	1.729.988	1,9	16,5
ERRUMANIA	20.020.074	3.709.565	4,1	18,6
ESLOVENIA	2.058.821	354.841	0,4	17,2
ESLOVAKIA	5.410.836	1.133.410	1,2	20,9
FINLANDIA	5.426.674	1.001.766	1,1	18,5
SUEDIA	9.555.893	1.840.840	2,0	19,3
ERRESUMA BATUA	63.896.071	12.582.366	13,9	19,7
EAE	**2.178.949**	**300.994**	**0,3**	**13,7**

Iturria: EUROSTATen eta EINen datuekin guk geuk egina.

3.2.1. Demografia

Herrialde aurreratuetako azken hamarkadatako gertakari sozial eta demografiko nagusia biztanleriaren zahartzea da. Zahartze hori dela eta, adin-piramidearen goialdea zabaldu egin da eta gazteen adin-taldeak pisu erlatiboa galdu du. Duela ehun urte, Europako (eta EAEko) biztanleen erdia 24 urtetik beherakoa zen (mediana) eta batez besteko adina 28 urtekoa. Gaur egun, ordea, batez besteko adina 40 urtetik gorakoa da.

Egiaz, gazteak Europar Batasun osoan ari dira pisua galtzen, baina estatuan eta EAEn prozesu hori beste herrialde batzuetan baino bizkorrago gertatu da. Azken bost urteetan, 15 eta 29 urte arteko gazteen pisu erlatiboa EB-28n % 19,3tik % 17,9ra jaitsi da, estatuan % 19,3tik % 16,1era eta EAEn % 16,4tik % 13,7ra (300.000 biztanle baino gehixeago, 2013an).

Eta Europan gazteak non dauden galdetzen badiogu gure buruari, erantzuna da, noski, biztanle gehien duten herrialdeek egiten dutela gazte-ekarpen handiena Europan. EB-28n 90 milioi gazte zeuden 2013an, eta gazte horien % 70 Alemania, Frantzia, Erresuma Batua, Italia, Polonia eta Espainian bizi zen. Baina, herrialde bakoitzeko biztanle gazteen tasak aztertzen baditugu, ikusiko dugu iparraldeko herrialdeak biztanle gazteen batez bestekoaren azpitik daudela (Polonia eta Erresuma Batua salbu) eta Europako hegoalde eta ekialdeko herrialdeetako biztanlerian dagoela gazte-portzentaje gehien. Alde horretatik, EAEko 300.994 gazteak (2013) Europar Batasuneko gazteen % 0,33 dira; Letonia, Estonia eta Eslovenian, adibidez, gazte-proportzio bera dute. Gure erkidegoan gazte horiek duten pisua % 13,7 da, EBko herrialdeetako txikiena; EAEren ondoren datoz Italia (% 15,4) eta Espainia (% 16,1).

III.3.13. GRAFIKOA. BIZTANLE GAZTEAK (15-29 URTE), TALDEKA (BIZTANLERIA OSOAREN PORTZENTAJEA). AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARTEKO ALDERAKETA (2014).



Iturria: EINen datuekin egina. Etengabeko Erroldа.

Gero, 2014an, EAEko 15 eta 29 urte arteko gazteen kopurua 292.532ra igo zen, eta kopuru hori erkidegoko biztanleriaren % 13,4 da (gizonen kasuan % 14 eta emakumeen kasuan % 12,8); hori, EINen Etengabeko Erroldako datuen arabera. Urtebetean, beraz, gazteen pisu erlatiboa hiru hamarren jaitsi zen. Adin-taldeka, gazteen % 19,7 15 eta 29 urte artekoa da, % 31,4 20 eta 24 urte artekoa eta % 38,9 25 eta 29 urte artekoa.

Datu horiek estatuko beste autonomia-erkidego batzuekin alderatuz gero, ikusten da EAEn gazteek pisu erlatibo oso txikia dutela, Asturiasen baino ez baita txikiagoa (% 12,7). Kontrako muturrean daude, % 17,5eko tasarekin, Andaluzia eta Murtzia.

Gazteen prestakuntza-mailari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Gazteen Euskal Behatokiak zenbatetsi du, EUSTATen 2013ko datuekin, 25 eta 34 urte arteko euskal gazteen % 51k goi-mailako ikasketak dituela (LHII edo unibertsitate-ikasketak), % 40k derrigorrezko hezkuntza ondoko bigarren mailako ikasketak dituela, eta % 9k derrigorrezko ikasketak baino (DBH) ez dituela egin.

Gazteen ikasketa-maila 45 urtetik gorako biztanleenarekin alderatuz gero, ikusten da gazteek haien gurasoek baino prestakuntza-maila askoz handiagoa dutela; egiaz, oinarrizko ikasketak dituzten gurasoen seme-alaben % 40k goi-mailako prestakuntza dute, eta portzentaje hori % 80 da goi-mailako ikasketak dituzten gurasoen kasuan.

III.3.14. GRAFIKOA. GAZTEEN (25-34 URTE) ETA 45 URTETIK GORAKO BIZTANLEEN IKASKETA-MAILEN ALDERAKETA. EAE, 2013.



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, EUSTATen datuekin.

3.2.2. Egoeraren gaineko ikuspegia eta tolerantzia

Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak "*Aurrera begira 2013*" txostenean nabarmendu du EAEko gazteek 10etik 5,1eko nota eman diotela, batez beste, gazteen gaur egungo egoera orokorrari. Puntuazio hori adinak gora egiten duen heinean jaitsi egiten da: 20 urtetik beherako gazteena 6,2 da eta 25 urtetik gorakoena 4,4. Gainera, 30 urtetik gorakoen kasuan, puntuazioa are txikiagoa da, eta, beraz, pentsa dezakegu gazte horien gurasoak are kezkatuago daudela haien seme-alaben etorkizunarekin (kezka gehien 46 eta 62 urte arteko biztanleek dute, 3,8 puntu eman baitizkiote arlo horri). Hurrengo bost urteetan egoera nola bilakatuko denaren gainean gazteek duten usteari dagokionez, % 35ek uste du hobetu egingo dela, % 32k berdin jarraituko duela eta % 30ek okerrera egingo duela.

III.3.15. GRAFIKOA. GAZTEEN GAUR EGUNGO EGOERAREN BALORAZIOA, INKESTA EGINDAKO PERTSONAREN ADINAREN ARABERA. EAE, 2013.



Iturria: EUSKO JAURLARITZAKO Prospekzio Soziologikoen Kabinetea

Haien egoera pertsonalari EAEko gazteek 7,2 puntu eman dizkiote eta, berriz ere, 20 urtetik beherakoek egin dute balorazio onena (7,9 puntu, batez beste); lehen bezala, gazteak zenbat eta helduagoak izan, orduan eta txikiagoa da puntuazioa. Kolektiboen arabera, ikasten eta lanean ari diren gazteek haien egoera pertsonala hobeto baloratu dute (7,5 eta 7,3 puntu, hurrenez hurren), gazte langabeek baino (6 puntu). Etorkizunari begiratzen badiote, gazteen erdiak (% 56) uste du hurrengo bost urteetan haien egoera pertsonalak hobera egingo duela, % 26k berdin jarraituko duela eta % 13k okerrera egingo duela. Berriz ere, gazteenak helduenak baino baikorragoak dira, oro har.

III.3.16. GRAFIKOA. EAEko GAZTEAK: GAZTEEN ARAZO/KEZKA NAGUSIEN BILAKAERA (ERANTZUN ASKOKO GALDERAK). ERANTZUNEN PORTZENTAJEAK.



Iturria: EUSKO JAURLARITZAKO Prospekzio Soziologikoen Kabinetea

Kabineteak, 2015eko martxoan, "*Aurrera begira 2014*" txostena aurkeztu zuen. Txosten hori 2014ko azaroko datuekin egina dago, eta badirudi gazteek gaur egungo egoeraren gainean iritzi hobea dutela: 2013an batez besteko puntuazioa 60 zen eta 2014an 62. Gainera, gogobetetze pertsonalaren indizea 78tik 80ra igo da (100 puntutik).

Horren harian, gazteek dituzten arazo eta kezka nagusiek lan-merkatuarekin dute zerikusia (gazteen % 65ek zerrendan lehenbiziko hiru postuetan jarri dituzte); gero arazo ekonomikoek (% 27) eta hezkuntzak (% 23) kezkatzen dituzte gehien. Orobat, Prospekzio Kabineteak aldian-aldian "*Gazteen argazkiak*" izeneko txostenak egiten ditu (azkena 2013koa da). Txosten horietan ikusten da ekonomiarekin eta lanarekin zerikusia duten gaien inguruan kezka handiagoak dituztela, eta beste gai batzuk, hala nola etxebizitzaren ingurukoak, pisu erlatiboa galdu dutela, krisiaren eraginez. 2013an, ordea, kezka horiek hobera egin dutela dirudi, lan-merkatuaren eta bilakaera ekonomikoaren inguruan itxaropen gehiago dutelako, beharbada. Tesi hori berretsi egiten dute "*Aurrera begira 2014*" txosteneko datuek, 2014ko azaroan galdeketa egindako gazteek, oro har, etorkizuna hobea izango dela uste baitute: 2013an 100etik 64 puntu eman zizkioten gai horri eta 2014ko azaroan, berriz, 74.

Beste gai batzuei dagokienez, Eusko Jaurlaritzaren "*Euskadiko gazteak 2012*" txostenaren arabera, gazteei hainbat gizarte-gairi buruzko galderak egin ondoren, ondorio hauek atera dituzte: gazteen % 87 sexu bereko pertsonak ezkontzearekin ados dago (estatuan ratio hori % 78 da, INJUVEren 2012ko inkesta baten arabera) eta % 73 gaixo sendaezinei hiltzen laguntzearen alde dago, haiek hala eskatzen badute (estatuan portzentaje hori % 77 da). Halaber, gazteen % 81 sexua legez aldatzearen alde dago eta % 79 abortu libre eta borondatezkoaren alde. Oro har, emakumeak gizonak baino baterago datoz eskubide horiek aitortzearekin eta, gainera, ikasketa-maila zenbat eta handiagoa izan, adostasun-maila ere handiagoa da.

Beste gizarte-talde batzuekin bizitzearen gainean gazteek duten jarrerari dagokionez, talde hauek baztertzen dituzte gehien: eskuin muturrekoen edo neonazien kolektiboa (% 62), drogazaleak (% 43) eta ijitoak (% 41). Alde horretatik, 2012an gazteen % 16k adierazi zuen ez zuela atsegin izango etorkinak bizilagun izatea.

III.3.15. KOADROA. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO GAZTEAK: AUZO-INTOLERANTZIAREN BILAKAERA*

	2000	2004	2008	2012	Ald. 2008 /2012	Ald. 2000 /2012
Neonaziak, eskuin muturrekoak	66	56	57	62	+5	-4
Drogazaleak	50	40	46	43	-3	-7
Ijitoak	40	42	43	41	-2	+1
Etorkin atzerritarrak	9	12	15	16	+1	+7
Homosexualak (gay edo lesbianak)	4	7	6	11	+5	+7

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Euskadiko gazteak 2012.
** Kolektibo horietako kideren bat bizilagun izateak ardura diela adierazten duten gazteen portzentajearen bilakaera.*

III.3.17. GRAFIKOA. EAEko GAZTEEK ATZERRIKO PERTSONA-KOPURUAREN GAINEAN DUTEN PERTZEPZIOAREN BILAKAERA.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Euskadiko gazteak 2012.

Datuen bilakaerari begiratuz gero, ikusten da 2008. urtetik gora egin duela kolektibo batzuenganako gutxiespenak, neonazi, eskuin muturreko eta atzerriko etorkinenganakoak, adibidez, eta homosexualenganako mespretxua bikoiztu egin dela.

Etorkinenganako jarrerari dagokionez, denborarekin behera egin du etorkinak hartzea ahal bezainbeste erraztearen alde dauden gazteen portzentajeak, eta jarrera gero eta itxiagoa da. Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoan etorkin gehiegi daudenaren iritzia asko zabaldu da 2000. urtetik (% 12tik 2012ko % 45era).

3.2.3. Lan-mundua

Gazteen eta lan-munduaren arteko erlazioa gai konplexu eta problematiko bihurtu da azken urteetan. Lehenbiziko lana lortzeko borroka, kontratuen behin-behinekotasuna dela eta lan bat baino gehiago bilatu beharra, ikastearekin batera lan egin ala ez erabaki beharra... gai horiek guztiak, lanaren kanpoko elementuak diren arren, erabakigarriak dira gazteriaren eta lan-munduaren arteko elkarrekintzan.

Ziklo ekonomikoek gazteei eragiten die gehien eta, horregatik, krisiak gehien kaltetu duen kolektiboetako bat gazteena da. Egoera horren ondorioak ondo baino hobeto ezagutzen ditugu, ordaindutako lana baita gizarteratzeko eta autoestimua izateko elementu nagusietako bat.

Gaur egun, gazteen (25 urtetik beherakoen) langabezia-tasek, 1993tik etengabe behera egin ondoren (salbu 2003an), gora egin dute izugarri, atzeraldi ekonomikoaren ondorioz.

Gure erkidegoan, gazteen langabezia-maila, 90eko hamarkada hasierako % 50etik 2007ko % 7-8ra jaitsi zen, eta ordudanik gora egin du, 2013an % 39tik gorakoa izateraino (EUSTATen BJAko datuen arabera). 2014ko batezbestekoa ikusita (% 37,3), badirudi joera aldatzen hasi dela, enpleguak gora egin baitu pixka bat. Grafikoan ikusten den moduan, bilakaera hori orokorra da Europan (nahiz eta ez den hain nabarmena), baina Espainian gogorragoa da, 2013an gazteen % 55ek ez baitzuen lanik; dena den, azken urteetan langabezia jaisten hasi da.[12]

III.3.18. GRAFIKOA. EAEko LANGABEZIA-TASAREN BILAKAERA, ADIN-TALDE ESTANDARREN ARABERA



Itiurria: EUSTAT. BJA.

III.3.19. GRAFIKOA. 25 URTETIK BEHERAKO GAZTEEN LANGABEZIA-TASAREN BILAKAERA EUROPAN, ESPAINIAN ETA EAEn



Iturria: EUSTAT . BJA

Gazteena da, zalantzarik gabe, langabezia-maila handiena, adinaren araberako sailetan ikusten den moduan. Gainera, Eusko Jaurlaritzako Gazteen Behatokiak, EUSTATen informazioa oinarri hartuta, gazte-multzo handienaren, hau da, 16 eta 29 urte arteko gazteen langabezia-tasak kalkulatu ditu; izan ere, hori da gazteei buruzko ikerketa soziologiko gehienetan aintzat hartzen den adin-tartea. Hala, Behatokiak egindako kalkuluen arabera, 2014an gazteen langabezia-tasa % 28,5 zen (25 urtetik beherakoena % 37,3), hau da, urteko batez besteko langabezia-tasaren (% 14,9) bi halako. Sexuaren arabera, 30 urtetik beherako emakumeen langabezia-ratioa % 26,7 da, eta gizonena % 30,3. Gainera, aintzat hartutako aldi osoan (2007-2014), gizonen langabezia-intzidentzia emakumeena baino handiagoa da.

Azkenik, lurralde historikoen arabera, Bizkaiko gazteen langabezia-tasak Gipuzkoakoak eta Arabakoak baino handiagoak izan dira, baina 2014an hiru lurraldeek tasa oso antzekoak dituzte: Arabako tasa % 29,2 da (2013tik hiru lurraldeetan handiena da, bai gazteen langabeziari, bai langabezia orokorrari dagokienez), Bizkaikoa % 28,7 eta Gipuzkoakoa % 27,6 (oro har, langabezia-adierazle hobeak ditu). Azken urtean, gainera, langabezia-tasek behera egin dute, salbu Gipuzkoan, lurraldeei dagokienez, eta emakumeen multzoan, sexuari dagokionez.

12 Europako gazteen langabeziari buruzko datu zehatzak zein diren jakiteko, ikusi Memoria Sozioekonomiko honetako II. kapituluko ("Lan-merkatua EAEn") "1.2 Langabezia" atala.

Gazteen Euskal Behatokiak, "Euskadiko gazteen enplegua eta emantzipazioa 2011-2013 aldian" txostenean (2014), kolektibo horren (kasu honetan 18 eta 38 urte arteko gazteen) lan-baldintzen berri emateaz gain, lan-baldintza horiek azkenaldian nola aldatu diren azaldu du; txostena EUSTATen, EINen eta abarren eragiketa estatistikoak baino kualitatibo eta estrukturalagoa da (galdeketen bidez egina). Hona hemen txostenaren emaitza nagusiak:

- Gazteen jarduera nagusia lana zen 2013an, nahiz eta lan egiten zuten gazteen portzentajea jaitsi egin zen 2011tik, % 52,7tik % 45,2ra, hain zuzen ere. Eta portzentaje horrek behera egin zuen, zehazki, gazteen eta ikasleen langabezia-tasek gora egin zutelako: % 19tik % 22,7ra eta % 25,2tik % 27,4ra, hurrenez hurren. 18 eta 24 urte arteko gazteen jarduera nagusia ikastea da (hamarretik sei ikasleak dira) eta 25 urtetik gorako gazteena ordaindutako lana. 25 eta 29 urte arteko gazteen erdiak nagusiki lan egiten du, eta 30 urtetik gorako gazteen multzoan proportzio hori hamarretik seikoa da.
- Baliabide ekonomikoek behera egin dute 2011tik eta gazteen erdiak hileko 600 euro baino gutxiago dauzka (% 44,4tik % 50,7ra igo da). Gainera, lan egiteak ez du ziurtatzen diru-sarrera nahikoa izatea, lan egiten duten gazteen ia laurdenak (% 23,4) hilean 600 euro baino gutxiago jasotzen baititu. Gazteen erdia bakarrik (% 49,8, 2011n baino 3,5 puntu gutxiago) emantzipatu da ekonomikoki eta bizi da bere diru-sarrerekin edo bikotearenekin. Nagusiki bikotearen diru-sarrerekin bizi den emakumeen portzentajea (% 12,2) gizonenaren (% 4,3) hiru halako da.

III.3.16. KOADROA. 30 URTETIK BEHERAKO EUSKAL GAZTEEN LANGABEZIA-TASAREN BILAKAERA. DATUAK LURRALDEEN ETA SEXUAREN ARABERA.

	LANGABEZIA TASA OROKORRA	16 ETA 29 URTE ARTEKO GAZTEEN LANGABEZIA-TASA					
		BATEZ BESTEKOA	BIZKAIA	GIPUZKOA	ARABA	GIZONAK	EMAKUMEAK
2007	3,3	5,7	7,6	3,1	3,8	6,0	5,3
2008	3,8	7,3	8,6	6,6	4,3	7,9	6,6
2009	8,1	16,5	17,1	15,0	17,1	18,5	14,0
2010	9,1	18,4	20,4	14,2	19,8	21,0	15,2
2011	10,8	19,1	23,8	14,6	13,3	21,0	17,1
2012	11,8	23,0	26,4	18,0	21,5	24,4	21,5
2013	14,3	29,2	31,2	24,3	32,9	32,3	26,2
2014	14,9	28,5	28,7	27,6	29,2	30,3	26,7

Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak EUSTATen datuekin egina. BJA.

III.3.20. GRAFIKOA. EAEko GAZTEEN JARDUERA NAGUSIA, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia.

III.3.21. GRAFIKOA EAEko GAZTEEN ENPLEGUAREN BILAKAERA, KONTRATU-MOTAREN ARABERA. DATUAK PORTZENTAJEAK DIRA (2011-2013)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia.

- Lan egiten duten gazteen % 72,9k lanaldi osoa du, baina lanaldi partziala duten gazteen portzentajea % 24,5etik % 27ra igo da 2011tik 2013ra. Egoera hori ohikoagoa da emakumeen kasuan (% 37) gizonen kasuan baino (% 16,9). Arduraldi osoko lana aurkitzeko zailtasuna da arrazoi nagusia kasuen % 62,6an. Familia-betebeharrak direla eta, emakumeek aukeratzen dute batik lanaldi partziala: emakumeen tasa % 10,9 da eta gizonena % 7,8, batez beste. Arduraldi osoa dutenei dagokienez, laurdenak astean 40 ordu baino gehiago lan egiten du.

- Aitortutako batez besteko soldata garbia hileko 1.113,15 eurokoa da eta 2011tik ez da aldatu. Lanaldi partziala dutenen batez besteko soldata 671,40 eurokoa da, eta arduraldi osoa dutenena 1.280,50 eurokoa. Emakumeen soldata, batez beste, gizonena baino 200 euro txikiagoa da.
- Lana duten gehienek diote (% 67,1) lanpostu kalifikatua eta interesgarria dutela; laurdenak (% 26) adierazi du, berriz, haien lanpostua ez dela dagokien kualifikaziokoa, maila txikiagoako baizik (emakumeen % 28,9 eta gizonen % 23,2 dago egoera horretan). Hamar gaztetik seik diote haien lana egonkorra, etorkizun handikoa eta daukaten prestakuntzaren araberakoa dela; zehazki, % 58,2k haien prestakuntzarekin bat datorren lanpostua dute. Ordea, erdiak bakarrik dio ondo ordaintzen dutela.

III.3.17. KOADROA. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO GAZTEAK: ARDURALDI PARTZIALA AUKERATZEKO ARRAZOIAK. DATUAK PORTZENTAJEAK DIRA.

	2011	2013
Arduraldi osoko lana ez aurkitzea	58,4	62,6
Familia-betekizunak izatea	9,4	7,8
Nork bere borondatez edo interesaz hala nahi izatea	14,7	11,8
EEE edo nahitaezko lanaldi-laburtzea izatea	0,0	2,0
Beste arrazoi batzuk	14,9	12,8

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gazteen Euskal Behatokia.

III.3.22. GRAFIKOA. EAEko GAZTEEN PRESTAKUNTZA ETA ENPLEGUA ZENBATERAINO DATOZEN BAT. DATUAK PORTZENTAJEAK DIRA.



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia.

- Gizonen langabezia-tasa (% 26,6) emakumeena baino (% 18,6) handiagoa da; 2013an 34 urtetik beherakoen langabezia-tasa, oro har, % 22,7 zen. 30 eta 34 urte arteko hamar gizonetik hiruk ez du lanik, ezta hamar emakumetik bik ere; beraz, emantzipatzea zaila da, eta zenbaitetan ezinezkoa. Alde horretatik, ikasketa-maila zenbat eta handiagoa izan, langabezia-tasa orduan eta txikiagoa den arren, 2011tik 2013ra langabezia-tasak bigarren mailako edo goi-mailako ikasketak dituztenen multzoan gora egin du: derrigorrezko ikasketak baino ez dituzten gazteen langabezia-tasa % 32,2 da (2011koa bezalakoa), eta bigarren mailako eta goi-mailako ikasketak dituztenenak % 24,4 eta % 19,1 dira, hurrenez hurren (2011koak % 17,4 eta % 13 ziren, hurrenez hurren).

III.3.18. KOADROA. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO GAZTEAK: LANGABEZIA-TASA EGINDAKO IKASKETEN ARABERA (34 URTETIK BEHERAKOAK). DATUAK PORTZENTAJEAK DIRA.

	2011	2013
DERRIGORREZKOAK	32,2	32,2
DERRIGORREZKOEN ONDOKO BIGARREN MAILAKO IKASKETAK	17,4	24,4
GOI-MAILAKOAK	13,0	19,1
GUZTIRA	**19,0**	**22,7**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gazteen Euskal Behatokia.

- Langabeziaren iraupenari dagokionez, hamar gaztetik lauk (% 43,5) urtebete baino gehiago darama lanik egin gabe. Horren harian, luzaroko langabe gehienak gizonak dira (gizonen % 49,4 eta emakumeen % 34,7) eta, ikasketei dagokienez, gehienek derrigorrezko eta bigarren mailako ikasketak dituzte (% 48,2, goi-mailako ikasketak dituztenen % 35,7ren aldean). Gainera, langabe gehienek (% 73,1) ez dute langabeziako prestaziorik jasotzen.
- Lana aurkitzeko aukerei dagokienez, 2013an gazteak 2011n baino ezkorragoak ziren: 2013an lan bila zebiltzan gazte langabeen % 29,8k baino ez zuen espero sei hilabetean lana aurkitzea (2011n % 34,9k). Gauzak horrela, lanbidez aldatzeko prest zeuden gazteen portzentajeak gora egin zuen (% 75,6), baita maila profesional baxuagoko lana onartzeko (% 61,6) eta haien prestakuntzari zegokiona baino soldata txikiagoa onartzeko (% 56,5) prest zeuden gazteen portzentajeak ere. Hala eta guztiz ere, "*Aurrera begira 2014*" txosteneko emaitzen arabera, gazteak itxaropentsuago daude, lana galtzeko edo ezegonkortzeko arrisku handia dutenaren portzentajeak % 39tik % 36ra egin baitu behera azken urtean, eta urtebetean lana aurkituko dutenaren ustea duten gazteen portzentajeak % 54tik % 60ra egin baitu gora.

- Gainera, gazteen % 34,2 munduko edozein lekura joango litzateke lanera, lana interesgarria balitz; portzentaje hori ez da ia aldatu 2011tik. Atzerrira lanera joateko prest daude, batik bat, 30 urtetik beherako gazteak eta gizonak.

Horren harian, Gazteen Euskal Behatokiak euskal gazteen migrazio-mugimenduak aztertu ditu, EUSTATen datuak oinarri hartuta. Ezer baino lehen, kontuan hartu behar dugu mugimendu horiek benetan direnak baino txikiagoak izan daitezkeela, batik bat emigrazioari buruzkoak, kanpora bizitzera joaten direnek ez baitute beti errolda aldatzen. Gerta daiteke, baita ere, hainbat urteko datuak pilatu direnez, gazte batzuk bitan agertzea. Analisi hori egiteko 2000-2011 aldia eta 35 urtetik beherako gazteak hartu dituzte aintzat.

III.3.19. KOADROA. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO GAZTEAK: 2000-2011 ALDIAN ATZERRIRA LANERA JOANDAKO GAZTEAK, JAIOTERRIAREN ETA HELMUGAREN ARABERA

JAIOTERRIA	HELMUGA		
	ESPAINIA	ATZERRIA	GUZTIRA
EAE	57.573	5.300	62.873
ESTATUKO BESTE ERKIDEGO BAT	19.604	639	20.243
ATZERRIA	19.851	6.166	26.018
GUZTIRA	**97.028**	**12.105**	**109.134**

Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak EUSTATen datuekin egina.

III.3.23. GRAFIKOA. ATZERRIRA JOANDAKO EAEko GAZTEAK (18-34 URTE), JAIOLEKUAREN ARABERA



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, EUSTATen datuekin.

Edozein modutan, kalkuluen arabera, 109.134 gazte joan ziren EAEtik kanpo aipatu aldian: % 89 estatuko beste autonomia-erkidego batzuetara eta % 11 atzerrira. Euskadin jaiotakoak bakarrik hartzen baditugu kontuan, 62.873 gazte (% 58) joan ziren EAEtik kanpora lan egitera: % 92 beste autonomia-erkidego batzuetara eta % 8 (5.300 gazte) atzerrira. 2007. urtean joan ziren kanpora lan egitera gazte gehien, 10.619, hain zuzen ere, eta ordudanik EAEtik kanpora joandako gazte-kopuruak behera egin du. Hori, estatuko beste erkidego batzuetara joandako gazteen kopurua jaitsi egin delako, atzerrira joandakoenak gora egin baitu, pixkanaka baina etengabe; izan ere, atzerrira joandakoen pisuak % 19ra egin zuen gora 2011n.

III.3.20. KOADROA.ATZERRIRA JOANDAKO EUSKAL GAZTEEN (18-34 URTE) ITZULTZE-TASA, JOANDAKO LEKUAREN ARABERA. ATZERRIRATUEN PORTZENTAJEA.

	ESPAINIATIK	ATZERRITIK	ITZULTZE-TASA OSOA
2000	46	197	47
2001	53	33	51
2002	43	257	46
2003	44	56	45
2004	42	77	46
2005	47	93	50
2006	40	70	42
2007	39	43	40
2008	45	56	46
2009	54	57	54
2010	50	55	51
2011	62	41	59
GUZTIRA	**46**	**61**	**48**

Iturria: EUROSTATen eta EINen datuekin egina.

Atzerrira joandako gazteen jaiolekuari begiratuz gero, ikusten da atzerrian jaio eta EAEtik kanpora lan egitera joandakoen kopuruak gora egin duela urtetik urtera; gauzak horrela, aipatu aldiaren amaieran, 2011n, EAEtik kanpora joandakoen % 61 atzerrian jaiotakoak ziren.

EAEra etorritako gazteei dagokienez, aintzat hartutako 12 urteetan 185.560 gazte etorri dira, % 54 estatuko beste erkidego batzuetatik eta % 46 atzerritik. Etorkin horien jaioterriari begiratuz gero, ikusten da % 65 atzerrian jaiotakoak direla, % 18 estatuko beste erkidegoren batean jaiotakoak eta % 16 EAEn jaiotakoak. Gazte gehien 2007an etorri zen gurera, eta ordudanik immigrazioak behera egin du, batez ere atzerritik gazte gutxiago etorri direlako.

Informazio horrekin guztiarekin, Gazteen Euskal Behatokiak EAEn jaiotako gazteen itzultze-tasa kalkulatu du, jakin ahal izateko gaitasun pertsonal eta/edo profesionalak hobetzera kanpora joaten diren zenbat gazte itzultzen

diren Euskadira. Hala, ikusi dute EAEn jaiotako gazteen % 48 itzultzen dela Euskadira: estatuko beste erkidego batzuetara joandako euskal gazteen % 46 eta beste herrialde batzuetara joandakoen % 61. Tasa horien bilakaera ez da lineala, urte batetik bestera alde handiak daude. Azken urtean, 2011n, itzultze-tasa % 59 da (estatuko beste autonomia-erkidego batzuetara joandakoen % 62 eta atzerrira joandakoen % 41).

Estatuan, EINen datuek (BAIko 25 urtetik beherako gazteei buruzko 2014ko laugarren hiruhilekoko datuek) gainerako autonomia-erkidegoekin alderatuta euskal gazteen lan-egoera erlatiboa zein den jakiteko aukera ematen dute. Aditzera ematen dute, adibidez, EAEko gazteen jarduera-tasa (% 29,5) estatuko batez besteko tasa baino 10 puntu txikiagoa dela (estatuko autonomia-erkidegoetan txikienetako bat da, Kantabria eta Melillarekin batera). Halaber, Euskadiko gazteen langabezia-tasa estatukoa baino txikiagoa da, biztanleria aktiboarena bezala. Izan ere, aintzat hartutako aldian euskal gazteen langabezia-tasa % 43,2 izan da (ratio hori Nafarroan eta Errioxan bakarrik da hobea): 25 urtetik beherako gizonena % 46,6 eta emakumeena % 40 (estatuko batezbestekoak % 51,6 eta % 52,1 dira, hurrenez hurren).

Soldatako gazteek, lan egiten duten jarduera-sektoreen arabera, pisu gutxi dute EAEko lehen sektoreko enpleguan (% 0,4; estatuko batezbestekoa % 2,9 da), eta industrian, berriz, oso handia (% 21,2; zerrendan hirugarren dago, Errioxaren eta Nafarroaren atzetik). Azkenik, soldatako gazteek eraikuntza-sektoreko enpleguan duten pisua % 4,1 da, eta zerbitzuen sektorean dutena % 74,3 (estatuko batezbestekoa % 77,2 da).

III.3.21. KOADROA. GAZTEEN ENPLEGUAREN ADIERAZLE NAGUSIAK (<25 URTE), ERKIDEGOKA. 2014KO 4. HIRUHILEKOA.

	JARDUERA-TASA	LANGABEZIA-TASA	ENPLEGUAREN % , JARDUERA-SEKTOREEN ARABERA			
			LEHEN SEKTOREA	INDUSTRIA	ERAIKUNTZA	ZERBITZUAK
ESTATUAN, GUZTIRA	39,0	51,8	2,9	15,0	4,9	77,2
ANDALUZIA	40,3	59,0	7,4	9,0	4,9	78,7
ARAGOI	37,8	48,3	2,6	20,4	5,2	71,8
ASTURIAS	31,4	45,5	0,7	18,6	5,7	75,0
BALEAR UHARTEAK	39,8	44,1	0,3	7,3	7,3	85,1
KANARIAR UHARTEAK	38,8	59,0	3,0	4,5	4,6	87,9
KANTABRIA	29,4	47,6	1,6	18,9	4,3	75,2
GAZTELA-MANTXA	33,0	53,5	2,9	17,9	4,9	74,3
GAZTELA ETA LEON	39,7	62,3	4,7	16,0	5,2	74,0
KATALUNIA	44,2	45,9	0,8	20,5	5,3	73,4
VALENTZIA	39,1	50,2	3,1	19,3	4,5	73,1
EXTREMADURA	37,7	56,6	7,9	11,1	5,6	75,3
GALIZIA	31,0	50,0	3,1	17,1	5,6	74,2
MADRIL	41,3	46,4	0,2	9,9	3,9	85,9
MURTZIA	39,4	58,4	11,6	14,6	5,4	68,4
NAFARROA	35,4	39,1	1,3	28,0	4,1	66,6
EAE	29,5	43,2	0,4	21,2	4,1	74,3
ERRIOXA	37,7	42,4	2,1	28,4	6,0	63,5
CEUTA	43,9	71,6	..	2,6	5,2	92,3
MELILLA	26,1	74,6	..	4,4	4,4	91,7

Iturria: EIN. BAI.

3.2.4. Etxebizitza eta elkarrekin bizitzeko moduak

Enpleguarekin batera, etxebizitza da pertsonen emantzipazio-prozesuko elementu nagusietako bat eta, ondorioz, baita gaztaroaren azken garaitik helduaroaren hasiera arteko ibilbidekoa ere. Bi gai horiek (enpleguak eta etxebizitzak, ordena horretan) kezkatzen dituzte gehien EAEko gazteak, tradizioz.

EAEko gazteek laguntza publikoak dituzte eskura lehenbiziko etxebizitzak erosteko, eta garrantzitsuenak dira zerga-arintzeak, interes-tasak eta 30 edo 35 urterainoko amortizazio-aldiak. Ordea, krisi garaian eta langabezia-tasa hain handiekin, gazteek emantzipazio-proiektuak atzeratu egin behar izaten dituzte. Hala, batez beste 30 urterekin joaten dira beren kasa bizitzera, normalean bikote egonkorra dutenean eta/edo ezkontzen direnean, orduan lortzen baitute etxebizitza erosteko kaudimen-maila nahikoa.

Gazteen Euskal Behatokiak "Euskadiko gazteen enplegua eta emantzipazioa 2011-2013 aldian" txostenean azpimarratu zuen 18 eta 34 urte arteko gazteen erdia baino gutxixeago (% 48,1) zegoela emantzipatua 2013an. Alde horretatik, emakumeen emantzipazio-tasa (% 54,5) gizonena baino (% 42) handiagoa da. Helduenei, alegia 30 urtetik gorako gazteei dagokienez, % 20 gurasoekin bizi da.

III.3.22. KOADROA. EBko GAZTEAK. GAZTEEN BATEZ BESTEKO EMANTZIPAZIO-ADINA ETA JATORRIZKO FAMILIAREKIN BIZI DIREN GAZTEEN (18-34 URTE) PORTZENTAJEA. 2013.

	BATEZ BESTEKO EMANTZIPAZIO-ADINA	JATORRIZKO FAMILIAREKIN BIZI DIREN GAZTEEN %
EB 28	26,1	48,2
ESPAINIA	28,9	55,1
EAE	30,0	49,7

Iturria: EUROSTATen eta EUSKO JAURLARITZAren datuekin guk geuk egina.

Galdeketa erantzun duten gazteen iritziz, emantzipatzeko adin hobezina 24 urte da; benetan, ordea, batez besteko emantzipazio-adina 30 urte da, gazteek hobezintzat jotakoa baino sei urte handiagoa eta Europar Batasuneko batezbestekoa baino (26,1 urte) lau urte handiagoa. Europar Batasunean, batez besteko emantzipazio-adin txikiena Suediakoa da (19,9) eta handiena Kroaziakoa (32,7). Espainian, batezbestekoa 28,9 urte da (EUROSTATen 2013ko datuen arabera).

III.3.23. KOADROA. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO GAZTEAK: EMANTZIPATZEKO ARRAZOIAK. DATUAK PORTZENTAJEAK DIRA.

	2011	2013
EZKONTZEA EDO BIKOTEAREKIN BIZITZEN JARTZEA	46,4	39,1
NOR BERE BURUAREN JABE EGIN NAHIA	38,3	34,5
LANA DELA ETA BIZILEKUA ALDATZEA	5,9	9,4
IKASKETAK DIRELA ETA BIZILEKUA ALDATZEA	2,6	8,2
FAMILIAREKIN HARREMAN TXARRAK IZATEA	1,6	1,4
FAMILIAREN ETXEBIZITZAKO BALDINTZAK TXARRAK EDO TAMAINA DESEGOKIA IZATEA	0,8	0,0

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gazteen Euskal Behatokia.

Emantzipatzeko arrazoi nagusiak dira ezkontzea edo bikotearekin bizitzea (% 39,1) eta emantzipatzeko gogoa bera (% 34,5). Lehenbizikoa emakumeek aipatu dute gehien, eta bigarrena gizonek. Gazte gutxi emantzipatzen dira lanagatik edo ikasketengatik, % 9,4 eta % 8,2, hurrenez hurren, nahiz eta portzentaje horiek gora egin duten pixka bat 2011tik 2013ra (portzentajezko 3,5 eta 5,6 puntu, hurrenez hurren).

III.3.24. GRAFIKOA. EAEko GAZTEAK: ETXEBIZITZEN EDUKITZE-ERREGIMENA. DATUAK PORTZENTAJEAK DIRA.



Iturria: Etxebizitzen Euskal Behatokia

Bistakoena da gazte gehienak bikotearekin batera emantzipatzen direla: emantzipatutako gazteen % 44,5 bikotearekin bizi da, eta % 25,9 bikotearekin eta seme-alabekin. Bakarka gazte gutxi irteten dira gurasoen etxetik, eta portzentajeak behera egin du pixka bat 2001tik 2013ra: % 17,6tik % 15,7ra, hain zuzen. Izan ere, etxebizitzen prezioa dela eta zaila da gazteak bakarka bizitzen jartzea, aurrerago ikusiko dugun moduan.

Etxebizitza errentan hartuta emantzipatzen diren gazteen kopuruak gora egin du azken urteetan eta, 2013an, etxebizitza erosita emantzipatu zirenena baino handiagoa zen: 2013an gazteen % 49,4 errentako etxean bizi zen eta % 43,5 jabetzako etxean; gainerakoak (% 6,1) doan lagatako etxeetan, enpresaren etxebizitzetan eta abarretan bizi ziren. Errenta gazteenen eta diru-sarrera gutxien dituztenen multzoetan da ohikoena; dena den, errentako etxeetan bizi diren bost gaztetik batek dio aldi baterako dela eta etxebizitza erosteko asmoa duela.

Horrez gain, babes ofizialeko etxebizitzetan (jabetzako zein errentakoetan) bizi diren gazteen portzentajeak gora egin du: 2011n % 9,9 zen eta 2013an % 15,8. Gainera, 2011tik 2013ra errenta sozialak gora egin du, % 3tik % 7,7ra, zehazki, eta baita babes ofizialeko jabetzako etxebizitzek ere, % 6,9tik % 8,1era, hain zuzen. Lurraldeka, Araban

babes ofizialeko jabetzako etxebizitza gehiago daude errentakoak baino; Gipuzkoan, berriz, alderantziz gertatzen da: errentako etxebizitza gehiago daude jabetzakoak baino. Bizkaian bi portzentajeak antzekoak dira.

III.3.24. KOADROA. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO GAZTEAK: EMANTZIPATZEKO DAUZKATEN ZAILTASUNAK. 2013. DATUAK PORTZENTAJEAK DIRA

	GUZTIRA	SEXUA		ADINA		
		GIZONAK	EMAKUMEAK	18-24	25-29	30-34
ETXEBIZITZA EROSTEA EDO ERRENTAN HARTZEA GARESTIA DA	**75,9**	74,8	77,1	75,8	80,5	72,4
NORK BERE DIRU-SARRERA ITURRIA IZATEKO ZAILTASUNAK	**66,5**	65,8	67,2	75,1	67,9	58,1
BANKU-KREDITUA LORTZEKO ZAILTASUNAK	**66,0**	65,3	66,8	70,5	67,5	61,1
FAMILIA ADOS EZ EGOTEA	**6,7**	7,0	6,5	10,2	6,2	4,3
FAMILIAREKIN EROSO BIZITZEARI UKO EGIN NAHI EZ IZATEA	**13,4**	13,3	13,4	21,0	10,6	9,3

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gazteen Euskal Behatokia.

Edozein modutan, oraindik gurasoekin bizi diren gazteen % 57,4k hiru urtean emantzipatuko denaren ustea du eta, gainera, emantzipatu gabeko gazteen % 22,9 noizbait gurasoen etxetik kanpo bizitakoa da (2011n % 18,4). Gazte horien % 31,8 ikasketak beste leku batean egin ondoren gurasoen etxera bueltatu da, eta % 28,2 arrazoi ekonomikoengatik: lana galdu duelako (% 21,7) edo etxebizitzako gastuak ezin dituelako ordaindu (% 6,4). Horrek esan nahi du euskal gazteen % 3,1ek krisiaren ondorioz bueltatu behar izan duela familiaren etxera, denbora batean beren kasa bizi ondoren (2013an 12.800 gazte, 2011n baino 2.500 gehiago).

Gazteek berek (lautik hiruk) emantzipatzeko antzeman duten zailtasun nagusia etxebizitzen garestitzea da. Gehienek diru-sarrera nahikorik eza (% 66,5) eta kreditua ezin lortzea ere (% 66) aipatu dituzte. Etxebizitza merkeagoak eskuratze aldera, euskal gazteen herena etxebizitza-zerbitzu publikoren batean izena emanda dago (edo egon da). Gazte horien % 6,4k babestutako etxebizitza eskuratu du eta % 2,4k, etxebizitza esleitu dioten arren, uko egin behar izan dio gastuak ezin ordaintzeagatik. Horrek agerian uzten du etxebizitzaren prezioaz gain beste zailtasun batzuk ere badituztela haien buruaren jabe egiteko, esate batera diru-sarrera egonkorrik eza eta banku-krediturik ezin lortzea.

Horren harian, Gazteen Euskal Behatokiak emantzipazioaren kostuari buruzko txosten bat egin du: "Etxebizitza-emantzipazioaren kostua Euskadin *2007-2013*". Txosten horretan gure erkidegoan etxebizitza librea eskuratzeko kostuaren bilakaera aztertu eta estatuko batezbestekoarekin alderatu dute. Hona hemen txosteneko emaitza nagusiak:

- Soldatako gazte batek, bakar-bakarrik bere buruaren jabe egite aldera etxebizitza libre bat erosi nahi badu, hipotekaren lehen hilerokoa ordaintzeko hileko soldata garbiaren % 68,2 beharko du. Lurraldeka, Araban % 54,2, Bizkaian % 60 eta Gipuzkoan % 70,5. Portzentaje hori estatuko batezbestekoa baino (2013an % 50,7) handiagoa da eta, aintzat hartutako aldian aldea murriztu egin den arren, gure erkidegoko batezbestekoa estatukoa baino 10 puntu handiagoa da oraindik ere. Emakumeen kasuan kostua handiagoa da, batez besteko soldata txikiagoak dituztelako, eta baita gazteenentzako ere. Izan ere, 25 urtetik beherakoentzat,

III.3.25. GRAFIKOA ETXEBIZITZA LIBREAK JABETZAN EDO ERRENTAN ESKURATZEKO KOSTUAREN* BILAKAERA. EAEren ETA ESTATUKO BATEZBESTEKOAREN ARTEKO ALDERAKETA



Iturria: Etxebizitzen Euskal Behatokia.
** Hipoteka edo errenta ordaintzeko erabili behar den hileko soldata garbiaren portzentajea.*

bakar-bakarrik jabetzako etxebizitza bat erosteko kostua soldata garbiaren % 100 baino gehiago da. 2007tik 2013ra kostuak behera egin du, prezioak eta interes-tasak jaitsi egin direlako eta soldatak, oro har, ez direlako aldatu. Hala ere, erosketa-kostua ez da % 30era, hau da, arrunki zorpetze-atalase egokitzat hartzen den mailara heldu; gainera, % 40ko atalasearen gainetik dago, eta atari horren gainetik etxebizitza ordaintzeko ahalegin oso handia egin behar da.

Merkatu librean etxebizitza berrien eta bigarren eskuko etxebizitzen artean alde handia dago: etxebizitza berria erosteko soldata garbiaren % 76,9 behar da eta bigarren eskuko etxebizitza erosteko portzentajezko 20 puntu gutxiago (% 57).

- Prezio onargarri handienari dagokionez, kontuan hartuta gazteen batez besteko soldata eta aipatu % 30eko atalasea, prezio hori 2013an 98.644 euro zen, batez beste (emakumeentzat 89.182 euro eta gizonentzat 107.990 euro). Atalase horiek eta etxebizitza libreen urte hartako benetako prezioa (batez beste 206.609 euro) alderatuz gero, ikusten da bi zenbatekoen arteko aldea 100.000 euro baino handiagoa dela.

III.3.26. GRAFIKOA. GAZTEEK ETXEBIZITZA LIBRE BAT EROSTEKO BEHAR DITUZTEN GUTXIENEKO DIRU-SARREREN BILAKAERA (BATEZ BESTEKO SOLDATA GARBIAREN %)



Iturria: Etxebizitzen Euskal Behatokia.

Bestela esanda, etxebizitza libre bat soldataren % 30 baino gehiago gastatu gabe eskuratu ahal izateko, 2013an gazteek batez besteko soldataren bi halako baino gehiago irabazi behar zuten (zehazki % 116 gehiago). Dena den, datua neurriz kanpokoa den arren, gutxieneko diru-sarreren adierazlea hobetu egin da 2007tik, orduan batez besteko soldataren % 238 baitzen.

- Merkatu libreko etxebizitza bat errentan hartzea ere oso zaila da bakarrik bizitzera joan nahi duten gazteentzat: errentako etxebizitza libreen kostua hileko soldata garbiaren % 59 zen 2013an (estatuan % 47,8). Etxebizitzaren prezioarekin egindako kalkulu berak eginez gero, 2013an errenta onargarri handiena 420 euro zen eta batez besteko errenta 825 euro (datuak Etxebizitzen Euskal Behatokiarenak dira).

III.3.27. GRAFIKOA. ETXEBIZITZA ESKURATZEKO KOSTUA (HIPOTEKA EDO ERRENTA ORDAINTZEKO), LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA. 2013.



Iturria: Etxebizitzen Euskal Behatokia.

3.2.5. Bizi-baldintzak

Adina gizarte-egituran desparekotasunak sortzen dituen aldagai erabakigarrietako bat da. Gazteen kolektiboaren osaera heterogeneoa da, baina gazte guztiek, haurrek eta adinduek bezala, gauza bat dute berdin: haien bizitza-zikloa ahula da[13]. Europan (eta Euskadin) gazteen egoerak okerrera egin du krisiaren ondorioz eta kolektibo zehatz batzuen egoera eskasa larriagotu egin da.

Aurreko epigrafeetan ikusi dugu euskal gazte gehienek bizi-kalitate onargarria eta zailtasunei aurre egiteko familia- eta harreman-ingurune egokiak dituztela, nahiz eta gaur egun langabeziak kalte handia egin dien. Alde horretatik, gazte-talde batzuk, hainbat arrazoirengatik (langabeziagatik eta, baita ere, drogazaletasunagatik edo

13 Lasheras Ruiz eta Pérez Eransus (2014): "Jóvenes, vulnerabilidades y exclusión social: impacto de la crisis y debilidades del sistema de protección social". Zerbitzuan aldizkaria, 57, 2014ko abendua.

desgaitasunengatik), desabantailak, zailtasunak eta/edo estualdiak dituzte eta, ondorioz, gizarteak baztertuta edo baztertzeko zorian daude.

Gazteen egoera ekonomikoari eta erosahalmenari dagokionez, "Euskadiko gazteak 2012" txostenak dio gazteen ia laurdenak (% 23) hilean 60 euro baino gutxiago dituela, eta gazteen % 32k hilean 60-300 euro. Beraz, esan dezakegu EAEko gazteen erdiak baino gehiagok (% 55) hilean 300 euro baino gutxiago dituela. Kontrako muturrean, gazteen % 3k hileko 1.550 euro baino gehiago ditu.

Hileko bitarteko ekonomikoetan eragin handiena duen aldagaia, noski, jarduera nagusia da: lan baino egiten ez dutenek dute diru gehien, % 47k hilean 900 euro baino gehiago; nahiz eta lan egin arren hilean 900 euro baino gutxiago dituztenen portzentajea ere antzekoa den, % 45, hain zuzen ere. Horrek aditzera ematen du kolektibo horren soldata-mailak zeintzuk diren. Aitzitik, lanik egiten ez duten ikasle gehienek (hamarretik bederatzik) hilean 300 euro baino gutxiago dituzte. Langabeen multzoan, erdiak baino gehiagok (% 54) hileko 300 euro baino gutxiago ditu. Datu horien bilakaerari dagokionez, diru-sarrera maila handienak dituzten taldeek atzera egin dute eta diru-sarrera txikienak dituztenek bere horretan jarraitu dute edo gora egin dute.

III.3.28. GRAFIKOA. "ZENBAT DIRU IZATEN DUZU HILABETEAN? (EUROTAN)" EAEko GAZTEEN BANAKETA (PORTZENTAJEAK)



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Euskadiko gazteak 2012.

2014ko "Pobreziari eta gizarte-desparekotasunari buruzko inkesta"ko datuen arabera, pobrezia- eta estutasun-egoerak gazteenek bizi dituzte batik bat, aintzat hartutako bazterketa-arlo guztietan. Gauzak horrela, mantentze-pobreziaren, hau da, funtsezko premiak asetzeko diru-sarrera nahikorik ez edukitzearekin zerikusia duen pobreziaren tasa % 10,2 zen 2014an 15 eta 24 urte arteko gazteen multzoan, eta % 8,6 25 eta 34 urte artekoen multzoan; kontuan hartu beharra dago, alde horretatik, mantentze-pobreziaren tasa orokorra % 8,2 zela. Gainera, gazteenen multzoan pobreziaren dimentsio horren intzidentzia ia bi puntu igo da 2012tik; 25 urtetik gorakoen multzoan, ordea, hobera egin du. Metatze-pobreziari, hau da, epe ertain eta luzera bizi-baldintza onargarriei eusteko gaitasunik ezarekin zerikusia duen pobreziari dagokionez, aintzat hartutako bi adin-multzoak % 2ko batezbestekoaren gainetik daude (ratioak % 3 eta % 2,3 dira, hurrenez hurren) eta, gainera, azken biurtekoan egoerak okerrera egin du.

III.3.29. GRAFIKOA. BENETAKO POBREZIAREN TASAREN BILAKAERA EAEn, ADIN-TALDEEN ARABERA



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. PGDI.

Azkenik, benetako pobreziak arlo batzuetako bizimodu egokiak beste arlo batzuetako gabeziak orekatzen ez dituen egoerak islatzen ditu, eta, mantentze-pobreziarekin gertatu den bezala, gazteenen multzoan intzidentziak gora egin du (% 7,2tik % 8,7ra) eta helduenen multzoan behera (% 87tik % 7ra); hala eta guztiz ere, bi portzentajeak batezbesteko orokorraren (% 5,9) gainetik daude. Benetako ongizaterik ezaren intzidentziarekin ere gauza bera gertatu da: bi adin-multzoetan batezbestekoa baino handiagoa da (benetako ongizaterik eza gure gizartean espero den ongizate-mailari eusteko ezinbestekoak diren gastu-premiei lotua dago).

Gainerako adin-taldeei dagokienez, aintzat hartutako tartetik gorakoek zein beherakoek, alegia 35 eta 44 urte artekoek eta 15 urtetik beherakoek, pobrezia-tasa handiak dituzte arlo guztietan; horrek esan nahi du, beharbada, gazte "helduenek" eta haien seme-alabek pobrezia- eta estutasun-egoera larriagoak bizi dituztela.

Eta pobreziak eragin gehien duen kolektiboak zeharka aztertuz gero, ideia hori sendotu egiten da: familiako pertsona nagusiaren adina aintzat hartuz gero, mantentze-pobreziak 35 urtetik gorako buruak dituzten familiei eragiten die gehien, eta metatze-pobreziak eta benetako pobreziak 35 eta 44 urte arteko buruak dituzten familiei.

Azpikolektiboak karakterizatuz gero, ikusten da pobreziak 45 urte baino gutxiago eta lanpostu ezegonkorrak dituzten emakumeak buru diren familietan duela intzidentzia gehien (% 50,3; talde guztietako benetako pobrezia-tasa handiena da, nahiz eta aurreko urteetan baino txikiagoa izan), eta baita bakarrik bizi diren eta 45 urte baino gutxiago eta lanpostu ezegonkorra duten emakumeen multzoan ere (% 22,5; 2012an % 16,1).

III.3.25. KOADROA. 2014ko PGDIko POBREZIA-ADIERAZLEAK: ADIN-TALDEEN ARABERAKO INTZIDENTZIA (%).

	< 15	15-24	25- 34	35-44	45-54	55-64	65 ETA GEHIA-GO	GUZTI -RA
MANTENTZE-POBREZIA	13,7	10,2	8,6	10,1	8,0	7,1	2,2	8,2
METATZE-POBREZIA	4,1	3,0	2,3	2,7	1,2	0,6	0,8	2,0
BENETAKO POBREZIA	11,1	8,7	7,0	8,0	4,7	3,8	0,8	5,9
BENETAKO ONGIZATERIKEZA	17,1	16,3	13,7	14,5	10,3	7,5	4,9	11,5

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. PGDI 2014.

III.3.30. GRAFIKOA. EAEko FAMILIEN BENETAKO POBREZIAREN TASAREN BILAKAERA, PERTSONA NAGUSIAREN ADINAREN ARABERA



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. PGDI.

3.2.6. Gazteen inguruko politika

Europar Batasunean, gazteen inguruko politika mende honen hasieran bultzatu zen, Europako Batzordeak "Europako gazteentzako bultzada berri bat" liburu zuria (2001) onartu zuenean. Liburu horren asmoa zen gazteen arloan Europan lankidetza-esparru bat sortzea eta garatzea, estatu-kideentzako koordinazio-metodo ireki bat aplikatuta. Duela gutxi arlo horretan Europan elkarlanean aritzeko esparru berritu bat sustatu dute, 2010-2018 aldirako, bi helbururekin: batetik, aukera gehiago sortzea eta hezkuntzan eta lan-merkatuan berdintasuna sustatzea; eta bestetik, herritar aktiboak, gizarteratzea eta elkartasuna bultzatzea.

Euskadin, gazteen inguruko politika autonomia-erkidegoaren ardura da, eta Eusko Jaurlaritza 90eko hamarkada amaieran hasi zen politika hori planifikatzen, I. Gazte Plana (1999-2001) medio, gazteen kolektiboari gizarteratzeko bitarteko egokiak eskaintze aldera. Aurrerago II. Gazte Plana (2002-2005) egin zuten, sektore- eta erakunde-arteko plan partizipatiboa, gazteriaren arloko benetako politika integral bat sustatzeko asmoarekin. “Aldi baterako neurriak” ezartzeko aldi baten ondoren, 2014ko amaieran, Eusko Jaurlaritzak hirugarren plan bat jarri du martxan, ikuspegi bikoitzarekin. Batetik, 2020ra arte gauzatzeko esparru orokor eredugarri bat sortu dute, non euskal herri-administrazioen gazteria-arloko jardueren oinarri izan behar duten esku-hartze ildo eta jarraibideak bildu dituzten. Eta bestetik, III. Gazte Plana (2014-2016) antolatu dute, epe motzerako ildo orokorrak garatu eta zehaztuta.

III.3.31. GRAFIKOA. EUSKO JAURLARITZAK GAZTEEN INGURUKO POLITIKETAN EGINDAKO GASTUAREN BILAKAERA (MILIOI EUROTAN)



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gazteen Euskal Behatokia.

Aldi horretan (2002-2012), plan horietan eta II. eta III. planen artean hartutako neurrietan 1.405 milioi euro inbertitu dituzte, hau da, urtero 128 milioi euro, batez beste. Gainera, gazteen arloan esku hartzen duten Gobernuko sailek ia 1.300 ekintza zehatz gauzatu dituzte. Egindako gastuari buruzko azken datuak (behin-behinekoak) 2012koak dira eta, datu horien arabera, gazteen arloko politikan 154,94 milioi euro jarri zituzten (aurreko urtean baino % 14,5 gehiago) eta 84 ekintza edo ekimen zehatz gauzatu zituzten. Alde horretatik, sail aktiboenak Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila (86,9 milioi euro) eta Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila (31,7 milioi euro) dira, bien artean egikaritutako gastuaren % 76 egin baitute.

4. OSASUNA ETA OSASUN-SISTEMA[1]

4.1. OSASUN EGOERA

4.1.1. Bizi-itxaropena

Bizi-itxaropena[2] da herrialde edo eskualde batean dagoen ongizate maila zehazteko gehien erabiltzen diren adierazleetako bat. Izan ere, herrialde garatuetan pixkanaka handituz joan da adierazle hori, gehienbat medikuntzaren arloan izandako aurrerapenengatik eta berrikuntza teknologikoengatik. Horren ondorioz, egoera berria sortu da, non gora egiten duen adinekoen populazioak eta, horrekin, batera, zahartzearen berezko gaixotasunek, mendetasuneko erlazio berriek eta gizarte-osasuneko arretaren eskariak, baita horrek guztiak dakarren gastuak ere.

EUSTATen *Osasunaren egoera 2014* txostenaren arabera, bizi-itxaropena etengabe handitu da EAEn, bai gizonezkoetan, bai emakumezkoetan. Berez, 1975 eta 2010 bitartean 9,3 urtez handitu da gizonezkoen bizi-itxaropena (69,6 urtetik 78,9 urtera) eta emakumeena, berriz, 8,5 urtez (76,9 urtetik 85,4 urtera). Gizonek urtean 3,2, hilabete gehiagoko bizitza lortu dute; emakumeek, berriz, 2,9 hilabetekoa. 6,6 urtez murriztu da bi sexuen arteko bizi-itxaropenaren aldea, orain dela 20 urte izan zen gehieneko 8,7tik.

Halaber, 2025erako[3] bizi-itxaropenaren proiekzioek agerian uzten dute gorako joerari eutsiko zaiola, baita euskal populazioa urte gehiagoz biziko dela ere. 82,6 urtekoa izan da gizonezkoentzat eta 88,4 emakumezkoentzat 2025. urtean, eta emakumeen eta gizonen arteko aldea txikiagoa izango da, 2010eko 6,5 urtetik 2026ko 5,8 urtera hain zuzen ere.

Testuinguru honetan, osasun-adierazle klasikoak, hilkortasunean bakarrik oinarritzen direnak, mugatuak dira biztanleriaren osasun egoeraren bilakaera deskribatzeko. Beharrezkoa da jakitea hilkortasunaren murrizpenarekin batera biztanleriaren osasun maila gehitu den, edo erikortasun eta ezintasun handien kontura gehitu den. Horretarako, biztanleriaren hilkortasuna ez ezik erikortasun edo ezintasun esperientzia aintzat hartzen dituzten osasun adierazleak erabiltzea beharrezkoa da.

III.4.1. GRAFIKOA. BIZI-ITXAROPEN EAE-N



Iturria: EAEko Osasunaren Inkesta 2013

Zentzu horretan, biztanleriaren osasun egoeraren indizeak, hala nola ezintasunik gabeko bizi itxaropena (EGBI) hilkortasunean eta ezintasunean oinarritua- egiteak, neurri bakar batean iraupena ez ezik bizi kalitatea ere laburbiltzea ahalbidetzen du.

Ezintasunik gabeko bizi-itxaropena (EGBI) adierazle sintetikoa da, hilkortasunaren eta ezintasunaren datuak uztartzen dituena, eta adin jakin bateko pertsona batek ezintasunik gabe bizi izatea espero duen urte kopurua zenbatesten du, betiere garaiko sexuaren eta adinaren araberako hilkortasunaren tasek eta ezintasunaren prebalentziak egonkor eutsiko baliote bizitzako gainerako urteetan.

1 Gure 2012ko MSEra jo beza irakurleak aurten landu ez diren alderdi hauei buruzko informazioa lortzeko: Hilkortasuna, Ospitale Estatistikak, Ospitalez Kanpoko Estatistikak, besteak beste.

2 Jaiotzeko bizi-itxaropenak adin jakin bateko pertsonak batez beste izango lukeen urte kopurua adierazten du, garaiko hilkortasunaren menpe balego bizitzako gainerako urteetan.

3 Iturria: EUSTAT. Proiekzio demografikoak 2025

EAEko 2013ko Osasunaren Inkestaren datuen arabera, ezintasunik gabeko bizi-esperantza 69,3 urtean kokatu zen gizonezkoetan 2013an; emakumezkoetan, berriz, 73,1 urtean. 2007aren aldean, 0,3 urtez murriztu da EGBI gizonezkoetan eta 1,8 emakumezkoetan. Ezintasunarekin bizi izandako urteek, berriz, 1,7 urtez egin dute gora gizonezkoetan eta 3,1 urtez emakumezkoetan.

4.1.2. Heriotza-tasa

Heriotza tasa gordina eta umeen heriotza tasa asko erabili ditu nazioarteko komunitateak biztanleriaren osasun adierazle gisa eta, zeharka, garapen sozioekonomikoaren adierazle gisa.

III.4.1 TAULA. HERIOTZAK SEXUAREN ARABERA

	GUZTIRA			URTEBETEZ AZPIKOAK		
	Guzt.	Gizonak	Emak.	**Guzt.**	Gizonak	Emak.
2009	**19.624**	10.232	9.392	**57**	35	22
2010	**19.357**	10.045	9.312	**52**	25	27
2011	**19.832**	10.296	9.536	**50**	14	36
2012	**20.281**	10.352	9.929	**48**	23	25
2013	**19.692**	10.186	9.506	**37**	24	13
Ald. 12-13	**-589**	-166	-423	**-11**	1	-12
Ald %.12-13	**-2,9**	-1,6	-4,3	**-22,9**	4,3	-48,0

Iturria: EUSTAT. Heriotzen estatistika.

EUSTATen Heriotzen Estatistikaren datuen arabera, 2013. urteko heriotzen behin-behineko kopurua 19.692 izan zen. Haietatik 10.186 gizonak izan ziren eta 9.506 emakumeak. Hortaz, 2012an baino 589 heriotza gutxiago gertatu ziren, hots, %2,9 gutxiago. Sexuaren ikuspegitik gertatu da aipaturiko jaitsiera hori. Hala, gizonezkoen heriotza kopurua 166 jaitsi da (%-1,6) eta emakumeena, berriz, 423, hots, %4,3.

Haurren heriotza-tasak (urtebetez azpikoak) beheranzko joera du: 2008ko 54 heriotzatik 2013ko 37 heriotzara.

Alabaina, sexuaren araberako bereizketa eginez, beheranzko joera hori ez da homogeneoa, eta urteko aldaketak ditu.

Heriotzetako asko adin handienetako tarteetan gertatzen dira, prebentzioan eta gaitzen tratamenduan egindako aurrerapenen ondorioz. Bestela esanda, biztanleak "laugarren adina" deritzonera iritsi dira Izan ere, 80 urtetik gorakoei dagokie, 2013an, heriotzen %61,6. Hala, 80-89 urtekoen taldeko heriotza kopurua 7.569; 90-99 urtekoetan, 4.291; eta 99tik gorakoetan, berriz, 267; eta 110etik gorakoetan 1 da.

EAEko heriotza gehienak, inguru sozioekonomiko bereko herrietan legez, gaixotasun ez transmitigarrien ondorioz gertatzen dira, gaixotasun kardiobaskularrak eta tumoreak gehienbat.

Berez, EUSTATen datuen arabera, 2007tik hasita, heriotza gehienak tumoreen ondoriozkoak izan dira eta zirkulazio sistemako gaixotasunen ondoriozkoak ondoren, aurreko urteetan ez bezala, zirkulazio sistemako gaixotasunek eragiten zutenean heriotza gehien. 2013an, tumoreengatiko heriotzak guztizkoaren %31,2 dira eta zirkulazio aparatuko gaixotasunen ziozkoak, berriz, %27,5.

III.4.2. TAULA. HERIOTZEN BILAKAERA ADINIK HANDIENEKO TARTEETAN

Adina	2009	2010	2011	2012	2013
80-89	7.390	7.392	7.699	7.845	7.569
90-99	3.617	3.795	3.829	4.328	4.291
100-109	254	205	251	289	267
>110	-	-	-	-	1

Iturria: EUSTAT. Heriotzen Estatistika.

III.4.3. TAULA. HERIOTZAK KAUSAREN ARABERA									
	EAE								
	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	
								n	%
Guztira	**18.507**	**19.252**	**19.437**	**19.624**	**19.357**	**19.832**	**20.281**	**19.692**	**100,0**
Tumoreak	5.580	5.812	5.811	5.950	6.021	6.261	6.149	6.143	31,2
Zirkulazio sistema	5.615	5.710	5.692	5.799	5.675	5.655	5.736	5.408	27,5
Arnas sistema	1.739	1.854	1.941	1.841	1.691	1.758	1.915	1.869	9,5
Digestio sistema	949	990	979	940	898	946	956	942	4,8
Kanpoko kausak	697	734	711	677	653	683	715	740	3,8
Beste gaitz guztiak	3927	4.152	4.303	4.417	4.419	4.529	4.810	4.590	23,3
Hiltzeko arrazoi ohikoenen arteko portzentajezko banaketaren bilakaera:									
Tumoreak	30,2	30,2	29,9	30,3	31,1	31,6	30,3		31,2
Zirkulazio sistema	30,3	29,7	29,3	29,6	29,3	28,5	28,3		27,5

(p) Behin-behineko datua.Iturria: EUSTAT. Heriotzen estatistika.

4.1.3. Osasun mentala

Osasuna erabateko ongizatea da, ez delako bakarrik osasun-arazorik edo gaixotasunik ez izatea, baizik eta ongizate fisikoa, mentala zein soziala izatea ere (OME).

Osasun mentalaren kontzeptuen barnean, ongizate subjektiboa, autonomia, ahalmena, belaunaldien arteko mendetasuna eta maila intelektualean eta emozionalean errealizatzeko gaitasuna onartzea daude. Osasun mentala ongizatearekin lotzen da, eta horren bidez, banakoek beren gaitasunak onartzen dituzte eta bizitzako ohiko estresari aurre egiteko gai dira, baita lan produktiboa eta emankorra egiteko eta beren komunitateetan ekarpenak egiteko ere.

Osasunaren Munduko Osasunak dioenez, populazioaren %25ek baino gehiagok izan du bizitzako uneren batean buruko edota jokabideko gaitzen bat, eta gero eta ageriagoa da funtzio mentalak funtzionamendu fisikoarekin eta sozialarekin eta osasun egoerarekin lotuta daudela. Adibidez, depresioa arrisku faktorea da minbizian eta bihotz-hodietako gaitzetan.

Nabarmentzekoa da ere, 1990ean eginiko zenbatespenen arabera, polo bakarreko depresio gaitzak direla ezintasunarekin edo osasun txarrarekin bizi izandako urteen laugarren kausa mundu mailan, eta 2020rako aurreikuspenen arabera, bigarren kausa izango da, kardiopatia iskemikoen atzetik. MOEren Euro A zonalde kasu zehatzean, ezintasunarekin edo osasun txarrarekin bizi izandako urteen kausa nagusia zen 2000an.

III.4.4. TAULA. ANTSIETATE ETA DEPRESIO SINTOMEN PREBALENTZIA EAE-N, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA (%). 2002-2013			
	2002	**2007**	**2013**
Gizonak	**11,5**	**10,5**	**15,5**
15-24	8,4	7,5	10,0
25-44	10,1	8,9	13,9
45-64	13,5	12,3	16,8
65-74	11,7	9,9	14,9
>=75	18,0	16,8	23,9
Emakumeak	**17,4**	**20,0**	**24,3**
15-24	14,4	15,9	18,4
25-44	15,3	16,2	21,5
45-64	18,7	21,7	23,1
65-74	20,2	23,4	29,7
>=75	22,2	27,5	32,7

Iturria: EAEko Osasunaren Inkesta 2013

Ezin egin daiteke EAErekiko alderaketarik zeren eta, momentuz, informazioa ez baitago eskuragarri. Alabaina, osasun mentala aztertuko dugu epigrafe honetan, depresio eta antsietate sintomenen prebalentzian neurtua.

EAEko Osasunaren Inkesta 5 urterik behin argitaratzen da, eta azken edizioa 2013koa da. Horren datuen arabera, okerrera egin du sintoma horien prebelantziak[4] emakumezkoetan. Izan ere, azken urteetan gora egin du depresio eta antsietate sintomak dituzten emakumeen portzentajeak, hain zuzen ere 2002ko %17,4tik 2013ko %24,3ra.

Gainera, depresio sintomak areagotu egin dira adin goiztiarragoetan, eta 25-44 urte bitarteko emakumeen %21,5i eragiten diote. Gizonezkoetan, berriz, adin handiagoetan du eragina: 75 urte eta gehiagokoen %24. Gizonen eta emakumeen arteko tarterik handiena 65-74 urte bitarteko adinetan dago, non aldea ia %5ekoa baita (gizonezkoen %14,9; emakumeena, berriz, %29,7).

4 Une edo aldi jakin batean, ezaugarri jakin bat duten talde edo populazio bateko banakoen ratioa.

Orain pertsona bakoitzaren talde sozioekonomikoaren aldagaia sartu[5] eta taldearen arabera alderik dagoen ikusiko dugu.

I. 10 soldatapeko edo gehiago dituzten establezimenduetako zuzendariak eta gerenteak eta unibertsitateko lizentziaturarekin lotuta egon izan diren profesionalak.
II. 10 soldatapeko edo gehiago dituzten establezimenduetako zuzendariak eta gerenteak eta unibertsitateko diplomaturekin lotuta egon izan diren profesionalak eta laguntza teknikoko beste profesional batzuk. Kirolariak eta artistak.
III. Bitarteko lanak eta bere konturako langileak.
IV. Lan tekniko espezializatu edo erdi espezializatuetako ikuskariak eta langileak.
V. Trebatu gabeko langileak.

Antsietate eta depresio sintomek talde sozioekonomikoen arabera duten prebalentziaren azterketak erakusten duenez, oro har, bakanagoak dira egoera hobean dauden gizarte taldeetan. Alabaina, sexu aldagaia sartuta ikusten denez, joera hori pixka bat aldatzen da, zeren eta eragin handiagoa baitute lehen taldeko emakumeengan II. Taldekoetan baino. Halaber, aipaturiko sintomak gehien jasaten dituzten emakumeen proportzioa gizonezkoena baino handiagoa da talde sozioekonomiko guztietan, azterketan nabarmentzen denez.

III.4.5. TAULA. ANTSIETATE ETA DEPRESIO SINTOMEN PREBALENTZIA EAE-N, SEXUAREN ETA TALDE SOZIOEKONOMIKOAREN ARABERA (%). 2002-2013

	2002		2007		2013	
	Gizona	Emak.	Gizona	Emak.	Gizona	Emak.
GUZTIRA	**11,5**	**17,4**	**10,5**	**20**	**15,5**	**24,3**
I TALDEA	6,8	12,8	8	12	8,7	19,3
II TALDEA	10,3	15,3	11,3	15,7	13,8	16,7
III TALDEA	11,6	16,7	11,2	18,9	15,1	21,6
IV TALDEA	11,8	18,3	9,3	22,3	16,2	27,2
V TALDEA	14,7	21,5	15,6	24,1	23,4	29,2

Iturria: EAEko Osasunaren Inkesta 2013 eta EUSTAT

4.2. FAKTORE ERABAKIGARRI EZ MEDIKOAK

Pertsonen osasunean eragina izan dezakete beren bizi-ohiturek, hau da, beren portaera eta jarrerek, osasuntsuak diren edo ez diren neurrian.

Elikadura orekatua eta bestelako ohitura osasungarriak (esaterako, ariketa fisikoa, beharrezko ordu kopurua lo egitea, tabakorik ez erretzea, edari alkoholdunak neurrian hartzea, besteak beste) lagungarriak dira gaitz ugariren kontrako aurrezaintzan (bihotz-hodietakoak, minbizi motaren bat, obesitatea, metabolismo gaitzak, txantxarra, osteporosia eta inmunitate sistemaren zenbait gaitz).

EAEn, estatistika ofizialaren barruan, hiru informazio iturri daude, gure gizarte eta osasun errealitatearen ezaugarriak aztertzen dituztenak, eta bost urtean behin argitaratzen dira. Hauexek dira: Osasun Inkesta, Bizi Baldintzen Inkesta, eta Denbora Aurrekontuen Inkesta. Hala eta guztiz ere, epigrafe honetan interesatzen zaigun osasun alderdia haietako lehenengoan neurri eta xehetasun handiagoz aztertzen da.

5 Orainean edo iraganean ordaindutako lanaren arabera esleitu zaie (bizitzan inoiz izan duten ordaindutako lana) talde sozioekonomikoa pertsona guztiei). Horrelako lanik izan ez duten pertsonei, berriz, haien pentzura bizi den (bikotekideak, amak, aitak, etab.) pertsonari dagokion talde sozioekonomikoa esleitu zaie). Lanen Sailkapen Nazionalaren hiru digituen kodetzea oinarri hartuta egiten zaio talde bakoitzari (bost) esleipena. Sailkapen hori 2011n sartu zen indarrean (CNO-11), Espainiako Epidemiologia Elkartearen (EEE) erabakigarrien Lan-taldeak proposatua.

4.2.1.Elikadura ohiturak

Elikadura ona izateko modurik egokiena eguneroko eta asteko dietan askotariko elikagaiak sartzea da. Espainiako Komunitate Elikadurako Elkarteak (EKEE) eta Espainiako Familia eta Komunitate Medikuntzaren Elkarteek Elikadura Osasungarriaren Piramidea osatu zuten.

Adituek diotenez, Dieta Mediterraneotik hurbil dauden elikatze-motak heriotza-tasa txikiagoarekin lotzen dira, zeinen ezaugarri nagusia frutak, barazkiak eta lekaleak diren, animalia-koipearen eta opil industrialaren kontsumo txikiarekin batera, batez ere bihotz-hodietako patalogiari dagokionez.

III.4.2. GRAFIKOA. HELDUENTZAKO ELIKADURA OSASUNGARRIAREN PIRAMIDEA, EKEFME-REN ARABERA



Iturria: Espainiako Komunitate Elikaduraren Elkartea eta Espainiako Familia eta Komunitate Medikuntzako Elkartea

EKEEk egun guztietan jatea gomendatzen dituen elikagaietatik, EAEko 2013ko Osasunaren Inkestako datuek erakusten dute populazioaren %77 inguruk kontsumitzen duela ogia egunero eta %66k fruta. Alabaina, eguneroko kontsumorako gomendaturiko beste elikagai bat, barazkiak, lantzean behingo kontsumorako gomendaturiko beste batzuen azpitik dago, gozokien azpitik adibidez (%27, %33aren aldean).

Astean hainbat alditan hartu beharreko beste elikagai batzuen artean, okelaren kontsumoa nabarmentzen da. Populazioaren %50,4k astean hiru aldiz ego gehiagotan jaten du okela, eta horren atzetik pasta, arroza, patatak eta arraina daude. Lekaleak, Dieta Mediterraneoaren funtsezko elikagaiak, gehienbat asten behin edo bi aldiz kontsumitzen dira (%55,7).

Bestalde, genero aldeak antzematen dira elikadura ohituretan; gizonek, dirudienez, okela eta hestebeteak kontsumitzeko joera handiagoa dute. Emakumeek, berriz, frutak, barazkiak eta arrain gehiago jaten dituzte hestebeteak eta gozokiak baino.

III.4.3. GRAFIKOA. ELIKADURA OHITURAK. POPULAZIOAREN PROPORTZIOA



Iturria: EAEko Osasunaren Inkesta 2013

III.4.6. TAULA. ELIKADURA OHITURAK, POPULAZIOAREN PROPORTZIOA

	Gizonak	Emak.	Guztira
Ogia egunero	78	75,7	76,8
Pasta/arroza/patatak astean behin/birritan	45,5	46,4	45,9
Fruta egunero	61,1	70,1	65,7
Barazkiak egunero	20,9	32,4	26,9
Lekaleak astean behin edo birritan	56	55,5	55,7
Arraina astean hiru aldiz baino gehiago	37,4	44,2	41,2
Okela astean hiru aldiz edo gehiago	53,2	47,8	50,4
Arrautzak astean behin/birritan	52,4	52,6	52,5
Hestebeteak astean behin/birritan	66,1	47,5	53,5
Hestebeteak astean behin edo inoiz ez	33,9	52,5	46,5

Iturria: EAEko Osasunaren Inkesta 2013

4.2.2. Obesitatea

Pisuarekin loturiko daturik kezkagarriena obesitateari dagokio; izan ere, heriotza kasu ugarirekin eta gaitzekin lotzen da (bihotz-hodietakoak; hipertentsioa; diabetesa; bularretako, koloneko eta prostatako minbizia), zeren eta osasun arazo hori izateko probabilitate handiagoa baita gizenegi dauden pertsonen artean.

Adituen arabera, gaitz anitz dituzten adineko pertsona obesoak daude, eta hona hemen gehien izaten dituzten gaixotasunak: arteriosklerosia, hipertentsioa, tromboflebitisa (istripu tronboenbolikoak, giltzurrunetako esklerosia, mellitus diabetesa, kolelitiasisa eta artikulazioen endekapen-gaixotasuna, besteak beste.

Pertsona obesoa den jakiteko adierazlea Gorputz Masaren Indizea (GMI) da, hots, adierazitako pisuaren (kg) eta garaieraren (metroak) koadroaren arteko zatidura.

III.4.4. GRAFIKOA. OBESITATEAREN PREBALENTZIA ESTANDARIZATUA (%)



Iturria: EAEko Osasunaren Inkestak

Pertsona obesoa da 30eko edo handiagoko GMI duena; gainpisua du 25eko GMI edo berdina baina 30etik beherakoa duena; pertsona normala da, berriz, 18,5eko GMI edo handiagoa baina 25etik beherakoa duena; ez du GMI nahikoa 18,5etik beherakoa duenak.

EAEko 2013ko Osasunaren Inkestaren arabera, azken urteetan gorako joera izan du obesitateak. Hala, sexuaren arabera estandarizaturiko tasetan, gizonezkoen %13,9k eta emakumezkoen %12,6k obesitatea du. 2013an, berriz, %9,5ek eta 1997an %10ek.

Obesitatea handitu egiten da adinean gora egin ahala; beraz, prebalentziarik handiena 65 urteko eta gehiagokoen artean dago, hain zuzen ere EAEko adin tarte horretakoen %20.

4.3. OSAKIDETZAREN LAGUNTZARAKO JARDUERA

a) Baliabideen erabilera

Osakidetzak emandako datuen arabera, sarearen batez besteko okupazio indize orokorra jaitsi egin zen 2013an (%1,3 2012. urtearen aldean), eta %77,8an kokatu da. Aurreko urtean, berriz, %79,1 izan zen.

%100a gaindituta eta, era berean, batez bestekoaren gainetik daude zerbitzu medikoetan honako espezialitate hauek: pneumologia (%128,9), barneko medikuntza (%124,3), digestio aparatua (%110,4) eta psikiatria (%100,3); eta kirurgiako zerbitzuetan: neurologia (103,8). %100aren gainetik baina batez bestekoaren gainetik ditugu gainerako zerbitzu medikoak, errehabilitazioa izan ezik (%76,5), eta kirurgiako gainerako zerbitzuak, kirurgia plastikoa (%58,2), kirurgia torazikoa (%72) eta kirurgia baskularra (%76,7) izan ezik.

Eguneko batez bestekoa berriz ere jaitsi zen, 5,4tik 5,2ra hain zuzen ere. Batez bestekoaren oso gainetik daude birgaikuntza (26,9), psikiatria (14,5), zainketa aringarriak (14), hematologia (10,2), barneko medikuntza (7,6) eta digestio aparatua (7,2).

III.4.7 TAULA. BALIABIDE PUBLIKOEN ERABILERA, ESPEZIALITATEEN ARABERA (*bate besteko egonaldia eta okupazio indizea*)

ZERBITZUAK	Batez besteko egonaldia (egunak)					Okupazio indizea (%)				
	2009	2010	2011	2012	2013	2009	2010	2011	2012	2013
ZERBITZU MEDIKOAK										
Barneko medikuntza	8,1	8,1	8,2	7,9	7,6	97,8	97,2	112,2	125	124,3
Kardiologia	5,3	4,9	4,7	4,7	4,8	90,0	80,3	92,1	97,1	96,2
Digestio aparatua	7,2	7,3	7,2	7,2	7,2	119,9	104,6	112,2	111,6	110,4
Hematologia	10,1	10,1	8,8	9,3	10,2	92,9	90,7	81,7	86,5	96,7
Pneumologia	6,6	6,5	6,4	6	5,6	91,6	90,1	127,3	139,9	128,9
Psikiatria	15,5	15,1	14,3	15	14,5	94,7	90,1	141,0	109,4	100,3
Birgaikuntza	28,0	29,3	29,3	27,9	26,9	82,7	75,9	91,9	83,5	76,5
Zaintza aringarriak	15,4	15,0	14,0	12,7	14,0	81,6	78,8	87,5	71,2	86,7
KIRURGIA ZERBITZUAK										
Kirurgia orokorra	4,9	4,6	4,3	4,3	4,1	62,7	69,5	81,0	83,5	82,5
Kirurgia plastikoa	5,4	5,3	4,0	4,1	4,3	67,5	66,4	57,8	49,9	58,2
Bihotz-hodietako kirurgia	4,3	3,9	4,0	3,8	3,6	91,2	90,5	90,0	93,2	84,9
Kirurgia baskularra	6,1	5,5	4,9	5,3	5,0	75,8	71,5	71,7	78,6	76,7
Kirurgia torazikoa	4,4	4,7	4,4	4,2	3,9	77,1	79,6	78,6	74,8	72,0
Neurokirurgia	6,5	6,3	6,1	5,9	5,1	89,1	80,9	86,6	84,9	82,3
Traumatologia	5,4	5,0	4,5	4,4	4,4	78,4	75,3	82,2	83,5	86,6
Urologia	4,5	4,2	4,0	3,9	4,0	84,0	79,8	95,3	93,9	103,8
OROKORRA	**5,8**	**5,6**	**5,5**	**5,4**	**5,2**	**81,1**	**79,6**	**79,8**	**79,1**	**77,8**

Iturria: Osakidetza: Akutuentzako ospitaleak + Egonaldi ertain eta luzeko ospitaleak

b) Itxaronzerrendak

2011ra arte, hazkunde profila ageri zen urte batean eta jaitsiera hurrengoan itxaronzerrendako pazienteen guztizkoan, baita batez besteko berandutzean ere. 2012an, joera hautsi eta berriz ere igo zuen itxaronzerrendan zeuden pertsonen kopuruak. Alabaina, 2013an, berriro beherakada izan genuen, %6koa hain zuzen ere.

Hala, kanpoko kontsultei dagokienez, 2013an, behera egin zuen itxaronzerrendako pazienteen kopuruak, 95.00tik 89.289ra hain zuzen. Zerrendetako paziente kopururik handieneko espezialitateak, 2013an, berriz ere 2011ko eta 2012ko berdinak izan ziren, baina ordena ezberdinean: traumatologia (16.169), dermatologia (13.429) eta oftalmologia (12.543).

III.4.8 TAULA. KANPOKO KONTSULTEN ITXARONZERRENDAK*(paziente kopururik handieneko espezialitateak)*

	Paziente kop.					Aldakuntzak			
	2009	2010	2011	2012	2013	09-10	10-11	11-12	12-13
Alergologia	2.117	1.516	2.107	2.554	2.507	-28,4	39,0	21,2	-1,8
Kardiologia	3.863	3.288	2.842	2.659	2.542	-14,9	-13,6	-6,4	-4,4
Dermatologia	11.717	10.016	12.094	13.303	13.429	-75,5	20,7	10,0	1,0
Digestio aparatua	4.643	4.051	3.931	4.019	3.396	115,7	-3,0	2,2	-15,5
Endokrinologia	2.876	2.363	1.780	2.247	1.809	40,9	-24,7	26,2	-19,5
Neurologia	3.906	3.818	4.388	4.690	4.224	-39,5	14,9	6,9	-9,9
Birgaikuntza	4.714	3.875	4.806	5.017	4.956	-19,0	24,0	4,4	-1,2
Kirurgia orokorra	3.543	2.865	3.108	2.371	2.839	299,1	8,5	-23,7	19,7
Oftalmologia	11.157	14.141	14.735	15.367	12.543	-57,4	4,2	4,3	-18,4
ORL-otorrinolaringologia	5.265	4.754	5.561	4.968	3.973	-26,4	17,0	-10,7	-20,0
Traumatologia	14.540	14.008	13.514	14.179	16.169	-3,7	-3,5	4,9	14,0
Urologia	2.934	2.486	3.381	3.307	3.761	-15,3	36,0	-2,2	13,7
Ginekologia	12.497	10.538	9.523	8.728	6.671	-67,3	-9,6	-8,9	-23,6
Bestelakoak	11.786	12.693	11.334	11.598	10.470	62,5	-10,7	2,3	-9,7
GUZTIRA	**95.558**	**90.412**	**93.104**	**95.007**	**89.289**	**-5,4**	**3,0**	**2,0**	**-6,0**

Iturria: Osakidetza. Akutuen ospitaleak + Egonaldi ertain eta luzeko ospitaleak

Atzerapen denborei dagokienez, 2012 eta 2013 bitartean berriz ere egin zuen gora hilabetetik gora itxaron behar izan dutenen portzentajeak, hain zuzen ere %33,5etik %36,2ra.

Kirurgiako itxaronzerrendei dagokienez, haietako gaixo kopurua murriztu egin da 2012 eta 2013 artean, 18.611 lagunetik 18.123ra, eta batez besteko atzerapen egunak gutxitu egin dira (52,1etik 49,7ra). Horren ondorioz, ebakuntza izateko 3 hilabetetik gora itxaron behar duten gaixoen portzentajea jaitsi da, %16tik %13,2ra.

III.4..9. TAULA. KANPOKO KONTSULTEN ITXARONZERRENDAK ATZERAPEN DENBORAK (%)*

	2011	2012	2013
< hilabete	68,19	66,5	63,9
> hilabete	31,9	33,5	36,2

** 2011 baino lehen kategoria ezberdinak ziren*
Iturria: Osakidetza: Akutuen ospitaleak + Egonaldi ertain eta luzeko ospitaleak

III.4.10 TAULA. EBAKUNTZETARAKO ITXARONZERRENDAK[6]

	2009	2010	2011	2012	2013
Paziente kop.	16.536	16.377	17.763	18.611	18.123
B. b atzerap. (eg.)	53,2	48,2	51,8	52,1	49,7
< 3 hilabete gaixo kop	2.484	1.903	2.815	2.972	2.398
< 3 hilabete gaixoen %	15,0	11,6	15,9	16,0	13,2

Iturria: Osakidetza. Akutuentzako ospitaleak

c) Osakidetzaren gastua

Osakidetzaren aurrekontuko likidazioak, EAEko kontu orokorretan oinarrituta, erakusten du osasun-erakundeak 2013. urtean egindako gastua 2.533,6 milioi eurokoa izan zela (2012an baino % 2,3 gutxiago), hau da, BPG izendatuaren % 3,8. Jaitsiera hori gertatu da ustiapeneko gastuek behera egin dutelako (langileriak hornidura eta beste gastu batzuk), baita inbertsioak ere.

Guztira likidaturiko kopurutik, % 3,2 inbertsioei zegokien (79.866 mila euro) eta % 96,8 ustiapen-gastuei. Azkenekoetan, langileriaren gastua azpimarratu behar dugu, erakundearen gastu osoaren % 66,7koa izan baitzen.

6 Zuzendaritza Nagusiak hala erabakita, kirurigiako prozeduraren araberako itxaronzerrendak 2008ko urritik hasita utzi zitzaion biltzeari.

III.4.11 TAULA. OSAKIDETZAREN GASTUEN LIKIDAZIOA ETA AURREKONTUA (euroak milaka)							
	2008	2009	2010	2011	2012	2013	Aldea:(%): 12-13
INBERTSIOA	140.820	207.074	132.723	123.682	85.679	79.866	-6,8
USTIAPEN GASTUA	2.2277.682	2.507.752	2.539.226	2.538.867	2.508.036	2.453.706	-2,2
Langileak	1.602.115	1.750.591	1.763.417	1.757.114	1.680.498	1.689.603	0,5
Hornikuntzak	462.124	539.763	554.975	557.505	582.458	603.271	3,6
Beste batzuk	213.443	217.398	220.834	224.248	245.080	160.832	-34,4
GUZTIRA	**2.418.502**	**2.714.826**	**2.671.949**	**2.662.549**	**2.593.715**	**2.533.572**	-2,3
BPG	69.648.307	66.187.188	67.595.563	68.041.740	66.775.970	66.081.063	1,3
BPGd gaineko gastua (%)	3,5	4,1	4,0	3,9	3,9	3,8	
Gastuaren urteen arteko bilak. (%)		12,3	-1,6	-0,4	-2,6	-2,3	

Iturria: Norberak egina EAEko Kontu Orokorretatik hartuta

4.4. EUSKO JAURLARITZAREN OSASUN SAILAREN[7] GASTUA

Eusko Jaurlaritzaren 2013ko aurrekontuen likidazioko datuen arabera, lehen tokian jarraitzen du Osasuneko partidak baliabideen ehunekoetan, eta dagoeneko guztizko gastuaren %34,4 da, non programa nagusia Osakidetzari eginiko transferentziei dagokien.

Hala, bereziki osasunekoak diren partidak (Egitura eta Laguntza, Osasun Finantzazioa eta Kontratazioa, Ezagutzaren Kudeaketa eta Ebaluazioa eta Farmazia), Osasun Sailak 2013an likidatuak, 3.294 milioi euro dira (%-1,9 2012. urtearen aldean), hots, BPGd izendatuaren %5, aurreko urteko portzentaje bera.

Bestalde, 2014rako berariazko osasun partiden gastuen aurrekontua 3.348 milioi euro da (%+1,7 2013an likidaturiko gastuaren aldean). BPG izendatuaren %5 da gastu hori, 2013an izandako ratio berdina hain zuzen ere.

III.4.12. TAULA. EUSKO JAURLARITZAREN OSASUN SAILAREN GASTUA *(sekzio eta programen arabera, euroak milaka)*								
	Likidazioa						Aurrekontua	Aldak. (%)
	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2013-14
Egitura eta laguntza	19.155	16.108	22.101	16.347	15.375	13.997	17.308	23,7
Osasun finantzazioa eta kontratazioa	2.571.048	2.843.264	2.845.223	2.766.889	2.764.487	2.731.004	2.769.492	1,4
Osasun publikoa	29.475	35.647	34.755	29.126	29.063	27.503	48.741	77,2
Osasun plangintza eta antolamendua	7.238	7.261	9.657	6.385	6.716	5.927	7.858	32,6
Farmazia	610.630	635.685	624.898	580.043	536.869	511.793	499.943	-2,3
Droga-mendetasuna					5.316	3.799	5.076	33,6
Osasuna guztira	3.237.546	3.537.965	3.536.634	3.398.790	3.357.826	3.294.023	3.348.418	**1,7**
OROTARA	9.317.300	10.304.507	10.327.556	10.173.197	10.246.438	9.579.465	10.215.506	**6,6**
BPG	69.648.307	66.187.188	67.595.563	68.041.740	66.775.970	66.081.063	66.943.073	1,3
Osasunaren % guztizkoaren gainean	34,7	34,3	34,2	33,4	32,8	34,4	32,8	
Osasunaren % BPGaren gainean	4,6	5,3	5,2	5,0	5,0	5,0	5,0	

Iturria: EAEko kontu orokorrak eta Aurrekontuak, eta geuk egina

7 Osasun Sailak Osasuna eta Kontsumoa sartu ditu, baina epigrafe honetan Osasunari dagokio analisia.

5. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA

EAEko higiezinen merkatuak 2014an izan duen bilakaeraren ezaugarri bat da, Eusko Jaurlaritzaren Higiezinen Eskaintzaren Inkestaren emaitzen arabera, etxebizitzaren eskaintzak % 18,7ko igoera izan duela, aurreko urteetan %11,4 eta %13,9ko jaitsiera handiak izan ondoren, salgai dauden etxebizitza libre berrietan (% -42,2), erabilietan (% +39,7), alokairuko etxebizitza libreetan (% +26,9) eta salgai dauden etxebizitza babestuetan izandako bilakaeren batura gisa; izan ere, behera egin du etxebizitza babestuak, salgai jarri direnetan (%-441,2) nahiz alokairukoetan (%-52,2). Halaber, etxebizitzaren eskariak edo beharrek, 2013an dugun azken datuaren arabera, %25,9 egin zuen behera 2011. urtearen aldean eta %41eraino 2009an izandako gehienekotik.

GRÁFICO III.5.1. ETXEBIZITZAREN MERKATUAREN BILAKAERA EAE-NETXEBIZITZAREN MERKATUAREN BILAKAERA EAE-N[1]



Iturria.- Geuk eginikoa EUSKO JAURLARITZAREN ETA EINen datuekin

5.1 LURZORUA ETA ERAIKUNTZA KOSTUAK

5.1.1 Lurzorua EAEn

Etxebizitzak etxebizitzen merkatura iristeko prozesua hasteko, lurzorua erosten da. Gero urbanizazioa, promozioa, eraikuntza eta, azkenik, etxebizitzen salmenta edo adjudikazioa datoz. Normalean informazioa izaten dugu prozesuaren azken zatiari buruz, eskaintzen den etxebizitza kopurua jakiten dugu, eta haien ezaugarri batzuk eta salneurria ere bai. Baina aurreko faseei buruz dagoen informazioa oso urria da eta, iturri batetik bestera, kontraesankorra ere bai.

Sustapen Ministerioaren Prezioei buruzko Estatistikako datuei erreparatuz gero, 2014ko laugarren hiruhilekoan EAEn egin diren hiri lurren transakzioetan batez besteko prezioa 238,2 euro izan zen m2 bakoitzeko. Beraz, urtebete lehenagoko batezbestekoa baino % 4,3 handiagoa da. Era berean, Estatu osoan egindako transakzioen batez bestekoa 155,60 /m2 izan da, 2013ko azken hiruhilekoan izandako batez besteko prezioaren aldean % 5,2ko gehikuntza ekarri duela.

III.5.1. KOADROA HIRI LURRAREN BATEZ BESTEKO PREZIOAREN BILAKAERA, €/M². LAUGARREN HIRUHILEKOAK.

	2012	2013	2014	% 2013/14
ESTATUKO B.B.	**187,4**	**147,9**	**155,6**	**5,2**
Andaluzia	159,2	129,1	155,8	20,7
Aragoi	159,4	99,9	82,0	-17,9
Asturias	139,3	138,5	117,9	-14,8
Balearrak	254,7	268,3	213,9	-20,3
Kanariar U.	217,9	183,9	151,6	-17,5
Kantabria	126,4	117,3	99,8	-14,9
Gaztela eta Leon	65,8	59,9	59,1	-1,4
G. Mantxa	132,6	81,8	93,3	14,1
Katalunia	173,1	200,3	204,7	2,2
Valentziako E.	183,6	175,0	163,3	-6,7
Extremadura	153,1	89,6	84,3	-6,0
Galizia	111,7	83,6	92,5	10,6
Madril	425,8	270,7	317,7	17,4
Murtzia	232,0	200,5	137,0	-31,7
Nafarroa	217,6	174,0	152,2	-12,5
EAE	**417,0**	**228,3**	**238,2**	**4,3**
- Araba	*229,1*	*185,5*	*293,0*	*58,0*
- Gipuzkoa	*293,2*	*456,6*	*281,8*	*-38,3*
- Bizkaia	*490,7*	*198,7*	*218,7*	*10,1*
Errioxa	178,6	191,5	110,5	-42,3

Iturria: SUSTAPEN MINISTERIOA

Kopuru absolutuetan, Madrilgo Komunitateak dauka Estatuko salneurririk garestiena (317,70 /m2, 2013ko laugarren hiruhilekoan baino % 17,4 gehiago), eta haren atzetik EAE dago. EAEn lurralde historikoen arabera izandako bilakaera

1 Grafikoan azaltzen den eskariak eskuratzeko behar diren etxebizitzen kopurua erakusten du; eskaintza higiezinen sustatzaile eta agenteek emandakoa da; prezioak eurotan adierazita daude salgai dauden etxebizitza libreen (berriak nahiz erabiliak) m2 erabilgarri bakoitzeko.

ardatz hartuta, Arabako batez besteko salneurri altua nabarmentzen da; izan ere, 2014ko amaieran 293 €/m^2 (%+58 2013aren aldean) izan zuen. Ondoren Gipuzkoa dago, batez besteko 281,80 €/m^2-ko prezioarekin, eta aldi berean, Bizkaiak batez beste 218,70 izan du. Alabaina, datu horiek zuhurtziaz hartu behar dira, urteko aldakuntzen hegazkortasuna dela eta.

Bizitegirako lurzoru dotazioei dagokienez, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren 2014ko uztaileko datuen arabera, gure Erkidegoak bizitegirako 19.057 lur hektarea ditu (aurreko urtean baino 120 gutxiago), guztira 956.626 etxebizitza, eta burutzeko dauden beste 198.812 inguru zenbatesten ditu. 198.812 horietatik %60,1 libreak dira eta gainerako %39,9 babes publikokoak.

III.5.2. KOADROA. EAE-KO BIZITEGIKO LURRAREN DOTAZIOAK: LURRALDE BANAKETA. 2014.

	Azalera (Ha)	Egungo etxebiz. kop.	Egiteko dauden etxebizitzen kop.			Etxeb. kop. guzt.
			Libreak	BOE	Guztira	
EAE GUZTIRA	**19.057**	**956.626**	**119.565**	**79.247**	**198.812**	**1.155.438**
ARABA	5.678	150.402	27.467	21.683	49.150	199.552
Gasteiz	2.018	108.099	10.610	18.228	28.838	136.937
Arabako gainerak.	3.660	42.303	16.857	3.455	20.312	62.615
BIZKAIA	8.155	499.089	56.478	29.764	86.242	585.331
Bilbo	1.203	153.898	9.232	7.668	16.900	170.798
Bizkaiko gainerak.	6.952	345.191	47.246	22.096	69.342	414.533
GIPUZKOA	5.225	307.135	35.620	27.800	63.420	370.555
Donostia	1.363	83.283	6.373	9.318	15.691	98.974
Gipuzkoako gainer.	3.862	223.852	29.247	18.482	47.729	271.581

Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN datuekin eginikoa. Ingurumen eta Lurralde Politikako Saila. 2014ko uztaila.

Lurraldeka eginiko zenbatespenen arabera, burutzeko dauden etxebizitzen %23 Araban daude, %47 Bizkaian eta gainerako %30 Gipuzkoan, eta horietatik guztietatik, gainera, %30,9 hiru euskal hiriburuetako batean egingo da (61.429 etxebizitza).

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak, sailak berak maiatzean eginiko zenbatespenaren arabera, babes publikoko 12.500 etxebizitza inguru eraikitzeko lur ondarea zeukan urte hartan (Etxebizitza Sailak erosita zeuzkan lur-zatiak eta erosi nahi zituen beste lur batzuk barne). Kopuru horretatik, %78,6 (6.524 etxebizitza) 2014rako eskuragarri egongo litzateke, eta gainerako %21,4 epe luzeagoan egongo litzateke 2015ean.

Lur ondarearen %77 Bilboko (3.733 etxebizitza) eta Donostiako (2.640) arlo funtzionaletan daude, eta, lurra/biztanlea ratioaren ikuspuntutik, Donostialdea lehenengo posizioan dago: 6,9 etxebizitza 1.000 biztanleko; horren atzetik Zarautz-Azpeitiko arlo funtzionala dago: 6,8. Bilbo Metropolitarra laugarren tokian dago (3,6 etxebizitza 1.000 biztanleko), Gernika-Markinaren (4,2 etxebizitza 1.000 biztanleko) atzean, hain zuzen.

III.5.3. KOADROA. EUSKO JAURLARITZAREN ETXEBIZITZA SAILAREN LUR ONDAREAREN BANAKETA GEOGRAFIKOA.

	ERABILGARRITASUNA				GUZTIRA 2012-15	
	2012	2013	2014	2015	ETXEBIZ.	% BERT.
EAE GUZTIRA	**235**	**4.236**	**2.035**	**1.771**	**8.295**	**100,0**
ARABA	0	576	0	0	576	7,0
Arabako Erdialdea	0	502	0	0	502	6,0
Laudio	0	74	0	0	74	1,0
BIZKAIA	206	2.253	1.533	221	4.213	51,0
Bilboko Metropolia	206	1.773	1.533	221	3.733	45,0
Balmaseda-Zalla	0	70	0	0	70	1,0
Igorre	0	0	0	0	0	0,0
Durango	0	128	0	0	128	2,0
Gernika-Markina	0	282	0	0	282	3,0
GIPUZKOA	47	1.407	502	1.550	3.506	42,0
Donostia	0	728	412	1.500	2.640	32,0
Eibar	47	62	0	0	109	1,0
Zarautz-Azpeitia	0	313	90	50	453	6,0
Arrasate-Bergara	0	124	0	0	124	2,0
Beasain-Zumarraga	0	30	0	0	30	0,0
Tolosa	0	150	0	0	150	2,0

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Etxebizitza Saila. 2013ko maiatza.

2 Bizitegirako hiri lurzoru kontsolidatuak edo ez dagoenak eta bizitegirako lurzoru urbanizagarriak osatzen dute bizitegirako lurzorua.

5.1.2 Eraikuntza kostuen estatistika[3]

2014an, batez beste %0,8 egin dute behera eraikuntza kostuek, azken urteetan lehen aldiz; lan-eskuarena %1,8 handitu da eta lehengaien kostuak, berriz, %1,6 murriztu dira, hain zuzen ere bilakaera ekonomikoaren ondorioz. Eraikuntza eta Obra Zibila azpisektoreei dagokienez, norabide bereko bilakaera izan dute: lehenengoaren kostuak %0,7 jaitsi dira eta bigarrenarenak %1,3.

Azken hamabi hilean inflazio tasarik handienak izan dituen sektoreak kontsumituriko lehengaien prezioen artean, material elektronikoarenak nabarmentzen dira, %1 hazita, eta metalezko artikuluenak, %0,9arekin. Petrolioa fintzeko lehengaiek, aldiz, %22,6 egin dute behera, argindarrak eta gasak %4,8 eta metalezkoa ez den industria %3,4 murriztu da.

GRAFIKOA III.5.2. ERAIKUNTZAKO KOSTUEN URTE ARTEKO ALDAKUNTZA-TASA EAE-N. OINARRIZKO URTEA: 2010



	Kostuak guztira	Eraikuntza kostuak	Obra zibileko kostuak
2006	4,2	4,0	5,2
2007	4,5	4,4	4,5
2008	7,5	7,2	8,5
2009	0,2	0,9	-2,6
2010	1,1	0,5	3,1
2011	2,3	2,0	4,0
2012	0,8	0,7	1,3
2013	0,1	0,2	-0,6
2014	-0,8	-0,7	-1,3

Iturria.- EUSTAT eta EKKI.

Bestalde, EUSTATen «Industriako eta Eraikuntzako Estatistika»ren datuek erakusten dute eraikuntza sektoreak 2010ean (informazioa eskuragarri duen azken urtea) atzerakada handia izan zuela, bai sortutako balio erantsiaren aldetik, bai enpleguaren aldetik

Eraikuntzako lanpostu kopuruak % 8,8 egin du behera aurreko urtean bezala (2012an baino igoera txikiagoa izang da, urte hartan %10,6 jaitsi baitzen), aurreko urtearekin alderatuta 8.500 landun gutxiago egon dira. Era berean, negozio kopuruak % 18,2ko beherakada izan duela eta langileen kostuek % 10,1 behera egin dutela kalkulatzen da.

KOADROA III.5.4. ERAIKUNTZAREN SEKTOREKO MAGNITUDE NAGUSIAK. EGUNEKO PREZIOAK. (MILA €).

	2011	2012	2013	% 11/12	% 12/13
LANEAN ARI DIREN LANG.	77.340	69.171	63.118	-10,6	-8,8
BEGD-A, FAKT. KOSTUAN	4.854.621	3.735.455	3.251.129	-23,1	-13,0
USTIAPENEKO SOBERAKIN GORDINA	1.668.432	1.010.738	800.330	-39,4	-20,8
EGINIKO INBERTSIOAK	204.184	91.045	324.044	-55,4	255,9
AMORTIZAZIOETARAKO DOIKUNTZA	302.100	229.681	230.458	-24,0	0,3
NEGOZIOEN ZIFRA	14.882.255	12.342.619	10.093.411	-17,1	-18,2
HORNIKUNTZAK	8.383.668	6.640.032	6.027.905	-20,8	-9,2
KANPOKO ZERBITZUAK	1.717.977	1.420.269	1.229.895	-17,3	-13,4
LANGILERIA GASTUAK	3.186.189	2.724.717	2.450.799	-14,5	-10,1
ZERGEN AURREKO EMAITZAK	823.799	-136.666	16.407	-116,6	-
EKITALDIKO EMAITZA	622.652	-149.271	-25.089	-124,0	83,2

Iturria: EUSTAT. Eraikuntzari buruzko estatistika.

Bestalde, Ustiapeneko Soberakin Gordinak %20,8 egin du behera, eta inbertsioak nabarmen hazi dira (+%255,9), aurreko ekitaldian ia desagertu ondoren. Azkenik, zergen aurreko emaitzak datu positiboetan jarri dira berriz ere (+16,4 milioi euro) eta ekitaldiko emaitza, oraindik negatiboa izanik, -25 milioi euro da.

[3] *"EUSTATen "Eraikuntza Kostuen Indizea" inguruabar izaerako adierazlea da. Kostu horien bilakaera neurtzen du, eraikuntza sektoreko lehengaien edo bitarteko kontsumoen (lehengaien eta materialen kostuen, energia kostuen eta askotako gastuen kostuen batura; hori sektoreko lehengai nagusien prezioen bidez zenbatesten da) eta langileria kostuen (soldata gordinen eta gizarte kotizazioen batura, sektoreko hitzarmen kolektiboen bidez zenbatetsia) indize baten bidez.*
Adierazle horrek ez du ahalbidetzen produkzioaren azken prezioari eragiten dioten kostu guztiak neurtzea, jakina, enpresa etekinaz gain, kapitalari lotutako faktoreak falta baitira.

5.2 ETXEBIZITZAREN ESKAINTZA

Eusko Jaurlaritzaren «Higiezinen Eskaintzaren Estatistikak» (HEE) dakarrenez, lehenik eta behin, etxebizitzaren guztizko eskaintza (salmenta gehi alokairua) %18,7 hazi da azken urtean (aurreko urtean %-13,9 izan zen), guztira 40.400 etxebizitza laugarren hiruhilekoan, baina erabilitako etxebizitzaren eskaintzaren aurrerapen nabarmenak eusten dio soil-soilik hazkunde horri. Lagin hori, prezioen estatistikaren oinarria izanda, honela dago osatuta: %93,5 salgai eskainitako etxebizitzak dira eta %9 alokairuan eskainitakoak. Salgai dauden etxebizitzetatik % 12,5 etxebizitza berriak dira eta % 87,5 erabiliak, eta berrien % 47,9 babes publikoko motaren baten pean daude. Alokairuko etxebizitzetatik % 94,7 libreak dira eta % 5,3, berriz, babestuak

Hortik ondorioztatzen denez, 2004an eskaintzan hasitako hazkundearen ondotik bi urtez hazkunde txikia izanda (2009 eta 2010), joera hori nabarmen berreskuratu zen (+%54,4) 2011n. 2012an, berriz, behera egin zuen berriro, eta are gehiago 2013an. 2014n jaitsiera hori gelditu eta 2012-2013ko galeraren zati bat berreskuratu zen, gehienbat salgai dauden etxebizitza erabilien stockaren hazkundeagatik (+%39,7) eta, neurri txikiagoan, alokairu librekoari dagokionagatik (+%26,9); hala ere, garrantzi txikia dauka azken horrek higiezinen eskaintzan.

III.5.5. KOADROA. ETXEBIZITZAREN ESKAINTZAREN BILAKAERAREN LABURPENA EAE-N.

	GUZTIRA	ETXEBIZITZAK SALGAI					ETXEBIZITZAK ALOKAGAI		
		SALGAIAK, GUZTIRA	ETXEBIZITZA BERRIAK			ETXEBIZITZA ERABILIAK	ALOKAGAIAK, GUZTIRA	LIBREAK	BABESTUAK
			GUZTIRA	BABESTUAK	LIBREAK				
2008	26.766	23.767	10.373	5.424	4.949	13.395	2.999	603	2.396
2009	27.560	24.180	10.127	5.010	5.117	14.053	3.380	1.000	2.380
2010	28.921	26.353	8.169	3.573	4.596	18.184	2.568	1.215	1.354
2011	44.643	42.276	12.394	6.845	5.549	29.882	2.367	1.602	766
2012	39.542	36.902	9.918	4.180	5.738	26.985	2.640	2.013	627
2013	34.029	31.762	8.126	3.860	4.266	23.636	2.267	1.974	293
2014 I	32.826	30.601	7.269	3.507	3.762	23.332	2.225	1.987	238
2014 II	35.176	32.793	6.390	3.151	3.239	26.403	2.383	2.202	181
2014 III	37.686	35.173	5.608	2.812	2.796	29.565	2.513	2.362	150
2014 IV	**40.400**	**37.755**	**4.731**	**2.268**	**2.463**	**33.024**	**2.645**	**2.505**	**140**

***Iturria: EUSKO JAURLARITZA*. Higiezinen Eskaintzari buruzko Estatistika.**
Oharra: Datuak 4 ordenako batez besteko mugikorren bidez azaltzen dira.

Azken hamarkadako bilakaerari erreparatuta, ikusi da eskainitako etxebizitza tipologiako hazkunde proportzionalik handiena etxebizitza erabilian gertatu dela. Gauzak horrela, 2014an salgai dauden etxebizitza guztien % 81,7 erabiliak dira, 2004an proportzio hori % 40,9koa bakarrik zen arren.

Prezioei dagokienez, salgai dauden etxebizitza libreen (berrien nahiz erabilien) batez besteko prezioa m2-ko 3.079 eurotik gorakoa da; horrenbestez, % 4,5 murriztu da 2013ko batezbestekoaren aldean; aurreko urtean % 10,3 zen Etxebizitza berrien merkatuari dagokionez, prezioak % 4,2 jaitsi dira; bestalde, bigarren eskuko etxebizitzenak % 3,6 jaitsi dira.

Bestalde, etxebizitza babestu berriaren batez besteko prezioa % 3,5 igo da azken urtean. Alokairu libreko batez besteko errenta, ordea, % 2,3 hazi da (prezio horiek metro karratuko eurotan adierazi dira). Bestetik, babestutako etxebizitzen alokairuko batez besteko errenta 326,3 euro da, aurreko urtean baino %2 gehiago. (Prezioei buruzko argibide gehiago 5.2.1 epigrafean).

Azkenik, nabarmendu behar da higiezinek etxebizitza bat saltzeko behar duten batez besteko denbora, 2014an, 7,4 hilekoa dela, aurreko urtean 10 hilekoa izan ondoren. Beraz, 2008ko batez besteko epeak daude berriz ere (8,5 hilabete), datu hori dugun lehenbiziko urtea.

---

4 Datuak 5 etxebizitzatik gorako sustapenak dituzten 156 sustatzaileari eta higiezinen 176 agentziari egindako inkesta baten bitartez jaso ziren 2011n laginaren tamaina handitu da-. Beraz, ez da eskaintza guztia ageri. Inkesta honen emaitzen alderdirik interesgarriena, datu absolutuak baino, bilakaera da.

5.2.1 Salgai dauden etxebizitzen eskaintza eta prezioak

(a) Etxebizitza berria

Lehenik eta behin, gora egin du salgai dauden etxebizitza berri libreen eskaintzak 2014ko laugarren hiruhilekoan, guztira 2.463 etxebizitza gehiago, 2013an baino %42,3 gutxiago, hots, krisia hasi zenetik izandako jaitsierarik handiena (2008tik %50 murriztu da). Hona hemen ehunekoen banaketa: Bizkaiak %47,6 hartzen du, Gipuzkoak %40,4 eta Arabak gainerako %12a.

Etxebizitza libre berrien batez besteko prezioa 3.338,9 €/m^2 da 2014ko laugarren hiruhilekoan, 2013ko batez bestekoa baino %4,2 gutxiago. Lurraldeen araberako azterketak erakusten dutenez, batez besteko txikiagoa dago Araban (2.870,5 €/m^2) ; Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, 3.392,5 €/m^2 eta 3.405,8 €/m^2 dira hurrenez hurren.

Kopuru absolutuetan, Arabak du atzerakadarik handiena, %6,3koa, eta ondoren Bizkaiak (-%5) eta Gipuzkoak (-%3,3).

Babestutako merkatuari dagokionez, gogora ekarri behar dugu 2006an salgai zeuden gizarte etxebizitzen eskaintza desagertu zela; etxebizitza horiek alokairurako soilik hasi ziren eskaintzen. BOEko eskaintza 2.268 etxebizitzakoa zen 2014ko laugarren hiruhilekoan, aurreko urtean baino %41,2 gutxiago, krisia hasi zenetik izandako jaitsierarik handiena (2008tik %58 murriztu da).

III.5.3. GRAFIKOA. ETXEBIZITZA BERRIAREN ESKAINTZAREN BILAKAERA EAE-N



Iturria: Eusko Jaurlaritza eta HIES.

III.5.4. GRAFIKOA. SALMENTARAKO ETA ALOKAIRURAKO ETXEBIZITZAREN ESKAINTZAREN BILAKAERA EAE-N



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Higiezinen Eskaintzari buruzko Estatistika.
**Modalitate hau 2006an desagertu zen.*

Saltzeko eskainitako BOEen batez besteko prezioa 1.682 /m2 izan da 2014an, hau da, aurreko urtean baino % 3,5 garestiagoa. Lurralde historikoen arabera zenbait ezberdintasun dago: Bizkaiak du preziorik altuena (1.780,7 €/m^2), ondoren Gipuzkoak (1772,6 €/m^2). Bietan antzeko bilakaera ageri da, zeren eta batez besteko prezioa %5,2 jaitsi baita eta %8,3 bigarrenean. Arabak, aldiz, batez besteko prezio txikiagoa du (1.568,5 €/m^2) eta, gainera, goranzko bilakaera da, baina txikiagoa, %4,4 hazi baita batez bestekoa.

Bestalde, 2007. urtearen amaieraz geroztik, oso bolumen txikietan bada ere, babes erregimenen bat daukaten bestelako etxebizitza tipologiak hasi ziren agertzen: babes ofizialeko etxebizitza tasatuak eta udal etxebizitza tasatuak. Etxebizitza horiek etxebizitza babestuak baino zerbait garestiago eskaintzen dira, baina etxebizitza librearen preziora iritsi gabe. Ez dago haien prezioen informazio zehatz eguneraturik.

III.5.6. KOADROA. SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZEN BATEZ BESTEKO PREZIOAREN BILAKAERA EAE-N. €/M² BALIAGARRI.

	ETXEBIZITZA LIBREA				ETXEBIZITZA BABESTUA
	LIBREA GUZT.*	ERABI-LIA	BERRIA	ETXEBIZI-TZA MOTA	
2008	4.160,4	4.199,0	4.053,8	3.428,4	1.372,0
2009	3.846,6	3.778,9	4.032,5	3.338,1	1.468,9
2010	3.888,3	3.891,0	3.877,4	3.496,2	1.474,3
2011	3.830,3	3.841,6	3.769,5	3.447,7	1.532,2
2012	3.595,8	3.564,7	3.742,1	3.378,1	1.585,4
2013	3.226,4	3.171,7	3.486,2	3.095,1	1.625,0
2014 I	3.143,3	3.090,3	3.436,5	3.093,4	1.638,8
2014 II	3.108,1	3.065,1	3.398,9	3.063,8	1.653,9
2014 III	3.088,9	3.058,2	3.364,9	2.998,5	1.671,9
2014 IV	**3.079,8**	**3.058,2**	**3.338,9**	**2.960,2**	**1.682,1**

** Etxebizitza libre berri eta erabilien batez besteko prezioa.*
Oharra: Datuak 4 ordenako batez besteko mugikorren bidez azaltzen dira.
Iturria:EUSKO JAURLARITZA. Higiezinen Eskaintzaren Estatistika.

(b) Etxebizitza erabilia

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailaren datuetan ikusten dugu 2014an guztira bigarren eskuko 33.024 etxebizitza eskaintzen zirela, hau da, aurreko urtean baino % 39,7 gehiago: 2013an % 12,4 jaitsi zen. Etxebizitza horiek ondoko banaketa daukate lurraldez lurralde: Bizkaian %57,7, Araban %21,1 eta Gipuzkoan gainerako %21,2.

III.5.7. KOADROA. SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZA ERABILIAK, BATEZ BESTEKO PREZIOAK METRO KOADRO BALIAGARRIKO (€) ETA BATEZ BESTEKO PREZIOAK (MILA €), LURRALDE HISTORIKOKA.

	EAE			ARABA			BIZKAIA			GIPUZKOA		
	Kop.	Prezioa m²	Prezioa / etxeb.	Kop.	Prezioa m²	Prezioa/ etxebiz.	Kop.	Prezioa m²	Prezioa/ etxebizit.	Kop.	Prezioa m²	Prezioa/ etxeb.
2008	13.395	4.199,0	339,5	4.366	3.591,2	290,3	6.906	4.393,7	352,4	2.123	4.809,0	398,4
2009	14.053	3.778,9	310,1	4.009	3.550,0	295,2	7.378	3.581,7	294,1	2.666	4.686,4	374,3
2010	18.184	3.891,0	330,3	4.526	3.368,2	272,7	9.085	3.752,3	325,6	4.574	4685,5	398,5
2011	29.882	3.841,6	340,2	5.500	3.232,8	269,1	16.006	3. 766,4	344,3	8.376	4.395,3	379,4
2012	26.985	3.564,7	309,5	4.571	2.960,7	242,2	16.626	3.600,3	314,2	5.788	3.966,0	352,4
2013	23.636	3.171,7	271,8	4.672	2.713,2	220,8	13.688	3.243,3	285,2	5.276	3.420,7	286,5
2014 I	23.332	3.090,3	260,8	4.975	2.646,3	213,9	13.086	3.188,4	276,0	5.271	3.270,2	268,6
2014 II	26.403	3.065,1	258,6	5.716	2.640,9	212,8	14.884	3.170,2	275,6	5.805	3.207,6	259,9
2014 III	29.565	3.058,2	254,5	6.103	2.611,4	208,9	16.980	3.164,1	270,1	6.482	3.190,8	256,1
2014 IV	**33.024**	**3.058,2**	**251,1**	**6.974**	**2.611,6**	**207,9**	**19.062**	**3.165,4**	**264,6**	**6.988**	**3.192,6**	**255,2**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Higiezinen Eskaintzari buruzko Estatistika.

EAEko bigarren eskuko etxebizitza salgaien batez besteko prezioa 3.058 /m2 koa zen 2014an, hau da, aurreko urtean erregistratutako batezbestekoa baino % 3,6 gutxiago. Lurraldeka, Gipuzkoan batez bestekoak baino jaitsiera handiagoa izan dute prezioek (%6,7); Araban eta Bizkaian, berriz, %3,7 eta 2,4 jaitsi dira hurrenez hurren. Horren ondorioz, prezioak Gipuzkoako 3.192,6 /m2-ren eta Arabako 2.611,6 /m2-ren artean daude, eta Bizkaia tartean geratzen da, batez beste 3.165,4 /m2-rekin. Etxebizitza bakoitzeko prezioetan, EAEko batezbestekoa 251.100 eurokoa da etxebizitza bakoitzeko; Gipuzkoan, berriz, 264,600 eurokoa eta Araban 207.900 eurokoa. Bitarteko kopuruan dago adierazle honetan Gipuzkoa: 255.200€ etxebizitzako.

5.2.2 Alokairu araubidea

2014ko laugarren hiruhilekoari buruzko Higiezinen Eskaintzari buruzko Estatistika izeneko inkestaren arabera, 2.645 etxebizitza eskaini ziren alokairurako, hau da, aurreko urtean baino % 16,7 gehiago. Libreei dagokienez (eskaintzaren %94,7), berriz, %26,9 hazi da: 1.974 etxebizitzatik 2.505 etxebizitzara (hala eta guztiz ere, hazkunde hori Bizkaian eta Gipuzkoan erregistratu da; Araban, berriz, %28,1eko jaitsiera izan da. Alokairuko etxebizitza babestuetan %52,2 egin du behera. Beraz, babesturiko alokairuak behera egin du: alokairuaren %12,9 2013an eta %5,3 2012an.

EAEko alokairuko babestutako etxebizitzen batez besteko errenta, 2014an, 326,3 euro zen hilean, aurreko urtean baino % 2 gutxiago.

III.5.8. KOADROA. ESKAINTZEN DIREN ALOKAIRUKO ETXEBIZITZA LIBREAK ETA HILEKO BATEZ BESTEKO ERRENTA. €.

	Etxebizitza				Hileko errenta (€)			
	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
2008	**603**	227	247	130	968,9	895,0	968,8	1.086,5
2009	**1.000**	395	387	218	875,3	836,7	881,0	941,1
2010	**1.215**	226	767	222	921,5	827,6	923,8	1.004,9
2011	**1.602**	413	797	392	896,3	830,7	882,3	993,8
2012	**2.013**	332	1.233	448	856,0	790,3	865,8	879,7
2013	**1.974**	251	1.383	340	825,4	743,9	838,8	821,6
2014	**2.505**	178	1.885	441	844,7	729,4	861,0	818,5

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Higiezinen Eskaintzaren Estatistika.

III.5.9. KOADROA. EAEn ALOKAIRURAKO ESKAINTZEN DIREN ETXEBIZITZEN ERRENTAREN BILAKAERA. (€/HILEA).

	MERKATU BABESTUA			MERKATU LIBREA
	BOE	SOZIALAK	**GUZTIRA**	
2008	380,3	118,0	**233,8**	968,9
2009	325,0	121,4	**219,8**	875,3
2010	277,0	122,7	**204,0**	921,5
2011	331,8	134,6	**279,2**	896,3
2012	:	:	**345,1**	856,0
2013	:	:	**333,1**	825,4
2014	:	:	**326,3**	844,7

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Higiezinen Eskaintzaren Estatistika.

Bestetik, 2014ko laugarren hiruhilekoan alokairurako eskainitako etxebizitza libreen lagina, esan dugunez, 2.505 unitatekoa zen. Lurralde banaketa honelakoa da: Bizkaian %75,2, Araban %7,1 eta gainerako %17,7 Gipuzkoan.

Batez bestez, partikularrenak diren eta higiezin jabetzaren agenteen bidez alokatzeko eskaintzen diren etxebizitzek hilean 844,7 euroko errenta zeukaten 2014an, aurreko urtean baino %2,3 gehiago beraz. Lurralde historikoen arabera, Bizkaiak dauka preziorik garestiena (861 euro hilean); gero Gipuzkoak, 818,5 hilean eta azkenik Arabak (729,4 hilean). Bilakaeraren azterketan, hazkundea ageri da Bizkaian (%2,6); Araban eta Gipuzkoan, berriz, alokairu errentek %1,9 eta %0,4 egin dute behera hurrenez hurren.

III.5.5. GRAFIKOA ALOKAIRUKO ETXEBIZITZAREN ESKAINTZAREN ETA ALOKAIRU LIBREAREN BATEZ BESTEKO HILEKO ERRENTAREN BILAKAERA €)



Iturria.- EUSKO JAURLARITZA. Higiezinen Eskaintzari burruzko estatistika

5.2.3 Etxebizitzaren prezioen erkaketa, autonomia erkidegoen arabera

Inkestaren emaitzek erakusten dutenez, 2008an eta 2009an etxebizitzaren batez besteko prezioetan izandako jaitsiera 2010ean pixka bat txikiagoa izan ondoren, 2011ko jaitsiera handiak jarraitu zuen 2012an, %12tik gorakoa, erkidego askotan. Azkenik, behera egiten jarraitu zuen 2013an, bana neurri ezberdinean.

2014,an, lehen igoerak agertu dira Estatu mailan (+%1,7 batez beste), eta bilakaera askoz lauagoa da eta, hala, aldakuntza nulua da EAEn. Tarte bi hauetan daude datuak: Valentziako Erkidegoko %+2,8 eta Nafarroako %-4,2.

III.5.10. KOADROA. ETXEBIZITZAREN PREZIOEN INDIZEA: LAU HIRUHILEKOETAKO URTEKO ALDAKUNTZA-TASAK.

	2011	2012	2013	2014
ESTATUKO BATEZ B.	-11,2	-12,8	-7,8	1,7
ANDALUZIA	-8,4	-11,5	-6,3	1,8
ARAGOI	-12,5	-11,8	-12,5	0,1
ASTURIAS	-10,5	-12,4	-11,5	-0,3
BALEARS, ILLES	-9,8	-11,4	-3,7	0,7
KANARIAR U.	-7,7	-13,3	-6,8	0,5
KANTABRIA	-11,6	-12,7	-4,6	1,8
GAZTELA ETA LEON	-10,5	-12,4	-13,2	0,8
GAZTELA MANTXA	-8,8	-11,2	-14,9	0,4
KATALUNIA	-14,3	-14,3	-7,2	2,2
VALENTZIAKO E.	-9,8	-14,0	-6,4	2,8
EXTREMADURA	-8,0	-8,6	-15,7	-0,7
GALIZIA	-7,9	-12,6	-10,9	1,0
MADRIL	-15,7	-13,1	-6,5	2,9
MURTZIA	-7,1	-11,5	-13,8	2,7
NAFARROA	-10,9	-11,0	-13,2	-4,2
EAE	**-12,2**	**-13,3**	**-5,3**	**0,0**
ERRIOXA	-14,2	-13,8	-11,6	0,2
CEUTA	-12,9	-9,1	-5,9	1,0
MELILLA	-14,2	-9,3	-10,2	1,3

Iturria:EIN. IPV.

5.2.4 Eraikuntzaren eta etxebizitzaren jarduera

Lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitzaren Behatokiak jakinarazi duenez, EAEn hasitako etxebizitzen guztizko kopurua negatibo bihurtu zen 2011 eta 2012ko bi urtekoan, hazkunde nabarmena izanik, 2008an eta 2009an jaitsiera handia izan ondoren. Alabaina, 2012an %45,2 egin zuen behera hasitako etxebizitzen kopuruak, eta joera hori sakondu egin zen 2013. urtean (eskuragarri dugun azken datua), hain zuzen ere -%21,3ko jaitsierarekin. Hasitako etxebizitzetatik %50 libreak ziren eta %50 babestuak. Ez dugu hasitako etxebizitza babestuen 2014ko kopuruen berri (ez dago merkatu librearen gaineko informaziorik): Orotara 1.553 etxebizitza hasi ziren, 2013an baino %23,6 gutxiago. Hasitako etxebizitza babestua murriztuz joan da joan den 8 urtean; izan ere, %79 jatsi da 2007tik (5.800 etxebizitza urtean):

III.5.11. KOADROA. ERAIKUNTZA EAE-N: HASITAKO ETA BUKATUTAKO ETXEBIZITZAK

	Hasitako etxebizitzak			Bukatutako etxebizitzak		
	Libreak	Babestuak *	Guztira	Libreak	Babestuak	Guztira
2009	3.855	3.196	7.051	8.782	4.672	13.454
2010	2.572	4.966	7.538	6.409	4.991	11.400
2011	4.804	4.540	9.344	5.851	5.473	11.324
2012	2.743	2.420	5.163	4.757	3.835	8.592
2013	2.029	2.032	4.061	3.994	1.842	5.836
2014	:	1.553	:	2.560	2.239	4.799

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Etxebizitzaren Behatokia.
** Etxebizitza babestuaren modalitate berriak: etxebizitza tasatuak eta dotazioko bizitegiak.*

III.5.12. KOADROA. EAEn HASITAKO ETXEBIZITZA BABESTUEN BILAKAERA, TIPOLOGIAREN ARABERA.

	EJ-REN KALIFIKAZIO PEAN DAUDENAK			EJ-REN KALIFIKAZIO PEAN EZ DAUDENAK			GUZT.
				DOTAZIO ALOJAMENDUAK	UDAL ETXEBIZITZA TASATUAK		
	BOE	SOZIALAK	TASATUAK		ALOKAIRUA	JABETZA	
2007	5.302	590	-	361	100	957	**7.310**
2008	4.793	847	-	103	-	516	**6.259**
2009	2.939	91	37	-	-	129	**3.196**
2010	3.756	846	14	-	-	350	**4.966**
2011	3.663	391	136	110	-	240	**4.540**
2012	1.961	60	304	91	-	4	**2.420**
2013	1.519	153	261	47	-	52	**2.032**
2014	1.441	-	40	55	-	45	**1.553**
GUZTIRA 2007-14	**25.374**	**2.978**	**792**	**767**	**100**	**2.293**	**32.276**

Iturria. EUSKO JAURLARITZAREN datuekin eginikoa. Etxebizitzaren Behatokia.

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Plana 2006-2009 abian jarri zenetik, etxebizitza babestuen merkatuan figura berriak sortu dira. Horrek ekarri du, oraingoz, dotazio alojamenduak eraikitzen hastea 2006az geroztik, 2007az geroztik udal etxebizitza tasatuak (saltzeko eta alokatzeko) eta 2009az geroztik etxebizitza autonomiko tasatuak. Aldi horretan 767 dotazio alojamendu, alokairuko 100 udal etxebizitza tasatu eta salmentako 2.293 etxebizitza eta Eusko Jaurlaritzaren 792 etxebizitza tasatu eraikitzen hasi dira, guztira.

III.5.6. GRAFIKOA. ETXEBIZITZA BABESTUAREN ESKAINTZAREN BILAKERA LURRALDEKA. HASITAKO ETXEBIZITZAK.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Etxebizitza Saila

Bestalde, EAEn 2014an amaitutako etxebizitzak 4.799 dira, aurreko urtean baino %17,8 gutxiago, amaitutako etxebizitza libreen beherakadaren (-%35,9) eta babestutakoen gorakadaren (+%21,6) baturaren emaitza gisa. Datu horiek erakusten dutenez, bestetik, etxebizitza babestuak EAEko eraikuntzaren jardueran duen partaidetza handitu egin da, zeren eta bukaturiko etxebizitzen artean duen pisua %31,6tik %46,7ra igaro baita.

Eraikuntzan EAEk Estatu osoarekin alderatuta izan duen bilakaera dela eta, hauxe nabarmentzen du Etxebizitzaren Euskal Behatokiak "*Higiezinen merkatua EAEn 2013*" txostenean: higiezinen krisiak eragin txikiagoa izan duela EAEn, Sustapen Ministerioak bukaturiko etxebizitzei buruz emandako kopuruak kontuan izanik. Bukaturiko etxebizitzen (babestuak eta libreak) indize lotuei buruzko datuei esker (2003ko zifra 100 indizetzat hartuta), sektorean 2013ra arte gertatutakoaren gaineko jarraipena egin daiteke. Lehenik eta behin, etxebizitza babestuak hazkunde erritmoa handiagoa islatzen du EAEn 2009ra arte, eta ondoren Estatuaren datuetara hurbiltzen da 2010-2011ko bi urtekoan. 2012an behera egin zuen indizean, eta are gehiago 2013an, halako moldez non 45 puntu jaitsi baitzen EAEn eta 42 Estatu osoan. Halaber, bukaturiko etxebizitza libreen indizeak jaitsiera nabarmena erakusten du 2010etik, baina ez hain handia EAEn. Estatuan, 2013an, gutxieneko historikoa lortu zen, 9 puntu 2003ko 100eko oinarriarekiko, EAEko 50 puntuen aldean.

III.5.7. GRAFIKOA. EAE-N ETA ESTATUAN BUKATURIKO ETXEBIZITZEN ERKAKETA. 2013. URTEA



Iturria.- Etxebizitzaren behatokiaren datuekin eginikoa, sustapen ministerioarenak oinarri hartuta.

Bestalde, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak 2014ko laugarren hiruhilekoko bere "*Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko estatistika*"-n nabarmentzen duenez, finkatu egin da aurten eraikuntzako obren tipologien joeraren aldaketa, gero eta gehiago birgaikuntzara bideratuta, krisia hasi zenetik ikusi izan denez.

III.5.13 KOADROA. OBRA NAGUSIKO LIZENTZIA KOPURUAREN BILAKAERA EAE-N, TIPOLOGIAREN ARABERA

	L., GUZT.	BERRIA	BIRGAIKUNTZA	ERAISPENA
2008	**3.133**	1.024	2.019	90
2009	**2.034**	578	1.407	49
2010	**2.602**	675	1.863	64
2011	**2.883**	660	2.174	49
2012	**2.380**	447	1.909	24
2013	**2.145**	351	1.746	48
2014	**2.585**	390	2.133	62

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Azterlana.

2014. urtean, EAEko udalek obra nagusiko 2.585 *lizentzia* eman zituzten guztira (etxebizitza berriak, birgaikuntzako eta eraispenekoak batuta), 2013an baino %20,5 gehiago. Lurraldeen arabera, Bizkaiko (+%32,2) eta Gipuzkoako (+%24,5) igoerak nabarmentzen dira. Araban, berriz, %0,3 besterik ez ziren gehitu lizentziak.

III.5.14. KOADROA. OBRA NAGUSIKO LIZENTZIA KOPURUAREN BILAKAERA EAE-N, MOTAREN ETA LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA. 2013-2014.

		2013	2014	13-14 ald. %
EAE	**GUZTIRA**	**2.145**	**2.585**	**20,5**
	BERRIA	351	390	11,1
	BIRGAIKUNTZA	1.746	2.133	22,2
	ERAISPENA	48	62	29,2
ALAVA	**GUZTIRA**	**691**	**693**	**0,3**
	BERRIA	110	113	2,7
	BIRGAIKUNTZA	565	558	-1,2
	ERAISPENA	16	22	37,5
BIZKAIA	**GUZTIRA**	**1.062**	**1.404**	**32,2**
	BERRIA	150	179	19,3
	BIRGAIKUNTZA	891	1.203	35,0
	ERAISPENA	21	22	4,8
GIPUZKOA	**GUZTIRA**	**392**	**488**	**24,5**
	BERRIA	91	98	7,7
	BIRGAIKUNTZA	290	372	28,3
	ERAISPENA	11	18	63,6

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko azterlana.

2014ko 2.585 lizentzietatik %15,1 eraikuntza berrietarako lizentziei dagokie, %2,4 eraispenerako eta horietatik %82,5 eraikuntzak birgaitzeko dira (%81,4 2013an), hots, 10etik 8. Aurreko urteetan, berriz, ez ziren lizentzia guztien %50 ere.

2006-2014ko epealdian gertaturikoa hartzen badugu kontuan, %28,6 murriztu da obra nagusiko lizentzia kopurua, eta etxebizitza berriak eraikitzeko lizentzien jaitsiera nabarmentzen da: %76,4 egin du behera. Bigaren tokian, eraispenekoak, %39,2 jaitsi dira. Birgaikuntzarako lizentziek, berriz, %14,6 egin dute gora.

5.3 ETXEBIZITZAREN ESKARIA

5.3.1 Etxebizitzaren beharrak eta eskaria

a) Eskuratzeko beharra

Gurasoekin edo tutoreekin bizi diren 18-44 urteko pertsonek lehenbiziko etxebizitza eskuratzeko duten beharrari buruzko hurbilketan, hauxe egiaztatu du Eusko Jaurlaritzaren 2013ko "*Etxebizitzaren beharrei eta eskariari buruzko inkesta*"-n (EBEI): etxebizitza eskuratzeko prozesua finantzatzen pentsatzeko adinako diru-sarrerak dituzten 65.346 pertsonak adierazten dutela behar hori. 2011ren aldean, kopuru hori %25,9 jaitsi da eta %39,6raino 2010aren aldean, eta %41 2009an izandako gehienekoarekiko.

III.5.15. KOADROA. LEHEN ETXEBIZITZA ESKURATZEKO BEHARREN ETA ESKARIAREN ZENBAKETA, ADIN-TALDEEN ETA SEXUAREN ARABERA, 2013

	ESKURATZEKO BEHARRA DUTEN 18-44 URTEKO PERTSONAK		18-44 URTEKOAK		GURASOEKIN BIZI DIREN 18-44 URTEKOAK		GURASOEKIN BIZI DIREN ETA BEREN DIRU-SARRERAK EDO ERRENTAK DITUZTEN 18-44 URTEKOAK	
	KOP.	% bert.	KOP.	BEHARRAREN %	KOP.	BEHARRAREN %	KOP.	BEHARRAREN %
18 - 24 URTE	8.431	12,9	124.004	6,8	109.508	7,7	24.291	34,7
25 - 34 URTE	47.861	73,2	262.311	18,2	130.274	36,7	85.368	56,1
35 - 44 URTE	9.053	13,9	362.766	2,5	27.474	33,0	16.477	54,9
EMAKUMEAK	31.777	48,6	365.411	8,7	124.124	25,6	58.719	54,1
GIZONAK	33.569	51,4	383.670	8,7	143.132	23,5	67.416	49,8
GUZTIRA	**65.346**	**100,0**	**749.081**	**8,7**	**267.256**	**24,5**	**126.136**	**51,8**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EBEI 2013

65.346 pertsona talde hori gurasoekin edo tutoreekin bizi diren 18 eta 44 bitarteko pertsonen %24,5 da, baina pisu hori asko aldatzen da adinaren arabera: Proportzioa %7,7 besterik ez da 25 urtetik beherakoen artean, %36,7 25 eta 34 urte bitartekoen artean eta egonkor eusten dio 35 eta 44 urtekoen artean, %33an hain zuzen.

III.5.16. KOADROA. LEHEN ETXEBIZITZA ESKURATZEKO BEHARRAREN BILAKAERA EAE-N (GURASOEKIN EDO TUTOREEKIN BIZI DIREN 18-44 URTEKOAK)

	2010		2011		2013	
	KOP.	% BERT.	KOP.	% BERT.	KOP.	% BERT.
ETXEB. ESKURATZEKO BEHARRA DUTENAK*	108.131	35,7	88.128	31,1	65.346	24,5
SARRERARIK GABEKO PERTSONAK	136.386	45,1	147.881	52,2	141.120	52,8
SARRERA EZ NAHIKOAK EDO EZEGONKORRAK	9.355	3,1	14.446	5,1	27.287	10,2
BADUTE ETXEBIZITZA	23.667	7,8	21.934	7,7	9.206	3,4
BEHARRIK EZ	22.833	7,5	7.815	2,8	14.100	5,3
BESTELAKO EGOERAK	2.361	0,8	2.981	1,1	10.197	3,8
ELKARREKIN BIZI DIREN 18-44 URTEKOAK...	**302.733**	**100,0**	**283.185**	**100,0**	**267.256**	**100,0**

** eta nahikoa diru-sarrerekin*
Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EBEI 2013.

Gurasoekin edo tutoreekin bizi eta beren diru-sarrerak edo errentak dituzten 18 eta 44 urte arteko pertsona guztiei dagokienez, guztira 126.136 dira, eta etxebizitza eskuratzeko taldea %51,8 da. Sexuaren arabera, behar handia ikusten da emakumeen artean (%54,1) gizonezkoen artean baino (%49,8).

2010 eta 2013 urte artean lehen etxebizitzaren gaineko beharraren %40 inguruko jaitsierak argi erakusten du faktore bereizien garrantzia: Lehenbizikoa demografikoa da soil-soilik, gurasoekin edo tutoreekin bizi diren 18 eta 44 urtekoen artekoen bolumenaren jaitsiera dela eta. Egoera horretan dauden pertsonen kopurua 302.733 zen 2010ean eta 2013an, berriz, 267.256 (-%11,7).

Azpimarratu beharreko bigarren faktoreak krisiaren ondorioekin du zerikusia: 2010 eta 2013 artean lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18 eta 44 urte bitartekoen portzentajearen jaitsierak (%35,7tik %24,5era) diru-sarrerarik ez duen erreferentziako biztanleriaren gehikuntzarekin du zerikusia (2010eko %45,1etik 2013ko %52,8ra). Hori dela eta, ez da ezarri etxebizitzaren beharra kalkulatzearen ondorioetarako. Diru-sarrerarik gabeko pertsonei

GRAFIKOA. III.5.8. EAE-KO LEHEN BIZITZARAKO SARBIDEAREN BEHARRA: ETXE-GUZTIKOAREN EHUNEKO GAINEKOA



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EBBI 2013

diru-sarrera nahikorik edo egonkorrik ez duten pertsonek batuz gero, are hazkunde nabarmenagoa da: taldearen %48,2tik %63ra. Kopuru absolutuetan, 2010eko 145.741 pertsona izatetik 2013ko 168.407 pertsona izatera.

Egungo etxebizitza nagusien guztizkoari dagokionez (familiak), behera egin du lehen etxebizitzaren beharrak: 2011ko %9tik (76.360) 2013ko %6,8ra (59.318 etxebizitza). 2005-2013ko epealdiko portzentajerik baxuena da, eta 2009an %13tik gorakoa izan zen.

Lurraldeen arabera, lehen etxebizitzaren beharraren beherakadak Bizkaiarekin eta Arabarekin dago lotuta. Bizkaiko 18 eta 44 urte bitarteko biztanleriak 29.945 etxebizitza behar ditu, 2011n baino %36 gutxiago, eta eskari hori etxebizitza nagusien parkearen %6,5aren baliokidea da. 18 eta 44 urte bitarteko Arabako biztanleriaren aldetik, bestalde, behera egin du lehen etxebizitzaren eskariak, halako moldez non behar ziren 6.666 etxebizitzetatik %19,7 murriztu baitira 2011ren aldean. Hala, bizitegien parkearen %5 da.

Gipuzkoak, Araban eta Bizkaian ez bezala, igoera txikia izan da lehen etxebizitza behar duten 18 eta 44 urte bitartekoen biztanleria, zeren eta 2011n 21.246 izatetik 2013an 22.707 izatera igaro baita (+%6,9). Lurralde horretan, behar diren lehen etxebizitzak etxebizitza nagusien parkearen %8,1 dira (%7,8 2011n).

Eskariari dagokionez, familiaren emantzipazioa aipatzen du %74,7k zio nagusi gisa, eta %22,2k, berriz, soilik bikotekidearekin bizitzearekin du lotura. Gainerako %3 lantokia tokiz aldatzearekin edo bestelako zioiekin dago lotuta.

Lehen etxebizitza eskatzen duten pertsonen profila aztertuta, talderik garrantzitsuena 25 eta 34 urte bitartekoen multzoan dago: %73,2. 35 eta 44 urte bitartekoei %13,9 dagokie eta 25 urtetik beherakoei, berriz, %13. Gizonezkoak eskatzaileen %51,4 dira, eta emakumeak %48,6.

Ikasketa mailari dagokionez, %45,5ek unibertsitateko titulua du, %32,5ek lanbide ikasketak eta %10,6k bigarren mailakoak. Lehen mailako ikasketak dituztenak %10,6 dira. Gainera, lehen etxebizitza eskatzen dutenek, kasuen %44,1ean, inoren konturako lana eta kontratu finkoa dituzte, eta %36,8tik gora aldi baterako kontratua. Bere kontura lan egiten duten langileak %11 dira, eta %5,5 langabezian dago. Etxebizitza moten gaineko preferentziei dagokienez, %38,7k alokairua lehenesten du. %36,7k, berriz, jabetza aukeratzen du. Gainerakoek bata zein bestea aukeratuko lukete. 2011ri dagokionez, jabetzaren aldeko jaitsiera nabarmena antzematen da: %52tik %36,7ra.

III.5.17. KOADROA. ETXEBIZITZA ESKURATZEKO BEHARRA DUEN BIZTANLERIAREN EZAUGARRIAK EAE-N, SEXUAREN ARABERA. 2010-2013. PORTZENTAJE BERTIKALAK GUZTIZKOAREKIKO.

	2010	2011	2013
ADINA			
18 – 24 URTE	19,8	14,7	12,9
25 – 34 URTE	66,6	71,9	73,2
35 – 44 URTE	13,6	13,4	13,9
B.B. ADINA	*28,5*	*28,8*	*28,0*
SEXUA			
EMAKUMEA	44,4	48,1	48,6
GIZONA	55,6	51,9	51,4
IKASKETA MAILA			
IKASKETARIK GABE/LEHEN MAIL.	14,1	18,0	11,4
LANBIDE IKASKETAK	33,0	26,0	32,5
BIGARREN MAILAKO IKASKETAK	11,0	10,4	10,6
UNIBERTISTATEKO IKASKETAK	41,9	45,6	45,5
JARDUERAREKIKO HARREMANA			
BERE KONTURA LAN EGITEN DU	7,4	7,9	11,0
LANEAN ARI DA /FINKOA	49,7	69,1	44,1
LANEAN ALDI BATEZ	33,8	14,6	36,6
LANGABETUA	5,9	5,8	5,5
BESTELAKO EGOERAK /ED/EE	3,2	2,6	2,9
EDUKITZE ARAUBIDEA			
JABETZA	51,6	52,0	36,7
ALOKAIRUA	23,2	17,8	38,7
BATA NAHIZ BESTEA	25,2	30,3	24,6

Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN datuekin eginikoa. EBEI.

Azkenik, etxebizitza eskuratu beharra duten pertsonen finantza-ahalmenari dagokionez, lehenik eta behin pertsona horiek, batez beste, hileko 1.365,9€-ko diru-sarrera dute (-%12,7 2011ren aldean). Hala, pertsonen pisu erlatiboaren igoera ageri da diru-sarrera txikiagoak dituztenen tartean, halako moldez non %21,7k 840 euro baino gutxiago baitute hilean. Ondorioz, hileko ordainketak egiteko ahalmena gutxitu egin da; izan ere, batez beste 385,2€ dira (-%11,4 2011ren gainean), eta etxebizitzaren beharra duen taldearen %40tik gora ditu hilean 300€ etxebizitza ordaintzeko.

Diru-sarreren eta ordainketak egiteko ahalmenaren bilakaera horren ondorioz, EBEIren zenbatespenen arabera, 22.453€ da (-%14,6 2011ren aldean) etxebizitza eskuratu behar duten pertsonek bere gain har dezaketen gehieneko prezioa 2013an, eta gehienek (%55,8) 120.000€tik beherako prezioa duen etxebizitzaren ordainketa baino ez har

dezakete bere gain. Etxebizitza ordaintzeko, kreditua da finantzabiderik aipatuena (%80,4), eta norberaren aurrezkiak eta familiaren laguntza bigarren tokian aipatzen dira, askoz pisu erlatibo txikiagoekin (inkestaturiko pertsonen %42,7 eta %28,5).

III.5.9. GRAFIKOA ETXEBIZITZA ESKURATU BEHAR DUTEN PERTSONEN FINANTZA-AHALMENA EAE-N (€)



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EBBI 2013.

III.5.10. GRAFIKOA. ETXEBIZITZAREN BEHARRAREN BILAKAERA EAE-N



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EBBI 2013.

b) Aldaketa beharra

2013. urtean, 61.621 euskal familiak zioen etxebizitza aldatu beharra zuela, guztizkoaren %7,1ek. Hots, %62ko igoera 2011ren aldean. Izan ere, urte horretan guztizkoaren %4,5 ziren etxebizitza horiek. Epe luzerako ikuspegiaren arabera, 2005etik izandako mailarik handienetako batean kokatzen da 2013ko beharraren indizea, baina denboran gertaturiko bilakaera oso irregularra izan da.

III.5.18. KOADROA. ETXEBIZITZA ALDATZEKO BEHARRAREN ZENBAKETA EAE-N LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA

	ETXEBIZITZAK		BEHARRAREN INDIZEA	
	2011	2013	2011	2013
ARABA	6.601	8.818	5,2	6,6
BIZKAIA	22.230	41.283	4,9	9,0
GIPUZKOA	9.218	11.521	3,4	4,1
EAE	**38.048**	**61.621**	**4,5**	**7,1**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EBEI 2013.

Lurraldeen arabera, Bizkaia da zabalkuntza orokorrerako jarrera horren burua; izan ere, etxebizitza aldatu beharra duten familien %85,7ko igoera erakusten du. Hala, familien %4,9tik %9ra igaro da. Araban, bestalde, familien %5,2tik %6,6ra igaro da, eta gehikuntza %33,6koa da; eta Gipuzkoan, igoera txikiena izan den lurraldean (familia kopuruaren igoera %25 izan da), etxebizitza aldatu behar duten familien %3,4tik %4,1era igo da.

III.5.11. GRAFIKOA. ETXEBIZITZA ALDATZEKO ESKARIAREN BILAKAERA EAE-N FAMILIEN KOPURUAREN BEHARRAREN EPEARE ARABERA



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EBBI 2013.

Etxebizitza aldatu behar duten 61.621 familietatik, %20,5ek baino ez du aurreikusten (12.628) hurrengo urtean aldaketari aurre egiteko moduan egotea, hots, 4,4 puntuko murrizpena 2011ko %24,9aren aldean. Gainera, familien % 33,7k bi urte epean etxebizitza aldatzeko dela adierazi du (20.744 familia) eta gainerako %49,5ak ez du uste 4 urte baino lehen aldaketa egiteko moduan izango denik.

Etxebizitzaren tamaina desegokia da oraindik ere aldatzeko beharra izateko zio nagusia; izan ere, halaxe aipatzen da kasuen %33,1ean, eta ondoren dator alokairu merkeagoa bilatu nahia (%17,2). Hirugarren tokian, berriz, bestelako zioak ageri dira (%14,7), eta horietan sartzen dira, esaterako, etxebizitza eskuratzeko gabeziak edo familiako bestelako gai espezifikoak. Aurreko horiek direla eta, goranzko joera antzematen da etxebizitzaren tamaina eta alokairu merkeago bilatu nahi izateko zioetan.

III.5.12. GRAFIKOA. ETXEBIZITZA ALDATU HEBARRA DUTEN FAMILIAK EAE-N ZIO NAGUSIAREN ARABERA



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EBBI 2013.

Etxebizitza aldatu behar duten familien finantza-ahalmenari dagokionez, lehenik eta behin esan behar da, batez beste, hileko 1.690,5€-ko diru-sarrera garbia dutela (-%5 2011koaren aldean). Gainera, pisu erlatibo handiagoa ageri da diru-sarrera txikiagoa dutenen tarteetan, halako moldez non %41,3k gutxienez 1.411 € baititu hilean. Horren ondorioz, etxebizitza aldatu ahal izateko hileko ordainketa egiteko ahalmena ere gutxitu da; izan ere, batez beste 467€ da (-%1,1 2011ren aldean). Bilakaeraren aldetik, beheranzko joera nabarmena antzematen da familia horiek etxebizitza aldatzeko ordainketak egiteko ahalmenetarako, 2008an bildutako kopurutik hona (522 € hilean).

Diru-sarreren eta ordainketarako ahalmenaren bilakaera horren ondorioz, EBEIk eginiko zenbatespenen arabera, 157.786€ da (-%19 2011ren aldean) etxebizitza aldatu beharra duten pertsonek bere gain har dezaketen gehieneko prezioa. Aurreko urteen aldean, jaitsiera nabarmena ageri da 2007an izandako gehieneko kopurutik: 229.085€.

Azkenik, finantzazio formulak direla eta, nagusi diren bi formula ikusten dira: Kreditua baliatzea (%54,7) eta aurreko etxebizitza saltzea (%40,7). Norberaren aurrezkiak hirugarren tokian daude: kasuen %23,9tan aipatu dira.

c) Birgaikuntza beharra

EBEIren zenbatespenen arabera, 90.139 euskal familiak behar dute etxebizitza birgaitzeko jarduketa 2013an. Hala, magnitude hori EAEko famili etxebizitza parkearen %10,3 da. Bilakaeraren aldetik ikusten denez, etxebizitza birgaitzeko beharra handitu da 2011ren aldean, familia kopuruan (+%19,6) nahiz behar horren eragin erlatiboan (%1,4 gehiago). Epe luzerako ikuspegitik, joera aldaketa nabarmentzen da etxebizitza birgaitzeko beharra duten familietan 2009tik ikusitako jaitsieraren aldean

Lurraldeen araberako azterketak agerian uzten duenez, Arabak garrantzia du joera aldaketa horretan eta, beraz, gora egin dute beharrek 2013. urtean, zeren eta aipaturiko birgaikuntza behar duten Arabako familien kopurua %131,6 hazi baita 2011 eta 2013 bitartean. Hala, behar erlatiboaren indizerik handieneko lurraldea bihurtu da, %13,5, Bizkaiko %9,7aren eta Gipuzkoako %9,8aren aldean. Bizkaian ere izan da gehikuntza birgaikuntza beharra duten familien kopuruan (+%15,1 2011ren aldean). Gipuzkoan, berriz, %4,7ko jaitsiera dago.

Behar den birgaikuntzaren ezaugarriei dagokienez, familien ia erdiak dio famili etxebizitzaren elementu bakarren ingurukoak direla beharrak (komuna, lurra, berogailu instalazioak, leihoak aldatzea...), eta portzentaje hori ia %60 da Gipuzkoako etxeetan.

Eraikineko eremu komunetan zentraturiko birgakuntza-lanen tipologia aipatzen dute birgaikuntza beharra duten EAEko familien %18,4k, eta ratio handiagoa da Bizkaiko etxeetan (%23). Bestalde, familien %31,8k dio hobekuntzako obra egin beharra dagoela, etxebizitza barruan nahiz eraikineko eremu komunetan.

III.5.13. GRAFIKOA. EAE-N ETXEBIZITZA ALDATU BEHARRA DUTEN PERTSONEN FINANTZA-AHALMENA (€)



Iturria.- EUSKO JAURLARITZA. EBBI 2013.

III.5.14. GRAFIKOA. EAE-N ETXEBIZITZA BIRGAITZEKO BEHARRAREN BILAKAERA



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EBBI 2013.

III.5.19. KOADROA. ETXEBIZITZA BIRGAITZEKO BEHARRAREN ZENBAKETA EAE-N LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA

	ETXEBIZITZAK		BEHARRAREN INDIZEA	
	2011	2013	2011	2013
ARABA	7.829	18.132	6,2	13,5
BIZKAIA	38.649	44.499	8,6	9,7
GIPUZKOA	28.864	27.508	10,6	9,8
EAE	**75.342**	**90.139**	**8,9**	**10,3**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EBEI 2013.

Bilakaeraren aldetik, elementu komunetan nahiz etxebizitzan bertan berrikuntza behar duten birgaikuntza nabarmentzen da: 2007an %15 izatetik 2013an %32 izatera.

Kostua dela eta, birgaikuntza aipatzen duten familiek uste dute elementu bakarrak berritzeko lanak, batez beste, 15.202€ kostako direla, baina kostu hori txikiagoa da eraikineko elementu komunak berritzeko kasuetan, 11.580€ hain zuzen ere. Birgaikuntza egin beharra adierazten duen familien gutxiengoa da bereziki aurrekontu handia behar duten obrak dituztenak: Horien % 9,7k 30.000€-tik gorako kostua aipatzen du etxebizitzako elementu bakarren gaineko berrikuntzan, eta portentaje txikiagoa ageri da elementu komunetan, %8,1 hain zuzen ere.[5]

Azkenik, birgaikuntza beharra adierazten duten EAEko familiak bizi diren etxebizitzen ezaugarri hauek nabarmentzen dira:

- Ez dirudi eraikinen adina denik behar hori adierazterako aldagaia: EBEIren arabera, 43 urtekoa da birgaikuntza beharra duten familien batez besteko antzinatasuna, eta datu hori ez da oso ezberdina EAEko famili etxebizitza parkearen batez besteko adinetik; izan ere, 39,7 urtekoa da (2011ko Zentsuko datua).
- Etxebizitzen batez besteko azalera baliagarria 80,1 m^2 da, EAEko famili etxebizitza parke osoa baino pixka bat txikiagoa besterik ez (86,9 m^2).
- Behar hori duten etxebizitza gehienak etxebizitza libreei dagozkie (%89,9) eta eraikin kolektiboetan edota pisuetan kokatzen dira (%87,8).
- Birgaikuntza beharra adierazten duten familia ia guztiak bizi dira jabetza araubidean. Alabaina, etxebizitza horiek ordaintzeko erabilitako hipoteka-bermea duten maileguen ehuneko handi bat oraindik erabat ordaindu gabe dago.

BEHARRA DUTEN ETXEBIZITZEN BIRGAIKUNTZA MOTA EAE-N LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA. PORTZENTAJEKO BANAKETA. 2013

	ELEM. PRIB.	ELEM. KOMUNAK	ELEM. PRIBAT. ETA KOMUNAK	GUZTIRA
ARBA	49,8	12,5	37,7	100,0
BIZKAIA	44,2	23,0	32,8	100,0
GIPUZKOA	58,7	14,9	26,5	100,0
EAE	**49,8**	**18,4**	**31,8**	**100,0**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EBEI 2013.

III.5.15. GRAFIKOA. EAE-N BEHARRA DUTEN ETXEBITZAK ESKATURIKO BIRBAIKUNTZA MOTAREN BILAKAERA



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EBBI 2013.

III.5.21. KOADROA. BIRGAIKUNTZA BEHAR DUTEN ETXEEN EZAUGARRIAK EAE-N. 2013.

	2013
B.B. AZALERA BALIAGARRIA	80,1 M^2
B.B. ANTZINATASUNA	43,1 URTE
ETXEBIZITZA LIBREAREN %	%89,9
ERAIKIN KOLEKTIBOA	%87,8
FAMILIA BATEKO ERAIKINA	%12,2
EDUKITZE ARAUBIDEA:	
- GUZTIZ ORDAINDUTAKO JABETZA	%51,9
- ORDAINKETAK EGITEKO DITUEN JABETZA	%31,9
- OINORDETZA EDO DOHAINTZAKO JAB.	%9,2
- ALOKAIRUA	%4,7
- BESTELAKOAK (UTZIA, DOAN, ETB.)	%2,3

Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN datuekin egina. EBEI.

5 Birgaikuntza kostuari buruzko galderei erantzun dien familien portzentaje handia dela eta, zuhurtziaz interpretatu behar dira datu ekonomiko horiek.

5.3.2 Familien finantza-ahalegina

EAEko familiek etxebizitzak ordaintzeko egin behar duten finantza-ahaleginari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitzaren Behatokiak erakutsi du, Higiezinen Erregistro Estatistikako datuak erabilita, finantza-ahalegin hori hileko batez besteko hipoteka kuotaren eta soldata kostuaren arteko harremanaren ikuspuntutik aztertuz gero, % 27koa izan da 2014ko laugarren hiruhilekoan, hau da, aurreko urtean baino1,54 puntu portzentual gutxiago ditu.

Estatu osoari dagokionez, antzeko ibilbidea ageri da, baina jaitsiera handiagoa dugu: ahalegin hori batez besteko soldata kostuaren %29,39 zen 2014ko amaieran. 2013ko laugarren hiruhilekoan, berriz, %31,79 zen (-2,4 puntu portzentual).

III.5.16. GRAFIKOA. BATEZ BESTEKO HILEKO HIPOTEKAREN KUOTAREN ETA EAE-KO ETA ESTATUKO SOLDATEN ARTEKO ERLAZIOAREN BILAKAERA. % -EKO DATUAK



Iturria. JABETZAREN ERREGISTRATZAILEEN ELKARGOA. Higiezinen Erregistroei buruzko Estatistika

5.3.3 Etxebiden erregistratutako etxebizitza babestuaren eskaria

Etxebizitzaren Euskal Behatokiak bere "*ETXEBIDE Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuaren ebaluazio txosten*"-ean erakusten duenez, zerbitzu horretan erregistraturiko EAEko etxebizitza babestuaren eskaria %2,2 handitu zen 2013. urtean, eta aurreko urtean ere %0,5 hazi zen (2009-2011ko epealdian murriztu ondoren).

III.5.17. GRAFIKOA. ETXEBIZITZA BABESTUAREN ESKARIAREN BILAKAERA EAE-N, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA



Iturria: Geuk egina Etxebizitza Sailaren datuekin.

Zehazkiago, Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza babestuaren eskatzaileen erregistroan zenbatu denez, 2013ko amaieran 86.659 etxebizitza zeuden inskribatuta EAE osoan, hiru lurraldeetan espedienteen kopuruak gora egin izanaren ondorioz: %3,5 Araban (eskariaren %11,4 bildu da), %3,4 Gipuzkoan (inskribaturikoen %33,5) eta batez bestekoaren azpitik, %1,3 Bizkaian (inskribaturikoen %55,2). Gainera, banakoak dira eskabideen %66,9, eta gainerako %33,1 familia-unitateei dagokie.

Etxebiden inskribaturiko pertsona-taldearen ezaugarrien azterketa ardatz hartuta eta haien diru-sarreren mailari erreparatuta ikusten denez, EAEko etxebizitza babestuaren eskariaren %39k 12.000 eta 25.000 euro bitarteko urteko diru-sarrera haztatuak ditu. Bestalde, %34k 12.000 eurotik beherako diru-sarrera maila du, eta %17k 25.000 eurotik gora. Hala, batez besteko diru-sarrera maila haztatua urtean 16.777€ dela zenbatetsi da (+%1,8 2012aren aldean). Etxebizitza babestua alokairuan (13.039€) eta jabetzan (20.514€) eskatzen dituen biztanleriaren batez besteko diru-sarrerak bereizi behar dira.

Bestalde, ETXEBIDEko datuek erakusten dutenez, etxebizitza babestuaren eskariaren %41 arreta bereziko taldeei dagokie: Hala, 2013an, pertsona horien %19 30 urtetik beherakoa da, eta %10, berriz, bananduak edo dibortziatuak. Guraso bakarreko familiak eskariaren %7 dira, eta gainerako taldeek (70 urtetik gorakoak, ezinduak) ehuneko txikiagoak dituzte.

Eskaturiko etxebizita motari dagokionez, inskribaturiko biztanleriak alokairua edo erosketa aukeratu behar du 2013tik hona, eta alokairuko etxebizitzan 50.359 eskabide zenbatu dira (%58,1) eta 36.300 jabetzako etxebizitzan (%41,9). Bilakaeraren aldetik, jabetzako etxebizitzaren eskariaren igoera handia nabarmentzen da azken urtean (+%98,1) alokairuarekiko (+%36,3), baina 2006-2013ko epealdian gertaturikoa kontuan hartzen badugu, alokairua aukeratzen dutenak gutxi izatetik (%23,7) egun aukera nagusia izatera igaro da eskarian.

Gainera, alokairuaren eta erosketaren eskariaren profilaren arteko zenbait ezberdintasun ikusten dira. Hala, etxebizitza babestua eskatzen dutenen %55,1 emakumezkoak dira, eta proportzio hori %59,1ekoa da alokairuaren eskarian eta %48,7koa erosketaren eskarian. Biztanle eskatzaileen batez besteko adina 37,6 urte da (42,2 2012. urtean), eta 40,5 urtera igotzen da alokairuan. Etxebizitza jabetzan eskatzen dutenen batez besteko adina, berriz, 33 urte da. Eskatzaileen %41 kontratu finkoarekin ari dira lanean, eta %8k bere kontura egiten du lan. Gainera, %26k dio langabezian dagoela, eta %22k aldi baterako lana dauka. Bestalde, %32,3raino egin du gora etxebizitza eskatzen duten langabetuan proportzioak alokairuko eskarian, eta ratio hori nabarmen hazi da etengabe azken urteotan.

III.5.18. GRAFIKOA. ETXEBIDEN ESKRIBATURIKO BIZTANLERIAREN SARRERA HAZTATUEN MAILAREN BANAKETA 2013



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. ETXEBIDE.

III.5.19. GRAFIKOA. ETXEBIZITZAREN BABESTUAREN ESKARIAREN BANAKETA EAE-N TALDEEN ARABERA



Iturria: EUSKO JAURLARITZA ETXEBIDE.

III.5.20. GRAFIKOA. ETXEBIDEN INSKRIBATURIKO PERTSONEK ESKATURIKO ETXEBIZITZA MOTAREN BILAKERA



Iturria. ETXEBIDE. EUSKO JAURLARITZA.
** 2013tik hasita alokairua edo erosketa aukeratu beharra dago.*

III.5.22. KOADROA. ETXEBIDE-N ERREGISTRATURIKO BIZTANLERIAREN EZAUGARRI SOZIODEMOGRAFIKO NAGUSIAK. 2013.

		ALOKATZEKO ESKARIA	EROSTEKO ESKARIA	GUZT.
SEXUA	EMAKUMEA	59,1	48,7	55,1
	GIZONA	40,9	51,3	44,9
	GUZTIRA	100,0	100,0	100,0
ADINA	GEHIENEZ 24 URTE	2,4	2,7	2,5
	25 - 34 URTE	30,9	66,8	44,8
	35- 44 URTE	36,9	25,7	32,6
	45- 54 URTE	19,4	4,8	13,8
	55 - 64 URTE	6,1	0,0	3,8
	65 URTE ETA GEHIAGO	4,3	0,0	2,6
	GUZTIRA	100,0	100,0	100,0
	B.B. ADINA	40,5	33,0	37,6
LAN EGOERA	BERE KONTURA LANEAN	6,3	10,8	8,0
	LAN FINKOA	31,8	55,1	40,8
	LANEAN ALDI BATEZ	23,7	18,4	21,6
	LANGABE	32,3	14,6	25,5
	BESTE EGOERA BAT	6,0	1,2	3,6
	GUZTIRA	100,0	100,0	100,0

Iturria. ETXEBIDE. EUSKO JAURLARITZA.

5.4 HIGIEZINEN ARLOKO JARDUERA: ETXEBIZITZAREN SALEROSKETA

III.5.21. GRAFIKOA. ETXEBIZITZEN SALEROSKETAREN BILAKAERA EAE-N ETXEBIZITZA MOTAREN ARABERA



Iturria: Sustapen Ministerioa.

Gure Erkidegoko etxebizitzaren eskaintza eta eskaria azaldu ondoren, 2014ko higiezinen jardueraren dinamikaren kopuru nagusiak laburbilduko ditugu jarraian. Sustapen Ministerioak Notarioen Estatistika oinarri hartuta emandako datuen arabera, 2014an EAEn etxebizitzen 13.879 saleroskeita eskritura gauzatu ziren notarioaren aurrean (behin-behineko datuak dira), hots, %29,3ko igoera 2013koaren aldean (%+21,6 izan zen epealdi berean, Estatu osoan, non guztira 365.594 transakzio zenbatu ziren).

Horietan guztietan positiboa izan da transakzio kopuruaren etxebizitza motaren araberako bilakaera, baina neurri ezberdinetan: etxebizitza libre berrietan, guztira 2.387 transakzio gauzatu ziren (guztizkoaren %17,2), 2013an baino %3,2 gehiago. Gehikuntza txikia izanik ere, dinamika horrek aldaketa dakar aurreko urteekiko, eta jaitsiera handiak izan dira 2006ko gehieneko kopurutik. Izan ere, urte hartan etxebizitza libre berrien 8.675 transakzio erregistratu ziren.

III.5.22. GRAFIKOA. ETXEBIZITZEN SALROESKTAREN BILAKAERA EAE-N LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA



Iturria: Sustapen Ministerioa

Bigarren eskuko etxebizitzen transakzio kopuruari dagokionez (transakzioen %70,4), 2014an guztira 9.777 transakzio gauzatu ziren. Hala, magnitude hori 2013koa baino %40 handiagoa da, hots, transakzio guztizkoaren %+29,3koa baino askoz gehiago. Hala, aldaketa garrantzitsua ikusten da 2010-2013ko bilakaeraren aldetik; izan ere, epealdi horretan erdia baino gehiago murriztu zen salerosketen kopurua (zehazki %54,4).

Etxebizitza babestuak ere izan du bilakaera positiboa, baina neurri txikiagoan: 2014an 1.714 salerosketa gauzatu ziren 2014an, 2013an baino %19,2 gehiago. Beraz, etxebizitzaren tarte horrek pisua galdu du transakzioen guztizko kopuruan: 2013ko %13,4tik 2014ko %12,4ra.

Bilakaera horren lurraldez lurraldeko azterketan ageri denez, bereziki nabaria da Bizkaian eta Gipuzkoan (%34,3ko eta %33ko hazkundeak izan dira hurrenez hurren) EAE osoan ikusitako joera positiboa. Araba da 2014an salerosketa hazkunderik txikiena izan duen lurraldea (+%4,4koa 2013aren aldean). Bilakaera horren ondorioz, Bizkaiak du salerosketa gehien (%52,8), eta ondoren datoz Gipuzkoa (%34,9) eta Araba (guztizkoaren %12,4).

5.5 EAE-N HUTSIK DAUDEN ETXEBIZITZAK

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailak "*EAEn hutsik dauden etxebizitzak zenbatzeko eta ezaugarritzeko bi urterik behingo inkesta*" egiten du, eta halaxe egin izan du 1997tik hona. Daturik berrienak 2013koak dira[6].

EAE-KO ETXEBIZITZEN PARKEAREN BANAKETA, MOTAREN ARABERA. 2013.

	EAE		ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA	
	KOP.	**% A.**	KOP.	A. %	KOP.	A. %	KOP.	A.%
GUZTIRA	**1.041.959**	**100,0**	166.680	100,0	536.556	100,0	338.723	100,0
HARTUAK	**950.951**	**91,3**	147.260	88,3	499.006	93,0	304.685	90,0
HUTSIK	**91.008**	**8,7**	19.420	11,7	37.550	7,0	34.038	10,0
- Sasoikoa	**28.988**	**2,8**	7.527	4,5	10.855	2,0	10.607	3,1
- Inor ez da bizi	**62.020**	**6,0**	11.893	7,1	26.695	5,0	23.431	6,9

Iturria. Etxebizitzaren Behatokia. EUSKO JAURLARITZA. Geuk eginikoa.

Azterlan horren arabera, EAEn zeuden etxebizitzen %8,7 hutsik zegoen 2013an (%8,4 2011n), 91.008 guztira. Horietatik %31,9 (28.988) sasoiko etxebizitzatzat jotzen dira eta gainerako %68,1ean (62.020) ez da inor bizi. Lurraldeen arabera, Arabari dagokio sasoiko etxebizitzek hutsik dauden etxebizitzetan duten pisurik handiena (%38,8), ondoren Gipuzkoari (%31,2) eta Bizkaiari (hutsik dauden etxebizitzen %28,9).

Gure Erkidegoko etxebizitza hutsen portzentajearen bilakaera ikusteko, arreta jarri behar dugu «hiriko errolda sekzioak» (% 10etik beherako biztanleria sakabanatua dutenak) deritzenetan dauden etxebizitzetan, horixe baita

6 2013ko Inkestako emaitzei buruzko argibide gehiago izateko, jo beza irakurleak urte horretako Memoria Sozioekonomikora.

2009ko inkestaren aurreko eragiketetan aztertutako aldagaia. Adierazle horren arabera, 2013ko etxebizitza hutsen ratioa % 7,9koa da, 2011ko % 7,6aren, 2009ko %6,9aren eta 2007ko % 4,9aren aurrean, grafikoan islatu bezala. Gipuzkoan eredua irregularragoa bada ere, oro har joera EAE osoan errepikatzen da: etxebizitza hutsaren pisua jaitsi zen 2007ra arte (Araban lehenago geldotu zen), harrezkero berriro handitzeko.

GRÁFICO III.5.23. UTZIK* CAPV-eko ETXEBIZITZA PROPORTZIOAREN BILAKAERA



Iturria: EUSKAL GOBERNUA. Etxebizitzaren behatokia.
**En hiri-errolda-sailak, haiek zeinen populazioa barreiatuta direnak % 10etatik beherakoa da.*

EAEn omen dauden etxebizitza hutsen % 8,7ri bigarren bizilekutzat jotzen diren % 2,8 kenduz gero, beste helburu batzuk dituzten etxebizitzak % 5,9 dira. Etxebizitza horietatik % 1,8 salgai edo alokagai daude. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak kudeagarritzat (etxebizitza hutsa, bigarren bizileku gisa erabiltzen ez bada ere, merkatuan ere salgai edo alokagai ez dagoena) jotzen dituen etxebizitzen ratioa % 4,1ekoa da, hau da, 42.720 etxebizitza inguru.

5.6 ETXEBIZITZA POLITIKA

5.6.1 Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza politika

A) Gastua eta inbertsioa

III.5.24. GRAFIKOA. EUSKO JAURLARITZAREN ETXEBIZITZA PROGRAMAREN GASTUAREN BILAKERA ATALKA



Iturria: ETXEBIZITZA SAILA. EUSKO JAURLARITZA

Lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Programan betearazitako gastua, azken urteetan nabarmen gehitu ondoren, 2009an gehienekora 209 milioi euro iritsi arte, nabarmen jaitsi zen 2010ean eta 2011n, bi urteko horretan %40,7 metatuta. 2012an %18,9 handitu zen gastua, 145 milioi euroraino, baina 2013an (informazioa dugun azken urtea) betearazitako gastu horrek berriz ere egin du behera, 125,7 milioi euroraino (-%13,3), hots, EAEko BPGaren %0,19. Tasa hori %0,22 handitu zen aurreko urtean, ekonomiaren programaren zenbatekoaren hazkunde handiagoaren ondorioz.

III.5.24. KODROA. EUSKO JAURLARITZAREN ETXEBIZITZA PROGRAMAREN GASTU LIKIDATUAREN BILAKAERA ETA BPG-AN DUEN PISUA.

	ETXEBIZITZA PROGRAMAREN GASTUA		EAE-KO BPG EGUNEKO PREZIOETAN		PROGRAMAREN % BPG-AREN GAIN.
	Mil. euro	% geh.	Mil. euro	% geh.	
2007	188,9	10,1	66.427	7,6	0,28
2008	198,8	5,3	67.924	2,3	0,29
2009	207,4	4,3	64.225	-5,4	0,32
2010	182,5	-12,0	65.419	1,9	0,28
2011	123,0	-32,6	65.684	0,9	0,19
2012	145,0	17,9	66.081	0,6	0,22
2013	125,7	-13,3	66.943	1,3	0,19

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitzaren Behatokiaren eta EUSTATen datuekin eginikoa.

Etxebizitza eraikitzearekin zuzenean loturiko inbertsioen bolumenari dagokionez, 2013an Etxebizitza Talderako eginikoak (inbertsioa egiten duen Sailak berak -grafikoan ikusten denez, 21,1 milioi euroko inbertsioa egin du- eta hari lotutako sozietate publikoek osatzen dute taldea), guztira 104 milioi euro bildu ziren (-%4,8 2012aren aldean), hots, murriztu egin da programak inbertsioak egiteko duen izaera: azken urtean Taldearen gastuaren %41,5 den programa da (%45,9 2012an).

III.5.25. KOADROA. ETXEBIZITZAKO GASTUAREN AURREKONTUA BIZTANLEKO ETA AUTONOMIA ERKIDEGOKA (€).

	2010	2011	2012	2013
ANDALUZIA	50,33	15,79	16,10	14,98
ARAGOI	59,44	43,42	40,20	28,17
ASTURIAS	65,17	68,16	68,42	25,22
BALEARS, ILLES	11,00	17,66	15,94	8,20
KANARIAR U.	59,40	36,10	32,45	23,52
KANTABRIA	55,75	47,47	47,14	32,56
GAZTELA ETA LEON	44,88	38,88	28,41	24,74
G. MANTXA	65,76	58,17	21,82	22,43
KATALUNIA	45,02	36,93	25,68	26,09
VALENTZIAKO E.	115,39	85,69	65,58	47,01
EXTREMADURA	76,24	46,09	43,48	25,45
GALIZIA	26,00	25,83	10,38	6,97
MADRIL	66,24	50,58	44,96	32,29
MURTZIA	20,53	20,68	13,05	32,40
NAFARROA	411,33	383,69	114,08	109,93
EAE	**85,24**	**78,29**	**69,86**	**70,60**
ERRIOXA	39,70	26,08	27,78	24,56

Iturria: Etxebizitzaren Euskal Behatokia Ogasun Ministerioaren datuekin.

Erkaketa eginez, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak eginiko azterlanaren arabera, beren aurrekontuetan "*etxebizitza*" funtziorako kopuru absolutuetan zenbatekorik handienetako darabilten autonomia erkidegoen artean dago EAE (2013ko datuak dira, eskuragarri ditugun azkenak). Euskadin aurrekontuetan 2013an izan zen luzapena aintzat hartuta, guztira 153,21 milioi euro erabili ziren "etxebizitza" funtziorako, bigarren zenbatekorik handiena Madrilgo Erkidegoaren atzetik. Izan ere, autonomia horrek 206,31 milioi erabili zituen etxebizitzarako. Ondoren Andaluzia dator, 125,71 milioi eurorekin.

Per capita kopuruetan, gure Erkidegoak 70,6 euro erabili zituen biztanleko, bigarren zenbatekorik handiena Nafarroaren atzetik (109,93 euro biztanleko). Ondoren Valentziako Erkidegoa dago, 47,01€ biztanleko.

b) Etxebizitza Planaren jarduketak 2013an

2010eko ekitaldian Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza politika Etxebizitza Plan Zuzentzaile berriak ezarritako ildo estrategikoetarantz zuzendu zen. 2010-2013 aldirako diseinatu zen, eta helburua alokairuko etxebizitzaren parke publikoa handitzea eta hiri zaharberritze eta eraberritze politika berria bultzatzea da, irtenbide eraginkor eta iraunkorra izateko.

III.5.26. KOADROA. ETXEBIZITZA PLAN ZUZENTZAILEA 2013-2016. HELBURU KUANTITATIBO NAGUSIAK.					
	2013	2014	2015	2016	**GUZTIRA**
ETXEBIZITZA BERRIAK SUSTATZEKO JARDUERAK	1.750	1.850	2.050	2.350	**8.000**
- Alokairua	550	750	1.100	1.550	**3.950**
- Salmenta	1.200	1.100	950	800	**4.050**
BIRGAIKUNTZARAKO LAGUNTZAK	15.580	17.000	19.300	21.600	**73.480**
LURZORUAREN GUZTIZKO HELBURUA	750	750	750	750	**3.000**
Iturria: Etxebizitzaren Behatokiaren datuekin Egina. EUSKO JAURLARITZA.					

Halaber, lurzorua kudeatzeko politika aktiboari eutsi nahi dio, etxebizitza berriaren eraikuntzaren sektorea dinamizatzeko eta lurralde banaketa orekatuagoa lortzeko xedearekin, betiere etxebizitza politikaren zerbitzurako baliabideen erabileran eraginkortasun handiagoa izateko testuinguruan, baina kontuan hartuta etxebizitzaren merkatua errotik aldatu dela finantza-krisiagatik eta higiezinen burbuila lehertu izanagatik. Hori guztia, gainera, egungo krisi ekonomikoaren eta enplegu krisiaren egungo egoeraren baitan. Horren ondorioz, merkatua nabarmen gelditu da.

III.5.27. KOADROA. ETXEBIZITZA PLAN ZUZENTZAILEA 2013-2016. EGINIKO JARDUKETAK 2013.					
	HELBURUAK		EGINIKO JARDUKETAK		
	GUZT. 2013-16	2013	EG. JARD. 2013	BETETZE MAILA	EBALUA.
ETXEBIZITZA BERRIAREN SUSTAPENA					
Guztizko helburua	8.000	1.750	2.032	%116,1	
- Alokairua	3.950	550	79	%14,4	
- Salmenta	4.050	1.200	1.953	%162,8	
Agente sustatzailearen eskutik					
- Saila	1.150	250	208	%83,2	
- VISESA	2.450	500	719	%143,8	
- Udalak eta UDAL SOZ.	1.000	200	52	%26,0	
- Pribatuak	3.400	800	1.053	%131,6	
ETXEBIZITZAREN GAINEKO BESTELAKO JARDUKETAK					
Bizigune programa	5.750	5.400	5.174	%95,8	
ASAP programa	2.330	280	144	%51,4	
Alokairurako etxebizitza erostea	650	-	-	-	-
Hutsik dagoen etxebizitza birgaitzea alokairurako	650	-	-	-	-
Birgaikuntza eta birsorkuntzako etxebizitza berria	2.950	-	-	-	-
Etxebizitzaren prestazio osagarriak	106.100	25.100	25.897	%103,2	
BIRGAIKUNTZAKO JARDUKETAK					
Birgaikuntzarako laguntzak	73.480	15.580	13.409	%86,1	
- B. integratua	3.400	400	1.201	%300,3	
-B. bakartua	69.000	15.000	12.208	%81,4	
- Irisgarritasun b.	1.080	180	189	%105,0	
LURZORUAREN GAINEKO JARDUKETKA					
Lurzoruaren guztizko helburua	3.000	750	465	62,0%	
- Saila	2.000	500	412	82,4%	
- VISESA	1.000	250	53	21,2%	
JARDUKETAK, GUZTIRA	202.910	48.860	47.121	96,4%	
Iturria: Etxebizitzaren Behatokia. EUSKO JAURLARITZA.					
Ebaluazioa: >%95: berdea; %80-%94: laranja; <%80: gorria.					

Eusko Jaurlaritzak, 2013ko abenduan, Etxebizitza Plan berria onetsi zuen, eta 2013-2016rako plana izanik, hona hemen haren eginkizun orokorra: "*Merkatu librean etxebizitza eskuratzerik ez duten pertsonei etxebizitza duina, egokia eta irisgarria eskuratzen laguntzea da, bereziki krisi ekonomikoaren ondorioz gizarte beharra dutenei. Hartara, alokairua sustatuko du epe ertainera eta epe luzera, etxebizitza publikoaren lehentasunezko esleipen gisa. Lehentasunezko jarduna izango du eraikitako parkearen aurretik, eta hiriko birgaikuntza, berrikuntza eta birsorkuntza bultzatuko ditu, hori guztia etxebizitzaren sektorean diharduten erakunde eta eragile guztiekin koordinatuta eta adostuta*". Orotara 460,38 milioi euroko inbertsioa aurreikusten du, eta alokairuaren sustapenari (aurrekontu guztiaren %25) eta birgaikuntzari (%21) dagozkie partida garrantzitsuenak.

Plana abenduan onetsi zenez gero, ekintza ugari proposatzen dira, 2014. urtetik aurrera egitea aurreikusten direnak, baina urte horretako datu finkaturik ez dugu oraindik. 2013ari dagokionez, gogoratu behar da aurreko 2010-2013ko Planaren eta plan berriaren arteko trantsizio urtea dela, eta horren balorazioa plan berriaren helburuen arabera egingo da.

Etxebizitzaren sustapenari dagokionez: helbururik arrakastatsuena da. Izan ere, 2013an %116ko betetze maila lortu zen, guztira hasitako 2.032 etxebizitza. Halaber, Etxebizitzaren Prestazio Osagarriaren emakidek (25.897 unitate, %103) eta alokairu babestuaren bidez hutsik dauden etxebizitzak baliagarri egin nahi dituen Bizigune programak (5.174 etxebizitza, %96) aurreikusitako helburuak lortu dituzte.

Birgaikuntzaren arloan, aurreikusitakotik hurbil (%86) gelditu da buruturiko jarduketen kopurua (13.409). Lurren eskuraketa berrien aldetik, berriz, helburuaren %62 baino ez da lortu (465 etxebizitza). Alokairuaren merkatuan bitartekaritza lana egiteko ASAP programa berria izan da aurreikuspena bete ez duten beste programa. Izan ere, 144 etxebizitza ekarri ditu, helburuan ezarritakoaren %51.

Etxebizitza berriaren sutapena ardatz hartuta, Plan Zuzentzaileak, helburu orokorrak ezartzeaz gain, beste zehatz batzuk finkatu ditu, etxebizitza edukitzeko araubidearen, tipologiaren eta agente sustatzailearen arabera. Ildo horretan, esan behar da ezen salmentaren araubideak aurreikusitako helburua askoaz gainditu duela (%163), baina errentamendu araubidearen produkzioa oso txikia izan da: helburuko helburuaren %14 baino ez du lortu.

Agente sustatzailea dela eta, VISESAk (719 etxebizitza, %144) eta agente pribatuak (1.053 etxebizitza, %132) helburua gainditu dute, baina Etxebizitza Saila hurbildu egin da (208 etxebizitza, %83) eta udalak eta udal sozietateak xedetik oso urruti gelditu dira (52 etxebizitza, %26).

III.5.25. GRAFIKOA. BIRGAITURIKO ETXEBIZITZEN ETA DIRU-LAGUNTZEN ZENBATKOAREN BILAKERA EAE-N



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. ETXEBIZITZAREN BEHATOKIA.

c) Birgaikuntza

Aipamen berezia merezi du Eusko Jaurlaritzaren birgaikuntza politikak; izan ere, 2013-2016ko Planaren ardatz estrategikoetako bat da, birgaikuntza eredu iraunkor, sozial, ekonomiko eta integratzaile berria bultzatuta. Plan Zuzentzailearen guztizko aurrekontutik (460,4 milioi euro), %21 helburu horretara erabiltzen da, esana dugunez, epealdi bera duen "*Etxebizitza birgaitzeko Renove plana*"ren bidez. Eginiko zenbatespenen arabera, 81,5 milioi euro emango dira diru-laguntzetan, eta ekimen publiko horren bidez 859,5 milioi euro mobilizatuko direnez gero, guztira 940 milioi euro izango dira.

III.5.26. BIRGAIKUNTZARAKO DIRU-LAGUNTZEN BANAKETA ETXEBIZITZA MOTAREN ARABERA. MILIO €.



Iturria.- EUSKO JAURLARITZA. ETXEBIZITZAREN BEHATOKIA

2013ko jarduketei dagokienez, Etxebizitzaren Behatokiaren zenbatespenen arabera, EAEn orotara 13.409 etxebizitza birgaitzeko balio izan dute laguntzek, guztira 14,5 milioi euro. Bilakaeraren aldetik, nabarmen egin dute behera diru-laguntzen zenbatekoak eta birgaituriko etxebizitzen kopuruak 2009ko inoizko kopururik handienetik. Urte hartan

20.534 etxebizitza birgaitzeko laguntzak eman ziren (22,4 milioi euro guztira). 2013ko datuei erreparatuz gero, batez besteko diru-laguntza 1.986€ da etxebizitzako. Batez bestekoa 997 baino ez da birgaikuntza bakartuan. Kopuru horiek behera egin dute 2011tik eta 2012tik.

Banaka edo jabeen erkidego baten bitartez eska daitezke laguntzak, eta partikularrek laguntzak eska ditzakete elementu pribatiboak edo komunak berritzeko. Emandako laguntza gehienak elementu komunitarioak birgaitzeko erabiliko dira (guztizko diru-laguntzaren %96); %4 besterik ez da etxebizitza barruko lanetarako.

d) Alokairua

Eusko Jaurlaritzako alokairu politikarako erabilitako baliabideei dagokienez, alokairua sustatzeko diru-laguntzen eta Etxebizitza Sailak 2013an onetsitako eta ondorio horretarako erabilitako subsidioen batura 1,8 milioi eurokoa izan da, %50ean banatuta (% -94,6, 2012aren aldean: urte horretan 33 milioitik gora izan ziren). Hala, ia desagertu egin dira laguntza horiek. Izan ere, 2008an 66 milioi euro eman ziren diru-laguntzetan eta laguntzetan.

III.5.27. GRAFIKOA. ALOKAIRUA SUSTATZEKO DIRU-LAGUNTZEN BILAKAERA. MILIO €



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Etxebizitza Saila.

Bestalde, EAEko etxebizitza hutsak alokairu babestuan eskainiz erabiltzea sustatzeko helburua duen Etxebizitza Sailaren Bizigune Programaren laguntzek, 2013an, 20,49 milioi euroko diru-laguntzak izan dituzte (% -10,1, 2012ko datuaren aldean), eta, horren ondorioz, urtearen amaieran erabili diren etxebizitzak 5.174 izan dira (+%1,4). Bilakaera horren ondorioz, batez besteko diru-laguntza 3.959,6 eurokoa da etxebizitzako, 2012an baino %12,2 gutxiago.

III.5.28. KOADROA. EUSKO JAURLARITZAREN BIZIGUNE PROGRAMAREN LAGUNTZEN BILAKAERA

	HARTUTAKO ETXEBIZITZAK	DIRU-LAG. (MILIOI €)	EURO/ETXEBIZITZA	% ALD.
2004	1.132	4,50	3.975,3	5,5
2005	1.908	8,00	4.192,9	5,5
2006	2.605	10,00	3.838,8	-8,4
2007	3.446	14,38	4.173,0	8,7
2008	4.215	21,59	5.122,2	22,7
2009	4.557	21,19	4.650,0	-9,2
2010	4.741	22,29	4.701,5	1,1
2011	4.802	23,15	4.820,9	2,5
2012	5.102	23,02	4.511,7	-6,4
2013	5.174	20,49	3.959,6	-12,2

Iturria.-EUSKO JAURLARITZA. Etxebizitzaren Behatokia

"*Alokabide*" sozietate publikoak kudeatzen ditu etxebizitza horiek, eta Sailaren beraren alokairuko etxebizitza parkeaz gain (guztizkoaren %25) eta bere etxebizitzez (%29) eta Biziguneren bitartez hartutakoez gain (%45), EAEko zenbait udalen alokairuko parkea ere kudeatzen du (%1). 2013an, guztira 11.419 etxebizitza kudeatu ziren, hain zuzen ere aurreko urtean baino %3,1 gehiago. Beraz, jarduera 2002an hasi zuzenetik izan duen gorako ibilbideari eusten dio. Hasierako urtean alokairuko 230 etxebizitza kudeatu zituen.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzak, errentamendu araubidea partikularren artean bultzatu beharra ikusita, alokairu libreko merkatuan bitartekaritza-lana egiteko programa berria abiarazi zuen 2012an, "*ASAP programa*" (Alokairu Segurua Arrazoizko Prezioa), zeren eta, horrez gain, Bizigune programak, arrakasta izan arren, kostu handia baitakarkio Sailari. 2013an 30 errentamendu kontratu besterik ez ziren sinatu. Alabaina, Etxebizitzaren Behatokiak nabarmentzen duenez, programak 120 etxebizitza ditu inskribatuta, eta 1.253 erreserba egin direnez gero, epe laburrean igoera aurreikusten da izenpeturiko errentamendu kontratuen kopuruan.

III.5.29 KOADROA. "ASAP" ALOKAIRUIKO BITARTEKARITZA PROGRAMA EMAITZA NAGUSIAK

	AGENTE ATXIKIAK	ETXEBIZITZA ATXIKIAK	EGINIKO ERRESERBAK	SINATURIKO ERRENTAMENDU KONTRATUAK
2012	16	56	110	3
2013	16	120	1.253	30

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. ETXEBIZITZAREN BEHATOKIA.

5.6.2 Foru aldundien etxebizitza politika

Eusko Jaurlaritzak garatu duen etxebizitza politikaz gain, interesgarria da gastu fiskalen kopuru handiak ezagutzea, foru aldundiek etxebizitza gaietan esku-hartze publikoa egiteko tresna gisa erabiltzen dituztelako. Horri buruz dauzkagun daturik berrienak 2011ko ekitaldiari buruzkoak dira. Datu horien iturria Eusko Jaurlaritzako Zerga Koordinaziorako Organoaren 2012ko Euskal Ogasunaren urteko txosten integratua da.

III.5.30. KOADROA. KENKARIEK PFEZ-AN DUTEN PISU ERLATIBOA, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE
KENKARI OROKORRA	53,0	54,7	54,1	54,3
JARDUERA EKONOMIKOA SUSP.	6,9	7,4	6,8	7,1
PENTSIODUNAK ETA LANGABETUAK	0,7	0,9	0,8	0,8
FAMILIARRAK ETA PERTSONALAK	19,1	19,1	21,6	19,9
OHIKO ETXEBIZITZA	18,6	16,1	15,2	16,2
JARDUERA EKONOMIKOAK	0,2	0,1	0,1	0,1
MEZENASGOA	0,4	0,7	0,6	0,6
EZARPEN BIKOITZA	0,1	0,2	0,1	0,1
SINDIKATUEN KUOTAK	0,4	0,4	0,4	0,4
BESTE KENKARI BATZUK	0,6	0,4	0,4	0,4
GUZTIRA	**100,0**	**100,0**	**100,0**	**100,0**

Iturria.- EUSKO JAURLARITZA. URRIA.

Hiru foru aldundietako PFEZgatiko likidazioetatik aurrera, ondorioztatu da alokairuko zein inbertsioko ohiko etxebizitzagatiko kenketen (kuantitatiboki bigarren kenketak % 16,2 dira, familiako kenketen eta kenketa pertsonalen atzean) zenbatekoa 468,1 milioi eurokoa izan dela 2011n, hau da, aurreko urteko zenbatekoa baino % 2,9 txikiagoa. Horrela, egiaztatu egiten da aurreko ekitaldian abiarazitako beherakadaren joera 2008ko ekitaldian. Zenbateko hori Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Programak urte horretan erabilitako gastuaren % 263koa (123 milioi euro) da, aurreko atalean ikusitakoaren arabera.

Kenkari horiek 44.400 eta 46.800 artean duten pisurik handiena errentetan (likidazio-oinarria), non kenkarien guztizko zenbatekoaren %26,7 baitira batez beste. Ondoren, behera egiten du errenta mailaren igoerarekin batera. Lurraldeen arabera, guztizko kenkarien %18,62 izan zen Araban, %16,1 Bizkaian eta %15,2 Gipuzkoan.

III.5.28. GRAFIKOA. PFEZ-AN ETXEBIZITZAREN ZIOZ EGINIKO KENKARIEN ZENBATEKOAREN BILAKAERA ETA KENKARIEN GUZTIZKOAN DUEN



Iturria. Eusko Jaurlaritza. HIES.

6. AISIALDIA ETA KULTURA

6.1. KULTURA ETA AISIALDI JARDUEREN ESKAINTZA EAE-N

6.1.1. Bisitarien bertaratzea kultura ekipamenduetara

Museoen jarduera adierazletzat hartuta, eta zehazki Lurralde Historikoetako museo nagusien bisitari kopurua, hauxe ikusten da orain ere, BASQUETOUR Eusko Jaurlaritzaren Euskal Turismoaren Agentziaren datuen arabera: Guggenheim museoa da erakargarri nagusia, 931.015 bisitariekin 2013an, aurreko urtean baino %8,2 gutxiago. Hala, bertaratzeen kopuruetan izandako jaitsiera txikietarako joera itzuli da hiru urtez bisitarien kopuruan igoerak izan ondoren.

Bigarren taldea, berriz ere, Donostiako Aquariumak, Bilboko Arte Ederren museoak eta Donostiako Zientziaren Kutxa Espazioak osatu zuten. Lehenbizikoak 306.900 bisitari izan zituen, hots, aurreko urtean baino pixka bat gutxiago (%-0,1). Haren atzean, bisitari kopuruaren arabera, Bilboko Arte Ederren museoa dator, 192,394 bisitarirekin (%+34,9 2012aren aldean), eta horren atzean, Zientziaren Kutxa Espazioa. Azken honek hazkundea izan du, 2012an 161.228 bisitari izan baitzituen eta 2013an 164.228 (%+1,4).

Hirugarren blokean ditugu San Telmo Museoa eta Artium (eta ez dugu Andre Maria Katedralaren Fundazioari buruzko informaziorik).

III.6.1. TAULA. BISITARIAK KULTURA EKIPAMENDUETARA BERTARATZEAREN BILAKAERA EAE-N

		2008	2009	2010	2011	2012	2013	Hazk. %2012/13
ARABA	Arabako Arte Ederretako Museoa	13.443	15.917	14.737	22.564	14.791	12.403	-16,1
	Artium	104.197	105.232	101.115	n.d	102.506	82.177	-19,8
	Eliz Museoa	32.951	n.d	35.284	45.110	8.580	9.488	10,6
	BIBAT (Arabako Arkeologia Museoa eta Fournier Karten Museoa)	29.376	61.406	47.185	45.555	35.817	23.367	-34,8
	Andre Maria Katedralaren Fundazioa	100.967	105.086	108.133	108.836	90.513	-	--
BIZKAIA	Arkeologia Museoa	..	10.594	7.861	11.484	n.d	80.031	--
	Arrantzaleen Museoa	13.610	15.900	12.823	15.647	14.123	990 (*)	--
	Bilboko Arte Ederretako Museoa	223.197	207.978	191.962	259.968	295.655	192.394	-34,9
	Bilboko Itsas-adarreko Itsas Museoa	48.242	61.502	28.545	56.720	51.416	56.566	10,0
	El Pobal Burdinola	15.060	15.244	12.718	13.696	13.543	13.311	-1,7
	Euskal Herria Museoa	9.612	8.695	14.570	15.467	13.205	16.628	25,9
	Bilboko Euskal Museoa	60.909	45.462	42.576	57.662	48.674	48.684	0,0
	Gernikako Bakearen Museoa	24.755	26.057	26.948	29.005	30.586	28.698	-6,2
	Bilboko Guggenheim Museoa	951.368	905.048	958.173	962.005	1.014.104	931.015	-8,2
	Santimamiñe haitzuloa	8.816	11.460	11.140	d.e.	11.645	12.578	8,0
GIPUZKOA	Agorregiko burdinola eta errota	13.788	10.518	9.613	11.637	d.e.	8.825	--
	ChillidaLeku Museoa	61.854	60.105	-	-	itxita	--	--
	Donostiako Aquariuma	277.285	310.541	301.771	315.593	307.293	306.900	-0,1
	Igartubeti baserria	7.176	9.665	6.999	8.345	7.158	7.533	5,2
	Burdin Harana	20.718	16.497	13.240	11.802	9.060	20.070	121,5
	San Telmo Museoa	94.391	98.973	104.637	134.326	115.575	120.294	4,1
	Trenbidearen Euskal Museoa	36.175	37.980	38.198	31.521	14.661	20.795	41,8
	Itsas Museoa	13.838	11.721	10.595	16.719	n.d	14.647	--
	Zientziaren Kutxa Gunea	112.734	138.264	134.079	142.017	161.945	164.228	1,4
	Zumalakarregi Museoa	5.482	10.317	2.975	3.444	4.707	6.016	27,8

(*) Museoa itxita egon zen lanak zirela eta; uztailaren 23tik irailaren 22ra egon zen irekita
Iturria: BASQUETOUR, Euskal Turismo Agentzia, EUSKO JAURLARITZA

6.1.2. Azoken jarduera

BECen datuen arabera, 2013. urtean 30 saio egin ziren BECen eta gertakizun-konbentzio multzoak 45.163 bisitari profesional bildu zituen guztira (aurreko urtean baino % 10,8 gutxiago). Jende orokorreko 980.343 pertsona ere bertaratu ziren; aurreko urtean, berriz, 976.674.

Harturiko azaleran eta bisitari profesionalen kopuruan azken 6 urtean izandako jaitsiera nahikoa nabarmena izan da (%30,4 eta %46,8 hurrenez hurren), baina kontuan hartu behar da zuzeneko erakusketarien kopuruari eusteko eginiko ahalegina.

III.6.1. GRAFIKOA. BEC. BISITARIEN BILAKAERA



Iturria: BEC

III.6.2. TAULA. BILBAO EXHIBITION CENTRE: OINARRIZKO ADIERAZLEAK

	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Erakusketak	24	16	21	20	27	22	30
Zuzen. erakusketariak	3.555	2.354	2.253	1.936	2.565	2.284	2.530
Azalera garbia	152.699	158.436	106.141	119.596	103.562	117.586	106.231
Bisitari profesionalak	84.877	102.202	45.696	70.963	51.633	50.146	45.163
Jendea, orokorrean	1.127.188*	1.006.974	1.182.191	1.221.111	956.956	976.674	980.343

** Jendea orokorrean: Arena pabiloian + BEC Konbentzioetan egindako emankizunetara bertaratzen direnak biltzen ditu.*
Iturria: BEC

6.2. FINANTZAZIOA ETA GASTU PUBLIKOA KULTURAN

Kulturaren sektoreak EAEko ekonomian eta gizartean duen pisuaren zenbatespena zeharkako iturrien bitartez egiten da; zehazki, Kultura Ministerioak argitaratzen duen "*Estatistika Kulturalen Urtekaria*" delakoaren bitartez[1].

Estatuko Administrazio Orokorrak, Administrazio Autonomikoak eta tokiko erakundeek kulturaren arloan eginiko gastu publikoari eta finantzazioari buruzko kapitulu bat dakar Urtekariak: Udalak, eta Aldundiak, Kontseiluak edo Kabildoak.

Bestalde, Kultura Ministerioaren Urtekariak Kulturako Gastu Publikotzat jo du honakoa: "*kulturari zuzendutako gastu likidatua, administrazio publiko ezberdinek aitortutako betebeharren fasean; ondorioz, finantzazioa egiten duenaren izaera da, eta ez hartzailearena, gastuaren izaera publikoa edo pribatua finkatzen duena*". Ez dira kentzen kultura erakunde publiko jakin batzuek eduki ditzaketen jatorri pribatuko sarrerak, adibidez museoek eduki ditzaketenak.

1 Hona hemen ikerketa honen eremuan sartutako kultur sektoreak: Kultur ondasunak eta zerbitzuak (Monumentu historikoak, Museoak, Aztarnategi Arkeologikoak, Artxiboak eta Liburutegiak); Arte plastikoak eta eszenikoak (Erakusketak, Argazkigintza, Musika, Dantza eta Antzerkia); Liburuak eta Ikus-entzunezkoak (Zinema, Bideoa eta Musika grabatua); Askotariko arloetakoak (Kulturaren sustapena eta hedapena, Administrazio aeta Zerbitzu Orokorrak, Hizkuntza Politika).

III.6.3. TAULA. ADMINISTRAZIO AUTONOMIKOEK KULTURA ARLOAN LIKIDATUTAKO GASTUA, AUTONOMIA ERKIDEGOKA

	Balio absolutuak (milioi €-tan)		Estatuan kultura arloan likidatutako gastuarekiko %		Erkidegoetan guztira likidatutako gastuaren %			BPGaren %			Biztanle bakoitzeko batez besteko gastua (€)		
	2011	2012	2011	2012	2010	2011	2012	2010	2011	2012	2010	2011	2012
Guzt. Estatua	1.482,6	1.273,8	100	100	0,99	0,85	0,70	0,17	0,14	0,12	38,1	31,8	27,2
Andaluzia	185,1	194,2	125	15,2	0,81	0,62	0,61	0,18	0,13	0,14	30,6	22,2	23,2
Aragoi	27,1	20,2	1,8	1,6	0,71	0,50	0,40	0,12	0,08	0,06	29,3	20,1	15,1
Asturias	52,4	27,8	3,5	2,2	1,45	1,25	0,68	0,27	0,23	0,13	57,9	48,7	25,8
Balear Uharteak	9,9	9,9	0,7	0,8	0,39	0,30	0,23	0,06	0,04	0,04	13,3	9,1	8,9
Kanariar Uharteak	34,7	18,2	2,3	1,4	0,55	0,51	0,26	0,10	0,08	0,05	20,6	16,8	8,7
Kantabria	19,7	18,3	1,3	1,4	1,19	0,89	0,76	0,22	0,15	0,15	47,3	33,3	30,8
Gaztela - Leon	80,8	69,0	5,5	5,4	1,03	0,89	0,66	0,19	0,14	0,13	42,7	31,7	27,2
G-Mantxa	89,6	32,3	6,0	2,5	0,86	0,88	0,34	0,21	0,24	0,09	36,9	42,7	15,3
Katalunia	325,1	283,3	21,9	22,2	1,21	0,92	0,82	0,20	0,16	0,15	52,7	43,4	37,7
Valentziako E.	159,0	152,0	10,7	11,9	1,13	1,06	0,88	0,17	0,16	0,16	34,8	31,8	30,3
Extremadura	60,6	40,3	4,1	3,2	1,27	1,21	0,88	0,37	0,35	0,25	58,3	55,0	36,5
Galizia	94,2	97,2	6,4	7,6	1,00	0,99	1,01	0,20	0,17	0,18	40,1	34,0	35,1
Madril	118,7	115,9	8,0	9,1	0,62	0,66	0,54	0,06	0,06	0,06	17,5	18,6	18,0
Murtzia	32,9	26,9	2,2	2,1	1,00	0,72	0,51	,17	0,12	0,10	33,5	22,5	18,4
Nafarroa	56,8	36,4	3,8	2,9	1,66	1,43	1,00	0,39	0,31	0,20	112,5	89,2	56,8
EAE	**108,2**	**107,9**	**7,3**	**8,5**	**1,34**	**1,06**	**1,05**	**0,22**	**0,16**	**0,17**	**63,7**	**49,6**	**49,4**
Errioxa	10,2	9,4	0,7	0,7	1,11	0,84	0,76	0,18	0,13	0,12	44,2	31,8	29,2
Ceuta	6,7	5,1	0,5	0,4	2,84	2,78	1,77	0,49	0,44	0,35	93,1	82,5	61,0
Melilla	11,0	9,8	0,7	0,8	4,29	4,61	4,21	0,78	0,81	0,75	140,5	139,1	119,6

Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa.Kultur Estatistiken Urtekaria 2014

Euskal Autonomia Erkidegoak, 2012an, kulturan likidatutako gastua, Kultura Ministerioaren datuen arabera, 107,9 milioi eurokoa izan zen, 2011n baino 0,3 milioi gehiago. Horrek esan nahi du %0,3 jaitsi dela. Gastu horrek Estatuko Administrazio Autonomikoek 2012. urtean, kulturan, likidatu zuten gastu osoaren % 8,5 hartzen du (% 7,31 aurreko urtean) eta Eusko Jaurlaritzak urte horretan egindako gastu osoaren % 1,1 (aurreko urteko ratio bera). Gainera gure erkidegoko BPGaren % 0,17 da. Horrek esan nahi du kulturak gurean beste Autonomia Erkidegoetan baino pisu handiagoa duela, batez beste % 0,12 izaten baita gainerako erkidegoetan. Adierazle honetan buruan ageri diren erkidegoak Extremadura eta Nafarroa dira, betiere, dituzten ezaugarri bereziengatik Ceuta eta Melilla kanpoan utziz gero. Biztanleko egin den gastuari dagokionez, EAEn kopuru hori 49,4 eurora iritsi zen 2012an, 2011n baino bi hamarren gutxiago, eta kopuru hori Estatu osoko batez bestekoa baino altuagoa da (27,2 €).

III.6.4. TAULA. TOKIKO ADMINISTRAZIOEK KULTURAN LIKIDATURIKO GASTUA, ERAKUNDE MOTAREN ARABERA (milioi eurotan).

	5.000 biztanletik gorako udalak		Aldundiak, Kontseiluak eta Kabildoak	
	2011	2012	2011	2012
Guzt. Estatua	2.455	1.961	569	451
Andaluzia	357	303	53	36
Aragoi	59	36	28	23
Asturias	71	53		
Balear U.	51	46	30	18
Kanariar U.	97	84	81	61
Kantabria	28	20	-	
Gaztela - Leon	103	82	27	22
G-Mantxa	79	60	14	12
Katalunia	483	391	120	98
Valentziako E.	265	207	58	46
Extremadura	27	22	12	12
Galizia	129	107	44	32
Madril	350	260	-	-
Murtzia	89	62	-	-
Nafarroa	33	25	-	-
EAE	**219**	**196**	**103**	**90**
Errioxa	13	9	-	-

Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa.Kultur Estatistien Urtekaria 2013 eta 2014

Gastuaren xedeari begiratuta, EAEn, 107,9 milioi euroen % 16,6, 2012an, kultur ondasun eta zerbitzuetan erabili zen (% 21,3 aurreko urtean); % 12,6 arte plastiko, eszeniko eta musikaletan; % 6,3 liburu eta ikus-entzunezkoetan; eta ez dago informaziorik gainontzeko % 64,5ari buruz. Autonomia erkidego guztien artean, kultura ondasun eta zerbitzuetan % 33,8 erabili da (% 35,4 aurreko urtean); arte plastiko, eszeniko eta musikaletan % 23,9; eta liburu eta ikus-entzunezkoetan % 6,8.

Bestalde, 5.000 biztanletik gorako udalek eta Aldundiek, Kontseiluek eta Kabildoek kultura likidaturiko gastua dakar Urtekariak. EAEko 5.000 biztanletik gorako udalek, 2012an, 196 milioi euroko gastua likidatu zuten kulturan, hots, Estatuko 5.000 biztanletik gorako udalek kulturan likidaturiko gastu guztiaren %10. Bestetik, Foru Aldundiek 90 milioi euroko gastua likidatu zuten kulturan, hau da, Estatuko Aldundiek, Kontseiluek eta Kabildoek kulturan likidaturiko gastu guztiaren %20.

Hona hemen EAEko 5.000 biztanletik gorako udalerrien gastuaren xede nagusiak: Kulturaren sustapen eta zabalkuntza (5.000 biztanletik gorako udalek likidaturiko gastu guztiaren %92,1) eta Kulturaren Administrazio Orokorra (5.000 biztanletik gorako udalek likidaturiko gastu guztiaren %3), eta Arkeologia eta Ondare Historiko Artistikoaren babesa (%2,7).

Honatx EAEko Foru Aldundien gastuaren xede nagusiak: 0><}0{>kulturaren sustapena (Aldundiek likidaturiko gastu osoaren %58,5) eta Arkeologia eta Ondare Historiko Artistikoaren babesa (%21,4).

6.3. FAMILIEN GASTUA KULTURAREN KONTSUMOAN

Kultura Ministerioaren datuen arabera, euskal etxeek kultura ondasun eta zerbitzuetan egindako gastua, 2013. urtean, 691,6 milioi eurokoa izan zen, 2012an baino 69,9 milioi euro gutxiago. Horrek %9,2ko murriztapena ekarri zuen. Gastu hori EAEko ondasun eta zerbitzuetan eginiko gastuaren %2,4 da, autonomia erkidego guztien batez besteko antzeko portzentajea. Adierazle honen buruan kokatzen diren erkidegoak Asturias (%2,9) eta Kanariar Uharteak (% 2,8) eta Madril, Balear Uharteak, Valentziako E. eta Errioxa (bakoitza % 2,7rekin) dira.

Etxe bakoitzeko batez besteko gastuari dagokionez, EAEn kopuru hori 777,6 eurora iritsi zen 2013. urtean (aurreko urtean baino % -9,4 gutxiago), Madrilen (883,9 €) atzetik. Pertsona bakoitzeko batez besteko gastuari dagokionez, EAEn kopuru hori 322,5eurora iritsi zen 2013. urtean, 2012. urtean baino % 8,6 gutxiago. Kopuru hori Estatuko batez bestekoan igarritako kopurua baino % 21,4 gehiago da, eta EAE jartzen du gehien gastatzen duen hirugarren erkidego gisa, Madrilen (349 euro) eta Asturiasen (324,6 euro) atzetik.

III.6.5. TAULA. ETXEEK ONDASUNETAN ETA ZERBITZUETAN EGINIKO GASTUA, AUTONOMIA ERKIDEGOKA

	Balio absolutua (milioi €-tan)		Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu osoaren %		Batez bestekoa etxe bakoitzeko (eurotan)		B. b pertsona bakoitzeko (eurotan)	
	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013
Guzt., Estatua	13.366,9	12.261,7	2,6	2,5	738,9	673,3	288,5	265,7
Andaluzia	2.028,9	1.771,6	2,6	2,3	654,4	565,2	243,6	212,6
Aragoi	399,3	373,5	2,7	2,5	745,0	694,0	303,1	285,0
Asturias	327,1	341,7	2,7	2,9	715,4	743,6	308,5	324,6
Balear U.	341,7	323,4	2,8	2,7	791,1	737,2	311,3	292,1
Kanariar U.	521,2	492,7	2,9	2,8	656,5	612,2	250,3	234,8
Kantabria	170,6	170,6	2,5	2,6	721,4	717,4	291,4	292,8
Gaztela - Leon	649,2	566,6	2,5	2,2	631,8	549,6	262,1	230,8
G.-Mantxa	453,1	423,6	2,4	2,2	578,8	539,8	218,7	206,1
Katalunia	2.438,4	2.196,1	2,8	2,5	829,9	745,7	328,6	297,9
Valentziako E.	1.415,9	1.304,2	2,7	2,7	712,0	653,4	285,2	264,4
Extremadura	220,3	201,2	2,3	2,1	518,6	469,0	202,2	185,3
Galizia	684,7	603,1	2,4	2,2	644,9	563,3	249,5	220,8
Madril	2.395,2	2.205,9	2,8	2,7	966,7	883,9	376,6	349,0
Murtzia	232,3	286,7	1,6	2,1	448,0	544,3	159,8	197,1
Nafarroa	208,4	190,1	2,6	2,5	838,2	759,5	330,0	302,4
EAE	**761,5**	**691,6**	**2,6**	**2,4**	**858,4**	**777,6**	**352,8**	**322,5**
Errioxa	88,9	91,7	2,6	2,7	687,3	709,3	281,1	293,4
Ceuta -Melilla	30,1	27,1	2,1	2,0	590,0	537,3	182,1	162,8

Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa.Kultur Estatistiken Urtekaria 2014

Kasu bietan, jaitsiera izan da gastuan, EAEn nahiz Estatu osoan, 2012 eta 2013 urte bitartean.

EAEko gastu motari arreta emanez gero (liburuak eta argitalpenak, kultura zerbitzuak, informazioa tratatzeko banako ekipo eta osagaiak...), pertsona bakoitzeko gastatu diren 322,5 euroetatik % 25,4 liburuetarako eta aldizkako argitalpenetarako erabili zen 2013. urtean, % 26 kultura zerbitzuetarako, % 43,4 informazioa tratatzeko banako ikus-entzunezko ekipo eta osagaietarako eta % 5,1 beste ondasun eta zerbitzu batzuetarako. Estatuko batez bestekoak aztertzeak aldeak islatzen ditu. Hala, Estatua EAEn baino gutxiago gastatzen da aldizkako liburuetan eta argitalpenetan (%15,9 Estatuan eta %25,4 EAEn), eta gehiago kultur zerbitzuetan (%33,6, %26ren aldean).

Arestian esana dugunez, ikuskizunetan eginiko gastua sartzen da kultur zerbitzuetako gastuen artean. Azken hori neurtzeko, etxe bakoitzak kultur zerbitzuetan eginiko batez besteko gastuen gaineko argibideak ematen ditu Urtekariak (ez pertsonako gastuaren gainekoak), eta ikuskizunak eta beste kultur zerbitzu batzuk bereizten ditu. Etxe bakoitzak ikuskizunetan 86,7 euro gastatu zituen ikuskizunetan 2013an (100,2€ aurreko urtean); Estatuan, berriz, gastu txikiagoa da, 77,8 euro etxe bakoitzeko. Errioxa (148,6€) eta Madril (135,5 euro) dira ikuskizunetan familia bakoitzeko gehien gastatzen duten Autonomia Erkidegoak, baina Madrilen jaitsiera nabarmena gertatu da.

Amaitzeko, bi alderdi nabarmendu behar ditugu. Batetik, ezaugarri komuna dute etxeek kultur ondasunetan eta zerbitzuetan eginiko gastuek, AAEEren arabera eta gastu-taldearen arabera, baita tokiko eta autonomiako administrazioek kulturan likidaturiko gastuek ere: zifra absolutu eta erlatibo txikiagoak dituzte aurreko urteekin alderatuta.

Bestetik, atal honetako zenbait osagairen jaitsieraren atzean, kasu nabarmenen batean, krisi ekonomikoaren ondorioak ez ezik, erlazionatzeko, komunikatzeko eta kultura oro har bizitzeko ikuspegietan izandako egiturako aldaketak ere egon daitezke, besteak beste IKTek gizarte globalizatuan izandako eraginagatik.

III.6.6. TAULA. ETXEEK ONDASUNETAN ETA ZERBITZUETAN EGINIKO GASTUA, GASTU-TALDEEN ARABERA, AUTONOMIA ERKIDEGOKA

	BATEZ BESTEKO GASTUA PERTSONA BAKOITZEKO (EUROTAN)										IKUSKIZUNETAN EGINIKO BATEZ BESTEKO GASTUA ETXE BAKOITZEKO (EUROTAN)	
	Guztira (euroak)		Liburuak eta aldizkako argitalpenak		Kultura zerbitzuak (emankizunak eta beste kultura zerbitzu batzuk hartzen ditu)		Informazioa tratatzeko ikus-entzunezko ekipoak eta osagaiak		Bestelako ondasun eta zerbitzuak			
	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013
Guzt., Estatua	288,5	265,7	47,7	42,1	90,3	89,2	128,9	116,6	21,7	17,8	83,7	77,8
Andaluzia	243,6	212,6	34,8	27,4	75,6	67,9	114,1	101,1	19,1	16,2	55,1	63,5
Aragoi	303,1	285,0	55,1	43,6	90,0	99,3	137,2	125,3	20,8	16,7	65,5	78,8
Asturias	308,5	324,6	60,8	51,8	92,2	115,8	143,2	134,0	12,3	23,0	39,1	67,2
Balear U.	311,3	292,1	44,1	40,2	100,8	103,6	152,4	138,3	14,0	10,0	80,6	98,9
Kanariar U.	250,3	234,8	28,6	26,6	83,6	86,2	121,9	106,4	16,2	15,6	66,6	62,2
Kantabria	291,4	292,8	60,9	57,6	87,1	89,3	131,5	129,6	11,9	16,3	75,9	77,0
Gaztela - Leon	262,1	230,8	57,7	44,1	67,2	76,9	119,9	97,1	17,3	12,7	56,8	48,6
G.-Mantxa	218,7	206,1	32,0	33,2	66,4	59,6	106,1	96,4	14,2	16,9	59,2	53,8
Katalunia	328,6	297,9	49,7	46,5	99,1	101,4	149,8	131,9	29,9	18,0	100,1	87,9
Valentziako E.	285,2	264,4	39,3	31,0	95,4	96,8	128,9	116,7	21,7	19,9	72,2	64,8
Extremadura	202,2	185,3	22,4	23,3	54,2	49,1	101,1	93,7	24,4	19,1	50,7	46,5
Galizia	249,5	220,8	49,4	43,0	75,2	64,8	110,8	98,0	14,1	15,0	38,1	36,5
Madril	376,6	349,0	62,5	58,2	130,9	127,0	151,0	139,4	32,1	24,4	165,9	135,5
Murtzia	159,8	197,1	31,5	33,0	53,8	72,5	64,4	77,7	10,2	13,9	63,8	67,3
Nafarroa	330,0	302,4	71,3	68,3	96,4	85,1	151,0	133,0	11,2	15,9	110,0	79,3
EAE	**352,8**	**322,5**	**90,7**	**81,9**	**95,8**	**83,8**	**142,7**	**140,2**	**23,5**	**16,5**	**100,2**	**86,7**
Errioxa	281,1	293,4	54,2	45,6	90,2	114,9	127,3	112,9	9,4	20,0	108,7	148,6
Ceuta -Melilla	182,1	162,8	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-

Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa.Kultur Estatistiken Urtekaria 2014

IV. KAPITULUA

Gizarte Babesa EAEn



Gizarte Babesaren Estatistiken Europako Sistemaren (SEEPROS) arabera, Gizarte Babesa honela definitu behar da: "erakundeek gauzatutako jarduera guztiak, arrisku edo beharrizan jakin batzuek etxebizitzei eta norbanakoei sorrarazitako kargak arintzeko helburu dutenak, betiere aldibereko hitzarmenik, elkarrekikorik edo banakakorik ez bada".

EUSTAT erakundearen "*Gizarte Babesaren Egoera EAEn*" izeneko estatistikari jarraiki (datuok 2013koak dira), Euskal Autonomia Erkidegoan 16.663,4 milioi euro erabili ziren guztira aipatutako urtean helburu horretarako, hau da, 2012an baino % 1,9 gehiago. Kopuru hori urte horretako BPGren % 25,22koa izan zen (2008ko ekitaldiaren aldean, 5,4 puntu gehiago, eta 2012ko ekitaldiaren aldean, +0,7 puntu), behin-behineko datuen arabera. Gizarte babeseko gastua gero eta handiagoa izan da azkeneko urte guztietan eta, horrela, guztizko gastua biztanleko 6.402 eurokoa izatetik (2008an) 7.698 eurokoa izatera igaro da (2013an). Beraz, % 20 igo da aipatutako urteen artean.

IV.1.1. KOADROA. GIZARTE BABESEKO GASTUA EAEn. ADIERAZLERIK BEHINENAK

	2008	2011	2012	2013	2011-12 ALD. (%)	2012-13 ALD. (%)
GUZTIZKO GASTUA (MILIOI EUROTAN)	13.798,4	16.134,5	16.348,7	16.663,4	1,3	1,9
GASTUAREN % BPGren GAINEAN	19,81	23,71	24,48	25,22	-	-
GASTUA EUROTAN BIZTANLEKO	6.402	7.409	7.498	7.698	1,2	2,1
GASTUA EAPn BIZTANLEKO	6.744	7.649	7.940	:	3,8	:
GASTUA FUNTZIOEN ARABERA (MILIOI EUROTAN)						
- GAIXOTASUNA/OSASUN ARRETA	4.168,2	4.370,2	4.150,8	4.103,5	-5,0	-1,1
- ZAHARTZAROA	5.229,6	6.226,7	6.458,5	6.737,9	3,7	4,3
- LANGABEZIA	1.026,6	1.612,3	1.774,3	1.852,7	10,0	4,4
- BESTE BATZUK	3.075,0	3.606,3	3.666,0	3.681,2	1,7	0,4
ERAKUNDE-UNITATEEN GASTUA						
- GIZARTE SEGURANTZA ETA ESTATUAREN ADMINISTRAZIOA	8.168,9	9.611,9	9.910,0	:	3,1	:
- EUSKAL ADMINISTRAZIOAK	4.521,8	5.240,9	5.175,5	:	-1,2	:
- ERAKUNDE PRIBATUAK	1.107,7	1.281,7	1.263,3	:	-1,4	:

Iturria: EUSTAT. Gizarte Babesaren Egoera EAEn, 2013.

Administrazio-gastuak kenduta, gizarte-prestazioen balioaren zenbatespena 16.375,3 milioi eurokoa izan zen, hots, 2012ko ekitaldian baino % 2,1 gehiago. Funtzioen araberako prestazio-gastuen azterketa eginez gero, ikusiko dugu "*Zahartzaroa*" izeneko funtzioari dagokion gastua (pentsioak eta ostatuari nahiz etxeko laguntzari lotutako laguntza-prestazioak atal horren barrukoak dira), handiena da, 6.738 milioi eurokoa, hain zuzen ere, guztizko gastuaren % 41,1ekoa. 2012ko ekitaldiaren aldean, gastua % 4,3 igo zen, batez besteko hazkundearen (% 1,9) gainetik. Bigarren funtzio garrantzitsuena hauxe da: "*Gaixotasuna/Osasun arreta*", eta bertan 4.103 milioi euro gastatu ziren 2013ko ekitaldian, hau da, guztizko gastuaren % 25,1. Gastu hori % 1,1 jaitsi zen 2012ko ekitaldiaren aldean, eta gainera, bigarren urtez murriztu da.

Erakunde-unitateen gizarte-babeseko gastuari gagozkiola, 2012. urtean (datuak eskuragarri dauden azken urtean), Gizarte Segurantzaren Sistemak eta Estatuaren Administrazioak gastu handiagoa egin zuten (+ % 3,1); euskal administrazioek eta erakunde pribatuek, berriz, txikiagoa (-% 1,2 eta -% 1,4, hurrenez hurren).

EUROSTAT erakundeak argitaratutako azken datuen arabera, 2012ko ekitaldian, gizarte babeseko gastua, erosteko ahalmenaren parekotasunean neurtuta, 7.940 eurokoa izan zen biztanleko Euskal Autonomia Erkidegoan. Zenbateko hori EBko batez bestekoaren (7.591 euro) eta Estatuko batez bestekoaren (6.027 euro) gainetik dabil.

IV.1.1. GRAFIKOA. GIZARTE BABESEKO GASTUAREN BILAKAERA BURUKO (€ EAPn)



Iturria.- EUSTAT.

Gizarte-babeseko gastua gauzatzen duten erakunde-unitateei dagokienez, esan behar da 2012 ekitaldian (datuak eskuragarri dauden azken urtean) Gizarte Segurantzaren Sistemak eta Estatuaren Administrazioak guztizkoaren % 60,6 gastatu zutela, hau da, 2011. urtean baino % 3,1 gehiago. Euskal administrazioek gauzatutako gastua, berriz, % 31,7koa izan zen, hau da, aurreko urtean baino % 1,2 gutxiago. Azkenik, erakunde pribatuek gauzatu zuten gastuaren gainerako % 7,7.

EAEko Memoria Sozioekonomikoaren atal honetan, labur-zurrean aztertzen dira gure erkidegoko gizarte-babesak jorratzen dituen arlo nagusiak. Lehenengoz eta bat, EAEko Gizarte Zerbitzuen egoera berrikusiko dugu, eta gizarte-zerbitzuon nahiz Estatuko legeriari atxikitako menpekotasunaren arreta-sistemaren ezaugarri nagusiak aletuko ditugu. Geroago, Gizarte Segurantzaren prestazioak eta Sarrerak Bermatzeko eta Gizarte Bazterkeriaren aurka egiteko 18/2008 Legeak ezartzen dituen tresnak azalduko ditugu eta, azkenik, EAEko gizarte-aurreikuspeneko sistema osagarrien datu handiak aztertuko ditugu.

Beste alde batetik, Europako Batzordearen 458/2007 Araudiak egiten dituen esparruen sailkapenean langabeziagatiko prestazioak beren-beregi jasotzen diren arren, nahiago izan dugu horiei buruzko informazioa (SEPE, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak kudeatutako Gizarte Segurantzaren prestazioak) Memoria Sozioekonomiko honen "*II. Lan Merkatua*" atalera eramatea, enplegu-politiken gaineko ikuspegi osoa eskaintzeko, politika aktiboak eta pasiboak batera jorratuta.

1. GIZARTE ZERBITZUAK EAEn

1.1. GIZARTE ZERBITZUEN EGOERA

2012ko ekitaldian (informazioa eskuragarri daukagun azken urtean) EAEko Gizarte Zerbitzuetako gastua 2.290,6 milioi eurokoa izan zen, hau da aurreko urtean baino % 0,7 gutxiago, EUSTAT erakundearen "*Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzari buruzko Estatistika*" izenekoaren arabera. Hala, 2008-2012 aldian, gastu hori % 23,1 hazi zen.

2012. urtean, aipatutako gastua gure erkidegoko BPGren % 3,5ekoa izan zen eta, batez beste, 1.050 euro gastatu ziren biztanleko, hau da, 2011n baino % 1,1 gutxiago.

IV.1.2. KOADROA. GIZARTE ZERBITZUAK EAEn: MAGNITUDE NAGUSIEN BILAKAERA

	2011	2012	2011/2012 (%)	2008/2012 (%)
GASTUA (MILA EUROTAN)	2.307.556	2.290.590	-0,7	23,1
- GASTU ARRUNTAK	1.594.754	1.538.675	-3,5	14,6
- TRANSFERENTZIAK FAMILIEI	655.364	692.664	5,7	62,9
- KAPITAL GASTUAK	57.439	59.251	3,2	-36,2
GASTUA/BIZTANLEAK (€)	1.061,4	1.050,0	-1,1	22,0
GASTUA/BPG (%)	3,5	3,5	:	:
FINANTZAKETA				
- FINANTZAKETA PUBLIKOA	1.680.237	1.693.858	0,8	25,8
- FINANTZAKETA PRIBATUA	627.319	596.732	-4,9	16,1
GIZA BALIABIDEAK				
LANGILERIA GUZTIRA	47.172	48.071	1,9	12,8
- LANGILERIA PROPIOA	26.961	26.368	-2,2	6,8
- BORONDATEZKO LANGILERIA	20.211	21.703	7,4	14,5
BALIABIDE MATERIALAK				
- ERAKUNDEEN KOPURUA	1.378	1.352	-1,9	-1,3
- ZENTROEN KOPURUA	2.970	3.201	7,8	8,7
- EGOITZEN KOPURUA	972	1.161	19,4	16,8
- EGOITZETAKO PLAZAK	26.885	26.945	0,2	11,9

Iturria: EUSTAT. Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzari buruzko Estatistika.

Herri-administrazioen ahalegina 1.693,9 milioi eurokoa izan zen, hots, guztizko gastuaren % 73,9; sektore pribatuak, berriz, gainerakoa finantzatu zuen, hau da, gastuaren % 26,1. Gastatutako lau eurotik bat erabiltzaileen kuoten eta beste salmenta batzuen bidez finantzatu zen.

Arloko giza baliabideei dagokienez, 2012. urtean, gizarte-zerbitzuen sektoreak 899 enplegu garbi irabazi zituen (+% 1,9) borondatezko langileen kopurua areagotu zelako (+% 7,4); izan ere, langile propioen kopurua % 2,2 jaitsi zen. Bilakaera horren ondorioz, zuzeneko enplegatuen kopurua 26.368 pertsonakoa izan zen (EAEn lan egiten duten guztien % 2,9). Beste alde batetik, eskuzabaltasunez lan egiten duten borondatezko langileen kopurua 21.703 pertsonakoa izan zen.

IV.1.2. GRAFIKOA. EAEko GIZARTE ZERBITZUETAKO GASTU-ADIERAZLEEN BILAKAERA



Iturria: EUSTAT. ESS.

1.2. MENPEKOTASUNAREN ARRETA

Norberaren Autonomia Sustatzeko eta Menpekotasun-egoeran dauden Pertsonei Arreta emateko Legea[1] (Menpekotasunaren Legea), Estatuko araudia da eta 2007. urtean hasi zen indarrean. Lege horren xede nagusia hauxe da: "*ahultasun bereziko egoeran daudelako, eguneroko oinarrizko jarduerak garatzeko laguntza behar duten pertsonen beharrizanei erantzutea, haien autonomia areagotzea eta, horrela, herritartasun-eskubideak bete-betean gauzatu ahal izatea*". Lege horrek aurrerapen handia ekarri zuen gizarte-politiketan, menpekotasun-egoeran dauden pertsonei aitortzen dielako eta arautzen duelako legeak berak ezarritako prestazio eta zerbitzuez baliatzeko eskubide subjektiboa.

Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Erakundearen (IMSERSO) 2014ko abenduaren 31ko datuen arabera, aipatutako urtean, guztira 90.041 ebaluazio-eskaera erregistratuta zeuden Menpekotasunaren Arreta Sisteman Euskal Autonomia Erkidegoan; eskaera horietatik gehienak menpekotasun-maila aitortzeko berrikuspenei egokitu zitzaizkien, gainerako autonomia-erkidegoetan gertatu bezala. EAEko eskaerak Estatu osoko eskaera guztien % 5,65 dira; gure autonomia-erkidegoan bizi den populazioa, aldiz, estatu osoko biztanleriaren % 4,68 da.

Eskatzaileen ohiko profila hauxe da: emakumea (eskaera guztien % 65,2), 80 urtekoa edo handiko gorakoa. Hurrengo adin-tartea 65 eta 79 urte artekoa da, eskaera guztien % 22,89 direla.

Erregistratutako 90.041 ebaluazio-eskaeretatik, % 97,18 ebatzita zeuden artean (Estatuan, batez beste % 95,54) eta 46.260ek, hau da, ebatzitako kasuen % 52,87k, aitortuta zuten prestazioa jasotzeko eskubidea. Ehuneko hori estatuko batez bestekoa baino txikiagoa izan zen (% 58,66).

Azkenik, erreferentziazko datan, 47.998 prestazio gauzatu ziren, eta horietatik, % 49,6 Familia Zaintzagatiko Prestazio Ekonomikoari lotu zitzaizkion, % 21,38 Egoitzako Arretari, % 10,78 eguneko/gaueko zentroetako arretari eta % 9,35 etxeko laguntza zerbitzuari. Horiexek izan ziren prestazio eta zerbitzu garrantzizkoenak. 41.049 pertsona onuradunek baliatu zituzten aipatutako prestazioak (ratioa 1,17 prestaziokoa da pertsona bakoitzeko; izan ere, pertsona bakarrak zerbitzu edo prestazio baten baino gehiagoren onura jaso dezake), hots, prestazio-eskubidea aitortuta duten 46.260 pertsonen % 88,7k.

Emandako datuen osagarri, Gizarte Zerbitzuetako Zuzendari eta Gerenteen Espainiako Elkarteko kideek osatzen duten "*Menpekotasunaren Espainiako Behatokiak*" eskainitako datuei esker, menpekotasunaren arreta-sistemaren hedadurari buruzko ebaluazio profesionalaren jarraipena egin dezakegu, Menpekotasunaren Legean oinarrituta eta autonomia erkidegoen arabera. Jarraipen horren azken emaitzaz den bezainbatean, 2014ko abenduko datuen arabera,

1 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, norberaren autonomia sustatu eta menpekotasun-egoeran dauden pertsonei arreta ematekoa.

esan dezakegu EAEn beste autonomia-erkidego batzuetan baino garapen handiagoa dagoela, ebaluatutako pertsonen kopuruari dagokionez nahiz emandako prestazio-kopuruari dagokionez.

Sistemaren ezarpenaren eta profesionalen ebaluazioen inguruko laburpen gisa, behatokiak puntuak esleitzen dizkie erkidegoei eta zerrenda aurkezten du. Zerrenda horren lehen postuan Gaztela eta Leon ageri zen 2014ko abenduan (10 puntutik 10 puntu jasota). EAE bigarren lekuan ageri zen, 7,5 puntu zituela. Estatuko batez bestekoa, aldiz, 4,8 puntukoa zen. Azken urtean, gure erkidegoak 8 hamarren galdu zituen; estatuko batez bestekoak, ostera, hamarren bat irabazi zuen.

IV.1.2. KOADROA. MENPEKOTASUNAREN ARRETA AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ARABERA. 2014ko ABENDUKO EGOERA

	IMSERSOREN DATUAK 2014.12.31			MENPEKOTASUNAREN BEHATOKIAREN EBALUAZIOA*		
	EBAZPENEN % / BIZTANLERIA	ONURADUN. % / EBAZPENAK	ONURADUN. % / BIZTANLERIA	2012	2013	2014
GAZTELA ETA LEON	4,19	59,89	2,49	9,2	9,6	10,0
EAE	**4,00**	**52,87**	**1,88**	**7,5**	**8,3**	**7,5**
ANDALUZIA	4,17	60,97	1,94	7,1	5,8	7,1
EXTREMADURA	4,12	53,77	1,97	5,0	5,4	6,7
ERRIOXA	4,43	49,02	1,98	6,7	6,3	6,3
GAZTELA-MANTXA	3,87	54,53	1,75	5,8	5,4	5,0
NAFARROA	2,61	54,79	1,32	5,4	5,0	5,0
ASTURIAS	2,96	52,78	1,45	4,2	3,8	5,0
ESTATUAREN B.B.	**3,26**	**58,66**	**1,59**	**4,7**	**4,7**	**4,8**
KANTABRIA	3,86	71,68	2,34	4,2	6,3	4,6
KATALUNIA	3,54	54,77	1,67	5,8	5,4	4,6
GALIZIA	2,88	67,98	1,42	5,8	5,0	4,2
MURTZIA	3,68	72,42	1,84	3,3	5,0	4,2
MADRIL	2,78	53,24	1,39	3,8	4,2	4,2
BALEAR UHARTEAK	2,07	60,47	1,04	2,5	2,9	3,8
ARAGOI	3,06	59,35	1,29	3,8	3,8	3,3
ZEUTA ETA MELILLA	2,23	52,51	1,12	2,1	1,3	1,7
KANARIAR UHARTEAK	1,51	80,40	1,10	2,1	0,8	1,7
VALENTZIAKO ERKID.	1,85	58,70	0,84	0,8	0,4	1,7

Iturria: EGABek eginda, IMSERSOren eta MENPEKOTASUNAREN BEHATOKIAren datuak erabilita.
(*) 0 eta 10 puntu arteko emaitzak. Gizarte Zerbitzuetako Zuzendari eta Gerenteen Elkarteak sei hilerik behin emandako puntuazioa da, Menpekotasunaren Arreta Sistemaren ezarpen-mailari eta jardunbideari buruzkoa. Taulan, autonomia-erkidegoak puntuazio handiena atera duenetik txikiena atera duenera antolatu dira, 2014ko ekitaldian.

Behatokiaren ebaluazioak dioenez, EAEren arreta-maila nahikoa onargarria izan zen azken urtean, eta itxarote-zerrenda % 10etik zerbait gorakoa izan zen. Behatokiak egoki iritzi zion gastua handitzeari menpekotasun-egoeran dagoen pertsona bakoitzeko eta sektoreari lotutako enplegua sustatzeko; hala eta guztiz ere, ohikoa den legez, ohartarazi zuen EAEn ematen diren prestazio gehienak, Familiarteko Zaintzagatiko Prestazio Ekonomikoari zegozkiola (gurean beste autonomia-erkidego batzuetako egoerara iritsi ez den arren), baina Menpekotasunaren Legeak dioenari

jarraiki, prestazio hori salbuespenezko kasuetan baino ez litzateke eman beharko.

2. GIZARTE SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK

2014ko ekitaldian, milioi erdi pertsona baino gehiago (534.672 lagun, behin-behineko zenbatespenen arabera) Gizarte Segurantzaren sistemaren onuradunak izan ziren gure autonomia-erkidegoan (kotizaziopeko eta kotizatu gabeko pentsioei dagokienez). Kopuru hori aurreko urtekoa baino % 1,4 handiagoa da (eta aurreko urtean % 1,7 igo zen). Azken urteotan gertatu denez, igoeraren arrazoi nagusia dugu kotizaziopeko pentsioen

IV.2.1. KOADROA GIZARTE SEGURANTZAREN PENTSIOAK EAEn MOTAREN ARABERA. LABURPEN-TAULA

	2011	2012	2013	2014	12/13 (%)	13/14 (%)
ONURADUNAK (URTEKO B.B.)						
- KOTIZAZIOPEKO PENTSIOAK	501.800	508.200	516.600	523.900	1,7	1,4
- KOTIZATU GABEKO PENTSIOAK	10.107	10.230	10.449	10.772	2,1	3,1
GUZTIRA	511.907	518.430	527.049	534.672	1,7	1,4
- BIZTANLERIAREN %	23,5	23,8	24,2	24,6	1,8	1,7
GASTUA (MILIOI EUROTAN)						
- KOTIZAZIOPEKO PENTSIOAK	6.994,99	7.291,25	7.646,81	7.896,43	4,9	3,3
- KOTIZATU GABEKO PENTSIOAK*	48,55	50,71	53,40	55,18	5,3	3,3
GUZTIRA	7.043,54	7.341,96	7.700,21	7.951,61	4,9	3,3
- BPGren %	10,4	11,0	11,7	11,9	6,0	1,9

Iturria: EGABek eginda, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioak emandako datuak erabilita. Lan Estatistiken Aldizkaria
(*) Zenbatespena.

onuradun kopuruaren goranzko bilakaera; izan ere, gainerako modalitateetan, oro har, onuradunen talde horren kopurua beherantz doa. Hala, Gizarte Segurantzaren prestazio ekonomikoek estalitako EAEko biztanleriaren ehuneko 24,6koa izan zen.

Kotizaziopeko pentsioei gagozkiela (prestazio guztien % 98 eta gastuaren % 99,3), onuradunen batez besteko kopurua 523.900 izan zen 2014ko ekitaldian (% +1,4) eta prestazioen hileko batez besteko zenbatekoa 1.076,6 eurokoa izan zen, hau da, 2013ko ekitaldian baino % 1,8 gehiago. Hori dela eta, urteko gastua 7.896,43 milioi eurokoa izan zen, 2013. urtean baino % 3,3 gehiago.

Oro har hartuta, 2014. urtean, pentsioen guztizko gastua EAEn 7.951,6 milioi eurokoa izan zen behin-behineko datuen arabera, hau da, % 3,3 hazi zen 2013ko ekitaldiaren aldean. Hortaz, BPGren gaineko ehunekoa 2 hamarren igo zen eta % 11,7tik (2013an) % 11,9ra igaro zen hurrengo urtean, EUSTAT erakundearen behin-behineko datuei jarraiki.

2.1. KUDEAKETA TRANSFERITU GABEKO GIZARTE SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK

2014ko ekitaldian, guztira 523.900 pertsonak baliatu zuten EAEn Gizarte Segurantzaren kotizaziopeko pentsioen sistema, hau da estatukoen % 5,7k eta aurreko urtean baino % 1,4k gehiago. Pentsio-motaren arabera, ezintasun iraunkorragatiko hartzaileen kopurua % 1,6 jaitsi zen azken urtean; erretiroagatiko hartzaileen kopurua, berriz, % 2 hazi zen, eta alarguntasunagatiko hartzaileen kopurua % 0,6. Azkenik, esan behar da umezurztasunagatiko kotizaziopeko hartzaileen kopurua % 4,2 areagotu zen.

Goian aipatutako pentsioen batez besteko zenbatekoa 1.076,60 eurokoa izan zen hilean (estatuko batez bestekoa baino % 23,6 gehiago), hau da, 2013ko ekitaldian baino % 1,8 gehiago. 2014ko abenduan, EAEko batez besteko pentsioa 1.084,49 eurokoa zen eta % 1,9 hazi zen 2013ko abenduko zenbatekoaren aldean. Beste alde batetik, hil horretara arte, urte arteko KPIren aldakuntza % -0,7koa izan zen.

IV.2.2. KOADROA. JASOTZAILEEN KOPURUA ETA GIZARTE SEGURANTZAREN KOTIZAZIOPEKO PENTSIOEN BATEZ BESTEKO ZENBATEKOA EAEn

	2012	2013	2014	2014 (%)	LGSren G/% 2014	12-13 (%)	13-14 (%)
Jasotzaileen kopurua							
GUZTIRA	508.200	516.600	523.900	100,0		1,7	1,4
EZINTASUN IRAUNKORRA	44.200	43.500	42.800	8,2		-1,6	-1,6
ERRETIROA	314.800	322.300	328.800	62,8		2,4	2,0
ALARGUNTASUNA	133.100	134.000	134.800	25,7		0,7	0,6
UMEZURZTASUNA/FAM. MESEDEA	16.100	16.800	17.500	3,3		4,3	4,2
Batez besteko zenb. (euroak/hil)							
GUZTIRA	1.024,8	1.057,3	1.076,6	100,0	164,5	3,2	1,8
EZINTASUN IRAUNKORRA	1.134,9	1.158,7	1.171,0	108,8	179,0	2,1	1,1
ERRETIROA	1.171,9	1.210,7	1.235,5	114,8	188,8	3,3	2,0
ALARGUNTASUNA	710,0	730,3	739,3	68,7	113,0	2,9	1,2
UMEZURZTASUNA/FAM. MESEDEA	451,6	458,9	458,9	42,6	70,1	1,6	0,0

Iturria: EGABek eginda, ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZAREN MINISTERIOAREN datuak erabilita ("Lan Estatistiken Aldizkaria").

Erretiroagatiko pentsioari dagokionez (Gizarte Segurantzaren kotizaziopeko pentsioen hartzaileen % 62,8k jasotzen dute pentsio-mota hori), esan dezagun 2014ko ekitaldian, batez beste, 1.235,5 euroko zenbatekoa zeukala pentsio horrek hilean, hau da, 2013an baino % 2 gehiago. Beste alde batetik, umezurztasunagatiko pentsioak kenduta (horiek ez ziren aldatu), pentsioen batez besteko zenbateko guztiak hazi egin ziren 2014ko ekitaldian, nahiz eta hein berean hazi ez: alarguntasunagatiko eta ezintasun iraunkorragatiko pentsioak batez bestekoaren azpitik hazi ziren (% 1,2 eta % 1,1, hurrenez hurren; erretiroagatiko pentsioa, berriz, % 2 igo zen, % 1,8ko batez bestekoaren gainetik).

Beste alde batetik, pentsioen ziozko guztizko gastua % 3,3 igo zen. Ildo horretan, aipatutako gastuaren bilakaera eta Gizarte Segurantzako afiliatuen kopurua erkatuz gero, pentsio horiek ordaindu ahal izateko afiliatu bakoitzak egin behar duen ahalegina kalkula dezakegu, hileko eurotan. 2014ko ekitaldian, 647,34 eurokoa izan zen hilean, hau da, aurreko urtean baino % 2,9 gehiago, funtsean, pentsioen ziozko gastua handitu zelako, nahiz eta kotizatzaileen kopurua ere handitu zen, baina hein txikiagoan.

IV.2.3. KOADROA. PENTSIO-ARLOKO AHALEGINAREN HURBILKETA EAEn

Urteak	Kotizaziopeko pentsioak (1)	B.B. zenb. €/hil (2)	Guztizko zenb., €/hil (3) = (1)*(2)	Gizarte Segurantzako afiliatuak* (4)	Ahalegina: €/hil afiliatuko (3) / (4)
2009	487.600	938,4	457.563.840	934.700	489,53
2010	494.800	966,1	478.026.280	925.800	516,34
2011	501.800	995,7	499.642.260	919.600	543,33
2012	508.200	1.024,8	520.803.360	896.000	581,25
2013	516.600	1.057,3	546.201.180	868.600	628,83
2014	523.900	1.076,6	564.030.740	871.300	647,34
13 ALD. (%)	1,7	3,2	4,9	-3,1	8,2
14 ALD. (%)	1,4	1,8	3,3	0,3	2,9

Iturria: EGABek eginda, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren datuak erabilita.
** Gizarte Segurantzan alta emanda dauden kotizatzaileak.*

IV.2.1. GRAFIKOA. GIZARTE SEGURANTZAREN KOTIZAZIOEN* ZIOZKO BILKETAREN BILAKAERA EAEN



(Langabezia-saria, LH eta FOGASA kontuan hartu gabe)
Iturria: EGABek eginda, GSDNren datuak erabilita

Beste alde batetik, 2013ko ekitaldian (datu ofizialak eskuragarri ditugun azken urtean, hain zuzen ere), Gizarte Segurantzaren Sistemak 6.449 milioi euro bildu zituen guztira EAEn, hau da, 2012an baino % 0,8 gutxiago, eta estatuan guztira bildutakoaren % 6,6 (2012an, % 6,5). Zenbateko hori gure erkidegoko BPGren % 9,76koa izan zen aipatutako urtean, behin-behineko datuen arabera (aurreko urtean, (% 9,74koa). Bildutako guztizko kopurutik, 1.076 milioi Arabako Lurralde Historikoan bildu ziren (% 16,7), 2.136 milioi Gipuzkoan (% 33,1) eta 3.237 milioi Bizkaian (guztizkoaren % 50,2).

IV.2.4. KOADROA. GIZARTE SEGURANTZAREN DIRUZAINTZA NAGUSIAREN KUOTEN BILKETAREN BILAKAERA EAEn. DATUAK MILIOIKA EUROTAN

	Milioika euro				%	Aldakuntza (%)		
	2010	2011	2012	2013	2013	2010-11	2011-12	2012-13
ARAUBIDE OROKORRA	4.658	4.701	4.645	4.690	72,7	0,9	-1,2	1,0
AUTONOMOAK	619	661	676	681	10,6	6,8	2,3	0,7
NEKAZARITZAKO LANGILEAK*	3	3	0	0	0,0	0,0	0,0	-
ITSASOKO LANGILEAK	28	28	26	27	0,4	0,0	-7,1	3,8
ETXEKO LANGILEAK*	28	30	12	0	0,0	7,1	-60,0	-100,0
IKATZ MEATZARIAK	0	0	0	0	0,0	0,0	0,0	-
LI/LG KUOTAK (DIRUZAINTZA)	6	6	7	7	0,1	0,0	16,7	0,0
SEPE ERAKUNDEKO LANGABEAK	564	553	544	468	7,3	-2,0	-1,6	-14,0
GSDNren KUOTAK GUZTIRA	**5.907**	**5.982**	**5.911**	**5.874**	**91,1**	**1,3**	**-1,2**	**-0,6**
MUTUAK, LI ETA LGen ZIOZ	429	430	406	393	6,1	0,2	-5,6	-3,2
MUTUAK, GERT. ARRUNTEN ZIOZ	205	199	180	182	2,8	-2,9	-9,5	1,1
MUTUAK GUZTIRA	634	629	586	575	8,9	-0,8	-6,8	-1,9
GSren SISTEMAREN BILKETA GUZTIRA	**6.541**	**6.611**	**6.501**	**6.449**	**100,0**	**1,1**	**-1,7**	**-0,8**
LANGABEZIARI AURRE EGITEKO KUOTAK	1.128	1.131	1.088	1.056	16,4	0,3	-3,8	-3,0
FOGASA	29	29	28	27	0,4	0,0	-3,4	-3,6
LANBIDE HEZIKETA	122	123	120	118	1,8	0,8	-2,4	-1,7

Iturria: EGABek eginda, GSDNren datuak hartuta: Urteko Memoriak.
** Araubide horietako bilketa 2012an desagertu zen; izan ere, urte horretatik aurrera, araubide orokorraren barruan sartu zen Nekazaritza, Besteren Konturakoa eta Etxeko Langileak izeneko araubide berezietako bilketa.*

Zenbateko horretatik, % 91,1 Gizarte Segurantzaren kuotei egokitu zitzaien; gainerakoa, hau da, % 8,9, laneko istripu eta lanbide gaixotasunen mutuei. Kuoten % 72,7ren jatorria araubide orokorra izan zen eta horien balioa 4.690 milioi eurokoa zian zen (aurreko urteko zenbatekoaren aldean, % +1). Era berean, Gizarte Segurantzak Langabeziagatiko kuotak, FOGASAkoak eta Lanbide Heziketaren ziozkoak biltzen ditu. Horien guztizko zenbatekoa, 2013ko ekitaldian, 1.201 milioi eurokoa izan zen gure erkidegoan, hots, aurreko urtean baino 35 milioi gutxiago.

Gizarte Segurantzaren pentsioetako gastua EAEn eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren kuoten bilketaren zenbatekoa erkatzen baldin baditugu, ikusiko dugu 2013. urtean (bi datuak eskuragarri ditugun azken urtean, hain zuzen ere) gure zenbatespenen arabera, gastua 7.700 milioi eurokoa izan zen; sarrerak, aldiz, 6.449 milioi eurokoak izan ziren. Hortaz, bien arteko kendura negatiboa izan zen, 1.251 milioi eurokoa, aurreko ekitaldiko -841 milioi euroko zenbatekoaren aldean.

Beste urte batez, defizit horren jatorria izan zen kotizaziopeko pentsioen ziozko sarreren eta gastuen arteko bilakaera aldakorra. Hala, 2013ko ekitaldian, gastua ia % 5 (% 4,9) hazi zen; sarrerak, ordea, % 0,8 jaitsi ziren eta, horren ondorioz, kotizaziopeko pentsioen saldo negatiboak areagotu eta izugarri txarrera egin zuen Euskal Autonomia Erkidegoan, % 48,8 handitu baitzen 2012ko ekitaldiko saldoaren aldean, kontuan hartuta urte horretan bertan % 94,7 hazi zela. Horiek horrela, bi ekitalditan, defizitak % 189,6 egin zuen gora (432 milioi eurotik -1.251 milioi eurora, 2011 eta 2013 urteen artean).

IV.2.5. KOADROA. KOTIZAZIOPEKO PENTSIOEN ZIOZKO GASTUAREN BILAKAERA ETA GSDNren KUOTEN BILKETAGATIKO SARRERAK EAEn (DATUAK MILIOIKA EUROTAN)

	2011	2012	2013	2014	2013ko ALD. (%)	2014ko ALD. (%)
GIZ. SEG. PENTSIOEN GASTUA*	7.043	7.342	7.700	7.952	4,9	3,3
GSDNk BILDUTAKO KUOTAK	6.611	6.501	6.449	..	-0,8	..
SALDOA	-432	-841	-1.251	..	48,8	..
SARRERAK / GASTUA	0,94	0,89	0,84	..		

Iturria: EGABek eginda, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren datuak erabilita.
**Pentsioetako gastuaren zenbateko zenbatespen hutsa da. Ikusi atal honetako 5. oin-oharra.*

2.2. KUDEAKETA TRANSFERITUTA DUTEN GIZARTE SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK: KOTIZATU GABEKO PRESTAZIOAK

Kotizatu gabeko prestazioak ditugu inoiz kotizatu ez duten pertsonek edo, kotizatu arren, kotizaziopeko prestazioen mailara iristeko denbora nahikorik kotizatu duten pertsonek jasotzen dituztenak dira. Gainera, pertsona horiek egoera behartsuan daude bizirauteko baliabiderik ez daukatelako. Halako prestazioetan, onuradunari errenta ekonomikoa aitortzeaz gain, medikuntza- eta farmazia-arreta jasotzeko eta gizarte-zerbitzuei heltzeko eskubidea onartzen zaie. Beraz, erabateko estaldura eskaintzen da beharrizan-egoeretan. Pentsio horiek Estatuko lege honetan dute jatorria: 26/1990 Legea, abenduaren 20koa. Lege horrek osatu zituen Gizarte Segurantzaren Egitura eta Babes Ekintza Arrazionalizatzeko Presazko Neurriei buruzko 26/1985 Legearen bidez hasitako erreformak, eta kotizatu gabeko babesa antolatu zuen, prestazioak eskaini ahal izateko lanbide-sistemaz edo kotizaziopekoaz baliatu ezin diren eta beharrizan-egoeran dauden pertsonei. Modu horretan, eskubide subjektiboa sortu zen adinekoen eta ezintasuna duten pertsonen alde.

Gizarte-babeseko sistema horren izaera unibertsala dela eta, ez da beharrezkoa aldez aurretik kotizatu izana prestazioa jasotzeko eskubideaz baliatzeko. Hori dela eta, kotizatu gabeko izaera daukanez, prestazioaren zenbatekoa Estatuko Aurrekontu Orokorren urterik urteko legeetan ezartzen da. Prestazioen finantzaketa osoa Estatuaren ardurapekoa da, eta Gizarte Segurantzak transferentzia egokiak jasotzen ditu, 26/1990 Legearen Zortzigarren Xedapen Gehigarriak ezarritakoei jarraiki , eta Toledoko Itunean adostutako gomendioekin bat etorriz.

Estatuan, prestazio horiek autonomia-erkidegoen eskumenekoak dira, baina EAEn, eginkizunak eta zerbitzuak transferitu ostean, aldundiek badute prestazioa aitortu, kudeatu eta finantzatzeko eskumena. Kotizatu gabeko

prestazioak hiru motakoak dira: Gizarte Segurantzaren kotizatu gabeko prestazioak, laguntza-pentsioak eta LISMI prestazioak. Onuradunek jaso beharreko zenbatekoa errentaren eta norberaren egoeraren arabera ezartzen da.

2.2.1. Gizarte Segurantzaren kotizatu gabeko prestazioak

EAEko foru-aldundiek ematen dituzten kotizatu gabeko prestazioak ditugu aipagarrienak kotizatu gabeko prestazio guztien artean, horien bolumena eta zenbatekoa direla eta. Prestazio horiek sarrera nahikorik gabeko pertsonentzat dira (ez-nahikotzat jotzen dira pertsonen urteko sarreren zenbatekoa pentsioaren urteko zenbatekoaren azpitik badago) eta urterik urte handitzen dira.

IV.2.6. KOADROA. GIZARTE SEGURANTZAREN KOTIZATU GABEKO PENTSIOAK EAEn: ADIERAZLERIK BEHINENAK

	ONURADUNAK (URTEKO B.B.)			HILEKO ZENBAT. (€)
	ERRETIROA	ELBARRIT.	GUZT.	
2009	4.301	5.439	9.741	336,33
2010	4.311	5.638	9.949	339,70
2011	4.399	5.708	10.107	343,10
2012	4.494	5.736	10.230	354,10
2013	4.677	5.772	10.449	364,90
2014	4.731	6.041	10.772	365,90
11/12 ald. (%)	2,2	0,5	1,2	3,2
12/13 ald. (%)	4,1	0,6	2,1	3,0
13/14 ald. (%)	1,2	4,7	3,1	0,3

Iturria: EGABek eginda, EGSMren datuak erabilita. Lan Estatistiken Aldizkaria.

Kotizatu gabeko pentsioen zenbatekoa urtero-urtero ezartzen da, Estatu osoa kontuan hartuta. 2014ko ekitaldian, 365,90 eurokoa izan zen erretiroagatiko eta % 65eko edo handik gorako elbarritasunagatiko pentsioa. Bestetik, % 50eko osagarria aitortzen da % 75eko edo handik gorako baliaezinasunagatiko pentsioetan, beste pertsona batek lagundu behar badio pentsiodunari. Gainera, onuradunak errentak edo sarrerak edukiz gero eta pentsioaren zenbatekoaren % 25 gainditutz gero, pentsioa murriztu egiten da aipatutako % 25etik gorako zenbatekoaren heinean. Dena dela, norberaren sarrerak % 25 gainditzen ez badute, pentsioa oso-osorik kobratzen da.

Zenbateko horiek aintzat hartuta, pentsio horien ziozko gastua, gutxi gorabehera, 55,2 milioi eurokoa izan zen 2014ko ekitaldian, hau da, 2103an baino % 3,4 gehiago, baina esan beharra dago ez dakigula zenbateko zehatza zein izan zen.

2.2.2. Gizarte Ongizateko Funtsaren laguntza-pentsioak

Foru-aldundiek transferentzia bidez eskuratutako Gizarte Segurantzaren laguntza-pentsioak banakako laguntza ekonomikoak dira, aldizkakoak eta mugagabeak, 65 urtetik gorako adineko gaixoentzat edo ezintasun iraunkor osoa dutenentzat, baldin eta bizirauteko baliabide ekonomiko nahikorik ez badute (hau da, norberaren sarreren urteko zenbatekoa batez besteko pentsioaren urteko zenbatekoa baino txikiagoa denean). Kotizatu gabeko pentsioei dagokienez, estatuan legez bizi behar izan da gutxienez 5 urtez pentsioa jasotzeko (gutxienez 10 urtean bizi behar izan da eskatzailea –ezinduak, 5 urtean–, eta gutxienez 2 urtean eskaera egin aurretik); laguntza-pentsioei dagokienez, ordea, eskakizun bakarra da onuradunak EAEko udalerriren batean erroldatuta egotea, bai eta atzerritarrak, errefuxiatuak eta gure erkidegoan bizitzeko baimena duten aberrigabeak.

Prestazio-mota horiek apurka-apurka indargabetu ziren 5/1992 Errege Lege Dekretua indarrean hasi zenetik eta, beraz, ezin da altarik izan data horretatik aurrera. Hori dela eta, ordura arte aitortutako pentsioei bakarrik eusten zaie, baldin eta onuradunek kotizatu gabeko pentsioak jasotzeko hautua egin ez badute (oro har, azkenek zenbateko handiagoa dute).

Ez dakigu zehatz-mehatz atal honetan hizpide darabiltzagun prestazioen zenbat onuradun geratuko diren. Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioak 2006an eman zuen datu horren berri azkeneko aldiz eta, Euskal Autonomia Erkidegoan, bostehun bat jasotzaile zeuden. Laguntza horren zenbatekoa ez da aldatu 2000. urtetik eta 149,86 eurokoa da hilean. Gainera, onuradunek bi aparteko sari aitortuta dauzkate urtean[2].

2 2014ko ekitaldian, gehienez ere milioi bat eurokoa izango zen gastu hori ez da aintzat hartuko kapitulu honen atarian egin den EAEko pentsioetako gastu agregatua kalkulatzeko.

2.2.3. MG prestazioak

Minusbaliatuak Gizarteratzeko 13/82 Legeak (MGL) arautzen dituen prestazioen onuradunak 18 urtetik gorako helduak dira, baldin eta, gutxienez, % 65eko baliaezintasuna badute eta urteko baliabide ekonomikoak lanbide arteko gutxieneko soldataren % 70etik beherakoak badira pertsona bakoitzeko (pertsonarik badauka bere ardurapean, prestazioa % 10 handitzen da ardurapeko bakoitzeko)[3]. Halaber, Lege horren ondoriozkoak dira ezinduek enplegua eskuratzeko eta mantentzeko prozesuetan aukera-berdintasuna bermatzea indartzeko hainbat ekimen, ohiko enpleguan nahiz babesturiko enpleguan. Lanbidek gure Erkidegoan buruturiko ekimenak dira.

MGLren sorospenak indargabetuta gelditu ziren Estatuko 26/1990 Legea indarrean sartu zenetik. Horren bidez, kotizaziorik gabeko prestazioak ezarri ziren Gizarte Segurantzan eta, beraz, Gizarte Ongizatearen Funtseko laguntzako prestazioekin gertatzen den bezala, MGLren prestazioen onuradunak jaitsi egiten dira urtez urte.

2008an (datuak eskuragarri ditugun azken urtean), MGLren 680 onuradunak honela banatu ziren EAEn: 603 GSBSko prestazioetan, 77 HLSkoetan eta 28 MGGSkoetan. Sorospen horien jaitsiera nahikoa handia izan da; izan ere, orain dela hamar urte 5.000 pentsio zeuden aintzatetsita. 2008ko ekitaldian, prestazio horien zenbatekoa 1,4 milioi eurokoa izan zen[4].

3. EAEko POBREZIAREN ETA GIZARTE BAZTERKERIAREN AURKAKO NEURRIAK

Ohituraz, pobrezia desberdintasun ekonomikoekin erkatu da eta diru-sarrera gutxiko biztanleen taldeei lotu zaie. Hala eta guztiz ere, azken urteetan, gure gizartean gertatu diren aldaketek –ekonomia, gizarte nahiz familia arloko aldaketek– bazterkeria-modu berriak sorrarazi dituzte, non egoera ekonomikoaz gain, beste alderdi batzuek (bakartasuna, menpekotasuna, zahartzaroa edo gerontofobia), gizarte-bazterkeria eragiten dituzten.

EAEko pobrezia, marjinazioa eta gizarte-bazterkeriari aurre egiteko tresna behinenak Gizarte Zerbitzuen Legean, Bazterkeriaren aurkako Legean eta Gizarte Eskubideen Gutunaren Legean jasota daude, baina azken urteotan, bereziki azpimarratzekoa da gaur egun indarrean dagoen Sarrerak Bermatzeko Errenta (lehen, Oinarrizko Errenta) eta Gizarte Larrialdiko Laguntzak (GLL). Biak ala biak gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko programak dira eta Pobreziari aurre egiteko plan integralean jasota daude. Bi horiez gain, badira gizarteratze-, prestatze- eta laneratze- programak halakoetan parte hartzen duten alderdien arteko hitzarmenen bidez, hau da, udalen eta baztertze-arriskuan dauden pertsonen arteko hitzarmenen bidez (programetan, gizarteratzeko enpresen sorkuntza aurreikusten da).

2009. urtean, abenduaren 23ko Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko 18/2008 Legea hasi zen indarrean. Lege horren helburu nagusiak ditugu, alde batetik, Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistema eratzea, sistema autonomiadun gisa —gizarte-zerbitzuek eta enplegu-zerbitzuek parte hartzen dute sistemaren kudeaketan eta herri-erakundeen beste arlo batzuek ere laguntzen dute—, eta bestetik, Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren jardunbide-abiaburuak eta egiturazko oinarriak finkatzea, euskal herritarrek modua izan dezaten prestazio ekonomikoei eta gizarteratzeko nahiz laneratzeko tresnei heltzeko, berdintasunean eta ekitatean oinarrituta, betiere beharrezko neurriak hartuta tresnon batekotasuna bermatzeko lurralde osoan[5].

3 Laguntza horiek honako lau motetan jaso daitezke: Gutxieneko Sarrerak Bermatzeko Sorospena (GSBS), Hirugarrenei Laguntzeko Sorospena (HLS), Mugikortasun eta Garraio Gastuak Konpentsatzeagatiko Sorospena (MGGS) eta Osasun-arreta eta Farmazia-prestazioa. Informazio gehiago eskuratzeko, irakurri Memoria Sozioekonomiko honen aurreko edizioak.

4 Gastu hori ez da aintzat hartuko kapitulu honen atarian egin den EAEko pentsioetako gastu agregatua kalkulatzeko.

5 18/2008 Legeari eta lege horrek ekarritako berrikuntzei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, jo beza irakurleak Memoria Sozioekonomiko honen 2009. urtetik 2012. urtera arteko edizioetara.

Zenbatespenen arabera, Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak 495,31 milioi euro gastatu zituen 2014ko ekitaldian, hau da, aurreko urtean baino % 8,1 gehiago. Gastua honela banakatu zen: 472,3 milioi euro Diru Sarrerak Bermatzeko Errentan eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarrian (2013ko ekitaldian baino % 8,5 gehiago), nahiz eta esan behar den bi prestazioen arteko banakaketaz ez dakigula urte horretan, elkarren osagarriak direlako (gutxi gorabehera, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta edo DBE jasotzen duten hartzaileen % 40k Etxebizitzarako Prestazio Osagarria edo EPO ere jasotzen dute). Era berean, laguntza horri buruzko datu ofizialik ez daukagun arren, zenbatespenei jarraiki, 2013ko ekitaldian Gizarte Larrialdiko Laguntzetan erabili zen 23 milioi euroko zenbatekoari eutsi zitzaion 2014ko ekitaldian (Sistemaren guztizkoaren % 4,6).

IV.3.1. GRAFIKOA DIRU SARRERAK BERMATZEKO EUSKAL SISTEMAREN PRESTAZIOETAKO GASTUAREN BILAKAERA (MILAKA EUROTAN)



Iturria: EGABek eginda, EUSKO JAURLARITZAKO Gizarteratze Zuzendaritzaren datuak erabilita.
** 2014ko ekitaldian, DSBE + EGPO prestazioen ziozko guztizko gastua ezaguna da, 472,3 milioi eurokoa. GLLen datua zenbatespena da.*

Aipatutako prestazioek EAEko bizi-baldintzetan duten eraginari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren "*Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta*" (PGDI) izenekoan jasotako datuen arabera, 2014. urtean, pobreziaren atalasean bizi ziren pertsonen kopurua % 38,7 jaitsi zen EAEn laguntza horien ondorioz; hala, aipatutako prestazioak izan ezean, biztanle guztien % 9,6 izango ziren benetako pobrezia-egoeran (207.898 pertsona), baina prestazioak banatu ostean, ehunekoa % 5,9raino jaitsi egiten da (127.399 pertsona, artatu ondoren pobreziari utzi ez dioten biztanleen % 3,3 eta artatu gabekoen % 2,6. Aurreko inkestetako datuak aintzat hartuta, esan daiteke diru-sarrerak bermatzeko sistemak eraginkortasunari eusten diola edo eraginkortasuna hobetzen duela. Izan ere, 2008ko ekitaldian, pobrezia % 31,3 murrizten lagundu zuen eta 2012ko ekitaldian, berriz, % 37,5.

IV.3.1. KOADROA. DIRU SARRERAK BERMATZEKO SISTEMAREN ERAGINA (DSBE + EGPO + GLL) BENETAKO POBREZIAN EAEn

		ABS.	GUZT. BIZT. %	ARRISKUKO TALDEEN %
2014	SISTEMAK ARTATUTAKO BIZTANLERIA	151.591	7,0	72,9
	- POBREZIARI UTZI EZ DION BIZT.	71.092	3,3	34,2
	- POBREZIARI UTZI DION BIZT.	80.499	3,7	38,7
	ARTATU GABEKO BIZT.	56.307	2,6	27,1
	BENETAKO POBREZIA GUZTIRA	207.898	9,6	100,0
2012	SISTEMAK ARTATUTAKO BIZTANLERIA	133.267	6,1	72,6
	- POBREZIARI UTZI EZ DION BIZT.	64.383	3,0	35,1
	- POBREZIARI UTZI DION BIZT.	68.884	3,2	37,5
	ARTATU GABEKO BIZT.	50.313	2,3	27,4
	BENETAKO POBREZIA GUZTIRA	183.580	8,5	100,0
2008	SISTEMAK ARTATUTAKO BIZTANLERIA	83.023	3,9	63,6
	- POBREZIARI UTZI EZ DION BIZT.	42.165	2,0	32,3
	- POBREZIARI UTZI DION BIZT.	40.858	1,9	31,3
	ARTATU GABEKO BIZT.	47.542	2,2	36,4
	BENETAKO POBREZIA GUZTIRA	130.564	6,1	100,0

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. PGDI 2014.

3.1. SARRERAK BERMATZEKO SISTEMAREN PRESTAZIOAK

3.1.1. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta

Diru-sarrerak bermatzeko errenta Oinarrizko Errenta zeritzon prestazioa ordeztu du eta ondokoei aitortzen zaie: EAEn erroldatutakoei (gutxienez urtebeteko antzinatasuna izan behar dute), baldin eta oinarrizko beharrizanei eta gizarteratze nahiz laneratzeko beharrizanei erantzuteko baliabide ekonomiko nahikorik ez badute.

Laguntza hori jasotzeko, Oinarrizko gizarte-zerbitzuetako batzuek ematen duten premia-egoeraren ziurtagiria izan behar du onuradunak, eta gainera –salbuespenak salbu–, gizarteratzeko hitzarmenetan parte hartu behar du, gizarteratzea eta laneratzea erraztu eta premia-egoeratik aldentzeko. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eskuratu ahal izateko betekizun orokorren artean, erreferentziazko urtean, 23 urtetik gorakoa izan behar du onuradunak. Jasotako zenbatekoa honako hau da: hamabi hileko kuotetan lanbideen arteko gutxieneko soldataren % 88ko urteko diru-sarrerak bermatzeko behar dena, gehi haren % 25 bigarren pertsonarentzat eta % 10 gehiago pertsona bakoitzarentzat hirugarrenetik aurrera.

IV.3.2. KOADROA. DIRU-SARRERAK BERMATZEKO OINARRIZKO ERRENTA: GASTUAREN EBOLUZIOA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (MILIOIKA EUROTAN)

	2010	2011	2012	2013	2011/12 ALD. (%)	2012/13 ALD. (%)
ARABA	40,16	43,89	51,87	56,8	18,2	9,5
GIPUZKOA	46,51	51,84	61,10	74,0	17,9	21,1
BIZKAIA	228,15	234,61	230,82	228,3	-1,6	-1,1
EAE	314,82	330,34	343,79	359,1	4,1	4,5

Iturria: EUSKO JAURLARITZAKO Gizarteratze Zuzendaritza.

2013. urtean (informazio ofiziala eskuragarri dugun azken urtean, hain zuzen), Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta gisa ordaindutako guztizko zenbatekoa 359,1 milioi eurokoa izan zen (hau da, 2012. urtean baino % 4,5 gehiago). Zenbatekoaren igoera ez da era berekoa izan Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten hiru lurraldeetan. Hala, igoerarik handiena Gipuzkoan izan zen (+% 21,1), gero Araban (+% 9,5), baina Bizkaian % 1,1 jaitsi zen zenbatekoa.

Beste alde batetik, 2014an, 65.683 familiak jaso zuten Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (abenduko datua); kopuru hori aurreko urtekoa baino % 8,3 handiagoa, urte horretan, 62.817 bizikidetza-unitatek jaso baitzuten laguntza. Lurraldeka aztertuta, Bizkaiak dauka jasotzaile gehien, 40.451 guztira, hots, EAEko guztien % 61,6; Gipuzkoak, berriz, jasotzaileen % 22,4 bildu zuen eta, azkenik, Arabak jasotzaileen % 15,1 izan zuen.

IV.3.2. GRAFIKOA DSBE: JASOTZAILE TITULARREN BILAKAERA ABENDUAREN 31RA ARTE, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA



	2010	2011	2012	2013	2014
Bizkaia	37.955	36.796	37.496	39.719	40.451
Gipuzkoa	9.904	11.424	12.482	14.102	15.314
Álava	7.161	7.539	8.001	8.996	9.918

Iturria: LANBIDE.

LANBIDEn 2014ko abenduan jasota zeuden espediente aktiboen kopuruari dagokionez, badakigu 65.683 pertsona zeudela izena emanda. Horietatik, % 42,6 gizonak ziren eta % 57,4 emakumeak. Onuradun gehien metatu zuen adin-tartea hauxe izan zen: 35-44 urte (guztizkoaren % 27,8).

Horrez gain, esan behar da prestazio hau jasotzen duten atzerritarren ehunekoa 27,2koa dela, eta hartzaile titularren % 25,9 pentsiodunak direla. DSBEren osagarriei gagozkiela, lehenengoa Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria dugu. Erreferentziazko datan, aurrerako ikusiko dugun moduan, 28.683 pertsonak jaso zuten eta, aldi berean, 9.505 pertsonak jaso zuten guraso bakartasunagatiko osagarria.

Bestalde, Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasunaren Ministerioaren "*Gizarteratzeko Gutxieneko Errentei buruzko txostena*"ri esker, autonomia erkidegoetako sarrerak bermatzeko sistemen kopuru handien konparaziozko jarraipena egin daiteke, sistema horiek garatzeko araudien heterogeneotasuna eta garapen maila ezberdinak kontuan izanik. 2013ko ekitaldiari buruzko txostenaren arabera, urte horretan, gure erkidegoak 5.841 euro gastatu zuen urtean prestazio horien titular bakoitzeko, estatuko 3.248 euroko batez bestekoaren aldean, eta haren estaldura-tasa % 34koa izan zen mila biztanleko. Estatuko batez bestekoa, berriz, 5,48koa izan zen mila biztanleko. Kontuan hartu behar da gure erkidegoak Estatuko prestazio horietan baliatzen diren funts guztien % 40,2 izan zuela eskura aipaturiko urtean (DSBE + EGPO), eta prestazioaren oinarrizko kopurua, hilean 662,51 eurokoa, Estatuko batez bestekoa baino % 58,3 handiagoa izan zela, hots, autonomia-erkidego guztietan handiena.

IV.3.3. KOADROA. AUTONOMIA ERKIDEGOETAKO GUTXIENEKO GIZARTERATZE-ERRENTEN ERKAKETA. 2013ko DATUAK

	Estaldura-tasa (1.000 biztanleko)		Hartzaileak (titularrak)			Gauzatutako gastua (milioika eurotan)		
	2012	2013	2013 (abs.)	2013 (%)	2012/13 ALD. (%)	2013 (abs.)	2013 (%)	2012/13 ALD. (%)
ANDALUZIA	3,91	6,60	55.711	21,6	68,5	100,07	9,6	44,3
ARAGOI	4,08	5,37	7.236	2,8	31,5	22,48	2,2	13,8
ASTURIAK	8,72	11,43	12.205	4,7	29,9	59,12	5,7	31,5
BALEAR UHARTEAK	1,95	2,02	2.251	0,9	3,2	7,01	0,7	18,4
EAE	31,91	34,00	74.528	28,8	6,5	435,37	41,8	26,8
ERRIOXA	6,77	6,87	2.212	0,9	1,0	5,71	0,5	-3,4
EXTREMADURA	1,19	1,15	1.266	0,5	-3,9	1,93	0,2	16,3
GAZTELA-MANTXA	0,52	0,62	1.297	0,5	18,2	2,69	0,3	-10,3
GAZTELA ETA LEON	3,31	4,12	10.372	4,0	23,0	46,59	4,5	39,4
KANARIAR UHARTEAK	2,55	2,77	5.866	2,3	8,7	20,44	2,0	3,8
KANTABRIA	7,41	7,89	4.671	1,8	6,1	15,00	1,4	-1,6
KATALUNIA	3,05	3,31	24.988	9,7	8,1	132,80	12,7	2,3
GALIZIA	3,08	4,08	11.282	4,4	32,5	36,70	3,5	37,1
MADRIL	3,06	3,05	19.780	7,7	-0,6	85,41	8,2	0,9
MURTZIA	1,27	1,66	2.441	0,9	30,1	5,97	0,6	50,4
NAFARROA	12,29	14,70	9.472	3,7	19,6	37,47	3,6	23,7
VALENTZIAKO ERK.	2,39	2,32	11.840	4,6	-3,6	23,56	2,3	60,6
CEUTA	2,33	4,88	411	0,2	109,7	0,56	0,1	24,4
MELILLA	6,48	6,92	579	0,2	10,5	1,74	0,2	4,8
ESTATUA	4,60	5,48	258.408	100,0	18,9	1.041,62	100,0	21,9

Iturria: EGABek eginda, Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioaren datuak erabilita. Gizarteratzeko Gutxieneko Errenten Txostena 2013.

3.1.2. Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria

Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria (EGPO) eskubide subjektiboari lotutako prestazio gisa baliatu zenetik, gizarteko babes-sistemaren giltzarrietakoa da eta 18/2008 Legearen helburu nagusiaren isla garbia da, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren osagarri diren prestazio ekonomikoen sistema egokitu eta gizatalde behartsuenek etxebizitzaren ziozko gastuei aurre egiteko modua izan dezaten. Hala, oinarrizko gastuei aurre egiteko nolabaiteko egonkortasuna bermatzeaz gain, tresna horren xede nagusia da Gizarte Larrialdiko Laguntzak bideratzea jatorrizko eginkizunera, hau da, aparteko gastuak estaltzera. Horren arrazoi nagusia da azken urtetako joera zuzentzea da; izan ere, premiazko egoerak direla eta, Gizarte Larrialdiko Laguntzak aldizkako laguntza bihurtu ziren askotan eta, gehienbat, etxebizitzaren ziozko gastuak ordaintzeko erabili ohi ziren. Horrek ez du esan nahi etxebizitzarako gastuak bazter geratzen direla araudi-esparru berriak Gizarte Larrialdiko Laguntzei esleitzen dizkien helburuetatik, ezpada, etxebizitzako gastuak ordaintzearren, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren titular ez diren pertsonei bakarrik eman ahalko zaizkiela.

IV.3.3. GRAFIKOA. EGPO JASOTZAILE TITULARREN HILEKO BILAKAERA EAEN, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. 2012-2013



Iturria: EUSKO JAURLARITZAKO ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKEN SAILA
**Hilen laburdurak*

EGPOren xehetasunak etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriari buruzko urtarrilaren 12ko 2/2010 Dekretuak arautzen ditu. Dekretu horrek xedatzen duenez, prestazioaren helburua honakoak estaltzea da: *"etxebizitzari lotutako beharrak, etxebizitza edo ohiko bizilekua alokatzeko gastuak, alokairu, berrakura, alokairukidetza, ostatu eta gelen alokairuko modalitate guztietan".*

Indarraldiko lehen urtean (2010ean), 51,1 milioi euroko gastua ekarri zuen EGPOk; 2011n, 64,9 milioi; eta 2012an, 71,2 milioi. 2013an, berriz, guztira 76,03 milioi euro ordaindu ziren, aurreko urtean baino % 6,8 gehiago. Zenbateko horretatik, 13,3 milioi Araban erabili ziren (guztizkoaren % 17,5), 45,8 milioi Bizkaian (% 60,3) eta 16,8 milioi euro Gipuzkoan (% 22,2).

2014ko ekitaldiari dagokionez, arestian azaldu dugun bezala, prestazio honi eta DSBEri lotutako gastu agregatuaren zenbatekoa dakigu, 472,3 milioi eurokoa, hau da, 2013ko ekitaldiko DSBE + EGPO gastu agregatuaren zenbatekoa baino % 8,5 gehiago. Jasotzaileez den bezainbatean, 2014ko abenduan, DSBEren hartzaile ziren 28.683 pertsonak EGPO ere jaso zuten (hau da, aurreko urtean baino % 10,8 gehiagok).

3.1.3. Gizarte Larrialdiko Laguntzak

Gizarte Larrialdiko Laguntzak (GLL) oinarrizko premia zehatzei aurre egiteko prestazio ez-aldizkakoak dira. Premia horiek, batez ere, etxebizitzari lotuta daude eta noizbehinka gertatzen dira, eta gizarte bazterkeriako egoerak prebenitu, saihestu edo arintzeko behar diren gastuei aurre egiteko behar beste baliabiderik ez duten pertsonentzat erabiltzen dira.

Laguntza horien bidez estalitako berariazko gastuak etxebizitzaz edo ohiko bizitokiaz gozatzeari eta mantentzeari, etxebizitzaren edo ohiko bizitokiaren epe luzerako bizigarritasunari eta oinarrizko ekipamenduari (altzariak, linea zuriko etxetresna elektrikoak, oinarrizko instalazioak edo horiek egokitzeko eta/edo konpontzeko gastuak) dagozkie eta jantziei, hezkuntzari, prestakuntzari edo osasun-arretaren inguruko lehen mailako beharrizanei lotutako ohiz kanpoko, aurreikusi gabeko eta ohikoak ez diren beharrizanak –sistema publikoek estaltzen ez dituztenak– ordaintzekoak dira, bai eta oinarrizko Gizarte Zerbitzuen iritziz, gizarte bazterkeriako egoerak saihesteko edo arintzeko behar diren antzeko edozein beharrizan ere.

IV.3.4. GRAFIKOA. GIZARTE LARRIALDIKO LAGUNTZAK: JASOTZAILEEN KOPURUAREN BILAKAERA, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA



	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Bizkaia	4.007	4.086	4.160	9.000	11.01	11.71	13.77	15.76	15.66	16.52	22.30	12.02	8.544	13.80	16.12
Gipuzkoa	6.400	7.010	8.960	4.350	4.850	4.981	5.630	5.976	6.183	6.102	9.198	5.597	4.947	6.502	6.393
Álava	2.250	2.400	2.650	3.150	4.051	4.078	4.884	4.353	4.547	4.670	6.520	2.544	1.840	2.694	2.990

Iturria: EUSKO JAURLARITZAKO Gizarteratze Zuzendaritza

EGPO indarrean hasi ondoren, GLLek jatorrizko helburuari heldu zioten berriro eta, horregatik, nabarmen murriztu zitzaien aurrekontu partida. Horrela, 2010ean, 24 milioi euro erabili ziren guztira laguntza horietarako. Aurreko urtean, aldiz, 54,5 milioi euro baliatu ziren. 2011ko ekitaldian, 17,3 milioi erabili ziren GLLetan, 2012an, 17,14 milioi euro erabili ziren guztira, eta 2103an, (zenbateko ofizialak eskuragarri ditugun azken urtea), 23 milioi euro, hau da, aurreko urtean baino % 34,2 gutxiago. Guztizko zenbatekotik, % 51,3 Bizkaiko lurraldeari egokitu zitzaion, % 28,6 Gipuzkoako lurraldeari eta gainerakoa, % 20,1, Arabakoari.

2013ko ekitaldian, guztira 25.507 kontsumo-unitate jasotzaile zenbatu ziren, hau da, 2012. urtean baino % 10,9 gehiago. Unitate horien artean, 2.990 Araban bizi ziren (guztizkoaren % 11,7), 6.393 Gipuzkoan (% 25,1) eta gainerakoak, 16.124 unitate, Bizkaian (% 63,2). Guztira, urte horretan 33.195 laguntza eman ziren hainbat kontzeptu direla eta, hala nola, oinarrizko beharrizanak (8.025 laguntza), alokairua (6.058 laguntza) edo interesen amortizazioa (2.424 laguntza). Laguntzen batez besteko zenbatekoa 693 eurokoa izan zen.

IV.3.4. KOADROA. GIZARTE LARRIALDIKO LAGUNTZAK 2013KO EKITALDIAN: BANAKETA KONTZEPTUAREN ARABERA ETA BATEZ BESTEKO ZENBATEKOAK

	LAGUNTZA KOPURUA	ZENBATEKOA (MILAKA €)	LAGUNTZEN BATEZ BESTEKOA (€)
ALOKAIRUA	6.058	6.576	1.085,52
INTERESEN AMORTIZAZIOA	2.424	2.765	1.140,79
BESTE MANTENTZE-GASTU BATZUK	13.402	7.117	531,03
ALTZARIAK ETA ETXETRESNAK	1.162	508	437,55
KONPONKETAK ETA INSTALAZIOAK	986	596	604,79
OINARRIZKO BEHARRIZANAK	8.025	4.358	543,06
ZORPETZEA	1.138	1.086	953,93
LAGUNTZAK GUZTIRA	33.195	23.007	693,07
U.C. PERCEPTORAS	25.507		
PERTSONA HARTZAILEAK	44.429		

Iturria: EUSKO JAURLARITZAKO Gizarteratze Zuzendaritza.

3.2. GIZARTERATZEA AHALBIDETZEKO PROGRAMAK

3.2.1. Hirugarren Sektorearen jarduerak sustatzeko diru-laguntzak, gizartegintza-arloan

649/2009 Dekretuak, abenduaren 29koak, Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak arautzen dituenak, eraldaketa proposatu zuen eremu horretan ordura arte garatzen ari zen diru-laguntzen politikaren inguruan. Izan ere, Eusko Jaurlaritzako diru-laguntza ekonomikoen arloan, dekretuaren xede nagusia dugu Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaien Sailak irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuei ematen dizkien diru-laguntzen esparrua arautzea, erakunde horiek, euren ekimenez, gizartegintza-esparruan egiten dituzten jardueren garapena finantzatzen laguntzeko asmoz.

2013. urtean (informazio ofiziala eskuragarri dugun azken urtean, hain zuzen), emandako laguntzen zenbatekoa 5,08 milioi eurokoa izan zen, hau da, 2012. urtean baino % 35,9 gutxiago. Diru-laguntzen mota dela eta, 4,43 milioi euro erabili ziren gizarteko esku-hartzeetan, pertsona, familia, gizatalde eta komunitateekin, eta 640.000 euro erabili ziren elkarteen bilbea sendotzeko.

3.2.2. Gizarteratzeko enpresak sortu eta mantentzeko laguntzak

Gure autonomia-erkidegoan, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren 2002ko abenduaren 11ko Aginduak arautu ditu gizarteratzeko enpresak sortu eta mantentzeko laguntzak. Aipatutako agindua eman zen Laneratzeko enpresen kalifikazioa arautu, enpresotan sartzeko prozedura ezarri eta laneratzeko enpresen erregistroa sortu zuen abenduaren 26ko 305/2000 Dekretua garatzeko helburuz. Geroago, 182/2008 Dekretuak, azaroaren 11koak, aipatutako 305/2000 Dekretua indargabetu zuen Gizarteratze-enpresen araubidea arautzen dituen abenduaren 13ko 44/2007 Legearen eskakizunetara egokitzeko. Laguntza horien helbururik behinena da enpresa-mota horiei erraztasunak ematea, enpreson ezaugarri eta beharrizan bereziei egokitutakoak. Horretarako, enpresa horientzat beren-beregi gertatutako laguntza ekonomikoen oinarri arautzaileak ezarri zituen. Legearen esparruan, gizarteratze-enpresak sortzen dituzten erakunde sustatzaileentzako diru-laguntzak eta gizarte-enpresentzako diru-laguntzak arautzen dira (azkenak, gizarte-enpresei eurei eusteko). Aipatutako tresnen bidez, Eusko Jaurlaritzak asmoa du gizarteratze- eta laneratze-modu berezi hori bultzatzeko. Hala, pertsona bat gizarteratze-enpresa batean hasten denean, besteren konturako langile gisa, bazkide langile gisa edo lan-bazkide gisa, lan-harremana kontratu baten bidez gorpuzten da, lehen kasuan, lan-kontratu baten bidez, eta bigarren kasuan, sozietatearen kontratu baten bidez, baina biak ala biak ahalbidetzen dira gizarteratze-hitzarmen bat sinatu delako.

Azken urteotan, gizarteratze-enpresa ugari sortu dira Espainiako estatuan. Alde batetik, esna behar da autonomia-erkidego batzuek (besteak beste, EAEk) enpresa-mota hori arautu dutela eta, gainera, aintzatetsi eta berariazko laguntzak eman dizkiete. Beste alde batetik, gizarteratze-enpresen kopurua izugarri hazi da.

Gizarteratze-enpresak honela defini daitezke: gizarte bazterkeriako egoera paira dezaketen edo pairatzen ari diren pertsonen gizarteratzea eta laneratzea erraztea helburu duten enpresak dira, pertsona horiek lan-merkatura sartzeko zailtasun handiak dituztelako. Gizarteratze-enpresen ezaugarri nagusia haien gizarte helburu bikoitza da: alde batetik, enpresa eratu deneko jarduera ekonomikoa gauzatzea; eta bestetik, gizarte bazterkeriako arriskuan dauden taldeetako pertsonak gizarteratzea eta laneratzea.

IV.3.5. KOADROA. EAEko GIZARTERATZE-ENPRESENTZAKO LAGUNTZEN PROGRAMAREN BILAKAERA . 2003-2013.

	ERAKUNDEAK	AURREKONTUA (milaka eurotan)	ONURADUNAK
2003	9	1.800	43
2004	21	3.040	90
2005	32	5.170	212
2006	40	7.940	321
2007	48	7.790	423
2008	45	7.130	450
2009	39	7.235	447
2010	42	9.380	525
2011	46	9.610	675
2012	39	7.452	:
2013	40	8.024	:
GUZTIRA 2003-2013	**401**	**74.571**	**3.186***

Iturria: EGABek eginda, EUSKO JAURLARITZAKO Enplegu eta Gizarte Politiken Sailaren datuak erabilita.
**2011 urtera arteko informazioa.*

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiken Sailaren arabera, 2013ko ekitaldian baziren 48 gizarteratze-enpresa jardunean, eta 450 lanpostu zeuden haietan (lansaio osoko baliokidetzako lanpostuak). Enpresa bakoitzeko batez besteko langileria 554 pertsonakoa zen.

2003. urtetik 2013ra, laguntza-mota horien bidez, Eusko Jaurlaritzak 74,5 milioi euro baino gehiago banatu zituen, batez beste, 36 laguntza urtean, 3.186 onuradun baino gehiago izan zirela. 2012. urtean (informazioa eskuragarri dugun azken urtean), 40 gizarteratze-enpresak jaso zituzten laguntzak, eta hiru erakunde sustatzailek enpresa berriak sortzeko laguntzak eskatu zituzten. Laguntzen zenbatekoa, guztira, 8,02 milioi eurokoa izan zen, hau da, aurreko urtean baino % 7,7 gehiago.

4. EAEko GIZARTE-AURREIKUSPENEKO SISTEMA OSAGARRIAK

Euskal Autonomia Erkidegoan, gizarte aurreikuspen osagarriaren sistema pribatua, gehienbat, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeek (BGAE) eta horiek kudeatutako aurreikuspen-planek osatzen dute. Gutxi gorabehera, euskal zergadunek errentaren gaineko zergaren aitorpenean gizarte-aurreikuspen osagarriko erakundeetan egindako ekarpenen zioz kentzen dutenaren % 92 BGAEetan ezartzen dute. Gainerakoa, hau da, % 8, beste tresna batzuetan ezartzen dute, hala nola, pentsio-plan eta -funtsetan, talde-aseguruen kontratuetan, mutualitateetan eta abarretan.

Gizarte Segurantzaren sistema publikoak osatzeko pentsio plan pribatuak dauzkaten herrialde guztietan bezala, EAEn bi plan-mota nagusi daude: Enplegu- edo lanbide- aurreikuspenekoak, langileentzat, enpresaren nahiz lan-harremanen esparruan egituratzen direnak; eta finantza-erakundeek sustatutako banakako aurreikuspen planak edo kontu pertsonalak, zeinetan edozein pertsona fisiko bazkidetu daitekeen. Azkenik, gure legerian hirugarren modalitate bat ere badago: elkarteko aurreikuspen-planak; plan horien bazkideak elkarte bateko, sindikatu bateko, elkargo bateko edo antolakunde bateko kideak dira eta ez daude besteak bezain zabalduta.

4.1. MAGNITUDE NAGUSIAK

Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailaren esanetan, 2014. urtean, EAEko BGAEek 23.700 milioi euroko ondarea zuten. Zenbateko hori % 23 igo da azken lau urteotan eta gure erkidegoko BPGren % 35,4koa da, behin-behineko datuen arabera.

Beste datu ofizialik ezean, Euskadiko BGAEen Federazioak emandako datuak ekarri ditugu txostenera (federazioan ez dauden Eusko Jaurlaritzako Erregistroan jasota dauden BGAE guztiak, baina bai gehienak). Datu horiei esker, sektore honen urteko jarraipena egin dezakegu.

2014ko abenduaren 31n, Federazioak bazeuzkan 74 erakunde kideturik; horietatik 36 enpleguari lotutako BGAEak ziren, 32 banakakoak, 3 elkarte-arlokoak eta beste hiru "hainbat" kategoriakoak.

IV.4.1. GRAFIKOA. EAEko BGAEen ONDAREAREN BILAKAERA. MILIOIKA EUROTAN



Iturria: EGABek eginda, EUSKO JAURLARITZAREN datuak erabilita.

Bazkideen erdia baino gehiago, % 60,8, hain zuzen ere, banakako BGAEetako kide ziren; horien ondotik, enpleguari lotutako BGAEak ditugu, bazkideen % 37,8 zituztela. Aipatutako ekitaldiko kuota, ondare eta emandako prestazioei dagokienez, gutxi gorabehera erdia (% 50) izan zen mota bakoitzean.

IV.4.1. KOADROA. EUSKADIKO BGAEen FEDERAZIOA: 14.12.31ra ARTEKO DATUAK (DATU EKONOMIKOAK EUROTAN)

	KIDETUTAKO ERAKUN-DEAK	BAZKI-DEAK	KUOTAK	ONDAREA	PRESTA ZIOAK
ENPLEGUA	36	440.479	369.952.254	11.249.754.394	471.990.523
BANAKA-KOAK	32	708.015	388.082.484	11.307.414.301	471.175.297
KIDETUAK	3	2.432	1.046.652	32.951.338	632.482
HAINBAT	3	13.355	1.373.954	4.168.629	878.263
BGAEak GUZTIRA	**74**	**1.164.281**	**760.455.344**	**22.594.288.662**	**944.676.565**

Iturria: Euskadiko BGAEen FEDERAZIOA.

2014ko balantze gisa, esan behar da Euskadiko BGAEen ondareak lehen aldiz gainditu zuela 22.500 milioi euroko zenbatekoa, eta aurreko ekitaldian baino 816 milioi gehiago izan zirela. Ondare hori EAEko BPGren % 33,75ekoa izan zen, hots, Estatuko ratioa (% 9) askoz handiagoa eta EB15eko batez bestekoa (% 32,4) baino zerbait handiagoa. Hala ere, ELGAko batez bestekotik (% 84,2, erakunde horren arabera) oso urrun egon zen.

IV.4.2. KOADROA. EUSKADIKO BGAEen FEDERAZIOA. MAGNITUDE NAGUSIEN BILAKAERA. ZENBATEKOAK MILIOIKA EUROTAN

	2012	2013	2014	2013/14 ALD. (%)
BAZKIDEAK	1.173.674	1.141.069	1.164.281	2,0
KUOTAK	923	889	760	-14,5
PRESTAZIOAK	925	1.090	945	-13,3
ONDAREA	20.382	21.778	22.594	3,7
KUOTAK /BPG (%)	**1,43**	**1,37**	**1,14**	**-16,8**
ONDAREA/BPG (%)	**31,50**	**33,65**	**33,75**	**0,3**

Iturria: EGABek eginda, EUSKADIKO BGAEen FEDERAZIOAREN datuak erabilita.

2014ko ekitaldian, iturri horren arabera, kuoten edo ekarpenen zenbatekoa 760 milioi eurokoa izan zen, baina guztizkoa nabarmen jaitsi zen 2013ko ekitaldikoz enbatekoaren aldean (-% 14,5). Beste alde batetik, kidetzen zenbatekoa, 1,16 milioikoa, 23.000 baino gehiago hazi ziren 2013. urtekoen aldean. Azkenik, emandako prestazioen zenbatekoa 945 milioi eurokoa izan zen, hau da, aurreko urtean baino % 13,3 gutxiago.

4.2. ZERGA ARAUBIDEA

BGAEek EAEn izan duten garapen handiaren arrazoietako bat, neurri handi batean, zerga-pizgarriak izan dira; izan ere, pizgarriek aurrezteko modu horren erakargarritasuna areagotu dute, batez ere, PFEZren bitartez (ohiko bazkideentzat), eta Sozietateen gaineko Zergaren bitartez (bai erakundeentzat eurentzat, bai enplegu planetan enpresa edo bazkide babesleen parte-hartzea bultzatzeko).

Euskal Autonomia Erkidegoan, lurralde historikoetako foru-aldundiek eta batzar nagusiek gauzatzen dituzte zerga-arloko eskumenak. Oro har, bazkideek egindako ekarpenen zenbatekoa Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga-oinarritik ken daitezke[6]. Bestalde, errenta geroratutzat jotzen direnez, BGAEetatik jasotako prestazioak (baita erreskateak edo gertakizuna jazo aurretik ordaindutako zenbatekoak) norberaren lanaren etekin osotzat jotzen dira , baita atxikipenari begira ere [7].

IV.4.3. PFEZren likidazioa: ZERGA OINARRI OROKORRAREN MURRIZKETAK PENTSIO PLAN ETA BGAEetan EGINDAKO EKARPENEN ZIOZ

	ZENBATEKOA (MILAKA EUROTAN)	AITORTZAILEAK		B. B. MURRIZK. (€)
		KOP.	GUZT. %	
2007	1.199.980	513.222	45,2	2.338
2008	1.171.013	517.456	44,2	2.263
2009	1.200.570	502.000	42,8	2.392
2010	1.201.653	497.598	42,4	2.415
2011	1.158.506	490.070	41,4	2.364
09/10 ALD. (%)	0,1	-0,9	-0,9	1,0
10/11 ALD. (%)	-3,6	-1,5	-2,4	-2,1

Iturria: EGABek eginda, EUSKADIKO ZERGA KOORDINAZIORAKO ERAKUNDEAREN datuak erabilita .

Zergak Koordinatzeko Erakundeak 2012ko txostenean emandako 2011ko ekitaldiko PFEZren likidazio datuen arabera, BGAEetan eta gainerako aurreikuspen-moduetan egindako ekarpenengatiko kenketa 1.158,5 milioi eurokoa izan zen, 2010ean baino % 3,6 gutxiago. Zenbateko hori EAEko urte horretako BPGren % 1,70ekoa izan zen (2010ean, % 1,78koa), guztira 490.070 aitortzaileena, aurreko urtean baino % 1,5 gutxiago. Aitortzaileen kopurua guztien % 41,4 izan zen.

Lurraldeen arabera, Arabak aitortzaileen % 11,8 besterik ez du, eta zerga-oinarriaren murriztapenen guztizko zenbatekoaren % 12,9 (57.961 aitortzaile eta 149,2 milioi euroko murriztapena). Bizkaiak, berriz, aitortzaileen % 46,4 izan zuen eta murriztapenaren % 44,7. Azkenik, Gipuzkoak aitortzaileen % 41,8 izan zuen eta murriztutako zenbatekoaren % 42,4.

Zenbateko horrek, batez beste, 2.364 euroko kenketa ekarri zuen, hau da, aurreko urteko zenbatekoa baino % 2,1 gutxiago. Balio zehatzagoak ondokoak dira: errenta-maila txikienen (30.000 eurorainoko likidazio-oinarria) batez besteko ekarpena 1.648 eurokoa izan zen, eta zergadunen % 35ek egin zituzten ekarpenak; 30.000 eta 90.000 arteko oinarria izan zuten zergadunen batez besteko ekarpena 3.239 eurokoa izan zen, eta haietatik % 70ek egin zituzten ekarpenak; azkenik, errenta-mailarik handienetan, batez besteko ekarpena 9.098 eurokoa izan zen, eta zergadunen % 70,6k egin zituzten ekarpenak.

[6] Ondarearen gaineko Zerga Bereziari dagokionez, bazkidearen eskubide irmoak zerga horren aitorpena aurkeztu behar den erabakitzeko baino ez dira zenbatzen, eskubide salbuetsitzat jo eta, beraz, ez dute haren zerga-oinarria osatzen.

7 Prestazioa kapital gisa jasotako kopurua bada, % 40ko kenketa dakar, eta errenta bada, aldiz, oso-osorik sartzen da zerga-oinarrian.

V. KAPITULUA

Araugintza EAEn

EAErentzako Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak azaltzen du EAEren eskumena dela gai jakin batzuetan legeria garatzea eta bere lurraldearen barruan estatuaren oinarrizko legeria betearaztea. Era berean, lege horrek adierazten du EAEko botereak Legebiltzarraren bidez, Eusko Jaurlaritzaren bidez eta lehendakariaren bidez gauzatuko direla, eta lurralde historikoek beren foru erakundeak estatutuan xedatutakoaren arabera edukiko eta antolatuko dituztela.

EAEko autogobernurako erakundeak indarrean sartzean, ezinbestekoa suertatu zen, Autonomia Estatutuan ezarritakoarekin bat etorriz, Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzaren antolaketari eta eskumenei buruzko legeak eta erakunde komunen eskumen maila eta lurralde historikoen eskumen maila arautzeko legeak onestea.

Eusko Jaurlaritzaren egitura, haren eskumenak eta Legebiltzarrarekin dituen harremanak finkatzeko helburuarekin, Gobernuari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legea onetsi zen. Besteak beste, legearen arabera, Gobernuak eskumen hauek ditu: legeak egiteko ekimena, lege proiektuak onetsiz eta Legebiltzarrari bidaliz; legegintzarako eskuordetzea, legegintzako dekretuen bidez; eta araudiak egiteko ahalmena, dekretuen eta aginduen bidez.

Gerora, Autonomia erkidegoko erakunde komunen eta bertako lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legea aldarrikatu zen. Lege horrek Eusko Legebiltzarra izendatzen du lege maila duten arauak onesteko gaitasuna daukan erakunde bakar autonomi erkidego osoan, baldin eta lege horien gaia Autonomia Estatutuaren arabera autonomi erkidegoari badagokio eta estatutuan lege honek edo ondorengo legeek ez badiete gaia lurralde historikoetako foru organoei esleitzen. Tradizio historikoarekin bat etorriz, lurralde historikoetako foru organoak Batzar Nagusiak eta Foru Aldundiak dira

Era berean, lurralde historikoetako eskumenak arautzen ditu. Ezartzen duenez, beraien bakarreko eskumenekoak diren gaietan lurralde historikoei dagokie arauak egiteko ahalmena, bakoitzaren Batzar Nagusien foru arauen bidez.

Legegintza Botereak eginiko araua da legea zentzu hertsian, hots, Parlamentuak eginikoa. Zenbait kasutan, oso espezifikoetan, gobernuak onetsitako lege lerruneko arauak onartzen dira: legegintza dekretuak (EEren 82-85. artikuluak) eta lege dekretuak (EEren 86. artikulua).

Ekimen legegilea, hau da, prozedura legegilea martxan jartzeko gaitasuna, hauen proposamena izan daiteke:

- Legebiltzarreko taldeena, edo legebiltzarkide batena, beste lauren sinadura jasoz gero.
- Gobernua.
- Lurralde historikoak ordezkatzen dituzten erakundeena.
- Herri ekimen legegilearena, EAEko 30.000 herritarren sinadurekin.

Ekimena Eusko Jaurlaritzarena denean lege proiektua izena jasotzen du; gainerako kasuetan, lege proposamena da.

Eusko Legebiltzarrak, legeak egiteko bere eginkizuna betez, guztira 5 lege eta legegintza dekretu bat onetsi ditu 2014an.

1.- 1/2014 Legegintzako Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko natura zaintzeko Legea onesten duena.

1/2004 Legea ekainaren 26koa, Kargudun Publikoen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzen dituena.

3.- Urriaren 2ko 2/2004 Legea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea aldatu duena.

4. 3/2004 Legea, azaroaren 13koa, 2014-2017ko Euskal Estatistika Planari buruzkoa.

5.- 4/2014 Legea, azaroaren 27koa, Memoria, Bizikidetza eta Giza Eskubideen Erakundea sortu duena.

6.- 5/2015 Legea, abenduaren 23koa, 2015eko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorrak onesten dituena.

Bestalde, **Eusko Jaurlaritzak**, arauak emateko duen ahalmena erabiliz, 248 dekretu onetsi ditu guztira 2014. urtean.

Euskadiko EGABek, erakunde aholku-emailea den aldetik, zortzi irizpen eman ditu 2014an:

- 1/14 irizpen proiektua, krisian dauden enpresak berregituratzeko eta suspertzeko laguntzak ezartzeko Dekretu Proiektuari buruzkoa.
- 2/14 irizpen proiektua, jendaurreko ikuskizunen eta jolas jardueren lege proiektuari buruzkoa.
- 3/14 irizpen proiektua, abenduaren 23koa, lan-aukerak areagotzeko eta laneratzea sustatzeko neurriak arautzen dituena, bigarrenez aldatzeko dekretu-proiektuari buruzkoa.
- 4/14 irizpen proiektua, 2014-2016ko Industrializazio Planari buruzkoa.
- 5/14 irizpen proiektua, emakume nekazarien Estatutuaren Legearen Aurreproiektuari buruzkoa.
- 6/14 irizpen proiektua, gazteek prestakuntza eta lana txandakatzearen gaineko HEZIBI Programa arautzeko oinarriak ezarri dituen baterako agindua aldatzeko Agindu Proiektuari buruzkoa.
- 7/14 irizpen proiektua, nekazaritza, elikadura, arrantza eta basogintzako produktuen sustapena laguntzeari buruzko Dekretu Proiektuaren gainekoa.
- 8/14 irizpen proiektua, Euskal Administrazio Publikoaren Legearen Aurreproiektuari buruzkoa.
- 9/14 irizpen proiektua, honako Dekretu Proiektuei buruzkoa:
    - Seme-alabak beren kargura dituzten familiak babesteko diru-laguntzak arautzen dituena.
    - Familiaren politiken esparruan familia-errentaren estandarizazio-sistemari buruzko uztailaren 24ko 154/2012 Dekretuaren aldaketari buruzkoa.
    - Familia- eta lan-bizia bateratzeko laguntzei buruzko uztailaren 29ko 177/2010 Dekretuarenaren aldaketaren gainekoa.
- 10/14 irizpen proiektua, mendekotasunaren Legearen Proiektuari buruzkoa.
- 11/14 irizpen proiektua, hotel-establezimenduen antolamendua arautzen duen dekretuaren bigarren aldaketa egiteari buruzkoa.
- 12/14 irizpen proiektua, Merkataritza-jardueraren Legearen laugarren aldaketari dagokion lege-aurreproiektuari buruzkoa.
- 14/14, industria-jardueren hasiera eta funtzionamenduaren araubide orokorra nahiz Erregistroaren antolaketa eta funtzionamendua arautzeko dekretu-proiektuari buruzkoa.
- 15/14, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari dagokion Legearen Aurreproiektuari buruzkoa.

Lurralde historikoetako Batzar Nagusiei dagokienez, 2014. urteko araugintza, onetsitako foru arauen arabera neurtuz gero, hauxe izan da: Araban 35 foru arau onetsi dira, 2013. urtean baino 6 gutxiago; Gipuzkoan 13 arau onetsi dira eta 2013an, berriz, 7 berretsi ziren; eta Bizkaian guztira 11 arau onetsi dira 2014. urtean.

GRAFIKOA V.1.1. LEGEBILTZARRAREN ETA EUSKO JAURLARITZAREN ARAUGINTZA



Iturria.- EGABek EHAOren datuak erabiliz eginikoa.

GRAFIKOA V.1.2. LURRALDE HISTORIKOETAKO BATZAR NAGUSIEK ONETSITAKO FORU ARAUAK



Iturria: EGABek Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako aldizkari ofizialak erabiliz eginikoa

VI. KAPITULUA

Laburpena eta Gogoetak



LABURPENA

1.1. EAEko EGOERA EKONOMIKOA ETA KANPOKO TESTUINGURUA

2014. urtearen hasieran ahultasuna nagusi izan bazen ere, hilabeteak igaro ahala, munduko jarduera ekonomikoa berpizten joan zen apurka-apurka. Nolanahi ere, hazkundea ez zen berdina izan eskualde guztietan, ezta eskualdearen barruan bertan ere.

Horrela, urte osoa kontuan hartuta,2013ko ekitaldiaren aldean, Nazioarteko Diru Funtsaren (NDF) arabera, erosteko ahalmenaren parekotasunari jarraiki haztatutako munduko BPG % 3,4 hazi zen, hau da, 2013an zenbatetsitakoa bezala. Ekonomia aurreratuenek % 1,8ko hazkundea izan zuten; EEBBetako BPG % 2,4 hazi zen (2013an, % 2,2), Euroguneko BPG % 0,9 hazi zen (2013an, -% 0,5) eta Japoniakoa % 0,1 txikitu zen (2013an, +% 1,6). Beste alde batetik, gorantz datozen ekonomiak eta garabidean daudenak % 4,6 inguru hazi ziren (2013an, % 5); Europako ekonomia gorakorrak, aldiz, % 2,8 hazi ziren (2013an, % 2,9) eta Asiakoak % 6,8 (2013an, % 7). Hego Amerika eta Karibe aldea % 1,3 hazi ziren (2013an, % 2,9). Zehatzago esanda, Brasilek % 0,1eko hazkundea izan zuen eta aurreko urtean % 2,7koa. Txina eta India, hurrenez hurren, % 7,4 eta % 7,2 hazi ziren (2013an, % 7,8 eta 6,9).

2013ko ekitaldiaren aldean, nazioarteko merkataritza hazi zen, baina horren hazkunde-tasa nahikoa egonkorra izan zen (gutxi gorabehera, % 3,4).

Prezioen bilakaerari dagokionez, 2014ko ekitaldian, munduko inflazioaren neurria ekarri zuen gertaera erabakigarriena lehengaien prezioen jaitsiera izan zen, batik bat, energiarena, eta hein txikiago batean, elikagaien prezioen jaitsiera. Brent upelaren batez besteko prezioa % 44 jaitsi zen urtean (abendutik abendura arteko aldakuntza-tasa). Bestalde, energiakoak ez diren lehengaien prezioek ere behera egin zuten, elikagaienak nahiz industriako produktuenak, dela metalezkoak, dela metalezkoak ez direnak.

Finantza- eta diru-baldintzei dagokienez, ekonomia aurreratuenen baldintzak hobetu ziren neurrian, gauza bera gertatu zen petrolioa inportatzen duten hainbat merkatu gorakorretan; merkatu horiek inflazioaren jaitsiera baliatu zuten petrolioa merkatu zelako eta, gainera, eskariaren gaineko presioa txikitu zelako.

Ingurumari horretan, Europako Banku Zentralak birritan jaitsi zuen eguneko esku-hartze tasa Eurogunean, ekainean (% 0,15ean ezarrita) eta irailean (% 0,05ean), hain zuzen ere. Horrez gain, AEBko Erreserba Federalak eta Japoniako Bankuak euren esku-hartze tasei eutsi zieten, aurreko urteetan bezala: lehenengoak % 0,25eko tasa izan zuen eta bigarrenak, berriz, % 0,1ekoa.

Euroguneko diru-merkatuko interes-tasei dagokienez, urteko batez besteko balioa kontuan hartuta, epe guztietan murriztu ziren. Horrela, hilabete bateko Euribor indizea % 0,23 izan zen urteko lehenengo hiruhilekoan, eta % 0,16 laugarren hiruhilekoaren amaieran. Hiru hilabeteko Euribor indizea % 0,3tik % 0,08ra igaro zen lehen eta laugarren hiruhilekoen artean, eta urtebeteko Euribor indizea % 0,56 izan zen urtearen hasieran eta % 0,33 urtearen amaieran.

Dibisen merkatuari gagozkiola, EEBBetako dolarraren benetako kanbio-tasa eraginkorrak balio-galera handia izan zuen euroaren aldean apiriletik aurrera; hala, 1,23 $/€-koa izan zen urtearen amaieran eta 1,37koa 2013an. Hau da, % 10 galdu zuen 2014an. Yenak ere balioa galdu zuen Europako diruaren aldean eta, horren ondorioz, euroaren balioa handitu zen. Libera esterlinaren aldean, ostera, euroak balioa galdu zuen. Nazioarteko burtsa-merkatuei dagokienez, IBEX 35 indizeak % 3,7ko urte arteko igoera izan zuen (2013ko abendutik 2014ko abendura); 2013an, berriz, % 21,4koa. Nikkei indizeak, aldiz, % 7,1 hazi zen eta 2013an % 56,7. Dow Jones indizeak % 7,5 egin zuen gora eta 2013ann % 26,5. Azkenik, Euro Stoxx indizeak % 1,7ko hazkundea izan zuen eta aurreko urtean % 20,5ekoa).

Europar Batasunera etorrita, hain zuzen ere, Eurogunera, 2014. urtean ere iraun zuen 2013ko bigarren hiruhilekoan hasitako susperraldiak, baina oso era aldakorrean urte osoan. Horren emaitzaz, urte arteko batez besteko hazkundea

% 0,9koa izan zen 2014an. Hazkunde hori barne-eskariaren ekarpen positibo eta gorakorraren ondorioz gertatu zen, kanpo-eskari garbia eta izakinen aldakuntza zeuden-zeudenean geratu baitziren.

Eskariaren ikuspegitik, kontsumo pribatua sendotu zen 2014an (urte arteko benetako hazkundea % 1ekoa izan zen), 2013an hasitako susperraldiaren bidetik, benetako errenta eskuragarria handitu zelako aurreko urtean, batik bat, lehengaien prezioaren jaitsierari esker. Guztizko inbertsioa azken bi urteotan jaitsi zen arren, 2014. urtean zerbait igo zen (% 1), baina bigarren hiruhilekoan eta hirugarrenean uzkurtu egin zen, batik bat, eraikuntzako sektoreari lotutako ahultasunaren ondorioz. Kontsumo publikoak, berriz, ekarpen positiboa ekarri zion hazkunde ekonomikoari 2014. urtean.

Kanpoko eskaria dela eta, esportazioak apur bat hasi ziren urtearen lehen seihilekoan, baina goraka hasi ziren bigarren seihilekotik aurrera, nazioarteko hazkunde ekonomikoaren susperraldiari esker. Inportazioak ere esportazioen antzera bilakatu ziren; hala, hazkunde motela izan zuten urtearen hasieran eta nabarmen bizkortu ziren bigarren seihilekoan.

Sektorekako ikuspegitik aztertuta, industriaren balio erantsia (eraikuntzarena izan ezik) eta zerbitzuena hazi zen, bi urte uzkurtuta eta, oro har, egonkor eman ondoren, hurrenez hurren. Aipatutako lehenengo sektorea % 0,7 hazi zen eta bigarrena % 1,7. Hirugarren sektore edo zerbitzu-sektorearen susperraldia esanguratsuena izan da; hala ere, esan behar da merkatu-zerbitzuen igoera % 1ekoa izan zela. Nolanahi ere, eraikuntzaren balio erantsiaren hazkundea geldotu zen urte osoan eta sektore horrek aldakuntza-tasa negatiboak izan zituen bigarren seihilekoan.

EB28an, EUROSTAT erakundearen arabera, BPGren benetako aldakuntza-tasa % 1,3koa izan zen 2014an; aurreko urtean, aldiz, ez zuen aldakuntzarik izan (% 0). Herrialde hauek izan zituzten hazkunde-tasarik handienak: Irlanda (% 4,8), Hungaria (% 3,6), Malta (% 3,5), Polonia (% 3,4). Ondokoek tasa handiak izan zituzten, baina ez aurrekoak bezain nabarmenak: Lituania (% 2,9), Erresuma Batua (% 2,8), Errumania eta Eslovenia (biak ere % 2,6), Letonia eta Eslovakia (biak ere % 2,4), Estonia eta Suedia (biak ere % 2,1) eta Txekiar Errepublika (% 2). Luxenburgok % 2ko hazkundea izan zuen 2014an. Ondoko hauek hazkunde-tasa txikiagoak izan zituzten: Bulgaria (% 1,7), Alemania (% 1,6), Espainia (% 1,4), Danimarka (% 1,1), Belgika (% 1), Herbehereak eta Portugal (biak ere % 0,9), Grezia (% 0,8), Frantzia (% 0,4) eta Austria (% 0,3). Europako gainerako estatuetan, tasa negatiboak izan ziren, eta jaitsierarik handiena Zipren (-% 2,3) izan zen. Kroaziak eta Italiak -% 0,4ko tasa izan zuten eta Finlandiak -% 0,1ekoa.

Artean, lan-merkatuak hobekuntza-zantzuak erakutsi zituen 2013ko bigarren seihilekoan eta hobetzen jarraitu zuen 2014an. Urte osoa kontuan hartuta, langabezia-tasaren batez bestekoa % 11,6koa izan zen; 2013an, berriz, % 12koa. Hala eta guztiz ere, langabezia-tasaren balioa bi digitukoa izan zen zenbait estatutan. Zehatzago esanda, ondoko herrialdeek % 10 eta % 12 arteko tasa izan zuten: Frantzia, Lituania, Letonia, Irlanda eta Bulgaria. Ondokoek % 12 eta % 15 artekoa: Italia, Eslovakia eta Portugal. Eta honako hauek % 15etik gorakoa, hau da, EB28ko langabezia-tasa handienak: Zipre (% 16,1), Kroazia (% 17,3) Espainia (% 24,5) eta Grezia (% 26,5). Honako herrialde hauek % 6,5 eta % 10 arteko tasa izan zuten: Danimarka, Errumania, Herbehereak, Estonia, Hungaria, Suedia, Belgika, Finlandia, Polonia eta Eslovenia. Tasarik txikienak, berriz, hauek izan zituzten: Alemania (% 5), Austria (% 5,6), Malta eta Luxenburgo (biak ere % 5,9) eta Erresuma Batua eta Txekiar Errepublika (biak ere % 6,1).

Lan-ekoizkortasunari buruzko datuak aztertuta, esan dezagun ekoizkortasun handieneko herrialdeak hauexek izan zirela: Luxenburgo (100eko 164,1), Irlanda (135,6), Belgika (127,4), Frantzia (116,1), Suedia (114,6), Austria (113,5), Espainia (111,4) eta Danimarka (111,1). Eurogunean, ekoizkortasunaren balioa 108,7koa izan zen.

Unitateko lan-kostu benetakoak balio negatiboa izan zuen EBn eta Eurogunean 2014an, gutxi gorabehera, -% 0,4koa. Espainiako estatuan, -% 2,3koa izan zen.

Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatuaren arabera, inflazioa -% 0,2koa izan zen Eurogunean 2014ko abenduan, 2013ko abenduaren aldean. Espainiako estatuan, berriz, -% 1,1ekoa izan zen.

EUROSTATen datuen arabera, BPGren gaineko zor publikoa Estatu guztietan areagotu zen 2014an, Hungarian, Luxenburgon, Eslovakian, Maltan, Alemanian, Txekiar Errepublikan, Polonian eta Irlandan izan ezik. Ehuneko 60ko atalasea ondoko herrialdeetan gainditu zuten: Malta (% 69,2), Herbehereak (% 68,6), Eslovenia (% 70,3), Alemania (% 77,1), Hungaria (% 77,3), Austria (% 80,9), Kroazia (% 80,6), Erresuma Batua (% 87,3), Frantzia (% 92,3), Espainia (% 92,1), Belgika (% 104,4), Zipre (% 102,2), Irlanda (% 123,2), Portugal (% 129,7), Italia (% 128,5) eta Grezia (% 175). Eurogune19an, BPGren gaineko zor publikoa % 91,9koa izan zen; 2013an, aldiz, % 90,9koa izan zen.

Zor publikoa dela eta, Eurogune19an, BPGren gaineko % 2,4koa izan zen 2014an. Aurreko urtean, berriz, % 2,9koa izan zen. BPGren %3ko muga ondoko herrialdeek gainditu zuten: Zipre (-% 8,8), Espainia (-% 5,8), Kroazia (-% 5,7), Eslovenia (-% 4,9), Portugal (-% 4,5), Irlanda (-% 4,1), Frantzia (-% 4), Grezia eta Polonia (biek ere -% 3,3), eta Belgika eta Finlandia (biek ere -% 3,2). Ondoko herrialdeek -% 1,5 eta -% 3ko indizea izan zuten: Italia, Eslovakia, Bulgaria, Hungaria, Austria, Herbehereak, Malta, Txekiar Errepublika, Suedia eta Errumania. Honako herrialde hauek 0 eta -% 1,5 arteko indizea izan zuten: Letonia eta Lituania. Azkenik, Estoniak, Luxenburgok, Alemaniak eta Danimarkak superabita izan zuten.

Espainiako ekonomiari dagokionez, Estatistikako Institutu Nazionalaren eta Espainiako Bankuak argitaratutako datuen arabera, BPGk % 1,4ko urte arteko hazkundea erreala izan zuen batez beste 2014ko ekitaldian. 2013ko ekitaldian, aldiz, % 1,2ko jaitsiera izan zuen.

Autonomia erkidegoetan, Errioxak izan zuen hazkunderik handiena (% 2,5), eta gero Extremadurak eta Kanariek (biek % 2,2). Erkidego horiez gain, beste seik izan zuten BPGren benetako hazkunde-tasa Estatuko batez bestekoa baino handiagoa. Honakoek, hain zuzen ere: Valentziako Erkidegoa (% 2,1), Nafarroa (% 2), Murtziako Erkidegoa (% 2), Balear Uharteak (% 1,9) eta Aragoi (% 1,7). Gaztela eta Leon eta Katalunia batez bestekoaren parekoa izan zuten: % 1,4. Ondoko erkidegoek batez bestekoaren azpiko indizea izan zuten: Andaluzia (% 1,3), Gaztela-Mantxa eta EAE (biek % 1,2), Madril eta Kantabria (biek % 1) eta honakoek batez bestekotik urrunagoko indizea izan zuten: Galizia (% 0,5), Zeuta (% 0,6), Melilla (% 0,8) eta Asturiasko Printzerria (% 0,8).

Biztanle bakoitzeko BPG izendatuari dagokionez, lehen erkidegoa Madril izan zen, biztanleko 31.004 euroko indizea izan zuela 2014an. Horren ondotik, EAE (29.683 euro biztanleko) eta Nafarroa (28.124 euro biztanleko) ditugu. Beste muturrean, Extremadura (15.752 euro biztanleko), Andaluzia (16.884 euro biztanleko) eta Melilla (16.941 euro biztanleko) ditugu. Estatuko batez bestekoa 22.780 eurokoa izan zen biztanleko.

INEren zenbatespenari jarraiki, barne-eskariak ehuneko 2,2 puntuko hazkundea ekarri zion produktuari 2014an. Kanpo-eskariak, aldiz, ehuneko 0,8 puntuko beherakada ekarri zion.

Estatuko eskaria osatzen duten elementuei dagokienez, oso esanguratsuak izan ziren, alde batetik, kontsumo pribatuaren bizitasuna –2014ko ekitaldiaren amaieran, urte arteko % 2,4ko hazkundea izan zuen, ondoz ondoko hiru urtetan beherakada izan ondoren–, eta beste alde batetik, FBCFren hazkundea –ondoz ondoko sei urtetan murrizketa izan ostean % 3,4ko urte arteko hazkundea izan zuen, ondasun-ekipoetan eta landutako ondasunetan egindako inbertsioari esker (% 12,2 hazi zen) bai eta eraikuntzan egindako inbertsioari esker, azkenaren beherakada moteldu baitzen eta aldakuntza-tasa positiboa izan baitzuen laugarren hiruhilekoan (lehen hiruhilekoan, -% 7,4koa zuen eta laugarrenean, % 2,4koa; beraz, ehuneko 9,8 puntuko hazkunde aizan zuen)–.

Kanpo-eskariari gagozkiola, ondasun eta zerbitzuen esportazioak moteldu ziren lehen eta bigarren hiruhilekoetan, merkataritza-bazkide garrantzitsuenek eta garabidean dauden ekonomia nagusiek izan zuten bilakaerarekin bat; ez da susperraldi orokorrik igartzen, ez batzuetan, ez besteetan, eta hala, goranzko bilakaera eten egin zen lehen seihilekoan, baina zerbait suspertu zen hirugarrenetik aurrera. Beste alde batetik, ondasunen inportazioek esportazioen antzeko bilakaera izan zuten 2014ko ekitaldi osoan, urte arteko balioak aintzat hartuta.

Eskaria dela eta, urte arteko balioak aintzat hartuta, eraikuntza, industria eta zerbitzuen Balio Erantsi Gordina (BEG) bizkortu zen urtean zehar. Hain zuzen ere, eraikuntzaren beherakada eten egin da eta horren aldakuntza-tasa positiboa

izan zen laugarren hiruhilekoan (% 3,4). Beste alde batetik, industriak ehuneko 1,6 puntu irabazi zuen lehen eta laugarren hiruhilekoen artean; zerbitzuek, berriz, 1,4 puntu irabazi zuten

Lan-merkatuari gagozkiola, enpleguaren batez besteko hazkundea % 1,2koa izan zen 2014. urtean, lehen balio positiboa sei urtean jarraian beherakada izan ondoren; 2013an, aldiz, -% 2,8ko jaitsiera izan zuen. Bestalde, INE erakundearen Biztanleria Aktiboaren Inkestak (BAI) agerian uzten duenez, (16 urtetik gorakoen) langabezia-tasa % 24,4koa izan zen 2014an (2013an, % 26,1ekoa). Horrela, langile bakoitzeko itxurazko ekoizkortasunari dagokionez, esan behar da motela egin zela urtean zehar, lehen hiruhilekoko % 1,1etik laugarren hiruhilekoko -% 0,4ra.

Autonomia erkidegoen datuetara etorrita, lauk izan ezean, esan behar da gainerako guztiek irabaziak izan zituztela enpleguari lotutako balioetan: Ondokoek izan zituzten irabazirik handienak: Extremadura (% 4,2ko hazkundea), Errioxa eta Murtzia (biek % 3), Andaluzia (% 2,4), Katalunia (% 2,1), Asturias (% 1,9) eta Nafarroa eta Valentziako Erkidegoa (biek % 1,7). Estatuko batez bestekoa % 1,4koa izan zen. Ondokoek, berriz, enplegua galdu zuten: Madril (-% 0,1), Galizia (-% 0,8), EAE (-% 1) eta Melilla (-% 1,2). Beste alde batetik, langabezia-tasa autonomia erkidego guztietan jaitsi zen. Honako hauek izan zituzten tasarik txikienak: Nafarroa (% 15,7), EAE (% 16,3), Errioxa (% 18,2), Madril (% 18,7) eta Kantabria (% 19,4). Estatuko batez bestekoaren gainetik, ondoko erkidegoek izan zituzten tasarik handienak: Andaluzia (% 34,8), Kanariak (% 32,4), Ceuta (% 31,9), Extremadura (% 29,8), Gaztela-Mantxa (% 29), Melilla (% 28,4), Murtzia (% 26,6) eta Valentziako Erkidegoa (% 25,8).

Ingurumari horretan, Espainiako ekonomiaren finantza-egoera hobetu zen munduaren gainerakoaren aldean. Izan ere, finantzatzeko ahalmena berreskuratu zuen. Ekonomiaren finantzaketa-ahalmena (superabita) 10.938 milioi eurokoa izan zen, hots, BPGren % 1.

Hala eta guztiz ere, Estatuko Administrazio Publikoek, guztira 61.391 milioi euroko defizita (behin-behineko datuak) izan zuten 2014an; horren ondorioz, BPGren ratioa % 6,8tik % 5,8ra igaro zen 2013 eta 2014 urteen artean. Datuak bereizita, Administrazio Zentralak, autonomia-erkidegoek (AAEE) eta Gizarte Segurantzak defizita zutela itxi zuten ekitaldia, hurrenez hurren, % 3,6, % 1,7 eta % 1,1. Tokiko Korporazioek (TTKK), aldiz, %0,5eko superabita izan zuten.

Diru-sarrerak direla eta zerga nagusietako zerga-bilketak, autonomia erkidegoen eta tokiko korporazioen partaidetza aintzat hartuta, hazkundea izan zuen (% 3,6). Bestalde, Estatuak onartutako obligazioak % 0,8 txikitu ziren.

Ondoko lerrootan, EAEko bilakaera ekonomia jorratuko dugu.

EUSTATen Jarduera Ekonomikoen Direktorioaren (JEGID) 2014ko azken datuen arabera, guztira 159.001 enpresa zeuden jardunean EAEn (lehen sektorekoak barne), eta guztira 849.335 pertsonari ematen zieten lana. Beraz, batez besteko tamaina 5,3 lanpostukoa izan zen urte horretan enpresako. 2013 eta 2014 bitartean, enpresa kopurua % 1,3 eta enplegua % 1,9 jaitsi ziren. Enpleguaren tamainaren araberako egiturak ez zuen aldaketarik izan. 1.794 enpresak, hau da, guztizko enpresen % 1,1ek, 50 enplegatu edo gehiago zeuzkan, guztira 408.442 (enplegu guztien % 48,1). Bestetik, 121.779 enpresak, hau da, guztizko enpresen % 76,6k hiru lanpostu ere ez zituzten eta guztizko enpleguaren % 17,8 baino ez zuten hartzen.

Enpresa-errotazioari buruzko azterketak agerian uzten duenez, 2014ko urtarrilaren 1ean, enpresa-kopuruaren (lehen sektorekoak aintzat hartuta) jaitsieraren ondorio nagusia ondokoa izan zen: 16.144 enpresa hasi ziren jardueran data horretarako eta, 18.210 enpresak, berriz, itxi egin zuten. Hori dela eta, saldo garbia -2.066 enpresakoa da. Beste alde batetik, enpresak sortzeko tasa gordina, dena delako urteko enpresa sortu berrien kopurua zati aurreko urtean zegoen enpresa-kopurua, % 10ekoa da; itxitako enpresa-tasa, aldiz, % 11,3koa izan zen.

Kontu Ekonomikoen arabera, euskal ekonomiak 2014ko lehen hiruhilekoa hasi zuen BPGren urte arteko aldakuntza-tasa benetakoa % 0,5ekoa zela; azken hiruhilekoan, ordea, % 1,9koa izan zen. Beraz, urteko batez besteko benetako hazkundea % 1,2koa izan zen (2013an, berriz, % 1,7ko jaitsiera izan zuen); BPG korrontearen balioa 66.943 milioi eurokoa izan zen.

EUSTAT erakundearen arabera lurralde historikoetan ere positiboa izan zen BPGren bilakaera 2014ko ekitaldian. Gipuzkoak izan zuen urte arteko igoerarik handiena (% 1,4koa); Arabak eta Bizkaiak, berriz, % 1,1eko hazkundea izan zuten.

Eskariaren aldetik, gure erkidegoko jardueraren igoera, funtsean, barne-eskariaren jokabidearen ondoriozkoa izan zen. Izan ere, barne-eskaria % 1,1 hazi zen eta 1,1 puntuko ekarpena egin zion BPGren igoerari; gertaera hori, zalantzarik gabe, oso onuragarria izan zen, azken urteotan, barne-eskariak puntuak kendu zizkiolako BPGren hazkundeari. Zehatzago esanda, barne-eskariaren hazkundea Azken Kontsumoko Gastuan oinarritu zen (% 1,4), emaitza positiboa izan zuelako Etxebizitzen Azken Kontsumoko Gastuan (% 1,6) eta Herri Administrazioen Azken Kontsumoko Gastuan (% 0,9). Kapital Eraketa Gordinak, aldiz, ez zuen hazkunderik izan (% 0,0). Hain zuzen ere, kapital-eraketa gordinean, aurkako bi bilakaera gertatu ziren: ekipo-ondasunei lotutakoak emaitza positiboa eduki zuen (% 2,2); kapital-eraketa gordinaren gainerakoak, berriz, eraikuntzari lotuago dagoela-eta, beheranzko bilakaera izan zuen (-% 1,0).

Kanpo-eskariari dagokionez, ingurunearen hobekuntzari esker, euskal esportazioek hazkundea izan zuten, batik bat, urtearen bigarren seihilekoan. Bestalde, barne-eskariaren sendotasunari esker, ondasun eta zerbitzu gehiago erosi ziren gure erkidegotik kanpo. Horrela, 2014. urtean, esportazioek nahiz inportazioek gora egin zuten eta, prezio beherakorren testuinguruan, aldakuntza errealak eta izendunak nahikoa antzekoak izan ziren.

EUSTAT erakundearen hiru hileroko kontu ekonomikoen behin-behineko datuei erreparatuta, Estatuari eta munduko gainerako tokiei saldutako ondasunak eta zerbitzuak kontuan hartuta, esan dezagun esportazioak igo egin zirela 2013 eta 2014. urteetan, balio errealetan, batez beste %3,4 (2013. urtean, % 0,9) eta inportazioak % 3,2 hazi ziren (2013. urtean,% 0,4).

Beste alde batetik, Aduanen Erregistroetan oinarritutako Kanpoko Merkataritzaren Estatistikak eskaintzen dituen atzerriarekiko ondasunen kanpoko merkataritzari buruzko datuen arabera, 2014. urtean, esportazioen balio arrunta % 9,9 hazi zen; ez-energetikoen (guztizkoaren % 86,9) hazkundea % 5,1ekoa izan zen eta energetikoena % 57koa. Guztizko inportazioak % 9,9 hazi ziren; inportazio energetikoen balioa (guztizkoaren % 36,2) %19,7 igo zen eta ez-energetikoena % 4,3.

EAEko esportazio ez-energetikoen muga-zergaren multzoaren araberako azterketak ondutakoari erreparatuta, esan dezagun, lehenik eta behin, ekipo-ondasunak berriz ere nabarmendu zirela, guztira esportatutakoaren % 42,4 izan zirela (makina eta tresnetan, 4.437,2 milioi euro, eta garraio-materialetan, 4.980,6 milioi euro. Esportazioak % 7,6 egin zuen gora, garraio-materialaren esportazioa igo zelako (% 15,5); makina eta tresnena, aldiz, lehengoan geratu zen (-% 0,1). Bigarrenez, metal arrunten eta horien manufakturen esportazioa azpimarra daiteke; izan ere, horien esportazioa guztizkoaren % 23,9 izan zen. Gainera, esportazioa % 5,8 hazi zen. Hirugarren postua eskuratu zuen plastikoen eta kautxuaren esportazioak, hain zuzen ere, guztizkoaren % 7. Hala ere, aldakuntza-tasa negatiboa izan zuen (-% 1,7). Inportazio ez-energetikoei gagozkiela, metalak eta horien manufakturak aipa ditzakegu, inportazio guztien % 20,4 izan baitziren eta, gainera, % 4,4 hazi ziren. Bigarren tokian ditugu ekipo-ondasunak, inportazio guztien % 17,3, eta % 3,2 hazita, garraio-materialaren inportazioek gora egin zutelako (% 8,8) eta, neurri txikiagoan izan bazen ere, makina eta tresnen inportazioa ere igo egin zelako (% 1,6).

Kanpoko saldoa 4.895 milioi eurokoa izan zen, hain zuzen ere, BPGren % 7,3.

Ondasun eta produktu energetikoen eta ez-energetikoen artean bereizita, esan daiteke saldo energetikoa defizitarioa (-3.929,3 milioi euro) izan zela. Produktu ez-energetikoen saldoak, ordea, 8 milioi euroko superabita izan zuen, hau da, BPGren % 13,2, 2013. urtekoa (% 12,6) baino ehuneko 0,6 puntu handiagoa.

Eskualde geografikoei jarraiki, ELGAri egindako salmentak (guztizko salmenten % 77,1) % 9,4 hazi ziren 2014. urtean. Bestalde, ELGAren barruan Euroguneko herrialdeetan egindako salmentak azpimarra daitezke, atzerrian izandako salmenta guztien % 50,1 izan baitziren eta % 11,5 igo baitziren. Inportazioei dagokienez, atzerrian egindako erosketak

ELGAri atxikitako herrialdeetan metatu ziren (% 66,3) eta guztizko erosketen % 42,8 Euroguneko herrialdeetan. Ildo horri jarraiki, erosketak % 19,4 hazi ziren 2014. urtean.

Eskaintzari dagokionez, benetako BPG igo zen jarduera ekonomikoari lotutako sektore handi guztiek bultzatuta, eraikuntzak izan ezean. Lehen sektoreak % 5,5eko aldakuntza positiboa izan zuen. Bigarrena zerbitzuen sektorea izan zen; horrek % 1,5eko hazkundea izan zuen. Beste alde batetik, industria-sektoreak bilakaera positiboa izan zuen, % 1ekoa, eta manufaktura-industria % 1,1 hazi zen.

EUSTAT erakundearen Hiru hileroko Kontu Ekonomikoen arabera, enpleguaren bilakaera ere positiboa izan zen eta horren urte arteko hazkunde zenbatetsia % 0,3koa izan zen 2014an. Enpleguak bilakaerarik onena izan zuen zerbitzuen sektorean. Lurralde Historikoetan, Gipuzkoak izan zuen urte arteko hazkunderik handiena (% 0,5), gero Arabak (% 0,2) eta azkenik Bizkaiak (% 0,1).

Lanaren itxurazko ekoizkortasunari gagozkiola, horren hazkunde erreala EAEn, 2014ko ekitaldian, (% 0,9, 2013ko ekitaldian baino puntu erdi gutxiago), Eurogunean izandako hazkundea baino handiagoa izan zen, EBZren datuen arabera (% 0,3, 2'13ko ekitaldian izandako ratio berdina). Espainiako datua, aldiz, +% 0,1ekoa izan zen 2013ko ekitaldian eta +% 1,4koa 2014ko ekitaldian.

Beste alde batetik, EAEn lan egindako ordu eraginkor bakoitzeko lan-kostua % 1,9 jaitsi zen 2014. urtean; aurreko urtean, berriz, % 1,8 igo zen. Estatuko batez bestekoa, ordea, hamarren bat igo zen. Sektoreen arabera, eraikuntza % 4,2 hazi zen; zerbitzuen sektorea, berriz, % 2,8 jaitsi zen eta industria % 0,9. Balio absolutuetan, EAEko batez besteko kostua 24,1 eurokoa izan zen orduko 2014ko ekitaldian. Estatuko batez bestekoa, berriz, 19,7 eurokoa izan zen. EUROSTAT erakundearen datuen arabera, Europar Batasuneko batez besteko balio EAEko balioaren ia-ia berdina da, 24,6 eurokoa (% 1,7ko hazkundea 2013ko ekitaldiaren aldean), eta 29,2koa Eurogunean (% 1eko hazkundea aurreko urteko balioaren aldean).

Inflazioari dagokionez, kontsumoko prezioen urte arteko tasa -% 0,7koa izan zen 2014ko abenduan; 2013ko abenduan, aldiz, tasa positiboa izan zen, % 0,6koa. KPIren bilakaera historiko osoa aintzat hartuta, 1979. urtetik, lehenengoz izan du adierazle horrek urte arteko tasa negatiboa.

Finantza-sektoreari dagokionez, gordailu-erakundeek EAEn guztira emandako kreditua berriro ere murriztu zen 2014. urtean, 79.338 milioi eurotik 69.177 milioi eurora, hain zuzen ere (-% 7,7). Beherakada hori sektore pribatuari emandako krediduak izandako jaitsieraren (-% 8,9) ondorioa da, herri-Herri Administrazioei emandako kreditua berriro ere handitu baita (% 23,6).

Finantza-erakundeetan jarritako gordailuei dagokienez, Herri Administrazioen jabetzapekoen guztizko saldoa 2.822 milioi eurokoa izan zen EAEn 2014. urteko abenduan, Espainiako Bankuaren Aldizkari Estatistikoaren datuen arabera. Kopuru horrek % 6,1eko hazkundea ekarri zion urte arteko tasari. Beste sektore egoiliar batzuetako gordailuen (BSE) balioa 69.448 milioi eurokoa izan zen, hau da, horien balioak % 2,4ko jaitsiera izan zuen aurreko ekitaldikoaren aldean. Sektoreon modalitateen araberako (agerikoa, aurrezkia eta eperakoa) azterketak erakusten digunez, ageriko gordailuak eta aurrezki-gordailuak igo ziren, % 7,4 eta % 6, hurrenez hurren; eperako gordailuak, berriz, % 10,3 jaitsi ziren.

Burtsari dagokionez, Espainiako Bankuaren Estatistika Aldizkariaren datuen arabera, Madrilgo Burtsaren urteko batez besteko kapitalizazioa 638.472 milioi eurokoa izan zen 2013an, eta % 29,6 hazi zen aurreko urteko balioaren aldean; batez besteko kontratazio-bolumena, 884.349 milioi eurokoa, % 26,6 igo zen 2013an aurreko ekitaldiko balioaren aldean, eta IBEX-35 indizeak % 3,7ko urte arteko igoera izan zuen (2013ko abendutik 2014 abendura).

Bilboko Burtsaren 2000 indizeak 1.668 puntu izan zituen 2014ko abenduan, hau da, % 0,63 igo zen aurreko urteko abenduko datuekin alderatuta. Kontratazio-bolumena (erosketak eta salmentak) % 22,7 igo zen. Igoera horren oinarria errenta aldakorra izan zen (% 23,8), errenta finkoa % 30,1 jaitsi baitzen. Kontratazioaren guztizko bolumena kontuan hartuta, % 51 erosketei egotzi zitzaien. Gainera, erosketak hazi egin ziren % 27,1 aurreko ekitaldiaren aldean.

Beste alde batetik, Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren Kanpoko Inbertsioen Erregistroaren datuen arabera, atzerriko inbertsioa areagotu egin zen EAEn 2013 eta 2014. urteetan, hain zuzen ere, % 28,5, atzerriko balioen edukitza-enpresen balioa kontuan hartu barik. Guztira, 1.408 milioi euro jaso zituen EAEk. Hala, 2014. urtean, EAEk hirugarren lekua hartu zuen berriro ere inbertsio-bolumenean, Madrilen atzetik (8.723,2 milioi euro jaso zituen, ABEEak kenduta) eta Kataluniaren atzetik (2.968,4 milioi euro jaso zituen). Sektorearen ikuspegitik, guztizkoaren gaineko garrantzia dela eta, bereziki aipagarriak dira ondoko sektoreetan egindako inbertsioak: garraioa eta biltegiratzea, handizkako merkataritza, txikizkako merkataritza, motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketa, elikagaiak, edariak eta tabakoa, energia elektriko, gas, lurrun eta aire girotuaren hornidura, higiezinen jarduera eta finantza-jarduerak. Lurraldearen ikuspegitik aztertuz gero, inbertsioaren azken titularraren egoitza-herrialdea ELGAko herrialdeetako bat da kasu guztien % 88,3an, eta EB15eko herrialdeetako bat kasuen % 60,1ean (guztira 845,9 milioi euro). Bereziki nabarmentzekoa da Kanada, AEB eta Brasildik datozen inbertsioen hazkundea.

ABEEak kanpo utzita, atzerrian egindako euskal inbertsioak % 79,5 jaitsi ziren 2013 eta 2014. urteetan, 1.203,8 milioi eurotik 247 milioi eurora. Atzerriko inbertsioak direla eta, EAE zortzigarren postuan dago autonomia-erkidegoen artean, ondokoen atzetik: Balear Uharteak (259 milioi euro), Galizia (380 milioi euro), Valentziako Erkidegoa (384 milioi euro), Andaluzia (1.320 milioi euro), Katalunia (3.398 milioi euro), Kantabria (5.863 milioi euro) eta Madril (11.468 milioi euro). Sektoreen arabera, honako hauek ditugu aipagarrienak: finantza- eta aseguru-jarduerak, informazioa eta komunikazioak, energia elektriko, gas, lurrun eta aire girotuaren hornidura, jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak eta eraikuntza. Herrialdeen arabera, EB28ren barruan, EAEko inbertsioen norako nagusiak ondokoak izan ziren 2014. urtean: Italia (19,2 milioi euro), Erresuma Batua (18,7 milioi euro) eta Polonia (11,8 milioi euro). EBtik kanpo, berriz, ondokoak: AEB (86,8 milioi euro) eta Mexiko (60,5 milioi euro).

Ekoizpen-azpiegiturei gagozkiela, nabarmendu behar da Estatuko Erakunde Publikoek (AENA, ADIF, PORTUAK eta RENFE) ingeniaritza zibilean EAEn egindako adjudikazioek hazkunde esanguratsua izan zutela 2013 eta 2014. urteetan, PORTUAK erakundearen kasuan izan ezean. Horrela, Sustapen Ministerioaren datuen arabera, ADIF Estatuko Sozietate Publikoak (trenbide-azpiegituren administratzailea) ingeniaritza zibilean EAEn egindako inbertsioak igo ziren 2013 eta 2014. urteetan, 1,2 milioi eurotik 69 milioi eurora (EAEko abiadura handiko trenbideari dagozkion gainegituraren obra guztiak ADIF erakundeak gauzatuko ditu); bestetik, RENFE erakundeak egindako inbertsioak 0,07 milioi eurotik 5 milioi eurora igo ziren; AENA erakundearenak 1,1 milioi eurotik 1,4 milioira igo ziren eta, azkenik, PORTUAK erakundearenak 20 milioi eurotik 9,9 milioira jaitsi ziren.

1.2. SEKTORE PUBLIKOA

Lehenengoz eta bat, Eusko Jaurlaritzaren *"Aurrekontua Betearazteari buruzko Estatistikak"* erakusten duenez, esan behar da Eusko Jaurlaritzak berak eta hiru foru-aldundiek 2014an guztira likidatutako diru-sarrerek (15.173,9 milioi euro) % 2,1eko hazkundea izan zutela aurreko ekitaldiko diru-sarreren aldean (2013an, berriz, % 1,7ko jaitsiera izan zuten 2012ko ekitaldiko diru-sarreren aldean), batik bat, zeharkako zergek igoera erlatiboa izan zutelako ekitaldi horretan, guztira, % 9,4koa; zuzeneko zergek, ostera, lehengoan iraun zuten eta horien ziozko bilketak ez zuen aldaketari izan. Bi partida horiek Euskal Sektore Publikoaren diru-sarreren % 78 batzen dute. Beste alde batetik, finantza-pasiboen aldakuntzak % 7,2ko jaitsiera izan zuen, zorpetzea ere jaitsi zelako, Eusko Jaurlaritzarena (-% 3,1) nahiz hiru foru-aldundiena (-% 21,7). Diru-sarreren % 2,1eko hazkundeak bilakaera berdintsua izan zuen administrazioen artean; hala, Eusko Jaurlaritzari dagokionez, igoera % 3koa izan zen (batez ere, transferentzia arrunten

VI.1.1. KOADROA. EAEko SEKTORE PUBLIKOA ERREFERENTZIAZKO ADIERAZLEAK

	Zerga itunduen ziozko bilketa (Ald. %)	BPGren gaineko ESPren aurrekontu-saldoa		ESPren* zorpetzea	
		Aurrezki gordina	Superabita /Defizita	Ald. %	BPG/ %
2010	+8,4	0,5	-2,7	+49,6	9,9
2011	-1,9	0,9	-1,3	+17,8	11,2
2012	-0,6	1,6	-0,7	+13,8	13,0
2013	+3,0	0,9	-0,5	+12,1	14,3
2014	+4,8	1,2	-0,3	+11,3	15,7

** Zor bizia ekitaldiaren amaieran.*
Iturria: EGABek landutako dutuak EUSTATen Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta.

igoeran funtsatuta). Foru aldundiei gagozkiela, igoera % 3,6koa izan zen (arestian esan moduan, zeharkako zergen bilketa handitu zelako eta, bestetik, tasa eta transferentzia arrunten ziozko sarrerak ere zerbait igo zirelako).

Aurrekoaren ondorioz, baieztatu daiteke Euskal Sektore Publikoaren Erkidegoko BPGren gaineko diru-sarreren kopurua 2 hamarren gehitu zela 2014an: % 22,5ekoa izan zen 2013an eta % 22,7koa hurrengo urtean (behin-behineko datuak).

Zerga itunduen zioz bildutako kopuruak –halakoek osatzen dituzte zuzeneko eta zeharkako sarrera gehienak eta guztizko sarreren % 90– behin-behineko datuetan oinarrituta, % 4,8ko hazkundea izan zuen 2014an; aurreko urtean, berriz, % 3ko igoera izan zuen. Oro har, aurreko ekitaldian gertatu bezala, esan daiteke zeharkako zergen ziozko bilketak bilakaera positibo handiagoa izan zuela (+% 8,7) zuzeneko zergen ziozkoak baino (+% 1,2). Lurraldeen arabera, egoera nahikoa desberdina da; izan ere, Bizkaian, zuzeneko zergen ziozko bilketak hazkunde negatiboa izan zuen (-% 0,2), baina zeharkako zergen ziozkoak hazkunde oso positiboa izan zuen, batez bestekotik gaindikoa (% 9,2). Gipuzkoak eta Arabak batez bestekoaren inguruko hazkundea izan zuten.

Labur adieraztearren, guztira bildutakoa 12.319,7 milioi eurokoa izan zen. Zenbateko hori, behin-behineko datuen arabera, EAEko BPG arruntaren % 18,4koa izan zen, (2013. urtean, % 17,8koa). Bildutako diruaren % 35,6 PFEZ zergari dagokio, % 38,9 BEZ zergari (kudeaketa propioaren eta barne eragiketen eta aduanengatiko doikuntzaren zioz), % 9,4 Sozietateen gaineko Zergari, eta gainerakoa, % 16,1, zenbait zerga bereziri.

Beste alde batetik, Euskal Sektore Publikoaren guztizko gastua, 14.891,9 milioi euroko gastua, alegia (tokiko erakundeak kontuan hartu gabe), % 4,1 igo zen 2014ko ekitaldian, aurreko urteko -% 2,6ko beherakadaren aldean. Hortaz, magnitude horrek EAEko BPGren gainean daukan ehunekoak 6 hamarreneko beherakada izan zuen, % 21,6tik % 22,2ra, hain zuzen ere. Gastuak bilakaera positiboa izan zuen bai Eusko Jaurlaritzan (% 4,9) bai eta hiru foru aldundietan ere (% 4,5). Hala ere, agregatuaren aldakuntzak bilakaera positibo txikiagoa izan zuen (% 4,1), diru-partidetako batzuk erakundeen artean berdintzen baitira (transferentzien zati bat, esate baterako). Labur-zurrean esanda, gure erkidegoaren BPGren gaineko gastu publikoaren ratioa % 19,1etik % 19,7ra hazi zen foru-aldundientzat eta % 14,5etik % 15era Eusko Jaurlaritzarentzat, BPGk EAEn 2014ko ekitaldian izan zuen bilakaeraren behin-behineko datuak kontuan izanik.

Euskal Sektore Publiko osoko (tokiko erakundeak kanpoan utzita) gastu kapituluetako aldakuntzarik garrantzitsuenek zenbait alde erakusten dute aurreko urteetakoekin alderatuz gero. Lehenengoz eta bat, langileriaren gastuak berriro igo ziren, baina ez 2013ko ekitaldian bezainbeste (2104an, +% 1,3 eta 2013an, +% 4,3). 2010-2012 aldian, berriz, nabarmen jaitsi ziren langileriaren gastuak. Jardunbide-gastuak (ondasun eta zerbitzuen erosketaren ziozkoak) hazi ziren 214ko ekitaldian (% 2,7); 2012an eta 2013an, aldiz, murriztu ziren. Era berean, zorpetzearen ziozko gastuek hazkunde izugarri handia izan zuten, aurreko urteetan bezala; izan ere, finantza-gastuak (interesak) % 10,8 igo ziren, eta finantza-pasiboen aldakuntzak (zorraren amortizazioa) are hazkunde handiagoa izan zuen 2014an, % 66,5ekoa, hain zuzen ere. Bi partida horietan, hazkundea handiagoa izan zen Eusko Jaurlaritzarentzat, baina foru-aldundiek ere bilakaera positiboa izan zuten.

Eusko Jaurlaritzaren gastuari dagokionez, 2014ko ekitaldiko behin-behineko likidazioari buruzko datuetan oinarrituta, esan dezagun gastuak % 9,6ko hazkundea izan zuela 2014an, 2013ko ekitaldiko gastuaren aldean. Aurreko urtean, % 9,1eko jaitsiera izan zuen. Hala eta guztiz ere, 2009. urtearen erdialdean izan zen legealdi-aldaketaren ondoriozko sailen berrantolaketak zaildu egiten du atal batzuetako gastuen zenbateko handien bilakaera aztertzea azken urtetik aurrera. Gastu bolumena aintzat hartuta, bi sail nagusiek Hezkuntza, Hizkuntza Politika Kultura Saila (gastu osoaren % 27,1) eta Osasun Saila (% 32,8) izaten jarraitzen dute. Lehenengoa % 5,1 hazi zen eta bigarrena, aldiz, % 2,8 hazi zen, 2013ko ekitaldiko tasaren aldean. 2014ko gastu osoa 10.215,5 milioi eurokoa izan zen, eta kopuru hori gure Erkidegoko BPGren gaineko % 15,5ekoa izan zen urte horretan, behin-behineko datuen arabera.

Diru-sarreren eta gastuen bilakaeraren ondorioz, aurrezki publikoa % 27,6 igo zen (BPGren % 1,2 izan zen) Euskal Autonomia Erkidegoan 2014. urtean; aldi berean, defizit publikoa (finantzaketa-premia) % 34,1 jaitsi zen, 198,4 milioi euroraino; gauzak horrela, BPGren % 0,3koa izan zen.

Halaber, 2014ko *"Aurrekontua Betearazteari buruzko Estatistikak"* erakusten duenez, EAEko sektore publikoaren zorpetze garbia (Eusko Jaurlaritzarena eta foru-aldundiena) % 37,2 jaitsi zen 2014an; aurreko ekitaldietan, aldiz, % 10,2 eta % 4,4 hazi zen. Beste alde batetik, zorpetze gordinak % 7,2ko jaitsiera izan zuen 2014an eta 1.402,8 milioi euroraino heldu zen. Horien artetik, 1.139,4 milioi euro Eusko Jaurlaritzari dagozkio (-% 3,1, 2014 urtearekin alderatuta) eta gainontzeko 263,5 milioi euro foru aldundiei (-% 21,7).

Arestian azaldutakoaren emaitzaz, Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek 10.534,7 milioi euroko zorra izan zuten ekitaldiaren amaieran, 2013ko ekitaldian baino % 11,3 gehiago. Kopuru hori BPGren % 15,7koa izan zen, behin-behineko datuen arabera, (2013ko ekitaldian, berriz, % 14,3koa izan zen). Horrela, beste urtebetez, zorrik handiena Eusko Jaurlaritzak dauka (guztizko zorraren % 79,4; aurreko urtean, % 78).

1.3. B+G+I+IKT JARDUERAK

VI.1.2. KOADROA. B+G+I ETA IKT: ADIERAZLE NAGUSIAK

	EAE		ESTATUA	Eurogunea	Helburu europarra
	2008	2013	2013	2013	
I+G-ko gastua/BPG (%)	1,87	1,99	1,24	2,12	3%
Sektore pribatuak egindako gastuaren %	79,5	75,4*	53,4*	-	-
ZTESeko Zentro Teknologikoek egindako gastuaren %	-	14,8			
Sektore publikoak egindako gastuaren %	4,8	6,4	18,7		-
Sektore pribatuak finantzatutako gastuaren %	54	57,1	46,3	56,9	66%
Berrikuntza adierazleen europar panela: Adierazlearen balioa (2014ko datuak)	-	0,50	0,41	0,56	-
Familien %, etxetik Interneterako sarbidea duten familien 16tik 74 urtera arteko kide bat dutenean	56,9	75,9	74	83	-

**** ZTESeko izaera pribatuko zentro teknologikoak ere aintzat hartzen ditu.***
Iturria: EUROSTAT, EUSTAT, INE

2013. urtean EAEn I+Gko jardueretan 1.316,8 M€ inbertitu ziren[1] EUSTATen arabera (% 4 gutxiago 2012ko datuarekin alderatuz gero. Lurralde historikoak kontuan hartuta, Arabak gastuaren osoaren % 13 egiten du, Bizkaiak % 47 eta Gipuzkoak % 40.

Intentsitateari begira, biztanleko gastua 605,2 eurokoa izan zen; 2012an, aldiz, gastua handiagoa izan zen, 630,1 eurokoa, hain zuzen ere. Halaber, ahaleginei erreparatuta, BPGren % 1,99koa izan zen; ratio hori lehendabiziko aldiz jaitsi da aurreko urtekoaren aldean, azken 10 urteak kontuan hartuz gero.

Ahalegin hori Eurogunean egindako % 2,12koa baino txikiagoa da; horrela bada, kopuruaren aldetik, % 3ko helburu europarra baino 1,01 puntu urriagoa da eta herrialde berritzaileenetarikoen ratioetatik urrun dago: Finlandia (% 3,32), Suedia (% 3,21), Japonia (% 3,38, 2011ko datua), Danimarka (% 3,05), Alemania (% 2,94), AEB (% 2,81, 2012ko datua) eta Frantzia (% 2,23). Hala ere, egia da Suedia eta Finlandiaren gisako herrialdeek ratioaren murrizketa bat izan dutela, EUROSTATen datuen arabera.

Gastuaren % 75,4 enpresek egin zuten; % 18,2 Goi Irakaskuntzak egin zuen eta gainerako % 6,4a Administrazioren menpeko organismoei egokitu zitzaien. Estatuaren kopuruak honakoak izan ziren, hurrenez hurren: % 53,4, % 27,9 eta % 18,7.

1 Erakunde estatistikoek (EUROSTAT, INE eta EUSTAT) ikerketa-jarduera "gastutzat" hartzen dute, publikoa edo pribatua izanagatik ere; edozein kasutan ere, ez dago zalantzarik I+Gko kostuak inbertsioak direla.

Gastuaren finantziazioari dagokionez, kopuruari erreparatuz sektore pribatuaren partaidetza 2,8 puntu handitu zen 2012tik 2013ra bitartean eta % 57,1era iritsi zen; halaber, Administrazioak % 34,9 finantzatzen du, 2012an baino 1,1 puntu gutxiago, kopuruaren aldetik. Estatuan, INEren datuen arabera, sektore pribatuak % 46,3 finantzatzen du eta Herri Administrazioak, aldiz, % 41,6. Eurogunean, EUROSTATen datuei jarraiki, 2012an kopuruak %56,9 eta % 33,4koak izan ziren, hurrenez hurren.

Bestalde, sektore pribatuak eta sektore publikoak finantzatutako B+G honakoa da: BPGren % 1,5ekoa eta % 0,7koa, hurrenez hurren. Hala eta guztiz ere, 2020rako helburu europarrak % 2 eta % 1ekoak dira.

Lanaldi osoko pertsonala % 1,2 jaitsi da 2012koaren aldean. Sexuaren araberako azterketak agerian jartzen du jarduera horietan orotara enplegatutako pertsonalaren % 35,6 baino ez direla emakumezkoak. Gauzak horrela, kopururik handienak Herri Administrazioan eta Goi Irakaskuntzan agertzen dira (% 54,0 eta % 51,7); aitzitik, enpresetan kopurua % 28,9koa da.

Estatistika arloko beste erakunde batzuetan bezala[2], EUSTATek zentro teknologikoak sartzen ditu enpresen sektorearen barruan. 2013an, Euskal Autonomia Erkidegoko zentro teknologikoek I+Gko 194,7 milioi euroko gastuak egin zituzten. Kopuru hori berriro ere jaitsi da (% 12,7, 2012. urtekoaren aldean); halaber, haren garrantzi erlatiboa ere murriztu da EAEko I+Bko gastu osoari dagokionez (% 16,2tik % 14,8ra), bai eta haren garrantzia ere, enpresen sektore osoaren gastuari dagokionez (% 21,4tik % 19,6ra bitartean). Aipatutako gastuaren % 41,4 enpresen sektoreak finantzatzen du, eta bigarren finantzazio iturririk garrantzitsuena Herri Administrazioa da (% 34,8).

UPV-EHUren ikerkuntzari gagozkiolarik, 2013an *Eusko Jaurlaritzaren ikerketa taldeen* ekintzen zenbatekoa[3] 25 milioi eurokoa izan da; horrek adierazten du gehikuntza % 5ekoa izan dela 2010. urtekoaren aldean (2010ean partida 23,7 milioikoa izan zen eta, 2007an, aldiz, 28,5 milioikoa).

Arestian aipatutako partidan oinarri hartuz, ikus daiteke UPV-EHUk ikerkuntzaren arloan aurrera eramandako jarduera murriztu dela 2012tik 2013ra bitartean, 57 milioi eurotik 47ra igaroz (-% 17,7). Zatirik handiena, % 47,2 (22,1 M€) ikerkuntza-proiektuei dagokie; horren ondotik, prestakuntzan ari den pertsonalerako funtsak azaltzen dira (% 25,8, 12,1 M€) eta Unibertsitatearen Antolamenduari buruzko Legearen 83. artikuluaren itzalpean izenpetutako kontratuak, azken horiek funts guztien % 14,6 baitira (6,9 M€). Urrunago, pertsonal ikertzaile/teknikoa kontratatzeko funtsak ageri dira; izan ere, azken horiek orotara % 8,1 dira.

EUSTATen datuekin bat etorriz, 2012tik 2013ra bitartean, I+Gn jarduten duten enpresa kopurua jaitsi da (1.565etik 1.537ra bitartean), eta EUSTATen "Berrikuntzari buruzko Inkestaren" arabera[4] 2010etik 2012ra eta 2011tik 2013ra berritzaileak diren enpresen kopurua murriztu da % 17,3tik % 16,7ra (baldin eta 9 enplegutik gorako enpresak bakarrik kontuan hartzen baditugu % 36,2tik % 34,7ra). Nolanahi ere den, berrikuntza teknologikorako jardueretan izandako gastuan joera aldakorra izan da, enpresaren neurriaren arabera; horrela bada, gastu hori handitu da, baldin eta bakar-bakarrik 10 enplegu edo handiko gorako enpresak kontuan hartzen baditugu.

I+Gko emaitzei dagokienez, *"Berrikuntza Adierazleen Panel Europarra"* kontuan hartuz, Euskal Autonomia Erkidegoan PCTen patente eskabideen adierazlea 1,99koa da BPGren bilioi bakoitzeko; hori estatuko batez bestekoaren gainetik dago (1,64), baina oso azpitik, 27EBren batez bestekoa (3,92) aintzakotzat hartuz gero, eta erreferentziazko herrialdeetatik urrun: Finlandia (10,36), Suedia (9,98), Alemania (7,51), Danimarka (6,5), Herbehereak (5,45) eta Frantzia (4,19).

---

2 Frascatiren metodologia erabiltzen dute. Gogora ekar dezagun Manuel Frascati-ren gidaliburuaren metodologiak berekin dakarrela gehienbat finantzazio pribatua duten zentro teknologikoak enpresa-sektorearen barruan sartu beharra. Gidaliburuaren izen ofiziala honakoa da: "Ikerketa eta Garapen Esperimentalari buruzko Inkestetarako Arau Praktikoaren Proposamena". Proposamen hori OCDErena da eta gaur egun erreferentziatzat hartzen da zehazteko zeintzuk diren ikerketa eta garapenaren aldeko jarduerak.

3 Deialdia hiru urterik behin egin ohi da.

4 Tamaina eta jarduera-sektore guztietako establezimenduei zuzendua, bai eta Herri Administrazioari, elkarteen jarduerei, etxeetako jarduerei eta organizazioen nahiz lurraldeez gaindiko erakundeen jarduerei ere, lehen sektoreari izan ezik. Hau da, Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalaren arabera (CNAE-2009 2. berrik.), guztiei zuzendua, 01-03, 84, 94, 97, 98 eta 99 dibisioen jarduera nagusia duten establezimendu guztiei izan ezik.

5 Patenteen Lankidetza Ituna.

"Berrikuntza Adierazleen 2014ko Panel Europarrak" aurreko alderdiak berresten ditu; izan ere, EAEk 27EBren batez bestekoaren azpitik dagoen 0,50 adierazle sintetikoaren balioa du (27EBren batez bestekoa 0,56koa da) eta berrikuntza handia duten herrialdeen beheko aldetik ehuneko batera dago (Luxenburgo, Herbehereak, Belgika, Erresuma Batua, Austria, Irlanda, Frantzia, Eslovenia, Txipre eta Estonia, horien guztien puntuazioak 0,64tik 0,51era bitartekoak baitira).

I+G+b-ko atalari amaiera emateko, nabarmendu beharra dago 2014ko abenduan Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 2020 Plana onetsi zela (Euskadiko 2020 ZTBP); egitasmo horren helburua honako hauxe da: ongizatea, hazkunde ekonomiko iraunkorra eta enplegua hobetzea, *espezializazio adimendunean* eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistemaren eraginkortasunaren hobekuntzan oinarritzen den ikerketa eta berrikuntzaren aldeko politika baten bitartez.

Haren lau ildo estrategikoak eta zeharkako bi ardatzak bost helburu operatibotan (HO) egituratzen dira eta helburu horizontal batean (HH):

IE Espezializazio adimenduaren estrategiari bultzada ematea, zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren bitartez, Euskadiko gizarte-erronkei erantzun egokia emateko asmoz.	OH I+G+b-ko baliabideak eta inbertsioak espezializazio-eremuetan biltzea (RIS3ko lehentasun estrategikoekin lerrokatutako ikerkuntzaren kopurua % 76tik % 82ra handitzea). OH Oinarrizko ikerkuntza eta garapen esperimentala sendotzea (I+G+b-ko jarduera-mix-a honela handitzea: oinarrizko inbertsioa % 15, industriaren inbertsioa % 30 eta garapen esperimentala % 55). 2012an mix hori honakoa zen: 14/47/39.
IE Lidergo industriala indartzea lankidetza publiko eta pribatuaren bitartez.	OH I+G+b-ko baliabideak eta inbertsioak espezializazio-eremuetan biltzea (RIS3ko lehentasun estrategikoekin lerrokatutako ikerkuntzaren kopurua % 76tik % 82ra handitzea).
3IE Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistemaren bikaintasuna handitzea.	3HO. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistema emaitzetara bideratzea (argitalpen zientifiko indexatuak 4.500etik 7.500era handitzea; PCT/EPO patenteen eskabideak 340etik 500era goratzea, eta fakturazio-produktu berrien salmentak % 12,48tik % 15era handitzea).
4IE. Giza kapitalaren garapena bermatzea zientzian, teknologian eta berrikuntzan.	6HO. Ikertzaileen kualifikazioa hobetzea (doktoregoa duten ikertzaileen kopurua gaur egungo % 29tik % 35era handitzea 2020. urterako, betiere ikertzaile guztien aldean).
1ZA. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistema irekitzea eta nazioartekotzea.	4HO. Nazioarteko funtsen harrera sendotzea I+G+b-n (I+G+b-ko atzerriko finantzazioa gaur egungo % 5etik % 8ra handitzea 2020. urteari begira).
2ZA. Sistema berritzailea eta konektatua.	5HO. Berrikuntza gauzatzen duten enpresen kopurua handitzea (10 langiletik gorako enpresa berritzaileen kopurua % 45,5etik % 50era handitzea, enpresa guztien aldean).

Planak jasotzen duen berrikuntza-ereduaren eraldaketak berekin dakar jakintza berriaren sorkuntzan eta ustiapenean oinarritu beharreko eredu bateranzko bilakaera. Hori guztia gauza ahal izateko, gaur egungo Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea berrantolatzeko prozesu bati heldu behar zaio ezinbestean; horren helburuak honakoak izango dira:

1. Agenteen zeregina plangintza honetan ezarritako helburuekin lerrokatzea.
2. Agente bakoitza eremurik egokienean kokatzea, multzoaren osagarritasun- eta koherentzia-maila ahalik eta gehien maximizatzeko.
3. Euskadiko ekoizpen- eta gizarte-sarearen aldeko balioaren eraginkortasuna eta ekarpena handitzea.
4. Agenteen dentsitate handitik eratorritako ahuleziei heltzea.
5. Sareko agenteen multzoari ikusgaitasuna ematea, gizartean ezaguna eta onartua izan dadin.

Berrikuntzari buruzko orientazio berri eta sakona da. BPGren gaineko I+Gko gastuen adierazle tradizionala osatu behar izango da ezarritako lehentasun bertikal eta horizontalei men egiten dieten adierazleekin eta espezializazio adimendunarekin. Guztion artean gainditu beharreko ikasgaia.

Beraz, ez da bolumen kontu bat bakarrik, baizik eta berrikuntzaren arloan jorratu beharreko premia eta beharrizan berria, bereziki.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen artean ekipamendu teknologikoak hazkunde etengabea izaten ari dira, nahiz eta ekipamendu guztiek hazkunde eta intentsitate bera ez izan. EUSTATen arabera, 2003. urtean 15 urte eta handiko gorako herritarren % 54,2k ordenagailua zeukan eta 2014an kopuru hori % 77,2ra hazi da. Ildo horri jarraituz, Interneterako konexioak nabarmen hazi dira, % 35,8tik % 74,5era igaroz. Antzeko bilakaera izan du posta elektronikoak; izan ere, 2007. urteko % 50,0tik 2014. urteko % 70,6ra igaro da.

Hala eta guztiz ere, EAE Eurogunearen batez bestekoaren azpitik dago eta eremu honetan erreferentzia diren herrialdeetatik urren, zenbait adierazletan. Hori berori gertatzen da etxebizitzetan; izan ere, familietan 16 urtetik 74 urtera bitarteko kideren batek Interneterako sarbidea du. Eurogunean kopuru hori % 83ra iristen da (EUROSTATen 2014ko datua) eta EAEn % 75,9ra (EUSTATek urte berari begira emandako datuarekin bat etorriz).

Transakzio elektronikoei dagokienez, EUSTATek *Informazioaren Gizartearen 2013ko Panoramari buruz* egindako txostenaren 2003-2013ko hamarkadaren datuak aztertuta egiazta daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko gizartea beldurra galtzen ari dela Internet bitarteko erosketak egiteko orduan; gauzak horrela, Internet bidez erosten duen pertsonaren profila honako hauxe da: gizon gaztea, seme-alabak dituen familia batean bizi dena, goi-ikasketak edo ikasketa ertainak dituena eta lanean diharduena. Etxerako eta opor-bidaietarako eta -alojamendurako produktuen erosketa emakumezkoek egiten dute maizago; nolanahi ere, gizonezkoek honako erosketa hauek egiten dituzte proportzio handiagoan: musika eta musika-tresnak, motorrak eta osagarriak, bai eta software eta bideojokoak ere.

Enpresetako IKT-ko ekipamenduei gagozkielarik, horietan IKT-ko ekipamenduak sartzeko prozesua haziz doa etengabe. Hala eta guztiz ere, etengabeko hobekuntza hori moteldu da; izan ere, tamaina handiko establezimenduetan batez ere saturazio-atalasera iritsi da IKT-ko ekipamendu nagusietan.

Internet edo bide elektroniko bitartezko merkataritzako transakzioez denaz bezainbatean, EUSTATen datuen arabera, merkataritza elektronikoak hazten jarraitzen du EAEko enpresa-sarean, nahiz eta gehiago handitu kopuru ekonomikoen aldetik (euroetan) bertan parte hartzen duten enpresen kopuruaren aldetik baino.

EAEn merkataritza elektronikoa egiten duten enpresen kopurua handiagoa da Eurogunean eta 28EBn merkataritza elektronikoa egiten duten enpresena baino.

Administrazio elektronikoari dagokionez, EUSTATen datuei jarriki, Internetera konektaturik dauden eta Herri Administrazioarekin izapideak egiten dituzten 10 langileko edo handik gorako establezimenduak % 92,1 dira (% 91,2 Araban, % 91,8 Bizkaian eta % 92,9 Gipuzkoan). Jarduera-sektoreak aintzakotzat hartuz, industria nabarmendu beharra dago (% 93,3rekin), bai eta eraikuntza (% 92,1) eta zerbitzuak ere (% 91,7).

Enpresek tramitazio elektronikoa erabiltzen dute, bereziki, informazioa eskuratzeko (10 enpleguko edo handik gorako establezimenduen % 84,4), inprimakiak eta galdetegiak lortzeko (% 82,4), inprimakiak eta galdetegiak itzultzeko eta betetzeko (% 68,6), zergak aitortzeko (esate baterako sozietateena eta BEZarena), gizarte-kotizazioak zehazteko eta administrazio-prozedurak izapidetzeko.

Beste alde batetik, 2013an EAEn 16 urtetik 74 urtera bitarteko miloi erdi biztanlek erabili zuten administrazioek eskaintzen dituzten aukeretariko baten bat, herritarrekin elkarreraginean jarduteko; horrek esan nahi du biztanleria osoaren % 38,2k erabili zuela bide hori.

Informazioaren Gizartearen elementu eragile gisa administrazio elektronikoak egiten duen eskaintzari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-erakundeek 2013an eskainitako prozedura eta izapide publiko elektronikoen % 40,8k sofistikazioko 4. maila du tramitazio elektronikoa oro har kontuan hartuz; halaber, % 33,9k sofistikazioko 2. maila du (galdetegien jaitsiera) eta % 23,6k 1. maila (informazioa). Datuak *linean* sartzeko aukera nahiko urria da (% 3,2).

Erakunde publiko motaren araberako bereizketa eginez, udalak nabarmentzen dira besteen gainetik, toki-erakunde horiek baitira prozeduren eta izapideen eskaintzaren % 57,4 biltzen dutenak. Bigarren tokian, foru-aldundiak daude (eskaintzaren % 15,6) eta hirugarren tokian Eusko Jaurlaritza (% 13).

1.4. LAN MERKATUA

Lehenik eta behin, EUSTAT erakundearen BJAren datuek agerian jartzen dute 2014an EAEko biztanleria aktiboa hazi dela urtearen batez bestekoari erreparatuta. Horrela, 2013an lan-merkatuan parte hartzen zuen % 56,6ren aldean, 2014. urtean proportzio hori % 57,3koa izan da, hau da, 7 hamarreko gehiago. Krisialdiaren luzapenaren ondorioz sortutako uzkurdunak jarduera-tasen jaitsiera nabarmena eragin zuen 2012. urtean; ekitaldi horretan enplegu-aukeren faltak berekin ekarri zuen lan egiteko adinean zegoen landunen zati garrantzitsu batek enplegua galdu eta langabezian geratu beharra. 2013. urtean galera horren zati bat berreskuratu zen, eta, 2014. urtean berriro ere pertsona aktiboen batez besteko kopurua 1.048.400ekoa da, 2013. urtean baino % 0,8 gehiago, edo beste modu batera esanda, aurreko urtean baino 8.400 pertsona gehiago.

Emakumezkoen jarduera-tasaren urteko batez bestekoa % 51,9koa izan da, hots, 2013. urtean baino 1,3 puntu gehiago. Bestalde, aktiboan dauden gizonezkoen jarduerak % 63ri eusten dio. Izan ere, biztanleria aktiboaren hazkundea guztiz femeninoa da, gizonezko aktiboen kolektiboa 2.500eko zenbatekoan murriztu baita batez beste (-% 0,4). Gainera, jarduera-ratioak adin-talde guztietan hazi dira.

Enpleguaz denaz bezainbatean, EAEn 2013ko abendutik 2014ko abendura bitartean izandako okupazioaren igoera % 0,8koa izan da (aurreko epeko ratio bera), eta lanpostuen kopurua 6.900eko zenbatekoan hazi da. Gizonezkoen enplegua izan da bilakaerarik okerrena izan duena (gutxiago hazi da, % 0,5, hain zuzen ere). Horrela bada, azken urtean gizonezkoen enpleguak 2.300 lanpostu lortu ditu; aitzitik, emakumezkoen enplegua 4.700 lanpostuan hazi da (% 1,1).

VI.1.3. KOADROA. LAN MERKATUA: ERREFERENTZIAZKO ZENBAIT ADIERAZLE

	OKUPAZIO T., 20-64		ALDI BATERAKOEN T.		L. PARTZIALEKO ENPLEGUAREN %	
	2013	2014	2013	2014	2013	2014
28-EB	68,8	69,8	14,1	14,4	19,3	19,3
EB	68,1	68,6	15,5	15,6	21,2	21,2
ESPAINIA	59,0	60,4	24,1	24,7	15,1	14,9
EAE	66,2	67,3	22,8	24,5	14,3	14,7

	LANGABEZIA TASA		GAZTEEN LANGABEZIA T., <25		IRAUPEN LUZEKO LANGABEZIA %	
	2013	2014	2013	2014	2013	2014
28-EB	10,9	10,2	23,7	22,2	47,4	49,9
EB	12,0	11,6	24,4	23,7	49,8	53,2
ESPAINIA	26,1	24,5	55,5	53,2	49,7	53,4
EAE	14,3	14,9	39,2	37,3	57,4	65,0

Iturria: EUROSTAT, EUSTAT eta PRAren datuetan oinarri hartuz prestatua.

Urteko batez besteko balioak aintzakotzat hartzen baditugu, 2014an berreskuratutako 1.400 lanpostuetatik (% 0,2, 2013ko datuaren aldean) gizonezkoek 2.500 galdu zituzten (-% 0,5) eta emakumezkoek 3.900 lortu zituzten (% 0,9). Horrenbestez, enpleguaren feminizazioa 4 hamarrekoan hazi da, % 46,5etik % 46,9ra igaroz. Sektoreak kontuan hartuz gero, 2013an enplegurik gehienak eraikuntzaren sektorean galdu ziren (-10.300, 2012. urtean baino % 17,9 gutxiago) eta zerbitzuak suspertzen hasi ziren (% 1,7); gauzak horrela, 2014. urtean susperraldi hasiberriaren protagonistak hirugarren sektorea izaten jarraitzen du, % 1,4 hazi baita eta 8.800 enplegu irabazi baititu. Bestalde, industria berriro ere jaitsi da 2014an, kopuruari erreparatuz gero, % 3,6 (-7.400 enplegu, aurreko urteko 8.000tik gorakoen aldean) eta eraikuntzak jaitsiera moteldu du, 100 enplegu galduz (-% 0,2), zenbait urtetan behea jo ondoren.

Lanaldi-motari gagozkiolarik, 2014. urtean Euskadin okupatutako biztanleriaren % 14,7k lanaldi partzialean jardun du, hau da, astean 30 ordu baino gutxiago lan egin du. Tasa horrek krisialdiaren aurretiko zenbatekoak bikoizten ditu (2008an tasa hori % 7,6koa baitzen), baina sexuaren arabera asko aldatzen da; izan ere, gizonezkoen kasuan % 6,6koa (ez zen % 2ra iristen 2008. urtearen aurretik) eta emakumezkoen kasuan % 23,9koa (2012. urtera arte % 15 ingurukoa zen, 2010-2011an apur bat handitu bazen ere). Europan, 2014an (III. hiruhilekoaren datuak) lanaldi partzialeko enpleguaren batez besteko tasa % 19,3koa da (% 21,2koa Eurogunean); herrialde batzuetan ia ez da existitzen (% 2,5 Bulgarian, % 5,2 Eslovakian) eta beste herrialde batzuetan % 25etik gorakoa da, esate baterako Herbehereetan (% 49,3), Erresuma Batuan (% 25,1) eta Alemanian (% 26,5). Espainian tasa hori % 14,9koa da. Gainera, EBko herrialde guztietan lanaldi partzialeko enplegu femeninoa maskulinoa baino askoz handiagoa da.

Behin-behinekotasunaren mailak aintzat hartu, BJAren datuek erakusten dute 2014an urteko batez bestekoa aurreko urtekoa baino handiagoa izan dela (soldatapeko enpleguaren % 23,6, 2013ko % 21,4ren aldean). Horren arrazoia honakoa da: urte horretan soldatapeko enpleguaren suntsipenak kontratu finkoa zuenari eragin izana (-% 4,1, soldatapeko enplegu osoaren -% 0,9ko jaitsieraren aldean) eta aldi baterako kontratu baten titularrak % 9,2 handitu izana. Gure erkidegoko behin-behinekotasunaren maila horiek Holanda eta Portugalekoekin aldera daitezke Europan; hala eta guztiz ere, Europar Batasun osoa aintzakotzat hartuz gero, batez besteko hori % 14,4koa da Eurogunekoa % 15,6koa. Behin-behinekotasunaren ratiorik handienak Espainian (% 24,7) eta Polonian (% 28,8) daude.

2014an kontratazioak gora egin du aurreko urtekoaren aldean (guztira +% 11,8, eta hasierako kontratuen zenbatekoak % 12,1; azken horiek kontratazioaren % 98 dira); 2012an eta 2013an alderantzizkoa gertatu zen, urte horietan kontratazioa jaitsi baitzen, % 2,8 eta % 3,5, hurrenez hurren. Gainera, bilakaera positiboak lanaldi partzialeko kontratuei eragiten die (% 10,4; horiek kontratu guztien % 39,1 dira), bai eta lanaldi osoko kontratuei ere (azken horiek % 12,7 hazi dira). Orotara, SEPEK 2014. urtean 759.149 lan-kontratu erregistratu ditu (berriak gehi konbertsioak). Horietatik, % 50,4 emakumezkoek izenpetu dituzte (aurreko urteko % 51,3ko kopuruaren aldean) eta horik, gainera, kontratatutako pertsonen % 47,3 izan dira.

Kontratuen iraupenari dagokionez, 2014an izenpetutako guztien artean 38.125 mugagabeak izan dira, hau da, % 5 (2013. urtean % 6,6). Sexuaren arabera, kontratazio mugagabearen pisua txikiagoa da gizonezkoen artean (% 4,7) emakumezkoen artean baino (% 5,4). 2014. urtean izandako kontratu mugagabe horien kopurua % 14,5 murriztu da 2013koaren aldean; era berean, aldi baterako kontratazioak % 13,7 egin du gora. Aldi baterako kontratuen batez besteko iraupenari dagokionez, iraupen hori 32 egunekoa da (2013. urtean 46 egunekoa izan zen); ratio hori berbera da estatuan, bertan ere nabarmen murriztu baita aurreko urteetakoaren aldean.

2014. urtean lan-merkatuak izandako bilakaeraren emaitza gisa, BJAren langabezia-tasa orokorra % 14,5ekoa izan da urtearen amaieran eta % 14,9koa lau hiruhilekoen batez besteko modura; gauzak horrela, Europar Batasunaren batez bestekoa gainditzen da (EBn % 10,2koa izan da eta Eurogunean % 11,6koa). Europan langabeziak dituen balioen sorta zabala eta askotarikoa da; gauzak horrela, Espainian tasa % 25 ingurukoa da (% 24,5ekoa urteko batez bestekoari erreparatuta) eta Grezian (% 26,5), eta beste herrialde batzuetan % 6 ingurukoa edo txikiagoa, hala nola Maltan, Alemanian edo Luxenburgon. Adibide batzuk aipatzearren, Estatu Batuetako langabezia-tasa % 6,2koa da, Japoniako % 3,6koa, eta Frantzian, Polonian eta Eslovenian ratioak Europar Batasunekoen antzekoak dira.

VI.1.4. KOADROA. ENPLEGU POLITIKAK: EAE ETA ESTATUAREN ARTEKO ERKAKETA %REN GASTUA. BPG-REN GAINEAN

	P. AKTIBOAK		P. PASIBOAK		
	2011	2012	2012	2013	2014
ESPAINIA	0,52	0,47	3,00	2,91	..
EAE	0,63	0,73	1,94	1,91	1,50

Iturria: EUSTATen, INEren eta OGASUN ETA ENPLEGU MINISTERIOEN datuetan oinarri hartuz prestatua.

2014. urtean gure erkidegoan langabe dauden pertsonen kopurua berriro ere hazi da zazpigarren urtez jarraian urteko batez bestekoari men eginez gero; hala eta guztiz ere, urtea amaitu zenerako, jaitsiera izan zen 2013. urteko amaierakoaren aldean. Edonola ere, horrek pertsona nagusiei eragin zien bereziki: 45 urtetik gorakoen artean langabezia 3.400 pertsonako kopuruan handitu da, hau da, % 7,4. Edozein kasutan ere, lan-merkatua duten pisua kontuan harturik, haien langabezia-tasa batez bestekoaren azpitik dago: % 10,8koa da. Adin ertaineko taldean, 25 urtetik 45era bitartean, langabezia apur bat hazi da batez bestekoaren gainetik (% 4,8). Aitzitik, gazteen artean (25 urtetik beherakoak) langabeen kopurua 2.200 pertsonan jaitsi da; gauzak horrela, talde horren ratioa murriztu da, nahiz eta batez besteko orokorraren oso gainetik egon (2013. urtean izandako % 39,2tik % 37,3ra igaro da).

Sexuaren arabera, Euskadin lanik gabe dauden pertsonen % 53 gizonezkoak dira eta % 47 emakumezkoak; horrela bada, langabezia emakumezkoen artean baizik ez da hazi (+% 10,6), gizonezkoen artean aldaketarik gabe jarraitzen baitu.gisa, langabezia-tasa berdina da emakumezkoei eta gizonezkoei dagokienez % 14,9koa, hain zuzen ere.

Lan-merkatuaren egoera horretan, enpleguaren aldeko politikak garrantzi handikoak dira; izan ere, politika-mota horiek bideraturik daude langabetuek enplegua lortzera eta lana dutenek horri eustera. Era berean, langabe dauden pertsonen babes ekonomikora zuzendutako politika pasiboak ere funtsezkoak dira. Lehenengo politika aktiboei dagokienez, gure erkidegoak 2012. urtean (eskuragarri dagoen azkeneko datua) 481 miloi euro erabili zituen enplegua sustatzeko helburuarekin; horrek esan nahi du langabetu bakoitzeko 2.846 euro erabili zituela, estatu osoko ratiorik handiena. Bestalde, LANBIDE- Euskal Enplegu Zerbitzuak 2013an (eskuragarri dagoen azkeneko datua) 137,12 milioi euro erabili zituen guztira, lan merkatuan sartzeko aukerak hobetzera bideratuak; horietan 180.000 pertsonak parte hartu zuten.

Enpleguaren aldeko politika pasiboei gagozkielarik, behin-behineko datuen arabera, EAEn langabeziagatiko prestazioetara zuzendutako gastua 1.001,47 milioi eurokoa izan da 2014. urtean, hau da, 2013an baino % 20,4 gutxiago. Zenbateko hori EAEko BPGren % 1,50 da, aurreko urteko % 1,91ren aldean. Halaber, langabeziagatiko prestazioen onuradunen batez besteko kopurua 78.929 pertsonakoa izan da EAEn, hots, aurreko urtean baino % 11,8 gutxiago, Enplegu Ministerioak emandako datuekin bat etorriz. Estatuan, hartzaileen kolektiboa ere jaitsi da 2014. urtean, apur bat gutxiago izan bada ere: urtean % 11,2ko batez betekoa; gauzak horrela, EAEk estatu osoko onuradun guztien artean duen partaidetza apur bat murriztu da, 2013. urteko % 3,12tik 2014. urteko % 3,10era igaroz. Gainera, aipatu beharra dago EAEko 78.929 hartzaileen artean % 47,8 emakumezkoak direla (haien kopurua batez bestekoa baino gutxiago jaitsi da, % 9,5) eta % 52,2 gizonezkoak (-% 13,9).

2014ko abenduko datuei jarraiki, 20.957 hartzaile horietatik % 56,9k zerga-prestazioak jaso ditu, % 37,3k laguntzak eta gainerako % 5,8ak Laneratzeko Errenta Aktiboa jaso du. Estatuan, bestalde, zerga-prestazioaren hartzaileen ratioa % 40,4koa izan da, laguntzen hartzaileena % 43,4koa eta laneratzeko errenta aktiboarenena % 11koa. Gainera, % 5,2k Nekazaritza Gorabeheren Laguntza jaso du. Erregistratutako langabezia-tasak aintzakotzat harturik, esan liteke 2014ko abenduan Euskal Autonomia Erkidegoan 100 langabetuetatik 57k ez zuela inola prestaziorik jasotzen (2013. urtean, 50ek), eta gainerako 43etatik 24k zerga-prestazio bat jasotzen zuen, 16k laguntza eta 3k Laneratzeko Errenta Aktiboa.

Zenbateko horiek ikusita, 2014ko abenduan estatuan prestazioaren batez besteko estaldura % 57,6koa izan da (kopuruaren aldetik 3,8 puntu gutxiago 2013ko abenduan baino); aitzitik, Euskal Autonomia Erkidegoaren datua txikiagoa izan da (hil horretan erregistratutako langabetuen % 47,3, aldez aurretik lanean aritutakoak, betiere Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioak erabiltzen duen metodologiarekin bat etorriz). Gure erkidegoan ere estaldura jaitsi da, kopuruaren aldetik 7,7 puntu 2913. urteko abendutik 2014. urteko abendura bitartean. Gauzak horrela, datu horrek adierazten du Euskal Autonomia Erkidegoan izan dela langabeziagatiko estalduraren jaitsierarik handiena autonomia-erkidego guztiak kontuan hartuz.

Beste alde batetik, OSALAN – Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak lan-istripuen inguruan erregistratutako datuek agerian jartzen dute 2014. urtean 28.990 lan-ezbehar izan zirela, hau da, 2013. urtean baino % 0,9 gehiago (betiere honakoak kontuan hartuz: istripuen ondorioz baja hartua zuten langileen kopurua, betiere lanaldi barruko istripuak, “in itinere” izandako ezbeharrak eta gaixotasun profesionalak barne); aitzitik, estatuan igoera % 3,2koa izan da termino erlatiboetan, Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioak emandako datuekin bat etorriz (aurreko urtean -% 2,4). Bilakaera hori kontrajartzen zaio gure erkidegoan 2009. urtetik aurrera izandako jaitsierari; izan ere, 2013. urtera arte jaitsiera metatua % 28,6koa izan zen.

Lanaldian zehar istripua izandako pertsonei men eginez gero (24.816, hau da, 2013. urtean baino % 0,8 gehiago), azken urtean hain larriak ez diren ezbeharrak handitu dira, % 0,8 hain zuzen ere; bestalde, istripu larriak % 0,7 murriztu dira eta mortalak aldaketarik gabe jarraitu dute 2013. urtekoen aldean. Gainera, sektoreen araberako azterketak agerian jartzen du istripuak bereziki lehen sektorean handitu direla (% 11,3, nahiz eta istripu guztien % 2,6 baino ez izan) eta industrian (+% 2,1); aitzitik zerbitzuen arloan bilakaera negatiboa izan da (-% 0,1) eta, neurri handiagoan, eraikuntzan, sektore horretan % 1,4 murriztu baitira.

Zenbateko horiek enpleguaren bolumenarekin erlazionatuz gero, bilakaera antzekoa da: Istripuen indizea 27,8koa da mila landuneko (27,6 milako 2013. urtean, hortaz, inpaktua % 0,7 hazi da). Sektore bakoitzean arretan jarriz,

igoerarik handiena nekazaritzan izan da (+% 10,1) eta industrian; azken arlo horretan % 6 handitu da, 44,8 istripuraino, sektorean lanean diharduten mila landuneko. Eraikuntzan eta zerbitzuetan, bestalde, istripuak % 1,2 eta 1,4 jaitsi dira, hurrenez hurren. Edozein kasutan ere, Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioaren datuek jasotzen dute Euskal Autonomia Erkidegoan istripuen eragin-indizea % 1,3 jaitsi dela.

Beste gai bati helduz, 2014. urteari dagozkion Lan Harremanen Kontseiluaren (LHK) behin-behineko datuei jarraiki, urte horretan gure erkidegoko langileen % 65,1i eragiten zioten hitzarmenak berritu behar ziren. Kopuru hori 2013. urtekoa baino murritzagoa da (% 87). Urtea amaitzerako, Euskal Autonomia Erkidegoko langileen % 51,4k berritzeko zuen hitzarmena (2013. urtean % 60,3k zuen). Euskal Autonomia Erkidegoan negoziazioaren aldeko jarduera murriztu da; izan ere, indarreko hitzarmenek estalitako soldatapekoen kopurua % 48,6koa da, aurreko urteko % 39,7ren aldean. Horrela bada, % 48,6 horretatik 34,9 puntu aurreko urteetan adostutako hitzarmenek estalitako langileei dagozkie eta 13,7 baino ez dira 2014. urtean izenpetutako hitzarmenei dagozkienak. Halaber, hitzarmenak sinatzeke dituzten gainerako langileen % 51,4etatik % 17,1ek indargabetutako hitzarmenak izan dituzte; horiek ez dute babesik ematen dien bestelako goi-eremurik eta ez dute lortu estaldura emango dien bestelako hitzarmen berririk. Gainerako langileen % 34,3k luzatutako indarraldia duten eta berritzeko dauden hitzarmenak dituzte.

Amaitzeko, LHK-k lan-gatazkari buruz emandako datuek agerian jartzen dute 2014. urtean zehar 226 greba izan direla Euskal Autonomia Erkidegoan; guztira 16.360 partaide izan dituzte eta lan egin ez deneko 55.717 lanaldi eragin dituzte orotara; kopuru horiek urtetik urterako jaitsierak azaltzen dituzte: % 35,4, % 55,8 eta % 60,3ko jaitsierak, hurrenez hurren. Negoziazio kolektiboa gatazkaren lehendabiziko arrazoi gisa azaltzen da, eta, horren ondorioz, huelgen % 38,9 izan dira. Halaber, "bestelako arrazoiak" delako epigrafearen azpian multzokatutako bestelako gaiek partaide askoren babesa izan zuten (guztien % 34,8) eta lan ez egindako lanaldi ugari eragin zituzten (% 44,3 2013ko datuekin alderatuta, lan-gatazkek jaitsiera nabarmenak izan zituzten negoziazio kolektiboari, krisialdiaren aurreko bestelako neurriei eta enplegu-erregulazioei dagokienez; aitzitik, "bestelako arrazoiak" izenburupean jasotako grebetan partaide-kopurua eta lan ez egindako lanaldiak handitu ziren.

1.5. DEMOGRAFIA ETA IMMIGRAZIOA

Euskal Autonomia Erkidegoan, 2014ko urtarrileko erreferentzia duen Biztanleen Udal Erroldak eskainitako azkeneko datuei jarraiki, EAEren biztanleria bigarren urtez jarraian murriztu da apur bat eta gaur egun 2.188.985 biztanle daude gure erkidegoan (-% 0,12, 2013. urteko datuen aldean), hau da, 2.697 gutxiago aurreko urtean baino. Lurralde Historikoei erreparatuz gero, ikus daiteke biztanleria hazi dela Gipuzkoan (1.330 biztanle gehiago, % 0,19) eta Araban (515 pertsona, +% 0,16), baina Bizkaian murriztu dela (-% 0,39, hau da, Bizkaiak orotara 4.542 biztanle galdu ditu).

VI.1.5. KOADROA. DEMOGRAFIA ETA IMMIGRAZIOA EAE-N ERREFERENTZIAZKO ADIERAZLEAK

	EAE		ESTATUA	28EB
	2005	2013	2013	2013
BIZTANLE BOLUMENAREN ALDAKETAREN %	0,4	-0,1	1,3	0,3
HAZKUNDE BEGETATIBOA / 1.000 BIZTANLE	0,1	-0,2	0,8	0,1
IMMIGRAZIO SALDOA / 1.000 BIZTANLE	6,3	-0,9	0,5	3,1
ATZERRIKO BIZTANLEEN %	3,4	6,8	11,7	6,9**

Iturria: EUSTATen, EUROSTATen eta INEren datuetan oinarri hartuz prestatua.
**Jaiotzak ken heriotzak.*
***2012ko datua.*

Beste alde batetik, EUROSTATek kalkulatzen du Europar Batasuneko biztanle-kopurua 506,8 milioi pertsonakoa dela (erreferentzia 2014ko urtarrilekoa da), hots, 1,7 milioi gehiago 2013ko urtarrilean baino. Milako 3,2ko igoera horrek (aurreko urtean 2,2koa izan zen milako) ahalbidetu du 1960tik izandako etengabeko hazkunde-joerari eustea; izan ere, 1960ko urte horretan gaur egungo Europar Batasuneko biztanleria 400 milioi biztanlekoa zen. Bilakaera positibo hori berriro ere immigrazioaren portaeraren ondorioa izan da; izan ere, aldaketa osoaren % 10 baino ez ezin zaio hazkunde naturalari egotzi (jaiotza eta heriotzen arteko alde positiboa).

Euskal Autonomia Erkidegoan 2013ko behin-behineko datuek erakusten dute hazkunde begetatiboa (jaiotza eta heriotzen arteko alde gisa zenbatzen den biztanle-aldaketa, immigrazio-mugimenduak kontuan hartu barik) negatiboa izan dela saldo positiboak izandako 9 urteren ondoren: urte horretan 19.110 jaiotza izan ziren, aurreko urtean baino % 6,9 gutxiago, eta 19.692 heriotza (2012. urtean baino % 2,9 gutxiago). Horren ondorioz, hazkunde begetatiboa -574koa izan zen, hots, -0,2koa milako.

Gauzak horrela, 2013. urteko saldoa negatiboa izan da, bi aldagaiak murriztu arren, jaiotzak gehiago gutxitu direlako heriotzak baino. Ohikoa denez, joera desberdina da lurraldeak aintzakotzat hartuz gero: Bizkaiak, 2012. urtean 904 biztanle galdu zituenak, 2013an berriro ere galdu ditu 996 biztanle, behin-behineko datuen arabera. Bestalde, Arabak urte horretan joera positiboari eutsi dio eta biztanleria 520 pertsonan hazi da; aitzitik, Gipuzkoak 90 biztanleko saldo negatiboa dauka.

Beste alde batetik, EUSTATen *"Migrazio Mugimenduei buruzko 2013ko Estatistikak"* zenbatu zuen urte horretan gure erkidegoak 1.956 biztanle galdu zituela (2012an 9.949 izan ziren), migrazio-saldo positiboak izan zituzten 13 urteren ondoren. Lurraldeak kontuan hartuz, Bizkaia 3.426 pertsona galdu zituen eta datu negatiboa duen lurralde bakarra da. Beste alde batetik, Arabak 82 pertsona irabazi zituen (2012. urtean 1.700 baino gehiago) eta Gipuzkoak 1.388 (aurreko urtean baino % 58 gutxiago). EAEren eta gainerako autonomia-erkidegoen artean izandako mugimenduei dagokienez, 2013. urtean 3.220 pertsonako saldo positiboa izan zen, hau da, immigrazioak gehiago izan ziren emigrazioak baino, eta EUSTATek estatistika hau prestatzen duenetik, saldoak bigarren urtez gainditu du atzerriko herrialdeekin izaten dena; izan ere, atzerriko herrialdeekiko saldoa negatiboa da (-5.176), atzerrira pertsona gehiago doazelako beste herrialde batzuetatik datozenak baino.

Beste gai bati oratuz, udal-erroldaren datuei jarraiki, azken urtean Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duen atzerriko biztanleria bigarren urtez jarraian murriztu da, betiere hazkunde ekonomikoaren azken etapari lagundu dion migrazio-fenomenoa hasi zenetik; hori guztia gaur egungo krisialdiaren eraginen ondorioz gertatu da. 2005etik 2012ra bitartean Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatutako atzerriko biztanleak bikoiztu ziren eta urteko igoerarik handiena 2008. urtean izan zen, urte horretan erroldatutako atzerriko biztanleria 19.000 pertsonan hazi baitzen.

2014ko urtarrilaren 1ean, udal-erroldak zenbatu zuen 140.917 atzerritarrek egoitza zutela Euskadin, aurreko urtean baino % 5,3 gutxiago (2014rako behin-behineko datuak eta 2013rako behin betiko datuak erabiliz). Etorkinen jaitsiera hori islatzen da biztanleria osoaren barnean duen kopuruan: 2014. urtean atzerritarrak % 6,4 izan dira (aurreko urtean baino 4 hamarreko gutxiago) eta estatuan % 10,7. Lurraldeak kontuan hartuz, atzerritarren kopururik handiena Bizkaian bizi da (68.004), 2013. urtean baino % 7,9 gutxiago, eta horren ondotik Gipuzkoa azaltzen da atzerriko 46.303 erroldaturekin (-% 0,8) eta Araba 26.610rekin (-% 6,1). Beraz, ikus dezakegu atzerriko biztanleria Araban eta, bereziki, Bizkaian jaitsi dela. Gipuzkoan, ordea, jaitsiera txikiagoa da.

Estatuari erreparatuz gero, etorkinen jaitsiera handiagoa izan da; izan ere, atzerriko biztanleriak 9 hamarreko galdu ditu, eta, egia esan, Euskadi izan da 2014. urtean etorkinen jaitsierarik txikiena izan duena (-% 5,3), nahiz eta autonomia-erkidego guzti-guztietan murriztu den. Euskadiren ondoren, Katalunia eta Murtzia azaltzen dira, -% 6,3 eta -% 6,8ko kopuruekin, hurrenez hurren. Jaitsierarik handienak honako erkidegoetan izan dira: Valentziako Erkidegoan (-% 15,2) eta Aragoin (-% 14,2).

Beste alde batetik, gero eta egokiagoa da atzerriko naziotasunari buruzko informazioa osatzea atzerrian jaiotako biztanleriaren gaineko informazioarekin; izan ere, horrek irudi argiagoa eskaintzen du Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duen atzerriko jatorriko etorkin-kolektiboaren inguruan. "Jaioterriaren" aldagaia aintzakotzat hartuz gero "naziotasunarena" hartu beharrean, ikus daiteke atzerriko jatorria duen biztanleria handiagoa dela, zehatzago 2014. urtean 40.000 pertsona inguru gehiago; horrek esan nahi du etorkinen ratioa erroldatutako biztanleriaren % 8,3koa dela, atzerriko naziotasuna duen biztanleriaren % 6,4ren aldean. Estatuan alde hori handiagoa da, bost milioi atzerritarretatik (% 10,7) atzerrian jaiotako sei milioitik gorako kopurura igarotzen baita (biztanleria osoaren % 13,2).

Naziotasuna kontuan hartuz, Euskadin presentziarik handiena dutenak honakoak dira: Latinoamerikako bost naziotasuna (Kolonbia, Nikaragua, Bolivia, Brasil eta Paraguai), Europar Batasuneko bi (Portugal eta Errumania), Magrebeko bi (Maroko eta Aljeria) eta Asiako bat (Txina). 2012tik Marokoko biztanleria Euskal Autonomia Erkidegoko atzerriko naziotasun nagusia da; izan ere, erroldatutakoak guztira 18.377 dira, EAEko atzerritar guztien % 13, hain zuzen ere. Bigarren nazionalitatea errumaniarra da, atzerritar guztien % 12,1, alegia.

Herritarrek fenomeno honen gainean duten jarrerari dagokionez, Ikuspegi- Immigrazioaren Euskal Behatokiak agerian jartzen du euskal herritarrek ez dutela arazo modura ikusten immigrazioa. 2013. urtean (eskuragarri dagoen azken datua) % 1,2k baino ez du aipatzen modu espontaneoan Euskal Autonomia Erkidegoko lehendabiziko arazo modura (% 2, 2012. urtean) eta aipamenak guztira % 7,2 baizik ez dira (% 11,6, 2012. urtean). Hiru erantzun espontaneoaren multzoan, immigrazioa zortzigarren tokian azaltzen da, langabeziaren (% 89,8), arazo ekonomikoen (% 26), klase politikoaren (% 21,9), ustelkeriaren eta iruzurraren (% 20,4), etxebizitzaren (% 13), pentsioen (% 10,3) eta segurtasunik ezaren (% 8) ondoren.

Beste alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten etorkinen bizi-baldintzei dagokienez, EAEren 2014ko *"Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestak"* nabarmentzen du pobreziaren molde desberdinen eragina oso desproportzionatua dela atzerriko pertsona bat buru duten etxebizitzetan bizi diren biztanleen artean eta, gainera, azken urteotan proportzio handiagoan handitu dela biztanle autoktonoen artean baino. Benetako pobrezia-tasa % 2,9tik % 4ra hazi da 2008tik 2014ra bitartean gure erkidegoan bizi den eta estatuko naziotasuna duen biztanleriaren artean; aitzitik, atzerriko biztanleen etxebizitzetan bizi direnen pobreziaren hazkundea % 27,7tik % 36,2ra igaro da. Eta tasa hori are handiagoa da Europar Batasunetik kanpo datozen pertsonen etxebizitzetan; horrela bada, 2008ko % 34,5etik 2012ko % 37,3ra eta 2014ko % 47,2 handitu da.

Beste gai bati helduz, Euskal Autonomia Erkidegoko familia-sistemek funtsezko aldaketak izan dituzte azken hamarkadetan, prozesu demografiko, sozial eta kulturalen ondorioz. Aldaketarik azpimarragarrienean artean, honako hauek aipa daitezke: etxebizitza-moten dibertsitate handiagoa, batez bestekoaren tamainaren jaitsiera, etxebizitza horietako erreferentziazko pertsonen profilean izandako aldaketa garrantzitsuak, etxebizitzetan dauden adin txikikoen proportzioaren jaitsiera eta mendekotasun-egoeren gehikuntza.

Aldaketak gorabehera, familiak zentraltasunari eusten dio pertsonen bizitzan. Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak egindako *"Familia EAEn"* azterlanak agerian jartzen du elkarrizketatutako pertsonen % 96ren iritziz familia oso edo nahiko garrantzitsua dela, bestelako alderdi batzuen gainetik, hala nola aisialdiaren (% 93), lagunen (% 92) edo lanaren (% 91) gainetik. Gainera, gehienen ustetan, familia aurreko etapetan bezain garrantzitsua da (elkarrizketatutakoen % 47) edo are garrantzitsuagoa (% 15). 2014ko datuak erabiliz, inkesta horretan nabarmentzen da elkarrizketatutako pertsonen % 97k adierazten duela oso edo nahiko pozik dagoela familiarekin, eta horixe da poztasunik handiena ematen duen bizi-alderdia; horren ondoren, honakoak azaltzen dira: aisialdia (% 84), osasuna (% 83), ikasketa-maila (% 81) eta lana (% 71).

Azken urteotan, familiaren instituzioak izandako aldaketek eta horiek ugalkortasun-tasetan izan duten inpaktuak gero eta interes publiko handiagoa izan dute, horrek dakartzan eraginak direla eta. Ugaltzeko eta laneratzeko adin aproposak bat datozenez gero, emakumezko gazteak egoera zailean daude, seme-alabak izateko erabakiari dagokionez. *"Familia EAEn"* azterlanak nabarmentzen du, zentzu horretan, 2014. urtean elkarrizketatutako pertsonen % 45ek uste duela ondorengoak izateak nahiko oztopatzen duela emakumezkoen karrera profesionala (% 47ren iritzia 2012an) eta % 22k uste duela "asko" oztopatzen duela (% 20ren iritzia 2012an). Aitzitik, gizonezkoen artean, galdetutako pertsonen % 14k baino ez du nahiko oztoporik edo oztopo askorik ikusten karrera profesionalean seme-alabak izateagatik (% 10en iritzia 2012. urtean egindako inkestan).

Era berean, EUSTATek *"Lana, Familia eta Norberaren Bizitza Uztartzeari buruzko Inkesta"* prestatzen du; galdetegiaren 2013ko emaitza erlatiboek nabarmentzen dute, lehenik eta behin, etxetik kanpo lan egiten duten

emakumezkoek egunero-egunero adin txikiko seme-alabak eta menpeko pertsonak zaintzeko % 50 ordu gehiago erabiltzen dituztela gizonezkoek baino.

Zentzu horretan, emakumezkoek lan ordaindua familiaren eremuarekin eta eremu pertsonalarekin uztartzeko zailtasun gutxiago sumatzen dituzte eta, horregatik, seme-alabak eta menpeko pertsonak zaintzeko denbora gehiago erabiltzen dute, gizonezkoek baino. Gizonezkoek 3,1 ordu erabiltzen dituzte egunean-egunean adin txikikoak zaintzeko (2012. urtean 2,9 ordu); emakumezkoek, ordea, 4,9 ordu (2012. urtean 4,6). Alde hori areagotzen da menpeko pertsonak zaintzeko lanak kontuan hartuz gero; izan ere, gizonezkoek 1,5 ordu erabiltzen dituzte egunero jarduera horri begira (2012. urtean 1,4 ordu) eta emakumezkoek 2,3 ordu (2012an 2,9).

Bere gain hartutako zametan dagoen desberdintasun horrek kostua dauka etxeko zereginak banatzeko asebetetze-mailari dagokionez; izan ere, emakumezkoek adierazten dute euren asebetetze-maila, batez beste, 5,8koa dela 10 punturen gainean ezkontideak edo bikotekideak etxeko zereginak egitean eskainitako lankidetzari buruz; gizonezkoek, ostera, 7,6ko asebetetze-maila azaltzen dute. Kontziliazioaren alde desberdinetarako erabilitako denborarekin batez beste dagoen asebetetze-mailaren indizean jartzen badugu arreta, adin txikiko seme-alabak zaintzeko denborarekin dagoen asebetetze-maila 6,4koa da eta handiagoa emakumezkoen artean (6,7 puntukoa emakumezkoen artean eta 6,1ekoa gizonezkoen artean). Asebetetze-maila murritzagoa da bai gizonezkoen bai emakumezkoen artean, menpeko pertsonak zaindu behar direnean (batez beste 5,8 puntukoa, eta ia-ia puntuazio bera bi sexuen artean). Bizitza pertsonalerako erabilgarri dagoen denborari dagokionez (aisialdia, ikasketak, gizarte-bizitza) batez besteko asebetetze-maila 5,8koa da, eta murritzagoa emakumezkoen artean (5,6) gizonezkoen artean baino (batez beste 6 puntu).

Enpresan edo organizazioan zenbait baimen eskatzeko zailtasun-mailari dagokionez, EUSTATeko inkestak agerian jartzen du lana duten pertsonek batez beste 3,4ko zailtasun-maila adierazten dutela 10 punturen gainean, eta 2,9koa lanean huts egin ahal izateko, gai partikularrak konpontze aldera. Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeko modua erraz dezaketen neurrien artean, lanaldiaren murrizketak 3,8ko batez besteko zailtasuna du; horren ondoren, eszedentziek, 3,7koa eta enplegurik eta soldatarik gabeko egunek 3,2koa, 10 punturen gainean. Oro har, ez da desberdintasun garrantzitsurik sumatzen sexuen artean; salbuespena da gizonezkoek adierazten dutela zailtasun gehiago dituztela lanaldiaren murrizketa eskatzeko (4,0 puntukoa; emakumezkoek, ostera, 3,6koa). Gainera, adinak, ziur aski lanpostuko antzinatasunari lotuak, aipatutako kontziliazio-neurriak lortzeko zailtasunak murrizten ditu.

Azaldutako egoera arintzeko asmoz, Eusko Jaurlaritzak 2002tik aurrera Familiei Laguntzeko Planak jarri zituen abian, betiere familiei seme-alaben kopurua libreki erabakitzea galarazten dieten ekonomia-, lan- eta gizarte-arloko oztopoak gainditzeko, eta Familiei Laguntzeko Legea onetsi zuen 2008an, familiaren aldeko politika integralerako markoari eta oinarriei lerrun juridiko handiagoa emateko eta, horrela, familien eta haien kideen ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzen ahalegintzeko. Familiei eskainitako zuzeneko laguntzak 2002. urtean hasi ziren, Familiari buruzko I. Plana abian jarri zenean. Ordutik eta 2012. urtera arte (eskuragarri dagoen azkeneko datua) laguntza horien gastu orokorra 500 milioi euro ingurukoa izan da; laguntzak erdibana banatu dira gutxi gorabehera jaiotzagatiko, adopzioagatiko edo adopzio aurretiko harreragatiko zuzeneko laguntzen eta kontziliaziorako laguntzen artean.

1.6. HEZKUNTZA ETA HEZKUNTZAREN SUSTAPENA

EUSTATen arabera, 364.518 ikaslek hasi zuten 2014/15 ikasturtea Euskal Autonomia Erkidegoan. Ikasle horiek guztiak unibertsitatez kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzan matrikulatu ziren (helduen hezkuntzan izan ezean). Datuak horrela, % 0,4ko hazkundea gertatu zen irakaskuntzan Hezkuntza Berezia aintzat hartuz gero eta % 1,5ekoa aintzat hartzen ez badugu.

Bigarren multzoari erreparatuta, hau da, Hezkuntza Berezia aintzat hartu gabe, hazkundearen arrazoi nagusia dugu matrikulen kopurua areagotzea beheko mailetan (EUSTATen datuen arabera, 2014/15 ikasturtean, 297.871 neska-mutil matrikulatu ziren (% 1eko igoera), Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko (DBHO) mailetan edo Irakaskuntza

Ertainetan, zeinetan matrikulazioa % 3,8 igo zen. Hala eta guztiz ere, beheko mailak bereizten baldin baditugu, konturatuko gara Haur Hezkuntzako matrikulazioa % 1,8 jaitsi dela.

2014/15 ikasturtean, irakaskuntza ertainetan ari diren ikasle guztietatik (65.411), 30.243 ikaslek, hau da, % 46,2k Batxilergoa aukeratu derrigorrezko irakaskuntza amaitu ostean, eta % 32,1ek goi-mailako Lanbide Heziketa. Guztira, ikasle guztien % 53,8k aukeratu zuten Lanbide Heziketa (goi-mailakoa edo erdi-mailakoa). Gainera, Lanbide Heziketa aukeratzen duten ikasleen ratioak goranzko joera dauka.

Azken Ikasturtean ere, hazkunderik handiena Lanbide Heziketan gertatu zen, bai goi-mailako LHn (% 5,1), bai erdi-mailako LHn (% 5,5). Batxilergoko ratioa ere igo zen, baina hein txikiagoan (% 2,1).

Ingurumari horretan, ezin dugu ahaztu Eusko Jaurlaritzak 2014. urtearen amaiera aldean onartu zuen *Lanbide Heziketaren IV. Plana 2014-2016*. Plan horren xede nagusia da Euskadiko gizon-emakume guztien laneratzea erraztea da, eta aldi berean, euskal ekoizpen-ehunaren lehiakortasuna ahalbidetzea merkatu globalean eta gizarte-kohesioa trinkotzea. Horretarako Lanbide Heziketaren euskal sistema eraldatu beharko litzateke enpresen beharrizanei egokiago eta bizkorrago erantzuteko epe laburrean eta luzean eta, bestetik, pertsonak laneratzeko eskakizunei hobeto erantzuteko. Planak bost esparru estrategiko, 9 helburu zehatz eta 20 lan-lerro jasotzen ditu.

Unibertsitate-irakaskuntzei dagokienez, 2012-13 ikasturtean, 67.551 ikasle matrikulatu ziren guztira Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateetan, hau da, aurreko urtean baino % 1,6 gehiago. Ikasle horietatik % 23,4 lehen eta bigarren zikloko ikasketetan matrikulatu ziren eta % 65 Europako Goi Mailako Esparrutik eratortzen diren graduko ikasketetan; bestetik, % 6,5 master ofizialak egin zituzten eta % 4,8 Doktoretza ikastaroetan matrikulatuta egon ziren.

Graduazio datuei dagokienez, esan behar da gradudunen kopurua % 5,7 igo zela, guztira 12.950 pertsona; gradudun guztietatik, % 56 emakumeak izan ziren.

Ikasketa-motari gagozkiola, 6.661 ikasle lehen eta bigarren zikloetan aritu ziren (-% 24,2 aurreko ikasturtearen aldean), 3.333 graduetan aritu ziren, 2.546 master ofizialetan (% 7,8ko hazkundea) eta 500 ikasle doktore graduatu ziren (% 18,5eko hazkundea).

Lehen eta bigarren zikloetako ikasketak direla eta (izan ere, gradu-ikasketak orain dela gutxi ezarri direnez, ezin azterketa fidagarririk egin), unibertsitatean aritutako ikasle gehienak Gizarte Zientzia eta Zientzia Juridikoetan (% 48,3) espezializatu ziren; bigarrenez, Irakaskuntza Teknikoetan aritu ziren (% 30,3). Hein txikiagoan (% 10,9) Giza Zientzietan, Osasun Zientzietan (% 5,7) eta Zientzia Esperimentaletan (% 4,8).

Testuinguru horretan, nabarmen nahi dugu 2015-2018 Unibertsitate Plana onartu dela. Plan horren bidez, Eusko Jaurlaritzak bere erronkei heldu eta Euskal Unibertsitate Sistemari atxikitako unibertsitateak bereizteko ahaleginak egingo ditu, eskaintzaren ikuspegitik. Horren haritik, neurriak bultzatuko ditu sistema bera indartzeko eta jarraipenari nahiz ebaluazioari lotutako tresnak sendotzeko, Euskal Unibertsitate Sistemaren nazioarteko hedapena sustatuko du eta herriak dituen lehentasunei erantzungo die. Eta hori guztia egiteko, nazioarteko kalitate-adierazleak baliatuko ditu. Izan ere, planaren xedea hauxe da: "Euskal gizarteak goi-mailako prestakuntzaren inguruan dituen premiei eredu propio batez erantzutea eta, horretarako, kalitateko zerbitzu-eskaintza inklusibo, iraunkor eta dinamikoa bermatzea eta Euskadiko erronka sozial, akademiko, kultural eta ekonomikoei aurre egiten lagunduko duen bikaintasun-ikerketa eta horren transferentzia egitea".

Hezkuntza-adierazleei dagokienez[6], ondokoak proposatzen dira:

- Eskolatze-tasa garbia. 2 eta 17 urteko adin esanguratsuen gaineko eskolatze-tasa garbiak autonomia-erkidegoen arabera aztertuta, ondoriozta daiteke Euskal Autonomia Erkidegoak bazeukala ratiorik handiena autonomia-

6 Hezkuntza-adierazleen bilakaeraren laburpena egin da ondoko erreferentziak iturri nagusitzat erabilita:
- Hezkuntzaren egoera. 2014ko ELGAko adierazleak.
- EUSTAT erakundearen Irakaskuntzaren estatistika.
- Hezkuntzaren kopuruak Espainian, Hezkuntza eta Zientziaren Ministerioarenak.
Zehatzago aztertu nahi bada, irakurri dagokion atala memoria honen barruan.

erkidego guztietan 2012-13 ikasturtean. Hain zuzen ere, 2 urteko adina aintzat hartuta, EAEko ratioa % 92,4koa izan zen EAEn; gure erkidegoaren ondotik, Madril (% 67,4), Galizia (% 61,9) eta Kantabria (% 59,4) egon ziren; 17 urteko adina aintzat hartuta, berriz, eskolatze-ratioa % 98,2koa izan zen, eta gurearen ondotik, Andaluzia (% 97,5), Galizia (% 93) eta Gaztela eta Leon (% 92,9) egon ziren.

- Helduen (25-64 urte) ikasketa-maila. Herrialdekako azterketari erreparatuta, Portugal, Espainia, Italia eta Grezia ditugu Bigarren Hezkuntza gainditu duten 25 eta 64 urte arteko biztanleriaren ehuneko txikiena duten herrialdeak: Portugal (% 40), Espainia (% 55,6), Italia (% 58,2), Grezia (% 70), Frantzia (% 70,4 eta Belgika (%72,7).

  Hezkuntza, Kultur eta Kirol Ministerioaren arabera, 2013. urtean, aipatutako ratioa % 55,4koa zen estatuan. EAEko ratioa % 68,1ekoa izan zen urte horretan, estatukoa baino hobea, baina ereduzko herrialdeetako ratiotik urrun zegoen.

- Ikaskuntza iraunkorreko parte-hartzea. Europar Batasunaren helburuetako jarraiki, 2020. urtean, 25 eta 64 urte arteko helduen % 15ek, gutxienez, ikaskuntza iraunkorreko jardueraren batean parte hartu beharko du. EUROSTAT erakundearen arabera, 2013. urtean, EB28an heziketa iraunkorreko ikastaroetan parte hartu zuten pertsonen batez bestekoa % 10,5ekoa izan zen; Espainian, berriz, % 11,1ekoa. Autonomia erkidegoetan, EAEk (% 13,4%) izan zuen ratiorik handiena, gero Madrilek (% 13,3), Nafarroak (% 13) eta Valentziak (% 12,9).

- Hezkuntza, Kultur eta Kirol Ministerioak argitaratutako azken datuen arabera (2012. urtekoak), Hezkuntza Administrazioek % 4,05eko gastua gauzatu zuten EAEn BPGren gainean. Gastu horren % 3,17 unibertsitatez kanpoko hezkuntzan gauzatu zen eta % 0,75 unibertsitate-hezkuntzan. Estatuan, berriz, % 3,82ko gastua gauzatu zen (% 2,8 unibertsitatez kanpoko hezkuntzan eta % 0,87 unibertsitate-hezkuntzan).

  Ministerioak dioenez, unibertsitatez kanpoko hezkuntzaren arloan, lanerako prestakuntza alde batera utzita, 6.572 euro gastatu ziren Euskal Autonomia Erkidegoan 2012. urtean ikasle bakoitzeko (hezkuntza publikoan eta itundutakoan). Hori horrela, gure erkidegoa da ikasleko gasturik handiena gauzatu zuena. Estatuko batez bestekoa 4.729 eurokoa izan zen.

  2013. urtean, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren gastua 2.697,7 milioi eurokoa izan zen. Hortaz, aurreko ekitaldian baino % 2,8 gehiago gastatu zuen. Gastu hori EAEko BPGren % 4,1ekoa da, 2012an egindako gastuaren antzekoa.

  2014ko aurrekontuetan, aipatutako sailaren gastua jasotzen zuen partida 2.765 milioi eurokoa izan zen. Hortaz, gastuaren kopuruak % 2,5eko igoera izan zuen aurreko ekitaldian likidatutako gastuaren aldean. 2014ko gastua EAEko % 4,1ekoa izan zen BPGren gainean; hori horrela, eutsi egin zion 2013ko eta 2012ko ekitaldietako kopuruei.

- Ikasleen adinaren egokitasuna. 2012-13 ikasturtean, estatuko 8 urteko ikasle guztien % 93,6 Lehen Hezkuntza hirugarren mailan matrikulatuta zeuden, hau da, adin horri dagokion mailan. 10 urteko ikasleei dagokienez, berriz, Lehen Hezkuntzako 5. mailan matrikulatuta zeuden ikasleen tasa txikiagoa zen, ehuneko 4,2 puntu (% 89,4), hain zuzen ere. DBH ikasteko adinari gagozkiola, egokitasun-tasak txikiagoak izan ziren adinean nagusitu ahala. Hala, 12 urteko ikasle guztien % 84,4k ikasten zuen DBHko lehen mailan; 14 urteko ikasle guztien % 70,6k ikasten zuen hirugarren mailan; eta 15 urteko neska-mutilen % 62,5 matrikulatuta zegoen laugarren mailan.

  Aztertutako adin guztietan, Kataluniakoa izan zen egokitasun-tasarik onena eta EAEn gero eta egoera hobea zegoen adin teorikoak aurrera egin ahala.

- Eskola-uzte goiztiarra. Euskal Autonomia Erkidegoko tasa gutxitzen joan da denbora igaro ahala eta, 2013. urtean, % 9,9ko zen. Horrek esan nahi du gure erkidegoan Europako helburua (% 10etik behera) lortu dela. Estatuan, berriz, uzte-tasa % 23,6koa izan zen, Europako helburuaren eta EB28 osatzen duten herrialdeetako ratioaren (% 12) oso gainetik.

Datuek erakusten digutenez, Europako helburua lor daiteke gure erkidegoan nesken bilakaera onari esker, % 7,3ko uzte-tasa izan zutela; mutilek, berriz, % 12,4ko tasa izan zuten eskola-uzteari dagokionez eta, beraz, 2,4 puntu ibili ziren % 10eko helburutik gora.

- Zientzia eta Teknologiako goi-mailako hezkuntzan graduatutakoak 1.000 biztanleko, 20-29 urtekoak. EUROSTAT erakundearen datuei jarraiki, Espainiako ratioa azken urteotan hobetzen joan den arren —2012. urtean, milako 15,6koa zen— EB28ko batez bestekoaren azpikoa zen (milako 17,1) eta Lituania (milako 23), Irlanda (milako 22,5), Finlandia (milako 21,7), Erresuma Batua (milako 19,8), Frantzia (milako 20,2, 2008an) eta Portugal (milako 19,4) herrialdeetako ratioetatik oso urrun.

  Beste alde batetik, 2011-12 ikasturtean, gure erkidegoak milako 24ko ratioa zeukan. Unibertsitatez kanpoko eta unibertsitateko hezkuntza bereizita, esan behar da unibertsitatez kanpoko ikasketetan graduatutako pertsonen kopurua (goi-mailako heziketa-zikloak egindakoak) milako 6,9koa zen eta bigarrenen kopurua milako 17,1ekoa. Estatuko batez bestekoak, berriz, honakoak ziren: milako 2,8 eta milako 13.

- Biztanle gazteen heziketa-maila (gutxienez, Bigarren Hezkuntzako 2. zikloa bete duen 20-24 urteko biztanleriaren ehunekoa). EB28ko ehunekoak goranzko bilakaera izan du eta, horrela, 2013. urtean, % 81ekoa izan zen, hau da, Espainiako estatuko ehunekoa (% 63,8) baino handiagoa eta EAEko ehunekoaren (% 83,2) antzekoa.

Estatuari dagokionez, esan beharra dago ratioaren balioa hobetu dela denboraren poderioz, baina oraindik ere txikiena da Estatu kide guztien artean, generoa gorabehera.

1.7. EAEko NATUR INGURUNEAREN EGOERA

Airearen kalitatea, Eusko Jaurlaritzak 2013an emandako informazioaren arabera, nabarmen hobetu da azken urteotan EAEn, eta eskuragarri ditugun datuek erakusten dutenez, gaur egun, kalitate onekoa da, edo gutxienez onargarria.

Klima aldaketaren eta negutegi efektuko gasen isurien (NEG) arloan, "*Negutegi efektuko gasen isurien inbentarioak*" (NEG isuriak) emandako datuek erakusten dutenez, NEG isuriek (zuzenean edo zeharka, hots, inportaturiko elektrizitatearekin loturikoak barne), CO2-baliokideetan neurtuak, %1,8 egin dute gora 2011 eta 2012 bitartean. Gehikuntza horren zatirik handiena zerbitzu, garraio eta etxebizitzetako sektoreetako isurien igoeragatik gertatu da. 2009 eta 2012 bitartean % 7,1 jaitsi dira.

VI.1.6. KOADROA. ADIERAZLE NAGUSIAK

	2008 edo 2009	2012 edo 2013
Airearen kalitate ona edo onargarria izan deneko egunen ratioa	96,8	99,2
Negutegi efektuko gasen isuriak	108,2	101,1
Banaketako sare publikoan galdutako uraren %	17,8	12,6
Industriek ingurumena babesteko eginiko gastua eta inbertsioa BPGren gainean	0,32	0,31

Iturria: Eusko Jaurlaritza eta EIN

Ur-masen kalitateari dagokionez, EAEk Uraren Euskal Sareak emandako datuen arabera, EAEko lurrazaleko ur-masen kalitatea hobetuz doa pixkanaka 2013. urtean ere, baina oraindik ez da nahikotzat hartzen ingurumeneko helburuen betetze maila.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Osasuneko Zuzendaritzaren datuen arabera, aurreko urteetan bezala, uren kalitate bikaina izatea da 2013an EAEko bainurako eremuen ezaugarri nagusia.

Kontsumoko urak direla-eta, EINek eginiko "*Uraren hornidurari eta tratamenduari buruzko inkesta*"-ren arabera, 172,6 Hm^3 da EAEn hornidura publikorako erregistraturiko eta banaturiko ur bolumena, hots, aurreko urtean baino %4,5 gehiago. 154,9 Hm^3 ur horretatik, 92,5 Hm^3 (guztizkoaren %59,7) etxeetan ura hornitzeko erabiltzen da; 41,6 Hm^3 (%26,9) sektore ekonomikoetarako (industria, zerbitzuak eta abeltzaintza); eta 20,8 Hm^3 (%13,4) udal kontsumoetarako (lorategiak ureztatzea, kaleetan ura botatzea eta beste erabilera batzuk). Erregistratu gabeko ura, itxurazko galeretan (neurketako akatsak, iruzurrak eta gutxi gorabeherako kontsumoak) eta benetako galeretan (ihesak, hausturak eta

matxurak saneamendu sarean) bereizten dira. Azken horiek ur baliagarri guztiaren %12,6 izan ziren 2012an, 2011n izandakoa baino askoz gutxiago (%23,8).

EAEko uraren per capita kontsumoa berriz ere da Estatuko batez bestekoa baino txikiagoa, 119 litro/biztanle/egun (137 litro Estatuan), baina %1,7ko igoera ageri da 2011 eta 2012 bitartean. Bestalde, uraren aleko balioa, 1,36 euro/m^3, aurreko urtean baino gehiago. Estatuan batez besteko prezioa handiagoa da, hots, 1,73 euro/m^3.

Hondakinen sorkuntzaren eta kudeaketaren arloan, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politikarako Sailaren datuen arabera, 2011 eta 2012 bitartean behera egin du kudeaturiko hondakin arriskutsuen eta ez arriskutsuen kopuruak; %9 lehenbizikoetan eta %7,5 bigarrenetan.

Hala, guztira 299.089 Tm hondakin arriskutsu kudeatu ziren 2012an, eta 2.667.928 Tm hondakin ez arriskutsu.

Hiriko hondakinei dagokienez, EINen "*Hiriko hondakinen bilketari eta tratamenduari buruzko inkestak*" agerian uzten duenez, hiriko hondakinak kudeatzen dituzten enpresek, 2012an, 1,1milioi Tm hiriko hondakin bildu zituzten, aurreko urtean baino %4,8 gehiago.

Bukatzeko, EINek eginiko "***Industri enpresek ingurumena babesteko eginiko gastuari buruzko inkesta"*** deritzonaren azken datuek erakusten dutenez, gastu hori (ohiko gastua eta inbertsioa) %2,9 handitu da 2012an 2011ren aldean. Gastua BPGaren ehuneko gisa neurtuta ikusten denez, igoera ageri da 2012an 2011ren aldean, eta %0,31n kokatu da. Hala, EAEk bosgarren tokia zuen 2012an, Nafarroaren (%0,39), Asturiasen (%0,34), Kantabriaren eta Gaztela Mantxaren (bietan %0,33) atzetik.

1.8. BIZI BALDINTZAK EAEn

Hasteko eta bat, "Statistics on income and living conditions" (EB-SILC) izeneko Errenta eta Bizi-baldintzei buruzko Europar Batasuneko estatistiken bateratze-prozeduraren barruko "Bizi-baldintzei buruzko Inkestak", Estatistikako Institutu Nazionalarenak, argiro erakusten du EAEko familien bizi-baldintzek okerrera egin dutela azken boladan, zailtasun materialen eta gabezien gaineko datuen arabera. Hala eta guztiz ere, egoera ez da estatuan eta Europan bezain txarra:

- Galdetutakoen % 24,2k (2013ko behin betiko datuak) aitortzen dute ezin izango zietela aurre egin ustekabeko gastuei, hau da, 2012an baino 4,4 gehiagok (Europar Batasunean, gabezia horrek familien % 39,7ri eragiten die eta Espainiako tasa % 40tik gorakoa da, nahiz eta azken urtean zerbait jaitsi den).

- Ohiko etxebizitzaren ordainketan atzerapenak izaten dituzten familien kopurua hazi da eta, azken urtean, % 3,2tik % 5era igaro da (Espainiako estatuan, tasa % 9tik gorakoa da eta gorantz bilakatzen ari da).

- Hilaren amaierara behar bezala heltzeko familien kopurua % 50,3koa izan zen; urtebetean, ehuneko 11 puntu hazi da, eta Estatuan, gabezia horrek familia guztien % 67ri eragiten die.

- Urtean, astebetean oporretan joan ezin diren familien ratioa, 2012 eta 2013 urteen artean, % 23,5etik % 26ra bilakatu zen (Espainian, batez bestekoa % 45,8koa izan zen).

Beste alde batetik, Eusko Jaurlaritzak "Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestaren" (PGDI) datuak eguneratu zituen 2014an. Inkesta horrek pobreziaren bilakaera erakusten digu gure autonomia-erkidegoan eta pobreziari eragiten dioten arrisku-faktoreak eta horien banaketa azaltzen ditu. Inkestaren emaitza nagusia hauxe dugu: Pobrezia eta kolokatasun-egoerak gora doaz pixkanaka-pixkanaka Euskal Autonomia Erkidegoan, eta gero eta pertsona gehiagori eragiten diete, sei urtetik gorako krisialdi ekonomikoa pairatzen egon ondoren:

- Biziraupen-pobrezia izateko arriskuari dagokionez[7], PGDIko adierazleen arabera, pobrezia-mota horrek eragindako pertsonen kopurua ehuneko 2,5 igo zen 2008 eta 2014 urteen artean. Hala, 2008. urtean, % 5,7koa izan zen; 2012an, % 7,3koa; eta 2014an, % 8,2koa. Ongizatearen gabezia pairatzeko arriskuari gagozkiola (gurea bezalako gizarte batean dagoen gutxieneko ongizate-mailari eusteko beharrezkoak diren gastu-beharrizanei lotutakoa), esan behar da 5,5 puntu hazi zela, eta % 16,4tik (2008an), % 19,9ra (2012an) eta % 21,9ra igaro zen (2014an). Biziraupen-pobreziaren tamaina dela eta, ezin da esan 2014. urtean balio historiko handiena izan zuenik, baina nabarmendu behar da Euskal Autonomia Erkidegoan 90eko hamarkadaren amaieratik aurrera ez dela izan hainbesteko biziraupen-pobreziarik.
- 2014an, oso esanguratsua izan zen metatze-pobreziaren adierazlearen hazkundea. Adierazle hori bi auzirekin lotuta dago: epe ertain eta luzean bizi-baldintza onargarriak finkatzeko ahalmen ezarekin eta erreserbako gutxieneko ondarea izatearekin, ezohiko gastu-beharrizanei edo diru-sarreren gabeziari aurre egiteko. 2012. urtera arte, adierazle honek behera egin ohi zuen era mailakatuan, baina 2014. urtean, hazi zen eta biztanleriaren % 2ri eragin zien (biztanleriaren % 20ri, ongizate ezari lotutako egoerak aintzat hartzen badira metatze-pobreziaren ikuspegitik).
- Dena dela, arazoek eta arrisku-egoerek ez dutenez zuzenean islatzen pobreziaren edo kolokatasunaren egiazko bizipenean, PGDIk azterlana osatzen du benetako pobreziaren inguruko adierazlea txertaturik; hala, hainbat alderditara ohitu arren, beste alderdi batzuetako gabeziei aurre egin ezin dieten egoerak identifikatu ditu. Horrela, bada, azaldutako egoeren emaitzak diosku benetako pobreziaren egoerak hazi egin direla eta biztanleriaren % 5,9ri eragiten dietela, gutxi gorabehera, 127.000 pertsonari, 2008. urtean baino % 42 gehiagori. Era berean, pobrezia-mota honen ikuspegia aintzat hartuta, ongizatearen gabeziak Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren % 11,5i eragiten die, hau da, ia-ia 250.000 pertsonari.

Bilakaera hori gorabehera, kontuan hartu behar da EAEko errenta- eta ongizate-mailak Estatuko batez besteko mailen gainetik daudela (gainera, desberdintasun handiak daude batez besteko errentei dagokienez eta inkestan aztertutako zailtasun material eta gabezien gaineko adierazleei dagokienez) eta oso egoera onean Europako testuingurua aintzat hartuta:

VI.1.7. KOADROA. BIZI-BALDINTZAK EAEn. "EUROPA 2020" ERREFERENTZIAZKO ADIERAZLEAK

	EAE		ESTATUA	EB28
	2009	2013	2013	2013
"AROPE" TASA	14,8	16,8	27,3	24,5
- Pobreziaren atalasetik behera bizi den biztanleriaren % (% 60 ertaina)	10,0	10,5	20,4	16,7
- Materialen gabezia larria	3,4	4,8	6,2	9,6
- Laneko intentsitate apala	5,5	13,0	15,7	10,7

Iturriak: EUROSTAT eta INE.

- Bizi-baldintzei buruzko 2013ko inkestaren arabera[8] , aurreko urtean, familia bakoitzak 34.487 euroko errenta izan zuen Euskal Autonomia Erkidegoan, hau da, Estatuko batez besteko errentaren aldean (26.775 euro), % 28,8 gehiago. EAEko datua lehenengoa da Estatuan, eta bigarrena Nafarroako Foru Erkidegokoa. Gainera, inkesta horren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko batez besteko errenta 14.320 eurokoa izan zen pertsona bakoitzeko, berriro ere lehena, eta Nafarroakoa bigarrena, Estatuko batez besteko errenta baino % 36,1 handiagoa.
- Beste alde batetik, EUROSTAT erakundearen arabera, pobreziak eta bazterkeria-arriskuak 122,7 milioi pertsonari eragiten die Europar Batasunean (biztanleriaren % 24,8ri, 2013. urtean), Europa 2020 Estrategiaren irizpideak kontuan hartuta. Espainian, ratio hori % 27,3koa da eta EAEn % 16,8koa (gutxi gorabehera, 370.000 pertsona). Euskadin ratioa gutxitu da, ia-ia puntu bat aurreko urteko ratioaren aldean.

Gai honi jarraituz, krisialdiak bizi-baldintzei sorrarazten dien ondorioetako bat dugu etxebizitza galtzen duten familien kopuruaren hazkundea, ordainketei ezin aurre eginda, hipoteka ordaintzen ez dutelako edo alokairu-saria ordaintzen ez dutelako. Ildo horretan, hipoteken betearazpen-kopuruaren bilakaerak eta haietatik eratortzen diren epaile-aginduen kopuruak gertakizun latz horren gaineko informazioa ematen digute.

7 Biziraupen-pobreziaren testuinguruan, pobrezia jasateko arrisku-egoerak, oinarrizko beharrak (elikadura, etxebizitza, jantziak eta oinetakoak) asetzeko behar adina diru-sarrera ez izatearekin lotzen dira. Beste alde batetik, ongizatea ez izateko arriskua, hau da, oinarrizko beharrak asetzeaz harago gizarte jakin batean espero diren ongizatearen eta erosotasunaren gutxieneko mailei eusteko beharrezko gastuei aurre egiteko behar adina diru-sarrera ez izatearekin lotzen da.

8 Inkestan aurten egindako metodologia-aldaketek ez dute aukerarik ematen errenta-mailak eta aurreko urteetako datuak erkatzeko.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Behatokiaren arabera, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren datuak baliatuta, 2013. urtean, 817 hipoteka-betearazpen gauzatu ziren guztira EAEn (etxebizitzen eta beste ondasun batzuenak). Kopuru hori % 23 jaitsi zen aurreko urtekoaren aldean eta, hortaz, krisialdiaren aurreko egoerara itzuli ginen. Izan ere, 2010. urtetik hona beheranzko joera hartu dute halako prozedurek, betearazpen-kopuru handiena 2009ko ekitaldian izan ostean. Bilakaera hori hobea da gure erkidegoan Estatu osoan baino, nahiz eta bigarrenean ere hipoteka-betearazpenen kopurua gutxituz joan den, kopuru apalagoetan izan bada ere (azken urtean, -% 23 -% 9,8ren aldean).

Estatistikako Institutu Nazionalaren Hipoteka Betearazpenen Estatistika berriaren arabera, alde batetik, badakigu Euskadin gauzatzen diren betearazpen guztien % 43 etxebizitzei lotuta daudela (% 32 pertsona fisikoena eta % 11 pertsona juridikoena); horietatik, betearazpenen % 7,9 etxebizitza berrienak dira eta % 92,1 etxebizitza erabilienak (2014ko behin-behineko datuak).

Krisialdiaren beste ondorioetako bat dugu pobrezia energetikoaren igoera. Pobrezia-mota hori, duela urte gutxira arte, ez zen batere ohikoa Euskadiko bizi-baldintzetan, ezta Estatukoetan ere, baina horren eragina areagotu egin da azken urteotan krisialdiaren ondorio gisa, errentak murriztu direlako eta faktura energetikoa garestitu delako. Familia batek pobrezi energetikoaren egoeran dagoela esaten dugu etxeko beharrizanei erantzuteko beharrezko den energia kantitatea ezin ordain dezakeenean eta/edo sarreren zati handiegia erabili behar duenean etxebizitzako faktura energetikoa ordaintzeko.

Lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzaren PGDIren arabera, 2014. urtean, euskal biztanleen % 11k aitortu zuten zailtasunak zituztela etxeko tenperatura egokiari eusteko, guztira, 237.000 pertsonak baino gehiagok. Datu horrek badakar % 31,8ko hazkundea 2012ko inkestako datuen aldean, eta +% 168,1eko igoera krisialdiaren aurreko datuen aldean (2008an, proportzioa % 4,1ekoa zen).

Europan, EUROSTAT erakundearen arabera, 2013. urtean, etxeko tenperatura egokiari eusteko ezintasunaren eragina EAEko eraginaren antzekoa zen (ohartu behar dugu eragin hori neurtzeko bi eragiketa estatistiko desberdin erabiltzen dira): arazo horrek biztanleriaren % 10,8ri eragiten die, eta tasa hori nahikoa egonkorra izan da azken urteotan. Iturri horri jarraiki, arazoak Espainiako biztanleriaren % 8ri eragiten zion 2013. urtean, baina auzi honen gaineko balioak oso aldakorrak dira, esate baterako, % 44,9 Bulgarian, % 30,5 Zipren edo % 1 inguru herrialde nordikoetan (Finlandia eta Suedia).

Era berean, pobrezia energetikoaren adierazletzat hartu da familiaren guztizko errentaren % 10 baino gehiago etxeko energia-gastua finantzatzeko erabili behar duten familien ehunekoa. 2012. urtean, Estatistikako Institutu Nazionalaren Familia Aurrekontuen Inkestako datuen arabera, aipatutako egoerak euskal familien % 8ri eragiten zien (2011ko ratio berdina, baina 2007ko ratioaren bikoitza baino gehiago); Estatuan, berriz, familien % 16,6ri eragiten zien batez beste (aurreko urtean baino ehuneko 1,6 puntu gehiago eta 2007an baino ehuneko 10 puntu gehiago). Autonomia-erkidegoetan, EAEk tasarik txikiena izan zuen 2012an, Kanariek bigarrena (% 9), eta eraginik handiena Gaztela-Mantxak (familia guztien % 35 eraginda) eta Gaztela eta Leonek (familia guztien % 25etik gora eraginda) pairatu zuten.

Gaia aldatuta, herrialde aurreratuenen gizarte- eta demografia-gertaerarik bereizgarrienetakoa dugu biztanleen zahartzea azken hamarkadetan. Gertaera horren eraginez, adin-piramidea nabarmen zabaltzen da goialdean eta, horren ondorioz, gazteriari dagokion adin-taldeak pisu erlatibo esanguratsua galdu du. Orain dela 100 urte, biztanleriaren erdia 24 urtetik beherakoa zen eta batez besteko adina 28 urtekoa zen. Gaur egun, ordea, euskal biztanleen batez besteko adina 40 urte ingurukoa da. Hain zuzen ere, biztanle gazteen garrantziaren galera ohiko gertaera da Europar Batasunean, baina kezkagarriagoa da Estatuan eta Euskal Autonomia Erkidegoan beste herrialde batzuetan baino. Azken bost urteotan, 15-29 urteko adin-tartearen garrantzi erlatiboa % 19,3tik % 17,9ra jaitsi da EB28an; % 19,3 % 16,1era Estatuan; eta 16,4tik % 13,7ra. EAEko tasa, gaur egun, 300.000 pertsona ingurukoa da.

Ikasketa-mailari dagokionez, 25 eta 34 urte arteko adina daukaten euskal gazteen % 51 goi-mailako ikasketen jabe ziren 2013. urtean, LHII-koak edo unibertsitate-ikasketak. Gazteen % 40k Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko

ikasketak eginda zituzten eta gainerakoek, % 9k, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasketak gaindituta zituzten. Gainera, gazteen ikasketa-maila, nagusiki, gurasoena baino handiagoa da.

Lan-merkatuari gagozkiola, gazteak ditugu, alde handiz, langabezia-tasarik handiena jasaten dutenak; gazteen langabezia-tasa haziz Joan da 2007tik aurrera, eta 2013. urtean % 39tik gorakoa zen (25 urtetik gorakoentzat), EUSTAT erakundearen Biztanleria Jardueraren Arabera (BJA) delako estatistikari jarraiki. 2014ko batez bestekoak, % 37,3k, joera-aldaketa iradokitzen du, eta horren ondorioz, badirudi enplegua apurka-apurka berreskuratzen hasiko dela. Gainera, bilakaera hori gertaera arrunta da Europan (abiadura motelagoz, baina) eta bereziki oldarkorra izan zen Espainian, gazteen langabezia-tasa % 55etik gorakoa izan baitzen 2013an, baina enplegua berreskuratzen hasi zen azken urtean.

Gazteak horien enpleguaren ezaugarriak aztertuta, Gazteriaren Behatokiaren arabera, 2013. urtean, lanean zeuden 34 urtetik beherakoen (horixe da gazteriaren azterketari ekiteko gero eta gehiagotan kontuan hartzen den adin-atalasea) % 72,9k lansaio osoan jarduten zuen, baina lansaio partziala % 24,5etik (2011n) % 27ra igo zen. Egoera hori askoz ohikoagoa da emakumeen artean (% 37), gizonetan baino (% 16,9). Lansaio osoko lana aurkitzeko zailtasuna da egoera horren arrazoi nagusia kasu guztien % 62,6. Familia-betekizunek hein handiagoan baldintzatzen dituzte emakumeak (% 10,9) gizonak baino (% 1,1) lansaio partzialean jarduteko erabakia hartzerakoan (batez beste, kasuen % 7,8).

2103an aitortutako batez besteko lansari garbia 1.113,15 eurokoa izan zen hilean eta ez zuen aldaketarik izan 2011. urtetik. Lansaio partzialean aritzen zirenen batez besteko soldata 671,40 eurokoa izan zen eta lansaio osoko enplegua zeukatenena 1.280,50 eurokoa hilean. Emakumeek, batez beste gizonek baino 200 gutxiago irabazten zituzten.

Langabeziak eragin handiagoa izan zuen 34 urtetik beherakoetan (% 26,6) emakumeetan baino (% 18,6); 2013. urtean, tasa % 22,7koa izan zen kolektibo osoarentzat. Gainera, zenbat eta ikasketa-maila handiagoa izan, orduan eta langabezia-tasa txikiagoa, baina 2011 eta 2013 urteen artean, langabezia-tasa erdi-mailako edo goi-mailako ikasketen jabeen artean ere areagotu zen: derrigorrezko hezkuntza bete dutenen langabezia-tasa % 32,3koa izan zen (2011. urteko ratio berdina); erdi-mailako eta goi-mailako ikasketak dituztenen langabezia-tasa % 24,4koa eta % 19,1ekoa izan zen, hurrenez hurren (2011n, aipatutakoen arteko langabezia-tasa % 17,4koa eta % 13koa izan zen, hurrenez hurren).

Langabezian emandako denboraren iraupenari dagokionez, langabezian zeuden 34 urtetik beherako 10etik 4 urtebete baino gehiago eman zuten langabezian (% 43,5). Gainera, iraupen luzeko langabeziak sarriago eragin zien gizonezkoei (% 49,4) emakumezkoei baino (% 34,7) eta derrigorrezko eta erdi-mailako ikasketak zituztenei (% 48,2) goi-mailako ikasketak zituztenei baino (% 35,7). Gainera, langabezian egon ziren gehienek ez zuten langabeziagatiko prestaziorik jasotzen (% 73,1).

Etxebizitza dela eta, 2013an 18 eta 34 urte arteko adina zuten gazteak (gazteen erdia baino zerbait gutxiago, % 48,1) emantzipatuta bizi ziren. Gainera, emantzipazioa ohikoagoa da emakumeen artean (% 54,5) gizonen artean baino (% 42). Talde horretako nagusienen artean, hau da, 30 urtetik gorakoen artean, gazteen % 20 gurasoekin bizi ziren. Gazteak, batez beste, 30 urtean emantzipatzen dira, hau da, galdetutako gazteen iritziz emantzipatzeko adin egokiena denetik (24 urte) 6 urtera eta Europar Batasunean emantzipatzeko batez besteko adinetik (26,1 urtekoa) 4 urtera. Europar Batasunaren esparruan, emantzipatzeko batez besteko adina oso aldakorra da: Suedian, esate baterako, 19,9 urtekoa da eta Kroazian, ostera, 32,7 urtekoa. Espainian, batez bestekoa 28,9 urtekoa da (EUROSTAT erakundearen 2013ko datuak).

Gazteek beraiek diotenez, galdetutako lautik hiruk aipatzen dutela, emantzipatzeko zailtasunik handiena etxebizitzen prezio garestia da. Gehienen iritziz, etxebizitza eskuratzeko zailtasun handienetakoak diru-sarrera nahikorik ez izatea (% 66,5) eta kredituak eskuratu ahal izatea (% 66) dira. Horren ondorioz, alokairu bidezko emantzipazioa igo egin da azken urteotan eta, 2013. urtean, jabetza bidezko emantzipazioari gailendu zitzaion, nahiz eta bigarrena ohikoena izan zen 2011. urtera arte: 2013an, gazteen % 49,4 alokairuan bizi ziren; % 43,5, berriz, jabetzan eskuratutako etxebizitza batean; eta gainerako % 6,1 beste moduren batean: doan lagatako etxebizitzetan, enpresa-etxebizitzetan… Gainera, babes ofizialeko etxebizitza batean (alokatutakoa nahiz erositakoa) bizi diren gazteen ehunekoa igo da azken

urteotan, % 9,9tik (2011n) % 15,8ra (2013an). 2011 eta 2013 urteen artean, nabarmen hazi zen gizarte-alokairua eta % 3tik % 7,7ra igaro zen. Jabetzan eskuratutako etxebizitza babestuen kopurua ere hazi zen, % 6,9tik % 8,1era.

Etxebizitza librea erosita, bakarrean emantzipatu nahi izango lukeen lansaridun gazte batek, gaur egun, hileko soldata garbiaren % 68,2 erabili beharko luke hipotekaren lehen hileko kuota ordaintzeko. Bestalde, merkatu librean alokatzeko aukera ere nahikoa garestia da bakarrean emantzipatu nahi duen pertsona batentzat: alokairuko etxebizitza librea eskuratzeko kostua hileko soldata garbiaren % 59koa izan zen 2013an.

2014ko "*Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestan*" esaten denez, azkenik, azpimarratu behar dugu gaur egungo pobrezia- eta kolokatasun-egoerek bereziki eragiten dietela gazteenei, bereizkeria-mota guztiak kontuan hartuta. Horrela, biziraupen-pobreziaren tasa (oinarri-oinarrizko beharrizanei erantzuteko diru-sarrera nahikorik ez izateari lotutakoa) % 10,2koa izan zen 2014an 15 eta 24 urteen arteko adin-taldearentzat, eta % 8,6koa 25 eta 34 urteen arteko adin-taldearentzat; biztanle guztiak aintzat hartuta, berriz, batez besteko tasa % 8,2koa izan zen. Gainera, pobrezia-mota horren eragina ia-ia bi puntu igo zen gazteenen adin-taldean 2012ko ekitaldiaren aldean, baina ez 25 urtetik gorakoen aldean, hobekuntza apala izan baitzuten. Metatze-pobreziari dagokionez, (epe ertain eta luzean bizi-baldintza onargarriak finkatzeko ezintasuna) batez besteko tasa % 2tik gora ibili zen aipatutako bi adin-tarteetan (horietan, ratioa % 3koa eta % 2,3koa izan zen, hurrenez hurren); gainera, egoerak txarrera egin du bi adin-tarte horientzat azken bi urtekoan.

Guztiaz ere, euskal gazteriaren aukerei buruzko azken datuen arabera (2014ko azarokoak), zerbait hobetu da lan aurkitzeko edo lehengoari eusteko aukera. Gainera, gazteek orain dela urtebete baino konfiantza handiagoa dute etorkizunari eta egungo egoerari aurre egiteko gazteek duten ahalmenari dagokionez.

1.9. OSASUNA ETA OSASUN SISTEMA

Euskal Autonomia Erkidegoan, gizonezkoen bizi-itxaropena 9,3 urte hazi da 1975 eta 2010 urteen artean (69,6 urtetik 78,9 urtera) eta emakumezkoena 8,5 urte (76,9 urtetik 85,4 urtera), EUSTAT erakundeak argitaratu duen *Osasunaren egoera 2014* izeneko txostenaren arabera. Era berean, bizi-itxaropenaren inguruko 2025 urtera arteko proiekzioei jarraiki, bizi-itxaropenak goranzko bilakaera izango du eta euskal gizartea luzaroago bizi izango da. Hala, 82,6 urtekoa izango da gizonezkoentzat eta 88,4 urtekoa emakumezkoentzat 2025. urtean; bestalde, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko aldea 6,5 urtetik (2010ean) 5,8 urtera (2026an) igaroko da.

Beste alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko 2013ko Osasun Inkestako datuen arabera (MGBI13), menpekotasunik gabeko bizi-itxaropena (MGBI) 69,3 urtekoa izan zen gizonezkoentzat eta 73,1 urtekoa emakumezkoentzat. 2007. urtearen aldean, MGBI 0,3 urte jaitsi zen gizonezkoei dagokienez eta 1,8 urte emakumezkoei dagokienez; alabaina, menpekotasunak jotako urteen kopurua (MBI) 1,7 urte igo da gizonezkoei dagokienez eta 3,1 urte emakumezkoei dagokienez.

EUSTAT erakundearen Heriotzen Estatistikako datuen arabera, 2013. urtean 2012.ean baino 589 heriotza gutxiago izan ziren; hildako gizonezkoen kopurua 186 izan zen eta emakumezkoena 9.506. Aipatutako jaitsiera generoaren arabera ere gertatu zen. Horrela, gizonezkoen heriotza-kopurua 166 (-% 1,6) beheratu zen emakumezkoen heriotza-kopurua 423 (-% 4,3).

Heriotzen % 61,6 80 urtetik gora gertatzen dira. Horrela, heriotzen kopurua 7.569koa izan zen 80 eta 89 urtekoen artean; 4.291ekoa 90-99 urteen artean; 267koa 99 urtetik gorakoen artean; eta 1ekoa 110 urtetik gorakoen artean.

Heriotza gehienak gaixotasun ez-transmitigarrien ziozkoak dira, batik bat, gaixotasun kardiobaskular eta tumoreen ziozkoak. 2013. urtean, tumoreen ziozko heriotzak guztizko heriotzen % 31,2 izan ziren EAEn eta zirkulazio-aparatuaren gaixotasunen ziozkoak % 27,5.

Bestetik, gizabanakoen osasunaren ikuspegitik, pertsonen jokaerak eta jarrerek ere eragin diezaiokete osasunari, norberaren ohituren osasungarritasunaren arabera.

Buruko osasunari dagokionez, Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) iritziz, osasuna ongizate fisiko, mental eta sozialaren egoera gogobetea da, ez gaitz edo gaixotasunen gabezia hutsa"; biztanleriaren % 25ek baino gehiagok bizitzaren uneren batean pairatuko du buruko asalduraren eta/edo jokabidearen asalduraren bat; ildo horretan, gero eta agerikoagoa da buruko funtzioak lotuta daudela jarduera fisiko eta sozialarekin, bai eta osasun-egoerarekin ere. Kasurako, depresioa arrisku-faktorea da minbiziak jotakoentzat eta bihotz-hodietako asaldurak pairatzen dituztenentzat. Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Inkestako datuen arabera –5 urterik behin argitaratzen da eta azken edizioa 2013koa izan zen– depresio eta antsietatearen sintomen prebalentzia[9] areagotu da eta % 17,4tik (2002. urtean) % 24,3ra (2013. urtean) igaro da, bereziki emakumeen artean.

Elikatzeko ohiturei gagozkiela, adituen esanetan, Dieta Mediterraneoa izenekoaren eredu hurbilenek, hots, fruta, barazki, lekale eta arrainen kontsumoan oinarritutakoek, eta animalia-jatorriko gantzen eta opil industrialen kontsumo txikiak zerikusi handia dute morbimortalitatea gutxitzearekin, batik bat, patologia kardiobaskularraren eraginez sorrarazten den morbimortalitatea. Euskal Autonomia Erkidegoko 2013ko Osasun Inkestako datuen arabera, generoaren araberako aldeak agertzen dituzte elikatzeko ohituretan; badirudi gizonezkoek haragi eta hestebete gehiago jaten dituztela eta emakumezkoek fruta, barazki eta arrain gehiago jaten dituztela, hestebeteak eta gozokiak baino.

Gizeneri edo obesitatearen prebalentziari dagokionez, esan behar da obesitatea heriotza-kausa eta gaixotasun askoren prebalentziari lotzan zaiela (kardiobaskularrak, hipertentsioa, diabetesa, bularreko minbizia, koloneko minbizia eta prostatako minbizia) eta Euskal Autonomia Erkidegoko 2013ko Osasun Inkestako datuen arabera, obesitatearen prebalentzia areagotuz joan da azken urteotan. Hala, sexuaren araberako tasa estandarizatuetan, gizonezkoen % 13,9k eta emakumezkoen % 12,6k obesitatea pairatzen zuten 2013. urtean. 1997. urtean, berriz, gizonezkoen % 9,5ek eta emakumezkoen % 10ek.

Asistentzia-jarduerari dagokionez, Osakidetzaren jarduera aintzat hartuta, esan behar dugu batez besteko okupazio-indizea jaitsi egin zela 2013. urtean (ehuneko 1,3 puntu, 2012ko urtearen aldean), eta % 77,8koa izan zela; aurreko urtean, aldiz, % 79,1ekoa izan zen. %100 gaindituta eta, beraz, aipatutako batez bestekoaren gainetik, medikuntza-zerbitzuetan, ondoko espezialitateak ditugu: pneumologia (% 128,9), barne-medikuntza (% 124,3), digestio-aparatua (% 110,4) eta psikiatria (% 100,3); eta kirurgia-zerbitzuetan: urologia (% 103,8). Gainerako medikuntza-zerbitzuak % 100aren azpitik, baina batez bestekoaren gainetik dauzkagu, ondokoak izan ezik: errehabilitazioa (% 76,5), eta gainerako kirurgia-zerbitzuak, kirurgia plastikoa (% 58,2), bularraldeko kirurgia (% 72) eta kirurgia baskularra (% 76,7) izan ezean.

Eguneko batez besteko egonaldiak berriz ere egin zuen behera Osakidetzaren sarean, 5,4tik 5,2ra. Batez bestekoaren oso gainetik egon ziren errehabilitazioa (26,9), psikiatria (14,5), zaintza aringarriak (14), hematologia (10,2), barne-medikuntza (7,6) eta digestio aparatua (7,2).

Itxarote-zerrendei gagozkiela, 2011ra arte, bilakaera gorakorra agertzen zen urte batean eta beherakorra hurrengoan, itxarote-zerrendan zeuden pazienteen guztizkoan, bai eta batez besteko berandutzean ere. 2012an, berriz, joera eten zen eta itxarote-zerrendako pertsonen kopurua berriro ere igo zen.

Osakidetzaren aurrekontuko likidazioak, EAEko kontu orokorretan oinarrituta, erakusten du osasun-erakundeak 2013. urtean egindako gastua, 2.533,6 milioi eurokoa izan zela (2012an baino % 2,3 gutxiago), hau da, BPG izendatuaren % 3,8. Jaitsiera hori gertatu zen ustiapen-gastuek behera egin zutelako (langileria, hornidura eta beste gastu batzuk), baita inbertsio-gastuek ere. Guztira likidaturiko kopurutik, % 3,2 inbertsioei zegokien (79.866 mila euro)

[9] *Une edo aldi jakin batean, ezaugarri jakin bat duten talde edo populazio bateko banakoen ratioa.*

eta % 96,8 ustiapen-gastuei. Azkenekoetan, langileriaren gastua azpimarratu behar dugu, erakundearen gastu osoaren % 66,7koa izan baitzen.

EAEko aurrekontu-likidazioaren gaineko datuen arabera, Eusko Jaurlaritzak Osasun arloan erabilitako gastu-partida 3.294 milioi euroko izan zen 2013. urtean, hau da, 2012. urtean likidatutako gastua baino % 1,9 gutxiago. Zenbateko hori Eusko Jaurlaritzaren 2013ko guztizko aurrekontuaren % 34,4koa izan zen, hau da, BPG izendatuaren % 5, aurreko urteko ehuneko berdina.

1.10. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak egiten duen "Higiezinen Eskaintzaren Estatistika" izeneko azterketari jarraiki, esan dezagun, alde batetik, azken urteko etxebizitzen guztizko eskaintza (salmenta eta alokairua) % 18,7 igo dela (aurreko urtean, % -13,9 izan zen) eta 40.400 etxebizitza gehitu zaizkiola eskaintzari laugarren hiruhilekoan. Beraz, 2014. urtean, eskaintzaren jaitsiera moteldu zen eta 2012-2013 aldian izandako galeraren zati bat berreskuratu zen. Etxebizitza-motaren arabera aztertuta, ondoko datuak emango ditugu:

- Salgai dauden etxebizitza eraiki berrien eskaintza % 42,3 jaitsi zen eta, 2014. urteko laugarren hiruhilekoan, horien batez besteko prezioa 3.338,9 €/m^2-koa izan zen, hau da, 2013. urtean baino % 4,2 gutxiago. Lurraldekako azterketak dioskunez, batez bestekoa merkeagoa da Araban (2.870,5 €/m^2); Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, batez bestekoa 3.392,5 €/m^2 eta 3.405,8 €/m^2 dugu, hurrenez hurren.
- Salmentan eskainitako babes ofizialeko etxebizitzen batez besteko prezioa 1.682 €/m^2,-koa izan zen 2014. urtean, hau da, aurreko urtean baino % 3,5 gehiago. Babes ofizialeko etxebizitzen eskaintza 2.268koa izan zen 2014ko laugarren hiruhilekoan, hau da, aurreko urtean baino % 41,2 gutxiago.

VI.1.8. KOADROA. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA EAEn. ERREFERENTZIAZKO ADIERAZLEAK

	CAPV				ESTADO
	2007	2012	2013	2014	2014
ETXEBIZITZEN ESKAINTZAREN HAZKUNDEA (OFIN)	+22,2	-11,4	-13,9	+18,7	..
ETXEBIZITZEN GUZTIZKO ESKARIAREN HAZKUNDEA* (ENV)	-20,9	..	+0,6	..	..
ETXEBIZITZA BABESTUEN ESKARIAREN HAZKUNDEA (ETXEBIDE)	+3,0	+0,5	+2,2	..	..
ETXEBIZITZEN PREZIOEN INDIZEA (EPI)	+4,1	-13,3	-5,3	0,0	1,7
EJren ETXEBIZITZA PROGRAMAKO GASTUA BPGren GAINEAN (%)	0,28	0,22	0,19	..	..

Iturria: EGABek landutako datuak, EUSKO JAURLARITZAren eta INEren datuetan oinarrituta.
** Etxebizitza eskuratzeko eta aldatzeko beharrizanen batura.*

- Eskaintzan zeuden bigarren eskuko etxebizitzen stocka % 39,7hazi zen 2104. urtean, eta horien batez besteko prezioa 3.058,2 €/m^2-koa izan zen, hau da, urtebete arinago zeukaten batez bestekoa baino % 3,6 gutxiago. Lurraldearen arabera, Gipuzkoako prezioak batez besteko baliotik gora jaitsi ziren (% 6,7); Araban eta Bizkaian, ordea, % 3,7 eta % 2,4 jaitsi ziren, hurrenez hurren.
- 2014ko ekitaldian, 2.645 etxebizitza eskaintzen ziren alokairuan, hau da, aurreko urtean baino % 16,7 gehiago. Etxebizitza libreen eskaintza (guztizko eskaintzaren % 94,) % 26,9 hazi zen eta horren kopurua 1.974 etxebizitzatik 2.505era igo zen; alokairuan egon den babes ofizialeko etxebizitzaren eskaintza % 52,2 jaitsi zen; hortaz, babeseko etxebizitzen eskaintza % 12,9tik % 5,3ra igaro zen 2013. urtetik 2014ra.
- EAEko babes ofizialeko etxebizitzen batez besteko errenta 326,3 eurokoa izan zen hileko 2014. urtean, hau da, aurreko urtean baino % 2 gutxiago.
- Azkenik, alokairuan eskainitako etxebizitza libreen batez besteko errentaren prezioa 844,7 eurokoa izan zen hileko 2014. urtean, hau da, aurreko urtean baino % 2,3 gutxiago. Lurralde historikoen arabera, Bizkaiak izan zuen preziorik handiena (861 €/hil); gero Gipuzkoak (818,5 €/hil) eta azkenik Arabak (729,4 €/hil).

Etxebizitzaren eskariari dagokionez, gurasoekin edo tutoreekin bizi eta 18 eta 44 urteen arteko adina duten pertsonek lehen etxebizitza eskuratzeko beharrizanaz den bezainbatean, Eusko Jaurlaritzaren "*Etxebizitzen beharren eta eskariaren inkesta*" (EBEI) delakoaren azkenean, 2013ko urtekoan, jasotzen da etxebizitza eskuratzeko bidea finantzatzeko diru-sarrera nahikoak dituzten 65.346 pertsonak behar hori agertu dutela. 2011. urtearen aldean, etxebizitza eskuratzeko beharrizana % 25,9 jaitsi da, % 39,6 2010. urteko egoeraren aldean eta % 41 2009. Urteko egoeraren aldean.

2010 eta 2013 urteen artean gertatu den lehen etxebizitza eskuratzeko beharraren jaitsieraren zergati aztertzerakoan, hainbat arrazoiren garrantzia aipatu behar dugu: lehenengoa demografiarekin lotuta dago zuzen-zuzenean; izan ere, gurasoekin edo tutoreekin bizi den 18 eta 44 urte arteko biztanle kopurua nabarmen jaitsi da. Hala, 2010ean, 302.733 pertsona zeuden egoera horretan eta 2013an, 267.256 pertsona (-% 11,7). Nabarmen beharreko bigarren arrazoiak zerikusi handia dauka krisialdiarekin: lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18 eta 44 urte arteko pertsonen ehunekoaren jaitsiera hertsiki loturik dago diru-sarrerarik ez duten adin horretako biztanleen kopuruaren gehikuntzarekin (2010ean, % 45,1; 2013an, aldiz, % 52,8). Beraz, arrazoi hori ez da kontuan hartzen etxebizitzaren beharrizana kalkulatzeko orduan. Gainera, diru-sarrerari ez duten biztanleen kopuruari diru-sarrera nahikorik ez edo diru-sarrera ez-finkoak dituzten biztanleen kopurua, gehikuntza are nabarmenagoa da, gizatalde horren % 48,2tik % 63ra igotzen baita. Kopuru absolutuetan emanda, 2010. urtean baziren 145.741 pertsona egoera ekonomiko ezegonkorra edo estua zutenak lehen etxebizitza eskuratzeko eta, 2013. urtean, 168.407 pertsona.

Beste alde batetik, 2013. urtean, guztira 61.621 euskal familiak etxebizitzaz aldatzeko beharrizana aitortu zuten, hau da, guztizkoaren % 7,1ek. Kopuru hori % 62 handiagoa da 2011. urtean adierazitako beharrizanaren aldean; urte horretan, aldatzeko beharrizana agertu zuten familia guztien % 4,5ek. Horren haritik, epe luzeko ikuspegitik jorratuta, esan beharra dago 2013. urtean adierazitako etxebizitzaz aldatzeko beharrizana handienetakoa dela 2005. urtetik, nahiz eta denboran zeharreko bilakaera oso aldakorra izan den.

Era berean, EBEIren arabera, EAEko 90.139 etxebizitzek esku-hartzeren bat beharrezkoa zuten 2013. urtean zaharberritzeko helburuz. Kopuru hori EAEko familia-etxebizitza guztien % 10,3 zen urte horretan. Bilakaerari begiratuta, etxebizitzak zaharberritzeko beharrizana areagotu zen 2011tik 2013, etxebizitza-kopuruari dagokionez (% 19,6) eta beharrizan horren eragin erlatiboari dagokionez (ehuneko 1,4 puntu gehiago). Epe luzeko ikuspegitik aztertuta, joera aldaketa antzeman daiteke 2009. urtetik aurrera etxebizitzak zaharberritzeko beharrizanen ehunekoak erakusten zuen jaitsiera dela eta.

Bestalde, Etxebizitzako Behatokiak argitaratutako "*Etxebideren Ebaluazio Txostenean*" jasotzen denez, zerbitzu horri egindako eskaeren arabera, EAEko etxebizitza babestuen eskaria % 2,2 hazi zela 2013an, eta aurreko urtean % 0,5 igo zela (2009-2011 aldian, berriz, jaitsi zen). Zehatzago esanda, etxebizitza babestuen eskatzaileen Eusko Jaurlaritzako erregistroan, 86.659 eskaera inskribatuta zeuden 2013. urtearen amaieran EAE osoan, hiru lurraldeetako espedienteen kopurua igo zelarik: Araban, % 3,5 igo zen (lurralde horretan dago eskariaren guztizkoaren % 11,4); Gipuzkoan, % 3,4 (lurralde horretakoak dira inskribatutakoen % 33,5); Bizkaian, berriz, % 1,3 igo zen, batez bestekoaren azpitik (bertakoak dira inskribatutakoen % 55,2). Gainera, esan beharra dago eskarien % 66,9 banakakoak direla eta gainerako % 33,1 familia-unitateenak.

Higiezinen jarduerari gagozkiola, Notariotza Estatistikan oinarrituta Sustapen Ministerioak ematen dituen datuei jarraiki, 13.878 etxebizitza-salerosketa (behin-behineko datuak) burutu ziren notario aurrean Euskal Autonomia Erkidegoan 2014an, hau da, 2013an baino % 29,3 gehiago (Estatuan, aldi horretan, % 21,6ko igoera izan zen, guztira, 365.594 salerosketa). Ondoz ondoko hiru urtean jaitsiera nagusi izan ondoren, emaitza positiboa izan zen, baina, hala ere, 2009. Urtean baino % 21,7 txikiagoa. Urte hartan, 17.724 salerosketa gauzatu ziren.

Etxebizitza-politika dela eta, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Programan gauzatutako aurrekontua nabarmen igo zen aurreko urteetan (2009an izan zuen balio handiena, guztira, 207,4 milioi euro) baina 2010 eta 2011 urteetan, aldiz, jaitsiera esanguratsua izan zuen, hain zuzen ere, % 40,7koa biurteko horretan. 2012an, gastua % 18,9 igo zen, guztira,

146,3 milioi euro, baina 2013. urtean, honako informazioa jasota dagoeneko azken urtean, gauzatutako gastua berriro ere urritu zen (125,7 milioi euro, -% 13,3). Kopuru hori EAEko BPGren % 0,19 da.

Etxebizitzak eraikitzeko zuzeneko inbertsioen bolumenari dagokionez, Etxebizitza Taldeak (Sailak berak —irudian ikusten denez, 21,1 milioi euroko inbertsioa egin zuen— eta sailari atxikitako sozietate publikoek osatutakoa) 104 milioi euro inbertitu zituen 2013an (-% 4,8, 2012. urtearen aldean). Beraz, programaren inbertsioa murriztu zen azken urtean eta 2013an bertan, Taldearen gastuaren % 41,5 izan zen (2012an, % 45,9).

Hala berean, Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoaren azken txostenean jasotzen denez, PFEZn aitortutako ohiko etxebizitzagatiko kenkariak (alokairuari eta inbertsioari dagozkionak) 468,1 milioi eurokoak izan ziren 2011. urtean, hau da, aurreko urtean baino % 2,9 gutxiago. Kopuru hori Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Programari lotuta urte horretan gauzatutako gastuaren % 263 izan zen (123 milioi euro).

1.11. GIZARTE BABESA

Hasteko eta bat, EUSTETA erakundearen 2103ko "EAEko Gizarte Babesari buruzko Kontuaren" arabera, Euskadin helburu horretako guztira erabili ziren baliabideak 16.663 milioi eurokoak izan ziren lehen aipatutako urtean, hau da, 2012an baino % 1,9 gehiago. Esandako kopurua urte horretako BPGren % 25,22 izan zen (% 0,7ko hazkundea, 2012ko urtearen aldean), behin-behineko datuen arabera.

Gainera, EUROSTAT erakundeak argitaratutako datuen arabera, 2012. urtean, biztanleko gastua gizarte babesean Euskadin, eroste-ahalmenaren parekotasunaren arabera neurtuta, de 7.940 eurokoa izan zen, hau da, EBko batez bestekoaren (7.591 euro) eta Estatuko batez bestekoaren (6.027 euro) gainekoa.

Beste alde batetik, Gizarte Zerbitzuetako gastua Euskal Autonomia Erkidegoan 2.290,6 milioi eurokoa izan zen 2012an (informazioa eskuratu deneko azken urtea), hau da, aurreko urtean baino % 0,7 gutxiago, EUSTAT erakundearen "***Gizarte Zerbitzuei eta Gizarte Ekintzari buruzko Estatistikaren***" arabera.

VI.1.9. KOADROA. GIZARTE ZERBITZUAK EAEn. ERREFERENTZIAZKO ADIERAZLEAK

EAEko GIZARTE ZERBITZUEN ESTATISTIKA			
	2010	**2011**	**2012**
GASTUA BIZTANLEKO (€)	1.001,1	1.061,4	1.050,0
BPGren GAINEKO GASTUA	3,3	3,5	3,5
MENPEKOTASUNAREN LAGUNTZA-SISTEMA: MENPEKOTASUNAREN ESPAINIAKO BEHATOKIAREN BALORAZIOA			
	2012	**2013**	**2014**
EAE	**7,5**	**8,3**	**7,5**
ESTATUKO BATEZ BESTEKOA	4,7	4,7	4,8

Iturria: EGABek landutako datuak, EUSTATen eta MENPEKOTASUNAREN ESPAINIAKO BEHATOKIAren datuetan oinarrituta.

2012. urtean, gastu hori gure erkidegoko BPGren % 3,5 izan zen eta, batez beste, 1.050 euroko gastua eragin zuen biztanleko, hau da, 2011n baino % 1,1 gutxiago. Herri-administrazioen ahalegina 1.693,8 milioi eurokoa izan zen, hau da guztizkoaren % 73,9, eta gainerakoa, % 26,1 sektore pribatuaren esku etorri zen. Gastatutako lau eurotik bat erabiltzaileen kuoten eta beste salmenta batzuen bidez finantzatu zen.

Gizarte-zerbitzu guztien artetik, biztanle guztientzat eta adineko pertsonentzat baliatutakoak ditugu baliabide gehien hartzen dituztenak; izan ere, bien artean, guztizko gastuaren % 69,7 batu zuten (2011ko behin-behineko datuen arabera).

2007ko Menpekotasun Legearen ezarpenari dagokionez, Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuaren (IMSERSO) 2014ko abenduaren 31ko datuek adierazi dutenez, EAEk 90.041 ebaluazio-eskabide erregistratuta zituen data horretan **Mendekotasunari Arreta eskaintzeko Sisteman. Gainerako erkidegoetan bezala,** eskabide horietako gehienak mendekotasun mailaren aintzatespena berrikusteko izan ziren. Eskabide horiek Estatu osoko eskabideen % 5,65 dira, nahiz eta gure Erkidegoko biztanleria Estatuko biztanleriaren % 4,68 den.

Eskatzailearen profila honako hau da: emakumea (eskatzaileen % 65,2 dira), 80 urtekoa edo zaharragoa (eskatzaileen % 52,95, eta emakumeen % 59,82). Bigarren adin-talde garrantzitsua 65 eta 79 urte artekoa da, eskabide

guztien % 22,89 direla. Arestian aipatutako datan, 47.998 prestazio eman ziren eta horietatik % 49,6 Familia Zaintzagatiko Prestazio Ekonomikoari egokitu zitzaien. Prestazioen % 21,38 Egoitzako Laguntzakoak izan ziren, % 10,78 eguneko/gaueko egoitzetako zaintzakoak eta % 9,35 etxeko laguntza-zerbitzuetakoak, prestazio eta laguntza garrantzitsuenak aipatzearren. Prestazioen jasotzaileak 41.049 pertsona onuradun izan ziren (ratioa 1,17 prestaziokoa da pertsona bakoitzeko, pertsona bat zerbitzu edo prestazio bat baino gehiagoren onuradun izan baitaiteke). Kopuru hori prestazioa jasotzeko eskubidea aitortuta duten 46.260 pertsonen % 88,7koa da.

Kopuru horien osagarri gisa, Espainiako Gizarte Zerbitzuetako Zuzendari eta Gerenteen Elkarteko kideek osatzen duten *"Mendekotasunaren Espainiako Behatokia"*ren txostenei esker, mendekotasunaren artatzeko sistemaren hedapenaren lanbide-ebaluazioaren jarraipena egin daiteke autonomia erkidegoaren arabera. Sistema ezartzeko kopuruen eta profesionalen ebaluazioen laburpen gisa, Behatokiak erkidegoak puntuatu eta sailkapena aurkeztu ohi du. Sailkapen horretako lehenengo postuan Gaztela eta Leon egon zen 2014ko abenduan (10en gaineko 10 puntu jasota), eta EAE bigarren postuan egon zen, 7,5 puntu jasota; Estatuko batez bestekoa, aipatutako urtean, 4,8 puntukoa izan zen. Gure erkidegoak 8 hamarren galdu zituen azken urtean; Estatuko batez bestekoak, berriz, hamarren bat irabazi zuen.

Behatokiaren ebaluazioak dioenez, Euskadik arreta-maila onargarriak izan zituen azken urtean; bestalde, itxarote-zerrenda % 10etik zerbait gora ibili zen. Behatokiaren ebaluazioak ontzat jo zuen menpekotasuna duen pertsona bakoitzeko gastuak izandako hazkundea, baina, ohi denez, ohartarazi zuen Euskal Autonomia Erkidegoan emandako prestazio gehienak Familia Inguruko Zaintzarako Prestazio Ekonomikoari zegozkiola, beste erkidego batzuetako neurrira iritsi ez bazen ere. Alabaina, Mendekotasunaren Legeari jarraiki, prestazio hori salbuespenezko kasuetan baino ez litzateke eman beharko.

VI.1.10. KOADROA. GIZARTE SEGURANTZAREN PENTSIO SISTEMA EAEn: ERREFERENTZIAZKO ADIERAZLEAK

		2012	2013	2014
ONURADUNAK	ESTALDURA TASA	23,8	24,2	24,6
	URTEKO HAZKUNDEAREN %	1,3	1,7	1,4
GASTUA GUZTIRA	BPGren GAINEKO %	11,0	11,7	11,9
	URTEKO HAZKUNDEAREN %	4,2	4,9	3,3
KONTRIBUZIO-PENTSIOAK	GUZTIZKOAREN GAINEKO ONUR. %	97,6	97,6	98,0
	BATEZ BESTEKO PRESTAZIOAREN % LGSren GAINEAN	159,8	161,6	164,5
	AHALEGINAREN ALD. % KOTIZATZAILEKO	7,0	8,2	2,9

Iturria: EGABek landutako datuak ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZAREN MINISTERIOAREN datuetan oinarrituta.

Beste alde batetik, 2014. urtean, milioi erdi pertsona baino gehiago (534.672, lehen zenbatespenaren arabera) **Gizarte Segurantzaren pentsio-sistemaren** onuradun izan ziren gure autonomia-erkidegoan (kontribuziozkoak eta ez-kontribuziozkoak). Kopuru hori aurreko urtekoa baino % 1,4 gehiago da, eta aurreko urtean ere % 1,7 hazi zen. Azken urteotan gertatu den legez, kopuruaren hazkundearen arrazoi nagusia dugu kontribuziozko pentsioen onuradun diren pertsonen hazkundea; izan ere, gainerako modalitateetan, oro har hartuta, kopurua beherantz doa. Hala, Gizarte Segurantzak emandako prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten EAEko biztanleen ehunekoa 24,6ra heldu zen.

VI.1.11. KOADROA. DIRU-SARRERAK BERMATZEKO SISTEMA EAEn: ERREFERENTZIAZKO ADIERAZLEAK

DIRU-SARRERAK BERMATZEKO SISTEMA EAEn			
	2012	2013	2014
GUZTIZKO GAST. HAZK. % URTEAN	4,7	4,6	8,1
DSBEren ONURADUNEN HAZK. %*	4,0	8,3	4,6

TXERTAKETAKO GUTXIENEKO ERRENTEN ESTALDURA. MILA BIZTANLEKO TASAK		
	2012	2013
EAE (DSBE)	31,91	34,00
ESTATUKO BATEZ BESTEKOA	4,60	5,48

Iturria: EGABek landutako datuak, EUSKO JAURLARITZAren eta OSASUN, GIZARTE POLITIKA ETA BERDINTASUN MINISTERIOAren datuetan oinarrituta.
** Abenduko hilabeteak.*

Kontribuziozko pentsioei dagokienez (prestazioen % 98 eta gastuaren % 99,3 sorrarazi zituztenak), onuradunen batez besteko kopurua 523.900 izan zen (+% 1,4) 2014. urtean eta hileko batez besteko zenbatekoa 1.076 eurokoa, % 1,8 gehiago 2013. urteko zenbatekoaren aldean. Beraz, urtean 7.896,43 milioi euroko gastua egin zela kalkulatzen da, hau da, 2013. urtean baino % 3,3 gehiago.

Laburbilduz, behin-behineko datuak erabilita, esan dezagun pentsioen ziozko gastua EAEn 7.951,6 milioi eurokoa izan zela guztira 2014an, 2013. urtean baino % 3,3 gehiago. Hortaz, BPGren gaineko ehunekoa bi hamarren handitu zen aipatutako urtean, eta 2013ko % 11,7tik % 11,9ra igaro zen (EUSTAT erakundearen behin-behineko datuak aintzat hartuta).

Gizarte Segurantzaren pentsioen ziozko gastua Euskal Autonomia Erkidegoan eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren kuoten bilketaren zenbatekoak erkatzen baditugu 2013. urteari dagokienez –horixe baita aipatutako bi datuak eskura ditzakegun azken urtea– gure zenbatespenen arabera, gastua 7.700 milioi eurokoa izan zen; sarrerak, berriz, 6.449 milioi eurokoak. Beraz, saldoa negatiboa izan zen, 1.251 milioi eurokoa eta aurreko urtean ere negatiboa izan zen, 841 milioi eurokoa.

Bestalde, **Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren** funtsezko prestazioa Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) izenekoa da, Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeari buruzko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak ezarritakoari jarraiki.

2014. urtean, 65.683 familiak jaso zuten DSBE (abenduko datua). Onuradunen zenbatekoak % 4,6ko hazkundea izan zuen aurreko urteko zenbatekoaren aldean; urte horretan, 62.817 bizikidetza-unitatek jaso zuten laguntza. Lurraldearen arabera, Bizkaian egon zen jasotzaileen kopuru handiena, guztira 40.451, hau da, EAEko jasotzaile guztien % 61,6. Gipuzkoan, jasotzaileen % 23,3 egon ziren eta Araban onuradunen % 15,1.

LANBIDEn 2014ko abenduan jasota zeuden espediente aktibo guztietan, badakigu inskribatutako 65.683 pertsonetatik % 42,6 gizonezkoak zirela eta % 57,4 emakumezkoak. Onuradun gehien hartzen zituen adin-tartea 35 eta 44 urteen artekoa izan zen (guztizkoaren % 27,8). Gainera, prestazioa jasotzen zuten atzerritarrak guztizkoaren % 27,2 ziren. Azkenik, prestazioa jasotzen zuten titularren % 25,9 pentsiodunak ziren.

Gainera, 2010ean, Etxebizitzaren Prestazio Osagarria (EPO) abian jarri zen, arestian aipatu dugun 18/2008 Legea garatzeko. Haren helburua Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren osagarri diren prestazio ekonomikoen sistema egituratzea da, biztanleriako talderik ahulenek etxebizitzaren inguruko gastuak ordaindu ahal izan dezaten. Indarraldiko lehen urtean (2010ean), 51,1 milioi euroko gastua ekarri zuen EPOk, 64,9 milioi 2011n eta 71,2 milioi 2012an. 2013an, azkenik, guztira 76,03 milioi euro ordaindu ziren horren zioz, aurreko urtean baino % 6,8 gehiago. Jasotzaileen kopuruari dagokionez, 2014ko datua ezaguna da: 28.683 pertsona izan ziren, DSBEren onuradunak eta, gainera, EPOren jasotzaileak (aurreko urtean baino % 10,8 gehiago).

2014 urteari erreparatuta, badaukagu DSBE+EPO gastu bateratuaren zenbatekoa: 472,3 milioi euro, 2013ko DSBE+EPO gastu bateratua baino % 8,5 gehiago. 2007-2014 aldia kontuan hartuta, prestazio horien jasotzaile diren familien kopurua % 82 igo da eta 36.000 familiatik 65.000 baino gehiagora igaro da. Prestazio horren ziozko gastua, ordea, ia-ia hirukoiztu da: 168,6 milioi eurotik 472,3 milioi eurora (+% 180,1).

Era berean, EPO abian jarri ondoren, Gizarte Larrialdiko Laguntzak (GLL), Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren hirugarren tresnak, bere jatorrizko helburua berreskuratu zuen (hau da, oinarrizko beharrizan espezifikoei aurre egitea, batez ere etxebizitzarekin zerikusia dutenak, gizarte bazterketako egoerak prebenitzeko, ekiditeko edo leuntzeko gastuei aurre egiteko baliabide nahikorik ez daukaten pertsonei egoera zehatzetan sortzen zaizkienak) eta bere aurrekontu partida nabarmen murriztu zen: 2013. urtean (datu ofizialak dauzkagun azken urtea), laguntzetarako 23 milioi euro bideratu ziren, aurreko urtean baino % 34,2 gehiago, eta 25.507 jasotzaile zenbatu ziren, 2012an baino % 10,9 gehiago. Zenbateko horretatik, 2.990 Araban bizi ziren (jasotzaile guztien % 11,7), 6.393 Gipuzkoan (jasotzaile guztien % 25,1) eta gainerakoak, 16.124, Bizkaian (jasotzaile guztien % 63,2). Aipatutako urtean, guztira 33.195 laguntza eman ziren hainbat helburutarako, hala nola, oinarrizko beharrizanak (8.025 laguntza), alokairua (6.058 laguntza) edo interesen amortizazioa (2.424 laguntza). Laguntzen batez besteko zenbatekoa 693 eurokoa izan zen.

Laburbilduz, 2014. urtean, behin-behineko datuen arabera, Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak guztira 495,31 milioi euro gastatu zituen, aurreko urtean baino % 8,1 gehiago, hain zuzen ere, honela banakatuta: 472,3 milioi euro

erabili ziren Diru Sarrerak Bermatzeko Errentan eta Etxebizitzaren Prestazio Osagarrian (2013. urtean baino % 8,5 gehiago), baina ez dakigu bi prestazio horien arteko banaketa zein izan zen, elkarren osagarriak direlako (gutxi gorabehera, DSBEren jasotzaileen % 40k EPO ere jasotzen dute). Era berean, GLLri buruzko datu ofizialik ezean, zenbatespenen arabera, 2013. urtean Gizarte Larrialdiko Laguntzetan erabili zen 23 milioi euroko zenbatekoari eutsi zioten 2014ko ekitaldian ere bai (Sistemaren guztizkoaren % 4,6).

Erkaketa egite aldera, Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioaren "*Gizarteratzeko Gutxieneko Errenten Txostena*"ri esker, autonomia erkidegoetako sarrerak bermatzeko sisteman kopuru handien konparaziozko jarraipena egin daiteke, betiere era askotako araudiak eta sistemak garatzeko hainbat maila daudela kontuan izanik. 2013ko ekitaldiari buruzko txostenaren arabera, urte horretan gure erkidegoak 5.841 euro gastatu zuen urtean prestazio horien titular bakoitzeko, estatuko 3.248 euroko batez bestekoaren aldean, eta haren estaldura-tasa % 34koa izan zen mila biztanleko. Estatuko batez bestekoa, berriz, 5,48 izan zen mila biztanleko. Kontuan hartu behar da gure erkidegoak Estatuko prestazio horietan baliatzen diren funts guztien % 40,2 izan zuela eskura aipaturiko urtean, eta prestazioaren oinarrizko kopurua, hilean 662,41 eurokoa, Estatuko batez bestekoa baino % 58,3 handiagoa izan zela, hots, autonomia-erkidego guztietan handiena.

Beste alde batetik, Enplegu eta Gizarte Politiken Sailak gizarteratzea ahalbidetzeko bultzatzen dituen ekimenen esparruan, hirugarren sektoreari lotutako jarduerak sustatzeko diru-laguntzen programa garatzen da gizarte esku-hartzearen baitan. Programa horren ildoan, 2013ko ekitaldia –informazioa eskuratu duguneko azken urtea– emandako laguntzen guztizko zenbatekoa 5,08 milioi eurokoa izan zen, 2012ko ekitaldian baino % 35,9 guxtiago. Diru-laguntzen helburuari erreparatuta, 4,43 milioi euro erabili ziren gizarte esku-hartzea bideratzeko pertsona, familia, talde eta komunitateekin, eta 640.000 euro elkartegintza indartzeko.

Amaitzeko, EAEko borondatezko gizarte-aurreikuspenari buruzko 2014. urteko balantzea dela eta, Euskadiko BGAEen Federazioaren datuak erabilita, esan dezagun gizarte-aurreikuspenak lehen aldiz gainditu duela 22.500 milioi euroko muga eta aurreko urtean baino 816 milioi euro gehiago batu dituela. Ondare hori Euskal Autonomia Erkidegoko BPGren gaineko % 33,75 da; ratio hori Estatukoa baino askoz handiagoa da (% 9) eta EB15eko batez bestekoa baino zerbait handiagoa (% 32,4), baina oso urruti dago ELGAko herrialdeetako batez bestekotik (% 84,2).

Arestian aipatutako iturriaren arabera, 2014. urtean, kuota edo ekarpenen zenbatekoa 760 milioi eurokoa izan zen, baina nabarmen jaitsi zen 2013ko ekitaldiaren aldean (-% 14,5). Halaber, atxikitzeek (1,16 milioi) gora egin dute, 2013an baino 23.000 gehiago, eta aldi berean, ordaindutako prestazioen zenbatekoa 945 milioi eurotik gorakoa izan zen, hau da, aurreko urtean baino % 13,3 gutxiago.

2. GOGOETAK

2.1. EAEko EGOERA EKONOMIKOA ETA KANPOKO TESTUINGURUA

Adierazitako datuek argiro erakusten digutenez, oraindik ere ahulguneak izan arren, badira zantzu nahikoak jarduera ekonomikoa apurka-apurka haziko dela eta, inflexio-puntu honetatik aurrera, goranzko joera hartuko duela pentsatzeko. Hala eta guztiz ere, iritzi hori berresteko nahitaezkoak diren gertaera batzuk 2014ko bigarren seihilekoan jazo direnez gero, komeni da zuhurtziaz jokatzea eta adierazleen bilakaerari begiratzea epe laburrean eta ertainean, joera baieztatu baino lehen.

2014. urtean, **munduko** PIB indizearen hazkundea (erosteko ahalmenaren parekotasunaren arabera adierazita) 2013ko joerari lotu zitzaion eta, esate baterako, herrialde garatuetako eta lan-merkatuetako finantza-baldintzen hobekuntzak eta lehengaien prezioen jaitsierak konfiantza eta errenta erabilgarria hobetzen lagundu eta kontsumoa nahiz inbertsioa bizkortu zituzten; hala, hazkundearen joera sendotu zen. Nolanahi ere, badirudi munduko merkataritzaren eta industria jardueraren gaineko adierazleak egonkortu direla, baina arrisku geopolitikoak egon daude Siria, Ukraina eta Errusiako egoera dela eta.

Euroguneari dagokionez, lehen hiruhilekoko datuen aldean, benetako BPGren hazkunde-datuak hirugarren eta laugarren hiruhilekoetan etsigarriak izan baziren ere, lehengaien prezioen jaitsierak, bereziki, petrolioarenak, EBZk esku-hartze tasaren inguruan egindako bigarren beheranzko berrikuspenak, euroak dolarraren aldean urtearen azken hiletan izan zuen balio-galerak eta zerga-politikak hazkundea galgatzeari utzi izanak eragin onuragarria izan zuten konfiantzan, kontsumoan, inbertsioan eta esportazioetan, eta horren ondorioz, 2013an hasitako apurkako susperraldia 2014an ere antzera gertatu zen.

Dena dela, arestian esandako guztiak ez du bazterrean utzi Euroguneko susperraldiaren izaeraren inguruko eztabaida, aintzat hartzen badugu, alde batetik, oso motel ari garela krisialditik ateratzen eta, bestetik, Eurogunean gertatzen ari diren auzi geopolitikoak (besteak beste, Errusia eta Ukrainaren arteko gatazka, krisialdiaren berragerpena Grezian…). Nolanahi ere den, badirudi adostasun handia dagoela gai baten inguruan: behar-beharrezkoa da oreka lortzea eskaria berreskuratzeko ematen den laguntzaren eta zor publikoaren maila arrazoizko urkila baten barruan edukitzearen artean.

Onuragarria delako, oso deigarria de **Espainiako estatuan** antzematen eta igartzen den testuingurua, barruko faktoreak nahiz kanpoko faktoreak kontuan hartuta. Finantza-baldintzapenak hobetu dira (familiek eta enpresek ordaindu beharreko interes-tasen beherapena eta kreditua eskuratzeko erraztasun handiagoa); gainera, ziurgabetasuna apaldu da defizit-helburuari heltzeko zerga-politika ez da hasieran aurreikusi bezain murriztailea. Horiek guztiak direla eta, badirudi jarduera ekonomikoa suspertu egingo dela, barne-eskariari lotutako agregatu handien bizkortasunean oinarrituta, batik bat, kontsumo pribatuan eta kapital finkoaren eraketa gordinean (KFEG), kapital-ondasunetan eta landutako aktiboetan egindako inbertsioari esker, bai eta eraikuntzan egindako inbertsioari ere.

Hala eta guztiz ere, ezin zaie begirik kendu aipatutako susperraldia gaur egun gutxiagotu edo galgatu ahalko luketen faktoreei, hau da, Euroguneak berak izango duen bilakaerari, esportazioetan eragina izango lukeelako; faktore geopolitikoei, auzi horiek finantza-merkatuei eta merkataritza-harremanei zuzenean eragingo liekeelako; eta estatura etorrita, urratsak zein norabidetan egin behar diren erabakitzeko eredu ekonomikoa ebazteko erabaki politikoen desegokitasunari; ildo horretan, faktore horretan sakondurik, beharrizanen ebaluazio egokiak edo desegokiak ere berebiziko garrantzia izango du, prestakuntza-gaikuntza, eskakizun zientifiko eta teknologiko, egitura eta enpresen tamainari dagokienez.

EAEri gagozkiola, uneko egoerari buruzko informazioak berretsi digu jarduera ekonomikoaren susperraldira itzuliko garela. Horren haritik, estatuan gertatzen den moduan, gertaera horren arrazoi nagusia barne-eskariaren bilakaera da. Zalantzarik gabe, aldeko jazoera da, azken urteotan barne-eskariak puntuak kendu baitizkio BPGren hazkundeari. Zehatzago esanda, susperraldiaren eragile nagusiak kontsumo pribatuaren hazkundea, gastu publikoaren igoera eta kontsumo-ondasunen inbertsioa dira; izan ere, eraikuntzari lotutako inbertsioaren gainerakoa, estatuan gertatu ez den bezala, bilakaera beherakorra izan du.

Enpleguaren susperraldiak (Hiruhileroko Kontu Ekonomikoen datuen arabera), euskal enpresa eta familien palanka-efektuaren desagerpenak, finantzatzeko kostuaren murriztapenak, kanpoko sektorearen bulkada-efektuak eta konfiantzaren berrezarpenak ere eutsi diote barne-eskariaren bilakaera onari. Horrez gain, aurreko urteetan egindako ahaleginek aukera eman digute eta ematen digute zerga-politikak horrenbesteko eragozpenik sor ez diezaion barne-eskariari.

Dena dela, kezkagarria da inbertsio horren EAEko bilakaeran aurkako bi gertaera jazo izana. Bada, ekipo-ondasunen bilakaeraren tasa positiboa den arren (% 2,2), kapital-eraketa gordinaren gainerakoak, eraikuntzari are lotuagoak, oraindik ere bilakaera negatiboa izan du (-% 1,0). Horrez gain, ekipo-ondasunen gaineko inbertsioak Estatukoak baino dinamismo txikiagoa dauka.

Beste alde batetik, gure enpresa-bilbearen tamainaz ohartarazi nahi dugu. Izan ere, enpresen tamaina erabakigarria da lehiatzeko ahalmenari dagokionez, eta hortaz, ezaugarri horren gaineko hausnarketa egin ez ezik, gaiari ekin egin behar zaio.

Atzerrian egindako inbertsioaren jaitsiera ere nabarmendu behar dugu, bereziki, kanpo-eskariak EAEko BPGri egiten dion ekarpenaren bilakaera beherakorra. Hala, ekarpen horren kopurua ez da batere funtsezkoa 2014an, % 0,1ekoa, hain zuzen ere.

Esportazioen beheranzko bilakaera horrek iradokitzen duenez, ahaleginak eta bi egin behar dira euskal ekonomiaren lehiakortasuna hobetzen, ahuldu bailiteke egungo kanpo-faktore onuragarriak desagertuko balira, hau da, euroa balioa hartzen hasiko balitz eta petrolioaren prezioa igotzen hasiko balitz.

Helburu estrategiko hori lortzeko, politika publikoek, funtsean, enpresa-bilbea berreskuratzen jardun beharko lukete, batik bat, berrindustrializazioa sustatzen. Horretarako, krisialdiaren aurreko garaian, industria-sektoreak BPGn zeukan kuota berreskuratzea izan beharko litzateke jomuga. Aurreikusitako susperraldi-ingurumarian, industriaren espezializazioa eta kalitatezko enpleguaren sorrera ardatz hartuta, badirudi ezinbestekoa dela EAEko balio erantsi gordinaren maila teknologikoaren inguruko jauzia egitea; ildo horretan, azpimarratu behar dugu batez besteko maila teknologikoak ere beheranzko bilakaera daukala.

Erronka horrek berebiziko garrantzia dauka euskal gizartearen ongizate-mailaren kotari eusteko, eta erronka lortuko badugu, erakunde publiko eta pribatuen arteko lankidetzan oinarrituta, baliabide eta neurri eraginkorrak behar ditugu, euskal ekonomiaren berrikuntza eta garapen teknologikoa areagotzeko Euroguneko ereduzko herrialdeen parean.

Beste alde batetik, EAEn gaur egun dauden garraio-azpiegitura oso eta anitza dela eta, komeniko litzateke garraio-modu guztien azterketa bateratua bultzatzea, sare osoaren koordinazio dinamikoa areago sustatzeko. Batzorde honen iritziz, lurraldearen lehiakortasuna diseinatzeko koherentzia-irizpideak eta nazioarteko lotura errazteko bideak garrantzi handikoak izan beharko lirateke aipatutako koordinazioa sustatze aldera.

2.2. SEKTORE PUBLIKOA

Atal honetan aztertutako datuek erakusten dutenez, 2014ko ekitaldiaren amaierako egoerak finkatu egin zuen gure erkidegoan gertatzen ari den finantza publikoen hobekuntza, azken urteotan eragin digun egoera konplexuaren ondorioz 2009. urtean gertatu zen hondoratzearen ostean. Egoera konplexu hori dela eta, baliabideen eskasia nagusi da eta baliabideok ahalik eta gehien arrazionalizatu behar dira. Itundutako zergen ziozko bilketaren hazkundeak, bigarren urtez jarraian, gastuen hazkundea ere ahalbidetu zuen, 2009. urtetik aurrera gertatu ez bezala.

Gainera, lehen aipatu dugun finantza publikoen hobekuntza gorabehera, gogorarazi behar dugu 2014ko ekitaldia berriro ere itxi dela defizitarekin, eta horren ondorioz, zor publiko biziaren ehunekoa BPGren gaineko % 15,7raino igo da. Egiatan, komeniko litzateke jarduera leheneratzeari eta sarrera publikoen susperraldiari esker, Sektore Publikoa zorpetzea kontrolatzeko bidean jarri ahal izatea.

Zantzu positiboak gorabehera, azpimarratu nahi dugu gastuak finkatu eta hobetu behar direla zuzen-zuzenean herritarren ongizateari eragiten dioten partidetan, esate baterako, inbertsio errealetan eta transferentzia arruntetan. Izan ere, funtsezko tresnak dira gure erkidegoko bizi-kalitateari eusteko, aurrekontuen egonkortasun-helburuak betetzeko zerga-kontsolidazioari kalterik egin gabe.

Ildo horretan, bi urtetan egoerari eutsi ondoren, kezkagarria da jardunbide-gastuak berriro ere igo izana 2014ko ekitaldian, bai Eusko Jaurlaritzarenak, bai foru-aldundienak, nahiz eta transferentzia arruntetan egindako ahaleginari eutsi zaion eta, batzuetan, igo den (% 3,4ko hazkundea izan du, 2013ko +% 1,3ko balioaren aldean).

Beste alde batetik, kezkatzekoa da herrialdearen garapenean guztiz funtsezkoak diren inbertsio errealek berriro ere behera egin izana, % 23,8 2014. urtean. Hala, bilakaera negatiboa izan dute azken bost urteotan.

2.3. I+G+B+IKT JARDUERAK

Ikerketa + Garapena + Berrikuntzari dagokionez

Aztertutako azken urtean, Euskal Autonomia Erkidegoak I+G delakoan egindako ahalegin ekonomikoak inflexio-puntu kezkagarria erakusten du; EGABen iritziz, botere publikoek eta jarduera ekonomikoan parte hartzen duten ekonomia- eta gizarte-eragile guztiek arreta handiz begiratu behar diote gertaera horri, euskal enpresa-egiturak ekonomiaren egungo globalizazio-ingurumarian lehiatuko bada. Hala ere, aholku batzorde honen aburuz, I+G delakoari lotutako jarduerak garatzeko baliabide nahikoak (baliabide ekonomikoak, teknikoak eta giza baliabideak) ereduzko herrialdeen antzera jartzeaz gain, neurri egokiak hartu behar dira ereduzko herrialde horietan lortzen den emaitza eraginkorra bermatzearren.

Datu horiek berriro ere agerian uzten dutenez, EAEk zailtasunak ditu I+G jardueretan egiten duen gastua emaitzetan islatzeko, eta horrek erakusten du eraginkortasun edo ekoizkortasun txikiagoa duela.

Horrela, PCT[10] patenteen kopurua BPGren bilioi bakoitzeko (PPC eurotan) estatuko batez bestekoaren gainetik dago, baina EB27ko batez bestekoaren oso behetik, eta ereduzko herrialdeetako batez bestekotik oso urrun.

Bestetik, kalitatez eta bikaintasunez jantzitako artikuluen argitalpen-kopuruaren ageriko igoeran oinarrituta, nabarmentzekoa da zientziari lotutako sistemaren ekoizpen-ahalmenaren eta ekoizpen horren jakintza-transferentziaren emaitzaren arteko asimetria.

Aldi berean, doktoretzak, unibertsitate-ikasketak eta goi-mailako ikasketak dituzten gazte ugarien aldean, esan beharra dago langabezia-tasa oso handia dela eta lurraldeko nahiz Berrikuntza Sareko talentuak atxikitzeko ahalmena oso urria dela. Baliteke gertaera horrek arazo baten berri erakustea: prestakuntzaren eta gizarte- eta ekoizpen-ehunaren eta etorkizuneko lehiakortasunaren arteko arazoa.

Bestela esanda, eskaintzaren eta eskariaren arteko desoreka agerikoa da, eskaintza eskaria baino handiagoa delarik. Hori horrela, politika publikoek eskaria handitzeko ahaleginak egin beharko lituzkete.

Emandako datuetan oinarriturik, ondorioztatu daiteke gure erkidegoan I+G+B delakoari eskainitako ahalegina ahalik eta gehien indartu behar dela, tamainari nahiz horren eraginkortasunari begiratuta, gure ekonomiak gaur duen ekonomia "jarraitzailearen" ezaugarriari eusteko. Gogoratu beharra dago zientzia eta teknologiaren garapenean punta-puntakoak diren herrialdeak gu baino askoz aurrerago egoteaz gain, euren egoera sendotzen ari direla.

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiei dagokienez

Euskal Autonomia Erkidegoan, IKTei lotutako ekipamenduak garrantzitsuak dira, norbanakoen ikuspegitik nahiz enpresen ikuspegitik.

Horrela, etxeetan dauden eta/edo biztanleek erabilgarri dauzkaten IKTen ekipamenduak gero eta gehiago dira, nahiz eta, adierazle batzuetan, Europako batez bestekoen zerbait azpitik egon, kasurako, Interneterako sarbidea daukan 16 eta 74 urte arteko kide batek gutxienez osatutako etxebizitzen ehunekoa.

Beste alde batetik, enpresetan erabilgarri dauden IKTen ekipamenduei dagokienez, Europan gertatzen ari den moduan, asetasun-mailara iristen ari gara, batez ere, tamaina handieneko establezimenduetan; Eurogunean eta EB28an merkataritza elektronikoan jarduten duten enpresen kopurua EAEko enpresena baino txikiagoa da.

Nolanahi ere, datu horiek eta softwarean egindako inbertsioa erkatu behar ditugu; izan ere, inbertsio horri dagokionez, azken urteotako bilakaera beherakorra izan da eta gertaera horrek zuzeneko lotura dauka gure gizarte- eta ekoizpen-ehunaren ahalmenarekin zenbait ekoizpen-eredutarantz bilakatu ahal izateko, esate baterako, 4.0 industriarantz.

10 Patenteen gaineko Lankidetza Ituna.

Administrazio elektronikoari gagozkiola, Euskadiko Agenda 2015ean proposatutako helburuak nekez beteko dira herritarren arloan. Enpresen arloan, berriz, hobekuntza-alde handia dagoen arren, bilakaera askoz ere hobea da.

Aurreko guztiaren ondorioz, EGABek uste du berebiziko garrantzia daukala laguntze-neurriak sustatzea administrazio elektronikoa herritarrengana eta enpresetara zabaltzeko helburuz, horixe baita informazioaren gizartearen eta ekonomia digitalizatuaren zinezko eragilea.

2.4. LAN-MERKATUA

Enplegua sortzen hamabost urte eman ondoren, 2009-2013 aldian ia-ia 100.000 lanpostu galdu ziren, hau da, guztizko lanpostu-kopuruaren % 10. 2014an, aldiz, laneratze-adierazleek adierazi zutenez, inflexio-puntua gertatu zen enpleguari dagokionez, bai eta Gizarte Segurantzan kotizatzen zutenen kopuruari dagokionez ere. Gainera, goranzko joera sendotzen joan zen urte osotik zehar. Emaitza hori itxaropentsua da, baina ñabardura batzuk azaldu behar ditugu.

Hasteko eta bat, enpleguaren hazkundea gertatzeaz batera, lanaldi partzialeko kontratuek eta behin-behineko lanek ere gora egin dute. 2014. urtean, Euskadin lan egiten zuten guztien % 14,7k lanaldi partzialean jarduten zuen, hau da, astean, 30 ordutik beherako lanaldian aritzen zen. Kopuru hori krisialdiaren aurrekoaren bikoitza da (% 7,6 2008an).

Behin-behineko lanei dagokienez, adierazi behar da 2014an sinatu ziren kontratuen % 5 baino gutxiago izan zirela lan-kontratu mugagabeak. Kopuru hori % 14,5 gutxitu da 2013. urteko kopuruaren aldean; aldi baterako kontratazioa, berriz, % 13,7 igo da eta, EUSTAT erakundearen datuen arabera, guztizko enpleguaren % 23,6 behin-behinekoa da (2013an, % 21,4 zen). Gainera, behin-behineko kontratuen batez besteko iraupena ere laburtu da: 2014an, 32 egunekoa izan zen (2103an, 46 egunekoa). Horren ondorioz, lan-txandatzea nabarmen igo zen. Biziki kezkatzekoa da kontrataturiko pertsonak urtean hainbatetan kontratatu izana. Hori dela ere, lan-txandatzearen ratioaren balioa 3,06 kontratukoa da urtean (2013an, 2,99 kontratukoa izan zen).

Bigarrenez, langabeziaren bilakaera negatiboa izan zen 2014an; izan ere, enplegua egonkortu arren, langabeen kopurua hazi egin zen 2014an, biztanleria aktiboa ere igo zelako. Langabezia-tasa % 15 ingurukoa izan zen, baina urtearen amaieran, % 14,5ekoa izan zen, BJA (biztanleria jardueraren arabera) indizearen arabera.

Aurrekoez gain, beharrezkoa da iraupen luzeko langabezia-tasaren hazkunde esanguratsua azpimarratzea (urtebete baino gehiago langabezian), batez beste, langabeen % 65i eragiten baitie; 2013an, ostera, % 57,4ri eragiten zien. Multzo horren barruan, hazkunde izugarria izan zuen oso iraupen luzeko langabeen multzoak (bi urte baino gehiago langabezian). EAEn, langabeen % 40,7 egon ziren egoera horretan 2014ko ekitaldian. 2008ko ekitaldian, aldiz, 4 langabeetatik batek bakarrik ematen zuen urtebete baino gehiago lana aurkitzen.

Krisiaren iraupenaren ondorioz, pertsona askok langabeziagatiko prestazioa kobratzeko aldiak agortu dituzte. Eta gainera, gero eta zailagoa da eskubide hori berriro sortzeko behar den denboran lan egitea. Hain zuzen ere, urte bakarrean, prestazioen estaldura-tasa 7,7 puntu gutxitu da. Hala, 2014ko abenduan, % 47,3koa zen, eta prestazioen batez besteko kopurua ere jaitsi zen (% 2,9 azken urtean).

Azaldutako bilakaeraren ondorioz, gure lan-merkatuaren egoera oso ahula da, zerbait hobetu den arren; izan ere, behin-behinekotasunaren eta kontratuen iraupen eskasaren eraginez, horrela sortutako lanean hasten direnek nekez lortzen dute egonkortasunik. Era berean, oso kezkagarria da langabeziako egoeren kronifikazioa; gertaera horren ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoan, etxebizitza guztien % 5,6an (guztira, 48.400 etxebizitzetan), kide aktibo guztiak langabezian zeuden 2014an, eta, jakina denez, horrek ondorio kaltegarriak ekarri zizkien familia horien ongizateari.

Arazo horiek ikusita, enpleguko politika aktiboak are garrantzitsuagoak dira lan-merkatuan sartzeko eta gizarte ongizatea lortzeko funtsezko elementu gisa. Ildo horretan, urteari buruzko informazio gehiago ez daukagunez, ezin dugu botere publikoek egindako ahaleginaren gaineko iritzi gehiagorik eman.

Goian azaldutako lan-merkatuaren adierazleak aintzat hartuta, 2014ko emaitzen azterketa bateratuak argiro erakusten digu “enpleguaren harreman estandarra” izenekoaren paradigma azkartu eta egonkortu zela krisialdian, eta lan-merkatuaren beraren jardunbidea ere aldatu zela.

Gainera, gero eta beharrezkoagoa da industria-ekoizpenaren balioa aberastea industriari lotutako zerbitzuen bidez, eta 'serbitizazioa' deritzon estrategian oinarritutako ekimenak izugarri hazi dira, produktua bereizteko tresna den heinean. Testuinguru horretan, guztiz funtsezkoa da industriako enpresek produktu “ukigarriak” edo materialak jakintzari lotutako zerbitzu “ukiezinez” edo inmaterialez hornitzea, lehiakortasuna areagotzeko.

Horrek guztiak enpleguen ezaugarriak aldarazi ditu eta aldaketok politika aktiboetan islatu beharko dira. Izan ere, 10 urte barru ohikoak izango diren 10 lanbidetatik 8 oraindik ere ez dira ezagunak. Erabakimen publikoa dutenak auzi horretaz jabetu behar dira eta enplegua sortu eta enpleguari eusteko bideei ekin behar diete.

Hori dela eta, Ekonomia eta Gizarte Batzorde honek arestian aipatutako gertaerez ohartarazi nahi du, 2014ko ekitaldiko emaitzetan, batera gertatu zirelako lan-merkatua bera aldatzeko joera, ekoizpenaren teknifikazioaren eta ekonomiaren globalizazioaren ondorioz, eta azken urteotako lan-politiken inguruan hartutako erabakiak.

Gaur egungo ingurumari ekonomikoak ez dauka inolako antzik euskal egitura ekonomikoa osatzen duten enpresa gehienak sortu ziren testuinguruarekin. Hortaz, ekintzailetza sustatzeko ekosistema sortzea funtsezkoa izan daiteke gizarte eta enpresa bultzada lehiakorrak, aurrean ditugun erronkei heltzeko beharrezkoak diren ekoizpenaren eta gizartearen eraldaketa abiarazteko.

Beste alde batetik, lan-merkatuaren benetako ahalmen dinamikoa haztatzeko, komeniko litzateke hartutako enplegua eta hori lortzeko batez besteko denbora aztertzea, bai eta beste gertaera batzuk ere, hala nola, profesionalen migrazio-tasa, egun erabiltzen diren prestakuntza-mailak bereganatzeko ekoizpen-ehunak daukan ahalmenaren inguruko adierazlea baita, edo estatuko ordainsari handiak ekoizkortasun handiarekin bat ote datozen.

Gainera, gure lan-merkatua joera berriei jarraiki eta ereduzko herrialdeen bilakaeraren ildotik bilakatu behar dela iritzita, biziki jakingarria litzateke nazioarteko lan-merkatuen bilakaera sakon aztertzea.

Beste alde batetik, 2014ko ekitaldiko negoziazio kolektiboaren inguruko datuek berretsi digutenez, negoziazio kolektiboa moteldu egin da eta, azken bolada honetan gertatu denaren antzera, erabateko geldotasunak hartu du, batik bat, EAEko sektorekako negoziazioari dagokionez (ez da horrela gertatzen enpresa-negoziazioan, ezta estatuko sektorekako negoziazioan ere). Beraz, badirudi Euskadin indarrean zegoen ibilbide luzeko dinamika bat apurtzen ari dela. Dinamika horri esker, Euskal Autonomia Erkidegoko langile gehienak autonomia erkidegoaren itzalpeko ohiko arauketa batek estali izan ditu denbora luzean. Horren haritik, badirudi zalantzazko testuingurua etorriko dela etorkizunean, non gizarte-eragileak funtsezkoak izango diren, haien menpekoak izango baitira negoziazio kolektiboaren etorkizuneko estalduraren nondik norako nagusiak.

Kezka sorrarazten duen zalantzaz betetako ingurumari horretan, lan-gatazkei buruzko datuak oso deigarriak dira, gatazkak goitik behera urritu baitira gurean. Egoera korapilatsua, zaila eta zalantzaz beterikoa da eta, hortaz, zuhurtziaz eta tentuz erantzuten ari da.

2.5. DEMOGRAFIA ETA IMMIGRAZIOA

Lehen deskribatu dugun bilakaera demografikoa eta immigrazioak azken boladan honetan gure autonomia erkidegoan izan duen eragina aintzat hartuta (1998 eta 2013 urteen artean, EAEko biztanleria hazi zen atzerriko biztanleen etorrerari esker, aldi horretan, bertako biztanleria urritu baitzen), esan genezake eragin hori amaitu dela: kopuru absolutuetan hartuta, galera demografikoari aurre egin behar diogu eta egoera gero eta larriagoa izango da, lan egiteko adina duten gizarte-taldeak ere urritzen joango direlako eta adintsuen taldeak gero eta garrantzi handiagoa izango duelako.

Hazkunde begetatiboari gagozkiola, berriro ere azpimarratu behar dugu gure gizartearen jaiotza-tasa oso txikia dela, Europako herrialde gehienetan baino txikiagoa. Gurean, jaiotza-tasa erdira baino gutxiagora murriztu da azken hogeita hamar urteotan, eta aldaketa biziki esanguratsuak sorrarazi dizkio familiaren egiturari.

Familia, bizi izan dituen eraldaketak gorabehera, instituzio oso garrantzitsua da garapen pertsonalean eta pertsonek gizartean parte hartzeko prozesuan. Egia da gero eta askotariko familia gehiago dagoela, baina ez dirudi lehengo garrantzia galdu duenik.

Jaiotza-tasaren beherakadan eta familiaren eraldaketan eragin handiena izan duen gertakizunetako bat emakume ugariren laneratzea izan da. Emakumeen laneratzeak auzia sortzen du askotan: jarduera profesionala eta etxeko lanak, seme-alaben zaintza eta, sarritan, seme-alabak izateko itxaropena bera bateratu ahal izatea. Hain zuzen ere, gizon-emakume langileen % 45en iritziz, seme-alabak edukitzeak nabarmen oztopatzen du emakumeen lan-ibilbidea eta % 22ren aburuz, izugarri oztopatzen du. Gizonezkoen ustez, aurreko bi kategorien batura % 14 baino ez da. Horren aurrean, berriz ere diogu gure gizarteak dituen erronkek –lanerako adinean diren biztanleen kopurua gutxitzea eta populazioa zahartzea– erantzun orokorra eta zeharkakoa behar dutela; eta hori lortzeke dago oraindik ere estatuan eta EAEn. Ikuspegi integralik eza, politika zatituak eta sakabanatuak eta epe laburrerako ikuspegiaren lehenespena gainditu behar dira, gizarte-gertaera horren inguruko ikuspegi globala izateko: giza kapitala galtzen ari da eta horrek ageriko eragina du ongizate estatuaren iraunkortasunean epe ertainean eta epe luzean.

Lana eta familia bateratzeko estrategia egokienez galdetuta, euskal herritarren gehiengoak erantzun du, adinez txikikoak zaintzeko, onena litzakeela guraso biek gutxiago lan egitea eta zaintza-lanak partekatzea; dena dela, egiatan, etxetik kanpo lan egiten duten emakumeek denboraren erdia baino gehiago eskaintzen diete zaintza-lanei eta, askotan, (kasu guztien % 39,6an, 2013ko kontziliazioari buruzko inkestaren arabera) laguntza eskatu behar diete familiartekoei, batik bat, aitona-amonei, seme-alabak zaintzeko xedez, eskolako ordutegia amaitu eta gero.

Ekonomia eta Gizarte Batzorde honen ustez, euskal herritarrak, gizarte- eta ekonomia-eragileak eta botere publikoak arreta handiagoz jabetu beharko lirateke EAEn nagusi den lan-kontziliazioaren gaineko sistemaren egungo ahultasunaz, EBn eredu diren herrialdeek darabiltenaren aldean. Era berean, konturatu beharko lirateke sistema hori eragozpen ikaragarria dela EAEko giza kapitalaren ahalmena optimizatzeko. Horregatik, adostasunetik abiatuta, EAEko iraunkortasun demografiko eta ekonomikoari eusteko helburuz, lan-kontziliazioren gaineko politiketan sakontzea iradokitzen dugu.

Hala berean, oroitza-txosten honetan *"Osasuna eta osasun-sistema"* direlakoei eskainitako atalean esan dugunez, agerian dago bizi-itxaropen luzeagoak badakarrela desgaitasuna urte gehiagotan pairatzea; hori dela eta, gure iritziz, zaintzaileen lan-bizitza eta familia-bizitza uztartzeko aukera ematen dituen neurriak behar-beharrezkoak dira, seme-alabak ez ezik, familiako adinekoak ere zaindu ahal izateko, eta gizarte-politikaren arloko beste neurri batzuk ere beharrezkoak dira.

Beste alde batetik, immigrazioaz den bezainbatean, biziki kezkatzen gaitu etorkinen familien bizi-baldintzak piratzen ari diren narriadurak, batez ere, erkidegoz kanpoko pertsonen bizi-baldintzak. Horren haritik, esan behar da aipatutako taldearen pobrezia-tasa % 50 ingurukoa dela. Gizatalde bereziki kaltebera da eta ezin da bazterrean utzi ekimen publikoak diseinatzen direnean, guztion gutxieneko ongizate-maila bermatzeko xedez.

Hala eta guztiz ere, ikuspegi orokorra eztabaidatu eta finkatu beharko litzateke etorkinak hartu eta gizarteratzeko baldintzak onak sortzeko helburuz.

2.6. HEZKUNTZA ETA HEZKUNTZAREN SUSTAPENA

Batzorde honek ohartarazi nahi du matrikulazioari lotutako bi alderdi garrantzitsuri buruz. Alde batetik, Lanbide Heziketan izan den matrikulazioaren igoera (bai erdi-mailako Lanbide Heziketan, bai goi-mailako Lanbide Heziketan). Nolanahi ere, gehiago dira Batxilergoa hautatzen duten ikasleak goi-mailako Lanbide Heziketa hautatzen dutenak baino

DBH amaitzen dutenean. Bestea alde batetik, emakumeek lanbide-heziketako ikasketetan duten parte-hartzeari erreparatuta, esan beharra dago emakumeek gizonezkoek baino partaidetza txikiagoa dutela oraindik ere lanbide ikasketetan, batez ere profil teknikoko lanbide familietan. Gainera, laneratze handiagoa izaten dute ikasketa horiek.

Era berean, Zientzia eta Teknologiako Goi Mailako graduazio-tasak balio handia izan zuen 2011-12 ikasturtean (Europako herrialde guztietan, Irlandan izan ezik, izandakoa baino handiagoa), baina desberdintasun esanguratsuak agertzen ditu heziketa-zikloetan eta unibertsitate-ikasketetan, gizonezkoen aldekoak.

Bestela esanda,

- Alde batetik, hezkuntza-jokamoldeari dagokionez, argi dago Euskal Autonomia Erkidegoa goi-mailako irakaskuntzara bideratuta dagoela. Horren ondorioz, hezkuntza-lehentasunak "atzerantz" antolatzen dira; gertaera horrek, hein handi batean, Batxilergoaren eta LHren arteko hautua azaltzen digu. Eskariaren dimentsionamendua hobetu eta malgutu ahalko litzateke atarramentua hobeto koordinatuko balitz Goi Hezkuntzako Europako Esparruaren bidez (Bologna). Horretarako, egungo goi-mailako hezkuntzak daukan egitura lineala aldatu beharko litzateke (bertan, goi-mailakoa eta unibertsitatea sinonimotzat jotzen dira), malgutu eta inguruneak eduki ditzakeen unean uneko beharrizanei erantzuteko moldatu.

- Beste alde batetik, arestian aipatu dugun egitura linealak aintzat hartu beharko luke neska ikasleen jokamoldea aldatzeko beharrizana Lanbide Heziketako ikasketak aukeratzerakoan, parte-hartze handiegi baitute laneratze urriko lanbide-familietan; gainera, emakumezkoek ez dute prestutasun handirik erakutsi profil teknikoagoa duten ikasketak aukeratzeko, hau da, laneratze-maila handiena dutenak aukeratzeko.

Etengabeko prestakuntzari dagokionez, EAE osoko ahalegin esanguratsua antzematen den arren, komeniko litzateke ahalegin hori lanbide-kategorien arabera aztertzea, etorkizuneko ahaleginak hobeto bideratzearren.

Azkenik, aipagarria da ikasleko hezkuntza-gastua 2014ko ekitaldian murriztu den arren, gure erkidegoa dela ikasleko hezkuntza-gasturik handiena duena Espainiako estatuaren barruan unibertsitatez kanpoko hezkuntzari dagokionez. Nolanahi ere, deigarria da unibertsitate-hezkuntzan BPGren gaineko ehuneko txikienetakoa erabiltzen duen erkidegoetako bat dugu (% 0,75ekoa; estatuko batez bestekoa, aldiz, % 0,87koa da).

2.7. EAE-KO NATUR INGURUNEAREN EGOERA

Datuek erakusten dutenez, hobekuntza handiak izan dira azterturiko zenbait ingurumen-adierazletan. Hala, Eusko Jaurlaritzaren eta EINen datuen arabera, hobetu egin da airearen kalitatea azken urteetan, eta 2013an ona edo gutxienez onargarria da (egoera orokor horretan badira zenbait salbuespen, bereziki Urola Garaian, non, azken urteetan hobekuntza antzeman bada ere, ez den maila egokia lortzen); bainurako eremuen ezaugarri nagusia, aurreko urteetan bezala, uren kalitate bikaina da 2013an; hondakin arriskutsuen eta ez arriskutsuen sorkuntza eta kudeaketa jaitsi egin da 2012 eta 2013 bitartean, eta negutegi efektuko gasen isuriek behera egin dute energiaren eta industriaren sektoreetan.

Alabaina, beste adierazle batzuek ematen dituzten emaitzak, etengabeko hobekuntza izan arren, oraindik ez dira nahikoak. Halaxe gertatzen da lurrazaleko ur-masen kalitatearekin (ibaiak, lakuak, gune hezeak, trantsizioko urak eta kostaldeko urak), zeren eta horietan guztietan ez baitira betetzen ingurumeneko helburuak, Eusko Jaurlaritzaren arabera.

Ildo horretan, herritarrak gehiago jabearazi behar dira uraren “guztizko balio ekonomikoa” kontzeptuaz, Uraren Esparru Zuzentarauari jarraituz. Aldi berean, are ahalegin handiagoak egin behar dira, bereziki operadoreen aldetik (partzuergoak eta udalerriak) 2020ko Urari buruzko Europako Berrikuntzako Lankidetzara egokitzeko. Azken horrek, gainera, sinergiak dakartza Europa 2020 horren esparruan, eta zehazki osasunarekin, gizartearekin, ongizatearekin eta ekoberrikuntzarekin loturiko eremuetan.

Eta zerbitzuen, garraioaren eta etxebizitzen sektoreetako negutegi efektuko gasen isurien igoeraz ohartarazi behar dugu (Eusko Jaurlaritzaren datuen arabera), baita banaketako sare publikoetan oraindik izan diren etengabeko galerez ere. Izan ere, horien ondorioz, errendimendu txikia dute EAEko hornidurako hiriko sare gehienek eraginkortasunaren aldetik (kontrolaturiko ur bolumena hiriko hornidura-sarean txertaturiko ur bolumenaren aldean), EINek eginiko "*Uraren hornidurari eta tratamenduari buruzko inkesta*"-ko datuen arabera.

Dudarik gabe, ahaleginak egiten ari dira norabide egokian. Alabaina, ahalegin horiek ez dira ahuldu behar, alderantziz baizik, zeren eta oraindik bide luzea baitago egiteko. Horregatik, Euskadiko EGABek beharrezkotzat jotzen du herritarrak sentsibilizatzen jarraitzea, baita hiru aldagaiak (ingurumena, gizartea eta ekonomia) modu egokian uztartzeko diren ekoizpen-prozesuak abian jartzea ahalbidetzea ere.

2.8. BIZI-BALDINTZAK

Lehenengoz eta bat, 2014ko ekitaldiko Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestan jasotako datuen arabera, euskal familien bizi-baldintzek okerrera egin dute. Adierazle orokorrena hartuta, esan dezagun Euskadiko biztanleen % 5,9k, 127.000 pertsonak, (benetako) pobrezia pairatzen dutela, hau da, 2008an baino % 42 gehiagok. Gainera, ongizatearen gabeziak (hots, gure gizartean espero den gutxieneko ongizate-mailari eusteko gastu-beharrizanen neurria), biztanleriaren % 11,5i eragin zien 2014an, hau da, ia-ia 250.000 pertsonari.

Gainera, inkestak erakusten duenez, EAEko biztanleriaren banaketaren jarraipena eginez gero ongizatea-pobrezia eskalaren arabera (benetako pobreziaren gaineko adierazlea aintzat hartuta), krisialdiak kolokan jarri ditu azken biurtekoan 2008. urtera arte lortutako aurrerapenak eta, ildo horretan, beheranzko mugikortasun-gertaerak antzeman dira lehen aldiz Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta egiten denetik. Gertaera horiek bateragarriak dira –baita krisialdian ere– inolako gabeziarik gabe erabateko ongizate-egoera duten pertsonen garrantzi erlatiboaren hazkunderantz egiten duen joera historikoarekin.

Beste alde batetik, erabateko ongizatetik apenas aldentzen diren ezaugarri ertainak dituen taldeak apurka-apurkako hazkundea izan zuen gizarte-egituraren barruan joan den hamarkadako erdialdera arte eta, 2004. urtean, % 41,4ra heldu zen. Urte horretatik aurrera, gainbehera hasi zen. Alabaina, orain arte gertatu ez bezala, aipatutako taldeak 2012 eta 2014 urteen artean izan zuen jaitsiera, gehienbat, beheranzko mugikortasunaren ondorioz gertatu zen, ez goranzko mugikortasunaren ondorioz. Gertaera hori kezkatzekoa da Batzordearen ustez.

Europako ingurumarian, "*Europa 2020*" izeneko Estrategian ("AROPE tasa" deritzona) ezarritako irizpideen araberako pobrezia- eta bazterkeria-arriskuen eragina nahikoa apala da gure erkidegoan, Europako iparraldeko herrialde batzuek, kasurako, Suediak edo Finlandiak, dutenaren parekoa. Horrez gain, adierazle horrek dauzkan beste hiru osagaiak aztertuz gero, ohartuko gara Euskal Autonomia Erkidegoko egoera onuragarria guztietan ere agertzen dela.

Gizarte-babeseko eta birbanatzeko tresnak sortzeko helburuz, euskal gizarteak egindako ahalegin kolektiboaren adibide bikaina dugu emaitza hori. Tresna horiei esker, gizarte-kohesio aparta erdiesten da. Ildo horretan, behar-beharrezkoa da herritar guztiak sentiberatzea lurraldeak baliabideak sortzeko ahalmenari eusteko edo ahalmena areagotzeko garrantziaz (ekoizkortasun globala), egoera onuragarri horri eusteko (edo hobetzeko), Europako esparruaren barruan.

Egoera horren aurrean, Europar Batasunaren irizpenaren ildotik, EGABeko kideok berriz diogu pertsonengan eta hezkuntzan inbertitu beharra dagoela, enplegua sustatzeko politikak hobetu eta gizarte-babesen sistemen eraginkortasuna handitu, krisiari aurre egiteko eta ongizate-maila areagotzeko gure gizartean.

Euskadin, pobrezia energetikoa (oro har, etxeko beharrizanei erantzuteko behar besteko energiaren kantitatea ordaintzeko ezintasuna) gertaera nahikoa ezezaguna da. Hala eta guztiz ere, 2014ko PGDIko datuek erakusten dutenez,

pobrezia energetikoari lotutako arazoa areagotu da, nahiz eta beste autonomia-erkidego batzuetan daukan larritasunera iritsi ez den eta, oro har, Europako batez bestekoaren parean dabilen, baina kontuan hartu beharko da.

Horren haritik, bat gatoz Arartekoren irizpenekin. Irizpen horiek diotenez, beharrezkoa da pobrezia energetikoaren aurkako euskal estrategia diseinatzea, arazoa gizarte-eztabaidan txertatzea eta egungo eredu energetikoaren gaineko hausnarketa orokorra egitea.

Beste alde batetik, esan behar da egungo krisialdiak bereziki eragin diela gazteei, gogor eta larriki, Euskadin nahiz Europa osoan. Gaur egungo gazteek oso aukera urriak dituzte laneratzeko eta arazo horren tamaina ikusita, langabezia-tasa murriztea eta, bereziki, gazteen langabezia-tasa murriztea erabateko lehentasunezko helburu bilakatu da.

Orokorrean, ikasketa-maila garrantzi handiko babesa da langabeziaren aurka; hori horrela, langabeak enpleguari heltzeko behar den moduan gaitzen dituzten enplegu-politika eraginkorrek berebiziko garrantzia dute, lanik ez dutenek merkatuak eskatzen dituen trebetasunak eskura ditzaten. Gainera, aipatu beharra dago orain dela gutxiko ikerlanen arabera ondorioztatzen dela hurrengo hamarkadan behe-mailako prestakuntza daukaten gazteak lan-merkatutik kanpo geratuko direla eta kualifikatuenek askoz aukera gehiago izango dituztela.

EGABen iritziz, oso kezkagarria da 30 urtetik beherakoen langabezia-tasak Euskadin izan duen bilakaera; izan ere bost bider handiagoa da krisialdia hasi zenetik eta, gainerako, Europar Batasuneko erreferentziazko herrialdeetako tasatik oso urrun dago. Horregatik, lehentasunezkoa da hazkuntza- eta gaikuntza-politika indartsuak garatzea, erakunde publiko eta pribatuen arteko lankidetzaren bidetik. Bestalde, jarduera ekonomikoa eta enplegua sustatu behar dira gazteek lan-merkatura sartzeko aukera izan dezaten, horixe baita gazteak emantzipatzeko eta talde horren gizarte-bazterkeria zeharo murrizteko bermerik handiena, arrisku handiak baitituzte orain eta etorkizunean. Gainera, gazte kalteberenen egoera ere aintzat hartu behar da, kasurako, lanik ez dutenena eta hezkuntza-sistematik at daudenena, orain dela gutxi emantzipatu direnenena eta/edo etxean umeak dituztenena eta bazterkeria-egoera duten etxebizitzetan bizi diren gazteena.

Azkenik, gazteez ari garela, etxebizitza eskuratzeko datuek argiro erakusten dute alokairua sustatzen duen etxebizitza-politika eraginkorra funtsezkoa dela gazteentzat, zehatzago esanda, gizarte-alokairua sustatzen duen etxebizitza-politika eraginkorra, beraien emantzipazioa errazteko lan-merkatuaren eta etxebizitzen egungo baldintzen aurrean.

2.9. OSASUNA ETA OSASUN SISTEMA

Pozez jakin dugu, Euskal Autonomia Erkidegoko 2013ko Osasun Inkestako datuen arabera, EAEko biztanleen bizi-itxaropena areagotu dela gizonezkoentzat nahiz emakumezkoentzat. Hala ere, ohartarazi behar dugu menpekotasunik gabeko bizi-itxaropenak (MGBI) eta mendekotasuna duten pertsonen bizi-itxaropenak (MBI) azken urteotan izan duten bilakaeraz. Hala, MGBI 69,3 urtekoa izan zen gizonezkoentzat 2013. urtean eta 73,1ekoa emakumezkoentzat, hau da, 0,3 urte murriztu zen gizonezkoei dagokienez eta 1,8 urte emakumezkoei dagokienez, 2007ko datuen aldean. Era berean, mendekotasunaren eraginpean bizitzeko aldia 1,7 urte igo zen gizonezkoetan eta 3,1 urte emakumezkoetan.

Bestela esanda, bizi-itxaropena hazi egin da gure erkidegoan, baina hein handi batean, emakumeen mendekotasuneko bizi-esperantzaren igoeraren kontura hazi ere (10,2tik 13,3ra igo zen emakumezkoetan eta 8,6tik 10,3ra gizonezkoetan).

Egoera horri irtenbidea emateko, behar-beharrezkoa da zahartze aktiboa sustatzen duten politika publikoak bultzatzea, halakoek sorraraz baititzakete gizarteratze-era berriak nagusientzat, bai eta jarduera ekonomikoaren hobi berriak azaleratu ere. Aldi berean, egungo testuingurua lan-esparruan neurriak hartzeko eske dabil, zaintzaileen laneko eta familiako bizimodua uztartu eta bateratu ahal izateko eta, bestetik, gizarte-politiken arloari lotutako beste neurri batzuk hartzeko iradokitzen du.

Aldi berean, biztanle adintsuak gero eta gehiago diren eta zahartzeari lotutako gaixotasunak ugaritzen direneko ingurumari horretan, menpekotasun-harreman berriak sortzen dira eta gizarte- nahiz osasun-arretaren eskakizuna igotzen da, bai eta horrek dakarren gastuaren zenbatekoa ere. Nolanahi ere, on deritzogu osasun- eta asistentzia-arloan egindako ahalegina BPGren gaineko % 5eko tasari eusteari 2013. urtean. Bestalde, komenigarria izango litzateke, gure aburuz, e-osasunari gero eta garrantzi handiagoa ematea osasun-zerbitzugintzan, horrek ahalbidetuko baitu, inolako zalantza barik, gure osasun-sistemaren eraginkortasuna eta eragingarritasuna hobetzea.

Ildo horretan, egokitzat jotzen dugu politika publikoek herritarrak sentiberatu, prestatu eta haiei informazioa eskain diezaieten, biztanleria adikorrago izan dadin aukera horren aurrean, jarrerari zein jakintzari dagokienez.

2.10. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA

Higiezinen merkatuaren bilakaera oraindik ere doikuntza betean dabil, 2008an hasitako krisialdiaren eraginez. Dena dela, aipatzekoa da bigarren eskuko etxebizitzen eskaintza hazi dela; ez, ordea, etxebizitza berrien eskaintza, ezta etxebizitza babestuen eskaintza ere. Gertaera horren isla dugu eraikuntza-jarduera, hasitako eta bukatutako etxebizitzen kopurua urterik urte jaitsi baita, eta horien bolumenak behera egin du nabarmen balio txikienetara iritsi arte. Beherakada bereziki esanguratsua izan da etxebizitza babestuen kasuan.

Aurrekoaren ondorioz, eskaria ere doitu da eta etxebizitza eskuratzeko beharrizana izan duten pertsonen kopurua jaitsi da azken urteotan, gutxi gorabehera, % 40, familien finantza-ahaleginaren jaitsieraren baitan. Nolanahi ere den, etxez aldatzeko edo etxea birgaitzeko beharrizana adierazten duten familien kopurua areagotu da.

Horregatik guztiagatik, EGABen aburuz, bigarren eskuko etxebizitzen merkatuaren susperraldia eta onartu den azken Plan Artezkariaren aurrekontu-mugapenak aintzat hartuta, are garrantzi handiagoa duela, une honetan, etxebizitza sustatzeko plan publikoak birgaitzera bideratzeak. Gainera, etxebizitzen merkatuaren inguruan egiten diren jarduketa publiko guztiek alokairua indartu beharko lukete, etxebizitza berrien nahiz etxebizitza erabilien alokairua, talde behartsuenek etxebizitza eskuratzeko modu errazagoa izan dezaten.

2.11. GIZARTE BABESA

EAE ez da krisialdiaren ondorioetatik libratu. Hala eta guztiz ere, gure erkidegoak egindako ahalegina azpimarratu nahi dugu eta, ildo horretan, esan behar dugu egoera onean dagoela gizarte-babesaren arloan Estatuko eta Europako esparruaren barruan, eroste-ahalmenaren parekotasunari lotutako biztanleko gastu-kopuruek adierazten duten moduan, EB27ko batez besteko balioen gainetik gaudela, Gizarte Babesaren Kontuko datuen arabera.

Gai horri lotuta piztu den eztabaida gorabehera, azpimarratu nahi dugu, 18/2008 Legearen garapenetik eratortzen den eta Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta funtsezko ardatz daukan Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak ahaleginari eutsi ziola 2014. urtean, gastuari nahiz laguntzen onuradun diren pertsona-kopuruari dagokienez, eta horrela, biziki lagundu duela gizarte-kohesioa josten eta familien beharrizan gero eta handiagoei erantzuten, gaur egungo egoeraren kariaz.

Datuak alderatuta, Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioak 2011n egin zuen "*Gizarteratzeko Gutxieneko Errentei buruzko Txostenak*" dioenez, euskal sistemak garapen handia dauka estatukoaren aldean, bai estaldurari dagokionez (34 prestazio mila biztanleko; Estatuan, berriz, 5,48 batez beste), bai laguntza horietara bideratutako funtsei dagokienez; izan ere, gure erkidegoak Estatuko funts guztien % 41,9 baliatu baitzuen urte hartan. Aldagai horiek, gainera, autonomia-erkidegoetako batez bestekoaren gainetik hazten jarraitu zuten azken urtean.

Hala eta guztiz ere, adierazi nahi dugu aipaturiko sistemak lanerako bidea erraztu behar duela, lan-merkatura sartzeko zailtasunak dituzten pertsonen laneratzea hobetuz politika aktiboen bidez.

Gainera, epe laburrean, baliteke babes-beharrizanek gora egitea, aintzat hartzen badugu gero eta pertsona gehiago dagoela langabeziagatiko prestazioa agortu ondoren (estaldura-tasa jaisten doa etengabe), enplegurik aurkitzeko zailtasunak dituztenak edo, aurkituta ere, ez dute behar besteko denboran lan egiten langabeziagatiko saria berriro kobratzeko eskubidea sorrarazteko. Ildo horretan, enplegu-zerbitzuen ahalmena ezinbesteko erronka da lan-merkatutik bazterturik geratzen diren pertsonen laneratzea ahalbidetzeko.

Beste alde batetik, ezin dugu ahaztu Gizarte Segurantzaren prestazioei lotutako pentsioen sistemak defizita daukala gure erkidegoan, eta gaur egun, kutxa bakarraren sistemari esker estaltzen dela. Defizitaren arrazoi nagusiak ditugu, alde batetik, gurean gertatzen ari den bilakaera demografikoa eta, bestetik, lan-jarduerak azken urteotan gure ekonomian izan duen beheranzko joera.

Zilegi da pentsatzea gure gizartea datozen urteotan areago zahartuko dela; horregatik, jarduera ekonomikoaren eta enpleguaren hazkunde egonkorra erdiestea ekonomia- eta gizarte-eragile guztien ahaleginak bideratzeko jomuga izango da, lehendik lortutako ongizate-estatuari eusteko modua bermatzeko xedez.

Horiek horrela, egungo estaldura-maila daukala gizarte-babesaren sistemari eustea erronka garbia izango da gure gizartearentzat, baina zinez espero dugu helburu hori bete ahal izatea.

Hori guztia orokorrean ulertu behar da, osasun, biztanleen zahartze, pentsio eta pobreziaren arteko loturak kontuan hartuta, halakoek gero eta presio handiagoa sorrarazten baitute gizarte-babesaren beharrizanetan.

GLOSATEGIA

DEFINIZIOEN GLOSATEGIA

I+G+b eta IKTak

- Enpresa berritzailea izango da inkestan kontuan hartutako tartean berrikuntzaren bat sartu duen enpresa.

- Berrikuntzatzat hartuko da produktu (edo zerbitzu) berria nahiz zeharo hobetua, prozesu berria, komertzializazio-metodo berria edo antolakuntza-metodo berria sartzea enpresaren barne-praktiketan, lantokiaren antolakuntzan edo kanpoko harremanetan. Berrikuntza guztien ezaugarri komuna zera izango da, aldaketa horiek dagoeneko sartuta egon beharko direla enpresaren lanean, hau da, merkatura atereak. Prozesu, komertzializazio-metodo edo antolakuntza-metodo bat sartuta dagoela esan daiteke modu eraginkorrean sartzen denean enpresaren eginkizunetan.

  Definizio hori kontuan hartuta, bi berrikuntza mota bereiz daitezke: berrikuntza teknologikoak eta berrikuntza ez teknologikoak. Berrikuntza teknologikoa produktu bat (ondasun bat edo zerbitzu bat, berria edo nabarmenki hobetua denean eta merkatuan sartuta dagoenean) edo prozesu bat (establezimenduan bertan prozesu berria edo nabarmenki hobetua ezartzea) izan daiteke, eta berrikuntza ez teknologikoak antolakuntzaren edo komertzializatzeko moduaren berrikuntzek osatzen dituzte.

- Jarduera berritzaileak dituen enpresa inkestan aztertutako urteetan berrikuntza-jarduerak garatu dituen enpresa da, abian diren berrikuntzak eta bertan behera utzitako berrikuntzak dituzten enpresak barne.

Lan-merkatua

- L.N.E. populazio aktiboa:

- Lanaren Nazioarteko Erakundearen arabera (LNE), ondasunak eta zerbitzuak ekoizteko lana egiten duten pertsona guztiak dira, eta une honetan lanik ez dutenak, lan bila ari direnak eta lanean hasteko prest daudenak. L.N.E. Populazio Landunarekin eta L.N.E. Populazio Langabetuarekin dago osatuta.

- L.N.E. populazio ez-aktiboa LNEren arabera, Populazio Aktiboa ez den populazioa da. Talde hauetan sailkatzen dira: Etxeko lanak egiten dutenak, ikasten ari direnak, erretiroan daudenak, pentsiodunak, errenta dutenak eta ezinduak.

- L.N.E. populazio landuna.LNEren arabera, ordaindutako lana duten, aparteko jarduera egiten duten eta lanean ari diren pertsona guztiek osatzen dute landunen populazioa, edo bestela, lanarekin lotura formala dutenak, edo opor, gaixotasun, laneko gatazka, gorabehera tekniko, eta abar direla eta lanean ez daudenak.

- L.N.E. populazio langabea. LNEren arabera, soldatapeko lanik edo lan independenterik ez dutenak dira, egun lan bila ari direnak eta lan egiteko prest daudenak.

  2002. urteaz gero, aldatu egin da definizio hori egingarri egiteko era, Europar Batzordearen 1897/2000 Araudiari jarraiki. Urte hartatik hona, langabetzat hartzen dira, aurreko baldintzak betetzeaz gain, aurreko lau asteetan araudi horretan aktibotzat jotako lan-bilaketarako kudeaketaren bat egiten duten pertsonak. Ez da bilaketa aktibotzat jotzen lan eskaera berritzeko izapidea edo prestakuntza ikastaroak direla-eta enplegu bulego publikoarekin kontaktatzea.

- Jarduera-tasa. Talde baten jarduera-tasa populazio aktiboaren barruan dauden talde horretako pertsonen proportzioa da. Ehunekoetan adierazi ohi da.

  P.R.A.n 16 urte eta gehiagokoen populazioaren (urteak eginak) gainean kalkulatzen dira.

$$Jarduera - tasa = \frac{\sum aktiboak}{\sum 16\ urtekoak\ eta\ gehiagokoak} x100$$

- L.N.E. okupazio-tasa. Talde bateko okupazio-tasa adin horretako guztizko populazioaren gaineko pertsona landunen proportzioa da. Ehunekoetan adierazi ohi da.
    - Bi adin-talderako kalkulatu ohi da tasa hori P.R.A.n

      Lehenik eta behin, 16-64 urte bitartekoen (urteak eginak) populazioaren gainean kalkulaturiko okupazio-tasa eskaintzen du web orriak bere tauletan, halako moldez non Eurostatek darabilen definizioarekin alderatu daitekeen.

$$Okupazio - tasa = \frac{\sum landunak}{\sum 16 - 64\ urte\ bitartekoak} x100$$

      Bigarrenik, Datuen Bankuak 16 urte eta gehiagokoen (urteak eginak) gainean kalkulaturiko okupazio-tasa eskaintzen du.

$$Okupazio - tasa = \frac{\sum landunak}{\sum 16\ urtekoak\ eta\ gehiagokoak} x100$$

    - Alabaina, Europa 2020 helburuari begira, 20-64 urtekoen tartea da.
- Langabezia-tasa. Langabezian daudenen talde horretako pertsona aktiboen proportzioari deritzo talde jakin bateko langabezia-tasa. Ehunekoetan adierazi ohi da.

  16 urtekoen eta gehiagokoen gainean (urteak eginak) kalkulatzen dira P.R.A.n.

$$Langabezia - tasa = \frac{\sum aktiboak}{\sum langabeak} x100$$

Hezkuntza eta hezkuntza promozioa

- Lanbide Heziketa.

  Lanarekin eta lan-merkatuarekin lotuago dauden ikasketen multzoa da Lanbide Heziketa, eta gaur egun, pertsonaren bizitza aktiboan gauzaturiko prozesutzat hartzen da. Izan ere, Lanbide Heziketa da eskolarako adinean dauden gazteentzako berezko "heziketa arautua" nahiz lanean ari diren langileentzako "enplegurako prestakuntza" edo lanbide "gaitasunaren aintzatespena".

  Honelaxe dago antolaturik hezkuntza sistemako Lanbide Heziketako irakaskuntza: Hasierako lanbide prestakuntzako programen (HLPP) lanbide modulu espezifikoak, gradu ertaineko prestakuntza zikloak, goi mailako graduko prestakuntza zikloak eta, etorkizunean, espezializazio ikastaroak.

Lan-merkatuan arrakasta nabarmena duten 140 titulazio biltzen ditu Lanbide Heziketak. Tituluak 26 "ADAR" edo "ARLO"-tan sailkatzen edo taldekatzen dira. ADAR bakoitzak esparru teknologikoa eta ekonomikoa dakar, eta adar horren barruko zikloak partekatzen dute esparru hori. 26 Lanbide Arlo bakoitzaren baitan, gradu ertaineko eta goi mailako prestakuntza zikloak daude, hurrenez hurren TEKNIKARI eta GOI MAILAKO TEKNIKARI tituluak ematen dituztenak.

Gizarte babesa

- Adin-bereizkeria. Adin-bereizkeria, ingelesezko “ageism” ere deritzona (aldi berean, Europar Batasunak «edaismo» itzuli du termino hori) adinaren ziozko pertsonen estereotipifikazioa eta diskriminazioa da. Pertsonak adinaren arabera diskriminatzea zuritzeko sinesmenak, arauak eta balioak biltzen ditu.